

# EAEko IMMIGRAZIOARI BURUZKO 2010eko URTEKARIA

Gorka Moreno Márquez  
Xabier Aierdi Urraza  
(koord.)



**ikuspegi@k**

Gizarte Gaien Behatokiak  
Observatorios de Asuntos Sociales



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



**ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAHULA  
Immigratiozuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES  
Dirección de Inmigración





# EAEko IMMIGRAZIOARI BURUZKO 2010eko URTEKARIA

Gorka Moreno Márquez  
Xabier Aierdi Urraza  
(koord.)



**ikuspegi@k**

Gizarte Gaien Behatokiak  
Observatorios de Asuntos Sociales

Argitaraldia: 2011ko urria  
Ale-kopurua: 500 ale  
Argitaratzailea: Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Diseinua: Taide Arteta, Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Imprimaketa: ITXAROPENA, S.A.  
Araba kalea, 15. 20800 Zarautz (Gipuzkoa)  
ISBN: 978-84-9860-560-0  
Lege-gordailua: BI-2759-2011

# Aurkibidea

<b>Hitzaurrea.</b> <i>Miguel Ángel González, Eusko Jaurlaritzako Immigrazioa eta Aniztasunaren Kudeaketako zuzendaria</i>	5
<b>Sarrera.</b> Immigrazioa Euskal Herrian 2010ean. Krisia, ziklo-aldaketa eta etorkizuneko erronkak. <i>Gorka Moreno eta Xabier Aierdi, urtekariko koordinatzaileak</i>	7
<b>1. Fenomenoaren hurbilketa estatistikoa.</b> Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokiaren ikerketa	11
1. EAEn erroldatutako populazio atzerritarra. <i>Maite Fouassier</i>	13
2. EAEn egoitza-baimena duten biztanle atzerritarrak. <i>Xabier Aierdi eta Gorka Moreno</i>	23
3. Langile atzerritarrak: afiliazioak, kontratuak eta enplegu-eskatzzaileak. <i>Gorka Moreno eta Eider Alkorta</i>	31
4. Atzerritar populazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman. <i>Gorka Moreno eta Arkaitz Fullaondo</i>	49
5. Ikuspegi@k Immigrazioa Barometroaren bilakaera: etorkinekiko jarrera. <i>Eider Alkorta</i>	59
6. Immigrazioarekiko Tolerantzia-indizea. <i>José Antonio Oleaga</i>	71
<b>2. Immigrazioarekin loturiko hainbat gairi buruzko artikulua</b>	<b>83</b>
1. Atzerritarren ugaltze-portaera. Euskal Autonomia Erkidegorako azterketa. <i>Unai Martín, Idoia García eta Marta Luxán</i>	85
2. Ikasle etorkinak eta hizkuntzak euskal eskolan. <i>Felix Etxeberria eta Kristina Elozegi</i>	97
3. Immigrazioa, hezkuntza-premiak eta diskurtsoak. <i>Amelia Barquín</i>	117
4. Euskara eta immigrazioa. <i>Mario Zapata</i>	123
5. EAEko etorkinen pobrezia-egoerak eta gizarte-desberdintasunak. <i>Amaia Izaola</i>	133
6. Bizitoki-aldaketak EAEn (2000-2009). <i>Beatriz Otero</i>	143
7. Jatorri atzerritarreko etorkinen elkartegintzaren ezaugarriak Bizkaian. <i>Maria Giulia Di Carlo eta Sara Maza</i>	163

8. Erlijioen arteko bizikidetza giza eskubideen ikuspegitik, gehiengoen-gutxiengoan testuinguruan: Bilboko metropoli-eremuko kasua. <i>Eduardo Ruiz Vieitez eta Gorka Urrutia</i>	169
9. Immigrazio kriminalizatua. <i>César Manzanos eta Dani Wagman</i>	183
10. Egunkariak eta gutxiengoak 2010ean. Kirola eta komunikabideak. <i>Peio Aierbe</i>	193
11. Kolonbiako familia transnazionalen diru-bidalketen eta bestelakoen zirkulazioa eta horrek garapenarekin duen lotura. <i>Trinidad Vicente, Amaia Unzueta eta Andrea Ruiz</i>	205
12. Atzerritarrentzako legeak egitea: gizarte-kohesioa sortuz. <i>Óscar Seco</i>	219
13. Urtebeteko balantzea, Atzerritartasun Legearen erreformaren ostean. <i>Mikel Mazkiaran</i>	225
<b>3. Intereseko beste geografia-eremu batzuei buruzko artikulak</b>	<b>231</b>
1. Etorkinen egoera Nafarroan. <i>Antidio Martínez de Lizarrondo</i>	233
2. Migrazioaren fenomenoak Andaluzian: azken aldian izan duen eboluzioaren gaineko datuak eta hausnarketak. <i>Sebastian Rinken</i>	243
3. Migrazioen joera berria eta Kanariar Uharteetan izan duen eragina. <i>Vicente Manuel Zapata</i>	253
<b>4. Etorkizunera begirako gogoeta eta aurreikuspenak</b>	<b>261</b>
1. Demografia eta immigrazioa Espainian: Analisi erreal eta zentzuduna. <i>Luis Die</i>	263
2. Krisialdiaren ondoren: immigrazioaren garai berria Espainian. <i>Miguel Pajares</i>	271
3. Immigrazioa eta bere etorkizuna. <i>Dirk Godenau</i>	275
4. Europaren etorkizuna jokoan. <i>Imanol Zubero</i>	281
5. Herritarrak eta mugikortasuna: Migrazioari buruzko ikuspegi bat etorkizunerako. <i>Antonio Izquierdo</i>	287

# Hitzaurrea

*“XXI. mendean ez dago atzerritarrik, bidaideak baizik”*

Amin Maalouf

Pertsonen mugikortasuna indar handiko fenomeno da mundu osoan, eta tokiko esparruan ere hautematen dira horren eraginak. Euskadi ez da salbuespena, ez da inoiz izan, ez eta izango ere. Azken urteotan, immigranteak iristearekin batera, aldatu egin da euskal kale eta plazen itxura. Immigrazioari esker, areagotu egin da euskal gizarteak jada bazuen pluraltasuna eta aniztasuna. Beti hartu izan dugu aintzat desberdinen arteko bizikidetzaren erronka –aniztasunean kohesioa izatearena–. Orain, ordea, beste ñabardura eta dimentsio batzuk agertu dira, eta horrek, zalantzarik gabe, zer egin ez dakigula uzten gaitu, eta kolokan jartzen dizkigu geure buruari buruzko eskemak nahiz formulak.

Ikuspegi@k-Immigrazioaren Euskal Behatokiaren adierazpen bat erabiliz, esan daiteke azken hamar urteak “migrazio-fluxuen urrezko hamarkada” izan direla: denbora labur horretan, pertsona askoren gizarte hartzailea izateaz gain, harrera-egilea ere izan gara. Hain zuzen ere, harrera egitearen esparruan egin dira erakundeek eta beste gizarte-eragile batzuen ahalegin handienak. Orain beste egora bat dugu aurrean. Jendea iritsi da *jada*, eta horietako asko geratzeko asmoz, migrazio-proiektu sendo eta bideragarriak dituztela. Jendea auzokide dugu *jada*, euskal gizartearen zati bereizezina da.

Testuinguru horretan, aurreko hamarkadan ez bezala, gizarteak eta erakundeek integrazioaren eta bizikidetzaren alde egin behar dute ahalegina, harrera egitearen alde baino gehiago. Immigrazioa aipatzean, hiru mugimendu egin behar direla esan nahi dugu: gizartea egoera berrira egokitzea, pertsonak ahalegintzea, eta erakundeek prozesu honetan politika publiko baten bidez laguntzea, horrela “gizarte integratua” lortzeko, “pertsona integratuak” baino gehiago, edo ez behintzat hori bakarrik.

Horretarako, inork ez du zalantzan jartzen enplegua eta hezkuntza baliabide pribilegiatuak direnik. Baina, gainera, ekonomia- eta produkzio-arloarekin zuzenean loturarik gabeko berebiziko beste dimentsio batzuk alboratzeko joera dago batzuetan. Gizarteak onetsi beharraz eta gizartearekiko identifikazioa egin beharraz ari gara. Eta hori zuzenean dago lotuta beste kontu batekin: zenbateko gaitasuna duten zerbitzu publikoek aniztasuna kudeatzeko, herritarren artean tratuerdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko moduan. Seguru asko, gizarteak eskainitako hezkuntza- eta sustapen-aukeretan eta gizarteak nahiz erakundeek familiei emandako tratuan

izango ditugu giltzarriak, immigrazioaren seme-alaba euskaldunak beren gizartearekin identifikatu ahal izateko.

Eta ibilbide hori egiteko, borondate sozial eta politiko sendoaz gain, ekipamendu intelektual bakarra beharko dugu, errealitateari bere ertz eta konplexutasun guztiekin begiratzeko eta errealitatea izendatzeko gai izan gaitzen. Horregatik, ongietorri beroa egin nahi diot Ikuspegi@k-Immigrazioaren urtekariari. Immigrazioaren Euskal Behatokiak, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen akordioaren fruitu denak, argitalpen honekin eman digu ekipamendu hori. Hemen, immigrazioaren alorrean bizikidetzari eta gizarte-integrazioari eragiten dioten alderdi guztien berrikuspen panoramiko eta sakona egiten da. Baina ez hori bakarrik. Horrez gain, etorkizuneko erronkei eta joerei buruzko ikuspegia ere ematen da.

Erabil dezagun baliabide hau, denon artean “gu” gero eta zabalagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko. Horretarako gai izan gaitzela espero dut.

Miguel González Martín

Immigrazioa eta Aniztasunaren Kudeaketako zuzendaria  
Eusko Jaurlaritza



**Sarrera**

## **Immigrazioa Euskal Herrian 2010ean.**

### **Krisia, ziklo-aldaketa eta etorkizuneko erronkak**

**Gorka Moreno**

**Xabier Aierdi**

**Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokia**

2010eko urtarrilaren 1ean 139.369 atzerritar zeuden EAEn erroldatuta, biztanleria osoaren %6,4. Datu hori Estatukoekin alderatuz gero, atzerritarren ehuneko txikiena duten autonomia-erkidegoen artean dago EAE (Gaztela eta Leonen eta Kantabrian %6,6 da atzerritarra), beste batzuen gainetik (Asturiasen %4,5 da atzerritarra eta Galizian %3,9) eta Estatuko batez bestekotik (%12,2) oso urrun. Hala, Espainian erroldatutako atzerritarren ehunekoa EAEkoa halako bi da.

Estatuan, 2010a inflexio-unetzat har daiteke migrazio-fluxuen prozesuan eta bilakaeran. Krisia 2008rako lehertu zen jada, baina 2010ean hauteman da argi eta garbi atzerritarren etorrerak behera egin duela. Hain zuzen, atzerritarren biztanleria %1,8 baino ez zen hazi Espainian joan den urtean, eta, areago, autonomia-erkidego batean, Errioxan, atzerritarren ehunekoa %0,5 murriztu zen.

2011n joera hori areagotu egin da eta beherakada Espainia mailan gertatu da: 2010ean 5.747.734 atzerritar ziren Espainian eta 2011n 5.730.667 dira; hots, %0,3ko beherakada izan da.

Nazionalizazioen prozesua areagotzen ari da azken urteotan eta horrek eragin nabarmena du datuetan eta, orobat, halako nahasmena ere sortzen du, baina hori horrela izanik ere, zifra horiek adierazten dute ziklo-aldaketa bat gertatzen ari dela migrazio-fluxuetan eta 1998 eta 2008 artean, *migrazio-fluxuen hamarraldi oparoan*, iritsitako atzerritarren oldeak ez direla berrituko aurreantzean.

EAEn, zenbait alde hauteman dira: 2010. urtean, atzerritarren hazkundera (%4,9) autonomia-erkidego guztietako bigarren altuena izan zen; Extremaduran baino ez zuten izan hazkunde handiagoa. Eta joera hori bera errepikatu egin da 2011. urtean ere. Itxura batean, datu horiek adierazten dute irits daitezkeen atzerritarren harrerak *gainezka* egin duela Espainia mailan, eta, aldiz, EAEn oraindik ere badela lekua.

Alderantzizko joera horiek azaltzeko hainbat faktore azpimarratu behar dira.

- Alde batetik, ez da ahaztu behar EAEko atzerritarren ehunekoa txikienetakoa dela; beraz, ez da harritzekoa urtetik urterako hazkunderik handienak, ehuneko aldetik, horrelako autonomia-erkidegoetan gertatzea.
- Bestalde, migrazio-fluxuak beste autonomia-erkidegoetan baino geroago gertatu dira EAEn; beraz, pentsatzekoa da fluxu horien moteltzea ere atzeratu egingo dela hainbat urtez.
- Gainera, EAEko gizartearen eta lan-munduaren egitura oso bestelakoa da beste autonomia-erkidego batzuetakoarekin alderatuta, eta krisiaren eragina apalagoa izan da inguruko erkidegoetan baino, are gehiago etorkinentzako lan-nitxo nagusietan. EAEn eraikuntzaren sektorea ez da hain garrantzitsua eta, beraz, kolektibo hori lan-merkatuan sartzeko sektore eta jarduera nagusiak hauek izan dira: etxeko lanak eta pertsonak zaintzea. Krisiaren eraginez eraikuntzaren sektorea gainbehera etorri da, baina zaintzaren arloan eragina ez da horrenbestekoa izan. Azken sektore horretan, itxuraz EAE erkidego erakar-garria da oraindik ere, nahiz eta aurreko urteetan adinako kopururik ez den izan.

Itxura batean, logikoa da pentsatzea krisi ekonomikoaren eragina eta langabeziaren hazkundera direla, hein handi batean, migrazio-fluxuen moteltzea eta, areago, zenbait kasutan beherakada, ulertzeko gakoak. Oso litekeena da ziklo-aldaketa gertatzea eta testuinguru horretan migrazio-fluxuek apaltzeko joera izango dute eta etorkinen *stocka* nabarmena izango da datozen urteetan. Panorama berri hori dela eta, beste era batera erantzun beharko zaio migrazioaren fenomenoari; izan ere, orain arte, epe ertainera eta luzera begirako estrategiaren oinarriak atzerritartasuna, fluxuak arautzea eta lehen harrera ziren, baina aurrerantzean beste estrategia bat baliatu beharko da, besteak beste alderdi hauek ardatz hartuta: aniztasuna kudeatzea, eta, batez ere, etorkinen kolektiboa eta bigarren belaunaldiak integratzea.

Orain arte ez da landu etorkinen kolektiboa integratzeko eredu argirik; *lanean oinarritutako berezko integrazio-eredu* moduko bat garatu dela esan daiteke. Krisia lehertu zen arte, kolektiboaren integrazioa ia berez eta modu automatikoan gertatu da, eta etorkin gehienek gorantz egin dute, egoera ezegonkor eta prekarioetatik abiatu eta, urteen joanean, hobera. Ikuspegi@k-Immigrazioaren Euskal Behatokitik *egonkortasun-continuum* esan izan diogu prozesu horri; izan ere, orain arte nabaria izan da goranzko joera hori. Hala, zenbat eta egonaldi luzeagoa egin jomugako herrialdean eta administrazio eta lan aldetik zenbat eta egoera hobea izan, orduan eta integrazio-adierazle hobeak dituzte etorkinek.

Delako *continuum* horrek krisia lehertu den arte funtzionatu du, enplegua izan baita goranzko ibilbide horren euskarri nagusia. Ikusteko dago krisiak zer-nola eragiten duen prozesu horretan eta datozen urteetan joera hori apurtzen den edo ez, batez ere azken urteetan iritsi diren etorkinen kasuan edo oraindik iristen ari direnen kasuan. Nolanahi dela ere, krisiaren aurretik, krisi betean eta krisiaren ondoren, etorkinen kolektiboa integratzeko ardatz funtsezkoetako bat izango da enplegua. Autobus baten edo atoiontzi baten lana egin izan du eta egiten du enpleguak kolektiboko kide gehienentzat, batez ere lehen belaunaldiko etorkinentzat; izan ere, gogor eta egoera oso prekarioan lan egiteko eskulanaren eskarian oinarritzen den integrazio-eredu hori aski izan daiteke lehen belaunaldi horretako kideentzat, betiere lana dagoen artean. Alabaina, eredu

horrek ez die, itxura batean, guztiz integratzeko bermerik ematen bigarren belaunaldikoei. Horrenbestez, lehen belaunaldiak aski zuen *autobusa* –enplegua– baina bigarren belaunaldiak eskatzen du *igogailuak* ere egokitzeko, kolektiboak gizartean mugitzeko eta gora egiteko aukera izan dezan. Kasu horretan, hezkuntzaren eta hezkuntza-sistemaren eginkizuna funtsezkoa da. Hain zuzen, horixe izango da datozen urteetan immigrazioa modu egokian kudeatzeko erronka handienetakoa: hezkuntza.

Prozesu hasi berria izanik, oraindik ere ez dugu datu zehatzik atzerritarren eskolatzeari buruz. Alabaina, datu batzuek kezka sortzen dute eta gaiari buruz hausnartzeko bidea eman beharko ligukete. Adibidez: Europar Batasunak berriki eginiko azterketa baten arabera, eskola uztearen tasa orokorra %31,2koa da Espainian, baina etorkinen artean, aldiz, %45ekoa. Horrelako datuek alarmak pizten dituzte eta hainbat mekanismo eta estrategia martxan jartzeko premia sortzen dute, bigarren belaunaldien egoera sozial ahula kroniko ez bihurtzeko, gatazka-iturri izan daitezkeen gunek murrizteko eta gizarte-kohesioari bide emateko.

EAEEn eskolatzeko-prozesua ez dago beste autonomia-erkidego batzuetan bezain aurreratua, eta, beraz, hainbat prebentzio-neurri har daitezke hurrengo belaunaldien gizarteratzea modu eraginkorragoan bideratzeko. Nolanahi ere, EAEEn bertan badira kezkatzeko moduko zenbait bereizgarri, eta beharrezkoa da horiei jarraipen berezia egitea. Adibidez: ikasle etorkinak zentro jakin batzuetan kontzentratzea, normalean publikoetan, edota kolektibo horretako ikasleen artean A eredu nagusi izatea (gaztelania komunikazio-hizkuntza duen eredu). Horren harira, kontuan hartu behar da gure inguruan euskara jakiteak beste baliabide osagarri eta positiboa eskaintzen duela gizartean mugitzeko eta gora egiteko.

Azken batean, bestelako egoera bat dugu aurrean, eta egoera horretan funtsezkoa da etorkinen kolektiboa integratzea, eta funtsezkoak dira, halaber, bi elementu hauek ere: enplegua lehen belaunaldiarentzat eta hezkuntza bigarrenarentzat. Gurasoek lana izatea eta ondorengoek hezkuntza-lorpenetan aurrera egitea integrazioaren adierazle dira. Horixe bera izan da barneko immigrazioen dinamika, eta eskema horrek berdin balio dezake gaur egungoentzat.

Bidegurutze moduko batean gaude: aurreko eredu agortu egin dela dirudi eta beste bat ari dela sortzen, oraindik guztiz zehaztu gabea, eta, hain zuzen, trantsizio horretan sortu da Euskal Herrian 2010. urteko datuekin Immigrazioari buruzko Urtekari bat lantzeko ideia. Gaur egungo egoera sakon aztertzea da urtekari horren helburua, baina, aldi berean, eta ahal den neurrian, etorkizunean etor daitezkeen eszenatokiei antzematea.

Ikuspegi@k-Immigrazioak landu du aurrez ere horrelako urtekaririk, 2004koa hain zuzen: kolektiboaren analisi estatistikoa eta kuantitatiboa egin zuen batez ere orduko hartan. Urtekari berri-tu honen asmoa da orduan hasitako lanari jarraipena ematea, eta, era berean, gure inguru hurbileko migrazio-fenomenoaren gaineko ezaguera osatzea eta hobetzea. Horretarako, estatistikak biltzeaz gain, diziplina askotatik eta ikuspegi eta arlo askotatik aztertu dugu Euskal Herrian izan den atzerriko immigrazioa. Hautatutako formatuan, era guztietako datuak jaso eta azaldu ditugu, eta, horrez gain, datuen gaineko gogoetari eta analisiari ere egin diogu leku. Laburbilduz, *balio erantsia* eman nahi izan diogu urtekariari, gaur egun zer gertatzen ari den eta etorkizunean zer gerta daitezkeen jakiteko eta argibide eta zantzu batzuk emateko balio dezan.

Egiturari dagokionez, urtekariak lau atal ditu:

1. Lehen zatia Ikuspegi@k-Immigrazioaren Euskal Behatokiak landu du. Euskal Herrirako eskura dauden 2010. urteko datu nagusiak jaso eta aztertu ditu atal horretan. Zehazki, datu hauek: eroldari buruzkoak, egoitza-baimenari buruzkoak, lan-merkatuari buruzkoak (Gizarte Segurantzako afiliazioak, kontratuak eta lanerako eskaera egin dutenak), hezkuntzari buruzkoak eta bertako herritarrek immigrazioari buruz duten iritzia (2010eko barometroko datuak eta Tolerantzia-Indizea).
2. Bigarren atalean, urtekariko zabalenean, Euskal Herrian immigrazioaren egoera zertan den aztertu da sakontasunez, hainbat ikuspegi eta arlotatik. Horretarako adituengana jo dugu, hainbat gairi buruzko beren iritzia eta hausnarketa eskatzeko. Besteak beste, gai hauek jorratu dituzte adituek: demografia, ikasle etorkinak, euskara, pobrezia eta desoreka sozialak, bizitoki-aldaketak, elkartegintza, kultura-aniztasuna, herritarren segurtasuna, komunikabideak, diru-bidalketak eta indarrean den legedia.
3. EAeri buruzko informazioa osatze aldera, interesgarria iruditu zaigu hurbileko beste autonomia-erkidego batzuetan immigrazioaren egoera zein den jakitea, eta, horrela, migrazioaren fenomenoak Espainian zein anitza eta askotarikoa den azpimarratzea. Atal hori egiteko hainbat erakunde izan ditugu lankide: Immigrazioaren Nafarroako Behatoki Iraunkorra (OPINA), Migrazioen Andaluziako Behatoki Iraunkorra (OPAM) eta Immigrazioaren Tenerifeko Behatokia (OBITEN).
4. Azkenik, epilogo modura, aurrera begirako gogoetak jaso dira azken atalean, eta etorkizuneko aurreikuspenetan sakondu da. Hala, urtekararen azken atal horretan, migrazio-fenomenoaren inguruan etorkizunean zer joera izan daitekeen aztertu dute fenomeno hori sakonetik ezagutzen duten hainbat adituk, esan bezala mira etorkizunean jarririk.

Euskal Herriko Immigrazioari buruzko 2010eko Urtekararen sarrera hau amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu beren ekarpenen bidez lan honetan parte hartu duten guztiei. Oso interesgarriak izan dira jasotako ekarpen guztiak eta horiek oinarri direla hezurramitu dugu urtekararen eredu hau. Datozen urteetan jarraipena izango duela espero dugu.

1

# Fenomenoaren hurbilketa estatistikoa

Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokiaren ikerketa





## EAEen erroldatutako populazio atzerritarra

Maite Fouassier Zamalloa

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

2010eko urtekarian EAEen eta lurralde historikoetan erroldatutako populazioan jarri da arreta, eta populazio horren bilakaera eta erroldaren azken datuak aztertu dira. Beraz, EAEen bizi den populazio atzerritarren ikuspegi orokorra aurkeztu da bertan.

1. taulan, EAEen populazio atzerritarrak izandako bilakaera ikusten da. Bertan ageri den moduan, populazioak ia 80.000 pertsona gehiago ditu. Bertako populazioaren bilakaerari begiratu gero, ikusiko dugu pixkanaka beherantz egin duela; aldiz, populazio atzerritarrak epe berean ia 125.000 pertsona irabazi ditu, eta 2010ean orotara populazioaren %6,4 da. Beraz, hamabi urte hauetan egon den hazkunde demografikoa etorkinen populazioaren hazkundeari zor zaio, beste-la saldoa negatiboa izango baitzen.

1. taula. Bertako eta atzerritar populazioaren bilakaera, eta atzerritarren portzentajeak EAEen eta Espainian. 1998-2010

Urteak	Populazioa				Atzerritarren tasa	
	EAE	Bertakoa	Atzerritarra	Hazkundera	EAE	Espainia
1998	2.098.628	2.083.430	15.198		0,7	1,6
1999	2.100.441	2.083.648	16.793	1.595	0,8	1,9
2000	2.098.596	2.077.456	21.140	4.347	1,0	2,3
2001	2.101.478	2.074.040	27.438	6.298	1,3	3,3
2002	2.108.281	2.069.873	38.408	10.970	1,8	4,7
2003	2.112.204	2.062.973	49.231	10.823	2,3	6,2
2004	2.115.279	2.056.113	59.166	9.935	2,8	7,0
2005	2.124.846	2.051.952	72.894	13.728	3,4	8,5
2006	2.133.684	2.048.142	85.542	12.648	4,0	9,2
2007	2.141.860	2.043.336	98.524	12.982	4,6	9,9
2008	2.157.112	2.039.775	117.337	18.813	5,4	11,4
2009	2.172.175	2.039.310	132.865	15.528	6,1	12,1
2010	2.178.339	2.038.970	139.369	6.504	6,4	12,2
1998-2010	79.711	-44.460	124.171	124.171		


Iturria: EIN

Datu horiek 1. grafikoan daudenekin uztartzen baditugu, ikus daiteke Arabako populazio atzerritarren portzentajeen bilakaera nola nabarmentzen den EAEkoarekin eta beste bi probintzieta-

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

koekin alderatuz gero –hala ere, Espainian handiagoa izan da populazio atzerritarren hazkundea–. 2010ean Bizkaian zein Gipuzkoan %6koa da, EAEk duen datuaren oso antzekoa (%6,4); Araban, berriz, populazio atzerritarra %8,9ra iritsi da.


1. grafikoa. Populazio atzerritarren portzentajearen bilakaera Espainian, EAEn eta lurralde historikotan. 1998-2010



Iturria: EIN

EAEn dagoen populazio atzerritarren osakerari dagokionez, 2. grafikoa ikusten da azken 8 urte hauetan nola banatu den. Begi-bistakoa da urte guzti horietan talde ugariena latinoamerikarrek osatzen dutela; 2003an %46 ziren, eta 2006an eta 2007an %48,3 izatera iritsi ziren; baina azken urtean 4 puntu behera egin dute. Aipatu beharreko hurrengo taldea Europar Batasuneko kideek osatzen dute; talde berezia da, 2007tik aurrera ia 10 puntuko igoera baitu (%27,3), izan ere, kontuan hartu behar da Errumania eta Bulgaria orduan sartu zirela EBn estatu kide gisa. 2010ean %25,7ra jaitsi da.

2. grafikoa. Populazio atzerritarren osakeraren bilakaera EAEn, nazionalitate-eremuen arabera. 2003-2010



Iturria: EIN



Bestalde, Magrebetik zein Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik etorritako populazioa etengabe hazten joan da 2007tik aurrera, eta 2010ean %14,4ra eta %6,6ra iritsi dira, hurrenez hurren.

Hiru euskal probintzietako datuak beren artean eta EAEkoekin alderatzen baditugu (2. taula eta 3. grafikoa) desberdintasunak ikusten dira. Gaingiroki, esan daiteke Bizkaia latinoamerikarren populazioagatik (%48,6) nabarmentzen dela, Gipuzkoa europarregatik (%31,6) eta Araba bertan beste bi lurraldeetan baino magrebtar gehiago dagoelako (%25,8). Saharaz hegoaldeko afrikarren populazioa askoz baxuagoa da Gipuzkoan, eta asiarrek osatzen duten taldea antzekoa da hiru lurraldeetan.


Lurralde historiko bakoitzean populazio atzerritarra horrela banatuta egotea, hein handi batean, talde bakoitzaren lan-zokoari zor zaio. Lurralde bakoitzaren lan-beharren arabera, etorkinak batean edo bestean finkatzen joan dira. Urtekariko beste kapitulu batean lan-merkatuaren ezaugarriak sakon aztertzen badira ere, interesgarria da aipatzea hiru euskal probintzien artean badirela desberdintasunak, eta desberdintasun horiek direla-eta, lurralde batean nazionalitate jakin batzuetako pertsona gehiago dago nabarmen –adin eta sexu aldagaiak kontuan hartuta–, eta beste batean, aldiz, ez: Araban nekazaritzaren eraginez eta Gipuzkoan eta Bizkaian etxeko lanen sektorea dela-eta, batik bat.

2. taula. Populazio atzerritarra EAEn eremu geografikoaren eta lurralde historikoaren arabera. 2010

	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%	K	%
EB 25	19.475	14,0	3.844	13,6	8.733	20,6	6.898	10,0
EB 27	16.280	11,7	2.203	7,8	4.825	11,4	9.252	13,5
EB guztira	35.755	25,7	6.047	21,4	13.558	31,9	16.150	23,5
Europa, gainerakoa	4.102	2,9	1.092	3,9	1.787	4,2	1.223	1,8
Europa guztira	39.857	28,6	7.139	25,3	15.345	36,1	17.373	25,3
Magreb	20.002	14,4	7.280	25,8	5.132	12,1	7.590	11,0
Afrika, gainerakoa	9.189	6,6	2.001	7,1	1.277	3,0	5.911	8,6
Afrika guztira	29.191	20,9	9.281	32,9	6.409	15,1	13.501	19,6
Ipar Amerika	898	0,6	123	0,4	342	0,8	433	0,6
Latinoamerika	61.514	44,1	10.120	35,9	17.982	42,4	33.412	48,6
Amerika guztira	62.412	44,8	10.243	36,3	18.324	43,2	33.845	49,3
Txina	4.338	3,1	660	2,3	970	2,3	2.708	3,9
Asia, gainerakoa	3.440	2,5	868	3,1	1.354	3,2	1.218	1,8
Asia guztira	7.778	5,6	1.528	5,4	2.324	5,5	3.926	5,7
Ozeania	105	0,1	2	0,0	43	0,1	60	0,1
Herrigabeak	26	0,0	17	0,1	4	0,0	5	0,0
Atzerritarrak guztira	139.369	100,0	28.210	100,0	42.449	100,0	68.710	100,0

Iturria: EIN

3. grafikoa. Populazio atzerritarren osaeraren bilakaera EAEn, nazionalitate-eremuen arabera. 2010



Iturria: EIN

EAEn etorkin gehien dituzten nazionalitateei begiratuz gero (3. taula), hamar aurrenekoetatik bost latinoamerikarrak dira, eta populazio atzerritarren %30,6. Latinoamerikarren artean bi joera ikus ditzakegu: lurraldean finkatuta urteak daramatzaten taldeak, kolonbiarrak (%9,2), ekuadortarrak (%5,3) eta brasildarrak (%4,2) esaterako, eta geroago etorri diren beste batzuk, boliviarrak (%8,6) eta paraguaiarrak (%3,3), adibidez.

Hala ere, Europako nazionalitate bat da EAEn nagusi: errumaniarra, 15.217 pertsona erroldatuta. Dagoeneko 2008tik hona talde hori da lehen postua duena. Bigarren lekuan marokoarrak daude, eta Euskadin bizi den populazio atzerritarren %10,4 da.

3. taula. EAEn eta lurralde historikoetan 10 nazionalitate ugariak. 2010

	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia				
	K	%	K	%	K	%	K	%			
Guztira	139.369	100,0	Guztira	28.210	100,0	Guztira	42.449	100,0	Guztira	68.710	100,0
Errumania	15.217	10,9	Maroko	4.452	15,8	Portugal	4.330	10,2	Bolivia	9.924	14,4
Maroko	14.447	10,4	Kolonia	3.236	11,5	Maroko	4.290	10,1	Errumania	9.040	13,2
Kolonia	12.845	9,2	Aljeria	2.441	8,7	Errumania	4.247	10,0	Kolonia	6.652	9,7
Bolivia	12.048	8,6	Portugal	2.258	8,0	Ekuador	3.155	7,4	Maroko	5.705	8,3
Portugal	9.350	6,7	Errumania	1.930	6,8	Kolonia	2.957	7,0	Paraguai	3.368	4,9
Ekuador	7.406	5,3	Brasil	1.202	4,3	Nikaragua	1.905	4,5	Brasil	3.083	4,5
Brasil	5.824	4,2	Ekuador	1.173	4,2	Brasil	1.539	3,6	Ekuador	3.078	4,5
Aljeria	4.676	3,4	Paraguai	992	3,5	Bolivia	1.443	3,4	Portugal	2.762	4,0
Paraguai	4.627	3,3	Peru	738	2,6	Argentina	1.372	3,2	Txina	2.708	3,9
Txina	4.338	3,1	Pakistan	725	2,6	Frantzia	1.188	2,8	Senegal	1.848	2,7
Guztira 10	90.778	65,1	Guztira 10	19.147	67,9	Guztira 10	26.426	62,3	Guztira 10	48.168	70,1
Gainerakoak	48.591	34,9	Gainerakoak	9.063	32,1	Gainerakoak	16.023	37,7	Gainerakoak	20.542	29,9

Iturria: EIN


Dena den, ezin dugu ahaztu populazio atzerritarra nazionalitateka aztertzen dugunean nazionalizazioek eragin handia dutela estatistiketan; izan ere, gero eta atzerritar gehiagok lortzen du espainiar nazionalitatea, eta, beraz, populazio atzerritarrekin egindako estatistiketan ez dira gehiago azaltzen.

Lehenago hiru euskal probintzietako populazio atzerritarra eremu geografikoen arabera deskribatzen bazen, joera bera ikusten da zehazki nazionalitate nagusienak aztertuz gero (3. taula). Horrela, Araban populazio atzerritarren %15,8 marokoarra da, bigarren nazionalitatea den kolonbiarra baino 4 puntu ugariagoa (%11,5). Gipuzkoan Portugal dago lehenbiziko lekuan (%10,2), eta Bizkaian, berriz, latinoamerikar herrialde bat da ugariena, Bolivia (%14,4).

EAErekin alderatuta lurralde historiko bakoitzak dituen berezitasunei dagokienez, ikusten da Gipuzkoan dauden 10 nazionalitate ugarienen artean nikaraguarrena dagoela (%4,5), lurralde horretan finkatuta dagoen talde sendo bati esker, eta frantziarra (%2,8), Frantzia geografikoki hurbil dagoelako. Araban perutarrek eta pakistandarrak bederatzigarren eta hamargarren ugarietak dira, biak ere %2,6rekin. Eta Bizkaian Senegal azaltzen dela aipatu behar (%2,7).

Gorago aipatu bada lan-merkatuaren eskaerak nazionalitate jakin batzuk lurralde batean edo beste batean finkarazten dituela, osatzen diren familia- eta laguntza-sareek ere pilaketa horiek azaltzen laguntzen dute. Eta horren adibide da Gipuzkoan dauden nikaraguarrena, lurralde historiko horretako udalerrri gutxi batzuetan pilatzen baitira.

4. grafikoa. Populazio atzerritarra EAEn, eremu geografikoaren eta sexuaren arabera. 2010



Iturria: EIN

EAEn bizi den populazio atzerritarren beste ezaugarri bat sexuaren arabeko osaera da. 4. grafikoa ikusten denez, emakumeen (%48,4) eta gizonen (%51,6) arteko nolabaiteko simetria dago, baina eremu geografikoaren arabera begiratzen badugu, orekarik ez dago. Latinoamerikarren artean emakumezkoak gehiago dira, bertan bizi direnen %60,1, eta afrikar eta asiarrak herrialdeetako artean gizonzkoak, bi taldeetan %65etik gora.

Nazionalitatearen arabera (4. taula), gorago aipatu dena berresten da. Batetik, latinoamerikar herrialdeetako etorkinak gehienbat emakumeak badira ere, eremu horretako beste herrialde ba-

tzuk, zehazki EAEn urte gehiago finkatuta daramatzatenak, oreka erakusten dute, familiak berriz bildu baitira. Horrela, Ekuadorreko etorkinen populazioan emakumeak gehiago badira ere, oreka mantentzen du (%53,1); aldiz, Paraguitik duela gutxi etorri direnez, gehienbat emakumeak dira (%71,1).

Bestalde, afrikar herrialdeetakoak eta baita asiarren batekoak ere gehienbat gizonezkoak dira. Horren adibide dira Pakistan (%12,4) eta Maroko (%33,2). Azkenik, europar nazionalitate askok oreka-egoera mantentzen duela aipatu beharra dago, errumaniarrek (%47,9) eta frantziarrek (%47,1), besteak beste.


4. taula. EAEko nazionalitate ugarienen emakumetzea. 2010

Gizonak nagusi edota gehiengoa	%	Oreka	%	Emakumeak nagusi edota gehiengoa	%
Georgia	43,9	Hego Korea	54,8	Honduras	73,6
Bulgaria	42,0	Armenia	53,8	Paraguai	71,1
Herbehereak	41,0	Guatemala	53,1	Errusia	70,7
Belgika	39,9	Ekuador	53,1	Brasil	68,3
Lituania	39,1	Suedia	52,5	Japonia	67,5
Italia	38,8	Peru	52,5	Mongolia	66,1
Kamerun	37,5	AEB	51,2	Filipinak	65,9
Mauritania	37,3	Txile	51,0	Ekuatore Ginea	65,7
Erresuma Batua	36,7	Suitza	50,6	Dominikar Errepublika	62,8
Irlanda	35,4	Uruguai	50,6	Kuba	62,3
Bosnia Herzegovina	35,4	Txekia	50,4	Mexiko	60,5
Aljeria	34,5	Argentina	49,8	Bolivia	60,4
Ginea Bissau	34,2	Austria	48,9	El Salvador	59,7
Kongo (D.R.)	33,6	GUZTIRA	48,4	Venezuela	57,4
Portugal	33,4	Errumania	47,9	Kolonbia	56,8
Maroko	33,2	Angola	47,7	Ukraina	56,6
India	27,8	Polonia	47,6		
Tunisia	24,8	Frantzia	47,1		
Boli Kosta	23,7	Txina	47,0		
Ghana	17,9	Alemania	45,9		
Mali	15,0	Eslovakia	45,7		
Ginea	14,8	Nigeria	45,5		
Pakistan	12,4	Kongo	45,2		
Senegal	12,3				
Gambia	4,2				

Iturria: EIN

Adin-taldeen arabera, bertako eta atzerritar populazioaren arteko desberdintasunak begi-bistakoak dira (5. grafikoa). Desberdintasunak lan-adinarekin hasten dira nabarmentzen. EAEn bizi diren atzerritarren %54ak 25 eta 44 urte artean ditu, eta bertakoen portzentajea, berriz, %29,5 da. Adin-talde zaharretan kontrako joera erakusten dute, 65 urtetik gorako atzerritarren %1,8 baitira, eta bertakoak %20,4. Horrek erakusten du atzerritarren %84,1 lanerako adinean dagoela, 17 puntu bertako populazioaren gainetik.


5. grafikoa. Populazio atzerritarren eta bertakoaren banaketa adin-taldearen arabera EAEn. 2010



Iturria: EIN

Adierazitakoa EAeko populazioaren adin-piramidean ondo ikusten da, bertan adin-egitura desberdinak azaltzen baitira. Gizon zein emakumeetan populazio atzerritar gehiena 25 eta 35 urte bitarteko adin-tartean kokatzen da.

6. grafikoa. EAeko adin-piramidea. 2010



Iturria: EIN

Lurralde historikoen arabera, joera dagoeneko EAEn aztertutakoaren oso antzekoa da. Hemen soilik hiru lurraldeetako populazio atzerritarreko adin-taldeak erkatzen dira, sexuaren arabera (5. taula). Adin-tarte guztietan gizon gehiago dago kopuru absolutuetan, baina Bizkaian 45 urtetik gorakoak gehiago dira emakumeak. Araban, berriz, 16 urtez azpiko pertsonen portzentaje handiagoa dago (%17,6).

5. taula. Adin-taldeak sexuaren arabera, lurralde historikoetan. 2010

	Araba				Gipuzkoa				Bizkaia			
	Gizonak	Emak.	Guztira	%	Gizonak	Emak.	Total	%	Gizonak	Emak.	Total	%
0-5 urte	1.111	1.058	2.169	7,7	1.116	1.095	2.211	5,2	1.848	1.762	3.610	5,3
6-15 urte	1.429	1.371	2.800	9,9	1.906	1.744	3.650	8,6	3.376	3.231	6.607	9,6
16-17 urte	431	266	697	2,5	476	353	829	2,0	841	653	1.494	2,2
18-24 urte	1.808	1.790	3.598	12,8	2.702	2.667	5.369	12,6	4.757	4.443	9.200	13,4
25-44 urte	8.709	6.141	14.850	52,6	11.816	11.073	22.889	53,9	19.070	18.434	37.504	54,6
45-64 urte	1.977	1.721	3.698	13,1	3.282	3.265	6.547	15,4	4.221	4.967	9.188	13,4
65-74 urte	104	159	263	0,9	268	322	590	1,4	324	435	759	1,1
75 eta gehiago	47	88	135	0,5	150	214	364	0,9	131	217	348	0,5
Guztira	15.616	12.594	28.210	100,0	21.716	20.733	42.449	100,0	34.568	34.142	68.710	100,0

Iturria: EIN

Euskal Autonomia Erkidegoa probintzia, eskualde eta udalerriz osatuta dago; koadrilak, mankomunitateak, hiribilduak, herriak eta hiriak ere badaude. Horietako bakoitzak berezitasunak ditu bere egiturari, eta haietan bizi den populazio atzerritarren ezaugarriak asko aldatzen dira lurralde batetik bestera. Laburpen gisa, eta Euskadin dagoen populazio atzerritarren buruzko kapitulu honetan jasotako guztitik, EAEn eta erkidegoa osatzen duten lurralde historikoetan dauden joera nagusiak aipatuko ditugu.

1998an 15.198 atzerritar bizi ziren **EAEn**, populazioaren %0,7. Hamabi urte geroago, populazio atzerritarra %6,4 da. Hazkunde hori etengabea izan da, 2009tik aurrera aurreko urteetako eritmoa moteldu egin bada ere. Sexuaren araberako osaerak erakusten du urteak aurrera egin ahala oreka-egoera mantentzen dela; emakume eta gizonen arteko banaketa parekatua da, azken horiek zertxobait gehiago badira ere.

Eremu geografikoaren araberako banaketari dagokionez, hamabi urteren buruan mapa asko aldatu da. 1998an EAEn bizi zen populazio atzerritarren erdiak europar jatorria zuen, eta Latinoamerikatik etorritakoak soilik laurdena ziren. 2010ean bi talde horiek lekua trukatu diote elkarri: errolatutako atzerritarren %50 latinoamerikarrak dira eta %28,6 europarrak. Magrebekoei dagokionez, urteetan zehar beren %18ari eutsi diote, 2008tik hona aipatzeko moduko hazkundera egon bada ere.

Bestalde, nazionalitate ugarienen bilakaerak datu interesgarriak erakusten ditu. 1998tik 2001era arte portugaldarrak izan ziren nagusi. 2002an kolonbiarrek hartu zuten leku hori, eta 2008tik aurrera Batasuneko herrialde batekoak, errumaniarrak, daude lehen toki horretan, eta azken hiru urteotan %74,6 ugaritu dira. Errumaniarren pareko joera izan dute marokoarrek eta aljeriarrek, horiek ere azken hiru urteotan %67,5 eta %84,6 gehiago baitira, eta baita paraguaiarrek ere, %133 hazita. Aldiz, kolonbiarren kopurua %10,2 baino ez da hazi azken 12 urteotan. Hamar nazionalitate nagusienetatik soilik ekuadortarrak izan du hazkunde negatiboa, -%0,6.

Lurralde historiko bakoitzaren berezitasunei so eginez gero, **Araba** da, orotara duen populazioarekin alderatuta, populazio atzerritar gehien jaso duen probintzia. Aipatu behar da populazio atzerritarren gehiengo hiriburuan, Gasteizen, bizi dela. Lurralde horrek izandako etorkin-kopuruaren hazkundera EAEn igartzen dena baino lehenagokoa da, Estatuko eredutik hurbilago dago. Urte hauetan zehar, populazio atzerritarren gehienak gizonak izan dira, baina beti ere oreka baten barruan, inoiz ez baitira %55 baino gehiago izan. Ipar Afrikako jende-kopurua ere

aipagarria da –batik bat gizonezkoak dira–, eta, EAEko datuekin alderatuta, Latinoamerikatik etorritako pertsona-kopuruaren hazkundera txikiagoa da. Araban kolonbiarra izan da etorkinen nazionalitate nagusia, baina 2010etik aurrera marokoarrek hartu dute ugaritasunari dagokion aurreneko leku hori. Aldaketa hori azaltzeko orduan, aipatu behar da, batetik, kolonbiarrak lurraldean finkatuta daudenez, hainbatek espainiar nazionalitatea eskuratu duela; eta, bestetik, gero eta marokoar eta aljeriar gehiago dagoela.

**Gipuzkoa** da, bere aldetik, bere hiriburuan atzerritar portzentaje baxuena duen probintzia, %29,1 besterik ez. Hamabi urteren buruan populazio atzerritar hori %0,8tik %6ra igo da, EAEn gertatu den joera bertsuan. Osaerari eta bilakaerari dagokienez, Latinoamerikatik etorritako jendekopurua da deigarriena, 1998an %17,4 izatetik 2010ean %42,4 izatera pasatu baita. Datu hori europar populazio-portzentajearen jaitsierari kontrajartzen zaio, beste bi probintzietakoarekin alderatuta lurralde horretakoa izan arren ugariena. Hori erakusten dute 2010eko datuek: hamar herrialde nagusien artean bi europarrak dira, Frantzia eta Portugal; azken hori da, gainera, lurraldean nagusi, atzerritar guztien %10,2 portugaldarra baita. Sexu-banaketari dagokionez, oreka da nagusi, baina eremu geografikoaren arabera begiratuz gero, herrialde afrikarretako zein europarretako etorkinen artean gizonezkoak gehiago dira, eta, aldiz, latinoamerikarren artean, emakumezkoak.

Azkenik, **Bizkaia** da etorkin gehien duen probintzia; hala ere, lurraldean bizi den populazio osoari dagokionez, 2010ean atzerritarrak %6 baino ez dira, Gipuzkoan bezala eta EAEko datutik oso hurbil (%6,4). Hiriburuan, Bilbon, populazio atzerritarraren %41,3 bizi da. Populazio horrek lurraldean duen banaketari buruzko daturik aipagarriena da azken hamabi urteotan latinoamerikarren portzentajearen hazkundera; 2010ean Bizkaiko atzerritar populazio-talderik ugariena dugu, eta dagoeneko %48,6 dira. Izan ere, 2001etik hona nazionalitate ugariena kontinente amerikarretakoa da: 2007ra arte kolonbiarra, eta 2008tik aurrera boliviarra. EAEn gertatzen den moduan, sexuaren arabera populazio atzerritarraren banaketaren bilakaera oreka baten barruan dago.





## EAEn egoitza-baimena duten biztanle atzerritarrak

Xabier Aierdi Urraza

Gorka Moreno Márquez

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

2010eko Urtekariko kapitulu honetan, EAeko biztanle atzerritarren egoitza-baimenei dagozkien datuak ikertuko ditugu. Zehazki, lehen taulan, 1998tik 2010era arteko baimenei buruzko datuak aurkeztu eta eroldari buruzkoekin alderatu ditugu.

1. taula. EAEn erroltatutako eta egoitza-baimena bertan duen biztanleria atzerritarren bilakaera. 1998-2010

	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Errolda.	15.198	16.794	21.140	27.438	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	116.650	132.865	139.229
Baimenak	15.647	16.995	18.622	18.822	19.515	24.201	28.600	37.150	57.395	64.228	83.875	96.635	106.658
% Baimen.	103,0	101,2	88,1	68,6	50,8	49,2	48,3	51,0	67,1	65,2	71,9	72,7	76,6

Iturria: EIN (Estatistikako Institutu Nazionala) eta MTIN (Lan eta Immigrazio Ministerioa)

Aurreko taulan ikus dezakegunez, 2009ko abenduaren 31n EAEn egoitza-baimena duten biztanle atzerritarren kopurua 106.658koa da; beraz, erroltatutako pertsona guztien %76,6k egoitza-baimena du. Beste era batera esanda, EAEn bizi diren lau atzerritarretik hiruk baino gehiagok dute egoitza-baimena. Hortaz, herritarren artean atzerritar asko legez kanpo daudela nahiko zabalduta badago ere, errealitatea bestelakoa da, eta gehienek *badituzte paperak*.

Baimenen bilakaerari dagokionez, 1998an 15.647 ziren, eta 2010ean 106.658, ia sei aldiz gehiago. Kontuan izanik erroltatutako eta baimena duten pertsonen arteko harremana, hirualdi bereiz ditzakegu aipaturiko bilakaera horretan:

- Lehena, 1998tik 2000ra artean gertatzen da: une horretan EAEn ez dago hainbeste atzerritar, eta badirudi atzerritar gehienak administrazio-egoera erregularrean daudela eta, beraz, orduan zeuden legezko bideak erabili zituztela iristeko. Hain zuzen, 1998 eta 1999 urteetan, gehiago dira egoitza-baimena duten pertsonak erroltatutakoak baino; ez da ohikoa eta horrek estatistikak desoreka ditzake, edo adieraz dezake une horretan erroldatzea ez zela oso garrantzitsua geroagoko baimenak edo gizarte-eskubideak lortzeko.
- Bigarren fasea 2001 eta 2005 urte artekoa da, nahiz eta 2001 urtea lehen fasetik bigarreneko erdibidean egon. Aldi horretan, EAeko migrazio-fluxuek abiada hartu zuten, eta

urtero 10.000 pertsona baino gehiago erroldatu ziren. Hala ere, gehikuntza hori ez da islatzen egoitza-baimenetan: pisua galdu zuten erroldatutako pertsonen aldean, eta %48,3 izatera iritsi ziren 2004an. Horrela, 2002tik 2005era, gutxi gorabehera biztanle atzerritarren erdiak ez du egoitza-baimenik. Fase horretan ikus daiteke migrazio-fluxuak eta horiek arautzen dituen legeria elkarrengandik urrundu egin zirela, eta errealitatea legeak baino askoz ere aurrerago zegoela.

- Hirugarren fasea 2006tik aurrerakoa da, eta gaur egun arte iristen da. Aldi horretan, egoitza-baimena duten pertsonen ehunekoa hazi egin da erroldatuekiko, eta 2010ean %76,6ra iritsi da, ehunekorik altuena 2000. urteaz geroztik. Gainera, alde batera utzita lehen fasea ohiz kanpoko del, esan dezakegu EAEko erregulazio-tasarik altuena gaur egungoa dela, migrazio-fluxuen garaikoa. Joera hori azaltzeko, hazkunde horretan eragina izan duten bi faktore izan behar dira kontuan. Batetik, 2005eko ohiz kanpoko araupetzea, horrek ahalbidetu baitzuen Espainian egoitza-baimenik gabe bizi ziren atzerritarrek baimena lortzea. Hain zuzen, 2005etik 2006ra 20.000 pertsonak baino gehiagok lortu zuten baimena, eta ehunekoa %51tik %67,1era igo zen urtebetean. Bestalde, 2007ko urtarrilaren 1ean Europar Batasunean Errumania eta Bulgaria sartzeak ere dezente pertsona baimendun gehiago egotea ekarri du; izan ere, une horretatik aurrera, Europako herritar dira, administrazio- eta lege-aldaketaren ondorioz. Horrekin batera, legez kanpoko egoeran dauden pertsonak arautzeko mekanismoak desberdintasuna gero eta txikiagoa izatea eragiten ari dira, erroldatutako pertsonen eta egoitza-baimena dutenen artean. Zaila izan arren kopuru horietan guztietan krisi ekonomikoak izan duen eragina ebaluatzea, badirudi azken urtean EAEn erroldatutako pertsona-kopurua ez dela aurrekoetan bezainbeste hazi; baimenei dagokienez, aldiz, aurreko urteetako bidea jarraitu du. Horregatik, gerta daiteke krisiari eragin desberdina izatea kopuru batengan eta bestearengan, datozen hilabete eta urteetan.

Dena den, EAEko baimen- eta errolda-kopuruak estatukoekin eta beste autonomia-erkidego batzuetakoekin alderatuz gero, ikus dezakegu EAEko arautze-tasa dela guztietan txikiena –%76,6–, estatuko batez bestekoaren azpitik –%83,9–, bai eta beste autonomia-erkidego batzuetakoetatik ere, zeinak %100etik gertu baitaude: Aragoi, %99; Errioxa, %99,7; edo Nafarroa, %91,2.

2. taula. Espainian erroldatutako eta baimendun atzerritar biztanleria, autonomia-erkidegoaren arabera. 2010

	Erroldatzeak	Baimenak	Err./Baimen.
Espainia	5.708.940	4.791.232	83,9
Andaluzia	698.375	597.243	85,5
Aragoi	172.015	170.273	99,0
Asturias	49.149	40.749	82,9
Balearrak	241.704	202.365	83,7
Kanariak	305.661	239.312	78,3
Kantabria	39.010	36.161	92,7
Gaztela eta Leon	167.597	204.517	122,0
Gaztela-Mantxa	228.290	175.516	76,9
Katalunia	1.193.283	1.061.079	88,9
Valentzia	884.622	610.279	69,0
Extremadura	38.747	41.846	108,0
Galizia	109.222	90.738	83,1

(Hurrengo orrian jarraitzen du)

	Erroldatzeak	Baimenak	Err./Baimen.
Espainia	5.708.940	4.791.232	83,9
Madril	1.071.292	880.613	82,2
Murtzia	240.605	210.103	87,3
Nafarroa	70.931	64.687	91,2
EAE	139.229	106.658	76,6
Errioxa	46.342	46.211	99,7

Iturria: EIN eta MTIN

EAEko arautzea txikiagoa izatea, hein handi batean, biztanle etorkinak iristeari dagokionez bestelako eredu bati zor zaio. Autonomia-erkidego gehienek kasuan, EAEn baino urte batzuk lehenago gertatu zen etorkinak metaka iriste hori, EAEn azken 3-4 urteetan iritsi baitira gehien. Gertaera hori erabakigarria da; izan ere, gehienetan, biztanle atzerritarrak egoitza-baimenik gabe iristen dira eta, arautze-mekanismoen bidez, askok urte batzuk pasa ondoren lortzen dute baimena. Gizarte-errotzearen bidezko erregularizazioaren kasuan, esaterako, hiru urte behar dira baimena eskatzeko. Horregatik guztiagatik, espero izatekoa da EAEn arautze-tasa beste autonomia-erkidego batzuetan baino txikiagoa izatea, baina baita urte batzuk pasatu ondoren bi kopuruek batzeko joera izatea ere.

Dinamika hori bera antzeman daiteke EAEko arautze-tasetan, desberdintasun handiak baitaude nazionalitatearen arabera, batez ere herrialde desberdinetako jendea etortzearen eta finkatzearen ondorioz.

3. taula. EAEn erroldatutako eta bertan egoitza-baimena duen biztanleria atzerritarra, nazionalitatearen arabera. 2010

	Erroldatzeak	Baimenak	Err./Baimen.
Guztira	139.229	106.658	76,6
Errumania	15.290	15863	103,7
Maroko	14.386	11.473	79,8
Kolonbia	12.794	12.551	98,1
Bolivia	12.062	5.438	45,1
Portugal	9.365	8.872	94,7
Ekuador	7.374	7.815	106,0
Brasil	5.796	2.924	50,4
Aljeria	4.673	2.653	56,8
Paraguai	4.630	1.214	26,2
Txina	4.319	3.961	91,7
Peru	3.247	3.272	100,8
Argentina	2.975	2.089	70,2
Senegal	2.601	1.353	52,0
Italia	2.296	1.824	79,4
Frantzia	2.261	1.439	63,6
Nikaragua	2.254	428	19,0
Pakistan	1.974	1.281	64,9
Venezuela	1.951	1.160	59,5
Dominikar Errepublika	1.917	1.708	89,1
Kuba	1.910	1.811	94,8

Iturria: EIN eta MTIN

Taulan, erregularizazio-tasa altua erakusten dute EAera duela urte batzuk iritsi ziren pertsonen nazionalitateek. Horixe da Kolonbiaren kasua –%98,1–, Ekuadorrena –%106– edo Txinarena –%91,7–. Europako herrialdeen kasuan, lehen erakutsi bezala, Europako herritar izateak baimen-kopurua ere altua izatea eragiten du. Errumaniak, esaterako, %103,7 erakusten du, eta Portugalek %94,7. Kontrako aldean daude oraintsuago finkatu diren eta batez ere azken 2-3 urteotan iristen ari diren herrialdeak. Hori da paraguaiarren –%26,2– edo nikaraguarren –%19– kasua.

Beraz, begi-bistakoa da egoitza-baimenaren eta helburuko lekuan egondako denboraren arteko erlazioa. Horrela, egonaldi luzeagoei baimen-kopuru eta ehuneko altuagoak dagozkie, eta, alderantziz, egonaldi laburragoei oraindik egoitza-baimenik lortu ez duten pertsona-kopuru altuagoa. Hain zuzen, Boliviaren kasua paradigmaticoa da, duela gutxi iritsitako herrialdea izan arren, ez baita lehen aipaturiko bi kasuak bezain berria; 2010ean %45,1 erakusten du, baina 2007an %20,9, Paraguaiko edo Nikaraguako ehunekoen oso antzeratsu. Adibide horren bidez ikus dezakegunez, gehienetan ehuneko hori hazi egiten da urteen joan-etorriarekin, eta oso ehuneko baxuak zituzten herrialdeak, apurka, ehuneko altuagoa dutenengana elkartzen dira. Azken finean, egonaldiaren luzera oinarritzko osagaia da egoitza-baimena eta, hortaz, baita administrazio-egoera hobea lortzeko ere, horrek gizarte- eta lan-integrazioari dagokionez dakarrenarekin.

Horrek guztiak Ikuspegi@k-Immigrazioaren Euskal Behatokiak dagoeneko landua duen ideia batera garamatza zuzenean, *egonkortasun continuumera*, eta, horren arabera, egonaldia zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta hobea da administrazio-egoera, lan-txertaketa eta gizarte-integrazioa. Era horretan, continuumaren muturretako batean daude errolatuta ez dauden eta egoitza-baimenik ez duten pertsona atzerritarrak; Immigrazioaren Euskal Behatokiak atzerritarrei egindako inkesta baten arabera, biztanle atzerritar guztien %10-11 izan litezke. Bigarren mailan, errolatuta dauden pertsonak egongo liriateke, baina egoitza-baimenik ez dutenak. Kasu horretan, errolatzeak aukera ematen die zein unetan iritsi diren egiaztatzeko –garrantzitsua, gizartean errotzen direnen kasuan– eta, urtebete igaro ondoren, baita eskubide eta gizarte-zerbitzu batzuetarako aukera ere. Hala ere, ezin dute lan-kontratu bat lortu eta Gizarte Segurantzari kotizatu. Hirugarren mailan –horren barruan askotariko mailaketak daude–, egoitza-baimena duten pertsonak leudeke eta, hortaz, lan-kontratu bat lortu eta Gizarte Segurantzari ordain dezaketanak. Azkenik, beste muturrean leudeke espainiar nazionalitatea lortu duten pertsonak, eta, era horretan, bertakoen eskubide berberak lortu dituztenak –bozkatzeko eskubidea, kasu–.

Aurreko paragrafoan esandakoarekin lotuta, jarraian, egoitza-baimen motei dagozkien datuak analizatuko ditugu. Gaur egungo datuekin batera, 2006. urteari dagozkionak ere eskainiko ditugu, nola bilakatzen ari den alderatu ahal izateko; bigarren aldiz berritutako behin-behineko baimenek eta behin betikoek egonkortasun handiagoa adierazten dutela ulertuko dugu, bai egoitza-baimenei dagokienez eta baita gizarteratzeari eta lan-txertaketari dagokienez ere.

2010. urtean, behin betiko egoitza-baimena da guztietan pisurik handiena duena autonomia-erkidego guztietan. Kasu batzuetan, egoitza-baimen guztien erdia inguru dira, esaterako: Murtzian –%51–, Katalunian –%47,97– edo Valentzian –%46,8–. Beste aldean, aldiz, hasierako egoitza-baimena duten pertsonak daude, ehunekoak %6-8 ingurukoak baitira kasu guztietan, Asturiasen –%10,13– edo Euskadin –%9,54– izan ezik.

4. taula. Espainiako egoitza-baimendun biztanleria atzerritarra, motaren eta autonomia-erkidego batzuen arabera. 2006 (2005-12-31) eta 2010 (2009-12-31) urteak

	Guztira				Hasierakoa		Lehena		Bigarrena		Behin betikoa		Beste batzuk	
	2006		2010		2006	2010	2006	2010	2006	2010	2006	2010	2006	2010
	K	%	K	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Espainia	1.958.091	100	2.562.032	100	39,26	8,11	15,34	18,92	21,19	26,36	22,05	43,41	2,15	3,21
Andaluzia	195.558	100	258.587	100	47,51	9,04	10,79	17,76	21,38	26,50	18,12	41,88	2,20	4,82
Asturias	13.033	100	18.929	100	40,21	10,13	21,27	28,15	18,11	25,89	20,06	31,06	0,35	4,77
Katalunia	484.864	100	711.062	100	35,29	7,60	14,92	17,46	20,83	24,10	27,45	47,97	1,51	2,87
Valentzia	209.521	100	262.087	100	46,32	6,40	11,73	14,23	18,45	29,52	20,63	46,80	2,87	3,05
Madril	439.847	100	505.909	100	37,71	6,92	17,17	22,84	23,85	30,22	18,75	37,00	2,52	3,02
Murtzia	114.428	100	156.285	100	41,60	9,49	8,36	11,65	19,99	24,60	28,13	51,00	1,92	3,26
Nafarroa	32.300	100	39.484	100	30,50	7,49	19,58	16,42	26,43	26,76	20,96	45,73	2,53	3,60
EAE	39.114	100	61.996	100	40,11	9,54	17,86	23,27	18,54	27,95	19,08	33,70	4,41	5,54
Araba	9.718	100	15.644	100	27,62	9,24	25,09	21,70	20,95	20,51	22,40	45,06	3,94	3,48
Gipuzkoa	9.494	100	16.876	100	47,81	10,31	14,23	28,90	18,69	28,77	17,00	27,06	2,28	4,96
Bizkaia	19.902	100	29.476	100	42,54	9,27	16,06	20,87	17,29	31,43	18,44	31,47	5,66	6,96

Iturria: MTIN

Erreferentzia gisa 2006ko datuak hartu eta 2010ekoekin alderatuz gero, azpimarratu behar da aurreko paragrafoan erakutsitako ereduak guztiz alderantzizkoa dela, hasierako egoitza-baimenek baitute indar gehien eta beste hiru motak orekatuago agertzen baitira. Horrela, eta autonomia-erkidego batetik bestera kopuruak aldatu egiten badira ere, hasierako egoitza-baimenak %30 baino gehiago dira kasu guztietan, eta, batzuetan, %45 baino gehiago dira, esaterako Andaluzian –%47,51– edo Valentzian –% 46,32–.

Ikus daitekeen bezala, 4. taulan ageri diren datuek adierazten dute asko hobetu dela biztanle atzerritarren administrazio-egoera, *kalitaterik oneneko* egoitza-baimen motak baitira pisu gehien dutenak, egoitza-baimena duten pertsonen artean. Era berean, ikus daiteke autonomia-erkidegoen arteko desberdintasunak migrazio-fluxurik garrantzitsuenen etorreraren arabera direla, lan honetan lehenago erakutsi bezalaxe. Horrela, etorrera hori lehenago gertatzen den autonomia-erkidegoetan –Katalunian edo Valentzian, adibidez–, behin betiko egoitza-baimena duten pertsonen ehunekoak altuagoa da fluxu hori geroago gertatu denetan baino –Euskadin edo Asturiasen–. Azken horietan, aldiz, badirudi handiagoa dela lehen edo bigarren aldiz berritutako egoitza-baimenei dagokien pisua. Hasierako egoitza-baimenen pisurik txikiak, berriz, une honetan migrazio-fluxuak gutxitu egin direla erakusten du. Hori erroldatze-datuen bidez ere antzeman ahal izan da, eta autonomia-erkidego batzuek bertan bizi diren pertsona atzeritar guxtiago izatea ere ekarri du, lehen aldiz.

Datu horiek berak hartzen baditugu EAEko lurralde historikoetarako, bi eredu bereiz daitezke argi: Kantauriarra –Gipuzkoa eta Bizkaia buruan dituenak–, eta barrualdekoa –Ebroko arroarekin lotutakoa, Araba dagoena–. Lehen bien kasuan, fluxu nagusiak azken urteetan gertatu dira, eta horrek eragiten du behin betiko egoitza-baimenak Estatuko batez bestekoak baino pisu txikiagoa izatea. Arabaren kasuan, berriz, ehunekoak askoz ere gertuago daude Estatukoetatik, eta haien ereduak antzekoagoa da autonomia-erkidego mugakideekiko –Errioxa edo Nafarroa– Gipuzkoa edo Bizkaikoarekiko baino. Hain zuzen, Gipuzkoako behin betiko baimenen ehunekoaren –%27,06– eta Arabakoaren –%5,06– arteko aldea 19 puntuko da.

5. taula. EAEko egoitza-baimena duen biztanleria atzerritarra, motaren eta lurralde historikoen arabera. 2006 (2005-12-31) eta 2010 (2009-12-31) urteak

	Guztira				Hasierakoa		Lehena		Bigarrena		Behin betikoa	
	2006		2010		2006	2010	2006	2010	2006	2010	2006	2010
	K	%	K	%	%	%	%	%	%	%	%	%
España	1.958.091	100	2.562.032	100	39,26	8,11	15,34	18,92	21,19	26,36	22,05	43,41
País Vasco	39.114	100	61.996	100	40,11	9,54	17,86	23,27	18,54	27,95	19,08	33,70
Álava	9.718	100	15.644	100	27,62	9,24	25,09	21,70	20,95	20,51	22,40	45,06
Gipuzkoa	9.494	100	16.876	100	47,81	10,31	14,23	28,90	18,69	28,77	17,00	27,06
Bizkaia	19.902	100	29.476	100	42,54	9,27	16,06	20,87	17,29	31,43	18,44	31,47

Iturria: MTIN

Laburbilduz, etorrera-urtea oinarrizko osagaia da egoitza-baimen sendo eta bermatzaileagoa lortzeko, eta funtsezkoa txertatzea eta egonkortasuna hobek izan daitezkeen, lehenago *egonkortasun-continuum* delakoan azpimarratu dugun gisara. Aldi berean, osagai horretan oinarritutako desberdintasunak handiak dira autonomia-erkidegoen artean, eta gertutik jarraitu beharko da zein ondorio eta eragin duen krisiak atzerritarrengan, kontuan izanik egoitza-baimenei dagozkien gorabeherak. Beste era batera esanda, egoitza-baimen bermatzaileagoa duten pertsona atzerritarrek hobeto egin ahal izango diote aurre langabeziari eta langabeziak dituen ondorioei, atzerritartasunari eta egoitza-baimenei dagokienez; eta, alderantziz, interesgarria izan liteke ebaluatzea langabezia eragin handiagoa ala txikiagoa izaten ari den behin betiko egoitza-baimen gutxiago dituzten autonomia-erkidegoetan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, a priori, pentsa genezake oraintsuagoko etorrerak kolokan jar ditzakeela zenbait etorkin-talderen gizarteratze-prozesuak. Hala eta guztiz ere, egia da EAEn talde horrentzako lan-zoko nagusiek ez dituztela krisiaren eraginak beste autonomia-erkidego batzuetan bezainbeste jasan –esaterako, eraikuntza edo turismoa garrantzitsuagoak zirenetan bezainbeste–. Beste era batera esanda, pentsa genezake EAEn administrazio-sentotasuna eta kalitatea babes daitekeela ekonomia-krisiaren eta langabeziaren ondorioei hobeto aurre egiten ari zaion egitura ekonomiko batekin. Beste autonomia-erkidego batzuetan kontrako gerta liteke, nahiz eta *egonkortasun-continuum*ean datuak hobek izan, datu horiek neutraliza baitaitezke langabeziak etorkin-taldean eragin handiagoa izateagatik.

Egoitza-baimenen berrikuste labur honekin amaitzeko, sexuaren arabera bereizitako datuez hitz egingo dugu. Horretarako, egoitza-motak analizatzeko erabilitako eskema berbera jarraituko dugu. Hau da, hainbat autonomia-erkidegotako eta bi urtetako datuak aurkeztu dira, horrela, aldatze-mota bat baino gehiago egin ahal izateko.

6. taulan ikus daiteke egoitza-baimenen sexuaren arabeko banaketa ez dela gehiegi aldatu azken urteotan. Horrela, bai 2006an eta bai 2010ean, autonomia-erkidego gehienetan gizonezkoek pisu handiagoa dute, eta bide hori jarraitzen da urteetan zehar. Oro har, gizonezkoen pisua handiagoa izan ohi da baimenei dagokienez erroldatzeari dagokionez baino, batez ere jardueraren eta enplegu-tasa altuagoak direlako, eta enpleguaren eta egoitza-baimenen arteko harremana estua delako. Antzeman daitezkeen desberdintasunak, hein handi batean, autonomia-erkidegotako lan-zokoen baldintzatutakoak dira. Horrela, nekazaritza edo eraikuntza nagusitzen direnetan, ikus daiteke gizonezkoen pisua beste batzuetan baino handiagoa dela. Horixe da Murtziaren kasua –%58,2– edo Nafarroarena –%54,8–. Dena den, ez dago desberdintasun handirik.

6. taula. Espainiako (autonomia-erkidego batzuetako) egoitza-baimendun biztanleria atzerritarra, sexua-ren arabera. 2006 (2005-12-31) eta 2010 (2009-12-31) urteak

	2006					2010				
	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak
	K	K	%	K	%	K	K	%	K	%
Espainia	2.738.932	1.487.446	54,3	1.250.371	45,7	4.791.232	2.556.033	53,3	2.228.608	46,5
Andaluzia	326.831	182.389	55,8	144.352	44,2	597.243	316.483	53,0	279.820	46,9
Asturias	21.725	10.239	47,1	11.483	52,9	40.749	20.697	50,8	19.993	49,1
Katalunia	603.636	339.675	56,3	263.858	43,7	1.061.079	578.149	54,5	481.309	45,4
Valentzia	340.528	184.689	54,2	155.700	45,7	610.279	324.525	53,2	285.119	46,7
Madril	556.952	282.576	50,7	274.293	49,2	880.613	446.714	50,7	432.847	49,2
Murtzia	136.103	84.704	62,2	51.383	37,8	210.103	122.191	58,2	87.723	41,8
Nafarroa	37.868	20.670	54,6	17.194	45,4	64.687	35.417	54,8	29.179	45,1
EAE	57.395	29.964	52,2	27.424	47,8	106.658	57.287	53,7	49.118	46,1
Araba	12.788	7.199	56,3	5.588	43,7	23.036	13.079	56,8	9.891	42,9
Gipuzkoa	14.916	7.577	50,8	7.338	49,2	31.197	16.486	52,8	14.641	46,9
Bizkaia	29.691	15.188	51,2	14.498	48,8	52.425	27.722	52,9	24.586	46,9

Iturria: MTIN

7. taula. EAEen egoitza-baimena duen biztanleria atzerritarra, lurralde historikoen eta sexuaren arabera. 2006 (2005-12-31) eta 2010 (2009-12-31) urteak

	2006					2010				
	Guztira		Gizonezkoak		Emakumezkoak	Total	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	K	%	K	%	K	K	%	K	%
Espainia	2.738.932	1.487.446	54,3	1.250.371	45,7	4.791.232	2.556.033	53,3	2.228.608	46,5
EAE	57.395	29.964	52,2	27.424	47,8	106.658	57.287	53,7	49.118	46,1
Araba	12.788	7.199	56,3	5.588	43,7	23.036	13.079	56,8	9.891	42,9
Gipuzkoa	14.916	7.577	50,8	7.338	49,2	31.197	16.486	52,8	14.641	46,9
Bizkaia	29.691	15.188	51,2	14.498	48,8	52.425	27.722	52,9	24.586	46,9

Iturria: MTIN

Beste aldagai batzuekin bezala, Euskadiren kasuan ere bi migrazio-mota bereiz daitezke sexuari dagokionez. EAEko orokorra, Bizkaia eta Gipuzkoakoa: nahiko ehuneko orekatuak ditu eta gizonezko biztanleria %53 ingurukoa da. Eta Arabakoa, zeina, guztira pertsona atzerritar gutxi dituen, ez baitator bat EAEko kopuru orokorrekin. Bigarren kasu horretan, eta kontuan izanik nekazaritzak lurralde horretan duen garrantzia, ikus daiteke gizonezkoen pisua beste bi lurralde historikoetan baino handiagoa dela, %56,8koa, hain zuzen ere.





## Langile atzerritarrak: afiliazioak, kontratuak eta enplegu-eskatzaileak

Gorka Moreno Márquez

Eider Alkorta Elorza

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

2010eko urtekariko atal honetan EAEn dauden langile atzerritarren inguruko datuak adieraziko ditugu. Lehenik eta behin, EAeko Gizarte Segurantzako afiliazioari dagozkien kopuruak aztertuko ditugu, eta ondoren, bigarren atalean, erregistratutako kontratuak eta enplegu-eskaeraren kopuruak. Adieraziko ditugun kopuruak iturri desberdinetakoak direnez, batzuetan ez datoz bat. Afiliazioari dagozkienak 2010. urtekoak dira, eta kontratazio eta enplegu-eskaerarenak, berriz, 2009. urtekoak. Ahal dugun neurrian eta datu horiek abiapuntutzat harturik, krisiak kopuru horietan zenbaterainoko eragina duen aztertzen saiatuko gara.

### 1. Gizarte Segurantzaren afiliatutako langile atzerritarrak

2010eko urtekariko atal honetan, Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden EAeko atzerritarren inguruko datuak adieraziko ditugu. Lehenengo taulan, afiliazioak erroldatzearen eta EAEn egoitza izateko baimenen datuekin duen loturaren arabera bilakaera adierazi da.

1. taula. EAeko atzerritarren bilakaera, erroldatzearen, egoitza-baimenen eta Gizarte Segurantzako afiliazioen arabera. 2000-2010

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	Haz. 00-10
Erroldatzea	17.336	25.591	38.408	49.231	59.166	72.894	85.542	98.524	117.337	132.189	139.229	703,1
Baimenak	18.622	18.822	19.515	24.201	28.600	37.150	57.395	64.228	83.875	96.635	106.658	472,8
Afiliazioak	6.613	8.731	11.826	15.615	19.409	22.399	35.747	39.347	46.992	49.538	49.412	647,2
Err./Baim.	107,4	73,5	50,8	49,2	48,3	51,0	67,1	65,2	71,5	73,1	76,6	
Baim./Afil.	35,5	46,4	60,6	64,5	67,9	60,3	62,3	61,3	56,0	51,3	46,3	

Iturria: EIN eta MTIN

2010. urtean, Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeuden pertsona atzerritarren kopurua 49.412koa zen; 2000. urtean afiliatuta zeudenen kopurua, 6.613 pertsona hain zuzen, baino nabarmen handiagoa zen 2010ekoa. Gizarte Segurantzaren afiliatuta daudenen kopurua egoitza-baimenen mende dago, baimenik gabe ezin baita afiliatuta egon. Beraz, afiliazioen gorakadak baimenen

gorakadarekin lotura zuzena du, 2006. urteko datuek erakusten duten moduan; urte horretan baimen asko onartu ziren eta afiliatuak 22.399 izatetik 35.747 izatera igaro ziren, eta bien arteko aldea %62,3koa izan zen. Urte horretatik aurrera, baimenen nahiz afiliazioen kopuruak handitu egin dira, baina afiliazioak ez baimenak bezainbeste, eta ondorioz, bien arteko aldea %46,3koa da. Beraz, pentsa liteke lan-kontraturik izateko aukera ematen ez duten egoitza-baimenek –berriz familia elkartzearen bidez lortutakoek– eragina izan dezaketela baimen eta afiliazioen arteko aldean. Era berean, badirudi krisiak, normala denez, afiliazioei baimenei baino gehiago eragiten diela.

Bestalde, lan- eta ekonomia-egoeraren ondorioz, 2010ean, azken hamarkadan lehendabiziko aldiz, Gizarte Segurantzari afiliatuta zeuden atzerritarren kopuruak behera egin zuela azpimarratu behar dugu.

2. taula. EAEko Gizarte Segurantzari afiliatuta zeuden atzerritarren, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2010

	Guztira	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	K	K	%	K	%
Espainia	1.811.879	1.023.729	56,5	788.121	43,5
EAE	49.412	28.790	58,3	20.621	41,7
Araba	11.361	7.234	63,7	4.126	36,3
Gipuzkoa	16.482	9.288	56,4	7.194	43,6
Bizkaia	21.569	12.268	56,9	9.301	43,1

Iturria: MTIN

Gizarte Segurantzari afiliatuta zeuden 49.412 atzerritarren %58,3 gizonezkoa zen eta %41,7 emakumezkoa. Datu horiek bertan bizi diren atzerritarren eroldaren datuekin alderatuz gero, Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden artean emakumezkoak gutxiago direla ikus dezakegu. Bi arrazoiengatik gertatzen da hori: batetik, gizonezkoen artean txikiagoak dira jardueraren eta enplegu-tasak emakumezkoen artean baino, bai bertakoei dagokienez, bai atzerritarrei dagokienez. Gainera, emakume etorkinek lan egiten duten esparruak ez daude beste ekonomia-jardueraren sektore batzuk bezain arautuak eta legeztatuak. Kontraturik gabe etxeko lanetan diharduten emakumeak kontuan izatea garrantzitsua da, enplegua duten arren, Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden estatistiketan kontuan hartzen ez dituztelako, egoitza-baimena izan ala ez izan. Joera horiek hautemateko beste iturri batzuk behar ditugu, esaterako, Biztanleria Aktiboaren Inkesta –EIN– edo Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta –Eustat–. Bi estatistika iturri horiek ez dira EAEko biztanleria etorkinarentzat adierazgarriak. Hori dela eta, ezin dugu lan-munduko datu gehigarriak eman.

Naziotasunari dagokionez, portugaldarrak dira Gizarte Segurantzari afiliatutakoen gehiengoa, afiliatuen %11,8 baitira. Atzetik, baina oso hurbil, kolonbiarrak (%11,4) eta errumaniarrak (%10,8) daude. Datu horiek EAEn errolatuta dauden atzerritarren kopuruarekin alderatuz gero, errolatuta dauden errumaniarren eta afiliatuta dauden errumaniarren ehunekoak parekoak direla ikusiko dugu. Boliviarrak eta ekuadortarrek ere, esaterako, joera hori jarraitzen dute. Afiliatuta dauden portugaldarren, eta batez ere marokoarren ehunekoak, berriz, txikiagoak dira. Afiliatuta dauden portugaldar eta ekuadortarrak, berriz, errolatuta daudenak baino gehiago dira.

3. taula. EAEko Gizarte Segurantzian afiliatuta dauden atzerritarrak, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera. 2010

	EAE		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
	K	%	K	K	K
GUZTIRA	49.412	100,0	11.361	16.482	21.569
Portugal	5.829	11,8	2.506	1.930	1.393
Kolonbia	5.631	11,4	1.536	1.460	2.635
Errumania	5.347	10,8	774	1.568	3.005
Ekuador	3.737	7,6	604	1.672	1.461
Maroko	3.385	6,9	1.032	1.145	1.208
Bolivia	3.177	6,4	252	538	2.387
Txina	2.196	4,4	331	493	1.372
Peru	1.892	3,8	390	516	986
Frantzia	1.463	3,0	148	959	356
Argentina	1.100	2,2	162	567	371
Brasil	1.100	2,2	284	336	480
Italia	1.014	2,1	134	414	466
Paraguai	825	1,7	279	87	459
Erresuma Batua	800	1,6	107	267	426
Kuba	774	1,6	134	339	301
Dominikar Errepublika	755	1,5	218	384	153
Ukraina	682	1,4	166	409	107
Aljeria	648	1,3	345	139	164
Alemania	630	1,3	111	264	255
Pakistan	605	1,2	183	210	212
Gainerakoak	7.822	15,8	1.665	2.785	3.372

Iturria: MTIN

Dirudenez, EAEn denbora gehiago daramaten herrialdeetako herritar gehiago daude afiliatuta, azken urteetan iritsi direnak baino. Portugalgo, Kolonbiako eta Ekuadorko herritarrak EAEn urte asko daramatenak dira, eta Errumaniako eta Boliviako herritarrak iritsi berriak. Marokoko herritarren egoera bestelakoa da; ez denbora asko ez eta gutxi ere daramaten herritarrak diren arren, badirudi beste herrialde batzuetako herritarrek baino zailtasun gehiago dituztela lan-munduan txertatzeko.

3. taulan ikus daitekeenez, EAEko Gizarte Segurantzian afiliatuta dauden atzerritarrak guztizkoaren %5,3 dira; guztizko biztanlerian atzerritarrek duten ehunekoa (%6,4) baino puntu bat gutxiago dute atzerritar afiliatuek, eta beste autonomia-erkidego batzuetakoek baino askoz gutxiago (esaterako, Murtzian %16,7 eta Balearretan %15,6 dira afiliatuak), bai eta estatuko batez bestekoa baino gutxiago ere (%10,3).

Datu horiek zera erakusten digute, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko lan- eta gizarte-egiturak ez direla oso erakargarriak atzerritarrentzat, atzerritarrak lan-munduan txertatzea bideratu ohi duten sektoreek ez baitute indar handirik EAEn. Joera nagusia, esaterako nekazaritza-, eraikuntza- eta turismo-sektoreak indarra duten eremuetan atzerritar gehiago egotea da, eta alde-rantziz. Hori dela eta, ez da harrizkoa, besteak beste, Murtziako, Balearretako, Madrilgo edo Errioxako Gizarte Segurantzian afiliatuta dauden atzerritarren ehunekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko, Extremadurako, Asturiasko eta Galiziako Gizarte Segurantzian afiliatuta daudenen ehunekoak baino altuagoak izatea ez da harrizkoa.

4. taula. Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden biztanle guztiak eta atzerritarrak, autonomia-erkidegoaren arabera. 2010

	Afiliatu guztiak	Afiliatu atzerritarrak	% Atzerr.
GUZTIRA	17.640.018	1.811.879	10,3
Murtzia	525.414	87.636	16,7
Balearrak	368.060	57.299	15,6
Madril	2.828.371	390.080	13,8
Errioxa	124.419	16.236	13,0
Katalunia	3.099.878	397.823	12,8
Valentzia	1.722.749	203.194	11,8
Kanariak	697.090	81.043	11,6
Aragoi	543.794	62.967	11,6
Gaztela-Mantxa	706.850	79.633	11,3
Nafarroa	264.841	25.722	9,7
Andaluzia	2.873.799	214.849	7,5
Gaztela eta Leon	922.488	58.898	6,4
Kantabria	212.119	11.761	5,5
EAE	930.960	49.412	5,3
Extremadura	386.065	15.717	4,1
Asturias	383.485	15.230	4,0
Galizia	1.008.719	37.672	3,7

Iturria: EIN eta MTIN

Hurrengo taulan Gizarte Segurantzako afiliazio-erregimenari dagozkion datuak adieraziko ditugu, eta datuok aurreko paragrafoan esandakoa berresten dute. Autonomia-erkidego batetik bestera asko aldatzen dira ehunekoak. Bestalde, autonomia-erkidego bakoitzean atzerritarrentzat nagusi diren sektore edo lan-esparruak ere adierazi dira. Ia autonomia guztietan erregimen orokorra da erregimen nagusia; Madrilen eta Katalunian %75k baino gehiagok dute (%77,09k eta %76,58k, hurrenez hurren) eta estatuan %64,86k. Hala ere, badaude joera hori jarraitzen ez duten autonomia-erkidegoak, Murtzia eta Andaluzia esaterako. Autonomia horietan, %50ek baino gutxiagok dute erregimen orokorra. Oro har, nekazaritzak indarra duen autonomia-erkidegoetan txikiagoa da erregimen orokorra dutenen ehunekoak. Ikatzaren eta itsasoko erregimenak alde batera utzita, oso ehuneko txikiak dituztelako eta datu garrantzitsurik ematen ez dutelako, etxeko lanetan diharduten emakumezkoen erregimenak garrantzi handia du, atzerritar gutxiago dagoen autonomia-erkidegoetan baititu ehuneko handiagoak. Hori gertatzen da Asturiasen (%14,85), Kantabrian (%18,09), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere (%14,09). Beraz, nekazaritzak, eraikuntzak eta turismoak indar handia ez duten autonomia-erkidegoetan, etxeko lanaren eta zaintza pertsonalaren sektoreek sekulako indarra dutela ikus dezakegu, eta atzerritarrak lan-munduan txertatzeko sektore garrantzitsuak direla. Are garrantzitsuagoak dira sektore horiek araututa ez daudela eta batez ere ezkutuko ekonomiaren bidez bideratzen direla kontuan hartuta; horrela bideratuta, Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen datuak jakinda ezin da hauteman.

Afiliatutakoen banaketa desberdinak autonomia-erkidego batean bertan ere ikus ditzakegu. Euskal Autonomia Erkidegoari erreparatuz gero, Bizkaia eta Gipuzkoa lurralde historikoek antzeko joera jarraitzen dutela ikus dezakegu eta Araba dela beste bi lurraldeekiko joera desberdina jarraitzen duena. Erregimen orokorrean antzeko joera duten arren, hiru lurraldeetan erregimen orokorra nagusia baita eta guztizkoaren bi herenek erregimen hori baitute, nekazaritzaren erregimenean, berriz, Araban herritar gehiagok du erregimen hori (%14,9k zehazki) eta beste bietan


gutxiagok (Bizkaian %3,9k eta Gipuzkoan %2,7k). Etxeko langile emakumezkoen erregimena %16,5ek du Bizkaian eta %15ek Gipuzkoan, eta Araban, berriz, gutxiagok, %8,2k.

5. taula. Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzerritarrak, erregimenaren arabera. Zutabe horizontaletako datuak ehunekoak dira. 2010

	Erregimen Orokorra	Autonomoen E.B	Nekazaritzako E.B	Itsasoko langileen E.B	Ikatz meatzeen E.B	Etxeko langileen E.B
GUZTIRA	64,85	10,86	14,37	0,21	0,04	9,67
Andaluzia	41,50	12,65	36,63	0,20	0,00	9,02
Aragoi	68,07	9,50	15,21	0,00	0,17	7,04
Asturias	65,80	12,72	2,90	1,12	2,61	14,85
Balearrak	63,76	21,07	2,96	0,19	0,00	12,01
Kanariak	71,32	18,46	3,94	0,42	0,00	5,86
Kantabria	66,96	11,14	3,28	0,53	0,00	18,09
Gaztela-Mantxa	53,88	6,62	33,58	0,00	0,00	5,92
Gaztela eta Leon	66,91	9,41	12,67	0,00	0,29	10,73
Katalunia	76,58	9,72	4,76	0,10	0,00	8,85
Valentzia	57,15	13,86	22,06	0,16	0,00	6,77
Extremadura	37,35	10,58	44,40	0,00	0,00	7,67
Galizia	68,47	12,77	3,79	3,37	0,00	11,61
Madril	77,09	8,53	0,98	0,02	0,00	13,38
Murtzia	37,03	5,93	51,48	0,07	0,00	5,49
Nafarroa	66,04	9,47	13,67	0,00	0,00	10,82
EAE	66,65	12,76	6,01	0,49	0,00	14,09
Errioxa	55,95	8,39	28,51	0,00	0,00	7,14

Iturria: MTIN

1. grafikoa. EAEko Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden atzerritarrak, erregimenaren eta lurralde historikoaren arabera. Zutabe horizontaletako datuak ehunekoak dira. 2010



Iturria: MTIN

Datu horiek erakusten dutenez, Bizkaiak eta Gipuzkoak Bizkaiko golkoko migrazio-joera jarraitzen dute, bai eta beste autonomia-erkidego batzuek ere, Asturiasek eta Kantabriak, esaterako: atzerriko pertsonak ehuneko txikiak dituzte, etorkinak lan-munduan txertatzeko lan-sektoreek (eraikuntza, nekazaritza eta turismoa) ez dute indar handirik eta etxeko lanetan diharduten etorkinen taldeak garrantzi handiagoa dute. Arabak, berriz, Ebroren arroko beste autonomia-erkidego batzuen antzeko joera jarraitzen du, Errioxak eta Aragoik dutena, esaterako: atzeritarren ehuneko batez bestekoaren parekoa edo altua da, nekazaritza da indar handia duen sektorea eta etxeko lanetan diharduten pertsonak gutxi dira kopuru erlatiboan dagokienez.

Erregimena alde batera utzita, etorkinek zer motatako kontratuak dituzten aztertzea ere interesgarria da. Lan-kontratu mugagabeak eta aldi baterako lan-kontratuak daude. Hurrengo taulan ikus daitekeenez, oro har, erlatiboki atzeritar gutxi dauden autonomia-erkidegoetan aldi baterako lan-kontratu gehiago egiten dira: besteak beste, Asturiasen (%57,1), Gaztela-Mantxan (%55,5) eta Euskal Autonomia Erkidegoan bertan (%52,5). Autonomia horietan guztietan, Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden atzeritar gehiagok dute aldi baterako lan-kontratu mugagabea baino.

6. taula. Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden atzeritarren Espainian, autonomia-erkidegokan, eta kontratu-motak. 2010

	2010						
	Guztira		Mugagabea		Aldi baterakoa		Zehaztugabea
	K	K	%	K	%	K	
GUZTIRA	1.175.066	647.803	55,6	516.410	44,4	10.853	
Andaluzia	89.153	37.690	42,9	50.215	57,1	1.248	
Aragoi	42.863	22.132	52,2	20.282	47,8	449	
Asturias	10.022	4.231	42,9	5.641	57,1	150	
Balearrak	36.536	19.537	53,9	16.698	46,1	301	
Kanariak	57.799	30.456	52,8	27.218	47,2	125	
Kantabria	7.875	3.871	49,9	3.879	50,1	125	
Gaztela-Mantxa	42.906	18.838	44,5	23.526	55,5	542	
Gaztela eta Leon	39.406	20.156	52,4	18.308	47,6	942	
Katalunia	304.644	182.739	60,5	119.258	39,5	2.647	
Valentzia	116.126	61.851	53,9	52.977	46,1	1.298	
Extremadura	5.870	2.654	46,2	3.094	53,8	122	
Galizia	25.794	12.007	47,0	13.533	53,0	254	
Madril	300.708	183.131	61,3	115.629	38,7	1.948	
Murtzia	32.454	17.202	53,3	15.087	46,7	165	
Nafarroa	16.986	8.929	52,9	7.957	47,1	100	
EAE	32.934	15.530	47,5	17.188	52,5	216	
Errioxa	9.084	5.211	58,1	3.763	41,9	110	

Iturria: MTIN

Horren harira, aintzat hartu behar da atzeritar gutxiago dauden autonomia-erkidego horiek migrazio-fluxu handiagoak jaso dituztela azken urteotan. Hori dela eta, ez da harrizkoa lan jarraitua egiteak dakarren egonkortasunaren ondorioak eta eraginak lan-moteki ere eragitea; hau da, leku batean zenbat eta denbora gehiago igaroz gero eta zenbat eta administrazio-egoera finkoagoa izanez gero, gizartean integratzea eta lan-munduan txertatzea errazagoa izango da. Beraz, etorkinen talde batzuk hasieran dute aukera aldi baterako lan-kontratu mugagabea baino.

kontratu mugagabea izatea dela pentsa dezakegu. Edonola ere, aintzat izan behar dugu, aldi-baterako kontratuak ohikoagoak diren lan-esparru batzuen indar handiagoa edo txikiagoa, horrek zerikusia izan baitezake autonomia-erkidego batetik bestera dauden desberdintasunetan.

2005eko datuak dituen taula bera aztertuta, datuek informazio argia ematen digute. Izan ere, aipatu bezala, adierazle honi dagokionez, autonomia-erkidego guztietako bilakaera positiboa izan da. 2005. urtean aldi baterako kontratuak ziren gehiengoa, eta 2010. urtean, berriz, kopuruak aldatu egin ziren. Arestian aipatutakoa berresten dute datuok; urteak aurrera joan ahala etorkinen egoera hoberantz doa eta egonkorragoa da. Lan-munduan lan-baldintza hobek dituzte, bai eta kontratu-mota hobek ere. EAEn, adibidez, aldi baterako kontratuak ia %70ek (%69,9) izatetik %52,55ek izatera igaro ziren 2010ean. Estatuan, 2005ean %66,6k zituzten aldi baterako kontratuak, eta gaur egun, %44,4k.

Hala ere, kontuan izan behar da enplegu prekarioen eta aldi baterako enpleguetan krisiak eragin handiagoa izan duela, eta aldi baterako lan-kontratuen kopurua jaitsi izana ez dela izan lan-kontratu mugagabeena igo delako, aldi baterako lan-kontratu gutxiago egiten delako baizik.

7. taula. Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden atzerritarrak Espainian, autonomia-erkidegoaren eta kontratu-moten arabera. 2005

	2005						
	Guztira		Mugagabea		Aldi baterakoa		Zehaztugabea
	N	N	%	N	%	N	
GUZTIRA	1.194.663	370.887	33,34	741.658	66,66	82.118	
Andaluzia	97.109	22.206	24,52	68.354	75,48	6.549	
Aragoi	37.553	9.845	28,02	25.294	71,98	2.414	
Asturias	7.411	2.275	33,71	4.474	66,29	662	
Balearrak	45.663	12.648	34,44	24.077	65,56	8.938	
Kanariak	70.451	24.951	38,35	40.111	61,65	5.389	
Kantabria	6.901	1.891	30,35	4.339	69,65	671	
Gaztela-Mantxa	40.168	8.152	21,31	30.111	78,69	1.905	
Gaztela eta Leon	31.830	8.688	29,74	20.530	70,26	2.612	
Katalunia	304.044	106.222	37,63	176.073	62,37	21.749	
Valentzia	142.102	38.387	28,68	95.478	71,32	8.237	
Extremadura	3.861	1.040	30,81	2.335	69,19	486	
Galizia	20.139	5.091	27,92	13.141	72,08	1.907	
Madril	287.998	102.238	37,42	170.965	62,58	14.795	
Murtzia	43.777	10.371	24,64	31.716	75,36	1.690	
Nafarroa	18.531	6.197	36,05	10.994	63,95	1.340	
EAE	24.668	6.928	30,1	16.081	69,9	1.659	
Errioxa	9.475	2.880	32,88	5.879	67,12	716	

Fuente: MTIN

Atzerritarren aldi baterako kontratuen kopuruak kopuru orokorrekin alderatuz gero, atzerritarrei aldi baterako kontratu gehiago egiten dizkietela ikus dezakegu. Lan eta Immigrazio Ministerioko urtekarioko datuen arabera, 2009an afiliatuta zeuden pertsona guztien %29,81ek aldi baterako lan-kontratuak zuten. 2010ean aldi baterako lan-kontratuak zuten atzerritarrak askoz gehiago ziren, eta estatuan %44,4k zuten kontratu-mota hori.

Hala ere, baliteke datu hori zertxobait engainagarria izatea, etorkinak kontratu-mota prekarioekin txertatuko baitira lan-munduan, arrazoi hauek direla eta: etorri berriak direlako, lan-merkatuan hasi berriak direlako, etorri berri gehienak sektore jakin batzuetan laneratu ohi direlako eta lan ezegonkorreko sektoreak izaten direlako. Ildo horretatik, garrantzitsua izango da aztertzea ea denbora gehien daramaten etorkinak bertakoen pareko egonkortasun-parametroetara hurbiltzen diren ala sektore batzuetan *harrapatuta* geratzen ote diren eta kontratu ezegonkorrenak izaten jarraitzen ote duten. Bestela esanda, ea *lan jarraitua egiteak dakarren egonkortasuna* lortzen duten eta zenbat eta denbora gehiago igarotzean lan-baldintza hobekak izaten dituzten aztertu beharko da, are gehiago krisi ekonomikoaren garai honetan.

Lanpostuen ezaugarriei dagokienez, aipagarria da baita afiliazio-taldea, lanpostu baterako beharrezkoa den prestakuntzaren eta trebakuntzaren berri ematen baitigu. Interesgarria izango litzateke zenbait urtetako datuak alderatzea, zer bilakaera izan duten jakiteko.

8. taula. Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden atzeritarrak, autonomia-erkidegoaren eta kotizazio-taldearen arabera. 2010

	Ingeniari eta lizentziadun buruak	Ingeniari teknikoak. laguntzaileak	Administrari buruak	Tituludunak ez diren laguntzaileak	Administrazioko ofizialak	Mendekoak	Administrari laguntzaileak	1. eta 2. mailako ofizialak	3. mailako ofizialak	18 urtez gorako langile ez kalifikatuak	18 urtez beherako langileak
GUZTIRA	4,9	1,9	2,0	2,0	6,5	4,1	9,9	21,7	19,7	27,2	0,1
Andaluzia	4,6	2,5	2,0	2,0	5,9	2,3	10,4	23,8	17,0	29,4	0,1
Aragoi	1,8	1,1	0,8	1,5	3,3	2,9	5,2	26,6	26,3	30,4	0,1
Asturias	4,8	2,0	1,6	1,1	4,1	1,3	5,4	24,9	30,0	24,8	0,0
Balearrak	3,9	1,6	2,8	2,3	8,4	2,7	13,1	21,9	18,8	24,5	0,0
Kanariak	3,0	2,0	3,0	2,2	9,7	3,8	12,7	28,8	20,3	14,4	0,1
Kantabria	3,6	1,6	1,3	1,8	2,6	3,5	7,2	25,0	28,7	24,6	0,0
Gaztela-Mantxa	2,8	0,9	0,7	1,2	2,0	2,3	4,4	22,8	23,1	39,8	0,1
Gaztela eta Leon	3,1	1,2	0,9	1,5	2,5	2,3	4,4	26,6	22,3	35,1	0,1
Katalunia	5,4	2,0	2,1	2,2	7,8	3,7	10,3	18,2	18,6	29,6	0,1
Valentzia	3,8	1,6	1,5	2,3	5,1	3,4	9,3	23,9	20,9	28,1	0,1
Extremadura	7,5	1,8	1,2	1,3	5,4	1,6	6,3	32,9	14,8	27,1	0,3
Galizia	4,5	2,2	1,8	2,1	4,4	1,3	5,7	33,1	21,5	23,1	0,1
Madril	6,7	2,0	2,6	2,2	7,9	7,0	12,6	18,3	17,9	22,8	0,0
Murtzia	2,9	1,0	0,9	1,8	2,7	2,0	5,6	26,2	19,6	37,2	0,1
Nafarroa	3,5	1,5	0,9	0,9	4,5	2,9	5,8	24,6	24,7	30,5	0,2
EAE	5,1	2,5	1,6	2,4	4,9	3,6	7,5	22,2	24,6	25,4	0,0
Errioxa	1,5	0,9	0,9	1,3	2,4	3,5	4,7	26,2	24,3	34,2	0,1

Iturria: MTIN

Bi tauletako datu guztiak eta kotizazio-talde guztiei buruz hitz egitea ezinezkoa den arren, oro har, gutxi kotizatzen duten taldeak pixkanaka gehiago kotizatzen dutenetara igaro direla aipa dezakegu. 2005etik 2010era, talde guztien ehunekoak hazi dira, eta batez ere peoien, hau da prestakuntzarik ez duten langileen, taldeko langile asko igaro dira gehiago kotizatzen dutenen taldeetara. Adibide batzuk aipatzearen, Murtzian hau gertatu da: prestakuntzarik gabeko langi-



leen taldean afiliatuta zeuden atzerritarrak %51,2 izatetik %37,2 izatera igaro ziren 2010ean. Estatuan, prestakuntzarik gabeko langileen taldeko afiliatuak %34,8 izatetik %27,2 izatera igaro ziren. EAEn, jaitsiera ez da hainbestekoa izan: 2005ean %30,9 izatetik 2010ean %25,4 izatera igaro dira. Hala ere, ez dugu ahaztu behar EAera gainerako autonomia-erkidego gehienetara baino geroago iritsi zirela etorkinak, eta hori dela eta, estatuan dagoeneko igaroa duten egoeran gaudela orain EAEn. Laburbilduz, badirudi bertan daramaten denborak eta denborak egoera administratiboan duen eraginak, lan-munduan txertatzea errazten duela eta lan-baldintza hobekak izatea eragiten duela.

9. taula. Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden atzerritarrak, autonomia-erkidegoaren, eta kotizazio-taldearen arabera. 2005

	Ingeniariak eta lizentziadunak	Ingeniari teknikoak Perituak	Administrari eta lantegiko buruak	Tituludunak ez diren laguntzaileak	Administrazioko ofizialak	Mendekoak	Administrari laguntzaileak	1. eta 2. mailako ofizialak	3. mailako ofizialak eta espezialistak	Peoiak	18 urtez azpiko langileak
GUZTIRA	2,9	1,2	1,6	1,5	4,9	2,6	8,8	22,5	19,0	34,8	0,1
Andaluzia	2,8	1,8	1,9	1,4	5,3	1,6	10,0	25,0	14,4	35,4	0,1
Aragoi	1,2	0,7	0,6	1,0	2,2	1,6	3,6	24,3	26,0	38,7	0,2
Asturias	5,1	1,4	1,3	1,6	3,8	0,9	3,9	25,3	28,5	28,1	0,1
Balearrak	2,2	0,9	2,4	1,3	5,9	2,4	11,0	23,0	15,9	35,0	0,1
Kanariak	2,0	1,1	2,6	1,9	9,0	2,7	12,0	30,9	19,7	18,1	0,1
Kantabria	2,5	1,6	1,1	1,6	2,6	2,2	5,1	25,4	26,7	31,0	0,0
Gaztela-Mantxa	1,1	0,5	0,5	0,9	1,2	1,2	3,2	22,4	20,7	48,1	0,2
Gaztela eta Leon	2,1	1,0	0,8	1,1	2,1	1,2	3,3	26,6	20,0	41,5	0,2
Katalunia	3,2	1,3	1,6	1,6	5,8	2,3	9,2	18,0	18,4	38,4	0,2
Valentzia	2,1	1,0	1,3	1,5	3,9	2,1	8,4	24,4	17,7	37,6	0,1
Extremadura	5,9	1,9	1,3	1,0	5,4	1,0	5,5	31,1	13,7	33,1	0,2
Galizia	3,4	1,4	2,0	1,7	4,6	1,1	5,8	28,9	19,0	31,8	0,3
Madril	4,3	1,3	1,8	1,7	5,3	4,6	11,1	21,2	20,4	28,4	0,1
Murtzia	1,1	0,6	0,6	1,0	1,6	1,1	3,9	24,5	14,3	51,2	0,1
Nafarroa	1,7	1,1	0,7	0,8	2,8	1,8	4,4	23,6	24,9	38,1	0,2
EAE	3,7	2,2	1,7	1,7	4,4	2,3	5,8	22,7	24,5	30,9	0,1
Errioxa	0,9	0,4	0,6	0,6	1,9	1,8	2,7	24,2	21,7	45,0	0,2

Iturria: MTIN

Azken finean, urteetan zehar lan-munduan etorkin asko ari direla txertatzen eta etengabe egiten ari direla ikus dezakegu. Afiliatuta dauden inguruko kopuruek zenbait datu ematen dizkigute, eta, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuek –afiliatuta dauden nahiz ez dauden datuak jasotzen ditu– adierazi bezala, bertakoekin alderatuta atzerritarren jarduera- eta enplegu-tasak altuagoak direla adierazten dute; horrez gain, azken urteotan enplegua migrazio-fluxuen ardatz nagusia eta horiek erakartzen dituen elementu nagusia dela azpimarratzen dute. Krisia atzerritarrek indar handia duten sektoreetan sekulako eragina izaten ari den arren, atzerritarrek jarduera-tasa altuak izaten jarraitzen dutela ere egia da. Hori dela eta, krisia nola gainditzeko eta atzerritarren enpleguan zer eragin dituen ikusi beharko da, eta, hori dela eta, etorkizuneko migrazio-fluxuei eta gure inguruan dagoeneko finkatuta dauden pertsonen nola eragiten dien.

## 2. Erregistratutako kontratuak eta enplegu-eskatzailleak

### 2.1. Erregistratutako kontratuak

10. taula. EAEko etorkinen bilakaera, baimenen eta erregistratutako kontratuen arabera (2002-2009)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EAE –baimenak–	19.515	24.201	28.600	37.150	57.395	64.228	83.875	96.635
EAE –kontratuak–	26.639	36.038	45.892	61.774	79.190	99.725	107.248	87.920
Araba	7.922	11.352	15.200	18.678	22.417	28.713	31.083	25.361
Gipuzkoa	7.428	9.185	11.884	16.603	23.469	29.655	32.886	26.036
Bizkaia	11.289	15.501	18.808	26.493	33.304	41.357	43.279	36.523
ESPAINIA	1.326.567	1.539.547	2.004.803	2.745.243	3.555.068	3.957.324	3.631.697	2.947.855

Iturria: MTIN


2009an, 87.920 izan ziren atzerritarrek erregistratutako kontratuak. Erregistratutako kontratuei buruz hitz egitean, kontratatuak izan diren atzerritarren kopuruari buruz hitz egiten ez garela ari izan behar dugu kontuan. Beraz, baliteke urte batean kontratu bat baino gehiago duten edo izana duten pertsona egotea, eta bat ez etortzea afiliatu diren atzerritarren benetako kopurua egin diren kontratuen kopuruarekin. Nolanahi ere, adierazle horrek atzerriko pertsona langileen egoerara hurbiltzen gaitu, eta atzerriko pertsonen kopuruak gora egin ahala, erregistratutako kontratuenak ere gora egiten duela ikus dezakegu. 2002tik 2008ra kopuruek izandako bilakaera aztertzen badugu, EAEn dauden atzerritar etorkinei egindako kontratuen kopurua igo egin zela ikusiko dugu. Hala ere, 2008tik 2009ra, atzerritarren kopuruak gora egin arren, erregistratutako kontratuen kopuruak behera egin zuen EAEn. Erregistratutako kontratuen joera antzekoa da Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, eta ez dago desberdintasun nabarmenik.

Estatuan atzerritarrek erregistratutako kontratuen kopuruak EAEn izandako bilakaera antzekoa izan du. Hala ere, EAEn baino urtebete lehenago egin zuen behera kontratuen kopuruak. 2007an, 3.957.324 kontratu erregistratu ziren, eta kopuru hori izatetik 2.947.855 izatera igaro ziren 2009an.

Jarraian, EAEko etorkinek erregistratutako kontratuak jarduera sektore batzuetan zer indar duten aztertuko dugu. 1. grafikoan ikus dezakegunez, zerbitzuen sektorean erregistratu zen kontratu gehien 2009an (%64,9), atzetik industriaren sektorean erregistratu zen kontratu gehien (%19,4), nekazaritzan (%8,1) eta eraikuntzan (%7,6). Biztanleria guztiari egindako kontratuen artean sektore bakoitzak zer indar duen aztertzen badugu, zerbitzuen sektorea da indar gehien duena, atzerritarrei egindako kontratuen artean (%82,5) baino indar handiagoa du guztizko biztanleriarengan. Bestalde, nekazaritzak (%1,6) eta industriak (%8,1) indarra galdu dute, baina eraikuntzaren sektoreak (%8,1) atzerritarrengan izan duen pareko indarra du.

Beraz, argi geratzen da lanaren egitura desberdina dela bertako biztanleriaren eta atzerritarren biztanleriarengan, eta atzerritarrengan, besteak beste nekazaritza dela indar handiagoa duen sektorea. Dena den, kontratuen kopurua ez da zehaztasun handiko datua, kontratu kopuru altuak bi egoera azal baititzake: batetik, sektore horrek garrantzia duela, eta bestetik, sektore hori oso ezegonkorra eta prekarioa dela azal dezake. Hori gertatzen da industriaren sektorean, lan-egoera kaskarragoaren ondorioz, atzerritarrei kontratu gehiago egiten baitizkiete.

2. grafikoa. EAEko atzerritarren bilakaera, jarduera sektore bakoitzean erregistratutako kontratuen arabera (2002-2009)



Iturria: MTIN

Datuen bilakaera aztertuz gero, hau ikus dezakegu:

- zerbitzuen sektorean egiten zaizkie atzerritarrei kontratu gehien, eta kontratuen kopurua hazi egin zen 2008ra arte. Azken urtean zertxobait jaitsi da kontratuen kopurua sektore horretan (%64,9).
- urteetan zehar ez dira aldatu nekazaritzaren sektoreko kopuruak; 2002an atzerritarrei egini-ko kontratuen %7,4 erregistratu ziren sektore horretan, eta 2009an kontratuen %8,1.
- eraikuntzaren eta industriaren sektoreetan egindako kontratuen kopuruak aldatu egin dira. 2002an, kontratuen %12 industriaren sektorean erregistratu ziren, eta kontratuen %22 eraikuntzarenean. Urtebete geroago, guztizko kontratuen %10,1 ziren eraikuntzaren sektorean egindako kontratuak, eta industriaren sektorean erregistratutako kontratuak %25,2 ziren. 2006-2007 urteen artean, berriz, sektore horiek zuten indarra aldatu egin zela dirudi; industriaren sektorean erregistratutako kontratuen kopuruak behera egin zuen, %9,2 izatera iritsi arte, eta eraikuntzaren sektorean, 2007an atzerritarrei egini-ko guztizko kontratuen %20,2 erregistratu ziren. 2008tik 2009ra berriro ere joera aldatu egin zen; eraikuntzaren sektorean erregistratutako kontratuen kopuruak behera egin zuen, eta industrian erregistratutako kontratuen kopuruak gora.

Modu horretan, sektoreka kontratuak izan duten bilakaera aztertuta, zerbitzuen sektorearen indarra eta nekazaritzaren sektorearena mantendu egin direla ikus dezakegu. Azken urtean, berriz, industriaren sektorean erregistratutako kontratuak eraikuntzaren sektorean erregistratutakoak

baino gehiago direla ikus daiteke. Badirudi eraikuntzaren sektorea gelditu egin dela erakusten dutela, hori adierazten dute kopuru absolutuek.

11. taula. Erregistratutako kontratuen bilakaera, eremu geografikoen arabera EAEn (2003-2009)

	K	%	K	%	K	%	K	%
Europako Esparru Ekonom.	9.188	25,5	14.463	23,4	25.752	25,8	25.129	28,6
Gainerako Europa	1.917	5,3	4.145	6,7	2.072	2,1	1.737	2,0
Afrika	10.951	30,4	15.933	25,8	27.801	27,9	18.794	21,4
Latinoamerika	12.128	33,7	24.018	38,9	39.776	39,9	37.456	42,6
Ipar Amerika	110	0,3	209	0,3	173	0,2	236	0,3
Asia	1.577	4,4	2.775	4,5	3.928	3,9	4.434	5,0
Ozeania	96	0,3	71	0,1	79	0,1	85	0,1
Herrigabeak - Zehaztugabe	71	0,2	160	0,3	144	0,1	49	0,1
Guztira	36.038	100,0	61.774	100,0	99.725	100,0	87.920	100,0

Iturria: MTIN

Atzerriko pertsonen jatorriaren arabera ere erregistratutako kontratuak nola banatzen diren aztertu nahi izan dugu. 2009an, kontratuen %42,6 iberoamerikarrei egin zitzaizkien, %28,6 Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako herritarrei, eta %21 afrikarrei. Neurri batean, baimenak ematen zaizkien pertsonen benetako jatorriaren banaketa adierazten dute datuek, baina ezin dugu kontratazioen indize eta tasei buruz hitz egin, kontratuen kopuruari buruz hitz egiten ari garelako, eta ez kontratatuak izan diren pertsoneri buruz.

Autonomia mailan datuek izan duten bilakaera aztertzen badugu, kontratu gehien erregistratzen dituztenen artean iberoamerikarrek gero eta indar handiagoa dutela ikusiko dugu. 2003an, erregistratutako kontratuen %33,7 latinoamerikarrei egin zitzaizkien, eta horien ehunekoak %42,6 izateraino igo zen 2009an. Europarren kontratuen indarrari dagokionez, urteetan zehar mantendu egin da; 2009an kontratuen %28,6 Europar Batasuneko (grafikoan Europako Esparru Ekonomikoa) herritarrei egin zitzaizkien. Bestalde, gainerako Europako herrialdeetako herritarren kontratuen kopurua jaitsi egin zen (2003an %5,3 izatetik 2009an %2 izatera igaro zen). Horri dagokionez, kontuan izan behar dugu 2007tik aurrera Europar Batasuna 27 kide izatera igaro zela Errumania eta Bulgaria Europar Batasunean sartu zirelako, eta ondorioz, "gainerako Europa" deritzona osatzen duten herrialdeak gutxiago direla. Asiarren kontratuak zertxobait igo dira, eta 2009an erregistratu ziren kontratuen %5 Asiako herrialdeetako herritarrei egin zitzaizkien.

Urteetan zehar indarra irabaziz joan dira iberoamerikarren kontratuak. Afrikako biztanleriak erregistratutako kontratuak, berriz, indarra galdu dute 2003tik; urte horretan EAEko atzeritarrei erregistratutako hamar kontratutik hiru afrikarrei egin zitzaizkien (%30,4), baina 2005ean %25,8 izateraino jaitsi ziren, eta 2007an berriro ere igo egin ziren, afrikarren artean erregistratutako kontratuak kontratu guztien %27,9 izatera iritsi baitziren. Hala ere, 2009an kontratuen %21,4 egin zitzaizkien afrikarrei, eta lehendabiziko aldiz, Europar Batasunak baino indar gutxiago izan zuten kontratuei zegokienez. Hori gertatzearen arrazoiak askotarikoak izan daitezke, datuek ez dietelako erreferentzia egiten kontratatutako pertsoneri, baina badirudi legezko egotan dauden afrikarrak gutxiago izateak eta haiei baimen gutxiago emateak –batez ere senegaldarrei eta aljeriarrei, eta neurri txikiagoan marokoarrei– indarra galtzarekin lotura izan dezaketela.

12. taula. Erregistratutako kontratuen bilakaera, eremu geografikoen eta lurralde historikoen arabera (2003-2007)

	2003						2005					
	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Europako Esparru Ekonom.	2.489	21,9	2.944	32,1	3.755	24,2	4.436	23,7	4.809	29,0	5.218	19,7
Gainerako Europa	620	5,5	507	5,5	790	5,1	980	5,2	1.196	7,2	1.969	7,4
Afrika	4.324	38,1	2.097	22,8	4.530	29,2	5.967	31,9	3.100	18,7	6.866	25,9
Latinoamerika	3.356	29,6	3.121	34,0	5.651	36,5	6.224	33,3	6.605	39,8	11.189	42,2
Ipar Amerika	10	0,1	36	0,4	64	0,4	11	0,1	51	0,3	147	0,6
Asia	484	4,3	466	5,1	627	4,0	965	5,2	774	4,7	1.036	3,9
Ozeania	15	0,1	10	0,1	71	0,5	14	0,1	27	0,2	30	0,1
Herrigabeak - Zehaztugabe	54	0,5	4	0,0	13	0,1	81	0,4	41	0,2	38	0,1
Guztira	11.352	100,0	9.185	100,0	15.501	100,0	18.678	100,0	16.603	100,0	26.493	100,0

	2007					
	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%
Europako Esparru Ekonomikoa	7.991	27,8	8.704	29,4	9.057	21,9
Gainerako Europa	667	2,3	756	2,5	649	1,6
Afrika	9.478	33,0	6.319	21,3	12.004	29,0
Latinoamerika	9.385	32,7	12.441	42,0	17.950	43,4
Ipar Amerika	17	0,1	62	0,2	94	0,2
Asia	1.114	3,9	1.297	4,4	1.517	3,7
Ozeania	20	0,1	21	0,1	38	0,1
Herrigabeak - Zehaztugabe	41	0,1	55	0,2	48	0,1
Guztira	28.713	100,0	29.655	100,0	41.357	100,0


Iturria: MTIN

Erregistratutako kontratuen banaketa honakoa izan da atzerritarren jatorriaren arabera:

- 2003an Araban, kontratuen %38,1 afrikarrei egin zitzaizkien, eta atzetik iberoamerikarrei egin zitzaizkien kontratu gehien, kontratuen %29,6. Gipuzkoan (%34) eta Bizkaian (%36,5) iberoamerikarrei egin zitzaizkien kontratuen gehiengoa. Gipuzkoan, atzetik EEEko kideetako herritarrei egin zitzaizkien kontratu gehien (%32,1), eta Bizkaian, afrikarrei (%29,2).
- 2003-2005 urteen artean EAEn atzerritarrei kontratu gehiago egin zitzaizkien, eta Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian ere hori gertatu zen.
- 2005etik 2007ra ez zen aldaketarik egon kontratu gehien erregistratu zuten herritarren artean, Araban salbu. Urte horretan, Araban berriro ere afrikarrei egin zitzaizkien kontratu gehien (%33). EEEko edo Europar Batasuneko herritarrei kontratu gehien egiten dizkieten lurraldea Gipuzkoa da, eta hala izaten jarraitzen du. Kontuan izan behar dugu Gipuzkoan gainerako lurralde historikoetan baino Europako etorkin atzerritar gehiago daudela.

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

3. grafikoa. EAEko atzerritarren bilakaera, eremu geografiko bakoitzean erregistratutako kontratuen arabera (2003-2009)



Iturria: MTIN

### 2.2. Enplegu-eskatzailak

Erregistratutako kontratuen bilakaera aztertu ondoren, 2001etik etorkin atzerritarren langabeziak zer bilakaera izan duen aztertuko dugu. Adieraziko ditugun datuak ez dira BAlek (Biztanleria Aktiboaren Inkesta) emanak, INEMenak (Enpleguko Institutu Nazionala) baizik. Atal honetan INEMeko edo INEMera atxikitako zentzoren batean enplegu-eskatzaille gisa izena eman duten atzerritarrak baino ez ditugu kontuan hartuko. Datu horiek lan-egoera eta zehazki langabezian daudenen egoera zein den jakiteko baliagarriak dira, baina albo batera uzten ditu lan bila dabilzan pertsona guztiak eta izenik eman ez dutenak, nahi ez dutelako izenik eman ez dutenak eta INEMek izena ematen utzi ez dienak, egoitza-baimenik ez dutelako edo zuten laneko baimenik ez dutelako (edo berritu ez dutelako).

13. taula. Erregistratutako langabeziaren bilakaera (enplegu-eskatzailak) EAEn eta lurralde historikoe-tan (2001-2009)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EAE	2.009	2.756	3.505	3.809	4.903	5.633	7.220	12.784	12.216
Araba	520	673	708	815	1.022	1.196	1.526	3.011	3.038
Gipuzkoa	619	866	1.224	1.188	1.631	1.874	2.344	3.809	3.565
Bizkaia	870	1.217	1.573	1.806	2.250	2.563	3.350	5.964	5.613
ESPAINIA	87.420	120.736	141.251	155.222	192.854	230.069	306.866	544.462	501.331

Iturria: MTIN

2001ean, 2.009 enplegu-eskatzaille atzerritar zeuden, eta 2007an, 7.220. Gainera, nahiko bilakaera homogeneoa izan da lurraldeka, bai estatuan, bai autonomia eta foru mailan, Gipuzkoan salbu. Gipuzkoan baino ez da jaitsi enplegu-eskatzaille atzerritarren kopurua. Zehazki, 2003-2004 aldian 36 pertsona gutxiagok eskatu zuten enplegua. Hala ere, gainerako lurraldeetan ere enplegu-eskatzailen kopurua ez zen aurreko eta ondorengo urteetan adina igo. 2007tik 2008ra bitartean ere igo egin zen enplegu-eskatzailen kopurua eta aurreko urteetan baino gehiago hazi zen, ia bikoiztu egin zen EAEn; 7.220 pertsona izatetik 12.784 pertsona izatera igaro ziren.

14. taula. Enplegu-eskatzailen igoera Espainian, EAEn eta lurralde historikoetan, ehunekoetan (%)

	2001-2002	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008	2008-2009
EAE	37,2	27,2	8,7	28,7	14,9	28,2	77,1	-4,4
Araba	29,4	5,2	15,1	25,4	17,0	27,6	97,3	0,9
Gipuzkoa	39,9	41,3	-2,9	37,3	14,9	25,1	62,5	-6,4
Bizkaia	39,9	29,3	14,8	24,6	13,9	30,7	78,0	-5,9
ESPAINIA	38,1	17,0	9,9	24,2	19,3	33,4	77,4	-7,9

Iturria: MTIN

Langabezian dauden atzerritarren bilakaera lurraldeka aztertuz gero, hau ikusten dugu:


- 2001etik 2002ra enplegu-eskatzailen kopuruak %37,2ko igoera izan zuen EAEn, 2002tik 2003ra %27,2koa, baina ez zen parekatua izan (Gipuzkoan %41,3koa eta Araban %5,2koa).
- 2003-2004; autonomia mailan enplegu-eskatzailen kopurua hazi egin zen, baina ez zen aurreko urteetan adina hazi (%8,7). Enplegu-eskatzailen kopuruak %15eko igoera izan zuen Gipuzkoan eta Bizkaian. Gipuzkoan, berriz, INEMen izena eman zuten enplegu-eskatzailen kopuruak %2,9ko jaitsiera izan zuen.
- 2004-2005. Urte bat geroago, berriro ere enplegu-eskatzailen kopuruak gora egin zuen nabarmen; EAEn %28,7ko igoera izan zuen. Araban eta Bizkaian %25ekoa izan zen igoera, gutxi gorabehera. Gipuzkoan, berriz, %37,3koa izan zen.
- 2005-2006. Langabetuen kopurua haziz zihoan, baina aurreko urtean baino zertxobait gutxiago, eta igoera antzekoa izan zen EAeko hiru lurralde historikoetan.
- 2006-2008: aldi horretan, enplegu-eskatzailen kopuruak %106,3ko igoera izan zuen EAEn.
- 2008-2009: azken aldiak eta aztertutako aldi batean lehendabiziko aldiz, atzerriko enplegu-eskatzailen kopuruak behera egin zuen, baina azken finean mantendu egin zela esan dezakegu. Atzerriko enplegu-eskatzailen kopurua ez hazteak ez du esan nahi atzerritarren egoerak

Jarraian enplegu-eskatzailen artean jarduera-sektoreek zer bilakaera izan duten aztertuko dugu. Eskaerek sektoreka izan duten bilakaera hau izan da:

- Erregistratutako kontratuak aztertzean ikusi bezala, zerbitzuen sektorea da enplegu-eskatzaille gehien duen sektorea. 2001ean, enplegu-eskatzailen %43,5ek zerbitzuen sektorean eman zuen izena, eta ehuneko %55 izatera iritsi zen 2006. eta 2007. urteetan, eta hortik aurrera zertxobait jaitsi zen. 2009an, enplegu-eskatzailen erdiak sektore horretan eman zuen izena (%50,7).
- Industriaren sektorean igoz joan da eskatzailen kopurua. 2001ean, atzerriko enplegu-eskatzailen %12,8k industriaren sektorean eman zuen izena; 2009an ehuneko ia bikoiztu egin zen, eta atzerriko eskatzailen %23,1ek sektore horretan eman zuen izena.

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

4. grafikoa. EAEko atzerritarren bilakaera jarduera sektore bakoitzean erregistratutako eskaeren arabera (2002-2009)



Iturria: MTIN

- Eraikuntzaren sektorean izena eman duten enplegu-eskatzaielen kopurua ez da aldatu. Hala ere, 2007an kopurua hazi egin zela ikus dezakegu, eta 2009an enplegu-eskatzaielen %13,4k eman zuen izena sektore horretan.
- Nekazaritzaren sektorean baino ez da murriztu enplegu-eskatzaielen kopurua. INEMen izena eman zuten pertsonen artean ere, aurreko enplegurik izan ez zuten pertsonen kopurua murriztu egin zen.

Jarduera-sektoreka enplegu-eskatzaielen izenak aztertuta ondoren, enplegu-eskatzaielen jatorriaren arabera banaketa aztertuko dugu. Oro har, aztertzen ari garen aldiak ez da aldaketak nabarmenik egon jatorriari dagokionez, baina hau berrets dezakegu:

- enplegu-eskatzaielen emakume europarren kopurua gora doa, baina kontuan izan behar dugu 2009an herritar europarren taldea %29,2 zela. 2003ko eta 2005eko datuek, berriz, EEEko (Europako Esparru Ekonomikoa) herrialde europarretako emakume eskatzaielen kopurua ez dituzte kontuan hartzen. Europarren kopuruek gora egitea, neurri batean, 2007an Errumania eta Bulgaria Europar Batasunean sartu zirelako da.
- Latinoamerikarren kopuruek, berriz, behera egin dute 2007tik aurrera. 2007an enplegu-eskatzaielen latinoamerikarrak %41,7 izatetik 2009an %33,1 izatera igaro ziren, eta indarra galdu zuten. Kontuan izan behar dugu latinoamerikarren artean nazionalizazioek duten garrantzia, nazionalizazioa dela eta, pertsona batzuk ez baitute atzerritar gisa izena ematen.
- Afrikarren kopuruak, gutxi gorabehera mantendu egin dira, eta 2009an zerbitzu publikoan izena eman zutenen artean %34,7 ziren afrikarrak.



15. taula. Enplegu-eskatzailleen bilakaera, eremu geografikoen eta lurralde historikoen arabera


	2003							
	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%	K	%
Europako Esparru Ekonomikoa	665	19,0	90	12,7	310	25,3	265	16,8
Gainerako Europa	188	5,4	38	5,4	70	5,7	80	5,1
Afrika	1.242	35,4	323	45,6	391	31,9	528	33,6
Latinoamerika	1.284	36,6	239	33,8	395	32,3	650	41,3
Ipar Amerika	17	0,5	0	0,0	5	0,4	12	0,8
Asia	97	2,8	15	2,1	52	4,2	30	1,9
Ozeania	8	0,2	1	0,1	1	0,1	6	0,4
Herrigabeak - Zehaztugabe	4	0,1	2	0,3	0	0,0	2	0,1
Guztira	3.505	100,0	708	100,0	1.224	100,0	1.573	100,0

	2005							
	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	K	%	K	%	K	%	K	%
Europako Esparru Ekonomikoa	845	17,2	141	13,8	382	23,4	322	14,3
Gainerako Europa	311	6,3	64	6,3	122	7,5	125	5,6
Afrika	1.540	31,4	451	44,1	443	27,2	646	28,7
Latinoamerika	2.049	41,8	333	32,6	613	37,6	1.103	49,0
Ipar Amerika	21	0,4	1	0,1	3	0,2	17	0,8
Asia	122	2,5	30	2,9	63	3,9	29	1,3
Ozeania	5	0,1	0	0,0	1	0,1	4	0,2
Herrigabeak - Zehaztugabe	10	0,2	2	0,2	4	0,2	4	0,2
Guztira	4.903	100,0	1.022	100,0	1.631	100,0	2.250	100,0

	2007								2009	
	EAE		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		EAE	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
Europako Esparru Ekonomikoa	1.459	20,2	248	16,3	598	25,5	613	18,3	3.557	29,2
Gainerako Europa	170	2,4	37	2,4	78	3,3	55	1,6	0	0,0
Afrika	2.350	32,5	649	42,5	696	29,7	1.005	30,0	4.227	34,7
Latinoamerika	3.011	41,7	522	34,2	887	37,8	1.602	47,8	4.038	33,1
Ipar Amerika	12	0,2	1	0,1	4	0,2	7	0,2	18	0,2
Asia	193	2,7	67	4,4	71	3,0	55	1,6	338	2,8
Ozeania	9	0,1	0	0,0	3	0,1	6	0,2	7	0,1
Herrigabeak - Zehaztugabe	16	0,2	2	0,1	7	0,3	7	0,2	10	0,1
Guztira	7.220	100,0	1.526	100,0	2.344	100,0	3.350	100,0	12.195	100,0

Iturria: MTIN

5. grafikoa. Enplegu-eskatzaille atzerritarren bilakaera EAEn, eremu geografikoen arabera (2003-2009)



Iturria: MTIN

Probintziaka, aztertutako urteetan jatorri desberdinetako pertsonen kopuruak mantendu egin direla esan dezakegu. 2003an, Araban, eskatzaileen %45,6 ziren afrikarrak eta herena latinoamerikarrak (%33,8). Gipuzkoan, hamarretik sei afrikarrak (%31,9) edo latinoamerikarrak (%32,3) ziren. Eskatzaileen %25,3, berriz, EEEko herrialderen batekoak ziren. Bizkaian, eskatzaileen %41,3 latinoamerikarrak ziren, %33,6 afrikarrak eta %16,8 EEEko herrialderen batekoak.

## Atzerritar populazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman

Gorka Moreno Márquez

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe

Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokia

EAEEn dagoen immigrazioari buruzko 2010eko urtekariko kapitulu honetan, ikasle atzerritarrei buruzko hainbat datu aztertuko ditugu. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako datuak erabiliko ditugu. Sorrera edota jatorria atzerrian duten ikasleen hezkuntzaren gaia gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da migrazioaren fenomenoaz aztertzerakoan; horregatik, are eta interesgarriagoa da bere ezaugarri nagusiak zein diren azpimarratzea eta aztertzea, eta, era berean, epe motzean zein luzean doi-doi ikus daitezkeen joerak antzematea.

### 1. Datuen bilakaera

1. taulan ikus daitekeenez, 2010. urtean 30.405 pertsona atzerritar zeuden euskal hezkuntza-sisteman, eta aurrez, 2007. urtean, 23.565 zeuden; hots, ikasle-kopurua guztira %29 hazi da. Hezkuntza-etapei dagokienez, derrigorrezko hezkuntzak urte guztietan ikasle etorkin guztien bi heren hartzen ditu gutxi gorabehera.

1. taula. Ikasle atzerritarren kopuruaren bilakaera EAEEn. 2007-2010

	2007		2008		2009		2010		2007-2010 hazk.
	K	%	K	%	K	%	K	%	
HHE	6.416	27,2	7.423	27,2	7.300	24,8	6.681	22,0	4,1
Haur-Derrig.	15.139	64,2	17.537	64,2	19.164	65,2	20.355	66,9	34,5
Derrig. ondokoa	2.010	8,5	2.355	8,6	2.939	10,0	3.369	11,1	67,6
Guztira	23.565	100,0	27.315	100,0	29.403	100,0	30.405	100,0	29,0

*Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*

Kopuru erlatiboetan eta bilakaerari dagokienez aldaketa handirik hautematen ez bada ere, igaritzen da azken lau urteotan helduen hezkuntzak garrantzia galdu duela, eta derrigorrezko hezkuntzak eta derrigorrezkoaren ondokoak, aldiz, irabazi. Horrela, 2007 urtean %27,2 izatetik 2010ean %22 izatera pasatu zen. Derrigorrezko hezkuntza %64,2tik %66,9ra pasatu zen, eta derrigorrezkoaren ondokoa %8,5etik %11,1era. Izan ere, helduen hezkuntza da gutxien hazten

dena ere denbora epe horretan, %4,1, derrigorrezkoa %34,5 eta derrigorrezkoaren ondokoa %67,6 hazi ziren bitartean.

Datu horiek adierazten dute aurreko urteetan HHEra hizkuntzak edo beste ikasgai batzuk ikastera joaten ziren helduen kopurua esanguratsuagoa zela, eta, gaur egun, berriz, haur eta nerabe atzerritarrek indar handiagoa hartu dutela hezkuntza-sisteman. Hori guztia ikusita, pentsa dezakegu datu horrek etorkinen taldea gero eta gehiago finkatu dela erakusten duela; izan ere, migrazio-proiektuaren hastapenean etorrerak banakakoak izan ohi dira, eta hizkuntza ezagutzea garrantzitsua da; ondorengo aldi batean, berriz, familiak bat egiten du berriro, eta bikotekidea eta seme-alabak etortzen dira. Datuetan gertatutako aldaketak ez digu hori ezberrik gabe horrela gertatu denik esatea ahalbidetzen, baina lan-hipotesi interesgarria erakusten digu etorkizunari begira.

Era berean, azpimarratu beharra dago ditugun estatistikak ikasle atzerritarrei buruzkoak direla, eta, beraz, ez dituztela kontuan hartzen nazionalizatu diren pertsonen kopurua edo, espainiar nazionalitatea hasieratik eduki arren, jatorri atzerritarreko familien ondorengo direnak. Bi aldagai horiek oso garrantzitsuak dira eta, ahal den neurrian, gai horri buruzko analisi estatistikoa sartu beharko genituzke; izan ere, bestela, alde batera utziko genuke fenomeno hori aztertzeke garrantzitsua den errealtatea. Gainera, ezin dugu ahaztu estatistiketan azaltzen ez den talde hori gero eta handiagoa izango dela, eta, beraz, soilik nazionalitatearen irizpidea mantenduz gero, *iceberg* baten zati txiki bat ikusten dugun moduan, ageriko zatiari buruzko datuei baino ez diogu erreparatuko; eta urteen poderioz, ageriko punta hori gero eta txikiagoa izango da beste zatiarekin konparatuz gero.

## 2. Ikasleak jatorri-eremuaren arabera


2. taula. Ikasle atzerritarrak EAEn, jatorriaren arabera. 2010-2011 ikasturtea

	Guztira	%
Europar Batasuna	4.371	14,4
Europako gainerakoak	749	2,5
Iparraldeko Afrika	6.216	20,4
Afrikako gainerakoak	2.619	8,6
Hego Amerika	12.436	40,9
Amerikako gainerakoak	1.568	5,2
Asia/Ozeania	2.446	8,0
Guztira	30.405	100

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Hego Amerika da ikasle gehien jatorriko eremu geografikoa, 12.436 pertsonarena. Ikasle guztien ia %41ek –%40,9– Hego Amerikako herrialderen bateko nazionalitatea dauka. Nahiko urrun geratzen dira Iparraldeko Afrikakoak –%20,4– eta Europar Batasunekoak –%14,4–. %10etik behera kokatzen dira gainerako jatorriak: Afrikako gainerakoak, Asia/Ozeania, eta Amerikako eta Europako gainerakoak. Beste modu batera esanda, euskal hezkuntza-sistemako ikasle atzerritarren %75,8 Hego Amerikakoa, Iparraldeko Afrikakoa edo Europar Batasunekoa da.

1. grafikoa. Ikasle atzerritarrak EAEn, jatorriaren arabera. 2010-2011 ikasturtea




Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1. grafikoko datuak EAEn bizi den populazioaren jatorriko eremuarekin –2. grafikoa– alderatzen baditugu, ikusiko dugu etorkinen populazioan latinoamerikarrek orotara duten ehunekoa baino proportzio handiagoa dutela ikasleen artean, ikasleen %40,9 baita latinoamerikarra, eta biztanle atzerritarren artean guztira %37,9 baino ez. Berdin gertatzen da Asia/Ozeaniako populazioarekin, eta, batik bat, Afrikakoarekin, azken horiek populazioaren %20,9 baino ez izan arren ikasleen %29 baitira.

Kontrako joera dute gainerako jatorrietakoek. Europar Batasunekoena da, beharbada, azpimarragarriena, populazioaren %25,7 baitira eta ikasleen %14,4 baino ez. Azken kasu horretan, konstantan hartu behar da EBko nazionalitateetako pertsonen adina gainerako eremuetakoena baino zaharragoa dela; gainera, Frantzia, Italia edota Erresuma Batuko migrazio-eredua eta beste eremuetakoa, esaterako Hego Amerikakoa edo Afrikakoa, desberdina da.

2. grafikoa. Populazio atzerritarra EAEn, jatorriko eremu geografikoaren arabera. 2010




Iturria: EIN

3. grafikoa, jatorriko eremu geografikoaren arabera ematez gainera, hezkuntza-sarea –publikoa zein pribatua– ere sartzan dugu. Atzerritar ikasleen ia %75 –%74,9– ikastetxe publikoetara joaten da. Dena dela, datu hori jatorri-eremuaren arabera aztertzen badugu, desberdintasun batzuk antzeman daitezke. Horrela, asiarrak eta afrikar populazioa batez bestekotik gora aurkitzen dugu sare publikoan, %84 eta %85/87, hurrenez hurren. Batez bestekotik gertu dago

europar populazioa. Latinoamerikar populazioak batez bestekotik gora erabiltzen du sare kon-  
zertatua, herenak, hain zuzen ere. Ikus daitekeenez, kasu guztietan sare publikoak jasotzen du  
ikasle atzerritarren gehiengoa, %66tik %87ra doazen portzentajeetan.

3. grafikoa. Ikasle atzerritarrak EAEn jatorriaren eta hezkuntza-sarearen arabera. 2010-2011 ikasturtea



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

3. taulan ikasle atzerritarren datuak ematen dira, jatorri-eremuaren eta hezkuntza-mailaren ara-  
bera. Kasu horretan ere hainbat desberdintasun hauteman daitezke. Horrela, Hego Amerikatik  
datozen ikasleek gainerako jatorrietakoek baino portzentaje handiagoak dituzte DBHn eta Lehen  
Hezkuntzan; talde horretako %27,2 DBH ikasten ari da eta %32,4 LH. Haur Hezkuntzan, aldiz,  
portzentaje baxuena duen eremua da, %10,1 zehatz-mehatz.

Iparraldeko Afrikak eta Europar Batasunak beste eredu bat agertzen dute, beren portzentaje  
altuenak Haur eta Lehen Hezkuntzan ematen baitituzte. Haur Hezkuntzari dagokionez, biak  
%20aren gaineratik daude. DBHn, aldiz, Hego Amerikakoek portzentajeak baino dezente baxua-  
goak dituzte, %17,2 EBkoek eta %11,2 Iparraldeko Afrikakoek.

3. taula. Ikasle atzerritarrak EAEn, jatorriaren eta hezkuntza-mailaren arabera. 2010-2011 ikasturtea

	EB		Gain. Europa		Iparr. Afrika		Gain. Afrika		Hego Amerika		Gain. Amerika		Asia/Ozeania		Guztira
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	
HH	946	21,6	121	16,2	1.275	20,5	417	15,9	1.254	10,1	202	12,9	327	13,4	4.542
LH	1.558	35,6	188	25,1	1.230	19,8	373	14,2	4.034	32,4	475	30,3	447	18,3	8.305
DBH	753	17,2	139	18,6	697	11,2	195	7,4	3.379	27,2	367	23,4	398	16,3	5.928
HLPP	108	2,5	13	1,7	593	9,5	227	8,7	469	3,8	77	4,9	24	1,0	1.511
HHE	636	14,6	182	24,3	2.117	34,1	1.145	43,7	1.231	9,9	223	14,2	1.147	46,9	6.681
DOBH	353	8,1	106	14,2	288	4,6	259	9,9	2.006	16,1	218	13,9	99	4,0	3.329
HB	17	0,4	0	0,0	16	0,3	3	0,1	63	0,5	6	0,4	4	0,2	109
<b>Guztira</b>	<b>4.371</b>	<b>100,0</b>	<b>749</b>	<b>100,0</b>	<b>6.216</b>	<b>100,0</b>	<b>2.619</b>	<b>100,0</b>	<b>12.436</b>	<b>100,0</b>	<b>1.568</b>	<b>100,0</b>	<b>2.446</b>	<b>100,0</b>	<b>30.405</b>

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Aurrez aipatutako datuen arabera, Europar Batasuneko eta Iparraldeko Afrika nazionalitateen kasuan, badirudi etorkinak beranduago iritsi zirela; aldiz, Hego Amerikako taldeak denbora gehiago darama bertan eta finkatuago dago. Izan ere, joera hori beste adierazle batzuen bidez berresten da: esaterako, jatorri-eremu horietako erregularizatze-indizea edota bizileku-baimen moten garrantzia –urtekari honen baitan alor horiek sakon aztertu dira, bizileku-baimenak aztergai dituen atalean–.

Horrela, latinoamerikar populazioa besteak baino aurreratuago dago hezkuntza-etapei dagokienez; etapa horietara iristen aurreneko taldea da, eta talde horrentzat hurrengo urratsa derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzara pasatzea izango da. Beste era batera esanda, hegoamerikar populazioa da aitzindari euskal hezkuntza-sistemara sartzeko orduan. Datu hori hobeto ulertzeko, ezin da alde batera utzi batik bat nazionalitate latinoamerikarrak direla familia berriz biltzeko bideak –formalak zein informalak– erabiltzen ari direnak, eta horrek eragina du beste herrialde batzuetako adingabeak hezkuntza-sisteman sartzeko orduan

### 3. Lurralde historikoa

Immigrazioarekin zerikusia duen beste hainbat gairekin gertatzen den moduan, ikasle atzerritarren kasuan EAEn bi eredu bereiz daitezkeela dirudi: bata Gipuzkoak eta Bizkaiak dutena, eta bestea Arabak jarraitzen duena. Horrela, azkena aipatutako lurraldean, atzerritar taldeari dagokionez, eskola publikoan gehiago kokatzen dira Gipuzkoan edo Bizkaian baino. Araban ikasleen %82,2 ikastetxe publikoetara joaten da; aldiz, Gipuzkoan portzentajea %73,2koa da eta Bizkaian %72,6koa. Halere, lurralde guztietan %70etik gorakoa da hezkuntzara-sare publikotik sartzen den ikasle atzerritarren portzentajea.

Datu horrek gorago aipatutako beste batekin zerikusia duela dirudi. Ikusi dugu Afrikatik datorren populazioak besteak baino gehiago erabiltzen duela sare publikoa. Hori horrela, ezin dugu ahaztu aipatutako populazio horrek pisu handiagoa duela Araban. Era berean, Bizkaian eta Gipuzkoan sare kontzertatuak pisu handiagoa duenez, pentsatzekoa da hori funtsezko datua izango dela 4. taulan aurkezten diren datuak ulertzeko eta interpretatzeko

4. taula. Atzerritar ikasleak EAEn, lurralde historikoaren eta hezkuntza-sarearen arabera. 2010-2011 ikasturtea


	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		EAE	
	K	%	K	%	K	%	K	%
Guztira	6.721	100,0	8.381	100,0	15.303	100,0	30.405	100,0
Publikoak	5.528	82,2	6.133	73,2	11.110	72,6	22.771	74,9
Pribatuak	1.193	17,8	2.248	26,8	4.193	27,4	7.634	25,1

*Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*

Eredu desberdintasun hori nabaritzen da ikasle guztien artean atzerritar ikasleek duten portzentajearen ere. Horrela, Araban portzentaje hori %12koa da, Gipuzkoan %6,6koa eta Bizkaian %8koa. EAeko batez bestekoa %8,1koa da. Era berean, 4. grafikoan ikus daitekeenez eta dagokien aurreko datuetan aipatuenez, portzentajea nabarmen handiagoa da sare publikoko ikasleentzat. Horrela, Gipuzkoan ezik, gainerako lurralde historikoetan ikastetxe publikoetako atze-

rritar ikasleen portzentajea %10etik gorakoa da, eta Araban %16,6ra iristen da. Ikastetxe pribatuak, aldiz, %4-5aren bueltan dabilta.

4. grafikoa. Atzerritar ikasleak EAEn, lurralde historikoen eta hezkuntza-sarearen arabera. Guztiarekiko %. 2010-2011 ikasturtea



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Ikasketa-motari dagokionez –5.taula–, ez da datu aipagarrikerik ikusten, helduentzako hezkuntzan eta hasierako lanbide prestakuntzako programen kasuetan ezik. Dena den, bigarren kasu horrek ez du pisu handiegirik kopuru absolutuetan. Bi kasuetan, atzerritar ikasleen portzentajeak nabarmen altuagoak dira batez bestekoa edota beste ikerketa-mota batzuetakoa baino. Horrela, EAEn HHE ikasten ari direnen %24 atzerritarra da, eta Araban portzentaje hori %33,4ra igotzen da.

5. taula. Atzerritar ikasleen % EAEn, lurralde historikoaren eta ikasketa-motaren arabera. 2010-2011 ikasturtea

	HH	LH	DBH	HLPP	HHE	DOBH	HB	Guztira
Araba	8,5	11,0	12,2	34,4	33,4	7,3	18,5	12,0
Gipuzkoa	3,8	5,6	6,3	28,9	26,2	4,5	5,7	6,6
Bizkaia	4,4	7,0	8,7	34,9	20,2	5,9	9,2	8,0
EAE	4,8	7,1	8,4	33,4	24,0	5,6	10,2	8,1

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Horrela, ezin da ahaztu atzerritar ikasleen batez bestekoa lurralde historiko guztietan eta EAEn hazi egin dela helduen hezkuntzak duen pisuarengatik. Hezkuntza-maila hori alde batera uzten badugu, eta soilik normalean 18 urtez azpikoak dauden hezkuntzari begiratzen badiogu, ikusiko dugu batez besteko horrek behera egiten duela.

Izan ere, beste hezkuntza-mailetatik HHE kentzen badugu eta EAEko batez bestekoa hori gabe egiten badugu, ikusiko dugu batez besteko hori %8,1etik %6,9ra jaisten dela. 2010eko urtarriaren 1ean, EAEko pertsona atzerritarren portzentajea %6,4koa zela kontuan hartzen badugu, ikasleen batez bestekoa batez besteko orokorrera hurbiltzen dela ikusiko dugu. Horrela, HHEk neurri batean batez bestekoa igo egiten du eta gaizki-ulerturen bat sor dezake. Horregatik, interresgarria litzateke estatistika-eragiketek gertakari hori aurreikustea, eta, baita, ziur asko zerikusia izango duten arren, errealitate eta joera desberdinen aurrean gaudela bereiztea ere. HHEri dagokionez, helduek osatutako talde bati buruz ari gara, batik bat hizkuntza-egagupenak edota titulu ofizialen bat behar dituen; gainerakoetan, aldiz, pertsona gazteagoak daude, eta beren



ikasketak formazio-bide arruntago batetik edo bertakoek jorratzen duten formaziotik gertuago daudenetatik bideratzen dira.

6. taula. Ikasle guztiak eta atzerritarrak EAEn hezkuntza-mailaren arabera (HHE gabe). 2010-2011 ikasturtea

	Guztira	Atzerritarrak	Atzerr. %
HH	93.749	4.542	4,8
LH	117.041	8.305	7,1
DBH	70.637	5.928	8,4
HLPP	4.519	1.511	33,4
DOBH	59.229	3.329	5,6
HB	1.067	109	10,2
Guztira HHE gabe	346.242	23.724	6,9

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

#### 4. Atzerritar ikasleen %a, ikastetxeen arabera

EAEko atzerritar ikasleei buruzko txostenaren azken atal honetan, dituzten ikasle atzerritarren portzentajearen arabera ikastetxe kopuruari egingo zaio erreferentzia; zehatz-mehatz, hartutako irizpidea %20 edo gehiago izatea da.

7. taula. Atzerritar ikasleak %20 baino gehiago diren ikastetxeak, lurralde historikoaren eta hezkuntza-sarearen arabera. 2010-2011 ikasturtea

		%20 baino gutxiago		%20 edo gehiago	
		K	%	K	%
Araba	Guztira	145	84,8	26	15,2
	Publikoa	106	81,5	24	18,5
	Pribatua	39	95,1	2	4,9
Gipuzkoa	Guztira	389	96,8	13	3,2
	Publikoa	262	97,4	7	2,6
	Pribatua	127	95,5	6	4,5
Bizkaia	Guztira	487	91,4	46	8,6
	Publikoa	308	90,9	31	9,1
	Pribatua	179	92,3	15	7,7
Guztira	Guztira	1.021	92,3	85	7,7
	Publikoa	676	91,6	62	8,4
	Pribatua	345	93,8	23	6,3

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Pentsa daitekeen moduan, aurreko datuetan bereizi ahal izan diren hainbat eredu agertuko dira berriro. Horrela, ikastetxe guztien %7,7ak ikasle atzerritarrak %20tik gorako portzentajearen hartzen ditu; ikastetxe horietatik %8,4 sare publikoan daude eta %6,3 pribatuan. Lurralde historikoaren arabera, Arabak portzentaje altuagoak ditu; izan ere ikastetxeen %15,2an %20 baino gehiago dago, %18,5era iristen da publikoetan eta %4,9 baino ez da pribatuetan. Gipuzkoan eta

Bizkaian aurrez aipatutako joerak errepikatzen dira: antzeko ereduak dituzte, Bizkaian portzentajeak altuagoak badira ere.

Era berean, Gipuzkoan aipagarria da ikasle atzerritarren %20tik gorako portzentajea duten ikastetxeak gehiago direla pribatuak publikoak baino. Neurri batean, lurralde horretan sare pribatuak duen pisuak azal dezake datua. Hala ere, %20 horren gainetik dagoen ikastetxe-kopurua urria denez, datua baliteke estatistikoki esanguratsua ez izatea.

Laburbilduz, ikasle atzerritarren portzentaje altuena duten ikastetxeak Araban daude eta pisu handiagoa dute hezkuntza publikoaren sarean. Gipuzkoan, berriz, egoera bestelakoa da. Horrela, %20 hori baino gehiago Arabako ikastetxe publikoen %18,5ean dago, eta Gipuzkoako portzentajea %2,6ra jaisten da.

## 5. Datu esanguratsuenak eta hainbat ondorio

Txosten honetan aztertutako datuetatik emaitza batzuk azpimarra daitezke eta baita hainbat ondorio atera ere, muga estatistikoak ahaztu gabe; Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ikasle atzerritarrei buruzko ikuspegi argiagoa eta zehatzagoa eskaintzen dizkiguten ondorioak, hain zuzen ere.

- Azken urteotan EAEn ikasle atzerritarren etengabeko hazkundera egon da, ikasketa-motaren arabera desberdina izan bada ere. Horrela, helduentzako hezkuntza jasotzen duten pertsona-kopurua jaitsi egin da eta haur- zein lehen-hezkuntzako hazi. Horrek migrazio-stocken finkatze- eta sendotze-eredu bat erakusten du. Pentsatzekoa da eredu hori areagotu egingo dela.
- Horrekin batera, datozen urteotan hainbat pertsona atzerritarrek atzerritar izateari utziko diote, eta beste batzuk jaio orduko espainiar nazionalitatea izango dute, beren gurasoak atzerritarra izan arren. Horregatik, oraintxe bertatik hasita tresna estatistiko berriak antolatu beharra dago, errealitate horiek neurtzeko gai izango direnak, eta esparru horretako ñabardurak eta, epe ertainera zein luzera begira, hauteman daitezkeen problematikak hobeto jasoko dituztenak.
- Jatorri-eremu geografikoaren arabera, %40,9 HegoAmerikatik dator eta %29 Afrikatik.
- Eremu geografiko desberdinek erroldan duten pisua kontuan hartuta, portzentajeei dagokionez, atzerritar ikasleen artean orokorrean baino afrikar gehiago dago. Bestaldean kokatzen dira Europar Batasunetik iritsitakoak, erroldan gehiago baitira –kopuru erlatiboetan– ikasle atzerritarren taldean baino.
- Hezkuntza-sareari dagokionez, ikasle atzerritarren %74,9 ikastetxe publikoetara joaten da. Gaur egun sare publikoak eta pribatuak ia ikasle-kopuru bera dutela kontuan hartzen badugu –2010. urtean hezkuntza publikoan %50,1 zegoen–, ereduaren arteko desberdintasun nabarmena dagoela ikus dezakegu, sare publikoak ikasle atzerritar gehiago hartzen baititu bere baitan.

- Izan ere, azken urteotan aurreneko aldiz, sare publikoak pribatuak baino ikasle gehiago hartu du. Ikasle atzerritarren kopuru-hazkundeak eta talde horrek sare publikoan duen pisu handiagoak azalduko luke, neurri batean, aipatutako datua.
- Sare publikoa lurralde historiko guztietan gailentzen da, aldea Araban nabarmenagoa bada ere, bertan atzerritarren portzentajea handiagoa baita eta, era berean, ikastetxe pribatu guxtiago baitago. Gipuzkoan eta Bizkaian, publikoa ez da Araban bezain argi gailentzen. Sare publikoaren eta pribatuaren banaketa orokorrak eragin zuzena du eredu horretan.
- Neurri batean, azken baieztapen horrek azaltzen du sare publikora gehien joaten den taldea afrikarrena izatea, horiek batik bat Araban bizi baitira; eta latinoamerikarra izatea, berriz, sare pribatua gehien erabiltzen duen taldea, gehienak Bizkaian bizi baitira, eta hor sare kontzertatuak Araban baino pisu handiagoa dauka.
- Araba da ikasle atzerritar gehien jasotzen duen lurraldea, lurraldeko ikasle guztien %12. Era berean, azpimarratu beharra dago lurralde horretako sare publikoan portzentajea %16,6ra igoz delako. Nahiko urrun geratzen da Bizkaia, eta urrunago Gipuzkoa.
- Normala den bezala, aurreko datuaren ildotik, Araba da %20 baino ikasle atzerritar gehiago dituen ikastetxe gehien duen lurraldea, ikastetxeen %15,2, hain zuzen ere.
- Dena dela, helduen hezkuntza jasotzen ari diren pertsonak estatistikatik at uzten baditugu, datuek ñabardurak erakusten dituzte. Izan ere, EAEn ikasle atzerritarren portzentajea %6,9koa litzateke, atzerritarren populazioa guztira %6,4 denean. Are gehiago, Gipuzkoari dagokionez, ikasle atzerritarren portzentajea  $-5,3$  biztanleena baino txikiagoa da  $-6$ . Bizkaian ikasleen portzentajea %6,9 da eta biztanleena %6. Eta hemen ere alde handiena Araban dago, atzerritarrak ikasleen %10,2 baitira eta biztanleen %8,9.
- Azaldutako guztiaren arabera, Araban hartzen du garrantzi gehien ikasle atzerritarren gaiak. Lurralde horretan besteetan baino lehenagotik bizi da populazio atzerritarra eta, neurri batean, horregatik da handiagoa ikasle atzerritarren kopurua –eta baita dagoeneko atzerritarrak ez baina atzerritarren ondorengoak direnen kopurua ere–.
- Gainera, hori guztia azpimarratzen duten ezaugarriak ditu Arabak. Lurralde historiko horretan dago sare publikoan ikasle atzerritar gehien, eta bertan dago %20tik gorako portzentajea duten ikastetxe gehien, batik bat, eta aurrez aipatu den moduan, ikastetxe publikoak. Kontuan hartzeko elementua da Araban beste lurraldeetan baino afrikar jatorriko ikasle gehiago egotea, beste talde batzuek beharbada eskolan integratzeko erraztasun gehiago izan baitezakete, latinoamerikarrek, esaterako.
- Beraz, badirudi Araba dela hurbilenetik jarraitu beharreko lurralde historikoa, ikasle atzerritarren integrazioaren gaia korapilatsuen bertan suerta baitaiteke, bai bere kopurua zein hezkuntza-sarea dela-eta, bai taldeak berak dituen ezaugarriak direla-eta. Bizkaia eta, batik bat, Gipuzkoari dagokionez, salbuespenak salbuespen, ez da ikusten ikasle atzerritarren integrazioari begira berariaz kontuan hartu beharreko elementu edo faktorerik, behintzat ikasle-multzo osoaren baitan ikasle atzerritar horiek duten tamaina eta pisua kontuan hartuta.



## Ikuspegi@k Immigrazioa Barometroaren bilakaera: etorkinekiko jarrera

Eider Alkorta Elorza

Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokia

2004az geroztik, Immigraziorako Euskal Behatokia iritzi-inkesta bat gauzatzen ari da bertako jendeak etorkinekiko duen iritzia eta jarrera ezagutzeko. 2004an gai horren inguruko ikerketa sakona egin zen eta, horren ondorioz, oraingo barometroak sortu ziren. Oraingo barometroak (metodologikoak eta edukienak) 2007an abiarazi ziren eta urtero egiten dira.

EAEko immigrazio-fenomenoa gertutik ezagutzeko egiten dira urteroko barometro horiek. Batetik, euskal gizarteak informazio osoagoa izan dezan eta, bestetik, esparru horretan lan egiten dutenei lana errazteko, erabaki politiko eta sozialak hartzeko garaian.

Barometro horiei esker, urtero populazio atzerritarraren proportzioa ezagutzen da eta unean uneko egoera azter daiteke; gainera, aurreko barometroekiko datuak alderatu eta testuingurua kontuan hartuta egiten da analisisa. Datuen sekuentziak ondokoa erakusten digu:

- Etorkinen gorakadak bertako jendearen jarreran izan duen eragina.
- Krisi-egoerak izan duen eragina etorkin berriak onartzeko orduan. Kontuan hartu behar da, egungo lan-merkatua dela eta, zenbaitek lehiakide desleial gisa ikusten dituela etorkinak.

Horrela, Immigrazioaren Euskal Behatokiak egiten dituen unean uneko barometroei esker, denboran zeharreko irakurketa konparatiboa egin dezakegu. Horrez gain, herrialdeen arteko alderaketa egiteko ere balio du; euskal gizartearen iritzia, espainiar gizartearena eta europarrena aldera ditzakegu. Hori egiteko:

- Alde batetik, (CIS) ikerketa soziologikoen zentroak hilero egiten dituen barometroak aztertu ditugu; besteak beste, arazo nagusiei buruz galdetu zaio espainiar gizarteari. Item horri esker, honako informazio hau jasoko dugu:
  - Immigrazioa arazo nagusitzat daukatenen portzentajea.
  - Hori momentuko immigrazio-tasarekin batera aztertuz gero, etorkin-kopuruak jendearen iritzia aldatzen duen jakingo dugu. Bestalde, zentzu horretan, euskal gizarteak eta espai-

niarrak modu berean jokatzen duten ere jakingo dugu eta, hala ez balitz, desberdintasunak aztertu ahal izango ditugu.

- Bestalde, 2010eko barometroan aldaketak egin dira. Item berriak sartu dira eta aurreko barometroetako batzuk aldatu egin dira, Eurostaten Europar Inkesta Sozialeko galdeketarekin bat etor zitezten. Horrela, herrialde desberdinak aldera ditzakegu; euskal gizartea, euro-parra eta Eurostatek aztertzen dituen beste zenbait, besteak beste.

2010eko urtekariari dagokion atal honetan, aurretik egindako barometroetako hainbat item aukeratu ditugu; item horiek bertako populazioaren sinesmen, iritzi eta jarrera esanguratsuenak azalratzen dituztela uste dugu. Bestalde, azken galdeketetako iritziak aztertzeko orduan, kontuan hartu dugu egoera sozioekonomikoak eta horren inguruan esan direnek ere eragina izan dezaketela. Oro har, honako lau gai hauen inguruan ikertu dugu laburpen honetan: etorkinak arazo gisa ikustea aldakorra ote den, immigrazioak sor ditzakeen arazo ekonomikoak, estereotipo zabalduenak, bertako populazioak nahi duen elkarbizitza-eredua eta immigrazio-politikarako gakoak. Hala ere, laster argitaratuko da 2010eko barometroaren analisi luzeagoa, eta bertan daude etorkinekiko jarrera ezagutzeko aztertu ditugun gai guztiak.

### 1. Immigrazioa arazo

Atal honetan, bertako populazioaren arabera Euskadin dauden arazo garrantzitsuenak zein diren ezagutuko dugu. Egungo testuinguru sozioekonomikoan, langabezia eta arazo ekonomikoak dira larriena, hurrenez hurren. Immigrazioa inkestatuen %15,4k ikusten du arazo gisa (bat-bateko hiru erantzunen multzoan) eta %2,8k bakarrik dauka immigrazioa Euskadiko arazo nagusitzat. 10 arazoko zerrenda batetik 3 aukeratzeko eskatzen diegunean, bertako populazioaren %20,2k sartzan du immigrazioa arazo larriena artean, baina zuzenean eragiten dioten arazoei buruz galdetzean, zenbateko hori %8,2ra jaisten da. 2007an eta 2008an etorkinak arazo gisa ikusten zituztenen kopurua jaitsi egin zen, batez ere bat-bateko erantzunetan; geroztik, ordea, kopurua hazi egin da. Zuzenean eragiten dieten arazoei dagokienez, immigrazioa ez da aipatuena; hala ere, gorantz doa, eta 2007tik 2010era 4 puntu hazi da portzentajea.


Hainbat hipotesiren arabera, etorkinak arazotzat hartzea uneko immigrazio-tasaren arabera aldatu egingo zen. Beste batzuek, berriz, uneko datu estatistikoena baino gizartearen tolerantziaren arabera zela uste zuten pertzepzio hori. Beraz, zein dira euskal gizartearen jarrerak eta iritzian eragiten duten faktoreak? Espainiako gizartea baino tolerantetagoa al da gurea? Ba al du tolerantziak mugarik? Ba al dago tolerantzia neurtzerik?

Bertako populazioak hautematen duen atzerritar kopurua eta erroldako datuak ez datoz bat. Izan ere, 2010ean inkestatuen hamarretik zortzik pentsatzen zuen atzerritar gehiegi edo dezente zuzendela, eta euskal populazioaren %16,9 atzerritarra zela. Hemen erroldatutako atzerritarren portzentajea poliki-poliki handituz joan den arren, bertakoek ez dute aldaketarik nabaritu 2007. urtetik hona.

Erroldatuen datu erreala eman ostean (2010eko urtarrilean %6,4), etorkin gehiegi edo dezente diren galdetu genien, eta %57k gehiegi edo dezente direla pentsatzen jarraitzen du. Zenbateko hori bat dator aurreko hiru barometroetan jasotako erantzunekin: %59 2007an, %58,6 2008an eta %60,9 2009an. Zenbateko hori jaitsi egingen da behin erroldako datuak eman ostean, baina,

dena den, ez dirudi tolerantziaren muga ezagutu dezakegunik. Datu errealak jakin arren, batzuek etorkin gehiegi edo dezente daudela pentsatzen jarraituko dutela dirudi. Horren haritik, badirudi etorkinekiko jarreran ez dutela datu objektiboek bakarrik eragiten; izan ere, gai horren inguruan hedabideetan esaten direnek eta bertan agertzen diren estereotipoek ere eragiten dutela ematen du.

1. grafikoa. Etorkinak Euskadiko arazotzat edukitzea. Iradokita eta zuzenean eragiten dien arazo pertsonal gisa. (2007-2010)



Iturria: *Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia*


2007 eta 2008ko datuei erreparatzen badiegu, espainiarrek hartzen dute batez ere immigrazioa arazotzat, euskaldunek baino gehiago. 2007an eta 2008an inkestatutako espainiarrek uste dute immigrazioa Espainiako<sup>1</sup> arazo larrienetakoa dela (%29,5ek eta %26,9k, hurrenez hurren); EAEn, berriz, zenbateko hori %15ekoa da 2007an eta %7,2koa 2008an.

Immigrazio-tasak erantzunetan eragiten duela pentsa daiteke, baina hori ez da beti horrela; izan ere, Espainian 2007an eta 2008an immigrazio-tasa igo egiten da eta etorkinak arazotzat hartzen dituztenen kopurua, berriz, jaitsi. EAEn ere gauza bera gertatzen da; aipagarria da baina, immigrazio-tasa igo arren etorkinak arazotzat hartzen dituztenen kopurua erdira jaisten dela. Beraz, ez dirudi immigrazio-tasa etorkinekiko jarrerarekin erlazionatuta dagoenik. Baliteke 2007tik 2008ra emandako aldaketak immigrazioaren inguruko gertakari edo diskurtsoekin lotura izatea, eta horrek EAEn kezka sortu izana.

Grafikoan ikus daitekeenez, 2009an eta 2010ean immigrazio-tasa gorantz doa Espainian zein EAEn; hala ere, igoera horiek ez dira jendearen iritzia kausa. 2009an Estatuan immigrazioa arazorik garrantzitsuenetakoa dela uste dutenen kopurua jaitsi egin da; EAEn, berriz, alderantzizko joera dago. Badirudi krisi ekonomikoak datuetan eragin duela eta aurreko urteetan arazotzat jo dituzten beste gai batzuei, aldiz, garrantzia kendu dietela. Krisi ekonomikoak EAEn ere eragin du eta immigrazioa arazo garrantzitsuenetako dela uste dutenen kopurua mantendu egin da. Aipatzekoa da 2010eko datua: Euskadiko immigrazio-tasa Espainiakoaren erdia izanik, euskaldun gehiagok daukate immigrazioa arazotzat; ez da ahaztu behar, ordea, gutxiengoaren iritzia dela.

<sup>1</sup>Ematen ditugun CIS barometroko datuak ekainekoak dira (5G. zein da zure ustez gaur egun Espainiako arazorik larriena? Eta bigarrena? Eta hirugarrena? –erantzun anitzak–)

2. grafikoa. Etorkinak arazotzat edukitzea (EAE eta Espainia)



Iturria: Ikuspegi@k eta CIS (Ikerketa Soziologikoen Zentroa)

Datuen arabera, badirudi EAEn immigrazioa eta langabezia lotzen dituen diskurtsoak eragin duela. Beraz, nahiz eta euskal gizarteak eta espainiarrak egoera desberdinak bizi, badirudi langabezia-datuek eta Espainiako iritziak euskal gizartean ere garrantzia dutela. Badirudi, euskal gizarteak Espainiako iritzi publikoa bereganatu duela, datu erreal eta objektiboak alde batera utzita.

Izan ere, tolerantzia-muga eta jarrera ireki edo atzerakoiak ez daude beti datu erreal eta objektiboekin lotuta. Gai horren inguruko iritzi edo usteak alda daitezke arazo berriak agertzen diren heinean; horrez gain, aipatu behar da diskurtso estereotipatuek aldeko edo kontrako iritzia sortzen laguntzen dutela. Era berean, ezin dugu ahaztu, beste gai batzuetan gertatzen den bezala, egoeraren arabera immigrazio-fenomenoaren inguruan iritzia erraz eta azkar alda daitekeela.

## 2. Ondorio ekonomikoak

2010eko barometroan atzerritarren etorrerak sortzen dituen ondorio ekonomikoak ere aztertzen dira. Egoera ekonomikoak 2009a geroztik hartzen du batez ere garrantzia, krisi ekonomikoak euskal gizartea astindu zuen urtean, hain zuzen ere. Zentzu horretan, jarrera-aldaketarik izan den ezagutu nahi izan dugu; hau da, atzerritarren etorrerak sortutako ondorio ekonomikoak direla eta, bertako populazioak aurreko urteetan baino jarrera gogorragoa izan duen aztertu dugu.




Ondorio ekonomiko horien aurrean gizarteak duen jarrera ezagutzeko, ondoko bi arlo hauek landu dira. Batetik, atzerritarren lan-funtzionalitatea eta, bestetik, atzerritarren etorrerak ekar ditzakeen ondorioak: langabezia eta soldaten jaitsiera, eta euskal gizarteko talde ahulenetan kaltea, besteak beste.

### Lan-funtzionalitatea

Badirudi bertako populazioa etorkinei egozten zaien lan-funtzionalitate hori kolokan jartzen hasi dela. Etorkinak beren lan-eskuagatik bakarrik hartu izan dira aintzat; beren baliagarritasunari erreparatu izan zaio eta, oraindik ere, etorkinak ekonomiarako baliagarriak direla pentsatzen du euskal gizarteak, nahiz eta krisi ekonomikoa dela eta iritzi hori zertxobait aldatu den. Izan ere, gehiago dira uste dutenak etorkinak hainbat sektoretan lan egiteko beharrezkoak direla (%44,9k hala uste du eta %32,7 ez dago ados), eta gehiago dira bertako jendeak nahi ez dituen lanak egiteko baliagarriak direla uste dutenak ere (%47,1ek hala uste du eta %28,1 ez dago ados).

Beraz, badirudi bertako populazioak, oro har, etorkinak ez dituela oraindik lehiakide gisa ikusten. Dena den, hainbat inkestatuk uste du atzerritarrek ez dutela onura ekonomikorik ekartzen, baina hori baino aipagarriagoa eta kezagarriagoa da honako datu hau: gehienek, inkestatuen %60,8k, uste du etorkinen presentziak langabezia-tasa igotzen duela Euskadin. Beraz, egia da aurreko urteetan etorkinen baliagarritasunari eta eginkizunari buruz esandakoa indarra galtzen ari dela; eta poliki-poliki badirudi etorkinak lehiakide berri gisa ikusiak izan daitezkeela zenbait sektoretan bederen.

3. grafikoa. Ondorio ekonomikoak



Iturria: Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia

### Etorkinek eragindako kalteak

Badirudi, bertako populazioak onartzen dituela etorkinei esker lortutako onura ekonomikoak nolabait, nahiz eta askok Euskadiko langabeziaren igoera etorkinei egozten dien. Horren haritik, gehiago aztertu nahi izan dugu eta soldaten jaitsiera edo gizarteko talde ahulenen egoera kalteza ere atzerritarrei egozten ote zaien jakin nahi izan dugu.

Etorkinak soldaten jaitsierarekin erlazionatuta dauden galdetzen zaienean, ez dago erabateko adostasunik; 2009an bertako populazioaren erdiak (%47,9) hala uste zuen, baina galdetutakoen hamarretik hiru (%30,7) ez zegoen ados baieztapen horrekin. Urte bete beranduago, ados ez zeudenen kopurua hamar puntu igo zen (%40,3). Etorkinek gizarteko talde ahulenei eragin diezaieketen kalteari buruz galdetzean, gehienak nahiko ziur daude eta %72,4k baietz dio; era berean, etorkinen presentziak ekonomian batez ere behartsuei eragiten diela uste dute. Modu berean, gero eta gehiagok uste du etorkinek kalte egiten dietela lana aurkitu nahi dutenean, eta soldaten jaitsiera ere eragin dezaketela pentsatzen dute.

Laburpen gisa, esan daiteke bertako populazioak lan-funtzionalitatea eta nolabaiteko onura ekonomikoa aitortzen dizkiela etorkinei; hala ere, ez beste urteetan bezainbeste. Bestetik, etorkinei egozten diete, hein batean, langabeziaren igoera ere. Aipaturiko lan-funtzionalitateari buruz hitz egin da urteetan zehar eta, oraindik ere etorkinek onurak ekarri dituztela pentsatzen den arren, lehen gehiago pentsatzen zen hori; izan ere, 2004an inkestatuen hamarretik zortzik (%80k) pentsatzen zuen etorkinek bertakoek nahi ez zituzten lanpostuak betetzen zituztela, eta hamarretik batek bakarrik agertzen zuen desadostasuna horren aurrean (%11k).

Etorkinek eragindako kalteei dagokienez, 2004 eta 2009 urte bitartean hazi egin zen soldatak etorkinen ondorioz jaisten zirela uste zutenen kopurua. Dena den, 2010ean jaitsi egin zen berriz ere (%44,1era) eta, gainera, 10 puntu igo zen baieztapen horrekin ados ez zeudenen kopurua. Aipatu behar dugu bertako populazioak 2009. urtean nabarmendu zituela batez ere etorkinek eragindako kalteak; soldatetan eta gizarteko talde ahulengandako kaltea aipatu zuten bereziki. 2009tik 2010era, ordea, jarrera-aldaketa antzematen da eta ñabardurak ageri dira. Gehienek uste dute etorkinek bertako talde ahulenei kalte egiten dietela, baina soldatetan eragin lezaketen jaitsierari buruz ez dago erabateko adostasunik.


Badirudi, etorkinen lan-funtzionalitateari buruzko ideia indarra galtzen ari dela. Aldi berean, lanmerkatuan etorkinak lehiakide gisa ikusten hasi dira, batez ere gizarteko talde ahulenetan. Ekonomian etorkinek kaltea eragiten dutela pentsatzen duten pertsonen analisia egin ostean, oro har, baieztapen hori egin dutenak immigrazioarekiko jarrera itxia duten taldeak direla esan daiteke. Hala ere, aldagai ekonomikoez gainera, beste aldagai soziodemografiko batzuek ere eragiten dute jarrera horretan. Oro har, krisiak gehien kaltetu dituen taldeak edo etorkinen lan-sektore berean diharduten pertsonak dira etorkinekiko itxienak: besteak beste, haien egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak, langabezian dauden pertsonak edo maila sozioekonomiko baxua dutenak. Egoera ekonomikoarekin gustura egoteak eragina dauka iritzia ematean; batez ere, atzerritarrek eragin ditzaketen kalteen inguruko baieztapenetan. Beren egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenen erdiak (%50,2k) uste du etorkinek soldaten jaitsiera eragiten dutela; gustura daudenen %28,6k bakarrik uste du hori, ordea. Ildo beretik, gustura ez daudenen %75,9k uste du etorkinek batez ere gizarteko talde ahulenei eragiten dietela, eta portzentaje hori %64ra jaisten da beren egoera ekonomikoarekin gustura daudenen artean.

### 3. Elkarbizitza-eredua eta kultura-aniztasuna

Bertako populazioak erakunde eta gizarte-mugimenduetatik aldarrikatzen den aniztasun-eredua nahi ote duen ala aniztasuna alde batera utzita euskal gizarteak etorkinak geurera egokiarazteko joera ote duen jakin nahi izan dugu. Bertako populazioari galdetu diogu atzerritarren etorreragatik sortutako kultura-aniztasuna nola bizi duten, eta haiekin harremanik duten ere jakin nahi izan dugu.

Ez dirudi euskal gizarteak atzerritarren etorrerak dakarren aberastasun kulturalaren aldekoa denik, hein batean (%39,2) biztanle guztiok ohitura eta usadio berberak izatearen aldekoa baita; horrekin bat ez datozenak berriz gutxiago dira (%31,6). Inkestatuen erdiak baino gehiagok (%57,8k) ez du beharrezkoa ikusten etorkinek beren kultura eta ohiturak alde batera uztea, beti ere erlijio eta kultura hori legearen aurkakoa ez bada. Hala ere, gero eta gehiagok uste du etorkinak onartuak izateko beren kultura eta ohiturak utzi behar dituztela (%17k, 2004an), eta ez duela zertan horrela izan behar uste dutenak gero eta gutxiago dira (%69,8 2004an eta %57,8 2010ean).

4. grafikoa. Elkarbizitza-ereduak



Iturria: Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia


Horixe da bertako populazioaren iritzia kultura-aniztasunari buruz. Batetik, integrazioa eta elkarbizitza bultzatzen duten jarrerak nabari dira baina, bestetik, ez dute inolaz ere legearen aurkako jarrerarik onartzen. Orain egin beharreko galdera honako hau da: nori dagokio bere bizimodua aldatzea, bertako populazioari ala etorkinei? Jasotako erantzunen arabera, nahiko argi dago; bertako populazioaren gehiengoak uste du etorkinak gure ohitura eta usadioetara egokitu beharko liriatekeela elkarbizitza hobetzeko (%82,4k); eta ez du uste gure ohiturak eta usadioak alde batera utzi behar direnik (%88k). Beraz, batetik, ez dute nahitaezkoa ikusten etorkinek beren kultu-

ra baztertea, baina, bestetik, bertako populazioa ezer gutxi egiteko prest dago integrazioaren eta kultura-aniztasunaren alde. Bertako populazioak irudikatzen duen elkarbizitza-eredua berekoa dela esan daiteke, eta norabide bakarreko egokitze- eta integrazio-prozesua espero duela dirudi.

Horren haritik, etorkinen ohituren aurrean bertako populazioak daukan tolerantzia-maila ezagutu nahi izan dugu. Inkestatuen hamarretik seiri ondo iruditzen zaio atzerritarrek jatetxeak (%60,3) edo saltokiak irekitzea (%57). Bertako populazioaren erdiari ondo iruditzen zaio etorkinek janari-dendak edukitzea (%47,9) edo beren hizkuntzan hitz egitea. Beren erlijioari dagokion tenplua eraikitzeari buruz galdetzean, bertako populazioak ez du erabateko adostasunik erakusten; dena den, beste gai batzuetan jarrera irekia erakusten du. Oro har, gehiago dira etorkinek beren arropa propioa erabiltzea ondo ikusten ez dutenak, ez lan publikoan edo leku publikoetan presentzia izatea, ez beren ikastetxe propioak edukitzea ere; eta gutxiago dira hori guztia ondo ikusi eta positiboki balioesten dutenak. Datu horien eboluzioa aztertzen badugu, nolabaiteko atzerakada nabaritzen da kultura-aniztasunaren eta etorkinekiko jarrera irekietan.

Azkenik, atal honekin amaitzeko, bertako populazioaren eta etorkinen arteko elkarreaginaz atertuko dugu, horixe baita datozen urteetako elkarbizitza-eredua baldintzatuko duena. Horretarako, aisialdiko denboran bertako populazioak eta etorkinek harremanik ba ote duten jakin nahi izan dugu. Inkestatuen hamarretik sei (%59) batzuetan bakarrik erlazionatzen da atzerritarrekin, %14k sarritan erlazionatzen dela dio, eta %17k, berriz, aisialdian ez dela inoiz etorkinekin erlazionatzen esaten du. Denboran zehar etorkinen eta bertakoen arteko harremanak eta elkarreaginak izan duen bilakaera aztertzen badugu, gero eta gehiago dira etorkinekin batzuetan erlazionatzen direla esaten dutenak (%48,1 2004an) eta, aurreko urteekin alderatuz, jaitsi egin da aisialdian inolako harremanik ez dutela esaten dutenen kopurua (%27 2007an).

5. grafikoa. Euskaldunen eta etorkinen arteko harremana aisialdian



Iturria: Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia


#### 4. Estereotipoak, etorkinen eskubideak eta zerbitzuak

Etorkinei buruz hedatuen dauden estereotipoak ezagutu nahi izan ditugu, horiek etorkinen integrazioa zailtzen baitute edozein gizartetan, baita euskal gizartean ere. Lehenengoa hiritarren segurtasunarekin lotuta dago. %55,7k uste du etorkinek segurtasun eza eta delinkuentzia sor-

tzen dituztela eta %22,6k, berriz, kontrakoa uste du. Segurtasuna eta immigrazioa lotzen dituen estereotipo horrek bereziki egiten dio kalte etorkinen kolektiboari. Beste biak babes soziala eta fiskalitatearekin lotuta daude, eta krisi-egoera honetan garrantzi handiagoa hartu dute. Inkestatuen hamarretik lauk (%42,6k) pentsatzen du etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dutela trukean jasotzen dutena baino; %18k ez du horrela ikusten. Horren haritik, inkestatuen hamarretik seik (%68,8k) etorkinei sistemak babes sozial handiegia ematen diela uste du, eta %14,8k ez du horrela ikusten.

Etorkinentzat kaltegarrienak diren estereotipoak nahiko ohikoak dira gizartean. Zaila da jakitea enplegu- eta ekonomia-krisiak zenbaterainoko eragina izan ote duen aurreiritziak sortzeko garaian, babes soziala eta etorkinak lotzen dituen aurreiritzian esaterako; baina argi dago nolabaiteko lotura badagoela, 2007az geroztik hazi egin baita gai horren inguruan adostasuna erakusten dutenen kopurua. Gero eta jende gehiagok uste du sistemak etorkinei babes sozial handiegia ematen diela edo etorkinek horri probetxu handiegia ateratzen diotela; azken sei urteotan hori pentsatzen dutenen kopurua 20 puntu hazi da, 2004an %48,5ekoa zen eta 2010ean, berriz, %68,8koa. Etorkinak delinkuentziarekin lotzen dituztenen kopurua mantendu egin da urteetan zehar, 2008an izan ezik, urte horretan %44,7ra jaitsi baitzen eta baieztapen horren aurka agertzen zirenen kopurua, berriz, hazi egin zen. 2008. urteaz geroztik hazi egin da hiritarren segurtasunari etorkinek kalte egiten dietela uste dutenen kopurua; bi urtean 17 puntu egin du gora portzentajeak eta aurreko urteetako mailara heldu da. Ezin da hedabideen eragina ukatu; iritzi-sortzaileak dira eta, azken urteotan, etorkinak eta delinkuentzia nolabait lotzen dituzten hainbat irudi eta albiste argitaratu dira.

6. grafikoa. Etorkinei buruzko estereotipoak



Iturria: Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia

Gaiarekin jarraituz, bertako populazioaren zati batek uste du sistemak ematen duen babes sozialari probetxu ateratzen diotela etorkinek. Beste item batzuetan bezala, azken horretan ere inkestatuen egoera ekonomikoak zerikusia dauka. Estereotipo hori zabalduago dago beren egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenen artean; izan ere, horietatik %75,2k pentsatzen du etorkinek probetxu handiegia ateratzen dietela sistemak eskainitako babes sozialari. Zenbatekoa gutxitu egiten da beren egoera ekonomikoarekin pozik daudenen artean (%59,6).

Jarraian, inkestaturen iritzia jaso dugu, etorkinek izan beharko lituzketen eskubide eta zerbitzuen inguruan. Horrela, jakin ahal izango dugu babes sozialaren inguruan dagoen pertzepzio negatiboa ongizate-estatuari dagozkion beste arlo batzuetan ere ematen den. Aurreko urteetan bezala, inkestaturen hamarretik seik honako hau dio: laguntza soziala jasotzeko aukera (%63,8), familia elkartzeko (%58,6), boto-eskubidea (%63,8) eta BOE bat eskuratzeko aukera (%59,5) legez kanpoko egoera administratiboa dutenei bakarrik egokitu beharko litzaiekeela.

Oro har, 2004. urtetik hona, gero eta gehiagok uste du etorkinen eskubideak eta zerbitzuen erabilera beren egoera administratiboaren arabera izan beharko litzaiekeela. Laguntza sozialei buruz galdetzean ez da aldaketa nabarmenik egon, baina azken urtean jaitsi egin da laguntza sozial unibertsala aldarrikatzen dutenen kopurua. Gainera, beren egoera ekonomikoarekin pozik ez dauden artean, gutxitu egin da etorkinen eskubideen unibertsaltasunerako joera (%14,4) eta, era berean, hazi egin da atzerritarrek inolako laguntzarik ez luketela jaso behar pentsatzen dutenen kopurua (%19,7).

Hala ere, datu hori alde batera utzita, oro har, bertakoek denontzako eskuragarriak diren osasun-eta hezkuntza-zerbitzuen alde egiten dute. Inkestaturen hamarretik zazpi (%70,1ek) uste du etorkinek osasun publikoa erabiltzeko eskubidea daukatela, eta %63,4k eskolaratzeko eskubidea ere aitortzen die. 2008an eta 2009an pixka bat jaitsi egin zen hezkuntza eta osasun-zerbitzu unibertsala babesten zituztenen kopurua, nahiz eta azken urte horretan berriz ere hazi eta 2004az geroztik izandako portzentaje altuena lortu zen. Beraz, bertakoek gure ongizatearen oinarriko bi arlotan unibertsaltasunaren alde egiten dute, baina ez hainbeste ongizatearen beste bi arlotan. Baliteke bertakoek beste bi arlo horietan kostuak nabarmenago hautematea, ematen diren laguntza ekonomikoengatik eta, horregatik, nolabaiteko banaketa egitea. Osasun eta hezkuntza publikoa ere gastu handiak dira administrazio publikoarentzat, baina badirudi beste balio bat ematen zaiela laguntza ekonomiko gisa ematen diren prestazioei.


## 5. Immigrazio-politika

Atal honetan, bertako populazioaren arabera euskal erakundeek egin beharko luketen immigrazio-politikari buruz hitz egingo dugu. Lehendabizi, immigrazio-politikak atzerritarren etorrera nola kudeatu beharko lukeen aztertuko dugu. Gehienek uste dute etorkinek lan-kontratua beharko luketela gure herrialdean sartzeko (%82,6k) eta %8,6 bakarrik dago prest edozein etorkini eta inongo traba legalik gabe sartzeko baimena emateko; oro har, lan-kontratua edukitzea da atzerritarrak sartzeko bide onartuena. Nahiz eta talde guztietan dagoen aipaturiko iritzia, aldeak daude. Beren egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenetatik %17,6k uste du etorkinei sarreara erabat debekatu beharko litzaiekeela; beren egoera ekonomikoarekin pozik daudenetatik %12,5 etorkinei sartzeko baimena emateko prest agertzen da, inolako traba legalik jarri gabe. Berriz ere agerian geratu da nolabaiteko lehia dagoela etorkinen eta bertako populazioaren artean; egoera ekonomiko txarrean dauden edo etorkinen lan bera egiten duten populazioaz ari gara. Horiek ez dira hain tolerante azaltzen oraingo eta etorkizuneko etorkinekiko

Oro har, bertako populazioak enplegua beharrezkotzat jotzen du etorkinei sarrera baimentzeko, baina zein da bertakoen ustez jarraitu beharreko immigrazio-politika? Etorkinen egonaldia eta etorkinen kanporatzea arautuko dituen? Inkestaturen hamarretik bik uste du lanera etortzen diren atzerritarrak langabezia geratuz gero kanporatu egin beharko litzaiekeela (%19,3k); hala ere, bertakoen erdiak baino gehiagok (%54,7k) langabezia geratzea ez du kanporatzeko eraba-


kigarria denik uste; etorkinak kanporatzeko arrazoi gisa ikusten dute, ordea, edonolako delituren bat egitea. Horrela, bertako populazioaren erdiak uste du (%47,1ek) delituren bat egiten duten etorkinak kanporatu egin beharko liratekeela; beste erdiak ez du kanporatzeko faktore gisa ikusten (%28,1ek), edo ez du gai horren aurrean interesik agertzen (%21,8).

7. grafikoa. Politika egokiena langile etorkinentzat



Iturria: Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia

8. grafikoa. Egonaldia luzatzeko ala kanporatzeko alderdi erabakigarriak



Iturria: Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia

Legez kanpoko egoeran dauden etorkinekin erakundeek nola jokatu beharko luketen ere galdetu diogu bertako populazioari. Hamarretik seik uste du (%61ek) gobernuak legeztatu egin beharko lituzkeela lanean dauden etorkinen egoerak; %14k uste du atzerritar etorkin guztien egoerak legeztatu beharko lituzkeela, eta hamarretik batek uste du (%11) bizileku-baimena ez dutenak kanporatu egin beharko liratekeela. Laburtzeko, enplegua da bertako populazioaren iritziz etorkinei sartzeko baimena emateko eta beren egoera legeztatze baldintza.

## 6. Enpleguaren garrantzia

Egoera sozioekonomikoak eta lan-egoerak bertako populazioaren iritzia eta jarrera baldintza ditzake, are gehiago krisi-garaian. Bertako populazioaren sentipenak, beldurrak eta segurtasun falta aztertu ditugu, batez ere gero eta jende gehiagoren etorrerak ekonomian izan dezakeen era-

gina kontuan hartuta; era berean, jakin nahi izan dugu bertakoek horren arabera azaltzen ote duten immigrazio-politika zorrotzago edo malguagorako joera.

Gaur egun enpleguak bermea adierazten du; segurtasuna da euskal gizartearentzat, eta garrantzitsua da integrazioa lortzeko. Badirudi langabeziak ezegonkortasuna eta segurtasun eza sortzen dituela: “ez badu lanik egiten, delituren bat egin dezake”; oro har, uste hori euskal gizarte osoan zabalduta dago. Beste gai batzuetan bezala, bertakoek jarrera anbibalentea erakusten dute immigrazioa eta ekonomia edo lan-arloa erlazionatzen direnean. Batetik, eta krisian egon arren, oraindik ere populazioaren zati handi batek etorkinen lan-funtzionalitatean sinesten du, baina aurreko urteetan baino gutxiago. Bestetik, gero eta gehiagok uste dute atzerritarren etorrerak bertako talde ahulenei eragingo liekeela.

Beraz, badirudi aurreko urteetan ez bezala, bertako populazioaren zati batek etorkinak lehiakide gisa ikusten dituela. Lan-merkatuaren egoera berria dela-eta, bertako populazioak aurretik baztertu egin dituen lanak nahi ditu orain; horregatik, zenbait sektoretan lehiakortasuna areagotu egin dela dirudi, eta gizarteko talde ahulenei kalte egiten diela ematen du. Gainera, bertako populazioaren zati handi bat arduratuta dago etorkinek soldaten jaitsiera eragin dezaketelako eta lana aurkitzeko orduan zailtasunak areagotu ditzaketelako. Gehiengoak uste du atzerritarren etorrerak langabezia igo egin duela. Iritzi horiek emateko orduan, inkestatuen diru-sarrerak edo egoera ekonomikoak eragiten dute. Atal honetan, batez ere, beren egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenek uste dutena jaso dugu: etorkinek soldaten jaitsiera eragiten dutela, etorkinek gizarteko talde ahulenei kalte egiten dietela, eta etorkinek probetxu handiegia ateratzen diotela sistemaren babes sozialari. Krisi ekonomikoak ez die bertakoei modu berean eragiten, eta batzuek uste dute etorkinek lan-merkatuan sartzea oztopatuko dietela, soldata jaitsiera eragingo dutela, edo zenbait laguntza sozial jasotzeko traba gehiago izango dutela.

Uste eta sentipen horien ondorioz, bertakoen artean aldatu egin dira immigrazio-politiken inguruko jarrera eta lehentasunak. Hala ere, lan-kontratua izanez gero etorkinei sartzeko baimena emateko prest agertu da gehiengoa; beraz, badirudi aurretik aipaturiko bertakoen beldurrek oraindik ez dutela horretan eragin. Oro har, bertako populazioaren zati batek nolabaiteko susmo txarra hartzen dio etorkinak lan-merkatuan sartzeari, baita etorkinek babes soziala jasotzeari ere; hala ere, lan-kontratua nahikoa berme dela uste du etorkinei sarrera onartzeko.



## Immigrazioarekiko Tolerantzia-indizea

José Antonio Oleaga Páramo

Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Immigrazioaren Euskal Behatokian 2004an ikerketa bat egin genuen, lehen aldiz, bertako euskaldunek immigrazioarekiko zituzten jarrerak, usteak, balioak eta iritziak jakiteko (Ikuspegi@k-Immigrazioak argitaratutako txostena, bere webgunean ikusgai). Asmo handiko lehen inkesta kuantitatiboa izan zen. Informazio asko bildu zuen eta abiapuntu garrantzitsu bat eman zigun gure burua hobeto ezagutzeko, pertsona gisa eta gizarte etorkin-hartzaile gisa.

Geroago, behatokia sendotu ostean eta 2007tik aurrera, urtero inkesta bat egiteko ohitura hartu genuen, 2004koa baino txikiagoa, euskal biztanleek atzeritiko immigrazioaren fenomeno berria nola hautematen duten jasotzeko. Orduan jaio zen “Barometroa: atzeritiko immigrazioarekiko pertzepzioak eta jarrerak”.

2007ko lehen Barometroa 1.200 inkestako lagin batean oinarritu zen; 2008an, 2.400 pertsonari egin genien inkesta; 2009an, 1.200i berriro, bai eta 2010ean ere. Inkesta horietako bakoitzean, 100 eta 200 galdera artean egin genizkien euskal biztanleei, atzeritiko immigrazioarekin eta guk prozesu hori gure gain hartzeko dugun erarekin lotuta.

Lehen unetik ohartu ginen euskal biztanleen jarrerak eta pertzepzioek ez zutela multzo diskurtsibo monolitiko edo homogeen bat osatzen, ez indibidualki, ez eta kolektiboki ere. Hau da, indibidualki migrazio-prozesuarekiko oso positiboak eta aberasgarriak ziren alderdiak eta xehetasunak hauteman genituen, argi baino ilun gehiago agertzen zuten beste batzuekin batera. Kolektiboki, ohartu ginen pertsona eta talde guztiok ez dugula berdin erantzuten fenomeno berberaren aurrean: pertsona eta talde batzuek era ireki eta fidakorrangoan egiten diete aurre gizarte-aldaketei, eta aldaketa horien onurak nabarmentzen dituzte; beste pertsona eta talde batzuek, berriz, atzeritarrak iristeak dakartzan aldaketekiko jarrera eta pertzepzio itxiagoak dituzte, murriztaileagoak, mesfidatiagoak eta ziurtasunik gabekoak.

Gure barometroetako galderen erantzunek argi eta garbi erakusten dute euskal biztanleria zerbaitek ezaugarritzen badu, zerbaite hori biztanleen arteko kontraesanak eta baliobitasunak direla. Oso positiboak diren alderdi batzuk horren positiboak ez direnekin batera ageri dira. Oro har, esan genezake euskal biztanleen jarrerak eta pertzepzioek argi-ilunak adierazten dituztela, etorkinei dagokienez.

Gure barometroek informazio oso zehatza eskaintzen digute immigrazioaren fenomenotik eratorritako hainbat alorren inguruan: immigrazioaren tamainaren pertzepzio subjektiboa; immigrazioa

gizarte-arazo gisa (iritzi publikoa) edo arazo pertsonal gisa (itxurakeria pribatua) ikustea; kanpo-tarrak etortzeak euskal ekonomian dituen eraginei buruzko iritzia, euskal kulturaren eta gizartearen dituen eraginei buruzkoa, eguneroko elkarbizitzari (praktikoa) buruzkoa, eta lortu nahi diren elkarbizitza-motei (teorikoa) buruzkoa; atzeritar biztanleriarekin lotutako estereotipo ezkorrak; biztanle atzeritarrek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari buruzko iritzia (ongizate-estatuan parte hartzea); askotariko jatorria duten pertsonen eta taldeen arteko erlazioa eta trukeak arazoak; gure gizarteak fenomenoaren aurrean izan beharreko jarrera, immigrazio-politiken ikuspuntutik, etab.

Baina pertzepzioen eta jarreraren alorrean lan zehatza egin ondoren, euskal biztanleen jarrera guztiak sintetizatu eta laburbiltzeko tresna baten beharra izan genuen. Oso tresna analitikoa genuen, aberatsa eta konplexua; beste bat behar genuen, osagarria, errazagoa eta osoagoa, eta fenomenoaren ikuspegi panoramikoa emango ziguna. Horregatik hasi ginen immigrazioarekiko tolerantzia-indize bat egiten, euskal biztanleen tolerantzia edo arbuioa neurtu eta laburbiltzeko.

### Tolerantzia-indize bat egitea

Lehen barometroko –2007ko– 40 aldagai hartu genituen guztira, hamar alorretan banatuta, eta probak egin genituen pertsona bakoitzaren erantzunak balio edo zenbaki bakar batean laburbiltzeko, eta pertsona hori Otik 100erako eskala batean kokatzeko. Eskalan, 100 puntuko atzeritiko immigrazioarekiko jarrerarik ireki eta toleranteena adieraziko luke, eta 0 puntuko arbuiatzerik eta intolerantziarik gogorrena.

Geroago, 2008an, beste 22 aldagai gehitu genizkion indizeari, eta urte hartatik aurrera 62 aldagiarekin egiten dugu lan tolerantzia-indizea kalkulatzeko. Indizeari egonkortasun eta sendotasun handiagoa emateko handitu genuen aldagai-kopurua, item gutxi batzuen erantzunak zoriaren mende gera ez zitezen, eta indizea immigrazioarekiko jarrerarik sakon eta egonkorrenetan oinarritu zedin ahalik eta gehien, eta ez horrenbeste iritzi publikoaren egoeran, aldakorragoa baita gertaera sozial, ekonomiko, politiko eta, batez ere, mediatikoekiko.

Immigrazioaren –bai euskal gizartekoa eta baita gertuko beste herrialde batzuetakoa ere– fenomenoari buruz genekiena kontuan izanik, pentsatu genuen euskal biztanleek lorturiko puntuazioa eskalaren erdialdean kokatuko zela, indizeak neurtu beharrekoa neurtzen bazuen. 50 eta 60 puntuen artean, agian, eta horrek adieraziko luke, gaingiroki, euskal biztanleek “nahikoa” lortuko zutela, hobetzeko tarte handi batekin. 2007 urteaz ari gara; une hartan “krisi” hitza 29ko porrotarekin edo norbaitek berrogeitaka urte betetzearekin bakarrik lotzen zen. Une hartara arte atzeritiko immigrazioak –fenomeno berri eta zirrargarriak– aurpegirik onena erakutsi zuen, batez ere gurea bezalako gizarteetan, non talde horiei zegozkien kopuruak erroldatutakoen %5 ingurukoak baitziren.


Hain zuzen ere, gure indizeak 53,81 puntuko emaitza lortu zuen, eta iruditu zitzaigun oso ondo biltzen zuela euskal biztanleria. Gainera, euskal biztanleen puntuazioen banaketa, puntuaziorik baxuena lortu zuenetik altuena lortu zuenera, koherentea zen adituen uste kualitatiboekiko: euskal biztanleak ez ziren muturreko jarrera eta pertzepzio polarizatuetan taldekatzen; gehienak batez besteko balioaren inguruan zeuden, eta tarteko puntuazioak zeuzkaten. Hau da, gauza gehiago ditugu komun desberdintasunak baino; eta desberdintasunak ñabardurak dira, eta intentsitatearen ingurukoak, jarrera kontrajarriak izatearen ingurukoak baino gehiago.

2008an, berriro kalkulatu genuen immigrazioarekiko tolerantzia indizea, eta egiaztatu genuen euskal biztanleek beren jarrerak eta pertzepzioak hobetu zituztela atzerritarren immigrazioarekiko, nahiz eta hobekuntza oso handia ez izan: lortutako emaitza 58,74 puntukoa izan zen. Aurrerapen horrek adierazi zigun euskal biztanleek aintzat hartzen zituztela etorkinak iristearen onurak, nahiz eta erritmoa (Espainiaren kasuan) askoz ere azkarragoa izan Europako beste herrialde batzuetako migrazio-prozesu handietan izandakoa baino.

Oraindik ere, landa-lana egiteko orduan, 2008ko lehen hiruhilekoan, ezin zitekeen esan krisirik zegoenik, ez eta arazo ekonomikorik zegoenik ere. Hain zuzen, urte hartako martxoan, hauteskunde orokorrak izan ziren eta oposizioko alderdiak bakarrik hasi ziren ekonomia-krisiaz hitz egiten (Espainiako krisiaz, eta ez mundukoaz, hauteskundeetarako interesengatik, beste edozereengatik baino gehiago), hauteskunde-kanpainan. Eta hauteskundeak izan ondoren hasi zen alderdi irabazle eta agintaria krisiaren leloa bere egiten.

Dena den, adierazle makroekonomiko eta mikroekonomikoen portaera ona izan zuten 2008ko lehen urte erdian, euskal ekonomiaren egoera ekonomiko eta industrialari esker, eta, horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako alderdiaren diskurtso batean, txikitu egin zuten mundu mailako krisiak euskal gizartean zuen eragina, bai eta Europakoak eta Espainiakoak zutena ere. Hitzaldi baikor eta nagusi horrek porrot egin zuen 2008ko udaren ostean, merkatu-jardueraren adierazleek, esportazioenak, industria-jarduerarenak, paroarenak, gizarte-segurantzarenak, BPGarenak, eta abarrek argi eta garbi utzi zutenean krisiaren garrantzia eta helmen unibertsala (behintzat Mendebaldeko ekonomietan eta/edo, berez, aurreratuetan). Hau da, 2008ko indizeak uneko egoera islatu zuen: oraindik ere uste genuen hazkundearen olatuaren gailurrean geundela (surflarien "rip curl" famatuan), eta lausoki ere ez genuen ikusten halako olatu baten iraulaldia eta erresaka.

1. grafikoa. Barometroen tolerantzia-indizea



Iturria: Geuk egina

Testuinguru horretan, etorkinak gure erkidegora iristearen onurak nagusitu ziren, batez ere onura ekonomikoak (bertako biztanleek egiten zituzten lan gogorretarako langileak), baina baita onura sozialak (pertsonek gehiago pentsio-sistema mantentzen laguntzeko) eta txerazkoak ere (gure txikiak eta helduak zaintzen eta haien bizi-kalitatea eta gurea hobetzen laguntzen ziguten pertsonak).

2009tik aurrera, euskal gizartea guztiz ohartu da krisi iraunkor batean gaudela, eta euskal biztanleek atzera egin dutela antzeman dezakegu, atzerritiko immigrazioarekiko jarrera eta pertzep-

zio orokorreki dagokienez. Urte hartan, gure indizea 57,18 puntukoa izan zen. Eta 2010ean ere beherantz jarraitu zuen: joan den urtean, 56,65 puntu. Bi puntu baino gehiago galdu ditugu bi urtean, nahiz eta, lehen aipatu bezala, indize sendo bat sortu dugun, gorabehera nabarmenak saihesteko. Aste batzuetan egon beharko dugu 2011ko zundaketaren zain, baina, krisiari buruzko diskurtsoak modulatzan ari badira ere, ez dugu uste azken puntuazioa gehiegi hobetuko denik.

Dena den, urteotan zehar ikusi ahal izan dugu zein sendoak diren jarrerak, pertzepzioak eta jokabiderako joerak: nahiz eta ekonomia-krisia gogorra izan, ez da hondatze handirik izan gure jarraera, pertzepzio eta/edo ekiteko joeretan. Eta hori, hein batean, gizarteari eta haren agintari politikoei zor zaie, zenbait alderditan oso kritikagarriak diren arren, arduraz jokatu baitute (alde batera utzita ibilbide motzeko eta zentzu gutxiko “outsider”en baten eragabekeriaren bat edo beste) eta ez baitute bilatu petxerorik eta sorginik horrelakorik ez dagoen tokian. Baretasuna eta sosegua izan dira nagusi, eta euskal gizarteak, oro har, heldutasuna agertu du zenbait egoeraren errua biztanle atzerritarrei ez botatzean, askotan, egoera horietan are okerrago ateratzen baitira atzerritarrak.

## Euskal biztanleria bereizten duten aldagaiak

Nahiz eta ezin dugun esan kontrako jarrerak eta pertzepzioak dituzten pertsonak edo taldeak daudenik, ohartu gara zenbait aldagaik euskal biztanleen alde aurretiko joera bereizten dutela. Urteotan hiru aldagai multzorekin egin dugu lan: soziodemografikoak (sexua, adina, habitata, ikasketak), sozioekonomikoak (etxeetako diru-sarrerak, egoera ekonomikoarekiko atsegina, okupazioa/jarduera ekonomikoa, estatusa) eta ideologiko-identitarioak (hizkuntza, erlijioa, ideologia politikoa, abertzaletasun-maila, identitate-sentimendua). Eta ikusi dugu aldagai horietako gehienek zerikusi handia dutela atzerritiko immigrazioarekiko tolerantziarekin, hots, gure indizeak adierazitako tolerantziarekin. Sexuak eta hizkuntzak bakarrik eman dute joko gutxiago desberdintasun indibidualak azaltzeko.

1. taula. Tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

Esanahi-maila	2007	2008	2009	2010
Sexua	0,002		0,001	
Adina	0,000	0,000	0,000	0,004
Habitata	-----	-----	0,000	0,001
Ikasketak	0,000	0,000	0,000	0,000
Diru-sarrerak	0,000	0,000	0,000	0,001
Egoera ekonomikoarekiko atsegina	0,000	0,000	0,000	0,000
Lanbidea	0,000	0,000	0,000	0,000
Estatusa	0,000	0,000	0,003	0,005
Hizkuntza		0,000	0,010	
Erljioa	0,000	0,000	0,000	0,000
Ideologia	0,000	0,000	0,000	0,001
Abertzaletasuna	0,000	0,000	0,000	0,000
Identitate-sentimendua	0,023	0,000	0,000	0,004

2007an eta 2008an ez genuen “habitata” aldagaia jaso.

Iturria: Geuk egina

Ondorioz, era errazean has gaitzke gure indizean balio handiagoak edo txikiagoak dituzten pertsonen profilak ezartzen, hau da, atzerritiko immigrazioarekiko tolerantzia-maila handiagoa edo txikiagoa dutenenak, 2. taulak adierazten duen bezala. Kategorikoak izan gabe, lau urteotako datuek pentsarazten digute direna bezala ulertu behar diren profil onargarriak direla. Eta zenbait jarrera izateko aukera gehiago edo gutxiago duten taldeak dira, horrekin azalpen determinista edo kausazkoetara iritsi nahi izan gabe.

2. taula. Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearen arabera askotariko tolerantzia-atalaseak dituzten taldeen profilak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
65 urtekoak eta hortik gorakoak	Adina	18 urtetik 44rakoak
20.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnak	Habitata	20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnak
Lehen-mailako ikasketak dituztenak	Ikasketak	Erdi-mailako eta goi-mailako unibertsitate-ikasleak
Katolikoak, praktikanteak ala ez	Erljioa	Agnostikoak, ateoak edo erlijioa axola ez zaienak
Hilean 600 euro, gehienez	Diru-sarrerak	Hilean 1.800 eurotik gora
Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura daudenak
Etxeko lanetan aritzen direnak, erretiroa hartua dutenak, pentsiodunak edo errentadunak	Lanbidea	Ikasleak
Eskuinekoa	Ideologia	Ezkerrekoa eta erdialdeko-ezkerrekoa
Espainiar abertzaleak	Abertzaletasuna	Abertzaletasun kontuak berdin zaizkienak, muturreko euskal abertzaleak eta moderatuak
Espainiar soilik, eta euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	Euskaldun soilik sentitzen direnak, eta espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak, eta espainiar bezain euskaldun sentitzen direnak
Estatus baxua	Estatusa	Estatus altua eta goi erdi-mailakoa

*Iturria: Geuk egina*

Hori guztia bi aldaerako estatistikak erabilita, hau da, aldagaietako bakoitzaren eta gure indizearen arteko lotura bakarrik dutenak aintzat hartuta, kontuan izan gabe aldagai guztiek elkarren artean dituzten begi-bistako loturak. Badakigu aldagai soziodemografiko, sozioekonomiko eta ideologiko-identitario batzuk elkarri oso lotuta daudela, elkar indartzen dutela, bata bestearen gainean jartzen direla edo elkar indargabetzen dutela.

Esate baterako, hezkuntzan, nabarmena da aldagai batzuek –hezkuntza-maila, pertsonen adina, sexua eta lanbidea– elkar eragiten dutela. Hala, euskal gizartean gazteek dute hezkuntza-maila altuena, baina, era berean, maila hori altuagoa da gizona eta emakumezkoetan baino, batez ere adinean aurrera egin ahala. Horrek eragina du pertsonen lanbidean, eta, lan batzuetan –etxe-ko lanetan, esaterako– askoz ere emakume gehiago egotea dakar, bai eta adin nagusiagoko eta prestakuntza-maila txikiagoko pertsona gehiago ere. “Hizkuntza” aldagaiak ere badu loturarik aldagai-sare horrekin; izan ere, Euskadin, oro har, euskaraz jakitea gazteenekin eta prestakuntza-maila handiena dutenekin lotuta joaten da.

Bestalde, izaera sozioekonomikoa duten aldagaiak ere elkarren artean lotzen dira, eta baita prestakuntza-mailarekin eta lanbidearekin ere. Honako aldagai hauei buruz ari gara: etxe-ko diru-sarrerak, egoera ekonomiko pertsonalaren balorazioa eta estatus sozioekonomikoa.

Eta, azkenik, euskal herritarren ideologiarekin eta identitatearekin zerikusia duten aldagaiek ere eragin handia dute elkarren artean: ideologia politikoak, identitate-sentimenduak berak, eta espainiar eta euskal abertzaletasun-mailak.

Aldagai horien arteko eraginak kontuan hartzeko eta euskal gizartean tipologiak ezarri ahal izateko, aldaera anitzeko analisi-metodoak ere erabiltzen ditugu, AID delakoa, adibidez: interakzioaren detektagailu automatikoa. Euskal biztanleria tipo edo segmentu kopuru jakin batean banatzen haratago, garrantzitsuena jokabidea auresaten duten aldagaiak detektatzea da, eta, alde horretatik, aldagai anitzeko teknikak oso erabilgarriak dira.

Horrela, iragarpen-ahalmen handieneko aldagai gisa agertu zaiguna, urteotan, heziketa-maila edo ikasketena izan da; 3. taulan ikus daiteke. Taula horretan, urteotan aldagai bakoitzak izan duen iragarpen-ahalmena laburbildu nahi izan dugu, aldagai bakoitza zein mailatan bereizten den (lehentasuna) adieraziz, eta hori maila askotan egin daiteke.

3. taula. Aldagaien iragarpen-ahalmena

	2007	2008	2009	2010
Ikasketak	1 <sup>o</sup>	1 <sup>o</sup>	1 <sup>o</sup>	
Egoera ekonomikoarekiko atsegina	2 <sup>o</sup> /3 <sup>o</sup> /4 <sup>o</sup>	2 <sup>o</sup> /4 <sup>o</sup>	2 <sup>o</sup>	2 <sup>o</sup> /3 <sup>o</sup>
Erlijioa	4 <sup>o</sup> /5 <sup>o</sup>	2 <sup>o</sup> /3 <sup>o</sup>	3 <sup>o</sup> /5 <sup>o</sup>	1 <sup>o</sup>
Diru-sarrerak	2 <sup>o</sup> /4 <sup>o</sup>	3 <sup>o</sup>	3 <sup>o</sup> /4 <sup>o</sup>	2 <sup>o</sup>
Ideologia	2 <sup>o</sup> /3 <sup>o</sup>	3 <sup>o</sup>		3 <sup>o</sup> /4 <sup>o</sup>
Lanbidea		2 <sup>o</sup>	4 <sup>o</sup>	3 <sup>o</sup>
Abertzaletasuna	4 <sup>o</sup>		3 <sup>o</sup>	4 <sup>o</sup>
Sexua	5 <sup>o</sup>		3 <sup>o</sup>	3 <sup>o</sup>
Adina	3 <sup>o</sup>			4 <sup>o</sup>
Habitata			2 <sup>o</sup>	
Estatua	3 <sup>o</sup>			
Hizkuntza		4 <sup>o</sup>		
Identitate-sentimendua				

Iturria: Geuk egina

Jarraian, jokabideak bereizteko eta iragartzeko garrantzitsuak direla adierazi duten lau aldagai daude; bik izaera sozioekonomikoa dute (ekonomia-egoera pertsonalarekiko eta familiaren hileroko diru-sarrerarekiko atsegina) eta besteek izaera ideologikoa (erlijioa eta ideologia politikoa).

Dena den, errepikatu behar dugu soziologiarekin zerikusia duten aldagai horiek guztiek –bai analisi honetan erabilitakoek eta bai beste azterketa batzuetakoek–, egiaztatua dutela iragarpen-ahalmena, bai eta “muga esplikatzailea” ere: horien guztien artean ezin izaten dute guztizko aldakortasunaren %15 baino gehiago azaldu, eta hori kasurik onenean. Horrek esan nahi du euskal biztanleriaren osagai batzuen arteko desberdintasun asko –jarrerei, pertzepzioei, sinesmenei, balioei, eta abarri dagokienez– azal daitezkeela beste aldagai-mota batzuekin, edo beste aldagai-mota batzuei zor zaizkiela; batez ere izaera psikosozialari edo nortasunari lotutako aldagaiei. Hau da, azal daitezkeela pertsonen arteko desberdintasun indibidualei dagozkien aldagaiekin, eta ez horrenbeste desberdintasun soziodemografikoei dagozkienekin, ez eta sozioekonomikoei edo ideologiko-identitarioei dagozkienekin ere.

## Euskal gizarteko talde handiak

Gure zundaketetan aldagai anitzeko beste analisi batzuk erabili ditugu; batetik, informazio gehiago lortzeko euskal biztanleak, immigrazioari dagokionez, gehien bereizten dituen jarrerekin, pertzepzioekin, balioekin eta sinesmenekin lotutako aldagaiei buruz, eta horretan gehiago sakontzeko; eta, bestetik, euskal biztanleriaren sailkapenak lortzeko, immigrazioarekiko askotariko jarrerak nabarmenduko dituztenak eta informazioa erraz alderatzea ahalbidetuko digutenak.

Prozesu estatistiko horien –kluster sailkapen-analisia eta “k-means” analisia, analisi diskriminatzailea eta AFC– azken helburua euskal biztanleak hiru talde handitan sailkatzea da, sailkapen horrek bide eman diezagun biztanleriak urteetan zehar izandako bilakaera ikusteko. Hiru talde horiek honakoak dira: pertsona toleranteek osatutakoa, baliobidunek osatutakoa, eta etorkinen immigrazioarekiko uzkur direnena.

Euskal biztanleak hiru taldetan banatzeko aukeratutako irizpideak dira herritar bakoitzak immigrazioarekiko tolerantzia-indizea kalkulatzeko oinarrizko hamar arloetan lortutako puntuazioak. Hau da, arlo bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera (Otik 10era) sailkatuko ditugu euskal biztanleak. Arloak honako hauek dira: etorkinen biztanleriaren TAMAINAREN pertzepzioa; atzerri-tiko immigrazioa ARAZOTZAT ikustea; euskal EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EUSKAL GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak eskura izateari buruzko jarrera; HARREMAN-ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO-POLITIKARI buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERABATEKO ERAGINEI buruzko pertzepzioa.

- Hala, toleranteen taldean sailkatutako euskal biztanleek besteek baino balio hobeak dituzte ia arlo guztietan: estereotipo gutxiago dituzte; bizikidetz-ereduekiko nahiko toleranteak dira; administrazioak hartu beharreko immigrazio-politikari dagokionez, irekiagoak dira; gehiago jotzen dute bitariko harreman-espazioetara; jarrera irekiagoa eta unibertsalagoa dute etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskura izateari buruz; immigrazioak ekonomian eta, oro har, gizartean eta euskal gizartean (kulturan) dituen eragin onuragarrien ikuspegi positiboa dute; ez dute immigrazioa arazotzat hartzen, eta gaur egun atzerriko immigrazioak hartzen duen bolumenaren ikuspegi doituagoa dute.
- Kontrako muturrean, uzkurren taldeak oso puntuazio baxuak ditu arlo guztietan. Atzeritiko immigrazioarekin jarrera nabarmen intoleranteak adierazten dituzte balio horiek.
- Azkenik, pertsona baliobidunek tarteko puntuazioak lortzen dituzte ia alor guztietan, eta urte batzuetan gertuago egoten dira toleranteen taldetik eta beste batzuetan uzkurrentik.


Urte hauetan zehar, ikusi dugu bai talde horien tamaina eta bai tolerantzia-indizean duten koka-pena aldatu egin dela. 2. grafikoan azter dezakegu hiru taldeen tamainaren garapena. Ez ditugu 2007ko datuak gehitu, 2008 urtearekiko aldaketak gehitu genituenenez, ezin izan baitugu balio-kidetasun onargarririk ezarri.

Hiru taldeek hiru urteotan izandako tamaina alderatuta, ikus dezakegu:

- Uzkurren taldeak ez duela ia aldaketarik izan: 2008an, %19,3 ziren; 2009an, %18,8 izan ziren; eta, aurren, euskal biztanleria osoaren %18,9 dira.

- Baliobidunen taldea txikitu egin da 2009arekin (%47,52) eta 2008arekin (%41,2) alderatuta.
- Toleranteen taldea hazi egin da 2009arekin (%33,68) eta 2008arekin (%39,5) alderatuta.

2. grafikoa. Talde handien garapena



Iturria: Geuk egina

Taldeen tamainari bakarrik begiratuta, pentsa genezake egoerak hobera egin duela urteotan: ez dago pertsona uzkur gutxiago, baina ezta gehiago ere; baliobidunen taldea txikiagoa da, eta pertsona tolerante gehiago dago orain, 10 puntu gehiago 2009an baino. Hala ere, lehenago aipaturiko sailkapen-teknikek –kluster eta k-means– kriterio erlatiboekin sailkatzen dituzte banakoak. Hau da, pertsona toleranteen taldean toleranteenak gehitzen ditu; uzkurrenean, uzkurrenak; eta baliobidunenean, jarrera epelagoa eta/edo tartekoagoa dutenak.

Egia esan, zehatzagoak izan beharko ginatke, eta hiru taldez hitz egin: urte bakoitzeko pertsonarik toleranteenak, baliobidunenak eta uzkurrenak; baina sailkatze-sistemak ez digu bermatzen urte bateko toleranteak aurreko urteetakoak bezain toleranteak izango direnik. Horregatik, garrantzitsua da hiru talde ezartzea, bata bestearekin alderatuta (analisi konparatiboa); baina ez hori bakarrik, baita talde bakoitza *continuum* edo eskala batean kokatzea ere (analisi ebaluatiboa).


Horretarako, etorkinen immigrazioarekiko tolerantzia-indizea dugu, eta zenbaki bakarrean biltzen du talde bakoitzaren jarrera. Hala, talde baten tamaina handitzen edo txikitzen den ez ezik, talde bakoitzaren tolerantzia-maila ere ezagutu ahal izango dugu, bai eta baliobitasun edo arbuiatze-maila ere. 3. grafikoa ikus dezakegu nola aldatu diren hiru taldeen puntuazioak urteetan zehar:

- Toleranteen taldeak joan den urteko puntuazio antzekoa dauka, eta 2008koa baino txikixeagoa.
- Baliobidunen taldeak puntuazio handixeagoa dauka 2009an lorturikoa baino (49,46 puntu), baina 2008an lortutakoa baino txikixeagoa da oraindik (55,97 puntu).



- Uzkurren taldeak 2009ko puntuazioa (42,57 puntu) baino askoz ere baxuagoa lortu du, eta 2008an izan zuenaren antzekoa (37,68 puntu).

3. grafikoa. Talde handiek tolerantzia-indizean lortutako puntuazioa



Iturria: Geuk egina

Laburbilduz, iruditzen zaigu:


1. Pertsona tolerantteen taldea hazi egin dela urteotan, baina gaurkoak ez direla 2008koak bezain tolerantteak.
2. Pertsona baliobidunen taldea txikiagoa dela eta, gainera, taldearen jarrerak eta pertzepzioak gertuago daudela, gaur egun, uzurren taldearenekiko.
3. Eta pertsona uzurren taldea egonkorra dela, tamaina ez delako hiru urteotan aldatu eta 2010eko indizean lortutako puntuazioa 2008koarenaren antzekoa delako.

Baditugu talde bakoitzak hamar alorretan –lehen aipaturikoak eta atzeritiko immigrazioarekiko tolerantzia-indizea osatzen dutenak– lortutako puntuazioak ere. Pertsona tolerantteen taldearen puntuazioa aztertuko dugu (4. grafikoa).

Pertsona tolerantteen taldeari zehaztasunez begiratzuz gero, jakingo dugu 2010ean ez badira 2008an bezain tolerantteak, hiru arrazoigatik dela:


- Ez dutelako uste etorkinak iristeak euskal ekonomiari onik dakarkionik (beharbada, gure erkidegoan langabe gehiago dagoelako).
- Beren zalantzak agertzen ari direlako, ea etorkinak iristeak ondorio txarrik ekar diezaikeen gure jardute kulturei eta euskararen garapenari.
- Pentsatzen hasi direlako, gaur egungo ekonomia- eta gizarte-egoera kontuan izanik, agian nahikoa dela gure erkidegora orain arte iritsi diren etorkinekin.

4. grafikoa. Toleranteen taldea: 10 alorretako puntuazioak



Iturria: Geuk egina

5. grafikoa. Baliobidunen taldea: 10 alorretako puntuazioak



Iturria: Geuk egina


Arreta pertsona baliobidunengan jarriz gero (5. grafikoa), eta baieztatuz gero, pisua galtzeaz gainera, jarrera eta pertzepzio uzkurragoetara mugitzen ari direla, honako arrazoi hauengatik da:

- Pertsona tolerantetarako baina nabarmenago hasi direlako pentsatzen etorkinak iristeak eragina izan dezakeela euskal kulturaren eta gure hizkuntzetako baten –euskararen– etorkizunean.
- Orain, oro har, ez dutelako horren uste onik immigrazioak euskal gizarteari dakartzkion ondorioez.
- Haiek ere nabarmendu egiten dutelako nahikoa etorkin dagoela gure artean.
- Susmo okerragoa dutelako eta, dirudienez, jarrera murriztaileagoen alde daudelako, immigrazio-politikei dagokienez.
- Ez dutelako horren uste onik etorkinak iristeak euskal ekonomiari ekar diezazkiokeen ondorioen inguruan ere.

Azkenik, datu positibo gisa, ikus dezakegu uzturen taldeak (6. grafikoa) multzoarekiko ezaugarri egonkorak dituela oraindik, bai tamainari dagokionez eta baita jarrera eta pertzepzioei dagokienez ere, nahiz eta zenbait ñabardura egon:

- Talde horretako partaideek gero eta gehiago sentitzen dutelako kanpotarren immigrazioa arazo bat izan daitekeela euskal gizartearentzat.

6. grafikoa. Uzturen taldea: 10 alorretako puntuazioak



Iturria: Geuk egina

- Pertzepzio hori arindu egiten delako, beste alor batzuetako hobekuntza partzialen eraginez: taldeen arteko harremanari dagozkion elkarrekintza-adierazgarriak hobetu dira; atzerritiko immigrazioak euskal kulturari eta euskarari izan ditzakeen eraginei buruzko susmo txarrak gutxitu dira; eta atzerritiko immigrazioarekin lotutako estereotipo negatiboren bat zertxobait zuzendu da.

Laburbilduz, honako hau ondoriozta dezakegu:

1. Ez dugu aldaketa handirik sumatu euskal gizarteak atzerritarren immigrazioarekiko dituen jarrera eta pertzepzioetan. Gure erkidegotik jasotako erantzunetan, argi-ilunak daude berriro ere, kontraesanak, baliobitasunak eta tarteko jarrerak. Nolanahi ere, esan dezakegu, 2008arekin eta 2009arekin alderatuta, euskal gizarteak immigrazioarekiko duen tolerantzia-maila zertxobait apaldu egin dela: 2008an 58,74 puntuko indizea genuen, 2009an 57,18 puntukoa, eta 2010ean 56,65ekoa. Hau da, badirudi azken urteotan euskal gizartearen jarrera gogortu egin dela, kritikoagoa dela, ez hain tolerantea eta uzkurragoa biztanle atzerritarrekin.
2. Biztanleria hiru pertsona-taldetan sailkatuz gero –toleranteak, baliobidunak eta uzkurak–, zenbait aldaketa ikus ditzakegu: toleranteen taldea handitu egin da, baina ez da lehen bezain tolerantea; uzkurren taldeak berdin jarraitzen du, bai pertsona kopuruari eta baita jarrerari dagokionez ere; azkenik, baliobidunen taldeak horren toleranteak ez diren jarrerak ditu, uzkurragoak, eta, gainera, aurreko urteetan baino txikiagoa da. Laburbilduz, toleranteen eta baliobidunen taldeek kideak trukatu dituzte, baina biak ere itxiagoak dira, eta ez lehen bezain toleranteak.
3. Euskal gizartearen ez dago muturreko talderik atzerritiko immigrazioarekiko jarrera, iritzi, jokabide, pertzepzio, balio, eta abar kontrajarririk duenik. Immigrazioarekiko tolerantzia-indize horretan, euskal gizartearen tarteko puntu batean kokatzen dugu.
4. Lehenago aipaturikoak ez du esan nahi ez dugunik aurkitu biztanleria bereizteko baliagarria den aldagai soziodemografikorik. Aldagai horiek tolerantzia handiko edo txikiko jarrerak eta iritziak bereizten dituzte, nahiz eta desberdintasunak intentsitateari lotuta egon eta ez muturreko jarrerei, lehen ere esan bezala. Horien artean ikasketen aldagaia nabarmendu nahi dugu, hori baita, urteotan, jarrerak eta jokabiderako joerak iragartzeko ahalmen handiena eman diguna.
5. Beste aldagai interesgarri batzuk dira, batetik, ekonomia-egoera pertsonalari eta familiaren hileroko diru-sarreraren garbiei (aldagai sozioekonomikoak) buruzko balorazio subjektiboa, eta, bestetik, erlijioa eta ideologia politikoa (aldagai ideologikoak).



2

## **Immigrazioarekin loturiko hainbat gairi buruzko artikulak**



## Atzerritarren ugaltze-portaera. Euskal Autonomia Erkidegorako azterketa

Unai Martín Roncero  
Idoia García Goikoetxea  
Marta Luxán Serrano  
UPV/EHU

Migratutako pertsonen portaera demografikoa aztergai klasikoa izan da, bai migrazioei buruzko ikerketetan eta bai biztanleriari buruzkoetan. Migratutako pertsonen eta hartzaile diren gizarte-eredu demografikoen arteko desberdintasunak dira, batetik, portaera horietan bizi-baldintzek duten eragina, eta, bestetik, immigrazioak jatorrizko eta helburuko gizartearen dinamika demografikoetan duena; eta bi desberdintasun horiek hainbat ikerketa deskriptibo eta esplikatzaile abiarazi dituzte. Espainiar estatuaren kasuan, joan den mende bukaeratik hona atzerritiko immigrazioa hazteak alor honetan ikerketa gehiago egitea ekarri du. Metodologia-arazoak eta prozesuaren berritasuna gorabehera, ikerketak biztanleria atzerritarren eredu bereizgarriak aztertzen saiatzen dira (Domingo, 2004; Luque eta Cabanillas, 2009), bai eta atzerritarrak iristeak Estatuko dinamika demografikoan duen eragina ere (Ezquierdo et al, 2006; Delgado eta Zamora, 2006; Devolder eta Treviño, 2007). EAEn kasuan, era horretako ikerketak ez dira asko, eta zaila da zehaztea zein desberdintasun egon litezkeen biztanleen artean –naziotasunaren arabera, dinamika demografikoari dagokionez–, eta baita migrazio-fluxua euskal dinamika demografikoan nolako eragina izaten ari den ere.

Biztanleria zahartzeak, bai eta zenbait jarrera politiko eta ideologikok prozesu honi buruz sustatutako ikuspegi negatibo eta katastrofistak ere, herritarren artean interes berezia sortu du immigrazioarekiko, eta euskal gizartearen ustezko krisi demografikoari<sup>1</sup> erantzuteko bideetako bat izan dadila proposatu dute. Hala, komunikabideetan gori-gori egon den gaietako bat immigrazioak euskal gizartearen hazkundera eta egituran duen eragina<sup>2</sup> izan da. Eragin hori bitan bana daiteke: bata, zuzeneko, atzerritarrak iristeak sortutakoa; eta bestea, zeharkakoa, immigrazioak helburuko biztanleriaren jaiotze-kopuruan duen eraginaren ondorioa. Immigrazioak jaiotze-kopuruan duen eraginak ez du interes berezirik pizten. Hala ere, kasu honetan arreta berezia jaso du, bai komunikabideena<sup>3</sup>, eta baita erakunde estatistika-sortzaileena ere. Arreta berezi hori Estatu

<sup>1</sup>“Euskadi necesita la inmigración y mayor natalidad para asegurar las pensiones en 2050” El Correo 5-10-2006

<sup>2</sup>“La llegada de inmigrantes impide que Euskadi pierda población” El País. 13-6-2005.

“El CES defiende el papel de la inmigración para frenar el envejecimiento en Euskadi” Deia 12-4-2011

“Solo la inmigración atenuará los efectos del envejecimiento de la población vasca” 12-4-2011

<sup>3</sup>La tasa de natalidad de los inmigrantes en el País Vasco dobla a la de los nativos” Diario Vasco

osora zabaldu da, eta lotu liteke helburuko gizarteetako ugalkortasun-maila baxuarekin (Roig eta Castro, 2007).

Artikulu honen helburua EAEn bizi diren atzerritarren ugaltze-ereduak deskribatzea da, eta, horretarako, arreta berezia jarriko dugu jaiotze-kopuruan eta ugalkortasunean, baina ezteikopurua ere aipatuko dugu. Ugaltze-portaerari dagokionez, 2000 eta 2009 urteen artean EAEn bizi izan den biztanleria atzerritarren jaiotze-kopuruaren bilakaera aztertu dugu, eta baita horrek euskal jaiotze-kopuruan duen eragina ere. Horretarako, jaiotze-kopuruak eta jaiotza-tasa gordinak erabili ditugu –zenbat jaiotza mila pertsonako–. Jarraian, biztanleria nazionalaren eta atzerritarren arteko desberdintasunak deskribatuko ditugu, bai jaiotze-kopuruari dagokionez eta baita ugalkortasunari eta ugaltze-egutegiari dagokienez ere.

Deskribapenaren oinarria jaiotza-tasa gordinen, ugalkortasun-tasa orokorren eta adinen arabera ko tasa zehatzen azterketak dira, bai eta ugalkortasun-tasa sintetikoaren azterketa ere, hots, emakume edo gizon bakoitzeko jaiotako haurren batez besteko kopuruarena. Ezteikopuruari dagokionez, berriz, ezkontza motekin egin dugu lan, 2008 eta 2009 urte bitarteko ezkongaien naziotasunaren eta beste zenbait ezaugarriaren arabera. Jaiotzei eta ezkontzei buruzko datuak “Movimiento Natural de la Poblacion”en estatistikatik hartuak dira, eta baita udal-eroldaren izendatzaileei buruzko datuak ere. Informazio guztia eskuragarri dago estatistikaren institutu nazionalaren (Instituto Nacional de Estadística) gunean, zuzenean edo mikrodatuen<sup>4</sup> bidez.

### **Biztanleria atzerritarren jaiotze-kopuruaren bilakaera eta horrek euskal jaiotze-kopuruan duen eragina**

Lehen grafikoak adierazten duen bezala, gurasoetako bat atzerritarra duten haurren jaiotze-kopurua hazi egin da azken urteotan, bost aldiz 2000tik 2009ra. Hazkunde hori handixeagoa da aldiaren azken fasean, 2009an izan ezik, urte horretan apaldu egin baitzen. Jaiotza horien arteko gehienak bai aita eta bai ama atzerritarrak dituzten haurrenak dira. Hala, EAEn erregistratutako jaiotza guztietatik ia %11k zituzten aita eta ama atzerritarrak. Gainera, hori da gehien hazi den jaiotza mota: 2009an, hamaika aldiz handiagoa izan zen 2000n baino.

Aitzitik, bikote mistoetako seme-alaba kopurua gutxiago hazi zen aztertutako aldi horretan. Ikus ditzagun zenbait datu: 2000n bikote mistoek izandako haurrak gehiago ziren bai aita eta bai ama atzerritarrak zituzten haurrak baino (guztien %2,7 mistoenak, eta %1,1 besteak), eta 2009an, bikote mistoetako haurrak bai aita eta bai ama atzerritarrak zituztenen erdia baino gutxiago izan ziren.


Dena den, aita edo ama atzerritarra duten haurren jaiotze-kopurua hazteak horiek euskal jaiotze-kopuruan duten pisua haztea eragin du, aztertutako aldian. 2. grafikoan ikus daitekeenez, 2000n jaiotza guztien %3 ama atzerritarra zuten haurrena zen eta, 2009an, ehunekoa %15ekoa izan zen. Hala ere, ama atzerritarra duten haurren jaiotze-kopuruak euskal jaiotze-kopuruan duen eragina txikia da oraindik eta Estatuko batez bestekoa baino baxuagoa –Estatuko batez bestekoa %20 ingurukoa da–. Hala, hiru lurralde historikoen tarteko egoera dute Estatuan, zenbait gauza

<sup>4</sup>Egileek eskerrak eman nahi dizkiote Antia Dominguezi, 2000-2008 aldian jaiotako datuak lantzen emandako laguntzagatik.




aldatzen diren arren. Arabaren kasuan, bai aita eta bai ama espainiarrak dituzten haurren jaiotzen ehunekoa (%76) txikiagoa da Estatuko batez bestekoa baino, nahiz eta ehunekorik txikiena duten probintzietakoa baino handiagoa izan. Gironak eta Balearrek, adibidez, ehunekorik txikiak dituzte, eta %60 baino zertxobait gehiagok besterik ez ditu bai aita eta bai ama espainiarrak. Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan, berriz, ehunekoa %85 ingurukoa da, eta Estatuko batez bestekoa baino altuagoa da, nahiz eta ehunekorik altuena duten probintzietatik urruti egon –Kordoba edo Badajoz, esaterako–, probintzia horietan ehunekoa %90 baino altuagoa baita.

1. grafikoa. Aita edo ama atzerritarra duten haurren jaiotzak, gurasoen naziotasunaren arabera. EAE 2000-2009



Iturria: geuk egina, EINen datuekin

2. grafikoa. Jaiotze-kopuruen bilakaera, amaren naziotasunaren arabera. EAE 2000-2009




Iturria: geuk egina, EINen datuekin

Baina azter dezagun zehatzago jaiotza horiek EAEko jaiotze-kopuru orokorrean duten eragina. Baieztatu dugu hondar-eragina dela, eta hori izandako eraginari arreta jarriz egiaztatu daiteke, jaiotze-kopuruen adierazle orokorretan bertan. Hala, 3. grafikoan ikus dezakegu multzoaren jaiotza-tasa gordina oso gutxi aldatzen dela, atzerritarren eta espainiarren tasa gordinen arteko desberdintasunak gorabehera. Gainera, kontuan hartutako aldiaren ama atzerritarra duten haurren jaiotze-kopurua hazi egin bada ere, hazkunde hori ez da berdin garatu jaiotza-tasetan, tasa horiek joera aldakorra baitute. Eta horren azalpena honako hau da: jaiotza gehiago egon izana konpen-

tsatu egin daitekeela atzerriko biztanle gehiago egotearekin, eta biek kontrako eragina dutela tasen bilakaeran; hala, batak bestearen eraginak indargabetzen ditu.


3. grafikoa. Jaiotza-tasa gordinaren (JTG) bilakaera. Ama espainiarrak, atzerriarrak eta guztiak, EAE 2000-2009



Iturria: geuk egina, EINen datuekin

Hala ere, nahiz eta emakume atzeritarren jaiotzak asko ez izan EAEko jaiotze-kopuru osotik, kualitatiboki eragin garrantzitsua da. Hala, 4. grafikoa ikus dezakegu azken urteotako jaiotze-kopurua hazi egin dela aita eta/edo ama atzeritarra duten haurren jaiotzekin. Biztanle atzeritarren ekarpena gorabehera, 2000 eta 2003 artean jaiotze-kopurua hazi egin zen; baina 2003tik aurrera, ekarpen hori gabe, jaiotze-kopurua egonkorra izango zen EAEn. Azkenik, 2009an txiki-tu egin ziren bai guztizko jaiotze-kopurua eta bai guraso espainiarren haurren jaiotzak.

4. grafikoa. Jaiotze-kopuruaren bilakaera alderatua, motaren arabera EAE, 2000-2009



Iturria: geuk egina, EINen datuekin


## Ugalkortasunaren bilakaera alderatua: intentsitateari eta egutegiari dagozkien desberdintasunak

Ugalkortasunaren azterketak jaiotze-kopuruaren azterketarekiko osagarria den ikuspegi bat eskaintzen du, jaiotzak pertsonen adinarekin eta haurrak izateko aukerarekin lotzen baititu. Hau da, fenomenoaren intentsitatea eta ezaugarriak aztertzea ahalbidetzen digu, alde batera utzita

biztanleriaren egituran –adinaren eta sexuaren arabera– gertatzen diren aldaketak. Hori bereziki esanguratsua da bi biztanleria alderatzeko, bien arteko egitura-desberdintasunek eragina izan baitezakete deskribatutako portaeren intentsitatean. Hain zuzen, pentsa genezake jaiotze-kopuruari dagozkion desberdintasunak lotuta daudela biztanleria atzerritarren egituraren –adinaren arabera– ezaugarriekin, biztanleria atzerritarra nabarmen gazteagoa baita.

Ikus dezagun zer gertatzen den ugalkortasun-adierazleekin eta atera ditzagun ondorioak. Datuen argitan, biztanle atzerritarren kasuan, handiagoak dira bai ugalkortasun-tasa orokorra (jaiotzak, ugaltzeko adina duten mila emakumeko, ikus 5. grafikoa), eta baita ugalkortasun-tasa sintetikoa ere (emakume edo gizon bakoitzeko batez besteko haur-kopurua, ikus 6. grafikoa). Hots, desberdintasunak ez zaizkio soilik adinaren arabera egituraren eragin bereizgarriari zor. Beraz, baiezta dezakegu ugaltze-portaeraren intentsitatea handiagoa dela biztanle atzerritarrenan.

5. grafikoa. Ugalkortasun-tasa orokorraren bilakaera (UTO). Biztanleria espainiarra eta atzerritarra, EAE 2000-2009



*Iturria: geuk egina, EINen datuekin*


Hala, 2008tik 2009ra, emakume atzerritarren artean erregistratutako UTSa 1,9 hurrekoa da emakumeko, eta espainiarren artekoa 1,2koa; gizonezkoiei dagokienez, 1,8 eta 1,1ekoak dira, hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da UTSa, bi kasuetan, hazi egin dela aztertutako aldirian. Bestalde, hasieran espainiarren arteko hazkundea zertxobait handiagoa bazen ere, 2004-05etik aurrera UTSaren hazkunde-eritmoa handiagoa da atzerritarren artean espainiarren artean baino, eta, ondorioz, bi taldeen arteko desberdintasunak ere hazi egin dira.

Jaiotze-kopuruaz aritu garenean aipatu bezala, biztanleria autoktonoaren eta atzerritarren artean desberdintasun esanguratsuak egon arren, biztanle atzerritarren ugaltze-portaerak ez du ia eraginik ugalkortasun orokorrean. Hain zuzen, UTSari biztanle atzerritarren eragina kenduz gero, tasa emakume bakoitzeko 1,2 hurrekoa da, 1,3koa izan beharrean. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da UTSa edo ugalkortasun-tasa orokorra (UTO) kontuan izanik, hazteko joerak hor dirauela biztanle atzerritarren eragina kendutakoan ere

Gainera, biztanleria atzerritarren eta autoktonoaren arteko desberdintasunak, ugaltze-portaerari dagokienez, ez dagozkio intentsitateari bakarrik, lotura baitute egutegiarekin ere; hots, lotura dute ama eta aita izateko adinarekin. Zentzu horretan, 7. grafikoan egiazta daitekeen bezala, emakume atzerritarrak, ugalkorragoak izateaz gain, gazteagotan izaten dira ama. Hala, emakume espainiarren ugalkortasuna 30 eta 39 urte artean biltzen da, gehien bat, eta emakume atzerritarren artean, berriz, gazteenak dira ugalkortasunaren protagonista. Era horretan,


gehienez 29 urtera arteko emakume atzerritarren ugalkortasun-tasak altuagoak dira, eta 30-39 urte artean altuxeagoak dira espainiarrenak.

6. grafikoa. Ugalkortasun-tasa sintetikoaren (UTS) bilakaera. Biztanleria espainiarra eta atzerritarra. EAE, 2000-2009




Iturria: geuk egina, EINen datuekin

7. grafikoa. Ugalkortasun-tasak (0/000) adinaren arabera. Emakume espainiarrak eta atzerritarrek. EAE, 2008-2009




Iturria: geuk egina, EINen datuekin

8. grafikoa. Ugalkortasun-tasak (0/000) adinaren arabera. Gizon nazionalak eta atzerritarrek, EAE 2008-2009



Iturria: geuk egina, EINen datuekin

9. grafikoa. Adinaren arabera ugalkortasun-tasen (0/000) bilakaera. Emakume atzerritarrak, EAE 2000-2001 eta 2008-2009




Iturria: geuk egina, EINE datuekin

Ikus dezagun orain zer gertatzen den gizonezkoekin. Emakumeekin gertatzen den bezala, gizon atzerritarren ugalkortasunak beste eredu bati erantzuten dio eta, handiagoa izateaz gain, gutxiago biltzen da adin jakin batzuetan. Hain zuzen, gizonen ugalkortasun-tasak altuagoak dira adin guztietan, 30-34 urte artean izan ezik. Kasu horretan, 30 eta 40 urte arteko gizonezkoak dira ugalkorrenak, bai atzerritarrak eta baita espainiarrak ere.

Espero genezakeen bezala, emakumeen eta gizonen naziotasunaren arabera ugaltze-egutegietako desberdintasun horiek eragina dute ama eta aita izateko batez besteko adinetan. Hain zuzen, emakume eta gizon atzerritarrak, oro har, 28,4 eta 32,5 urterekin izaten dira aita-ama, eta espainiarren artean ama eta aita izateko batez besteko adinak 33,6 eta 35,6 urtekoak dira, hurrenez hurren.

Ama eta aita izateko adinak bikote mistoetan aztertzen baditugu, tarteko portaera dutela ondorioztatuko dugu. Esaterako, ama espainiarra eta atzerriko aita duten haurren jaiotzetan, emakumeen batez besteko adina txikiagoa da (31,8) guraso espainiarrak dituzten haurren jaiotzetan baino (33,6), baina handiagoa guraso atzerritarrak dituztenenetan baino (28,3).

10. grafikoa. Adinaren arabera ugalkortasun-tasen (0/000) bilakaera. Emakume espainiarrak, EAE 2000-2001 eta 2008-2009




Iturria: geuk egina, EINE datuekin

Denborarekiko bilakaerari dagokionez, baiezta dezakegu egutegiari dagozkion desberdintasunak, espainiarren eta atzerritarren artean, hazi egin direla aztertutako aldian. Laburbilduz, emakume atzerritarren ugalkortasuna adin guztietan hazi da, eta espainiarrena oso gutxi hazi da 35 urte-tik aurrera. Zentzu horretan, ugaltze-ereduen kontzentrazioari dagozkion desberdintasunak egonkorak dira denboran zehar.

### Eztei-kopuruaren, ezkontza moten eta ezkontzen ezaugarrien azterketa

2008tik 2009ra, EAEn izena emandako ezkontzen %14n, ezkongaietako bat, behintzat, atzerritarra da. Hau da, badago paralelotasun bat, euskal portaera demografikoan, atzerritarren eztei-kopuruaren eta jaiotze-kopuruaren garrantzia erlatiboen –ehunekoen– artean. Antzekotasun hori berretsi egiten da Estatuko batez bestekoarekin alderatuta ere, ezkongaietako bat behintzat atzerritarra duten ezkontzen ehunekoa txikiagoa baita EAEn, %14, eta Estatuan %20.

11. grafikoa. Ezkontzak guztira, ezkongaien naziotasunaren arabera. Estatu eta EAE 2008-2009



Iturria: geuk egina, EINen datuekin


Hala ere, ezkongaietako bat atzerritarra duten ezkontzak aztertuz gero, badaude desberdintasunak jaiotze-kopuruarekiko. Jaiotze-kopuru gehienak bi pertsona atzerritarren haurrenak dira, eta ezkontzen kasuan, berriz, ezkontza mistoak dira nagusi, hots, espainiar baten eta atzerritar baten artekoak. Azpimarratzekoak dira, gainera, naziotasun desberdineko bi pertsona atzerritarren arteko ezkontzak; izan ere, ezkontza horiek ere har genitzake bikote misto gisa, berez. Ezkontza horiek bi atzerritarren artekoak baino gutxiago badira ere, esanguratsuak dira, bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere.

Ezkontza horien ezaugarriei dagokienez, ezkongaien sexutik hasita, ezkontza gehienak sexu desberdinekoen artekoak dira (%99). Ehuneko hori antzekoa da 11. grafikoan deskribatutako ezkontza-mota guztietan. Ospakizun-errituari dagokionez, desberdintasun aipagarriak daude; ezkongaietako bat atzerritarra den ezkontzetan, erritu zibilaren eragina askoz ere handiagoa da –%85– espainiarren ezkontzetan baino –%54–.

Ezkongaietako bat atzerritarra den ezkontzen artean ere bada desberdintasun txikirik. Hala, erritu katolikoan ospatutako ezkontzak pertsona espainiar baten eta atzerritar baten artekoen %15 dira, eta beste motak, aldiz, ez dira %12ra heltzen. Ezkontza horietan –bi ezkongaiak atzerrita-

rrak, naziotasun berbera izan ala ez–, beste erritu erlijioso batekin ospatutako ezkontzak gehiago dira besteetan baino.

12. grafikoa. Ezkontzen den pertsonetako bat atzerritarra den ezkontzak, guztira, naziotasunaren arabera. EAE, 2008-2009



Iturria: geuk egina, EINen datuekin

## Ondorio gisa

Ama eta/edo aita atzerritarra duten haurren jaiotze-kopurua nabarmen hazi da EAEn 2000-2009 urteetan. Jaiotze-kopurua handiagoa da atzerritarren artean espainiarren artean baino, baina euskal jaiotze-kopuruan duen eragina txikia da, hala ere. Ikusi dugu ugalkortasun-tasetan ere desberdintasun esanguratsuak daudela, eta atzerritarrak gazteagotan izaten direla aita-ama. Bikote mistoei dagokienez, ezkongaietako bat behintzat atzerritarra duten ezkontzak guztien %14 dira; hala ere, horrelako bikoteen haurren jaiotzak ez dira oso esanguratsuak kuantitatiboki.

Emakume espainiarrenak baino tasa altuagoak badituzte ere, atzerritarren ugalkortasuna eta jaiotze-kopuruak urrun daude emakumeen jatorrizko herrialdeenetatik, eta, Estatu osoaren kasurako ere adierazi bezala, emakume atzerritar-euskaldunen ugalkortasun-tasak haien jatorrizko herrialdearen eta emakume espainiarren tasen artean kokatzen dira.

Ikerketa askok antzeko desberdintasunak daudela agertu dute emakume atzerritarren eta espainiarren ugalkortasunari dagozkien intentsitate eta egutegian, bai beste autonomia-erkidego batzuetan eta bai Estatu osoan (Devolder eta Treviño, 2007; Gispert et al, 2008; Hierro eta Fernández 2010; OPSC, 2010), bai eta horrek ugalkortasun orokorrari zein gutxi dakarkion ere (Roig eta Castro, 2007).

Gainera, EAEn ez bezala, 2000ko hamarraldian zehar, emakume atzerritarren UTSa txikitu egin da (OPSC, 2010). Horrek eraman gaitu baieztatzerara, Espainiaren kasuan, emakume atzerritarren eta autoktonoen ugalkortasun-tasak bat datozela (Hierro eta Torre, 2010). Hala ere, aipatu da

emakume atzerritarren ugalkortasuna txikitzea arretaz interpretatu beharreko zerbait dela ere, metodo-kontuak direla eta (Roig eta Castro, 2007).

Eztei-kopurua ez zaio horren deigarria egin Estatuko zientzia-erkidegoari (Cortina et al., 2008) eta, izatekotan ere, azterketak bikote horien osieran jarri du arreta, eta hori integrazioaren adierazle gisa ulertu dute batzuek.

Kapitulu honen emaitzek ugaltze-ereduen eta EAEko atzerritarrek bikoteak osatzeko dituzten ereduak deskribapen esanguratsu bat ematen dute, bai eta eredu horiek euskal portaera demografikoaren bilakaeran duten eraginaren deskribapena ere. Dena den, eta orain arte datuak sortzeak eskatzen duen esfortzua gutxietsi gabe, kontuan izanik datu horiek ez zeudela eskuragarri euskal biztanleriaren portaera demografikoen azterketarako, arretaz ibiltzea komeni da, eta portaera demografiko horiek aurkezten dituzten mugetako batzuk planteatzea.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoak dira datuen kalitatetik eratorritako arazoak, eta kalitate horrek zenbakiak eskaintzeko duen egokitasuna, bai biztanleria atzerritarrenak eta bai jaiotze-kopuru eta ezkontzenak. Muga klasikoetako bat ereduak biztanleria atzerritarren tamaina kalkulatzeko duen egokitasunari buruzkoa da. Arazo hori konpontzeko, bi iturri alternatibo erabili dituzte: Biztanleriaren eta Egoitzaren 2001eko Errolda, eta Biztanleriaren eta Egoitzaren 2006ko Estatistika, Eustatena, izendatzaileak bi unetan kalkulatzeko. Datu-iturri horiek erabilita, emaitzek ez dute desberdintasun handirik agertzen aurkeztutako datuekiko.

Kalitateaz gain, erabilitako datu-iturrietatik eratorritako mugetako bat da fenomenoaren zeharkako ikuspegia bakarrik hartzen dutela kontuan. Hau da, EAEn gertatutako jaiotzei eta ezkontzei buruzko informazioa bakarrik dugu, eta hori muga handia da pertsona atzerritarren portaera demografikoak aztertzeko, ez baitakigu ezer jatorrizko gizartean gertatutako ezkontza eta jaiotzei buruz. Zentzu horretan, luzetarako ikuspuntua duten beste datu-iturri batzuk erabiltzeak fenomenora biografikoki gerturatzea ahalbidetuko luke, eta horrek asko aberastuko lituzke lortutako emaitzak.

Bestalde, erabilitako datu-baseetan gordetako informazioak ez du ugalkortasunaren erabakigarrietara gerturatzea uzten, baizik eta soilik haien deskribapenera. Espainiaren kasuan, ugalkortasunaren erabakigarri batzuek –adibidez, ikasketa-mailak– garrantzia bereizgarria izan dezakete emakume atzerritarrentzat eta espainiarrentzat (Hierro eta Comas, 2010).

Eta horri beste muga bat gehitu behar zaio: pertsona atzerritarrei buruzko azterketa zehatz eta bereizia egin ez izana. Garbi dago pertsona atzerritarrek oso talde heterogeneoa osatzen dutela, eta desberdintasun handiak daudela naziotasunari, administrazio-egoerari eta beste ezaugarri sozioekonomiko batzuei dagokienez. Hala, ikerketa askok erakusten dute espainiar estatuan pertsona atzerritarren ugalkortasuna oso aldakorra dela, pertsona horien naziotasunaren arabera (Delgado eta Zamora, 2006; Roig eta Castro, 2007). Adibidez, Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeen eta latino-amerikarren artean desberdintasun nabarmenagoak daudela atzerritarren eta espainiarren artean baino. Hori aztertzea gure erronketako bat da aurrerago egingo ditugun ikerketetarako.

Biztanleria atzerritarrak jaiotze-kopuruan eta ugalkortasunean duen eraginari dagokionez, zuzenean eraginaren neurketara besterik ez gara gerturatu. Hau da, zeharkako beste eragin batzuk ez ditugu kontuan izan; esaterako, ez da kontuan hartu emakume atzerritarrak estrategia nagusie-



tako bat izan direla euskal bikoteen lana eta familia bateratzeko, eta horrek, dudarik gabe, eragina izan du EAEko jaiotze-kopuruan.

Azkenik, EAEn atzerritiko immigrazioaren fenomeno horren berria denez, fenomeno horiek ezin izan dira egoki aztertu, ikuspegi historikoaz, eta zaila da etorkizuneko bilakaeraren inguruan hipotesiak egitea. Zentzu horretan, uste dugu garrantzitsua eta interesgarria dela, etorkizunera begira, alor honetan lan egiten jarraitzea.

Baina saia gaitezen zenbait gaitan aurrera egiten. Lehenago, hainbat hipotesi proposatu izan dira helburuko gizarteetan biztanleria atzerritarren ugalkortasun-ereduak nola bilakatuko diren iragartzen saiatzeko. *Sozializate-hipotesiak* dio migratutako pertsonen ugaltze-portaeraek pertsona horiek haurtzaroko giroan izan zituzten lehen tasun nagusiak islatzen dituztela. Horrela, migratutako pertsonen lehen belaunaldiek jatorrizko gizarteetako ugaltze-portaeraa izango zutela, eta hurrengo belaunaldian egingo zutela bat helburuko gizarteetako portaerekin.

Egokitzapen-hipotesiak, ostera, iragartzen du egokitzapena lehenago gerta daitekeela; izan ere, migratutako pertsonak egile gisa aurkezten ditu eta, lehenago edo beranduago, beren ugaltze-portaerak helburuko gizartearenera egokitzen dituztela dio. Aitzitik, *hautaketa-hipotesiak* baieztatzen du ugaltze-ereduen aldaketak, ezaugarri sozioekonomikoei dagokienez, etorkinak jatorrizko biztanleekiko desberdinak direlako gertatzen direla, eta haien ugaltze-portaerak gertuago daudela helburuko gizartetik jatorrizkotik baino. Azkenik, *disrupzioaren hipotesiak* dio migrazio-prozesuak ugalkortasun-maila txikitzea dakarrela, lekualdatzearekin berarekin lotutako eragileak direla eta.

Beste ikerketa batzuek, ostera, garrantzia kendu nahi izan diete aurreko portaera edo testuinguru demografikoekin lotutako eragileei, eta pertsona horien baldintza sozial, ekonomiko eta legalek helburuko gizartean duten garrantzia nabarmendu dute, immigratutako pertsonen ugalkortasunaren erabakigarri gisa. Dena den, ziurtasunik ezak iradokitzen du lotura konplexuak daudela immigratutako pertsonen ugalkortasunean eragiten duten alderdien artean, eta ez da beharrezkoa helburuko eta jatorrizko gizarte bakoitzaren berezitasunak horrenbeste izatea kontuan.

## BIBLIOGRAFIA

- Cortina, C.; Esteve, A.; Domingo, A. (2008). "Marriage patterns of the foreign-born population in a new country of immigration: the case of Spain". *IMR* 42. Bol (2008ko negua): 877-902.
- Cortina, C.; Esteve, A.; Jiménez, E. (2008). "La delicada captación estadística de las uniones de los inmigrantes". *Índice*. 2008ko iraila: 18-20.
- Delgado, M.; Zamora, F. (2006). "La contribución de las mujeres extranjeras a la dinámica demográfica en España". *Sistemas*, 190-191:143-166.
- Devolder, D.; Treviño, R. (2007). "Efectos de la inmigración extranjera sobre la evolución de la natalidad y de la fecundidad en España". *Papers de Demografia* 321:1-14.
- Domingo, C. (2004). "Inmigración y fecundidad en España". *Cuadernos de Geografía* 76:239-250.

- Gispert, R.; Clot-Razquin, G.; Torné, M.M; Bosser-Giralt, R.; Freitas-Ramírez, A. (2008). "Diferencias en el perfil reproductivo de mujeres autóctonas e inmigrantes residentes en Cataluña". *Gaceta Sanitaria*. 22(6):574-577.
- Hierro, M.J; Torre, M. (2010). *¿Querer es poder? Un análisis de la fecundidad de las mujeres españolas e inmigrantes*. Fundación Alternativas.
- Izquierdo, A.; López de Lera, D.; Oso Casas, L.; Lamela, C.; Bujan, R.; Villares, M., (2006). *Demografía de los extranjeros: incidencia en el crecimiento de la población*. Madrid: Fundación BBVA.
- Kulu, H. (2003). "Migration and fertility: competing hypotheses re-examined". *MPIDR Working Paper WP 2003-035*
- Luxán, M. (2007). *Immigrazioaren eragin demografikoa*. Bilbo: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia
- Luque, M.A; Bueno-Cavanillas, A. (2009). "La fecundidad en España, 1996-2006: mujeres de nacionalidad extranjera frente a españolas". *Gacet Sanitaria* 23(supl 1):67-71.
- OPSC (2010). *Determinantes de la salud y acceso a servicios sanitarios de la población inmigrante en Cantabria*. Kantabriako Gobernua (2011ko apirilaren 20an kontsultatua): [[http://www.ospc.es/Docs/ESTUDIO%20DETERMINANTES%20SALUD%20POBLACION%20INMIGRANTE%20CANTBRIA\\_OSPC\\_2010.pdf](http://www.ospc.es/Docs/ESTUDIO%20DETERMINANTES%20SALUD%20POBLACION%20INMIGRANTE%20CANTBRIA_OSPC_2010.pdf)].
- Roig, M.; Castro, T. (2007). "Immigrant mothers, Spanish babies: childbearing patterns of foreign women in Spain". *Lan-dokumentuak*. BBVA fundazioa, 17: 5-38.

## **Ikasle etorkinak eta hizkuntzak euskal eskolan**

**Felix Etxeberria**  
**Kristina Elozegi**  
UPV/EHU<sup>1</sup>

### **Ikasle etorkinen kopuruak**

Immigrazioa ez da oraingo fenomeno gure inguruan. Duela hamarkada batetik gorako estatistikak ditugu eta horiek adierazten dute jatorri atzerritarreko biztanleak gero eta gehiago direla urtez urte. Joera horrek isla du eskolan ere. Hala, ikastetxeetan ikasten duten ikasle etorkinen ehunekoa handiagoa edo txikiagoa da hainbat aldagaien arabera, baina horien artean bereziki garrantzitsua da harrerako eskualdearen jarrera. Hezkuntza Ministerioaren arabera, hauek ziren jatorri etorkineko ikasleen ehunekoak 2007-2008 ikasturtean:

• Errioxa	15,1%
• Madril	13,9%
• Katalunia	12,4%
• Espainiako batez bestekoa	9,4%
• Euskal Autonomia Erkidegoa	5,6%
• Galizia	3,2%
• Extremadura	2,9%

Datuek erakusten dute zenbait autonomia-erkidegotan ikasle etorkinen ehunekoa handiagoa dela bestetan baino: Errioxan, Balear Uharteetan, Madrilan eta Katalunian, esaterako. Beste zenbaitetan, hala nola Ceutan, Extremaduran, Galizian, Asturiasen eta Euskal Autonomia Erkidegoan, ikasle etorkinen kopurua askoz txikiagoa da. Nolanahi ere, joerak adierazten du ehuneko hori nabarmen ari dela hazten eta etorkizunean ere horrela jarraituko duela.

---

<sup>1</sup>"Donostia Research on Education And Multilingualism" (DREAM) Ikerketa Taldeak Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin [GIU09/35] egindako lanaren, eta Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak lagundutako "Hizkuntza-aniztasuna eskola testuinguruan" egitasmoaren [EDU2009-11601] emaitzetako bat da artikulua hau.

## Jatorrizko herrialdeak eta hizkuntzak

Atzerriko ikasleen artean, kolektibo ugariena Latinoamerikatik etorritakoena da (%48); ikasle etorkinen ia erdia da jatorri horretakoa (M.E.C., Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, 2009) Hurrengoak, Europar Batasunetik eta AEBetatik (% 19) iritsitakoak dira; hirugarrenik, Afrikatik heldutako etorkinak (% 17) eta, ondoren, Ekialdeko Europatik (% 9) eta Asiatik (% 5) iritsitakoak.

Horrenbestez, hauek dira etorkinek gure eskoletan gehien hitz egiten dituzten hizkuntzak: gaztelania, portugesa, arabiera (zenbait kasutan berberera), errumaniera eta txinera.

## Ikasle etorkinak integratzeko oztopoak

Oso argigarria da Mikael Luciak-ek European Monitoring Centre on Racism and Xenophobia (EUMC) erakunderako eginiko lana, "Documenting Discrimination and Integration in 15 Member States of the European Union" (2004) deritzona. Lan horretan, Europar Batasuneko jardun baztertzailerei buruzko dokumentazioa aztertu eta ondorioak ateratzen ditu Luciak-ek, ondorio argigarriak eta zorrotzak. Hauxe da EBko 15 herrialde kideri buruz eginiko txosten horren ondorio behinena: "eskola-sistema huts egiten ari da etorkin adingabeekin eta etorkinen seme-alabekin hainbat alderditan":

- Etorkin adingabeak harrerako herrialdearen hizkuntzan eskolatzen dira eta ez beren ama hizkuntzan; horren ondorioz, gerta daiteke dagokiena baino beheragoko mailetan kokatzea, eta horrek nahasi egiten du beren garapen normala.
- Joera da ikasle horiek lanbide-eskoletan eta eskola teknikoetan eskolatzea eta ez hainbeste goi-mailako eskoletan. Ikasle etorkin ugari ospe txarra duten auzo pobretuetako zenbait eskolatan pilatzen dira.
- Eskola-porrotaren ehunekoa handiagoa da bertako ikasleena baino.
- Bazterketa handiagoa jasaten dute, eskolak eskatzen dituen kultura-gaitasunak eskuratzeko zailtasun gehiago dituztelako.
- Eskola-emaizta okerragoak dituzte eta aldeak areagotu egiten dira adinarekin.
- Aurreikuspen kaskarragoak dituzte lan bat hautatu ahal izateko.
- Ehunekoari erreparatuta, bertako ikasleak baino gutxiago hasten dira goi-mailako hezkuntzako karreretan.

EUMC 2004 txostenaren arabera, nahiz eta laguntza-programak eta zenbait ekimen positibo izan badiren, desorekak eta aldeak nabarmenak dira oraindik ere.

Sarritan, kulturarteko hezkuntzari eta etorkinen integrazioari eta bereziki ikasle etorkinen integrazioari buruzko diskurtsoa baikorragoa da ikasle etorkinen inguruko joera, jarrera, legedi eta haien eskola-emaiztek benetan adierazten dutena baino. Eskolatze soilak berak sortzen dituenak

baino arazo askoz konplexuagoei eman behar diegu irtenbidea irakasleok eta gizarte-hezitzaileok, eta, bistan da, lan nekeza dugu aurrean.

Etorkinen hezkuntza egokia lortzeko zazpi erronka edo zailtasun azalduko ditugu ondoren. Arazoak, funtsean, hauek dira: eskolatzeko handiagoa ikastetxe publikoetan, zailtasunak eskolako hizkuntzarekin edo hizkuntzekin, eskola-emaitza txarragoak, etorkinen gaineko legediaren gogortzea, jatorrizko herrialdeetako hizkuntza eta kulturekiko arreta eskasa, ikasle etorkinak ikasgelan izateak sortzen duen nolabaiteko bazterketa eta irakasleen hasierako prestakuntzan eta prestakuntza iraunkorrean hautemandako gabeziak. Azterketa honen asmoa ez da jarrera fatalista edota deterministetan jaustea; aitzitik, helburua da kolektibo horietaz arduratzen den hezkuntzak zer erronka nagusiri egin behar dien aurre ondo jakitea eta, era horretara, egiazko integrazioa galarratzen duten mugak eta oztupoak gainditu ahal izatea. Gainerakoan, kulturarteko diskurtsoak bere bide idealizatuari jarraitzeko arriskua du, eta, aldiz, gizartearen eguneroko jardunak gero eta urrunago garamatza kulturarteko hezkuntzak aspaldi zehaztutako helburuetatik.

## 1. Ikasle etorkinak eta ikastetxearen titulartasuna

Espanian, ikasleak oro har, bi ikastetxe motatan banatzen dira: publikoak eta pribatuak (edo itunpekoak). Espainiako zifrek adierazten dute (M.E.C., 2008-2009), ikasle guztiak aintzat harturik, % 67 ikastetxe publikoetan eskolatzen dela eta % 33 zentro pribatuetan. Kontuan izan behar da Europar Batasunean (27), batez beste, % 86 eskolatzen dela irakaskuntza publikoan eta % 14 irakaskuntza pribatuan. Alemanian, Finlandian, Italian eta Polonian % 93 baino gehiago eskolatzen da zentro publikoetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen % 48,6 irakaskuntza publikoan eskolatu zen 2005-2006 ikasturtean eta % 51,4 pribatuan (Eustat, 2005). Ikasle etorkinen artean, berriz, % 69 zentro publikoetan eskolatu zen ikasturte berean eta % 31 pribatuetan (Eusko Jaurlaritza, 2005). Kasu honetan ere, ikastetxe publikoetan eskolatzen diren ikasle etorkinen ehunekoa handiagoa da EAEn batez bestekoa baino, 20 puntu handiagoa.


2010-2011 ikasturteko datuei erreparatuz, ikasle etorkinak ikastetxe publiko eta pribatuetan nola banatzen diren aztertuz gero, alde handiak daude, bereziki kontuan hartuta zenbait ikastetxetan ikasleen %20tik gora etorkina dela. Ikasle etorkinak % 20tik gora diren 68 ikastetxe daude errolatuta EAEn eta horietatik 54 titulartasun publikokoak dira eta 14 titulartasun pribatu itunpekoak (Eusko Jaurlaritza, 2011).

Ikasle etorkinak kontuan harturik, hona hemen 2008-2009 ikasturteko eskolatzeko datuak (M.E.C., 2009) zentro motaren arabera: % 82 ikastetxe publikoetan eta % 18 pribatuetan. Hau da, ikasle etorkinak Espainiako batez bestekotik gora (15 puntu gorago) eskolatzen dira ikastetxe publikoetan.

Bestalde, grafiko horretan jabetuko gara familiaren jatorrizko herrialdea zein den, aldeak handi samarrak direla. Afrikatik iritsi diren familien % 90ek ikastetxe publikoetan eskolatzen ditu seme-alabak; Erdialdeko Amerikatik eta Hego Amerikatik iritsitakoentz artean % 80k jotzen du zentro publikoetara, eta, aldiz, Ipar Amerikako familien % 62k baino ez ditu eskolatzen haurrak ikastetxe publikoetan. Europar Batasunetik (27) iritsitako ikasleen % 84 joaten da ikastetxe publikoetara, baina ez dugu daturik bereizteko eta alderatzeko EB15eko familien eta azken

aldian EBra bildu diren herrialdeetako (Errumania, Polonia, Ukraina, Jugoslavia, etab.) familien artean.

1. grafikoa. Ikasle etorkinak jatorriaren eta ikastetxe motaren arabera



Iturria: M.E.C., 2009

Ikasle etorkin gehienak, beraz, ikastetxe publikoetan biltzen dira, eta, hain zuzen, hori da lehen oztopoa beren eskola-integratzearako. Ikasle atzerritarren kopurua handiagoa den heinean zailagoa delako integratze hori. Eta bigarrenik, etorkinak eskolatzen diren zenbait ikastetxe publikoetan material eta giro aldetiko baldintzak ez direlako beste batzuetan bezain egokiak.

## 2. Ikasle etorkinak eta harrerako herrialdeko hizkuntzen ikasketa

### Eskolako hizkuntz(ar)en garrantzia

Ez dago zalantzarik: eskolako hizkuntzan gaitasuna izatea faktore erabakigarria da eskola-emaitzetan. Horren harira, harrerako hizkuntzak, gehiengoarena edota tokikoa, oso garrantzitsuak dira integratzearako tresna funtsezkoak diren heinean (Eusko Legebiltzarra, 1998). Hizkuntza aldetiko gabeziek eragin erabatekoa dute une oso garrantzitsuetan, hala nola bigarren hezkuntzaren hasieran edota oinarritzko hezkuntzatik lanbide-hezkuntzara igarotzeko unean.

Hizkuntzak hizpide ditugula hona hemen galdera funtsezkoa: Zenbat denbora behar da ikasle etorkin batek bertakoak adinako maila lor dezan eskolako hizkuntzan? Ikasle etorkinek bertakoen adinean jotzen badute eskolara, bi edo hiru urterekin, itxura batean ez dute arazo berezirik izaten eskolako hizkuntza nagusia berenganatzeko. Aldiz, eskolatzeko garaia aurreratuta dagoela hasten badira, zailtasun handiagoak izaten dituzte. Zenbat eta beranduago hasi, gainera, orduan eta zailtasun handiagoak (Cummins, 2001).

Cumminsek (2001, 42. or.), Hakuta aipatuz, hainbat ikerketa nabarmendu ditu eta horien bidez egiaztatutakoa azpimarratu du: “Ingeles hiztuna ez den norbaitek 5 bat urte behar ditu hizkuntza hori erraztasunez ulertzeko eta hitz egiteko; hau da, lehen hezkuntzako lehen mailan hasten denak ez du ingelesez ondo hitz egingo bosgarren mailaren amaierara arte, gutxi gorabehera”.

Cumminsi jarraituz, arazoa hau da funtsean: ikasle etorkinek erraztasun handi samarra eskura dezakete berehala hizkuntza nagusian, baina bost bat urte behar dituzte (eta sarritan askoz gehiago) irakaskuntzari lotutako alderdietan bertakoen mailara iristeko. Cumminsen irudiko, ondorioak begien bistakoak dira: ikasle etorkinek epe luzera irakaskuntzan aurrera egiteko esku-hartzeak behar dira, eta ez epe motzeko “konponbide azkarrak”.

Hainbat urteko ikasketaren ondoren bertakoek eta etorkinek hizkuntza berdintsu menderatzen dutela ez da, ordea, erabat egia; izan ere, bertakoak “ez dira geldi geratzen ingelesa ikasten ari direnek noiz harrapatuko zain”. Horrenbestez, ingelesa ikasten ari direnek mugitzen ari den helmuga baterantz iritsi behar dute eta, beraz, nekez lortzen dute helburu izugarri hori urte gutxitan betetzea.


Espainian (CEAPA, 2004), ikasle etorkinak ikastetxeetan integratzea/normalizatzea zailtzen duten faktoreen artean nagusienetakoa da hori: ikasleak ez dira ikastetxeko irakaskuntza-erritmoan integratzen hizkuntza ez dakitelako. Ikasle etorkinek, hizkuntza ulertzen ez dutelarik, beren burua bakartzera jotzen dute eta, askotan, ez dute beren nahasmen hori adierazten, ez inor gogaitzeko edo hizkuntza ondo ez hitz egiteak sorraraz dezakeen lotsa ez sentitzeko.

Katalunian (Casares eta Vila, 2009) 1990. urteaz geroztik hainbat estrategia jarri dira martxan beste hizkuntza batetik datozen ikasleei katalana irakasteko. Lehen fasean, TAE delakoak (Eskolara egokitze lantegiak) eratu zituzten. Hala, ikastetxe batean matrikula egiten zuten ikasle atzerritarrak TAE horietako batera bideratzen zituzten, baina lantegi haietan ikasle guztiak ziren atzerritarrak Ondoren, TAE horiek bertan behera utzi eta haien ordez Harrerako gelak eta lurralde-planak, “Plans educatiu d'entorn” zeritzenak (Inguruneke hezkuntza-planak) ezarri zituzten. Azkenik, “Espais d'acollida” (Harrerako guneak) batzuk eratzeko asmoa iragarri zuten zenbait herritan, hala nola Reusen eta Vicen, eta ikasle atzerritar asko bildu zen gune horietara. 2009. urtearen hasieran Bartzelonan antzeko guneak sortzeko asmoa iragarri zuten azken hiru-hilekorako.

Harrerako hizkuntza ikasteko estrategia horietako bakoitzaren aldekoak ez dira ados jartzen ikasleak integratzeko modurik onena zein den identifikatzerakoan: batzuk ohiko ikasgelan, edukiak eta hizkuntza aldi berean ikastearen aldekoak dira, eta beste batzuk, berriz, ikasgela espezifikotetan, irekietan zein itxietan, katalanaren ikasketa lehenetsi eta ondoren ohiko ikasgelara eramatearen aldekoak.

Euskal Herriari dagokionez, hizkuntza-ereduen araberrako eskola-antolaketa berezia aintzat harturik, Gaztelania (A), Mistoa (B) eta Euskara (D), ikasle etorkinek A ereduaren aldeko joera nabarmena dute. Irakaskuntza ia osoa gaztelaniaz egiten da eredu horretan.

2. grafikoa. Ikasleak osotara, ikasle etorkinak eta hizkuntza-ereduak Lehen Hezkuntzan



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2006

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzan ikasle etorkinen eta ikasle guztien (etorkinak + bertakoak) ehunekoek alderantzizko joera adierazten dute; hala, datu horiek oinarritzat hartuta, egiaztatu dezakegu A ereduan eskolatzen diren ikasle etorkinak euskal eskoletan eskolatzen diren ikasle guztien halako bi direla proportzioan. Era berean, ikasle etorkinen % 22,8 baino ez da eskolatzen D ereduan. Aldiz, ikasle guztiak aintzat harturik, erdia pasatxo (% 51) eredu horretan eskolatzen da.

Euskal Eskola Kontseiluak (2005) egiaztatutakoaren arabera, zailtasun gehien dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta A ereduan biltzen dira. Horren ondorioz, egoera sozio-ekonomiko ahulenean daudenek eta immigraziotik datozenek arriskua dute ikastetxe jakin batzuetan eskolatzeko; bazterkeria eta ghetto bihurtzeko joera nabarmena den ikastetxeetan, hain zuzen.

Nolanahi dela ere, ziurtasunez dakigu A ereduan eskolatzen diren ikasleek ez dutela gutxieneko hizkuntza-gaitasunik lortzen euskaraz, ez eta B ereduan eskolatzen diren ikasle askok ere (ISEI-IVEI, 2005). Horrenbestez, ikasle etorkinek eskolako hizkuntzak (gaztelania, katalana, euskara) ikasteko duten defizit horrek mugatu egin dezake ikasle horien hizkuntza aldetiko etorkizuna, eta, horren ondorioz, ikasle horietako askok zailtasun handiagoak izan ditzakete gerora gizartean eta lan-munduan integratzeko.

### 3. Ikasle etorkinen eskola-eremak

#### PISA txostenak eta ikasle etorkinen egoera

Ikasle etorkinek motibazioa eta jarrera positiboa izaten dute eskolarako (Stenat eta Christensen, 2006), baina hala ere, 2006ko PISA txostenaren datuek adierazten dute emaitza apalagoak lortzen dituztela bertako ikasleek baino eskolako ikasgai nagusietan, hala nola matematikan, irakurketan eta zientzietan. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) 30 herrialdeetako egoera aztertzen du PISA txostenak. Aldeak nabarmenagoak dira zenbait herrialdeetan; Austriar, Belgikan, Danimarkan, Frantziar, Alemaniar, Holandar eta Suitzar, esaterako. Beste zenbait herrialdeetan, berriz, aldeak ez dira hainbestekoak; Australiar, Kanadar, Zeelanda Berriar eta Macau-Txinan, adibidez.

Pentsatzekoa denez, ikasle etorkinen familiak zer maila sozio-ekonomiko duen eta zer hizkuntza hitz egiten duen, horren arabera dira emaitzak. Herrialde bakoitzak hezkuntzaren eta inte-




grazioaren arloan duen estrategiak ere badu eragina, baita ikasle etorkinei hizkuntza arloan laguntzeko programak izateak ere.

Beharrezkoa da, lehenik eta behin, txostenean zehazten diren hiru ikasle kategoriak bereiztea:

- *Bertakoak*: eskolatuko diren herrialdean bertan jaiotako haurrak, gurasoetako bat, gutxienez, bertan jaiotakoa dutenak.
- *Lehen belaunaldia edo bertakoak ez direnak*: eskolatuko diren herrialdean ez, beste batean jaiotako haurrak, eta, orobat, beste herrialde batean jaiotako gurasoen seme-alabak.
- *Bigarren belaunaldia*: eskolatuko diren herrialdean jaiotako haurrak, baina gurasoak beste herrialde batean jaiotakoak dituztenak.

3. grafikoa. 2006ko PISA Txostena. Bertakoen eta etorkinen emaitzen konparazioa



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, bertakoek puntuazio hobea dute aztertutako arlo guztietan: matematika, irakurketa eta zientzietan, hain zuzen. ELGAN aztertutako 30 herrialdeak aintzat hartuta, matematikan, bertako ikasleek 25 puntuko aldea ateratzen diete bigarren belaunaldiko ikasleei; hots, eskolatu diren herrialdean jaio baina guraso atzerritarrak dituztenei. Alde hori are handiagoa da bertakoak eta lehen belaunaldiko ikasleak (beste herrialde batean jaiotakoak) alde-ratuz gero; 38 puntukoa, zehazki. Alde horiek nabarmen aldatzen dira herrialde batetik bestera. Alderik handienak Belgikan gertatzen dira: 112 puntuko aldea dute bertakoek.

Irakurketan ere nabarmenak dira aldeak. Bigarren belaunaldikoek baino 22 puntu gehiago eta bertan jaio ez direnek baino 45 puntu gehiago lortzen dituzte bertakoek. Era berean, herrialde batetik bestera nabarmentzekoak dira aldeak: Belgikan, bertakoek 101 puntuko aldea lortzen dute eta, aitzitik, Australian, puntu bakarrekoa, ikasgai horretan.

Zientzietan ere azpimarratzekoak dira bertakoen eta etorkinen arteko aldeak. Bigarren belaunaldiko ikasle etorkinek baino 34 puntu gehiago eta lehen belaunaldiko ikasle etorkinek edo beste herrialde batean jaiotakoek baino 40 puntu gehiago lortzen dituzte bertakoek.

Lehen belaunaldiko ikasleek (gurasoak beste herrialde batekoak izanik beste herrialde batean jaiotakoak) lortutako emaitzak aurreikusteko modukoak begitantzen dira, kontuan hartu behar baita beste sistema batean eskolatuak izan direla, edo areago, ez dutela egunero eskolara joateko aukerarik izan, baina benetan harrigarriak bigarren belaunaldiko ikasleen emaitzak dira.

Ikasle horiek bertako ikasleen ingurune berean jaso dute eskolatzea eta, hasiera batean, bertakoek bezala, sistema beraren eta hezkuntza-eredu beraren onurak jaso beharko zituzketen. Alabaina, bertako eta bigarren belaunaldiko ikasleen arteko aldeak handiak dira oraindik.

ELGAK 15 urteko ikasleekin egindako ikerketa horrek erakusten digu curriculumaren oinarritzko alderdietan zer-nolako aldeak dauden eta ikasle etorkinek zenbateko desabantaila duten. Begien bistakoa da ikasle etorkinen egoera sendotzeko eta haiei laguntzeko neurriak behar-beharrezkoak direla hezkuntzan parekotasun handiagoa egon dadin.

### Espainiako kasua, 2006an

2006ko PISA Txostenean sartu zen Espainia aurreneko aldiz ikasle etorkinekin egindako ikerketa konparatiboan. Zenbait baldintza betetzen dituzten 30 herrialde baino ez dira hartzen kontuan txosten horretan. Besteak beste, baldintza hauek: ikasle etorkinen ehunekoa, lehen belaunaldiko eta bigarren belaunaldiko ikasle etorkinen presentzia, eskolako edo etxeko hizkuntza ez den besteren bat erabiltzea, etab.

2006ko PISA Txosten horren arabera (MEC, 2007; ELGA, 2007) arlo bakoitzeko emaitzak oso diferenteak dira ikasleen jatorriaren arabera. Espainiako ikastetxeetan DBHn matrikulatutako ikasle guztien % 7 zen atzerritarra 2006an. Hona hemen, beraz, ikasle etorkinek eta bertakoek Zientzietan, Irakurketan eta Matematikan lortutako puntuazioa:

	Zientziak	Irakurketa	Matematika
ELGAko batez bestekoa	500	492	498
Espainiako batez bestekoa	488	461	480
Bertako ikasleak	493	465	485
Atzerriko ikasleak	438	410	426
Bertakoen eta atzerritarren arteko aldea	56	55	59

Bestalde, autonomia-erkidegoen araberako diferentzietan gorabehera handiak daude. Zientzien arloan, hauek izan ziren bertakoen eta etorkinen puntuazioak:

PUNTUAK ZIENTZIE TAN	Bertakoak	Kanpotarrak	Aldea
Galizia	506	494	12
Asturias	510	483	27
Nafarroa	516	472	44
Gaztela eta Leon	522	468	54
Kantabria	513	458	55
Errioxa	526	455	71
Aragoi	518	445	73
<b>Espainia</b>	493	438	55
Andaluzia	475	430	45
Katalunia	499	428	71
EAE	499	427	72

Aurreko taulari erreparatuta, jabetuko gara Errioxan, Aragoian, Katalunian eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikasle etorkinek 70 puntuko desabantaila dutela Zientzietan.

#### 4. Ikasle etorkinen ama-hizkuntza

Aski ezaguna da hizkuntza-atalaseen ideia (Cummins, 2001). Horren arabera, etxeko hizkuntza (H1) jakiteak eta lantzeak lagundu egiten die ikasleei gurasoekin eta aiton-amonekin komunikatzen eta gizarte osoaren hizkuntza-gaitasun kolektiboa hobetzen du, baina, horrez gainera, ikasle elebidunen adimen aldetiko eta irakaskuntzarako baliabideak ere hobetzen ditu. Horrenbestez, hizkuntzen elkarrekiko mendekotasunaren ikuspegitik, ama-hizkuntza hobetzea lagungarri da eskolako hizkuntza ere (H2) garatzeko.

Horrek adierazten du, hasteko eta behin, ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzek errespetua merezi dutela, eta, horrez gain, baliozkotzat hartu behar direla eskola-curriculumaren garapenean aurrera egiteko. Cumminsen ikerketei jarraituz, eta adibide bat jartze aldera, ama-hizkuntzan irakurtzen eta idazten ikasteak ez dauka, itxuraz, eragin negatiborik eskolako hizkuntzan irakurtzeko eta idazteko gaitasunean.

Bestalde, Espainiako Arartekoaren Txostenaren arabera (2003), guraso etorkin ia guztiek (% 97,3) nahi dute beren seme-alabek familiako hizkuntza eta ohiturak gordetzea eta, aldi berean, Espainiako hizkuntza eta kultura ere ikastea. Horrek, duda izpirik gabe, jende gehiena gizartean eta hezkuntzan integratzearen alde dagoela adierazten du; hizkuntza- eta kultura-aniztasuna errespetatuko dituen integrazioaren alde, hain zuzen.

Katalunian (Casares eta Vila, 2009), Lehen Hezkuntzako harrera-geletan eginiko ikerketa batean, 57 hizkuntza desberdin erregistratu ziren 96 herrialdeetatik iritsitako ikasleen artean. Horien artean hauek nabarmendu ziren: Maroko (2.296 ikasle) eta, urrunago, Bolivia (821), Txina (702), Ekuador (699) eta Errumania (623). Ikasleen % 44,3k hizkuntza ez erromaniko bat hitz egiten zuen. Arabiera % 20k hitz egiten zuen; amazigera, % 4k; hizkuntza indoiranirren bat % 5,4k eta hizkuntza sinotibetarrenen bat, % 6,99k.

ECRI erakundeak (Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea) 2011. urtean landutako txostenaren arabera, Espainiaren kasuan, Katalunian baino ez dira ezarri programa osagarriak beste hizkuntzaren batean. Arabieraz, bengaleraz, urdueraz, txineraz, errumanieraz eta amazigeraz (berberera), zehazki.

Euskal Herrian, berriki egindako beste ikerketa batean (Uranga, Aierdi, Idiazabal, Amorrortu, Barreña eta Ortega, 2008), Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan bizi diren etorkinek zer eta zenbat hizkuntza erabiltzen dituzten eta nondik datozen identifikatzeko lana egin da. Guztira munduko 66 herrialdeetako 100 hizkuntza bereizi dira. Hauxe da erroldatutako hizkuntzen banaketa:

Biztanle etorkinen jatorria EAEn eta Nafarroan (2007). Identifikatutako hizkuntzak

	Biztanleria	%	Estatuak	Hizkuntzak
Amerika	75.164	48,7	13	5
Europa	45.414	29,4	24	29
Afrika	27.892	18,1	20	52
Asia	5.838	3,8	9	14
Ozeania	137	0,1	0	0
Guztira	154.445	100	66	100

Datu esanguratsua da Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle etorkinen ia erdia jatorriz Amerikakoa izanik hango 5 hizkuntza baino ez direla identifikatu: kitxua, mapudungunera, aimara eta guaraniera. Aldiz, Afrikatik iritsitako etorkinak % 18 izanik, hango 52 hizkuntza identifikatu dira ikerketa horretan.

Etorkinek beren migrazio-prozesuarekiko dituzten bizipenak eta prozesu horrek beren ama-hizkuntzengan duen eragina ere hartzen da aintzat lan horretan. Horren harira, hauxe da azterketaren ondorioa: etorkinek era guztietako jarrerak eta jokabideak dituzte beren hizkuntzekiko; batzuek oso modu positiboan balioesten dute eta beste zenbaitek ahaztu egiten dute edo lotsa sentitzen dute beren hizkuntzarekiko.

### Harrerako gizartearen erantzuna

Hezkuntzan, aipatu ditugun hizkuntzek apenas duten oihartzunik, gaztelaniak izan ezik, gaztelania baita Latinoamerikako etorkin gehienek hizkuntza (etorkin guztien % 49arena), eta, aldi berean, Espainiako eta autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofiziala. Identifikatutako gainerako hizkuntzen artean, 100 guztira, bik baino ez dute nolabaiteko onarpena: portugesak eta arabierak (edo berbererak, zenbaitetan).

Portugesez mintzatzen den komunitateko hainbat herrialdeetatik iritsi diren ikasleen hizkuntza komuna da portugesa. Portugal, Brasil, Mozambique, Angola eta Cabo Verdetik iritsitako ikasleena, hain zuzen. Arabiera (edo berberera, zenbaitetan) Magrebeko komunitatearen eta, nagusiki, marokoarren hizkuntza da.

### Portugesa eta Portugalgo Kultura Programa eta Arabiera eta Marokoko Kultura Programa

Badira beste zenbait programa ere martxan (berberera edo amazigera Katalunian, esaterako), baina aurrez aipatutako biak dira ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntza eta kultura aintzat hartzen dituzten programa nagusiak. Nolanahi ere, alde handiak daude bi programa horien artean. Portugesezko programa (Antunes, 2003) egiazko kulturarteko programatzat har daiteke, eta, aldiz, Arabierako programak urrun samar du helburua. Alderdi hauek azertu behar ditugu alde hori zerk zehazten duen jakiteko:

- Espainiako administrazioaren eta atzerrikoaren arteko lankidetzak-hitzarmen sendoak; kasu honetan Espainia eta Maroko edo Portugalen artekoak.
- Irakasleen Prestakuntza iraunkorrerako eta elkarren esperientziak trukatzeko programak izatea.
- Bertako ikasleen eta etorkinen parte-hartzea. Hau da, programa zabalik egotea ikastetxeko ikasle guztiei, berdin bertakoei eta atzerritarrei.
- Ondo zehaztutako programak eta ildoak izatea kulturarteko helburuak lortzeko.
- Jatorrizko hizkuntza argi identifikatuta egotea eta programaren helburua errespetatzea familiako hizkuntza eta kultura lantzeko eta horiei eusteko xedeari dagokionez.

- Jatorrizko hizkuntzaren eta kulturaren irakaskuntza curriculum arruntean jaso behar da, ahal dela eskolako ordutegian eta ohiko ikasgelan.
- Programa jakin hori lantzen lagunduko duten materialak, testuak eta bestelako baliabideak behar dira. Funtsezkoa da, halaber, hizkuntza-programa normalizatua eta estandarizatua izatea.
- Jatorrizko hizkuntzaren eta kulturaren programak ez du jardun erlijioso edo politikoen eragirik izan behar.

Portugesezko programak baino ez ditu betetzen baldintza horiek. Aitzitik, Arabiera eta Marokoko kulturaren programari dagokionez, zalantza ugari daude (France eta Mijares, 1999), hainbat arrazoi tarteko: programa ez dago beti ikasle guztiei irekita, ama-hizkuntza (berberera) zenbaitetan ez dator bat herrialdeko hizkuntza ofizialarekin (arabiera), testuak eta material didaktikoak oso urriak dira, jatorrizko hizkuntza eskolaz kanpoko ordutegietan irakasten da eta, zenbaitetan, familia etorkinak politika eta erlijio aldetik kontrolatzeko tresna dira arabiera-eskolak.

Zer geratzen zaigu? Besterik gabe, Portugesa eta Portugalgo Kulturaren Programa besterik ezin daiteke kulturarteko egiazko programatzat hartu, ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntza aintzat hartu eta bertako ikasleentzat zabalik dagoen heinean

## 5. Legedia eta hezkuntza etorkin adingabeekiko

Etorkinen seme-alabekiko Europako legedia asko aldatu da azken 30 urteotan. 1970eko hamarkadan errespetuz hartzen zen etorkinen seme-alabekiko tratua, eta arretaz zaintzen ziren haien alderdi kulturalak eta eskolatzea. Alabaina, Europan gizarte eta ekonomia aldetik izan diren aldaketak handiek eta jira politiko kontserbadoreak askoz legedi murriztaileagoa ekarri du, batez ere arautu gabeko adingabeekiko eta bakarrik daudenekiko.

Bi gertakari nabarmenek adierazten dute garbi Europan zer ari den gertatzen immigrazio arloan. Alde batetik, joera ideologikoak aldeztu du iritsi dela kultura-aniztasunaren amaiera, porrota izan dela eta asimilazio hutsera eta soilera itzuli beharra dagoela. Jarrera horren bozemaile dira Angela Merkel, Alemanian, eta David Cameron, Erresuma Batuan, baina beste buruzagi politiko asko ere ildo horren beraren aldekoak dira hainbat herrialdetan. Bestetik, berriz, etorkinak sartzeko neurriak ere gogortu egin dituzte eta, horretarako, besteak beste, “integrazioerako kontratuak” deritzon formula baliatu dute. Europako ia herrialde guztiek bat egin dute formula horrekin. Baldintza hauxe dago kontratu horien oinarrian: jomugako hizkuntza eta kultura derrigor jakin beharra (Villarreal, 2009). Baldintza hori bete ezean, eskaera egiten dutenek ezingo dute lortu herrialdean sartzeko baimenik. Herrialde bateko kultura eta ohiturak zer diren zehazten hasi gabe eta bertakoek zenbateraino duten ezaugarri kultural horien berri alde batera utzita, ekimen horiek argi adierazten dute Europak zer jarrera duen: etorkizuneko etorkinen sarrera mugatzeko eta ixteko jarrera, hain zuzen.

### 1977ko Europako Zuzentaraua

Europar Batzordeak hainbat lege-testuren bidez arautu du etorkinen seme-alaben hezkuntza-politika. 1977/486/EEE Zuzentaraua da testu horien artean nabarmenena, Estatu kide guztietan berdin aplikatu beharrekoa. 1977ko Zuzentarau horren helburua da langileen joan-etorri askerako baldintzak hobetzea, bereziki haien seme-alaben harrerarekin eta irakaskuntzarekin lotura duten baldintzak.

Zuzentarau horretan badira bi hausnarketa nabarmendu beharrekoak. Alde batetik, etorkinen seme-alabak eskola-ingurunean integratzeko nahia. Eta helburu horri begira, testuak dio haur horiek irakaskuntza egokia behar dutela, harrerako herrialdeko hizkuntzaren irakaskuntza barnean dela. Eta bestetik, "inoiz jatorrizko Estatu kidean berriro integra daitezten laguntzeko" borondatea. Horretarako, zuzentaruak garrantzitsutzat jotzen du jatorrizko herrialdeen eta harrerakoen arteko lankidetzak, jatorrizko herrialdeko ama-hizkuntza eta kulturaren irakaskuntza sustatzeko. Hauek dira helburu horri begira hartutako neurriak:

1. Batasunean bizilekua duten etorkinen seme-alabei doaneko irakaskuntza bermatzea, eta, batez ere, herrialde horretako hizkuntza ofizialaren edo ofizialetako baten irakaskuntza barnean biltzea.
2. Irakaskuntza arruntarekin koordinaturik, langile etorkinen seme-alabei jatorrizko herrialdeko ama-hizkuntza eta kultura irakastea.
3. Irakaskuntza hori emango duten irakasleen hasierako prestakuntza eta iraunkorra bermatzea.

1977ko Zuzentarau horren 4. artikulua behartu egiten ditu estatu kideak lau urteko epean araudia betetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, eta horren berri Batzordeari berehala ematera.

Azkenik, estatu kideei eskatzen zaie bost urteko epean eta, ondoren, aldi-aldi, 77/Zuzentaruaren aplikazioari loturik erabilgarria izan daitekeen informazioa Batzordeari jakinarazteko. Berrikusketa horien ondorioz, eskueran ditugu 1989an eta 1995ean egindako txostenak.

Alabaina, egin dezakegun balantzeak adierazten du araudiari dagokionez oinarria egokia dela, baina, oro har, hitzarmen eta araudi horiek ez direla behar den moduan betetzen, ezta hurrik eman ere. Ekimenak urriak dira eta gabezia handiak dituzte, batez ere arlo horretako legediaren argitasun eta aberastasunarekin alderatuz gero.

### 2008ko Europako Zuzentaraua

1977ko Zuzentaraua landu eta hogeita hamar urtera, immigrazio arloko Europako legedia nabarmen gogortu da, batez ere arautu gabeko etorkin adingabeei begira. Egoera horren emaitza da EUROPAKO LEGEBILTZARRAREN ETA KONTSEILUAREN 2008ko ZUZENTARAUA. Estatu kideek beren lurraldean legez kanpo dauden hirugarren herrialdeko pertsonak itzularazteko bete beharreko prozedurak eta arauak jasotzen dira zuzentarau horretan. Nabarmenezkoak dira, esaterako, arautu gabeko adingabeei buruzko bi artikulua hauek:

### 8 bis artikulua. Bakarrik dauden adingabeen itzulera eta kanporatzea

1. Lagundu gabeko adingabeko bati itzulera erabaki bat igorri baino lehen, itzulera betearazten duten agintarienak ez diren zerbitzu egokien laguntza eskainiko da, kontuan izanik adingabekoaren interes nagusia.
2. Lagundu gabeko adingabe bat kanporatu baino lehen, estatu kide horretako agintariak adingabekoa bere familiako kideren bati, aurrez izendatutako tutoreren bati edo itzulera estatuan harrera-zerbitzu egoki batzuei emango zaienaren bermea lortu beharko dute.

### 15 bis artikulua. Adingabeak eta familiak barnetegietan sartzea

1. Bakarrik dauden adingabeak eta adingabeak dituzten familiak beste aukerarik ez dagoenean baino ez dira sartuko barnetegietan eta hori ahal den denbora laburrenean.
2. Kanporatzeko zain barnetegietan dauden familiei aparte emango zaie ostatu, familia bakoi-tzak behar den intimitatea izan dezan.
3. Barnetegietan dauden adingabeei beren adinerako egokiak diren aisialdiko jardueretan parte hartzeko aukera emango zaie, jolasak barne direla, eta, egonaldiaren iraupena zenbatekoa den, hezkuntza jasotzeko aukera ere izango dute.
4. Bakarrik dauden adingabeei, ahal den neurrian, erakunde egokietan emango zaie ostatu; adin horretako beharrianak aintzat hartuko dituzten langileak eta instalazioak dituzten erakundeetan.
5. Kanporatzeko zain dauden adingabeak barnetegietan sartzekoan, adingabearen interes nagusia lehenetsi beharko da oroz gain.

Diskurtsoa zuritik beltzera aldatu da eta erraztasunak eta aukerak beharrean, bakarrik dauden adingabeak kanporatzeko eta barnetegietan sartzeko ahalegina egiten du zuzentarau berriak.

### Atzerritarrei buruzko Espainiako legea (2009)

Atzerritarrei buruzko 2009ko legeak gogortu egin ditu etorkinen inguruko legeak eta araudiak. Horixe da lege horren lehen bereizgarri nabarmena. Lege horren 2. artikulua hiru zatitan atalean aipatzen den integrazioa kontzeptuak etorkinek Espainiako gizartean "integratzeko" egin behar duten ahalegina besterik ez du azpimarratzen. Bestalde, etorkinak eskulan huts moduan hartzen dira. Horren adierazgarri, hona legearen beste pasarte bat: "Etorkinen sarrerak gure harrera-ahalmenera egokitu behar du eta gure lan-merkatuaren beharrian egiazkoetara; beraz, Espainiako lan-egoeraren beharrianen arabera izan behar du sarrera horrek" (2. art. bis, 2b). Testuinguru horretan egin beharko dute lan, hortaz, ikasle etorkinak integratzen diharduten hezitzaileak eta gizarte-eragileak.

Indarrean den Atzerritarrei buruzko legediaren arabera, 9. artikuluan (Hezkuntzarako Eskubidea) jasotzen dira hezkuntzarekin loturiko alderdi nagusiak:

1. Hamasei urtetik beherako atzerritarrek hezkuntza jasotzeko eskubidea eta betebeharra dute. Hor sartzen da derrigorrezko, oinarrizko eta doaneko irakaskuntza izateko eskubidea. Hemezortzi urtetik beherako atzerritarrek ere derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengoa jasotzeko eskubidea dute.
2. Eskubide horrek barnean biltzen du dagokion titulazioa eskuratzeko eskubidea eta beken eta diru-laguntzen sistema publikoa espainiarren baldintza beretan baliatzeko aukera. Hemezortzi urteak ikasturtean zehar betez gero, ikasleek ikasturtea amaitu arte izango dute eskubidea.
3. Espainian dauden hemezortzi urtetik gorako atzerritarrek hezkuntza jasotzeko eskubidea dute hezkuntza arloko legediak ezarritakoari jarraituz. Nolanahi dela ere, Espainian bizitokia duten hemezortzi urtetik gorako atzerritarrek eskubidea dute derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapetan ikasteko, dagokion titulazioak eskuratzeko eta beken sistema publikoa espainiarren baldintza beretan baliatzeko.
4. Atzerritarrek irakaskuntza jasotzeko aukera izan dezaten eta horrela gizartean hobeto integratzeko modua izan dezaten sustatuko dute botere publikoek.
5. Espainian bizi diren atzerritarrek eta Espainian bertan derrigorrez eskolatzeko adinean dauden adingabeak beren kargura dituztenek egiaztatu egin beharko dute eskolatzeko hori. Horretarako, erkidegoetan eskumena duten agintariek emandako txostena erantsi beharko dute beren baimena berritzeko eskabideetan edo iraupen luzeko bizileku-eskabideetan.

Atzerritarrei buruzko 2009ko lege berri hori dela eta ez dela, ikasle etorkinen hezkuntzaren ikuspegitik azpimarragarriena da ez dela jasotzen inolako erreferentziarik etorkinen jatorrizko hizkuntzari edo kulturari buruz.

Bestalde, bada nabarmentzeko moduko beste alderdi bat ere; legearen 35. artikuluari loturikoa, hain zuzen. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren tratamendua zehazten du artikulua horrek, eta 2008ko Europako Zuzentarauak urratutako bideari jarraitzen dio; hau da, adingabe horien itzulerara edo aberriratzea nola erraztu zehazten du, baita tokian tokiko administrazioek "gainera nola kendu" ditzaketan ere.

## 6. Ikasle etorkinen bazterketa

Hauxe da etorkinekin lan egiten duten profesionalen beren eginkizunean duten beste arazoetako bat: ez gizarte guztiak, ez eta eskola-komunitateak ere, ez dut bat egiten integrazioaren eta kulturartekotasunaren ildo berarekin. Ikerketa batzuek, eta are gehiago ekonomia-krisiaren ondorioz, adierazten dute iritzi publikoa neurri batean etorkinak eta, are, ikasle etorkinak hartzearen eta integratzearen kontrakoa dela.

Arartekoak ikasle etorkinen eskolatzeari buruz egindako txostenak (2003) nabarmentzen du irakasleek, oro har (% 73,4), jarrera egokia dutela ikasle etorkinekiko, eta onartzen dutela neska-mutil horiek hezkuntza jasotzeko duten eskubidea. Alabaina, irakasleen % 24,1ek baino ez litzuke nahi ikasle atzerritarrek bere ikasgelan.



Bertako ikasleek ikasgelan neska-mutil atzerritarrekiko zer jarrera duten ere adierazten du txosten horrek. Bertako ikasleen % 63,5ek dio jarrera positiboa duela ikasle etorkinekiko, baina % 36,5ek onartu egiten du jarrera negatiboak dituela atzerritarren kolektibo horrekiko.

Aurrez aipatu dugun CEAParen txostenean (2004), eskolan inor baztertzeko/onartzeko faktoreak aztertzerakoan, biztanle etorkinek funtsean bi hauek hauteman dituzte ikastetxeetan: alde batetik, arrazagatiko aurreiritziak, bai bertakoen aldetik eta bai etorkinen kolektiboen aldetik, eta, hala, biek ala biek elkar baztertzea eta bakartzea bultzatzen dute. Eta beste alde batetik, pobrezia bazterketarako baldintza generikoa dela aipatzen dute, jatorrizko herrialdea edozein dela ere.

Horixe bera azpimarratzen du EAeko Arartekoak 2009an egindako txostenak. Lan horretan Euskal Autonomia Erkidegoko balioak eta horien transmisioa aztertzen dira, eta ikasle etorkinak eta etorkinak oro har onartzearekin loturiko kapituluak ekarriko ditugu artikulua honetara. Kapitulu horietan lehen hezkuntzako 2. zikloko, lehen hezkuntzako 3. zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei egin zaie galdeketa, 1.829 ikasleri guztira.

EAeko ikasleen artean egindako ikerketa horren emaitzek kezka handi samarra sorrarazten dute ikasle etorkinek eskolako kolektibo osoaren artean izan dezaketen giro egokiaz eta onarpenaz.

Esaterako, “hobe da ikasle etorkinik ez izatea nire gelan” baieztapenarekin ados dago lehen hezkuntzako 2. zikloko ikasleen % 30, hau da 7-8 eta 9-10 urteko haurren % 30. Handi samarra da ehunekoa, kontuan harturik, batez ere, ikasgeletan % 6 baino ez dela ikasle etorkina. Lehen hezkuntzako 3 zikloko ikasleen (11-12 urte) erantzunak ere oso parekoak dira.

Azkenik, lan berean, etorkinekin zerikusia duten zenbait gairi buruz galdetu zaie DBHko ikasleei, eta emaitzak kezkatzekoak dira. Esaterako, galdekatuen % 30ek uste du “etorkinek lana ken diezaguketela eta arazoak sorrarazi”. % 27k dio etorkinek “arazoak baino ez” dituztela sortzen. % 34,6ren arabera, “Erraztasun gehiegi ematen dizkiegu etorkinei”, eta, areago, % 13,6ren iritziz “Etorkinek ez lituzkete erabili beharko kirol-instalazioak”.

Ildo berean, Espainian arrazakeriak eta xenofobiak izan duten bilakaerari buruzko txostenak adierazten du espainiarrek etorkinekiko duten iritzia eta jarrera gogortu egin direla azken urteotan. Cea eta Vallesek egin zuten txosten hori 2010ean eta Espainiako Lan eta Immigrazio Ministerioak eman zuen argitara. Txosten horren arabera, gero eta pertsona gehiagok pentsatzen du “etorkin gehiegi” daudela, “legeak tolerantetegiak” direla, gero eta pertsona gehiagok uste du lanik gabe dauden etorkinak eta gaizkileak kanporatu egin behar direla eta espainiarrek izan behar dutela lehenbizikoak lan arloan eta gizarte-zerbitzuetan.

Erantzunen arabera herritarren pentsamoldeak izan duen bilakaerari erreparatuz gero, jabetu beharrean gara hezkuntza arloan –hala formalean nola ez formalean– diharduten profesionalak gero eta zailtasun handiagoak izango dituztela; izan ere, ikasleen iritzia eta, inondik ere, hezkuntza-komunitatearena, etorkinen integrazioa eta kulturartekotasuna babesten dituen gizarte-ereduaren kontrakoa da, gero eta nabarmenago gainera.

## 7. Irakasleen prestakuntza

Irakasleen prestakuntza ere aintzat hartu dugu azterketa honetan. Jakina denez, irakasle onik gabe, egitarau eta material onik gabe, nekez bete daiteke ondo eskolan egin beharreko lana.

Zenbait ikerketak erakutsi dute hainbat gabezia daudela kultura askotako taldeak dituzten irakasleen hasierako prestakuntzan eta prestakuntza iraunkorrean. Jordanen arabera (1994), irakasleek ideia baliotsutzat hartzen dute kulturarteko hezkuntza, baina, era berean, uste dute ez duela lotura handirik eguneroko jardun kurrikularrekin eta, orobat, gutxiengo kulturetako ikasleengana mugatzen dela askotan, ikasle guztiengana bideratu beharrean. Irakasleek kulturarteko hezkuntzan duten prestakuntza (hasierakoa eta iraunkorra) aztertu du egile berak (Jordán eta Besalú, 2004), eta azpimarratu du prestakuntza hori ez dela batere erabilgarria, teorikoegia dela eta ez dituela aintzat hartzen irakasleek sentitzen dituzten beharrianak.

Bestalde, Aguado eta beste batzuek (2008) nabarmendu dute irakasle asko isolatuta daudela profesional moduan, halako ezintasun-sentipenarekin eta konfiantza gutxiarekin beren eragiteko ahalmenean. Egile horiek diote Espainian, irakasleen hasierako prestakuntzan, ez direla modu esplizituan lantzen kulturarteko gaitasunak, eta, horrez gainera, gabezia-egoerekin eta talde jakinekin lotzen dela aniztasuna. Era berean, egiaztatu dute hasierako prestakuntzan kulturarteko ikuspegia duten gai garrantzitsuak aukerakoak direla, eta irakasleak prestatzeko curriculum orokorrean ez dela aintzat hartzen kulturarteko ikuspegia.

Hezkuntza Fakultateetan eta Irakasleak Prestatzeko Goi-mailako beste Zentroetan ematen den Kulturarteko Pedagogia luze-zabal berrikusi ondoren, hauxe da Palomeroren iritzia (2006): “Etorkizuneko irakasleak prestatzeko prozesuetan Espainiako Unibertsitatea ez da behar den moduko trataera ematen ari immigrazioen, aniztasunaren, kultura-aniztasunaren eta kulturartekotasunaren fenomenoak hezkuntzara ekarri dituen arazoei”. Palomeroren iritziz ezinbestekoa da Espainiako Unibertsitateak erabat aldatzea hezkuntzako profesionalen hasierako prestakuntza. Egile horren arabera, kulturartekotasunarekin lotura zuzena duten ikasgaiak bildu behar dira prestakuntza horretako ikasketa-planetan.

Gure aldetik, Bilbon eta Donostian ikasle etorkinekin lan egiten duten irakasleen artean eginiko azterketa batean, N = 200, ikasle etorkinekiko jarreraz eta kontzientzia-mailaz galdetu genien profesionalei, baita arlo horren gainean zituzten ezaguera eta gaitasunei buruz ere. Galdetegietan eta elkarrizketetan jasotako emaitzak aztertu ondoren, ondorio hauek atera genituen (Etxeberria, 2009):

- Galdeketari erantzun zioten irakasleek adierazi zuten ondo jabetzen zirela zer eskakizun duen ikasle etorkinekin lan egiteak eta zer jarrera behar den horretarako.
- Alabaina, onartu zuten ez zutela behar besteko ezaguerarik haur etorkinek zer beharrian zuten, bereziki jatorrizko kulturari, herrialdeari buruzko informazioari, hizkuntzaren oinarriko ezaguerari eta abarrei buruz.
- Materialak egokitzeko, ekimen integratzaile berriak diseinatzeko, ikasle etorkinen emaitzak hobetzeko edo familiekin hartu-eman egokiak sortzeko gaitasunik ez zutela menderatzen onartu zuten, egoera prekarioan zeudela alde horretatik.

- Ikasle etorkinen prestakuntzari eta haiekin egindako lanari buruzko balantzea, aurreikuspenak eta gogobetetzea kaskarrak izan zirela onartu zuten.
- Baziren alderdi positiboak ere: bazekiten bazirela kulturarteko hezkuntza lantzeko baliabideak eta tresnak eta positibotzat jotzen zituzten, baina ez zirela nahikoa irizten zioten.
- Alde negatiboan, adierazi zuten ez zutela behar beste denbora, baliabide, prestakuntza eta laguntza beren lanari aurre egiteko. Horren guztiaren ondorioz, sentitzen zuten baztertuta zeudela, babesik gabe eta ez zekitela nola aurre egin etorkinen hezkuntzari, bereziki lehen hezkuntzara biltzen ziren ikasleen heziketari.

Gure iritziz, horixe da ikasle etorkinak eskolan integratzeko beste oztopoetako bat: irakasleen prestakuntzan dauden gabeziak. Izan ere, irakasleak ez daude behar den moduan prestatuta ikasgeletan haur atzerritarren presentziak sorrarazten dituen eginkizun berrietarako. Beraz, irakasleek ez badute behar besteko prestakuntzarik, motibaziorik eta ez badituzte behar adina baliabide beren lana egiteko, ulertzekoa da emaitzak ere espero zitekeen bezain onak ez izatea.

### **Ikasle etorkinekiko ekitaterik eza eta bazterketa gainditzeko ondorioak eta gomendioak**

Gure hezkuntza-sistemak hainbat gabezia ditu: ez du lortzen ikasleek eskolako hizkuntza behar den moduan eskura dezaten, ikasle etorkinen eskolako emaitzak nabarmen apalagoak dira bertakoenak baino eta ez du jatorrizko edo etxeko hizkuntza lantzen. Eta, hain zuzen, sistema horretan eskolatzen ditugu ikasle etorkinak. Bestalde, legedi gero eta murriztaileagoa dugu immigrazio arloan eta kezkaturik gaude etorkinekiko bazterketa-jarrerak gero eta nabarmenagoak eta ugariagoak direlako. Panorama kezkagarri horren aurrean, irakasleen prestakuntza oraindik ere ez da behar bestekoa eta aurreikuspenak ere ez dira baikorregiak. Horrela dago gure hezkuntza-sistema, asimilazioaren eta bazterketaren artean.

Aurrez esandako guztia aintzat harturik, hauek dira aztertu ditugun ikerketetatik (Jordan, 2004; Palomero, 2006; Aguado, 2008) atera ditzakegun gomendioak, laburbilduta:

- Eskolako hizkuntza edo hizkuntzak ikasteari erabateko lehentasuna ematea. Ondo landutako programak izatea eta epe luzerakoak, horien bitartez jarritako helburua lortzeko.
- Familiako hizkuntza eskolako curriculumean jasotzea, gutxienez hizkuntza horren lekukotza, kulturak duinago egiteko eta ikasle guztiak sentsibilizatzeko.
- Irakasleen hasierako prestakuntza eta iraunkorra hobetzea.
- Ikasle etorkinen hezkuntzarako baliabide gehiago ematea.
- Ikerketa gehiago egitea, ikasle etorkinek eskolan zergatik emaitza txarragoak dituzten jakiteko eta ulertzeko.
- Hezkuntza bereziko eskoletara ikasle etorkin gehiago zergatik joaten den jakitea eta prozedura horiek berrikustea.

- Herrialde bakoitzeko legedia berrikustea, etorkinen bazterketa eta marjinazioa saihesteko.
- Eskolek eta hezkuntzako goi-mailako zentroek bazterketaren eta arrazakeriaren kontrako kode bat ezarri behar dute, eta ikasle, irakasle zein hezkuntzako gainerako langileek bete behar dute kode hori.
- Kulturarteko benetako hezkuntza-programak landu behar dira ikasleen integrazioa eta bizi-kidetza laguntzeko.
- Egoera ahulenean dauden taldeei laguntzeko programak landu behar dira, Goi-mailako Hezkuntza jasotzeko aukera izan dezaten eta eskolatik lanerako bidea errazago egin dezaten.
- Ikasle etorkinek motibazio, aurreikuspen eta sentimendu handiak dituzte eskolarekiko, eta, beraz, ikasle horien giza ahalmena eta jarrera egokia baliatu behar ditugu.

Bertakoak eta etorkinak jarrera fatalistetan erortzea saihestu behar dugu, funtsezkoa da hori; izan ere, kultura nagusiarekin hartu-eman luzearen ondoren desberdintasunak bere horretan badirau, zenbait egilek “bigarren mailako kultura-desberdintasunak” izendaturikoa sor daiteke (Ogbu, 1991); hau da, halako erresistentzia-kultura bat. Eta, horren harira, etorkinen kolektibok uler dezake hezkuntza ez dela faktore erabakigarria gizartean integratzeko. Gai horren inguruan eginiko azterketak eta ateratako emaitzak ez dira asko aldatu urte hauetan guztietan eta, beraz, beharrezkoa da aldaketa sakonagoak egitea, hizkuntza-programa soiletatik haratago aldaketak.

Esan izan da eskolak etorkinei egin beharko liekeen harrerak eta gizarte egiaz demokratiko batek atzeritarrei egin beharko liekeenak antz oso handia dutela. Egia izan daiteke eskolan hobeto tratatzen direla etorkinak enpresetan, administrazioan edo eguneroko bizitza sozialean baino, baina egia da, orobat, hezkuntza-sistemaren harrera onargarria izanagatik ere, azken emaitzak edo eskolatik ateratzeko modua ez direla, ezta antzik ere, berdintasunaren adierazle argienak.

## BIBLIOGRAFIA

- Aguado, T.; Gil, I.; Mata, P. (2008). “El enfoque intercultural en la formación del profesorado. Dilemas y propuestas”, in *Revista Complutense de Educación*, 19. liburukia, 2, 275-292, Madril.
- Arartekoa (2009). *Balioen transmisioa adingabeei*, Arartekoa, Gasteiz.
- Antunes, M. F. (2003). *El Programa de Lengua y Cultura Portuguesa*, Portugalgo enbaxada Madrilén, Madril, Fotokopiatutako dokumentua.
- Casares, R.; Vila, I. (2009). “La acogida de alumnado inmigrante en Catalunya”, in *Página Abierta*, 202, 2009ko maiatza-ekaina, Bartzelona.
- Cea, M<sup>a</sup> A.; Valles, S. (2010). *Evolución del racismo y la xenofobia en España. Informe 2009*, Lan eta Immigrazio Ministerioa.

- CEAPA (2004). Biztanle etorkinei eta eskolarekiko duten erlazioari buruzko topaketa. Madril, 2004ko azaroaren 27 eta 28a. Guraso Elkartearen Espainiako Konfederazioa. Fotokopiatutako dokumentua.
- Cummins, J. (2001). “Qué sabemos de la educación bilingüe? Perspectivas psicolingüística y sociológicas”, in *Revista de Educación*, 326, MEC, Madril.
- ECRI (2011). *Cuarto Informe sobre España. Comisión Europea contra el Racismo y la Intolerancia*, Europako Kontseilua, Estrasburgo.
- ELGA (2007). *2006ko PISA Txostena*, <http://www.pisa.oecd.org>
- Espainiako Arartekoa (2003). *La escolarización del alumnado de origen inmigrante en España: análisis descriptivo y estudio empírico*, Madril, [www.defensordelpueblo.es](http://www.defensordelpueblo.es)
- Etxeberria, F.; Elosegi, K. (2007). *Enseñanza de lenguas con inmigrantes*, Euskal Herriko Unibertsitateak diruz lagundutako ikerketa, Eusko Jaurlaritzak: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Gasteiz. [www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)
- Etxeberria, F.; Elosegi, K. (2008). “Basque, Spanish and Immigrant Minority Languages in Basque School”, in *Teaching Through Basque. Achievements and challenges*, Multilingual Matters, Clevedon, Erresuma Batua, 69-84.
- Etxeberria, F. eta beste batzuk: *Competencias interculturales del profesorado ante el alumnado inmigrante*, Euskadi-Akitania, Mugaz gaindiko Lankidetzak Proiektua.
- Europako Legebiltzarra (1998). *Étude sur l'éducation: l'enseignement des immigrés dans l'Union Européenne*. Luxenburgo.
- Euskadiko Eskola Kontseilua (2005). *EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena*, Gasteiz.
- Eustat (2009). *Irakaskuntzari buruzko estatistikak*, Gasteiz. [www.eustat.net](http://www.eustat.net)
- ISEI-IVEI: B2 (2005). *Euskara maila Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean (DBH4)*, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/B2CAST.pdf>
- Francé, A.; Mijares, L. (1999). *Lengua y cultura de origen. Niños marroquíes en la escuela española*, Ediciones del Oriente y del Mediterráneo, Madril.
- Jordán, J.A. (1994). *La escuela multicultural. Un reto para el profesorado*, Paidós, Bartzelona.
- Jordán, J.A. (2004). *La formación del profesorado en educación intercultural*, Hezkuntza Ministerioa, Idazkaritza Tekniko Nagusia, Madril.
- Luciak, M. (2004). *Documenting Discrimination and Integration in 15 Member States of the European Union* European Monitoring Centre on Racism and Xenophobia (EUMC), Europar Batzordeak, Luxenburgo.

- MEC (2009). *Estadísticas Educación*, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, Madril.
- MEC (2007). *PISA 2006. Espainiako txostena*, Madril.
- Mijares, L.; Broeder, P. (2004). "Ciudades plurilingües: una encuesta sobre usos lingüísticos en las escuelas de Madrid", in *Estudios de Sociolingüística*, 5. liburukia (2), Vigoko Unibertsitatea.
- Ogbu, J.U. (1991). "Immigrants and involuntary minorities in comparative perspective", in Gibson & Ogbu: *Minority Status and Schooling*, Garland, New York & Londres.
- Palomero, J.E. (2006). "Formación inicial de los profesionales de la pedagogía intercultural: una asignatura pendiente", in *Irakasleen prestakuntzarako Unibertsitate-arteko aldizkaria*, 20(1), 207-230.
- Schleiser, A. (2005). "La mejora de la calidad y de la equidad en la educación: retos y respuestas políticas", in *Políticas educativas de éxito: análisis a partir de los informes PISA*, Hezkuntzari buruzko XX. Aste Monografikoa, Santillana Fundazioa, Madril.
- Stanat, P. (2005). "La influencia del origen inmigrante en el rendimiento de los alumnos: resultados de las investigaciones nacionales e internacionales", in *Políticas educativas de éxito: análisis a partir de los informes PISA*, Hezkuntzari buruzko XX. Aste Monografikoa, Santillana Fundazioa, Madril.
- Stanat, P.; Christensen, G. (2006). "Where immigrant students succeed. A comparative review of performance and engagement" in *2003ko PISA Txostena*, ELGA, Paris.
- Uranga, B.; Aierdi, X.; Idiazabal, I.; Amorrortu, E.; Barreña, A.; Ortega, A. (2008). *Hizkuntzak eta immigrazioa-Lenguas e inmigración*. Ikuspegi-Amarauna-Unesco Katedra, Bilbo.
- Villarreal, F. (2009). *Enseñanza de lengua a inmigrantes en Europa*, Luis Vives Fundazioa, Madril.

## Immigrazioa, hezkuntza-premiak eta diskurtsoak

Amelia Barquín

HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea

XXI. mendeko bigarren hamarkadan aurrera goazen honetan, esan daiteke immigrazioaren etorrera dela, agian, aurreko hamarkadan euskal eskolak izan duen gertakari nagusia.

Hasteko, argi esan behar da immigrazioak planteatu duen egoera onartu duela euskal eskolak, eta egoera horri erantzun diola. Gertaera horren bizkortasuna eta tamaina handiak izan arren, hezkuntza-sistema gai izan da aurreikusi gabeko ikasleen ekarpen hori hartzeko eta horri erantzuteko, horrek ekarri duen guztia ekarrita ere. Euskal eskolako irakasleen zati handi batek egin duen ahalegina eta inplikazioa daude horren atzean.

Aldi berean, ikasleek agerian utzi dituzte sistemak lehendik zituen –eta orain ere jasaten ari den– ahuleziak eta kontraesanak: horren erakusgarri ditugu ereduaren sistemak sorrarazi dituenak nahiz funts publikoetan funtsatzen den eskolaren barnean bereizten diren bi sareak (publikoa eta hitzarmenduna). Urteak pasatu badira ere, eskolatzeetan oraindik ez dira desagertu ez ereduaren arteko desorekak eta ez sareen artekoak (edota probintzien artekoak), ez horixe; eta ez dira desagertu ikasle etorkinen bilgune artifizial bihurtuta urte asko daramatzaten ikastetxeak ere. Labur esateko, euskarak presentzia txikiena duen ereduaren gehiago eskolatzen dira jatorriz etorkinak diren ikasleak, hemengoak diren ikasleak baino; eta irakaskuntza publikoan ere presentzia handiagoa dute jatorriz etorkinak direnek hemengoek baino. Horrez gain, esparru horietan sumatzen diren desorekak are handiagoak dira Araban gainerako probintzietan baino. Hitzarmendun eskolen barnean, ikastetxe erlijiosoaren sarean, oro har, handiagoa da horien presentzia gainerakoetan baino (eta bereziki ikastoletan baino). Horrez gain, tokian tokiko desorekak daude, noski, eta, horien artean, bada bat nabarmentzen dena: inguru berean, sare eta eredu bereko eskola bat baino gehiago daude askotan, baina izugarrizko aldeak daude batzuetatik besteetara: jatorriz etorkinak diren ikasleen bilgune artifizial horien ondoan, badira horrelako ikasleen harrerarik izan ez duten ikastetxeak, edo, beste modu batera esateko, bertako ikasleen bilgune artifiziala duten ikastetxeak.

Oso urrutira joan gabe, nahiko argi erakusten du hori *Euskadiko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena, 2006-2008* lanak, 2010ean Eskola Kontseiluak argitaratutakoak; eta nahiko argi ikusten da hori, halaber, gaur egungo beste datu batzuetan ere, besteak beste, Eusko Legebiltzarrean oposizioko alderdi politikoaren eskariz Hezkuntza Sailak eman dituen zifretan edota Ikuspegik berriki argitaratu dituen datuetan. Hona hemen adibide bat: duela gutxi, ikasurte honetako irailetik martxora bitartean Hezkuntza Saileko bertako eskolatze-batzordeek eskolatutako hurrei buruzko datuak aurkeztu zituen legebiltzarrean sail horrek berak (epea kanpo

iristen direnean, ikastetxea ez dute aukeratzen familiek; aitzitik, eskolatzeko-batzorde horiek egiten dute izendapena); datu horietan, nahiko argi ikusten ziren lehen adierazi ditugun desoreka horiek. Esate baterako, Araban, hilabete horietan, batzordeak iritsi berri ziren 240 ikasle eskolatu ditu eskola publikoan, eta 70, berriz, hitzarmendun eskoletan. 310 ikasle, beraz, guztira; eta ikasle horietatik, 200 A eredura bideratu ditu. Agerian uzten du horrek guztiak eredu bakoitzean sumatzen den joera (luzera begira, kontuan hartu behar da hemengo ikasleen artean sumatzen diren joerez bestelakoen arabera eskolatutako haurrentzat zer ekarriko duen horrek); eta argi erakusten du, halaber, sareek (eta zehazki ikastetxeek) dituzten inplikazioak edo eskatzen zaizkienak desberdinak direla. Noski, argi uzten du administrazioaren hezkuntza-politika zer-nolakoa den ere.

Bestalde, ikasle horiek agerian utzi dute, hezkuntza-premia bereziak dituztenei erantzuteko, baliabideen hornidura handiagoa behar dela, batez ere, giza baliabideetan, hemen azaltzeko luze samarrak diren irizpide batzuen arabera ikastetxeei esleitzen zaizkien hizkuntza-beharrei erantzuteko irakaslearen eta kulturarteko dinamizatzailearen irudietatik haratago. Hamarkada honetan, atzerritik datozen ikasleen zati handi batek hezkuntza-premia bereziak dituela ohartu da eskola-elkartea, eta luze jo dezakete premia horiek. Horrelakoak ez dira kasu guztietan gertatzen, baina hemengo ikasleen artean baino gehiagotan bai. Horrez gain, hezkuntza-premia horiei erantzuteak lan handiagoa eta denbora gehiago eskatzen diela ohartu dira irakasleak, eta administrazioak ez du hori modu errealista batean edo behar adina kontuan hartzen.

Horretaz ohartzeko, nahikoa da jabetzea iristen diren ikasleen erdiek baino ez dakitela gaztelaniaz, eta euskaraz, berriz, ez dakiela inork. Egin diren azterlanek diote hizkuntza modu ez-formalean bi urtean ikas daitekeela, baina, maila akademikoa lortzeko, bost urtetik zazpira behar direla. Gogoan hartu behar dugu, gainera, haur horietako asko ez direla ia eskolatu edota oso eskolatzeko eskasa izan dutela. Ez dira ahaztu behar jatorrizko herrialdeko eskola-sistemaren eta harrerako herrialdekoaren arteko desberdintasunak, ez eta eskola-curriculumekoak ere. Ikasturtean zehar, edozein unetan sei urtetik gorako ikasleak etortzea ere maiz gertatzen da, eta erantzun egin behar zaio erronka horri ere. Gorabehera horiek eragindako hezkuntza-premiei honako hau ere erantsi behar zaie: eskolaren eta familiaren arteko harremana ez da izaten oso erraza beti, bai familiaren egoeratik eta bai amek, batzuetan, ez dakizkitelako hemengo hizkuntzak edo eskolaren eta familiaren arteko harremanak nola izaten diren hemen. Gainera, hemengo ikasleak dauden lurralde-sareetan txertatzen lagundu behar die eskolak haurrei (kirolak, aisia, eskola-jarraipena...), eta beste hainbat zeregin bete behar ditu; esate baterako, eskolako agiriak betetzen lagundu behar die familiei. Eskolako errendimenduan eragina duten beste elementu asko daude, familien gizarte- eta ekonomia-egoera, adibidez, gaur egun krisiak okertu egin duena. Horrez gain, immigrazio- eta egokitze-prozesuak pizten dituen emozioak kudeatzen ikasi behar dute haur horiek; izan ere, askotan ikuspegi materialetik gizarte-egoera zail batean bizi dira, eta hemengo biztanle batzuen konfiantza falta edota, zenbaitetan, xenofobia ere gordin-gordinean pairatuko dituzte.

Atzerriko ikasleen artean eskola-porrota nazioko ikasleen artean baino handiagoa dela erakutsi du hainbat ikerketak, eta desberdintasun hori hurrengo belaunaldira ere luza daiteke. Errendimenduari dagokionez, PISA txostenak bi jatorri horietako ikasleen artean alde nabarmena dagoela berretsi du, baina alde hori ez da saihestezina, ez baita gertatzen herrialde guztietan. Jatorriz hemengoak diren ikasleek Europako batez besteko maila dute, baina Espainiara –eta Euskal Herrira– datozen etorkinak Europa guztiko eskoletan gutxien ikasten dutenen artean daude. Zenbait txostenek, hain zuzen, interes handiko zerbait azaldu dute, sakonago aztertzea merezi lukeen zerbait: egia da atzerritik datozen ikasleek kalifikazio okerragoak lortzen dituzte-



la, eta datu horiek eskolaren batez bestekoan eragiten dutela; baina ez da frogatu horrek irakas-kuntzaren kalitateari edo jatorriz hemengoak diren ikasleen ikaskuntza-erritmoari eragiten diotnik.

Jatorriz etorkinak diren haurrak eskolatzearekin lotuta bizi dugun errealitatearen zati esanguratsu bat nire ikuspegitik azaltzen ahalegindu naiz, lerro gutxi hauetan. Kontua da, urte hauetan guztietan, eskolatzeari buruzko alderdi horietaz guztietaz askotariko diskurtsoak eraiki direla hainbat gunetan; eta diskurtso horiek elkarri eragiten diote eta herritarrengana iristen dira. Uste dut merezi duela labur-labur berrikustea.

Jatorriz etorkinak diren ikasleak hartzen dituzten ikastetxeetako irakasleek, askotan, ikasle horiek dakartzaten aldaketei eta zailtasunei egiten diete erreferentzia, eta lehentxeago aipatu ditugun faktoreak eta arazoak sortzen dituzten beste batzuk ere aipatzen dituzte (horrelako ikasleen mugikortasun handia, kulturen arteko desberdintasunek eragindako zailtasunak, etab.). Adibide modura, hauxe emango dut: duela gutxi, irratian, ikasturte honetan atzerritik etorritako haur asko hartu dituen eskola bateko zuzendaritzako bi laguni egin zieten elkarriketa. Esatariaren galderei erantzun nahian, aurreko egoerarekin alderatuta sumatzen zituzten alde ugarietz ari ziren bana-banaka, eta orain zituzten zailtasun ugarietz. Aldi berean, ikasle horiei egoero erantzuteko prestasuna eta interesa erakusten zuten irakasleok. Ikasle horiek ikasgelei zer ekarpen egiten zieten galdetu zienean, horrelakoetan erantzuna kultura-aberastasuna dakartela izan ohi da (horrela, ikasleek beste batzuk nola bizi diren ikusten dute, etab.). Beste batzuetan, elkarrekin bizitzen jakitea zeinen garrantzitsua den azaltzen da, edota elkar errespetatzea, etab.

Hala ere, horrelako diskurtso batean sumatzen den emaitza orokorrak erakusten du egoera arazotsuei lehentasuna ematen zaiela, eta eskolan horrelako egoerak jatorriz etorkinak diren ikasleei egotzen zaizkiela. Batzuetan, diskurtso horren barnean, baliabide gehiago eskatzeko jarrera hartzen da, giza baliabideak gehienetan, eta, horregatik, ulergarria da zailtasunak lehen planora ekartzea. Baina, aldi berean, diskurtso horrek konfiantza falta susta dezake, eta gizartearen sektore zabal batean jada lehendik zegoen konfiantza falta areagotu; zenbaitek aurrez zituen susmoak berrets ditzake horrek: jatorriz etorkinak diren ikasleak eskolatzeko baliabide asko “xahutzen” ditu, eta eskolarako eta hemengo ikaskideen errendimenduari begira, hau da, bere seme-alaben errendimenduari begira, kaltegarria da. Zoritxarrez, diskurtso horren albo-kalte baztergarri bat da, eta, jendaurrean horrelakoak adierazteko orduan, oso kontuz jokatu behar da; herritarrei eta administrazioari zer esaten zaion ondo kudeatu behar dela erakusten du horrek.

Etorkinekin lan egiten duten irakasle guztiek ez dituzte aipatzen, hala ere, zailtasun horiek. Zenbait ikastetxerentzat etorkinen ekarpena beharrezkoa izan da, ikastetxe horietara zihoan bertako ikasleen kopurua gero eta urriagoa baitzen (berezi A ereduko ikastetxe publikoetan), eta ikastetxe horiek ez dute horrelako neuririk zabaltzen, ez dute kritikarik egiten, eta nolabaiteko adostasuna agertzen dute egoera horren aurrean. Bestalde, oso etorkin gutxi hartzen dituzten edo batere ez duten ikastetxeetako irakasleek ez dute gai horren aipamenik egiten komunikabideetan, eta nabarmendu gabe geratzen da.

Hezkuntza-administrazioako arduradun politikoek, beren aldetik, arrazakeriaren aurkako hezkuntza inklusiboaren diskurtsoaren “alderdi biguna” barneratu dute. Diskurtso horretan, honelako adierazpenak egiten dituzte: kulturartekotasuna aberastasun-iturri dela elkarte osorako, gizarte-hezkuntzaren alde lan egitea beharrezkoa dela, gizarteak kulturen arteko bizikidetzaren beharrezkoa dela jabetu behar duela, ikastetxe guztiek dutela erantzukizuna etorkinak eskolatzeko orduan, etab. Eta behin eta berriro errepikatzen dute diskurtso hori komunikabideei zuzendutako adie-

razpenetan eta elkarrizketetan, legebiltzarrean hitz egiten dutenean, eskolarekin edo hezkuntza-foroekin lotutako jaialdiei hasiera emateko hitzetan, eta baita eskola-elkarteekin zuzenean hitz egiten dutenean ere. Ikuspegi etikotik eztabaida ezinak dira baieztapen horiek, eta beharrezkoak dira administrazioaren abiapuntu diren printzipioak ezartzeko. Haatik, hezkuntzako arduradunek horrelako gogoetak egin arren, adierazitako printzipio horiek bultzatzeko, beharrezkoa da neurri politiko zehatzak abiaraztea, eta ez dute halakorik egiten. Benetako kudeaketa hori edo hartu beharreko neurri zehatz horiek dira, hain zuzen ere, erabaki horiek har ditzaketen eta hartu behar dituzten pertsonak egin beharreko ekarpen bereziak; baina, askotan horixe da, printzipio orokor horien diskurtso hutsa.

Horra paradoxa: zeregin hori bere gain hartzen ari den profesionalen taldeak egiten duen diskurtsoak ez dirudi horren zuzena gizartearen aurrean, lehen esandakoa gogora ekarriz, eta, bien bitartean, administrazioak diskurtso zuzena egiten du, baina ez da neurri zehatzen bitartez gauzatu. Bi diskurtso horiek bide paraleloak egiten dituzte, baina ez dira bidean gurutzatzen: bigarren diskurtsoak ez die lehenengoak planteatutako errealitate zehatzei erantzuten, eta lehenengo diskurtsoa zalantzan jar dezake, ez delako nahiko inklusiboa edo ez duelako behar adina kontuan hartzen kulturartekotasuna. Aldi berean, administrazioak ez du baliabide nahikorik eskaintzen jatorriz etorkinak diren ikasleek dituzten hezkuntza-premiei egoki erantzuteko, eta, horren ondorioz, irakasleek eta bertako familiek ez dituzte gogo onez hartzen matrikulazio berriak.

Herritarrei dagokienez, aniztasuna izugarria da, ez dago hori esan beharrik. Hezkuntzaren eta etorkinen gaiak aztertzen dituzten aldizkari elektronikoetako albisteen eztabaida-foroak hori zuzenean ikusteko toki egokiak dira. Hezkuntza-administrazioaren arduradunen batek adierazpen edo elkarrizketaren bat egiten badu gai horren inguruan, ehunka herritarrek ehunka iruzkin egingo dituzte. Esate baterako, batzuek hezkuntza-sistema osoaren erantzukizun soziala aldarrikatzen dute; eskola publikoko aita eta ama askok ikastetxe hitzarmendunen inplikazio urria salatzen dute; askotan, bertako herritarrek konfiantza falta handia erakusten dute euren diskurtsoan etorkinak eskolatzeko gaiaren aurrean, etorkinen eskolatzeko hezkuntzaren kalitatearen murrizketarekin lotzen baitute zuzenean; eta herritar horiek, aldi berean, etorkinak hartuko ez dituzten ikastetxeen beharra ikusten dute, bertako familiek beren seme-alabak ikastetxe horietara eraman ditzaten. Azken diskurtso hori oso modu gordinean agertzen da horretarako aukera ematen duten foroetan (etorkinak tokiko gizartea inbaditzen ari direla esaten dute, edo gizarte-onurez itsuski baliatzen direla, osasun publikoa kolapsatzen dutela, etab.).

Zenbait ahots, lehenago adierazitako arrazakeriaren aurkako hezkuntza inklusiboaren printzipio orokorrekin ados egon arren, kritiko agertzen dira administrazioaren hezkuntza-politikarekin, edo politika horren ondorioak erakusten dituzte. Ahots horiek mota eta jatorri anitzekoak dira: legebiltzarrean oposizioan daudenak, aurrez aipatutako Gizarte Kontseiluaren txostena eta Arartekoa bera, gizarte- eta hezkuntza-gaietako aditu eta ikertzaileak, etab.

Aldiz, familia etorkinen diskurtsoa falta da, eta etorkinen taldeek ere ez dute zabaltzen gai honi buruzko iritzirik. Gai honi buruzko iritzia ematen dutenean, arrazakeriaren aurkako eta izaera inklusiboko printzipioak adierazi ohi dituzte, administrazioak adierazi ohi dituen antzekoak. Hainbat urtean bilgune artifizial horiei –bertakoek ez dute bilgune horietan parte hartu nahi– eutsi izana ez salatzeak arrazoiak zein diren galde diezaiokegu gure buruari, edo sare hitzarmendunaren zati handi batek nahiz eskola publiko askok, inolako disimulurik gabe, jatorriz etorkinak diren ikasleak ez hartzeak erakutsi duten jarreraren arrazoiak zein diren... Etorkin askorentzat gizarte honetan egunez egun aurrera egitea berez nahiko gogorra delako gerta daiteke hori, eta, gainera, kasu askotan, tokiko eskola –edozein dela ere– euren herrialdeetan utzitakoa baino

hobea iruditzen zaielako. Gainera, eskola-sistemaren barrenaldeak ezagutzea da –eta, beraz, eskola aukeratzeko benetako gaitasuna izatea– tokiko erdiko klasearen abantailetakoa bat, eta klase horrek maila soziokultural handiagoa du, etorkinak baino askoz ere handiagoa. Dena den, ez dago desadostasun-adierazpen argirik aurrez aipatutako egoeren eta desoreken aurrean.

Diskurtso horien adostasunaren ondorioz, administrazioak ez du nahiko presiorik sentitzen herri-tarren aldetik hezkuntza inklusiboan eta kulturartekoan proposamen osatuagoa eratzeko. Esparru horretako jarduerak urritu egin dira azken urteotan: aurreko plana agortu ondoren (ez da oraindik ebaluatu), gaur egun ez dago kulturarteko hezkuntza-planik, desagertu egin da ikasle etorkina eskolatzeari buruz solas egiteko aurreko irudia, bertan behera gelditu da berritzeguneei gai honetan egiten zuten lana, behera egin dute irakasleen prestakuntzan kulturarteko hezkuntzaren eskaerak eta eskariak... Eta horrelako gauzak gertatzen dira: bi eredu desberdin (B eta D ereduak) ezartzen dira auzo berrietan eraikitzen diren ikastetxeetan (horixe gertatzen da Gasteizko aldirietako auzoetan), oso aspalditik argi dakigun arren bereizketa horrek gizarte-mailak ikasgeletan banatzea eta desorekak sortzea dakarrela, eta hori ez da batere lagungarria gizarte-kohesiorako.

Beste alderdi bat erantsi nahi nuke, izan ere, administrazioari gertatu zaion bezala, irakasleek ere, hein handi batean, gainditu egin dute lehenengo urteetan euren ikasgeletara iritsitako lehenengo etorkinen eskolatzeak sortu zizkien kezak eta urduritasuna. Harrera-planak abiarazi dira ikastetxeetan, eta haur horiei arreta eskaintzeko estrategiak garatu dira; horixe da hasierako urduritasun hura gainditzeko arrazoietako bat. Lan izugarria egin da, eta hainbat ikastetxetan lan bikaina egiten ari dira; jardunbide egoki ugari metatu dira jada, eta administrazioaren arreta merezi dute, esperientzia horiek zabaltzen laguntzeko. Bestalde, esan daiteke nolabait “ohitu” egin garela eskolan etorkinak izatera, eta, bien bitartean, kalitate handiagoko hezkuntza eskuratzeko beharrezkoa duten hainbat gauza gertatu dira. Eskola-porrotaz hitz egin dugu –horretara ez dugu ohitu behar–, eta baita etorkinen porrotak tokiko ikasleak “kutsatzen” dituelako uste latenteaz ere –eztabaidagarria beti–. Gainera, gizarte-izaerako arrazakeria, murriztu ordez, areagotzen ari da. Elementu horiek guztiek garrantzi izugarria dute, eta hezkuntzaren esparruko erantzunak eskatzen dituzte; sektoreko profesionalak ere prestatu egin behar dute, premia horiei ahalik eta eraginkortasun handienarekin erantzuteko. Hezkuntzaren esparruko ikerketak ez du etenik, eta beharrezkoa da horretara iristeko bideak ezartzea, irakaskuntzan eragin dezan.

Etorkinen taldeetako buruek hezkuntza betetzen ari den tokiaz duten ezagutza handitzea eta ahalduzko jarrera izatea eragingarria izango litzateke, esparru horietan aurrera egiteko eta hezkuntza-administrazioaren aldetik konpromiso handiagoa lortzeko.

Hezkuntza-sisteman erronka ugari ditugu, ondo dakigu hori: hezkuntza inklusiboari eta kulturartekoari heltzea da erronka horien arteko garrantzitsuenetako bat gaur egungo munduan.



## Euskara eta immigrazioa

Mario Zapata  
Soziologoa

Maila honetako azterketa historiko-soziolinguistikoa egin ez bada ere, euskara eta migrazioen arteko lotura Euskal Herrian migrazioen historia bezain zaharra bide dugu.

Alde historiko horretan gehiegi sakondu gabe, hurbilen ditugun azken migrazio-aldiei behatuz gero, migrazio prozesuen eta euskararen egoera soziolinguistikoaren arteko lotura aztertzea interesgarria litzateke, orain arte ez baita gaia sakonki aztertu.

Hizkuntza aldatze edo ordezkapenean eragiten duten faktoreen artean Joshua Fishman soziolinguistak *dislokazio demografikoa* aipatzen digu, hor barruan migrazio prozesuen eragina kokatzen dela, emigrazio zein immigrazio terminoetan.

Euskarak bizi izan duen ordezkapen prozesuan eta egun bizi duen egoera gutxiagotuan eragin duten faktoreen artean, mende luze batetik hona ezagututako immigrazioa<sup>1</sup> faktore horietako bat izanen dugu. Alabaina, immigrazioa ez dugu faktore bakarra eta, oro har, ez faktore nagusia ere.

XIX. mendearen bukaerako industrializazioaren eskutik, Bizkaiak immigrazio prozesu garrantzitsua ezagutu zuen, Bilbon eta Ezkerraldean bereziki. Zonalde horretara, bertako nekazariekin batera (horietako ugari euskaldunak ziur aski), Espainiako lurraldeetako etorkinak iritsi ziren, Gaztelatik berezirik. Horrela, XIX. mendearen bukaeran, Bizkaiko biztanleria %25tik gora herrialdetik kanpo jaiotakoa zen<sup>2</sup>.

Ondoren, 1950tik aurrera, industrializazio-aldi berri baten eskutik, Euskal Herriak migrazioaren fase berria ere ezagutu zuen. Hego Euskal Herrian, barne migrazioarekin batera, berriz ere Espainiako lurraldeetako immigrazio fluxu handia gertatu zen, Gipuzkoa eta Bizkaian lehenik eta, ondoren, Araba eta Nafarroan.

---


<sup>1</sup>Ipar Euskal Herrian, oraindik ere, immigrazioarekin batera, emigrazioaren eragina ere kontuan hartu beharko litzateke.

<sup>2</sup>Fusi, J.P. (1984). *El País Vasco: pluralismo y nacionalidad*. Madrid: Alianza Editorial. Aipamena, baina, ondorengo lan honetatik hartu dugu: Zabalo, J. et al. (2009). *Etorkinak eta integrazioa. 50-80ko hamarkadetakako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian*, (argitaratu gabea).

Ipar Euskal Herrian, epealdi honetan emigrazioaren fenomenoak oraindik irauten badu ere, XX. mendearen bukaeran, departamentutik kanpo jaiotako kopurua handia dela agertzen zaigu (1999an Lapurdin %47<sup>3</sup>), beraien sorburuaren inguruko datu zehatzik izan ez arren<sup>4</sup>.

Amando De Miguelek 1973an Hego Euskal Herriko biztanleriaz egindako azterketan<sup>5</sup>, jatorriaren arabera honako banaketa egin zuen<sup>6</sup>.

1. grafikoa. Biztanleen banaketa, norbera eta gurasoen sorburuaren arabera, Hego Euskal Herria, 1973 (%)



Iturria: geuk egina, De Miguelen datuetan oinarritua (1974: 262)

Datuen inguruko zehaztasunetan galdu gabe, argazki honen helburu bakarra hauxe dugu: agerian jartzea immigrazioak hartan izan zuen bolumena eta, ondorioz, horrek Euskal Herriko jendartearen egitura demografikoan eta demolinguistikoan ere zer nolako eragina izan zuen.

Aurreko bi mendeetako immigrazioa, oro har, hiriguneetan kokatu zen, industrializazioarekin lotutako gunetan, hain zuzen ere. Xabier Aierdik, migrazio-aldi honetaz egindako azterketan, immigrazio eta euskararen espazio sozialen segregazioa eman zela defendatzen du<sup>7</sup>. Datuak datu, Hego Euskal Herrian, immigrazioaren multzo handiena, bereziki euskararen ezagutza tasa txikia zuten zonalde batzuetan kokatu zen: Bilbo Handian, Arabako Lautadan eta Iruñerrian. Hein txikiago batean euskararen ezagutza tasa ertaina edo altua zuten eskualde batzuetan ere kokatu zen: Donostialdean eta, maila txikiago batean, Durangaldean, Goierriin, Bidaso Beherean, Urolan, Deba aldetan eta Nafarroako Ipar-Mendebaldean (Altsasun bereziki).

Immigrazioak izandako pisu erlatiboaz aritzen bagara, euskararen ezagutza tasa ertaina edo altua zuten aipatu eskualde horietan, estatuko immigrazioaren pisua %25-35 bitartekoa izan zen (he in txikiago batean Arrati-Nerbioin, Plentzia-Mungian, Tolosaldean, Gorbeia Inguruetan). Horietan guztietan, euskara ezagutzen ez zuen populazioaren halako hazkundeak –epe labur-laburrean– eskualdeko ezagutza tasan jaitsiera nabarmena eragin bide zuen, kasu batzuetan 10 eta 15 pun-

<sup>3</sup>AZTIKER (2006). *Euskal Herria: datuen talaiatik 2006*. Tafalla: Edt. Txalaparta, 128 or.

<sup>4</sup>Frantziako INSEEek jasotzen dituen datuekin ez dago jakiterik horietako zenbat Ipar Euskalerritik kanpo jaiotakoak diren, Hego Euskal Herrikoak diren edo Frantzian sortutakoak.

<sup>5</sup>De Miguel, A. (1974). "Estructura social e inmigración en el País VascoNavarro". *Papers: revista de sociología*, 3. zk., 262 or. Hemen eskuragarri: <http://ddd.uab.cat/pub/papers/02102862n3p249.pdf>

<sup>6</sup>Argitu behar De Miguelek bestelako terminoak erabiltzen zituela. Hego EH baino *País Vasconavarro* erabiltzen du eta jatorria ere beste modu batez definitzen du.

<sup>7</sup>Aierdi, X. (1993). *La inmigración en el espacio social vasco*. Leioa: UPV-EHU, 208 or.

tukoa izan litekeena<sup>8</sup>. Eta ezagutza tasan halako jaitsierak, nola ez, erabilera tasan eraginen zuen ere.

Egun hirigune moduan ezagutzen ditugun hainbat herrik, industrializazioa eta –barne zein kanpo– immigrazioaren ondorioz, halako bilakaera estrukturala zein demografikoa ezagutu zuten. Horren adibidea argia, ingurune euskaldun batean kokaturik zegoen Ermua herria da. Ermua 1900an 700 biztanlera iristen ez zen herria zen. 1950era 1.725 biztanleekin iritsi zen bitartean, 1981ean biztanle kopurua 18.705 zen. Eta 1981eko datuen arabera<sup>9</sup>, euskaldunen kopurua %12.

Populazioaren bilakaera antzekoa izan zen hainbat herritan eta hona hazkuntza honen osaera adierazten duten datuak: 2001eko datuen arabera, 60-64 urte bitartean zegoen belaunaldia aztergai harturik, Ermuan %83 etorkinak ziren, Barakaldon %75, Lasarte-Orian %66, Errenterian, Laudion eta Zumarragan %63, Bilbon eta Gasteizen %58<sup>10</sup>.

Izan ere, euskararen galera prozesuan, zabalkunde egoeran dauden hizkuntzekin kontaktuan dauden periferiako zonaldeetatik galera hedatzeaz gain, halako irlak agertzen joan dira. Irla horien osaeran eragin dituzten faktoreen artean industrializazioa eta immigrazioa ditugu. Bilbo Handiaren kasua, berez, paradigmaticoa izan daiteke, historikoki hor metatu delako immigrazio kopuru handiena –datu absolutuetan– eta XIX. mendearen bukaeratik halako sedimentazio prozesua eman delako.

Egoera demolinguistikoa immigrazioak izandako eragina aztergai hartu badugu ere, euskarak ezagutu duen ordezkapen prozesuan (*Language Shift*), lehen aipatu bezala, betiere erlatibizatu behar da immigrazioaren fenomenoak izan zuen eragina. Izan ere, hizkuntza-galera aurreko mende horien testu inguru politikoetan eta sozialetan kokatu behar da. Hor, lehenengo mailako faktore bezala bi Estatuak garatutako hizkuntza-politika dugu: gaztelania eta frantsesa hedatzeko eta normalizatzeko hizkuntza-politikak, hain zuzen ere. Horrekin loturik legoke euskarak sozialki zuen prestigio eza (*baserritarren* hizkuntza), garai batzuetan, ezkutatu beharreko hizkuntza ere izan zela (frankismo garaian behinik behin). Beste aldetik, oro har, tokian tokiko Administrazioek euskararen berreskuratze eta normalizazioaren aldeko hizkuntza-politikak egiteko eskumenik ez zuten izan, eta euskararen aldeko ekimen apurren eragina oso mugatua izan zen.

Testuinguru politiko, sozial eta kultural horretan, eta XIX. eta XX. mendeetako etorkin gehienek kokapen soziolinguistikoa kontuan izanik, harrizkoa ez da gehienek euskara ikasi ez izana. Honen inguruan ondoren aipatuko ditugun datu kuantitatiboak mugatuak badira ere, joera orokorra ikusteko balio dute.

Batetik, EAEko datuak oinarritzat harturik, 1986ko datuek honako hau erakusten digute: Hego Euskal Herritik kanpo<sup>11</sup> sortutakoaren artean, agertzen den euskaldunen kopuru erlatiboa txikia da.

---

<sup>8</sup>Ertzetako hipotesi harturik, heldutako etorkinen artean inork ez dela euskaldundu. Hori horrela ez bada ere, ondoren aipatuko ditugun datuetan ikusi bezala, euskaldundu zen kopurua txikia izan omen zen.

<sup>9</sup>EUSTAT [Kontsulta: 2011-03-20]

<sup>10</sup>AZTIKER. (2006). *Euskal Herria: datuen talaiatik 2006*, Tafalla: Txalaparta Arg., 127 or.

<sup>11</sup>Nafarroatik EAera joandakoen artean kopuru nabarmen bat berez euskalduna baitzen, bereziki Gipuzkoara joandakoen artean. Hori kontuan ez hartzeak errealitatea distorsionatuko luke.

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

		Euskaldunak	la-euskaldunak	Erdaldunak
EAE	HEHn sortuak	%34,0	%21,4	%44,5
	HEHTik kanpo sortuak	%2,4	%8,2	%89,4
Araba	HEHn sortuak	%9,3	%22,0	%68,7
	HEHTik kanpo sortuak	%1,6	%7,2	%91,2
Bizkaia	HEHn sortuak	%24,8	%22,9	%52,3
	HEHTik kanpo sortuak	%2,2	%7,1	%90,8
Gipuzkoa	HEHn sortuak	%57,3	%18,9	%23,8
	HEHTik kanpo sortuak	%3,3	%11,4	%85,3

Iturria: geuk egindakoa, 1986ko Zentsuaren datuetan oinarritua (EIN)

Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 1983an egindako inkesta batean<sup>12</sup>, besteak beste, etorkinen seme-alaben euskalduntzearen inguruko datuak jaso ziren eta hauek bereziki adierazgarriak dira. Euskaraz hitz egiteko gaitasunaz galdetzen zela, norbera eta guraso biak bertan jaiotakoak zirenean %48k *Ongi* edo *Nahiko Ongi* egiten zuten. Bertan jaio baina, guraso biak kanpoan sortutakoak zirenean, soilik %6k *Ongi* edo *Nahiko Ongi* egiten zuten euskaraz (bikote mistoetan pixka bat handiagoa zen).

Kontuan izatekoa da, ordura arte euskarazko irakaskuntza normalizatua jasotzeko aukera mugatua zela. Ondorengo belaunaldiak EAEn Hezkuntza Sistema berria ezagutuko zuten eta immigrazio horrek hizkuntza-ereduen aurrean egindako hautua zein izan zen aztertzea litzateke<sup>13</sup>.

## XXI. mendeko immigrazioa

Mende berriarekin batera, immigrazio fase berri bat bizi izan du Euskal Herriak. Aurreko fasean ezagututako Estatuetakoa immigrazioaz gain<sup>14</sup>, Estaturik kanpoko immigrazioaren hazkunde nabarmena gertatu da azken hamar urteotan, immigrazio berriaren jatorria, bereziki, Hegoamerikan, Europan eta Afrikan dugula.

Ipar Euskal Herriaren inguruko daturik ezear, Pirinio Atlantikoen datuak proiektzio bat egiteko balioko balute, departamentuan Frantziatik kanpoko etorkinen kopuru erlatiboa %4 da eta egun horietako gehienak Europa Batasuna dute jatorri<sup>15</sup>.

<sup>12</sup>Prospekzio soziologikoen kabinetea (1983). *Euskararen borroka*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

<sup>13</sup>Hain urrutira joan gabe, 2005an Gasteizeko ikastetxetan egindako inkesta batean honako hau zen A eredia haur-tatzen zuten amen profila: Arabarra edo EAEkoa zenean %16, Estaturik kanpokoak zenean %30 eta Estaturik kanpokoak zenean %50 inguru. Manzanos, C.; Ruiz de Pinedo, I. (2005). *Haur etorkinak Vitoria-Gasteizeko eskoletan*. Gasteiz: Denon Eskola.

<sup>14</sup>Honetan zailtasunak daude jakiteko nolako den egun immigrazio horren eboluzioa. Ipar Euskal Herriaren kasuan, erreferentziako datu bakarrenetarikoa, 2001eko Soziolinguistika Inkestan jasotakoak ditugu. Hego Euskal Herriaren kasuan, berriz, migrazio saldoen azterketa ez digu erabat argitzen egun nolako den immigrazio horren portaera, hau da, etortzen direnak hemen gelditzen diren –eta beste batzuk joaten dira– edo mugimenduak behin-behinekoak diren. Esaterako, 2009an Espainiar estatuko beste lurraldeetan sortutako 15.263 lagun etorri ziren eta 13.251 joan.

<sup>15</sup>Hor barne, Hego Euskal Herria jatorria dutenak leudeke. Hegoaldean ere arazo bera dugu, Ipar Euskal Herria jatorria dutenak ezin baititu berezi.



Hego Euskal Herriari dagokionez, 2010ko datuen arabera, Estatuz kanpoko etorkinen kopurua absolutua 254.616 da eta kopuru erlatiboa %9. Alabaina, alde handia dago herrialde batzuen eta besteen artean, kopuru absolutu zein erlatiboei dagokionez.

	Nafarroa	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Hego EH
Estatuz kanpoko etorkinak	86.921 %13,7	32.283 %10,2	51.083 %7,2	84.329 %7,3	254.616 %9,0
Espainiar estatuko beste herrialdeetan sortuak	82.328 %12,9	74.425 %23,5	110.351 %15,6	247.188 %21,4	514.292 %18,3
Hego Euskal Herriatik kanpo sortutakoak	169.249 %26,6	106.708 %33,6	161.434 %22,8	331.517 %28,7	768.908 %27,3

*Iturria: geuk egina, INEko datuetan oinarritua (2010)*

Aurreko immigrazioaren moduan, kopuru absolutuetan, Estatuz kanpoko etorkin gehienak hainbat hirigunetan kokatu dira: Bilbo Handian, Iruñerrian, Arabako Lautadan eta Donostialdean. Kopuru erlatiboei dagokionez, etorkin berrien portzentaje handienak honako eskualdeetan agertzen dira: Tuteralea, Erribera Garaia, Iruñerria, Arabako Lautada, Errioxa Arabarra, Bidasoa Behea, Goierri, Markina-Ondarroa, Arabako Mendialdea, Gernika-Bermeo, eta hein txikiago batean Bilbo Handia agertzen zaigu

Oraingoan, Aierdik berriro immigrazioa eta euskararen arteko segregazio espazialaren tesia mahai gaineratu du<sup>16</sup>, immigrazio berriaren eta euskararen arteko hizkuntza-ukipena oso txikia dela argudiatuz. Batetik, erreala da etorkinen kopururik handiena euskararen ezagutza tasa txikia duten gunetan kokatu dela (Nafarroako hegoaldean, Arabako Lautada). Baina, honetan ere, euskararen tasa ertaina eta handia duten eskualde batzuetan ere etorkin berrien kopuru erlatiboa nabarmena da (Donostialdea, Goierri edo Markina-Ondarroa), hasieran aipatu zonaldeetan baino dezente txikiago izan arren.

Gauzak horrela, oraingoan ere, euskararen egoera soziolinguistikoa ahula den zonaldeetan kokatu diren etorkin berrien artean, oro har, gutxi dira euskara ikasteko urratsa ematen duten helduek. Izan ere, euskaren inguruko pertzepzio soziala aldatu bada ere, oraindik orain bizi dugun elebitasun desorekatu egoeran, etorkinek euskararen behar pragmatikorik ez dute sentitzen eguneroko bizitzan moldatzeko eta, oraingoan, helduen artean aurreko immigrazio-fasean ikusi duguna erreproduzitzeko joera dago.

## Hizkuntza- eta immigrazio-politikak

Aurreko immigrazio fasean ez bezala, tokian tokiko administrazioek eskumen batzuk hizkuntza-politikaren esparruan, eta, Hego Euskal Herrian, immigrazioaren inguruan esparru gutxi batzuk kudeatzeko eskumena ere. Hau dena, betiere Estatuen marko juridiko-legalaren mugen barruan.

Hizkuntza-politika eta immigrazio-politika biak zeharkako gaitzat hartzen dira eta horrexegatik, batean zein bestean, beste esparruaren aipamena agertzen zaigu. Euskal Herrian, baina, honetan ere administrazioen artean egiturazko aldeak daude.

<sup>16</sup>Aierdi, X. (2008). "Hego Euskal Herriko atzerri immigrazioa" *Jakin*, 165, 11-29 orr.

Ipar Euskal Herrian euskararen aldeko hizkuntza-politika publikoa garatzen duen erakundea dagoen bitartean (EEP), immigrazio-politikan eskumenak Estatuarenak dira. EEPren kasuan, 2006an diseinatutako Hizkuntza Politika Proiektuan bere lan-ildoak finkatzen ditu, baina hor ez dugu aurkitu immigrazioaren inguruko aipamenik.

Nafarroako Foru Komunitateari (NFK) dagokionez, administrazio orokorrean, aipatu bi esparruak aztertu beharko liriateke. Gobernuaren Harrera eta Integrazioarako ekintza-planetan zein Euskararen Nafar Institutuaren ekintza-planetan ez da aurreikusten immigrazioaren euskararen hizkuntza-integrazioarako jarduera berezirik.

Eusko Jaurlaritzan, aurreko gobernuetan immigrazio- eta hizkuntza-politiken esparruetan immigrazioaren euskararen hizkuntza-integrazioa helburu hartu zen, Hizkuntza Politika Sailaren eta Immigrazio Zuzendaritzaren artean: besteak beste, sentsibilizazioa eta informazioa zabaltzeko, harrera eragileengan eragiteko eta, nola ez, euskara ikastea eta erabiltzea sustatzeko. Une honetan, ikuspegi estrategikoan halako hutsunea dago, 2005-2009 jarduerarako planak (immigrazio zein hizkuntza-politikarena) agortuak, oraindik ez delako plan estrategiko berririk plazaratu. Hizkuntza-politikaren esparruan, *Hizkuntza-politika aurrera begira* 2005-2009 egitasmoa agorturik, Euskara21 gogoetaren testua politika honen oinarri modu agertzen da. Horretan, gaia lehentasunen artean kokatzen bada, dokumentuan garatu gabeko helburua besterik ez da (“euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea”). Immigrazio Zuzendaritzak aurreko planifikazio estrategikoa agortua, bestelako plan estrategikoa publikoa egin ez dela, ez dago jakiterik irizpide estrategikoak aldatu diren.

Hortik eratorritzen den proiektu nagusietakoa, hizkuntza harrerarako AISA programa izan da. HABEk antolatutako harrera ikastaroetan azken urteotan ia hiru mila lagun pasatu dira. Datu metatuekin, EAEko Estatuz kanpoko etorkin berrien %1,7 inguru pasatu da harrera ikastaro horietatik, baina horietako guztiek ere ez dute aurrera jo. Ikastaro arruntetan etorkinen kopurua igo bada ere, 2008/2009 ikasturtean 1.600 inguru ziren<sup>17</sup>.

Tokian tokiko administrazioen kasuan, NFK eta EAEko hainbat udaletan, immigrazioa euskararen mundura erakartzeko, integrazioaren ikuspuntutik, politika aktibo iraunkorrek indarrean daude. Horietako batzuk erreferenteak bihurtu dira –Euskara Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa oinarri– arlo honetan garatu dituzten programengatik (Getxo Udala, Sakanako Mankomunitatea eta abar). Hemen ere aipagai beharko lukete izan, gaia zeharka lantzen duten ekimenak, hain zuzen ere, kulturantzatasunaren kudeaketaren lanketa orokorrean, euskara oinarria duen hizkuntza-integrazioa txertatzen duten dinamikak (Bergarako Udala, esaterako).

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak indarrean duen “Bizilagun Berriak eta Euskara” lan-ildoak aipagarria da, udaletako Euskara Zerbitzuekin koordinatua programa abiatu duelako.


Administrazioen politikaren aztergai garrantzitsuetako bat, etorkinen seme-alaben eskolaratzea dugu eta, kasu honetan, zer nolako terminoetan uztartzen den kulturantzatasuna eta euskararen irakaspena. Azken urteotan ikergai izan dugun gaia, hain zuzen ere, etorkinen seme-alaben hizkuntza ereduaren arabeko matrikulazioa izan da. Gai honen interesa bi mailatan kokatzen da: batetik, gurasoek hautatzen duten ereduaren arabera, bere seme-alabek euskara ikasteko aukera izatea ala ez, eta, bestetik, gehiengoaren artean joera zein den ikusita, horrek haur horien

<sup>17</sup><http://www2.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2009/01/08/sociedad/gipuzkoa/d08gip6.1385152.php>

intertzio-integrazioan gerora izaten ahal duen ondorioa (ezberdintasun egoera batean kokatzen dituelako).

Nafarroako Hezkuntza Sistemaren kasuan, bereziki lau eredu hartu ditugu aztergai: D eredu, euskara irakaskuntza-hizkuntza duena; A eredu, gaztelania irakaskuntza-hizkuntza duena eta euskara ikasgaia; G eredu, gaztelania irakaskuntza-hizkuntza duena (euskararik gabe); eta “eredu eleanitzak” moduan aurkezten direnak (British eta TIL), ingelesa ere irakaskuntza-hizkuntza harturik<sup>18</sup>.

2. grafikoa. Matrikulazioa, ereduak, NFK, 2009-10 ikasturtea




Iturria: geuk egina, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Hezkuntza Sistemaren txostenaren datuetan oinarritua

Datuen interpretaziorako, kontuan izan behar da Estatuz kanpoko etorkinen seme-alaben kopuru nabarmen bat Nafarroako Erriberan kokatua dagoela eta han ez dagoela D ereduaren ikasterik sistema publikoan. Alabaina, zenbaki absolutuetan, kopuru handiena Iruñerrian kokatzen da eta hor aukera dago hizkuntza-eredu guztiak hautatzeko.

Aurreko ikasturtetako datu publikorik ezean ezin dugu inongo azterketa diakronikorik egin, urte haue-tako eboluzioa zein izan den ikusteko.

EAEri dagokionez, eskuratu ditugun azken datuak aztertuko ditugu, 2009/2010 ikasturtekoak hain zuzen ere.

3. grafikoa. Matrikulazioa, ereduak, EAE, 2009-10 ikasturtea




Iturria: geuk egindakoa, LAB sindikatuaren datuetan oinarritua

<sup>18</sup>Nafarroan, EAEen ezagutzen den B ereduaren existentzia bada ere, bere hedapena oso txikia da, %0,22 ingurukoa (herri bakar batean eskaintzen da).

EAE mailako datuetan oraindik tarte handia dago joera orokorra eta Estatuz kanpoko guraso etorkinek egiten duten hautuaren artean. Herrialdeen arteko matrikulazio-hautua aztertuz gero, alde handiak daude herrialdeen artean, bereziki Gipuzkoa eta Bizkaia eta Arabaren artean, Gipuzkoan A eredia desagertzeko bidean dagoela. Herrialdeka, joera orokorraren zein etorkinen seme-alaben matrikulazioaren artean alde nabariak badaude ere, euskararen berreskuratzearen eta normalizazioaren ikuspuntutik bereziki deigarria da, guraso etorkinen hautuan A ereduak duen indarra Araban (%55) eta Bizkaian ere (%40).

4. grafikoa. Matrikulazioa, ereduak, EAE, 2009-10 ikasturtea



Iturria: geuk egindakoa, LAB sindikatuaren datuetan oinarritua

Eboluzioari dagokionez, batean zein bestean, B eredia egonkor mantentzen da (gorako joera txiki batekin) eta gora-behera A eta D ereduak gertatzen da, D ereduak gora jotzen duela. Matrikulazioa D ereduaren orokorrean igo bada, Estatuz kanpoko etorkinen seme-alaben proportzionalki gehiago igo da azken bost urteotan: Araban hirukoiztu da, Bizkaian bikoiztu eta Gipuzkoan ere ia bikoiztu. B ereduaren igoera nabarmena bakarrik Araban gertatu da, eredu honen hautua guraso etorkinen artean ia bikoiztu dela.

Joera orokorra eta guraso etorkinen hautuaren artean horrelako aldeak egotearen atzean hamai-kafaktore dago. Aurreko ikerketetan hautuan eragiten duten faktoreen azterketa sakona egin dugu<sup>19</sup> eta ziur aski bere horretan mantenduko dira.

Edozein kasutan ere, datu horiek agerian jartzen diguten disoziazioak, berriz ere, euskara ikas-terko balio ez duten hizkuntza-ereduak baztertzeko arrazoiak indartzen dituzte, hori baita egitura-razko arazo nagusia.

<sup>19</sup>Zapata, M. (2006). "Etorkinak eta hizkuntza-ereduak". *Soziologiako Euskal koadernoak - Cuadernos Sociológicos Vascos*, 20. zk. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 36-38 orr.

## Erakunde sozialen ekimena

Administrazioetatik kanpo ere, lan-ildo honi ekin zaio, bereziki euskalgintzaren eskutik. Euskalgintzaren hainbat erakundeek jarduera-planetan gaia sartu da eta ekimen berriak sortzen ari da. Topagunearen eskutik garatutako *Auzoko* proiektuak<sup>20</sup>, UEMAren *Etorri berriak* lan-ildoarekin batera, bere harrera-ekimena hainbat herrietara eraman du. Immigrazioaren munduko erakundeek artean aipagarria iruditzen zait CEAR-Euskadi erakundearen jarduera, harrera-protokoloetan euskararen inguruko jarrera aktiboa izateaz gain, horren inguruko ikerketa-politika sustatzeagatik.

Helduen euskalduntzearen esparruan, Ipar Euskal Herrian egindako ikerketa bat<sup>21</sup> aipagarria ere badugu, AEKko ikasleak aztergai harturik, bertako eta kanpoko ikasleen ezaugarri eta motibazioak aztertu duena.

## Euskara aniztasunean

Immigrazio berriarekin nazio eta kultura askotako bizilagun berriak ditugu. UNESCO Etxea eta Ikuspegi@k-Immigrazioak egindako ikerketari esker hainbat datu interesgarri ezagutu ditugu<sup>22</sup>. Euskal Herrian egun 100 hizkuntzatik gora bizi direla jakin dugu eta horrek egun existitzen den aniztasunaren tamaina erakusten digu.

Egoera normalizatu batean kulturalizazioaren kudeaketa berez erraza ez bada, are konplexuagoa da helmuga den herrialdean hizkuntza-gatazka dagoenean, gure kasuan, berezkoa den hizkuntzetako bat, euskara, egoera gutxiagotuan dagoenean.

Intertzio-integrazio terminoetan solas egiten badugu<sup>23</sup>, oro har erabiltzen den integrazio kulturalaren paradigmatik –besteak beste, J.W. Berryren akulturazioaren eredua– hein handi batean ez digu balio. Gurean, hizkuntzaren ikuspuntutik bereziki, akulturazio prozesu bat beste baten gainean jartzen da eta nagusiagotutako hizkuntza gailentzen da.

Euskararen normalizazioaren ikuspuntutik, euskara gutxiagotua den hizkuntza abiapuntua izanik ere, kulturalizazioaren kudeaketaren inguruko jardueran, gurean pluralismo kulturalaren ikuspegia nagusitzen ari da. Hortaz, etorkinen artean euskara hedatu eta sustatzeko ekimenetan, oro har, migranteen jatorrizko kulturak ezagutzeko, errespetatzeko eta balioesteko izpiritua nagusi da. Maila teorikoan *elkar ezagutza* politikak hobesten badira ere, sektore honetan euskara sustatzearekin batera, beste kulturak bizikidetzarako gure espazioetan modu egoki batean nola eransten ditugun fintzea falta zaigu. Hor, bereziki, hutsunerik handiena irakaskuntzaren munduan dugu, esperientzia ereduagarriak badaude ere<sup>24</sup>, oso hedapen txikia dutelako.

---

<sup>20</sup><http://auzoko.topagunea.com/>

<sup>21</sup>Baxok, E.; Coyos, J.B. (2010). *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian*. Bilbo: Euskaltzaindia.

<sup>22</sup>Uranga, B.; et al. (2008). *Hizkuntza eta immigrazioa. Lenguas e inmigración*. Bilbo: Ikuspegi eta UNESCO Etxea.

<sup>23</sup>Hainbat esparrutan “integratio” kontzeptuaren erabilera kolokan jartzen hasi da (besteak beste, migranteen kolektiboan bertan), praktikan asimilazio formak hartzen dituelako.

<sup>24</sup>Ikas Komunitateak, Ingurune hezkuntza-planak, Jaling proiektua.

Intsertzio-integrazioaren ikuspuntutik euskarak izaten ahal duen balio praktikoa kontuan izan beharko litzateke, Euskal Herriko berezko egoera soziolinguistikoa gora-behera. Alabaina, euskararen normalizazioan, integrazio kulturalaren inguruko ikuspuntuan, hainbatetan intsertzio-integrazioa bere dimentsioa guztietan –estrukturala, politikoa...– kokatzeko beharra sumatzen da, nekez integratuko baita gure kulturaren, beste mailetan baztertua dagoena. Azkenik, ez dezagun ahaztu intsertzio-integrazioak bi alde dituela: objektiboa eta subjektiboa. Izan ere, baita ingurune soziolinguistikoko euskaldunenetan ere, oro har, intsertzio-integrazioaren ikuspuntutik, hainbat azterlan kualitatiboetan agertu den moduan, etorkin askoren pertzepzio subjektiboa hori izan da: euskara ikasi ez arren, integratuak senti daitekeela.

## EAEko etorkinen pobrezia-egoerak eta gizarte-desberdintasunak

Amaia Izaola Argüeso  
UPV/EHU

### 1. Sarrera

Lan honetan EAEko etorkinen egoera sozioekonomikoa aztertu da, eta oinarritzat hartu dira Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako (PGDI)<sup>1</sup> datuak. Inkesta horiek informazio asko eta askotarikoa ematen dute. Lan honetan alor hauek aztertuko ditugu: erroldatze-egoera, pobrezia objektiboa eta subjektiboa (norberaren pertzepzioa), eta laguntza publiko nahiz pribatuetatik jasotako diru-sarrerak. Jakina denez, pobrezia eta prekarietatea alderdi askotarikoak izateagatik nabarmentzen dira. Pobrezia-egoera eta gizarte-bazterketa azal ditzaketen alderdiak asko dira; lan honetan, “jatorria” (bertakoa edo atzerritarra) adierazlea erabiliko dugu helburutzat dugun azterketa egiteko abiapuntutzat.

### 2. Atzerriko etorkinen jatorria eta egoera legala

2008an PGDI egin zenean, inkesta horretan jasotako datuen arabera, EAEn zeuden atzerriko etorkinak 110.457 ziren, EAEko biztanleriaren %5,1. PGDIk ez du adierazten atzerriko etorkinen nazionalitatea, baina jatorriaren arabera, hiru multzo handitan sailkatzen ditu etorkinak: 15en Europar Batasuneko etorkinak (EB15), 27en Europar Batasuneko gainerako estatuetakoak (EBko gainerako estatuak) eta Europar Batasunetik kanpoko estatuetakoak (beste estatuak). Sailkapen horren arabera, EAEn guztira zeuden atzerriko etorkinak honela zeuden banatuta 2008an: EB15 estatuetatik etorritako etorkinak %14,2 ziren, EBko gainerako estatuetatik etorritakoak %9,3 eta beste estatuetatik etorritakoak %76,5.


Egoera legalari dagokionez, atzerriko etorkin ia guztiak (etorkinen %98,6) EAEko udalerriren batean zeuden erroldatuta. EAEn erroldatuta ez zeudenen artean (659 pertsona baino ez), 102 EB15 estatuetakoak ziren, eta gainerakoak Europar Batasunetik kanpoko estatuetakoak.

---

<sup>1</sup>Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak lau urtean behin egiten du inkesta hori. Lan honetan erabili ditugun datuak 2008an egindako inkestakoak dira.

Espero bezala, atzerriko etorkinen jatorriak eta erroldatuta daramaten denborak badute lotura; erroldatuta denbora gehien daramatenak EB15 estatuetakoko etorkinak dira, eta gutxien daramatenak EBtik kanpoko estatuetakokoak (1. grafikoa).

1. grafikoa. EAEn erroldatuta daramaten denbora, jatorriaren arabera



Iturria: 2008ko PGDIko datuak erabilita egina<sup>2</sup>

### 3. Pobrezia-egoera objektiboa eta pobreziari buruzko norberaren pertzepzioa

1975ean, Europako Erkidegoetako Kontseiluak proiektu pilotuen eta azterketa pilotuen programaren gaineko erabakia onartu zuen pobreziari aurre egiteko (geroago, Pobretasunaren aurkako Lehen Europar Programa izena eman zitzaion). Erabaki horretan, lehendabiziko aldiz honela definitu zituzten *pertsona pobeak*: “bizi diren gizartean espero izatekoa den ongizate-mailara iristeko behar adina baliabiderik ez duten pertsonak edo familiak” dira. Hamarkada bat geroago, 1984ko abenduaren 19an, Kontseiluak beste erabaki bat onartu zuen Pobreziaren aurkako Bigarren Programaren barnean. Erabaki horrek definizioa garatu eta definizio berri bat sortu zuen, eta, orduztik, pobreziaren gaineko hurbilketa guztien erreferentziatzat hartu da European. Definizio horren arabera, “pertsona edo familia pobeak dira bizi diren gizartean espero izatekoa den ongizate-mailara iristeko behar adina ekonomia-, kultura- eta gizarte-baliabiderik ez duten pertsonak edo familiak”.<sup>3</sup>

Azterketak ikuspuntu horretatik eginda, PGDIren arabera, pobrezia-egoera oinarrizko beharrak asetzeko (batik bat elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoekin zerikusia dutenak) gastuei aurre egiteko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izateari dagokio.

Pobrezia gizarte-fenomenoa da eta biztanleek oinarrizko beharrak asetzeko (batik bat elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoekin zerikusia dutenak) behar adinako baliabide ekonomikorik ez izateari dagokio, ez eta zerbitzu publiko handiek emandako beharrak asetzeko ere –hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuak-. Beraz, Euskadiko gizartearen antzekoetan behi-

<sup>2</sup>Kopuruak ez dira ehun izatera iristen erroldatuta ez daudenak ez direlako adierazi, ez eta beste autonomia-erkidego batzuetan erroldatuta daudenak ere.

<sup>3</sup>Ayala, L. et al. (1998). *Las condiciones de vida de la población pobre en España*, FOESSA Fundazioa, Madril, 120. or.; Martínez, J.L. (arg.) (2005). *Exclusión social y discapacidad*, Comillas Eliz Unibertsitatea, Madril, 96. or.



nik behin, pobrezia ez da espero den ongizate-egoera maila jakin batera iristeko gabezia, benetan oinarritzkoak diren beharrei aurre egiteko adina baliabide ez izatearen egoera baizik<sup>4</sup>.


Gabezia-egoerak osagarriak diren bi ikuspuntutatik aztertu dira: ikuspuntu *subjektiboa* (norberak bere egoerari buruz duen pertzepzioari dagokio) eta ikuspuntu *objektiboa* (oinarritzko beharren gabeziari dagozkien egoera eta maila desberdinak aztertzeari dagokio).

Lehenengo ikuspuntua galdera hau eginaz aztertu da: “Zure baliabide ekonomikoak kontuan izanik, zure etxea zer egoeratan dagoela esango zenuke?” (2. grafikoa).

Oro har, biztanleriaren %60k ongizate-egoeran dagoela dio; egoera-maila horretan sentitzen diren gehiengoak (%43k) muturrekoa ez den aukera hautatzen du, hau da, “oso ona ez den ongizate-egoeran” dagoela dio. Ongizate-gabezia egoeran daudenen artean ere, gehiengoak muturrekoa ez den aukera hautatzen du (%29,5ek), eta “larria ez den ongizate-gabezia” egoeran dagoela dio.

Jatorriari erreparatuz gero, EBtik kanpoko estatuetakoa biztanleak dira ekonomia-egoera larriengan sentitzen direnak: ia bi pertsonatik batek (%49,3) ongizate-gabezia egoeran edo ongizate-gabezia egoera larrian dagoela sentitzen du; larrien sentitzen diren bigarren taldekoekin alderatuz gero, EBko gainerako estatuetakoa herritarrekin hain zuzen, askoz gehiago dira, ongizate-gabezia edo ongizate-gabezia larria dutela sentitzen duten pertsonak lautik bat baitira EBko gainerako estatuetan.

2. grafikoa. Norberaren egoeraren pertzepzioa, baliabide ekonomikoen arabera



Iturria: 2008ko PGDIko datuak erabilita egina

Atal honen hasieran aipatu bezala, egoera ekonomikoari dagokion norberaren pertzepzioa azterteaz gainera, PGDIin oinarritzko beharrak asetzeko (elikadura, etxebizitza eta arropa, esaterako) gabezia-egoera objektibagoak ere aztertzen dituzte.

Elikadurari dagokionez, adierazle gisa hauek hartzen dira kontuan: elikadura ea orekatua eta askotarikoa den (haragia, arraina, fruta), inkestan parte hartu dutenek ea elikadura lortzeko behar

<sup>4</sup>Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saileko Estatistika Organo Berezia (2008). *25 urtez pobretasuna ikertzen Euskadin*, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz, 25.-26. or.

adina baliabide dituzten, eta aipatutako produktuak ea gutxienez astean bitan jan ditzaketen. Etxebizitzari dagokionez, galdera hauek egiten zaizkie inkestako parte-hartzaileei: ea beren etxebizitzan bizitzeko arazorik duten (itoginak, hezetasuna, etxebizitzaren egitura-arazoak), bai eta ekipamenduak dituzten edo ez, eta ea instalazioen gabeziak dituzten edo ez (besteak beste, ur beroaren instalazioa, elektrizitate-instalazioa eta osasun-instalazioak). Arropari dagokionez, erabilitako adierazlea ea ekonomikoak baino ez diren arazoengatik bigarren eskuko arropa erosi behar izan duten izan da. Egoera horietako bakoitza era desberdinean mailakatu da. Adierazle horiek guztiak, bai eta jatorriaren araberrako emaitzak ere, 3. taulan adierazi dira.

1. taula. Elikadura-, etxebizitza-, arropa- eta oinetako-arazoak

Jatorria	Elikadura-arazoak			Etxebizitza-arazoak				Arropa- eta oinetako-arazoak
	Arazorik ez	Arazoak (larriak)	Arazoak (oso larriak)	Oso larriak	Larriak	Ez hain larriak	Arazorik ez	
Bertakoak	95,5	3,1	1,4	1,5	8,2	25,4	64,9	2,9
EB15	91,5	8,3	0,2	0,0	7,9	30,3	61,8	4,5
Gainerako EB	77,7	0,0	22,3	0,4	40	43,1	16,5	15,1
Beste estatuak	68,2	13,9	17,9	0,8	37,8	32,5	28,9	22,6

Iturria: 2008ko PGDIko datuak erabilia egina

Elikadura-arazoei erreparaturuz gero, jatorriaren araberrako talde guztietan elikadura-arazorik ez dutela diotenak gehiengoa badira ere, jatorriak sekulako eragina duela ikus dezakegu. Espainiak osatzen duen nukleotik alden du ahala (“bertako” deritzeguneren eremutik), elikadura-arazoak are agotu egiten dira. “Bertako”ek egoera oparoena dutela diote (%95,5ek arazorik ez duela dio), baina egoera zertxobait okertzen da EB15 estatueta (%91,5); are okerragoa da EBko gainerako estatueta (%77,7), eta asko okertzen da EBtik kanpoko estatueta (%68,2). Beste taldeetako pertsonekin alderatuta, EBtik kanpoko estatueta pertsona gehiagok aitortzen dute elikadura-arazo larriak eta oso larriak dituztela: ia hirutik batek.

Etxebizitzari dagokionez, etxebizitza-arazorik ez dutela aitortzen dutenak elikadura-arazorik ez dutela aitortzen dutenak baino askoz gutxiago direla aipatu behar dugu. Gainera, etxebizitza-arazoei dagokienez, jatorriak eragin handiagoa duela ere azpimarratu behar da. Bertako pertsona eta EB15 estatueta diren pertsona gehiagok diote ez dutela etxebizitza-arazorik: %64,9k eta %61,8k, hurrenez hurren. EBko gainerako estatueta eta EBtik kanpoko estatueta, berriz, egoera okertu egiten da eta gutxiengoa dira arazorik ez dutela diotenak (%16,5 eta %28,9). Normala denez, azken bi talde horietako pertsonak dira arazo gehien dituztela diotenak.

Azkenik, arropari dagokionez, berriro ere lotura zuzena dago jatorriaren eta alor honetan dituzten arazoaren artean: bertakoek eta EB15 estatueta pertsonen oso arazo gutxi dituzte (%2,9k eta %4,5ek, hurrenez hurren); arazo ekonomikoak direla eta bigarren eskuko arropa erosi behar dutenak EBko gainerako estatueta %15,1 dira, eta EBtik kanpoko estatueta %22,6.


PGDIk beste azterketekiko duen berezitasun bat da hiru multzo edo talde desberdin adierazteko egiten duten esfortzu metodologikoa; talde horiek pobrezia/ongizate mailetan mantentzearekiko duten loturaren araberrera sailkatzen dira: pobrezia, ongizate- gabezia eta ongizatea<sup>5</sup>.

<sup>5</sup>Sanzo, L. (2009). “El significado social de los conceptos de pobreza y ausencia de bienestar”, *Zerbitzuan*, 46. zk., . 7-34. orr.

Arestian PGDIk *pobrezia* nola definitzen duen aipatu dugu: epe laburrean oinarritzko beharrak asetzeko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izatearen egoera da. *Ongizate-gabezia*, berriz, honela definitzen dute: “gizarte jakin batean, gizarte horretako gutxieneko ongizaterako eta erosotasunerako beharrezkotzat jotzen diren gastuei aurre egiteko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izatea epe laburrean”; eta beharrezkoak diren gastuak zein diren zehazten da: “gutxieneko baldintzetan bada ere, gizarte horretako bizimoduan, ohituretan eta jarduera arruntetan parte hartzeko beharrezkotzat jotzen diren gastuak” dira. Onuragarriak ez diren aurreko bi egoerak ez bezala, *ongizate-egoera* hau da: oinarritzkoak diren beharrak asetzeko eta ongizate-egoeran egoteko beharrezkoak diren gastu minimoei aurre egiteko baliabidegabeziarik ez izatea epe laburrean.

Atal honekin amaitzeko, egoera desberdin horiengan jatorriak duen eragina adieraziko dugu labur-labur (3. grafikoa).

3. grafikoa. Ongizate- edo/eta pobrezia-egoera kasuen ehunekoak



Iturria: 2008ko PGDIko datuak erabilita egina

Lehendabizi ongizate-egoerei erreparatuko diegu. Espero bezala, atal honetan orain arte aipatutakoa kontuan izanik, bertako biztanleak eta EB15 estatueta biztanleak dira ongizate-egoeran dauden gehiengoa: biztanleriaren %86,9 eta %87,2, hurrenez hurren. Talde bakoitzeko herritarren gehiengoa ongizate-egoeran egon arren, ongizate-egoeran dauden ehuneko txikiagoa da EBko gainerako estatueta (%68,5) eta EBtik kanpoko estatueta (%51,3).


Pobrezia-egoeran dauden eta ongizate-gabezia dauden datuen azterketa, berriz, lan honetan azaldu baino konplexuagoa da.

Aipagarriak dira EBko gainerako estatueta eta EBtik kanpoko estatueta herritarren arteko desberdintasunak: EBtik kanpoko estatueta pobrezia-egoeran dauden herritar asko dira (%30 egoera horretan dago); EBko gainerako estatueta, berriz, pobrezia-egoeran dauden herritarren ehuneko txikia da, ia pobrezia-egoeran dauden bertako herritarren ehuneko bezain txikia. EBko gainerako estatueta biztanleak dira ongizate gabezia dauden gehiengoa –bai talde-mailan, bai talde guztiak kontuan hartuta ere–.

#### 4. Laguntza publiko nahiz pribatuetatik jasotako diru-sarrerak

PGDIn adierazi egiten dira jasotako diru-sarreraren iturriak; hau da, pobrezia-egoeran eta ongizate gabezian egon daitezkeen pertsona eta familien egoerak hobera egiteko jasotako diru-sarrerak zer iturritatik jaso dituzten. Lan honetan, batez ere, publikoak diren laguntza ekonomikoei erreparatuko diegu (oinarrizko errenta, gizarte-larrialdietarako laguntzak, batez ere, baina baita bekak, jaiotza edo adopzioagatiko prestazioak, eta abar ere), bai eta gizarte zibilaren laguntza osagarriei ere (bai senideengandik eta baita gizarte-erakundeetatik jasotako laguntzak ere) (4. grafikoa).

4. grafikoa. Laguntza ekonomikoak: publikoak, pribatuak eta senideek emandakoak



Iturria: 2008ko PGDIko datuak erabilia egina<sup>6</sup>

Oinarrizko errenta (lehen, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera) biztanleriaren %1,3k jasotzen du eta gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) %1,8k. Horiekin batera, “beste diru-sarrera sozialak” izeneko taldearen barnean sartuko ditugun laguntza-multzo zabala ere aipatzekoa da. Talde horrek laguntza hauek hartzen ditu barnean: ikasketa-bekak, arautuak edo araututa ez daudenak; adingabekoentzako laguntzak (besteak beste, jantokirako eta haurtzaindegirako laguntzak); udalek emandako gizarte-laguntzak (besteak beste, etxebizitza-laguntzak); laneko kalte-ordainak; jaiotza edo seme-alabak adoptatzeagatiko prestazioak; eta azkenik, lana eta familia bateratzeko laguntzak. Laguntza-mota horiek pertsona gehiagok jasotzen dituzte, biztanleriaren %18,9k.


Jarraian, hartzaileen jatorriaren arabera, laguntza eta diru-sarrera horiek nola sailkatzen diren aztertuko dugu. Osagarriak diren bi ikuspuntutatik egingo dugu sailkapena: hasieran, hainbat taldek laguntza horiei zer erabilera ematen dieten aztertuko dugu (5. grafikoa); jarraian, laguntza-mota bakoitza hartzaileen jatorriaren arabera nola sailkatzen den (6. grafikoa). Azterketa bi ikuspuntutatik egitea beharrezkoa dela irizten dugu.

Oinarrizko errentari eta gizarte-larrialdietako laguntzei (GLL) dagokienez, EB15 estatuetako pertsonak ez dituztela laguntza horiek jasotzen ikus dezakegu. Bertako biztanleriaren %1ek jasotzen du oinarrizko errenta; eta oinarrizko errenta jasotzen dutenen ehunekoaren parekoa da GLL laguntzak jasotzen dituztenena (%1,1). EBtik kanpoko estatuetako biztanleak dira bi laguntza-mota horiek jasotzen dituztenen artean ehuneko altuenak dituztenak (%9,3k jasotzen du oinarrizko errenta eta %18,9k gizarte-larrialdietako laguntzak). Aipagarria da EBko gainerako estatuetako pertsonen egoera: oinarrizko errenta jasotzen duten talde honetako biztanleak gutxi diren arren (%2), gizarte-larrialdietako laguntzak jasotzen dituztenak asko dira (%15,6). “Beste diru-sarrera sozialak” taldeko laguntzak dira –aipatu bezala, talde horrek hainbat laguntza hartzen

<sup>6</sup>Laguntza-mota bat baino gehiago jasotzen ari diren pertsonak egon daitezke, laguntzak osagarriak baitira.

ditu barnean-, jatorriaren arabera talde guztiek gehien eskatzen dituzten laguntzak: EBtik kanpoko estatuetakoa herritar askok (%41,4) jasotzen dituzte; EBko gainerako estatuetakoa herritarren ehunekoa (%37,7) ere altua da, eta, azkenik, EB15 estatuetakoa eta bertako herritarren ehunekoak daude, eta pareko ehunekoa dute.

5. grafikoa. Jatorria eta jasotako laguntzak



	Beste diru-sarrera sozialak	GLL	Senideen laguntzak	Oinarrizko Errenta	Laguntza pribatuak
Beste estatuak	41,5	18,9	17,7	9,3	4,7
EB gain.	37,7	15,6	1,6	2,0	0,0
EB15	17,8	0,0	4,6	0,0	0,0
Bertakoak	17,9	1,1	4,7	1,0	0,3

Iturria: 2008ko PGDIko datuak erabilita egina

Laguntza publikoek gainera, egoera batzuetan beste laguntza-mota batzuk jasotzen dituzte etorkinek, bai senideek, lagunek eta auzokoei emanak, bai eta gizarte-erakundeek emanak, besteak beste, Caritasek eta Gurutze Gorriak emanak. Senideek, lagunek eta auzokoei emandako laguntzak batez ere EBtik kanpoko estatuetakoa pertsonentzat dira garrantzitsuak: estatu horietako pertsonen %17,7k azken hamabi hilabeteetan mota horretako laguntzak jaso izana baieztatzen du. Bertakoek eta EB15 estatuetakoa pertsonen mota horretako laguntza gutxiago jasotzen dituzte (%4,7 eta %4,6), eta EBko gainerako estatuetan ia ez dituztela jasotzen esan liteke (%1,6). Gizarte-erakundeek dagokienez, oso laguntza gutxi ematen dira, eta EBtik kanpoko estatuetakoa pertsonen artean baino ez dira aipagarriak (talde horretako pertsonen %4,7k dio mota horretako laguntzak jaso dituela).


Senideek, lagunek, bai eta auzokoei ere zuzenean emandako laguntzak, batez ere, Europatik kanpoko estatuetakoa pertsonen jasotzen dituzte. Aipatutako egoera horrek egoera desberdinetan pertsonen egin beharreko bidaiaren kostuarekin izan dezake lotura zuzena. Laguntza horiek jasotzen dituzten bertako herritarren eta EB15 estatuetakoen ehunekoak parekoak dira; EBko estatu kide berrietako herritarrek, berriz, senideen, lagunen eta auzokoen laguntza gutxien jasotzen dutenak dira.

Kasu horretan, erakunde pribatuetatik jasotako diru-laguntzak dira gutxien eskatzen dituzten laguntzak. Jatorriari dagokionez, Europatik kanpoko estatu guztiak barnean hartzen dituen taldeko pertsonak dira erakunde pribatuetatik jasotako laguntza gehien jasotzen dituztenak (%4,7), eta berta-

koen %0,3k jasotzen ditu. Ehunekoek garbi erakusten dute Europako estatueta pertsonak ez dituztela mota horretako laguntzak eskatzen.

Atal honen hasieran aipatu bezala, azterketa hau osatzeko behar-beharrezkoa iruditzen zaigu hartzailen jatorriaren arabera laguntza-mota bakoitza nola sailkatzen den aztertzea (6. grafikoa).

6. grafikoa. Laguntzen sailkapena, jatorriaren arabera



Iturria: 2008ko PGDIko datuak erabilia egina

Espero bezala, ikus dezakegun lehendabiziko gauza zera da: aztertu diren laguntza-mota guztiak kontuan izanik, bertako pertsonak direla laguntzen gehiengoa jasotzen dutenak. Oinarritzko errenta jasotzen duten pertsona guztiak kontuan izanik, bertakoak %70,8 dira; GLL jasotzen dituztenen artean %55,7; eta beste diru-sarrera sozialak jasotzen dituztenen artean %89,7. Senideen, lagun eta auzokoen laguntzak jasotzen dituztenen artean ere gehiengoa dira (%85,7), bai eta gizarte-erakundearen laguntzak jasotzen dituztenen artean ere (%89,7). EB15 estatueta biztanleek, berriz, ia ez dute laguntzarik jasotzen.

Atzerriko etorkin gisa adierazi ohi ditugun taldeei dagokienez, EBko gainerako estatueta eta EBtik kanpoko estatueta herritarren taldeei dagokienez hain zuzen, jasotako laguntzen arabera duten egoera honakoa da: lehen taldekoek laguntza oso gutxi jasotzen dituzte (biztanleen %4k baino ez ditu jasotzen gizarte-larrialdietarako laguntzak); EBtik kanpoko estatueta pertsonak, berriz, ehuneko handiak dituzte laguntza-mota guztietan (“beste laguntza sozialak” taldeko laguntzetan salbu), euskal biztanleria osotasunean hartuta duten pisu demografikoa baino handiagoak. GLL laguntzak jasotzen dituzten guztien artean, EBtik kanpoko estatueta pertsonen %40,3k jasotzen ditu laguntza horiek, eta oinarritzko errenta jasotzen duten guztien artean, %28,5k jasotzen ditu; gizarte-erakundeek emandako laguntzak jasotzen dituzten guztien artean ere, ehuneko altua dute (%38,2).

## 5. Ondorioak

Artikulu honetan azaldu dugun azterketa laburrak ez du, inondik inora, EAEko etorkinen pobrezia-egoera eta gizarte-bazterketa sakon aztertzen. Gure xedea, egoera horren inguruko hurbilketa bat egitea baino ez da izan. Horretarako, PGDI aztertu ohi ez dituzten datu batzuk aztertu ditugu.

Egindako azterketatik, hauek dira ondorio gisa nabarmentzeko ideiak:

1. Etorkinek, eta batez ere EBtik kanpoko estatuetatik etorritakoek, gure gizarteko talde oso ahula osatzen dute. Pertsona horiek dira beren egoera ekonomikoari buruzko balorazio ezko-rranak egiten dituztenak; elikadura- eta arropa-arazoak dituztela aitortzen dutenen artean gehiengoa dira, eta pobrezia eragin gehien jasaten dutenak. Hala ere, EBtik kanpoko estatuetakoko pertsona horiek ez dira etxebizitza-arazo larrienak dituztela aitortzen dutenak. Horren harira, etxebizitza-arazo larrienak dituztenak EBko gainerako estatuetakoko pertsonak direla aipatu behar dugu, bai eta ongizate-gabezia jasaten dutenen artean gehiengoa direla ere.
2. Lehen puntuari aipatutakoaren ondorio gisa, bi talde horietako biztanle askok jasotzen dituzte laguntza publikoak, batez ere “beste diru-sarrera sozialak” izeneko taldeak barnean hartzen dituen laguntzak, eta GLL gutxiago jasotzen dituzte. EBtik kanpoko estatuetakoko pertsonentzat garrantzi berezia dute senideengandik, auzokoengandik eta lagunengandik jasotako laguntzek.
3. Etorkinen taldeak egoera ahulean daudenez, gizarte-laguntza publiko eta pribatuak behar-beharrezko baliabideak dira pertsona horien bizitzarako. Jatorriari dagokionez laguntza horiek nola sailkatzen diren aztertuz gero, onura gehien lortzen dituzten pertsonak EBtik kanpoko pertsonak direla ikusiko dugu, zer laguntza-mota diren kontuan izan gabe. Laguntza horiek nola sailkatzen diren aztertzen badugu, berriz, laguntza gehien jasotzen dutenak bertako biztanleak direla ondorioztatuko dugu, laguntzak edozein motatakoak direla ere, eta horien atzetik EBtik kanpoko estatuetakoko pertsonak jasotzen dute laguntza gehien

Pentsa dezakegu desberdintasun horiek guztiek talde desberdinek egiten dituzten migrazio-ibilbide desberdinekin dutela zerikusia, bai eta doazen gizartean dauden finkatzeko eredu desberdinekin ere. Ibilbide eta eredu horiek sakonki aztertzea oso interesgarria izango litzateke, EAEko etorkinen pobrezia-egoeren eta bazterketen azterketan sakontzeko. Artikulu honetan hasiera baino ez diogu eman azterketa horri.





## Bizitoki-aldaketak EAEn (2000-2009)

Beatriz Otero  
UPV/EHU

### Sarrera

2000-2010 epean<sup>1</sup> Euskal Autonomia Erkidegoan izan diren atzerritarren eta bertakoen migrazio-fluxuei (emigrazio eta immigrazio) buruzko Bizitoki-Aldaketen Estatistikak (BAE)<sup>2</sup> emandako emaitzak aztertuko ditugu artikulu honetan. Helburua da atzerriko biztanleen eta bertakoen aldetik erroldan izandako alta eta baje ikuspegia osatzea, eta, orobat, migrazio-mugimendu horien ezaugarri nagusiak zein diren azaltzea.

Hauxe da dokumentuaren egitura: lehenik eta behin, atzerriko eta bertako biztanleen mugimenduetatik ateratako migrazio-saldoak aztertu ditugu, baita jatorriaren/jomugaren arabera fluxu horiek nola banatuta dauden ere. Bigarrenik, fluxu horiek aparte aztertu ditugu, bereizketa hauek eginda: 1) Atzerritik iritsi diren immigrazio-fluxuak; 2) Atzerrira jo duten emigrazio-fluxuak; 3) Beste autonomia-erkidego batetik iritsi diren immigrazio-fluxuak; 4) Beste autonomia-erkidego batera jo duten emigrazio-fluxuak. Azkenik, migrazio-mugimendu horien ezaugarriei buruzko zenbait ondorio bildu ditugu.

### 1. Migrazio-fluxuen azalpena (alta eta baje eta migrazio-saldoen laburpena)

Azken hamar urteotan EAEn izan diren migrazio-mugimenduak<sup>3</sup> aintzat hartuta, mugimenduen saldoa positiboa da; hots, erroldan altak gehiago izan dira bajak baino. Batez ere atzerriko biztanleen migrazio-mugimenduen eraginez gertatu da hori; izan ere, atzerritarren kasuan,

<sup>1</sup>2002. urtean hasi ziren jasotzen atzerrira egindako emigrazioei buruzko datuak. Hori dela eta, emigrazio-fluxu horiei dagokionez, 2002-2009 epea baino ez dugu aztertu.

<sup>2</sup>Udal erroldetan bizitoki-aldaketak tarteko direla izan diren alta eta bajei buruzko informazioa landuz osatzen da estatistika hori. BAEk urteko migrazio-fluxuei buruzko informazioa ematen du, bai barneko fluxuena, Espainiako udalerrien artean izen diren migrazioei buruzkoa, eta bai kanpoena, Espainiako udalerrien eta atzerriaren artean izan diren mugimenduen. Garrantzitsua da ohartaraztea estatistikan jasotako urteko migrazio-fluxuetan migrazioak edo mugimenduak adierazten direla eta ez migratzaileak; izan ere, pertsonak berak urtean behin baino gehiagotan aldatu dezake bizitokiz eta udalerriz.

<sup>3</sup>Saldo horiek kalkulatzeko, hauek hartu ditugu kontuan: atzerritik edo beste autonomia-erkidego batetik iritsi eta erroldan izan diren altak eta atzerrira edo beste autonomia-erkidego batera joan eta erroldan izan diren bajak.

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

immigrazio-fluxuak handiagoak dira emigrazio-fluxuak baino. Aitzitik, bertako biztanleen mugimenduak aztertuz gero, saldoa negatiboa da. Nolanahi ere, bada nabarmentzeko datu bat: azken bi urteotan kolektibo horren erroldako alta eta bajeen arteko aldea estutu egin da.

Migrazio-saldoak goranzko joerari eutsi dio azken urtera arte; azken urtean, aldiz, erroldan izan diren alta eta bajeen arteko aldea ia erdira murriztu da. Atzerriko biztanleen erroldan alta eta bajeen arteko aldea txikitu egin delako gertatu da funtsean murrizte hori. Esan genezake gaur egungo ekonomia-krisiaren eraginez, atzerritarren immigrazio-mugimendu gutxiago izan dela eta, aldiz, emigrazio-mugimendu gehiago.

EAEko migrazio-saldoa (2002-2009 urteak)

	Guztira			Atzerriko biztanleria			Bertako biztanleria		
	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa
2002	26.573	21.097	5.476	12.943	2.242	10.701	13.630	18.855	-5.225
2003	28.843	21.670	7.173	14.335	2.643	11.692	14.508	19.027	-4.519
2004	32.681	24.650	8.031	18.766	5.673	13.093	13.915	18.977	-5.062
2005	35.339	25.213	10.126	21.809	7.000	14.809	13.530	18.213	-4.683
2006	40.046	28.101	11.945	26.973	9.103	17.870	13.073	18.998	-5.925
2007	44.645	30.660	13.985	31.529	11.487	20.042	13.116	19.173	-6.057
2008	43.714	29.030	14.684	30.637	11.951	18.686	13.077	17.079	-4.002
2009	38.626	31.071	7.555	24.962	14.680	10.282	13.664	16.391	-2.727

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Bestalde, fluxu mota desberdinek atzerriko eta bertako biztanlerian duten garrantziari erreparatu diegu hurrengo tauletan. Lehen taulan, immigrazio-mugimenduei dagokienez, jabetuko gara pixkanaka gero eta handiagoa dela beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsitako atzerritarren alden ehunekoak, eta, horrenbestez, zuzenean atzerritik iritsi eta erroldan alta eman duten etorkinen ehunekoak apaldu egin dela. Emigrazio-mugimenduei dagokienez, joera alderantzikatu egin da aztertutako urteetan. Epearen hasieran, mugimendu gehiago izan zen beste autonomia-erkidego batzuetara atzerrira baino. Alabaina, 2006tik aurrera atzerritarren migrazio-mugimendu gehien-gehienak zuzenean atzerrira izaten hasi ziren.

Atzerriko biztanleriaren immigrazio- eta emigrazio-fluxuak (2000-2009)

	Immigrazioa				Emigrazioa			
	Atzerritik		Beste AE batetik		Atzerrira		Beste AE batera	
	K	%	K	%	K	%	K	%
2000	6.310	84,5	1.158	15,5				
2001	9.179	87,6	1.302	12,4				
2002	9.453	73,0	3.490	27,0	380	16,9	1.862	83,1
2003	10.052	70,1	4.283	29,9	472	17,9	2.171	82,1
2004	13.808	73,6	4.958	26,4	2.726	48,1	2.947	51,9
2005	16.811	77,1	4.998	22,9	3.329	47,6	3.671	52,4
2006	21.668	80,3	5.305	19,7	4.880	53,6	4.223	46,4
2007	24.299	77,1	7.230	22,9	6.071	52,9	5.416	47,1
2008	22.366	73,0	8.271	27,0	7.550	63,2	4.401	36,8
2009	16.375	65,6	8.587	34,4	10.059	68,5	4.621	31,5

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Bertako biztanleriari dagokionez, EAEko erroldan izan diren alta eta baja gehienak beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsi diren edo beste autonomia-erkidego batzuetara joan diren pertsonenak izan dira. Nabarmentzekoa da bertako biztanleek atzerrira egindako emigrazio-mugimenduak, apal bada ere, ugaritu egin direla azken bi urteotan.

Bertako biztanleriaren immigrazio- eta emigrazio-fluxuak (2000-2009)

	Immigrazioa				Emigrazioa			
	Atzerritik		Beste autonomia-erkidego batetik		Atzerrira		Beste autonomia-erkidego batera	
	K	%	K	%	K	%	K	%
2000	1.312	10,4	11.363	89,6	1.586	8,4	17.269	91,6
2001	830	6,8	11.363	93,2	1.118	5,9	17.909	94,1
2002	1.538	11,3	12.092	88,7	1.097	5,8	17.880	94,2
2003	1.633	11,3	12.875	88,7	1.206	6,6	17.007	93,4
2004	1.636	11,8	12.279	88,2	1.373	7,2	17.625	92,8
2005	1.557	11,5	11.973	88,5	1.696	8,8	17.477	91,2
2006	1.373	10,5	11.700	89,5	1.852	10,8	15.227	89,2
2007	1.262	9,6	11.854	90,4	1.832	11,2	14.559	88,8
2008	1.258	9,6	11.819	90,4	1.586	8,4	17.269	91,6
2009	1.202	8,8	12.462	91,2	1.118	5,9	17.909	94,1

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

## 2. Atzerritik iritsitako eta atzerrira joandako fluxuak

Ondorengo taulan ikus daitekeenez, atzerritik iritsi eta erroldan alta emandakoak gehiago dira atzerrira joan eta baja emandakoak baino. Batez ere atzerritarren mugimenduen eraginez gertatu da hori. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da 2008. urtetik aurrera, gaur egungo ekonomia-krisia dela eta, erroldan baja eman eta atzerrira joan diren kanpotarren kopurua gehiago hazi dela atzerritik iritsitako kanpotarren immigrazio-fluxuak baino. Aitzitik, bertako biztanleriaren alta eta baje kopuruak eta ehunekoak nahiko antzekoak izan dira aztertutako epe osoan.

Immigrazio- eta emigrazio-fluxuak atzerrira (2002-2009)

	Guztira			Atzerriko biztanleria			Bertako biztanleria		
	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa
2002	10.991	1.966	9.025	9.453	380	9.073	1.538	1.586	-48
2003	11.685	1.590	10.095	10.052	472	9.580	1.633	1.118	515
2004	15.444	3.823	11.621	13.808	2.726	11.082	1.636	1.097	539
2005	18.368	4.535	13.833	16.811	3.329	13.482	1.557	1.206	351
2006	23.041	6.253	16.788	21.668	4.880	16.788	1.373	1.373	0
2007	25.561	7.767	17.794	24.299	6.071	18.228	1.262	1.696	-434
2008	23.624	9.402	14.222	22.366	7.550	14.816	1.258	1.852	-594
2009	17.577	11.891	5.686	16.375	10.059	6.316	1.202	1.832	-630

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

### Atzerritik iritsitako immigrazio-fluxuak

Gaur egun, atzerritik iritsi eta EAEko erroldan alta ematen duten gehienak (%93,2) atzerriko biztanleak dira. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, aztergai dugun epean atzerritarren ehunekoak hazi egin da nazionalitate espainiarra duten pertsonen aldean. Hazi egin da, zehazki, 2008ra arte, urte horretatik aurrera, ekonomia-krisiaren ondorioek eraginda, beheratu egin baita zertxobait. Hala, atzerritik iritsi diren kanpotarren biztanlerian 8.000 alta gutxiago izan dira 2007tik 2009ra. Bestalde, bertakoen ehunekoan ez da gorabehera handirik izan eta, goitik edo behetik, urtean bertako 1.200-1.500 pertsonak eman dute alta erroldan. Dena dela, kopuru horrek ere behera egin du azken urteotan.

Atzerritik iritsitako altak nazionalitatearen arabera

	Atzerriko biztanleria		Bertako biztanleria		Guztira
	K	%	K	%	K
2000	6.310	82,8	1.312	17,2	7.622
2001	9.179	91,7	830	8,3	10.009
2002	9.453	86,0	1.538	14,0	10.991
2003	10.052	86,0	1.633	14,0	11.685
2004	13.808	89,4	1.636	10,6	15.444
2005	16.811	91,5	1.557	8,5	18.368
2006	21.668	94,0	1.373	6,0	23.041
2007	24.299	95,1	1.262	4,9	25.561
2008	22.366	94,7	1.258	5,3	23.624
2009	16.375	93,2	1.202	6,8	17.577

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Atzerritik iritsitako atzerritarren altetan gizonezkoen ehunekoa zertxobait handiagoa da atzerritik iritsi diren nazionalitate espainiarreko pertsonena baino. Gainera, atzerritik iritsitako kanpotarren mugimenduetan emakumeen immigrazioak behera egin du 10 urte hauetan. Bertako biztanleen kasuan, emakumeen mugimenduek goranzko joerari eutsi zioten 2006 arte. Urte horretatik aurrera jaisten hasi ziren. Nolanahi ere, migrazio-mugimendu horietan guztietan emakumeen ehunekoa handiagoa da gizonezkoena baino.

Atzerritik iritsitako immigrazio-fluxuak sexuaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Atzerritarrak</b>										
Gizonak	48,5	50,8	52,1	49,0	50,2	50,0	49,4	53,2	54,1	52,3
Emakumeak	51,5	49,2	47,9	51,0	49,8	50,0	50,6	46,8	45,9	47,7
Guztira (Kop.)	6.310	9.179	9.453	10.052	13.808	16.811	21.668	24.299	22.366	16.375
<b>Bertakoak</b>										
Gizonak	49,1	49,9	51,2	48,3	46,7	44,8	45,0	49,2	51,5	49,1
Emakumeak	50,9	50,1	48,8	51,7	53,3	55,2	55,0	50,8	48,5	50,9
Guztira (Kop.)	1.312	830	1.538	1.633	1.636	1.557	1.373	1.262	1.258	1.202

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Immigrazio-fluxu horretako biztanle gehienek 25 eta 44 urte artean dituzte (%47,1ek atzerritarren kasuan eta %38,4k nazionalitate espainiarra duten biztanleen kasuan). Atzerriko immigrazioari dagokionez, hauek dira hurrengo talde nagusiak: 18 eta 24 urtekoena (%21,1) eta 6 eta 15 urte artekoena (%10,9). Aldiz, nazionalitate espainiarra duten pertsonen immigrazioari dagokionez, bigarren taldea 6 urtetik beherako adingabeena da: alta guztien %17,4 dira adin tarte horretakoak. Hurrengo taldea, berriz, 45 eta 64 urte artekoena da. Adinaren aldetik bigarren talde nagusian dagoen alde horrek adierazten du atzerritar gehienek immigrazioak lanarekin duela lotura eta, aldiz, nazionalitate espainiarra duten pertsonen immigrazioak familiarekin duela lotura.

Alabaina, aldagai horrek aztertutako epean izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, jabetuko gara 25-44 urteko biztanleen ehunekoak (lanerako immigrazioarekin lotura handiagoa duen pertsonen portzentajeak, beraz) gora egin duela bertako biztanleen kasuan eta behera atzerriko biztanleen kasuan. Era berean, atzerriko biztanleen immigrazioari erreparatuz gero, familia berriro biltzeko asmoarekin iritsi diren adin-taldeek ehunekoa hazi egin da.

Atzerritik iritsitako immigrazio-fluxuak adinaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Atzerritarrak</b>										
0-5	5,5	6,4	6,8	7,4	5,9	5,7	5,4	5,0	4,6	5,5
6-15	8,6	10,6	10,3	11,6	9,8	11,1	10,9	10,0	9,2	10,9
16-17	1,4	4,0	3,0	3,4	3,0	3,1	3,1	3,2	3,6	4,4
18-24	20,9	19,1	20,3	21,0	20,1	21,3	21,4	22,5	21,8	21,1
25-44	54,5	50,6	49,0	46,5	50,4	48,3	48,5	48,7	50,0	47,1
45-64	7,6	8,0	9,4	8,7	9,4	9,5	9,4	9,6	9,7	9,7
65-74	1,0	1,1	0,9	0,9	1,1	0,7	0,9	0,7	0,9	1,0
75 eta gehiago	0,4	0,2	0,3	0,4	0,4	0,4	0,2	0,2	0,3	0,4
Guztira	6.310	9.179	9.453	10.052	13.808	16.811	21.668	24.299	22.366	16.375
<b>Bertakoak</b>										
0-5	22,0	37,3	18,4	18,1	22,1	23,2	24,1	23,8	18,8	17,4
6-15	9,3	15,3	9,0	7,3	5,8	7,4	7,6	7,1	8,3	9,2
16-17	0,9	0,4	1,2	1,0	2,0	0,4	0,9	1,3	2,3	1,2
18-24	9,9	5,5	10,1	10,7	9,9	9,0	9,2	7,7	8,2	8,2
25-44	28,4	24,3	32,0	36,6	36,3	35,0	35,4	34,6	38,2	38,4
45-64	17,3	8,2	16,8	14,9	13,8	15,6	14,4	14,6	16,0	15,8
65-74	9,5	5,7	7,9	7,8	6,8	5,6	5,2	6,2	4,3	6,5
75 eta gehiago	2,7	3,3	4,6	3,5	3,4	3,8	3,1	4,8	4,0	3,3
Guztira	1.312	830	1.538	1.633	1.636	1.557	1.373	1.262	1.258	1.202

Iturria: Behatokiak landua EInren datuak oinarri hartuta

Atzerriko etorkinen eroldako altetan, Latinoamerikako pertsonak dira kolektibo nagusia (%40,2), nahiz eta, ondorengo taulan ikus daitekeenez, talde horren ehunekoak behera egin duen pixkanaka azken hamar urteotan, eta, aldiz, beste kolektibo batzuenak gora. Horrela, Europako etorkinen immigrazioak gora egin du eta bereziki nabarmena da errumaniarren ehunekoak (%12,5), baita Magrebeko biztanleen (%8,9) eta Asiako etorkinen (%8,9) emigrazioak ere (2009. urtea).

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

Atzerritik iritsitako biztanle kanpotarren immigrazio-fluxuak nazionalitate-eremuen arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB15	12,6	9,1	9,0	10,3	11,5	11,1	10,2	10,9	10,0	9,5
EB25	0,6	0,9	1,7	0,7	1,0	0,9	0,8	1,3	1,1	1,2
Bulgaria/Errumania	2,6	2,9	8,5	10,7	12,8	13,4	13,5	19,0	13,1	12,5
Gainerako EB	2,3	2,9	3,6	3,3	3,6	3,0	2,7	2,9	3,0	3,3
Magreb	11,1	10,3	10,4	10,0	10,0	9,5	9,1	8,7	13,6	15,3
Gainerako Afrika	5,4	4,3	4,2	5,9	4,7	4,5	4,4	4,6	6,8	9,0
Ipar Amerika	1,3	1,1	1,0	0,7	0,9	0,8	0,6	0,6	0,7	1,1
Latinoamerika	60,1	65,1	58,7	54,5	49,7	51,4	54,2	46,9	44,3	40,2
Txina	2,2	2,0	1,6	2,0	3,2	2,2	2,1	2,5	3,7	3,4
Gainerako Asia	1,7	1,3	1,2	1,8	2,4	2,9	2,4	2,5	3,5	4,5
Ozeania	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Aberrigabeak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	6.310	9.179	9.453	10.052	13.808	16.811	21.668	24.299	22.366	16.375

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Atzerritik iritsi diren nazionalitate espainiarreko biztanleen alta gehienak (%52,2) EAEn bertan jaiotako pertsonenak dira; horrek adierazten du itzulerako immigrazioa dela etorkin horiena, eta, bistan denez, gora egin du immigrazio horrek aztertutako epean. Bestalde, immigrazio-mugimendu horietan iritsitako pertsonen %37,2 atzerrian jaiorakoa da; nolana ere, kolektibo horren ehunekoa apaldu egin da pixkanaka hamar urte hauetan.

Atzerritik iritsitako bertako biztanleen immigrazio-fluxuak jaioterriaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EAE	30,6	27,3	34,5	40,7	44,6	42,3	44,2	43,3	46,4	52,2
Beste autonomia-erkidegoak	11,4	8,7	11,4	9,7	10,4	10,8	10,6	10,9	10,3	10,8
Atzerria	57,9	64,0	54,0	49,6	45,0	46,9	45,2	45,8	43,3	37,0
Guztira (Kop.)	1.312	830	1.538	1.633	1.636	1.557	1.373	1.262	1.258	1.202

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Atzerriko biztanleen kasuan, etorkin horien jatorria bat dator, hein handi batean, nazionalitatearekin. Jatorri nagusia Latinoamerika da, baina azken urteotan nabarmen jaitzi da jatorri horren ehunekoa atzerritik iritsitako migrazio-mugimenduetan: 2000. urtean etorkinen %60,4 Latinoamerikatik iritsi zen eta 2009an, aldiz, %28,7. Bestalde, Errumaniaren ehunekoak nabarmen egin du gora. Hirugarren jatorri nagusia Magreb da (%9,5) eta hurrena EB15 (%7,8).

Atzerritik etorri baina nazionalitate espainiarra duten biztanleen altei dagokienez, jatorri nagusiak Latinoamerika eta Europa dira hor ere. Nabarmentzekoa da Latinoamerikaren ehunekoak behera egin duela (2000. urteko %46,3tik 2009ko %30,9ra), eta, aldiz, EB15ek gora (2000. urteko %26,4tik 2009ko ia %38ra).

Atzerritik iritsitako biztanle kanpotarren immigrazio-fluxuak jatorriaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB15	13,0	9,2	9,0	10,8	10,4	10,4	9,6	10,1	8,7	7,8
EB25	0,6	0,9	1,7	0,6	0,9	0,7	0,6	1,1	0,9	0,9
Bulgaria eta Errumania	2,4	3,0	8,4	10,6	11,8	12,6	12,3	17,3	10,8	10,0
Gainerako EB	2,2	2,9	3,6	3,2	2,8	2,3	2,0	2,1	2,0	2,1
Magreb	10,7	10,1	10,1	9,8	8,6	8,4	7,6	7,4	9,1	9,5
Gainerako Afrika	5,1	4,1	4,1	5,6	4,0	3,8	3,6	3,9	4,9	6,6
Ipar Amerika	1,5	1,2	1,0	0,9	0,6	0,7	0,4	0,5	0,6	0,8
Latinoamerika	60,4	65,1	59,2	54,7	44,1	45,0	46,8	40,1	34,4	28,7
Txina	2,1	1,9	1,5	1,9	2,9	1,9	1,5	2,0	2,5	2,0
Gainerako Asia	1,8	1,4	1,2	1,8	2,0	2,5	1,9	2,0	2,2	2,9
Ozeania	0,2	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0	0,1	0,1	0,1
Zehaztu gabea	0,0	0,0	0,0	0,0	11,7	11,7	13,5	13,4	24,1	28,6
Guztira	6.310	9.179	9.453	10.052	13.808	16.811	21.668	24.299	22.366	16.375

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Atzerritik iritsitako bertako biztanleen immigrazio-fluxuak jatorriaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB15	26,4	25,3	24,2	30,7	34,4	33,5	39,0	39,9	37,6	37,9
EB25	0,2	0,2	0,3	0,7	0,5	0,3	0,3	0,6	0,6	0,5
Bulgaria eta Errumania	3,4	5,3	2,7	4,7	3,4	2,4	0,4	0,5	1,3	0,5
Gainerako EB	8,5	7,5	6,4	6,4	7,9	7,6	11,9	7,2	5,5	5,2
Magreb	2,1	1,6	1,2	1,3	1,9	1,5	0,8	1,0	2,4	2,6
Gainerako Afrika	1,9	1,3	1,2	1,7	2,1	2,1	1,9	2,5	1,8	2,2
Ipar Amerika	5,7	5,7	7,0	7,5	7,5	7,7	7,8	7,4	8,7	11,4
Latinoamerika	46,3	47,8	51,1	42,7	34,0	33,7	29,9	31,1	34,1	30,9
Txina	3,6	4,0	2,9	2,4	5,9	8,7	5,4	5,4	3,3	3,7
Gainerako Asia	1,0	0,6	1,8	1,6	1,5	1,2	2,1	3,2	3,9	3,8
Ozeania	0,8	0,7	1,2	0,4	0,8	0,9	0,5	1,1	0,9	1,2
Zehaztu gabea	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	1.312	830	1.538	1.633	1.636	1.557	1.373	1.262	1.258	1.202

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

### Emigrazio-fluxuak atzerrira

Emigrazio-ehunekoei dagokienez, nabarmentzekoa da gaur egun atzerrira emigratzen dutenen artean %84,6 kanpotarra dela eta %15,4 nazionalitate espainiarrekoa. 2003. urtera arte, atzerrira emigratzen zuten gehienak bertako biztanleak ziren, eta urte horretatik aurrera joera alderantzizkatzen hasi zen eta atzerritarren emigrazioak askoz ugariagoak bihurtu ziren: mugimenduen %80tik gora (10.000 mugimendu baino gehiago). Aztergai dugun epearen hasieran, aldiz, mugimenduen %19,3 baino ez zen atzerritarrena (380 mugimendu). Kanpora emigratzen duten bertako biztanleen kopuruak paretsu eutsi dio: 1.000-2.000 pertsona artean urteko.

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

Atzerrira jo duten biztanleen bajak nazionalitatearen arabera (2000-2009)

	Atzerriko biztanleria		Bertako biztanleria		Guztira
	K	%	K	%	K
2002	380	19,3	1.586	80,7	1.966
2003	472	29,7	1.118	70,3	1.590
2004	2.726	71,3	1.097	28,7	3.823
2005	3.329	73,4	1.206	26,6	4.535
2006	4.880	78,0	1.373	22,0	6.253
2007	6.071	78,2	1.696	21,8	7.767
2008	7.550	80,3	1.852	19,7	9.402
2009	10.059	84,6	1.832	15,4	11.891

*Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta*

Atzerrira emigratu duten atzerritar gehienak gizonetzkoak dira; emigratu duten guztien %62,1, hain zuzen. Immigrazio-mugimenduetan baino handiagoa da gizonetzkoen ehunekoa emigrazio-mugimenduetan. Nazionalitate espainiarra duten biztanleen emigrazioetan, aldiz, handiagoa da emakumeen ehunekoa (%50,0), nahiz eta ehuneko hori apaldu egin den aztertutako epean.

Atzerrira jo duten emigrazio-fluxuak sexuaren arabera (%) (2002-2009)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Atzerritarrak</b>								
Gizonak	60,0	57,8	62,8	61,8	59,9	60,0	61,0	62,1
Emakumeak	40,0	42,2	37,2	38,2	40,1	40,0	39,0	37,9
Guztira (Kop.)	380	472	2.726	3.329	4.880	6.071	7.550	10.059
<b>Bertakoak</b>								
Gizonak	44,8	44,8	44,8	44,3	45,7	49,6	49,8	50,0
Emakumeak	55,2	55,2	55,2	55,7	54,3	50,4	50,2	50,0
Guztira (Kop.)	1.586	1.118	1.097	1.206	1.373	1.696	1.852	1.832

*Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta*

Adinari erreparatuta, atzerrira emigratzen duten gehienak 25 eta 44 urte artekoak dira (%57,9 atzerriko biztanleen artean eta %56,1 bertakoen artean). Nabarmenezkoa da adin tarte horretako kolektiboaren ehunekoa handiagoa dela atzerritik iritsitako immigrazio-mugimenduetan baino. Atzerriko biztanleen artean, hurrengo talde nagusiak 18 eta 24 urte artekoena eta 45 eta 64 urte artekoena dira (%15,1 eta %15,0, hurrenez hurren). Azken talde horren ehunekoa handiagoa da EAERA iritsitako atzerritarren immigrazio-fluxuetan zuenarekin alderatuta. Bertako biztanleen artean, berriz, hauek dira hurrengo talde nagusiak: 45 eta 64 urte artekoena (%12,7) eta 6 urte-tik beherako adingabeena (%11,7). Ez da aldaketa aipagarririk izan aztertutako epean.

Atzerrira jo duten gehienak Latinoamerikako biztanleak dira (%37,3) eta, ondoren, nazionalitate europarrekoak (%34,5). Atzerrira emigratu duten Maltako edo Asiako biztanleen ehunekoa txikiagoa da atzerritik iritsitako immigrazio-mugimenduekin alderatuta. Eboluzioari dagokionez, aipatzekoa da Latinoamerikako eta EB15eko biztanleen ehunekoak behera egin duela, hain zuzen bulgariarren, errumaniarren, afrikarren eta asiarren mesedetan. Immigrazio-mugimenduetan ere hauteman dugu atzerriko biztanleen nazionalitate aldetiko heterogeneotasun hori.



Atzerrira jo duten emigratio-fluxuak adinaren arabera (%) (2002-2009)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Atzerritarrak</b>								
0-5	4,2	3,4	2,8	2,3	2,7	3,4	3,0	3,1
6-15	6,8	10,4	4,8	5,8	4,7	5,3	5,6	5,4
16-17	1,6	1,5	1,9	1,3	1,5	1,2	1,2	1,4
18-24	15,3	15,5	15,4	14,6	15,6	15,2	16,3	15,0
25-44	56,3	54,2	59,3	59,8	60,3	57,9	56,4	57,9
45-64	12,9	12,7	13,6	13,4	13,0	14,7	15,3	15,1
65-74	2,4	1,7	1,4	1,8	1,5	1,4	1,5	1,4
75 eta gehiago	0,5	0,6	0,9	1,0	0,7	0,8	0,8	0,6
Guztira	380	472	2.726	3.329	4.880	6.071	7.550	10.059
<b>Bertakoak</b>								
0-5	0,8	0,5	3,6	4,6	7,0	9,8	9,8	11,7
6-15	0,8	1,5	1,7	3,2	5,5	6,9	12,3	8,0
16-17	1,0	1,1	0,6	1,2	1,0	0,9	0,8	1,0
18-24	14,4	12,5	7,6	9,0	7,5	6,9	5,4	5,7
25-44	64,5	64,7	67,5	66,0	64,8	61,5	56,0	56,1
45-64	11,8	13,6	13,9	10,9	10,5	11,0	11,7	12,7
65-74	4,8	3,8	2,7	3,6	2,3	1,9	2,4	2,8
75 eta gehiago	1,9	2,2	2,2	1,6	1,4	1,1	1,7	2,1
Guztira	1.586	1.118	1.097	1.206	1.373	1.696	1.852	1.832

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Atzerrira jo duten biztanle kanpotarren emigratio-fluxuak nazionalitate-eremuen arabera (%) (2002-2009)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB15	31,8	35,4	20,2	13,6	12,2	11,7	13,6	15,3
EB25	2,6	1,3	1,2	1,4	1,0	1,4	2,1	1,7
Bulgaria/Errumania	4,5	7,6	11,7	9,7	12,0	13,9	19,3	17,5
Gainerako EB	1,8	3,2	3,0	4,1	2,7	2,3	3,0	2,6
Magreb	6,8	9,1	20,1	19,2	14,9	13,0	12,4	13,1
Gainerako Afrika	2,1	1,5	5,7	6,8	6,6	6,5	4,8	6,3
Ipar Amerika	2,1	2,1	0,8	1,2	1,9	1,3	1,3	1,0
Latinoamerika	43,9	35,8	33,5	36,8	40,8	41,1	35,8	37,3
Txina	1,6	0,2	1,9	3,4	3,7	3,9	2,3	2,1
Gainerako Asia	2,1	3,6	1,8	3,5	4,1	4,6	5,2	2,9
Ozeania	0,5	0,2	0,1	0,2	0,1	0,1	0,2	0,1
Aberrigabeak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0
Guztira	380	472	2.726	3.329	4.880	6.071	7.550	10.059

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Bestalde, epe horretan atzerrira jo duten lautik hiru EAEn jaiok dira. Aztergai dugun epean EAetik atzerrira jo duten emigratio-fluxuen %15,3, aldiz, atzerrian jaiotako pertsonena da; bila-kaerari erreparatuz gero, kolektibo horren ehunekoak gora egin du aztertutako epean.

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

Atzerrira jo duten bertako biztanleen emigrazio-fluxuak jaioterriaren arabera (%) (2002-2009)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EAE	81,1	81,7	79,6	77,9	77,9	78,9	72,7	72,2
Beste autonomia-erkidegoak	12,2	11,5	12,7	12,5	12,2	10,5	11,9	12,4
Atzerria	6,7	6,8	7,7	9,6	9,9	10,6	15,4	15,3
Guztira (Kop.)	1.586	1.118	1.097	1.206	1.373	1.696	1.852	1.832

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Ondorengo tauletan emigrazio-fluxu horiek zer herrialdetara jo duten ikusiko dugu. Atzerriko biztanleen kasuan, nazionalitateen aurreko taularekin badira alde batzuk, baina zaila da ondorioak ateratzea; izan ere, kasu asko eta askotan (%61,8, 2009an) ezin izan dugu jakin zer herrialdetara joan diren. Gainera, kontuan izan behar da 2006. urteaz geroztik iraungitzeagatiko bajak<sup>4</sup> hartzen direla kontuan lehen aldiz.

Atzerrira jo duten biztanle kanpotarren emigrazio-fluxuak jomugaren arabera (%) (2002-2009)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB15	38,2	42,2	7,1	6,2	4,8	3,4	4,4	3,8
EB25	2,6	1,1	0,5	0,4	0,2	0,5	0,5	0,4
Bulgaria eta Errumania	4,5	7,2	2,6	2,4	3,2	5,7	7,0	5,0
Gainerako EB	1,8	3,6	0,8	1,4	0,5	0,5	0,4	0,5
Magreb	4,7	6,6	1,7	1,7	1,4	1,5	1,0	1,1
Gainerako Afrika	1,3	0,6	0,3	0,5	0,4	0,5	0,3	0,4
Ipar Amerika	2,9	2,5	0,8	0,6	0,3	0,2	0,2	0,2
Latinoamerika	41,3	33,3	9,6	10,3	8,2	8,0	7,0	5,9
Txina	1,1	0,2	0,3	0,4	0,2	0,2	0,1	0,2
Gainerako Asia	1,1	2,5	0,2	0,2	0,3	0,5	0,3	0,2
Ozeania	0,5	0,2	0,1	0,2	0,0	0,0	0,1	0,0
Zehaztu gabea	0,0	0,0	76,0	75,7	64,7	54,0	55,3	61,8
Iraungitzeagatik bajak	0,0	0,0	0,0	0,0	15,8	24,8	23,4	20,4
Guztira	380	472	2.726	3.329	4.880	6.071	7.550	10.059

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

EAEEn baja eman eta atzerrira jo duten nazionalitate espainiarreko biztanle gehienek (%59,1ek zehazki) EB15ko herrialderen batera jo dute nagusiki. Hurrengo jomuga nagusiak Latinoamerika (%18,5) eta Ipar Amerika (%8,7) izan dira. Hamar urte hauen joanean ez da aldaketa handirik izan.

<sup>4</sup>Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrek, bizitzeko baimen iraunkorra ez dutenek hain zuzen, bi urtetik behin erroldako izen-ematea berritzen ez dutenean gertatzen dira baja horiek.

Atzerrira jo duten bertako biztanleen emigrazio-fluxuak jomugaren arabera (%) (2002-2009)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB15	62,1	64,6	69,5	68,2	67,8	69,5	60,4	59,1
EB25	0,4	0,7	0,3	0,4	1,5	0,6	0,7	0,7
Bulgaria eta Errumania	0,4	0,4	0,2	0,1	0,3	0,3	0,4	0,3
Gainerako EB	4,0	2,7	3,6	4,0	2,8	2,6	2,3	2,0
Magreb	1,5	0,6	0,8	0,8	1,2	1,9	1,1	1,5
Gainerako Afrika	1,8	0,9	1,4	1,0	0,7	1,5	1,9	2,1
Ipar Amerika	9,6	8,9	8,3	8,7	7,4	6,9	8,7	8,7
Latinoamerika	17,8	17,4	13,1	12,3	13,3	11,1	17,5	18,5
Txina	0,4	0,5	0,3	0,8	2,5	2,1	3,0	1,9
Gainerako Asia	1,7	2,2	1,5	2,4	1,9	2,8	2,9	3,4
Ozeania	0,2	0,9	1,1	1,2	0,4	0,7	1,1	1,6
Zehaztu gabea	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0
Guztira	1.586	1.118	1.097	1.206	1.373	1.696	1.852	1.832

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

### 3. Beste Autonomia-Erkidego batzuetatik iritsitako fluxuak eta haietara jo dutenak

Beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsitakoen altak eta beste autonomia-erkidego batzuetara joandakoen bajak aintzat harturik, bien arteko aldeak saldo negatiboa adierazten du. Emigrazio-mugimenduetan nabarmenagoa da saldo negatibo hori immigrazio-mugimenduetan baino. Aipatzekoa da fluxu horietan gehien-gehienak bertako biztanleak direla eta horien artean ugariagoak direla bajak altak baino, nahiz eta azken urtebetean alde hori murriztu egin den. Aitzitik, atzerriko biztanleen kasuan, altak gehiago dira bajak baino.

Immigrazio- eta emigrazio-fluxuak beste autonomia-erkidegoetara (2000-2009)

	Guztira			Atzerriko biztanleria			Bertako biztanleria		
	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa	Immigrazioa	Emigrazioa	Saldoa
2000	12.521	17.475	-4.954	1.158	788	370	11.363	16.687	-5.324
2001	12.665	16.531	-3.866	1.302	816	486	11.363	15.715	-4.352
2002	15.582	19.131	-3.549	3.490	1.862	1.628	12.092	17.269	-5.177
2003	17.158	20.080	-2.922	4.283	2.171	2.112	12.875	17.909	-5.034
2004	17.237	20.827	-3.590	4.958	2.947	2.011	12.279	17.880	-5.601
2005	16.971	20.678	-3.707	4.998	3.671	1.327	11.973	17.007	-5.034
2006	17.005	21.848	-4.843	5.305	4.223	1.082	11.700	17.625	-5.925
2007	19.084	22.893	-3.809	7.230	5.416	1.814	11.854	17.477	-5.623
2008	20.090	19.628	462	8.271	4.401	3.870	11.819	15.227	-3.408
2009	21.049	19.180	1.869	8.587	4.621	3.966	12.462	14.559	-2.097

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

### 3.1. Flujos de inmigración procedentes de otras CCAA

Beste autonomia-erkidego batzuetatik immigrazio bidez iritsitako alta gehienak, arestian esan dugunez, nazionalitate espainiarra duten biztanleenak dira. Dena den, atzerritarren ehunekoak modu ikusgarrian hazi da mugimendu horietan (2000. urteko erroldan alden %9,2 zen atzerritarrena eta 2009koan %40,8). Gainera, EAera heldu diren atzerritarren immigrazio-mugimendu guztien %34,4 da beste autonomia-erkidegoetatik iritsitakoa. Bestalde, EAera heldu diren nazionalitate espainiarreko pertsona gehien-gehienak (%91,2) beste autonomia-erkidegoetatik iritsitakoak dira. Nazionalitate espainiarreko immigrazio-fluxuetan alta horiek osatzen dute ehuneko handiena.

Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako pertsonen altak nazionalitatearen arabera (2000-2009)

	Atzerriko biztanleria		Bertako biztanleria		Guztira
	K	%	K	%	K
2000	1.158	9,2	11.363	90,8	12.521
2001	1.302	10,3	11.363	89,7	12.665
2002	3.490	22,4	12.092	77,6	15.582
2003	4.283	25,0	12.875	75,0	17.158
2004	4.958	28,8	12.279	71,2	17.237
2005	4.998	29,5	11.973	70,5	16.971
2006	5.305	31,2	11.700	68,8	17.005
2007	7.230	37,9	11.854	62,1	19.084
2008	8.271	41,2	11.819	58,8	20.090
2009	8.587	40,8	12.462	59,2	21.049

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Immigrazio-sarrera gehienak gizonenak dira eta atzerritarren mugimenduetan handiagoa da gizonezkoen ehunekoak. Sexuaren arabera banaketan apenas izan den aldaketarik hamar urte hauetan.

Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako immigrazio-fluxuak sexuaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Atzerritarrak</b>										
Gizonak	61,1	56,8	60,2	61,7	61,0	61,0	61,6	62,9	61,1	59,6
Emakumeak	38,9	43,2	39,8	38,3	39,0	39,0	38,4	37,1	38,9	40,4
Guztira (Kop.)	1.158	1.302	3.490	4.283	4.958	4.998	5.305	7.230	8.271	8.587
<b>Bertakoak</b>										
Gizonak	50,6	51,8	50,1	50,5	50,6	49,3	48,7	49,3	49,3	50,9
Emakumeak	49,4	48,2	49,9	49,5	49,4	50,7	51,3	50,7	50,7	49,1
Guztira (Kop.)	11.363	11.363	12.092	12.875	12.279	11.973	11.700	11.854	11.819	12.462

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsi eta erroldan alta ematen duten gehienak 25 eta 44 urte arteko gazteak dira. Atzerriko biztanleen artean, hurrengo talde nagusia 18 eta 24 urte artekoena da, nahiz eta talde horren ehunekoak zertxobait behera egin duen, eta, aldiz, hirugarren talde nagusiaren ehunekoak, 45-64 urte arteko pertsonenak, gora. Gainerako adin-taldeak ehu-

nekoak apalagoak dira. Nazionalitate espainiarreko biztanleen artean, adinaren arabera hurrengo talde nagusia 45 eta 64 urte arteko pertsonena da (%16,5) eta hirugarrena 18 eta 24 urte artekoena (%10,0). Horrenbestez, beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako adinari erreparatzen badiogu, jabetuko gara atzerritarren adin-tartea gazteagoa dela nazionalitate espainiarreko biztanleena baino: atzerritarren ia %90 da 45 urtetik beherakoa eta, bertako herritarren artean, berriz, %71,6 da adin horretatik beherakoa.

Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako immigrazio-fluxuak adinaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Azterritarrak</b>										
0-5	2,8	3,4	3,1	3,8	3,3	4,5	4,2	3,8	4,4	4,7
6-15	5,6	4,7	5,3	4,2	5,8	5,5	5,2	5,1	5,1	5,2
16-17	1,1	0,8	1,2	1,1	1,4	1,3	1,2	1,3	1,2	1,6
18-24	22,2	18,6	18,7	19,5	16,8	17,4	18,2	18,3	16,5	15,9
25-44	60,1	64,9	63,4	62,7	63,5	62,2	61,6	60,9	62,9	62,3
45-64	7,6	7,2	7,8	8,2	8,7	8,6	9,1	10,0	9,5	9,8
65-74	0,3	0,4	0,4	0,3	0,4	0,4	0,3	0,4	0,3	0,3
75 eta gehiago	0,3	0,0	0,1	0,2	0,1	0,1	0,1	0,2	0,1	0,2
Guztira	1.158	1.302	3.490	4.283	4.958	4.998	5.305	7.230	8.271	8.587
<b>Bertakoak</b>										
0-5	5,4	4,0	6,3	6,1	6,7	6,6	7,5	7,8	8,6	7,9
6-15	5,5	4,3	5,2	4,9	4,5	4,9	5,1	5,3	5,1	5,3
16-17	1,8	1,2	1,3	1,1	1,2	1,2	0,9	0,9	1,0	0,9
18-24	15,2	15,7	14,4	14,2	13,2	11,9	10,5	10,3	10,7	10,0
25-44	43,7	47,3	46,1	46,5	47,9	47,5	47,5	46,3	46,9	47,5
45-64	14,4	14,6	13,3	14,5	13,8	14,6	15,1	15,9	15,6	16,5
65-74	6,3	5,7	5,7	5,7	5,4	5,4	5,2	5,4	4,9	4,4
75 eta gehiago	7,7	7,2	7,6	7,0	7,4	7,9	8,2	8,1	7,3	7,5
Guztira	11.363	11.363	12.092	12.875	12.279	11.973	11.700	11.854	11.819	12.462

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako atzerritarren nazionalitateari dagokionez, nazionalitateak geografia-eremuetan bilduta, Latinoamerikako etorkinak dira talde ugariena, baina haien ehunekoak zertxobait apalagoa da zuzenean atzerritik iritsitakoena baino (%36,1 da beste autonomia-erkidegoetatik iritsitakoa eta %40,2 zuzenean atzerritik iritsitakoa). Era berean, Latinoamerikako biztanleen ehunekoak behera egin du mugimendu horietan eta, aldiz, beste nazionalitate batzuen ehunekoak gora; hala nola errumaniarrenak, magrebtarrenak eta asiarrenak. Magrebekeko immigrazioaren kasuan, etorkin gehiago iritsi da beste autonomia-erkidegoetatik zuzenean atzerritik baino (%29,0 eta %15,3, hurrenez hurren), eta, aldiz, europarren immigrazioan beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako ehuneko txikiagoa da (%12,4 eta %23,2 hurrenez hurren). Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako fluxuen artean asiarra da %9,4; ehuneko hori handiagoa da zuzenean atzerritik iritsi diren asiarren fluxuekin alderatuta (%7,9).

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako biztanle kanpotarren immigrazio-fluxuak nazionalitate-eremuen arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB15	10,8	5,2	5,0	4,9	5,9	6,3	7,0	5,8	4,5	4,7
EB25	1,0	0,3	0,7	0,5	0,4	0,6	0,7	0,7	0,8	1,0
Bulgaria/Errumania	4,3	5,4	5,7	5,9	6,3	8,0	8,7	11,9	9,1	6,7
Gainerako EB	1,7	2,8	2,0	3,3	2,8	2,5	2,5	3,1	2,1	2,0
Magreb	23,5	20,9	24,7	25,8	23,5	22,0	23,1	21,5	26,8	29,0
Gainerako Afrika	14,9	7,5	10,0	8,6	9,0	8,4	9,4	9,7	8,7	10,7
Ipar Amerika	2,0	0,5	0,7	0,4	0,4	0,6	0,7	0,5	0,5	0,4
Latinoamerika	31,3	52,6	43,0	41,8	40,8	35,8	35,1	36,3	37,9	36,1
Txina	6,7	1,8	4,8	5,2	6,5	8,0	7,3	4,9	4,6	4,0
Gainerako Asia	3,6	2,5	3,3	3,7	4,4	7,8	5,4	5,5	5,0	5,4
Ozeania	0,1	0,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Aberrigabeak	0,1	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,1
Guztira	1.158	1.302	3.490	4.283	4.958	4.998	5.305	7.230	8.271	8.587

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Jaioterriaren arabera, beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako pertsonen alta gehienak beste autonomia-erkidegoetan jaiotako pertsonenak dira. Nabarmentzekoa da bereziki Gaztela eta Leonen (%21,6), Andaluzian (%5,8), Nafarroan (%4,0), Kantabrian eta Katalunian (%3,8) jaiotako pertsonen immigrazioa.

Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako bertako biztanleen immigrazio-fluxuak jaioterriaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EAE	38,6	39,5	37,1	39,0	37,1	39,0	39,9	38,9	38,9	39,3
Beste autonomia-erkidegoak	59,0	57,9	59,5	57,7	59,7	57,6	56,9	57,0	55,7	54,7
Atzerria	2,5	2,6	3,4	3,3	3,2	3,4	3,2	4,1	5,4	6,0
Guztira (Kop.)	11.363	11.363	12.092	12.875	12.279	11.973	11.700	11.854	11.819	12.462

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Ondorengo tauletan ikus dezakegu immigrazio bidez erroldan izan diren alta horiek zer autonomia-erkidegoetatik iritsi diren. Atzerritarren alta gehienak Madrileko Autonomia Erkidegotik iritsitakoak dira (%16,0), baina autonomia-erkidego horren ehunekoak behera egin du, eta, aldiz, beste metropoli-eremu batzuenak gora, hala nola Kataluniaren (%14,4) eta Valentiako Autonomia Erkidegoaren ehunekoak (%12,7).

Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako biztanle kanpotarren immigrazio-fluxuak jatorriaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Andaluzia	10,7	7,3	9,5	8,1	9,4	8,6	10,2	11,9	11,3	9,6
Aragoi	1,9	4,1	4,3	3,9	3,6	3,8	3,9	4,1	3,6	4,0
Asturias	2,9	1,8	0,9	1,6	0,7	1,6	1,8	1,4	1,6	1,9
Balear Uharteak	1,1	1,5	1,9	1,8	2,5	1,4	2,1	1,4	1,8	2,1

(Hurrengo orrian jarraitzen du)

## Immigrazioarekin loturiko hainbat gairi buruzko artikulua

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Kanariak	3,8	2,4	3,2	3,2	3,4	2,8	3,6	2,3	3,8	4,7
Kantabria	4,9	6,2	4,9	5,2	5,1	7,3	6,3	4,9	4,5	4,8
Gaztela eta Leon	9,6	6,1	6,4	7,9	8,2	8,2	8,8	7,7	7,8	8,1
Gaztela-Mantxa	1,7	2,8	3,0	3,5	3,1	3,3	3,8	4,5	4,4	4,4
Katalunia	9,5	9,3	12,9	13,4	13,8	15,0	14,4	14,5	14,7	14,4
Valentzia	4,9	6,4	8,2	9,5	8,2	8,7	8,8	9,6	12,0	12,7
Extremadura	1,5	1,2	1,0	1,1	1,3	2,1	1,6	1,4	0,9	1,0
Galizia	2,8	3,1	3,6	3,0	3,0	3,2	3,1	2,7	2,8	2,4
Madril	22,0	23,8	18,8	18,8	18,6	16,2	15,1	18,3	15,9	16,0
Murtzia	5,5	6,1	4,8	5,0	3,9	3,3	3,7	5,2	6,4	5,1
Nafarroa	11,5	12,1	10,3	8,1	7,1	6,6	5,7	4,8	4,2	4,4
EAE	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Errioxa	4,2	5,7	5,8	5,7	7,8	7,6	6,9	5,1	4,2	4,6
Ceuta eta Melilla	1,3	0,1	0,6	0,2	0,3	0,3	0,2	0,1	0,0	0,0
Guztira (Kop.)	1.158	1.302	3.490	4.283	4.958	4.998	5.305	7.230	8.271	8.587

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Nazionalitate espainiarreko immigrazio-fluxuei dagokienez, berriz, gehien-gehienak autonomia-erkidego hauetatik datoz: Gaztela eta Leon (%17,3), nahiz eta azken urteotan behera egin duen erkidego horren ehunekoak, Kantabria (%13,8), Madril (%9,3), Andaluzia (%8,2), Nafarroa (%7,6) eta Valentzia (7,3%).

Beste autonomia-erkidegoetatik iritsitako bertako biztanleen immigrazio-fluxuak jatorriaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Andaluzia	5,6	6,5	6,1	6,3	6,3	6,7	6,9	7,1	8,1	8,2
Aragoi	2,8	2,7	2,8	2,2	2,6	2,3	2,7	2,3	2,7	2,7
Asturias	2,1	2,4	2,2	2,2	2,4	1,8	2	2,3	1,9	2,2
Balear Uharteak	2,1	1,9	2,1	2,1	1,9	2,4	1,7	2,2	2	2,2
Kanariak	4,9	4,7	5,1	4,7	4,6	5	4,3	4,4	5,2	4,9
Kantabria	10,6	11,1	11,1	11,1	12,6	13,6	14,5	13,7	13,5	13,8
Gaztela eta Leon	22,8	21	20,4	20,7	20,6	19,2	17,9	19,2	17,4	17,3
Gaztela-Mantxa	1,6	1,6	1,2	1,8	1,5	1,4	1,8	1,5	1,9	1,9
Katalunia	4,8	5,7	5,8	6,1	6,2	6,5	7,7	7,1	7,9	6,9
Valentzia	5,1	5,2	6,1	5,8	5,8	6,2	6	6,3	6,4	7,3
Extremadura	4,8	4,5	4,4	4,2	3,7	3,5	3,4	3,4	3	3
Galizia	7,5	7,6	7,2	6,7	6,9	6,6	6,3	5,9	5,8	5
Madril	9,8	9,3	9,5	10,5	10,2	9,1	9,3	9,7	9,6	9,3
Murtzia	0,5	0,5	0,6	0,8	0,8	0,6	0,7	0,8	1,2	1,1
Nafarroa	8,8	9	9,1	9	8,3	8,9	8,7	8	7,8	7,6
EAE	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Errioxa	6,1	5,9	5,8	5,3	5,4	5,7	5,9	5,8	5,3	6,3
Ceuta eta Melilla	0,3	0,3	0,3	0,3	0,2	0,4	0,2	0,2	0,3	0,2
Guztira (Kop.)	11.363	11.363	12.092	12.875	12.279	11.973	11.700	11.854	11.819	12.462

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

### 3.2. Emigrazio-fluxuak beste autonomia-erkidegoetara

Beste autonomia-erkidego batzuetara jo duten gehienak (erroldako baja gehienak, hortaz) bertako biztanleak dira, zehazki %75,9, aztertutako azken urtean, baina atzerriko biztanleen mugimenduen ehunekoak gora egin du urteen joanean: hala, 2000. urtean %4,5 izatetik mugimendu horien ia lautik bat izatera igaro da 2009an. Beste autonomia-erkidego batzuetara jo duten bertako biztanleen emigrazioak antzeko kopuruetan eutsi dio, 15.000-17.000 pertsona inguru urtero.

Beste autonomia-erkidegoetara jo duten pertsonen bajak nazionalitatearen arabera (2000-2009)

	Atzerriko biztanleria		Bertako biztanleria		Guztira
	K	%	K	%	K
2000	788	4,5	16.687	95,5	17.475
2001	816	4,9	15.715	95,1	16.531
2002	1.862	9,7	17.269	90,3	19.131
2003	2.171	10,8	17.909	89,2	20.080
2004	2.947	14,1	17.880	85,9	20.827
2005	3.671	17,8	17.007	82,2	20.678
2006	4.223	19,3	17.625	80,7	21.848
2007	5.416	23,7	17.477	76,3	22.893
2008	4.401	22,4	15.227	77,6	19.628
2009	4.621	24,1	14.559	75,9	19.180

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Beste autonomia-erkidegoetara jo duten emigrazio-fluxuei erreparatuta gizonak izan dira gehienak, bai atzeritarren artean eta bai bertako biztanleen artean. Ez da aldaketa handirik izan aztertutako epean.

Beste autonomia-erkidegoetara jo duten emigrazio-fluxuak sexuaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Atzeritarrak</b>										
Gizonak	50,4	51,4	50,7	51,1	51,0	51,2	51,3	50,9	50,8	51,2
Emakumeak	49,6	48,6	49,3	48,9	49,0	48,8	48,7	49,1	49,2	48,8
Guztira (Kop.)	788	816	1.862	2.171	2.947	3.671	4.223	5.416	4.401	4.621
<b>Bertakoak</b>										
Gizonak	50,4	51,4	50,7	51,1	51,0	51,2	51,3	50,9	50,8	51,2
Emakumeak	49,6	48,6	49,3	48,9	49,0	48,8	48,7	49,1	49,2	48,8
Guztira (Kop.)	16.687	15.715	17.269	17.909	17.880	17.007	17.625	17.477	15.227	14.559

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Beste autonomia-erkidegoetara emigratzen duten gehienak 25 eta 44 urte artekoak dira: atzerriko biztanleen %62,1 eta bertako biztanleen %48,6, zehazki. Hurrengo talde nagusiak aurreko fluxuen analisisian ikusi ditugun berak dira: atzeritarren artean 18 eta 24 urteko gazteak (%16,5), nahiz eta talde horren ehunekoak zertxobait behera egin duen eta, aldiz, 45 eta 64 urte arteko biztanleen ehunekoak gora (%10,4). Talde horren ehunekoa, nolana ere, atzerriko emigratu dutenena baino txikiagoa da. Bertako biztanleen artean, hauek dira beste autonomia-



erkidegoetara jo duten hurrengo talde nagusiak: 45 eta 64 urte artekoa (%17,7) eta 18 eta 24 urte artekoa (%9,0). Beste autonomia-erkidegoetara jo duten 45 eta 64 urte arteko pertsonen ehunekoak zuzenean atzerrira migratu dutenena baino handiagoa da. Horrenbestez, beste autonomia-erkidegoetara emigratu duten atzerritarrak gazteagoak dira nazionalitate espainiarreko biztanleak baino: lehendabizikoan artean, %89,0 da 44 urtetik beherakoak, eta bertakoen artean, berriz, %70,1.

Beste autonomia-erkidegoetara jo duten emigratio-fluxuak adinaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
<b>Atzerritarrak</b>										
0-5	4,1	3,3	4,0	4,1	3,7	3,7	3,8	3,6	4,2	3,7
6-15	7,4	7,1	7,3	4,6	5,0	5,6	6,3	5,5	5,9	5,3
16-17	0,6	1,3	1,7	1,4	0,7	1,4	1,3	1,3	1,6	1,4
18-24	19,8	16,9	18,4	16,3	15,7	17,1	16,2	17,9	17,4	16,5
25-44	59,5	62,0	57,7	64,3	64,0	63,1	60,9	60,8	60,9	62,1
45-64	7,2	8,0	9,6	8,6	10,2	8,4	10,4	10,3	9,2	10,4
65-74	1,0	1,3	1,1	0,5	0,5	0,5	0,9	0,4	0,6	0,4
75 eta gehiago	0,4	0,0	0,4	0,2	0,1	0,2	0,3	0,2	0,2	0,2
Guztira	788	816	1.862	2.171	2.947	3.671	4.223	5.416	4.401	4.621
<b>Bertakoak</b>										
0-5	5,8	5,0	5,8	6,0	6,0	6,6	6,5	6,6	7,4	6,7
6-15	5,4	5,7	5,3	4,8	4,8	5,2	4,9	5,1	5,2	4,8
16-17	1,7	1,3	1,1	1,0	1,0	0,8	0,9	0,8	0,9	0,9
18-24	12,7	11,8	11,1	10,7	10,3	10,1	9,5	9,2	10,0	9,0
25-44	44,8	47,8	47,9	49,2	50,0	49,4	49,1	50,1	48,9	48,6
45-64	18,2	17,7	17,8	17,5	17,2	17,3	18,1	16,9	17,2	17,7
65-74	7,5	7,1	7,2	6,7	6,6	6,0	6,3	6,0	5,4	6,3
75 eta gehiago	3,9	3,8	3,9	4,1	4,1	4,6	4,7	5,2	5,1	5,9
Guztira	16.687	15.715	17.269	17.909	17.880	17.007	17.625	17.477	15.227	14.559

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Beste autonomia-erkidegoetara emigratzen duten gehienak Latinoamerikako herritarrak dira (%40,7). Hurrengo taldea magrebtarrena da (%20,9) eta azken urteotan, gainera, nabarmen hazi da haien ehunekoak. Hirugarren taldea EBko biztanleena da (%14,0), baina beste autonomia-erkidegoetara emigratu dutenen artean apaldu egin da haien ehunekoak, EB15ko biztanleen ehunekoak ere behera egin duelako. Asiarra da, azkenik, beste autonomia-erkidegoetara emigratu dutenen artean %17,4.

Beste autonomia-erkidegoetara jo duten biztanle kanpotarren emigratio-fluxuak nazionalitate-eremuen arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EB15	18,3	9,6	12,9	10,4	9,9	9,0	9,9	10,7	8,6	7,1
EB25	0,4	0,4	0,8	1,0	0,6	0,7	0,8	0,9	0,8	1,1
Bulgaria/Errumania	2,2	4,2	4,1	6,0	5,3	6,8	7,2	11,6	8,7	5,8
Gainerako EB	2,5	1,6	2,3	1,7	2,8	2,3	2,5	1,7	2,6	2,6

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Magreb	11,5	13,1	13,8	14,8	19,7	20,3	16,6	15,0	16,9	20,9
Gainerako Afrika	8,9	8,1	6,0	7,7	7,8	8,3	7,2	6,5	5,9	6,9
Ipar Amerika	4,8	1,0	0,9	0,8	0,5	0,6	0,7	0,5	0,3	0,5
Latinoamerika	41,8	57,0	50,0	48,2	40,8	38,2	43,4	40,2	39,8	40,7
Txina	7,1	4,2	6,6	7,1	8,3	7,4	5,8	7,2	8,4	7,7
Gainerako Asia	2,4	1,0	2,5	2,3	4,2	6,3	5,9	5,5	8,0	6,7
Ozeania	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Aberrigabeak	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	788	816	1.862	2.171	2.947	3.671	4.223	5.416	4.401	4.621

*Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta*

Beste autonomia-erkidegoetara emigratu duten bertako biztanleen jaioterriari dagokionez, nahi si egiten dira bertakoen emigrazioak (%55,6) eta, seguru asko, jaio ziren probintzietara itzultzen diren pertsonen emigrazioak edo berriro emigratzen dutenenak. Alde horretatik, jaioterri nagusiak erkidego hauek dira: Gaztela eta Leon (%10,3), Galizia (%5,0), Andaluzia (%3,7) eta Extremadura (%3,3).

Beste autonomia-erkidegoetara jo duten bertako biztanleen emigrazio-fluxuak jaioterriaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
EAE	56,8	57,0	56,9	58,3	58,4	57,8	58,1	58,6	57,7	55,6
Beste autonomia-erkidegoak	41,1	41,0	40,6	39,2	39,1	39,6	39,1	38,1	38,6	40,1
Atzerria	2,1	2,0	2,5	2,4	2,5	2,7	2,8	3,3	3,8	4,2
Guztira (Kop.)	16.687	15.715	17.269	17.909	17.880	17.007	17.625	17.477	15.227	14.559

*Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta*

Zer autonomia-erkidegoetara joan diren aztertuz gero, emigrazioagatik izan diren baje joera immigrazio-fluxuena bera da. Atzerritar gehienek (%15,4) Madrilera emigratzen dute, nahiz eta emigrazio-fluxu horien artean behera egin duen autonomia-erkidego horretara joan direnen ehunekoak. Aldiz, Kataluniara (%15,0) edota Valentziako Autonomia Erkidegora (%10,5) jo dutenak ugaritu egin dira azken hamar urteotan. Bertako biztanleek nora emigratu duten aztertuz gero, nabarmentzekoa da zenbatek jo duen Gaztela eta Leonera (%15,7), Kantabriara (%15,0), Madrilera (%12,9) eta Nafarroara (%8,3).

Beste autonomia-erkidegoetara jo duten atzerritarren emigrazio-fluxuak jomugako autonomia-erkidegoaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Andaluzia	6,9	5,5	6,0	6,4	6,0	7,4	8,2	7,9	9,0	9,4
Aragoi	4,1	3,6	4,0	3,0	2,8	4,2	2,9	3,9	2,9	2,7
Asturias	2,2	2,5	1,6	1,7	1,1	1,7	1,8	1,6	2,0	2,3
Balear Uharteak	2,5	3,8	2,4	2,5	2,7	2,0	1,8	2,9	2,4	1,8
Kanariak	4,3	3,2	3,8	5,2	4,5	3,2	2,8	3,5	2,9	3,0
Kantabria	6,3	8,0	8,7	9,0	7,4	8,4	7,1	7,5	7,7	6,8
Gaztela eta Leon	7,0	11,4	7,6	9,4	10,0	9,9	8,7	10,0	8,7	8,0
Gaztela-Mantxa	3,0	1,3	2,2	1,8	1,3	1,4	3,2	2,6	2,9	3,3

*(Hurrengo orrian jarraitzen du)*

## Immigrazioarekin loturiko hainbat gairi buruzko artikulua

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Katalunia	12,7	11,2	13,3	13,3	15,9	15,1	15,8	14,6	15,3	15,0
Valentzia	7,2	11,5	11,0	9,2	10,4	10,5	11,1	10,9	9,2	10,5
Extremadura	0,4	0,4	0,7	1,0	1,9	0,6	1,1	0,8	1,0	0,9
Galizia	4,9	2,3	2,6	3,0	2,8	3,3	3,1	2,9	3,5	3,8
Madril	20,3	17,4	20,0	16,2	14,4	13,7	15,3	15,1	15,3	15,4
Murtzia	1,4	2,1	2,4	2,3	2,9	4,3	2,5	2,8	2,7	4,0
Nafarroa	10,0	10,0	8,3	9,5	9,0	6,8	7,1	7,2	8,0	7,8
EAE	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Errioxa	6,6	5,9	5,4	6,1	6,9	7,2	7,4	5,8	6,4	5,1
Ceuta eta Melilla	0,1	0,0	0,2	0,3	0,0	0,1	0,0	0,1	0,1	0,2
Guztira (Kop.)	788	816	1.862	2.171	2.947	3.671	4.223	5.416	4.401	4.621

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

Beste autonomia-erkidegoetara jo duten bertako biztanleen emigrazio-fluxuak jomugako autonomia-erkidegoaren arabera (%) (2000-2009)

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Andaluzia	6,7	6,8	7,2	7,7	7,7	7,6	6,8	7,0	6,5	7,1
Aragoi	2,0	2,2	2,2	2,3	2,4	2,4	2,2	2,2	1,9	2,4
Asturias	1,8	1,4	1,8	1,7	2,1	2,0	1,7	2,0	2,1	1,8
Balear Uharteak	2,1	2,2	2,2	1,9	1,7	1,8	1,8	1,8	1,9	2,0
Kanariak	4,1	3,7	3,5	3,6	3,1	3,5	3,3	3,7	3,7	3,3
Kantabria	16,6	16,3	15,9	18,2	17,6	16,8	17,0	15,8	16,0	15,0
Gaztela eta Leon	15,9	16,3	17,7	16,6	16,3	16,7	18,5	17,4	16,6	15,7
Gaztela-Mantxa	1,2	1,8	1,5	1,6	1,7	1,8	1,4	1,4	1,6	1,6
Katalunia	5,2	5,3	6,1	5,8	6,2	6,8	6,4	6,4	6,2	7,4
Valentzia	7,9	8,3	7,0	7,2	6,9	6,3	5,8	5,8	5,9	5,4
Extremadura	3,6	3,1	3,3	3,6	3,7	3,5	3,3	3,3	3,3	3,5
Galizia	5,9	6,4	6,2	5,6	6,0	6,9	6,3	6,1	6,3	6,6
Madril	10,6	10,6	10,6	10,0	9,9	9,6	11,1	11,8	13,1	12,9
Murtzia	0,7	0,7	0,8	0,6	0,7	0,8	0,7	0,7	0,8	0,8
Nafarroa	8,7	8,4	8,1	7,5	7,6	7,4	7,8	7,9	7,9	8,3
EAE	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Errioxa	6,8	6,2	5,7	6,1	6,2	5,9	5,6	6,6	6,0	5,9
Ceuta eta Melilla	0,3	0,1	0,1	0,2	0,2	0,1	0,3	0,1	0,2	0,2
Guztira (Kop.)	16.687	15.715	17.269	17.909	17.880	17.007	17.625	17.477	15.227	14.559

Iturria: Behatokiak landua EINren datuak oinarri hartuta

## Ondorioak

EAEen emigrazio-saldo positiboa izan da azken hamar urteotan, atzerriko biztanleen mugimenduen ondorioz batez ere. Atzerriko biztanleen migrazio-saldoa positiboa da eta, aldiz, bertako biztanleena, negatiboa; hau da, atzerritarren altak gehiago dira bajak baino eta, aitzitik, bertako biztanleen bajak ugariagoak dira altak baino. Nolanahi ere, ezagun dira krisi ekonomikoaren ondorioak; izan ere, azken bi urteotan atzerritarren alta gutxiago izan da errolan, eta emigrazioak ere gora egin du, bai atzerrira eta bai beste autonomia-erkidegoetara.

Bestalde, nabarmentzekoa da atzerriko biztanleen mugikortasun handia. Horren adierazle, beste autonomia-erkidegoetara jo duten bertako biztanleen fluxuetan –hots alta eta bajetan– gora egin du atzerritarren kolektiboaren ehunekoak. Migrazio-fluxu horiek sexuaren arabera nola banatzen diren aztertuta, nabarmentzekoa da atzerritarren mugimenduetan handiagoa dela gizonen ehunekoak, beste autonomia-erkidegoetara joan eta baja eman dutenen kasuan izan ezik, bertako biztanleen mugimenduetan baino; bertakoen artean, parekoagoak dira migratzen duten gizonen eta emakumeen ehunekoak. Atzerrira joan eta baja eman duten kanpotarren artean eta beste autonomia-erkidego batera joan eta han alta eman duten atzerritarren artean da handiena gizonen ehunekoak.

Adinari dagokionez, bai emigrazioetan eta bai immigrazioetan gazteagoak dira atzerritarrak nazionalitate espainiarrekoak baino. Bestalde, nabarmentzekoa da, bertako biztanleen kasuan, 25 eta 44 urte arteko taldearen ehunekoak (lanarekin lotuago dagoen migrazioak) gora egin duela mugimendu mota guztietan.

Atzerritarren fluxuak nondik datozen aztertuz gero, bada datu esanguratsu eta interesgarria: hala emigrazioetan nola immigrazioetan, aztergai dugun mugimendu mota edozein dela ere, hiru dira talde nagusiak: latinoamerikarrak, magrebtarrak eta EB15eko europarrak. Nolanahi ere, zehaztu beharrean gara azken hamar urteotan Latinoamerikako biztanleen eta EB15eko europarren fluxuek izan duten nagusitasun hori apaldu egin dela eta etorkinen jatorriaren aldetik heterogeneotasun handiagoa dagoela gaur egun. Horrenbestez, Latinoamerikako eta EB15ko biztanleen ehunekoak behera egin du eta beste kolektibo batzuenak gora, hala nola errumaniarrenak (berezi atzerritik iritsi edo atzerrira jo duten migrazioetan), afrikarrenak (nabarmentzekoa da beste autonomia-erkidegoetatik iritsi edo haietara joan diren fluxuetan Magrebeko biztanleek izan duten hazkundera) eta asiarrenak.

Azkenik, beste autonomia-erkidego batetik inora jo duten nazionalitate espainiarreko pertsonen artean Madrilek eta Bartzelonak jaso dituzte biztanle gehien; hots, demografia, ekonomia eta gizarte aldetik hiririk garrantzitsuenek eta haien inguruko probintziek.

## Jatorri atzerritarreko etorkinen elkartegintzaren ezaugarriak Bizkaian

Maria Giulia Di Carlo

Sara Maza

Bakeaz

Azken hamarkadan, euskal gizarteak aldaketa handia izan du, nazioarteko migrazioen bilakaeraren eraginez. 2001. urtetik aurrera, atzerriko etorkin gero eta gehiago etorri da, eta puntu gorena 2005-2009 bitartean izan da. Izan ere, aldi horretan kolektibo horren errolatzeak %81ean egin du gora, eta gaur egun Euskal Herriko populazio osoaren %6,4 da (Ikuspegi@k-Immigrazioa, 2010). Atzerriko populazioak gure herrian 1998. urteaz geroztik izan duen hazkunde azkarrak, eta azken hamar urteotan migrazioen tipologia izandako aldaketak egiturazko aldaketa nabarmenak ekarri dituzte; hortaz, gizarte multikulturalak kudeatu behar izatean eta gizarte-integratzaile eta elkarbizitzarako prozesuetan pentsatu behar dugu.

Eremu publikoan parte hartzea, hau da, elkarbizitza arautzen eta taxutzen duten erabakiak hartzeko espazioetan parte hartzea, funtsezkoa da etorkinak benetan integra daitezen. Herritarren partaidetza funtsezko faktorea da kulturalki anitza eta benetan demokratikoa den gizartearen funtzionamendurako. Hori horrela, etorkinen elkarteek gizarte-eragile gisa joka dezakete<sup>1</sup>, beren kideek parte har dezaten beren ahotsa entzunarazteko, proposatzeko eta politika publikoak garatzeko (bai immigrazioari lotutako alderdiak, bai beren eguneroko bizitzan edo gizartean eragina dutenak) prozesuan. Beraz, aintzakotzat hartu behar dugu etorkinen elkarteek eduki dezaketen eginkizuna, haiek xede-herrialdeko sistema politiko demokratikoan eta bizitza publikoan parte hartzeko egiazko bitarteko gisa.

Elkarte horiek, jatorrizko kulturak ematen dien identitateari eta kidesunari eusteaz soilik arduratzen badira ere, xede-lurraldeko arau berriak eta erakundeak dituzte beti aurrean, eta integrazio-prozesuaren premisa den sozializazio-funtzio garrantzitsua betetzen dute partaidetza zibiko/politikoaren esparruan. Izan ere, pertsona etorkinen ekin kolektiboak garrantzi handiagoa hartzen du bizitoki duten herrialdeko legeriak hiritar gisa dituzten eskubideak (kasu honetan,

---

<sup>1</sup>80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, politika publikoak lantzeko sistema berri bat garatu da pixkanaka, Kudeaketa Publiko Berria, gizarte zibilaren erakundeek parte har dezaten aukera gehiago ematen dituenena. Kudeaketa Publiko Berriak deszentralizatu eta dibertsifikatu egiten ditu politika publikoak lantzen eta erabakitzen parte hartzen duten eragileak. Horrela, gizarte zibilak, elkarte zibilen bitartez, bere presentzia areagotu dezake, eta politika publikoak lantzeko sistema demokratikoagoa egin (Goñalons, 2007: 109).

eskubide politikoak) murrizten dizkienean<sup>2</sup>. Hiritartasuna lortzeko baldintzak zenbat eta zailagoak eta murriztaileagoak izan, orduan eta sartuagoa egongo da etorkinen kolektiboa partaidetza politiko ez-konbentzional kolektiboetara (protestak, grebak, hedabideen bidezko presioa...) (Martiniello 2005: 16).

Elkarte sendo eta ongi egituratuak tresna garrantzitsuak izango liriteke taldearen eta taldekideen kapital soziala<sup>3</sup> indartzeko, eta, azken batean, partaidetza politiko eta botoa eman ahal izatea sustatuko lukete. Atzerritarren elkartegintza Europako herrialde guztietan ohikoa bada ere, bai immigrazioa lehen aldiz jasotzen duten herrialdeetan, bai aspaldidanik jaso dutenetan, haien sendotasuna eta garrantzia nazioko edo/eta tokiko testuinguruaren arabera alda daiteke, eta dezente gainera. Espainiaren kasuan, eta Euskal Herrian batez ere, etorkinen elkartegintzaren historia oso berria da eta 2000. urtetik aurrera hasi da taxutzen, euskal probintzietan atzerritarren populazioak hazkunderik handiena izan duenean, alegia.

Orain arte, oso urriak izan dira Euskal Herriko etorkinen elkartegintzari buruzko azterketa enpirikoak, eta fenomenoaren analisi kuantitatiboa egin dute nagusiki. Ez dute erakutsi elkarkeak nola ari diren bultzatzen etorkinen partaidetza eta integrazio soziopolitikoa gure autonomia-erkidegoan<sup>4</sup>. Ez da ezagutzen haien jarduerak duten eragina etorkinen populazioaren hainbat integrazio-mailatan (soziala, politikoak, lan-mundukoa, kulturala), erakunde-profil eta tipologietan, elkarten dinamiketan eta beren eskaera eta beharrezanetan.

Gabezia horren jakitun, Bakeaz-en Lankidetzak eta Immigrazioa Sailak 2009. urtean ikerketa-ildo bati ekin zion, gizarte-eragile berri horien analisi kualitatiboa ere egiteko, eremu publiko eta pribatutik etorkinen elkartegintza-mugimendua sendotzeko, eta haien partaidetza publikoa bultzatzen duten interbentzioak diseinatzen laguntzeko. Era berean, elkarten beren ikuspuntutik interbentzio-proposamenik egokienak ezagutzeko da helburua, eremu publikoan eta herritarren

---

<sup>2</sup>Espainiako kasua adibide ona da 8/2000 Atzerritarren Legeak kolektiboaren partaidetza politikoari ezartzen dizkion mugei dagokionean; izan ere, espainiar nazionalitatea lortzearen menpe dago eskubide hori, tokiko partaidetza politikoak salbuetsita. Kasu horretan, bozkatzeko eskubide aktiboa eta pasiboa izango dute legez gutxienez bost urtez bizi izan direnek, baldin eta Espainiako Gobernuarekin elkarrekotasun-itun bat sinatu duten herrialdeetakoak badira.

<sup>3</sup>Lan hau bideratzen duen kapital sozialaren nozioa Fenemma-k eta Tillie-k (2001) emandako ikuspegiari oinarritzen da; bereizketa hau egiten dute: (a) *Kapital sozial etnikoa*, etorkinen elkarten baitan eta elkarten artean sortzen diren loturei dagokiena, eta (b) *kapital sozial ez-etnikoa*, elkarkeak beste erakundeekin eta talde heterogeneoekin dituzten harremanei dagokiena. Badira ikerketak partaidetza politikoaren eta etorkinen kolektiboaren eta beren elkarten kapital sozialaren arteko erlazioa berresten dutenak (Fenemma eta Tillie, 2001; Berger, Galonska eta Koopmans, 2004; Tillie eta Slijper, 2006; Beja eta Malheiros 2006; Lelieveldt, Dekker, Volker eta Torenvlied, 2009).

<sup>4</sup>Etorkinen populazioak Euskal Herrian duen partaidetza politikoaren erreferentziarik berrienari dagokionez, aipagarria da: C. Hierro Esnarriaga (2008): *Manual de prácticas participativas: asociaciones de personas inmigrantes*, Eusko Jaurlaritzako Herritarren Partaidetza Zuzendaritza eta Immigrazio Zuzendaritza, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Gainera, merezi du hau aipatzea, Bilboko Udalaren Immigrazio Negoziatua (2007): *Análisis de entidades sociales: asociaciones de inmigrantes, asociaciones de apoyo a inmigrantes, entidades que trabajan en el ámbito de la exclusión social y sindicatos*. [http://www.bilbao.net/castella/accion\\_social/publicaciones/immigracion\\_ii/3a.pdf](http://www.bilbao.net/castella/accion_social/publicaciones/immigracion_ii/3a.pdf)

Etorkinen populazioak eta beren elkarkeak estatu-mailan hiritar gisa duten partaidetzari eta integrazio politikoari buruzko beste ikerketa batzuk ezagutzeko, gomendagarria da ikerketa-proiektu horien baitan egindako lan hauek kontsultatzea: CAPSOCINMIG, "Democracia multicultural y capital social de los inmigrantes en España" (<http://www.um.es/capsocinmig>) eta LOCALMULTIDEM "Multicultural Democracy and Immigrants Social Capital in Europe: Participation, Organisational Networks, and Public Policies at the Local Level" (<http://www.um.es/localmultidem>).

sareetan sartu ahal izan daitezten. Laburbilduz, etorkinak euskal gizartean hiritar gisa politikoki integratzeko testuinguruan kokatzen gaitu lan horrek, ohikoagoak diren analisi ekonomiko edo soziokulturalen ikuspegiak gaindituta.

“Jatorri atzeritarreko etorkinen elkartegintzaren<sup>5</sup> ezaugarriak Bizkaian”<sup>6</sup> izenburuko proiektuak, gehienbat 2010ean gauzatu zenak, hasiera eman dio ikerketa-ildo horri, Bizkaiko etorkinen elkarten errealitatearen analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa egin nahian<sup>7</sup>.

Orain, ikerketa-lan hori Gipuzkoara eta Arabara<sup>8</sup> zabaldu da eta, hortaz, amaitzen denean, EAE osoko etorkin atzeritarren elkarten ikuspegi globala eduki ahal izango dugu<sup>9</sup>.

Ikerketa-proiektu horiek bi ikuspegi metodologiko erabiltzen dituzte: bata, kuantitatiboa, probintzia bakoitzean diharduten etorkinen elkarte guztiak ezagutzea eta, halaber, elkarte horien errolda eguneratua egitea ahalbidetzen duena; eta bestea, kualitatiboa, haien ezaugarriak, antolatze eta sarean lan egiteko jarraibideak, modu egokian funtzionatzeko beharrian eta eskaerak, eremu publikoan duten partaidetza eta, horri dagokionez, proposatzen dituzten hobekuntzen berri izatea ahalbidetzen duena. Orain arte, Bizkaian egindako ikerketari dagozkion emaitzak soilik argitaratu dira<sup>10</sup>.

Bizkaiko etorkinen elkarten analisia probintziako migrazioen testuinguru zehatza kontuan hartuta egin da, eta erreferentziatutako proiektuaren fase kuantitatiboan identifikatutako laurogeita bost etorkin-elkarteak hartuta<sup>11</sup>. Emaitzek erakusten dutenez, elkarten gehiengo handi bat (%82,35) Bilbo Handia eskualdean kokatzen da eta, horren baitan, Bilboko udalerria da bolumenik handiena jasotzen duena (%63,53); ondoren, Getxo, Basauri eta Barakaldo datoz, %9,41, %3,53 eta %2,35ekin, hurrenez hurren. Jarraian, elkarten ehunekoari dagokionez, Durangaldea dago, %9,41ekin eta, bere aldetik, Saharaz Hegoaldeko Afrikatik datozenen elkarteak biltzen ditu batik bat.

---

<sup>5</sup>Dauden erakunde ugarietatik azterlanean kontuan zein hartu beharko lirakekeen zehazteko, etorkinen elkartearen definizio operatibo bat egitea erabaki zen: “kideen erdiak, edota Zuzendaritza Batzordekoen erdiak, etorkin atzeritarrak (Europar Batasunekoak barne) dituen”.

<sup>6</sup>Lantaldeko kideak hauek izan ziren: Maria Giulia Di Carlo, ikertzaile nagusia, Amaia Unzueta, zuzendari zientifikoa, eta Sara Maza, ikerketa-proiektuaren koordinazio teknikoaren arduraduna.

<sup>7</sup>Ikerketa horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasun eta Herritarren Eskubideen Zuzendaritzaren eta Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzaren babesa izan zuen eta, halaber, Harresiak Apurtuz Etorkinen Aldeko Euskadiko GKE-en Koordinakundearen laguntza. Gainera, hauen laguntza eta babesa izan ditu: Ikuspegi@k-Immigrazioaren Euskal Behatokia, hainbat erakunde publikotako pertsonal teknikoa, Boluntariotzaren eta Gizarte Partaidetzaren Agentzia, BOLUNTA, etorkinen aldeko elkarteak, eta halaber, Bizkaian kokatuta dauden elkarten partaidetza.

<sup>8</sup>Lantaldeko kideak hauek izan ziren: Maria Giulia Di Carlo eta María Ruiz Aranguren, ikertzaileak, eta Sara Maza, zuzendari zientifikoa eta ikerketa-proiektuaren koordinazio teknikoaren arduraduna.

<sup>9</sup>Ikerketa Arabara eta Gipuzkoara zabaltze hori Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzak finantzatu du.

<sup>10</sup>Azterlan horren azken txostena hemen aurki daiteke: <http://www.bakeaz.org/es/novedades/presentacion-del-estudio-diagnostico-sobre-las-asociaciones-de-inmigrantes-de-or/>

<sup>11</sup>Guztira laurogeita hemezortzi elkarte identifikatu ziren; horietatik laurogeita zortzi Bizkaiko Elkarten Erregistroan jasota daude, eta hamahiru ez daude inongo erregistro ofizialetan. Azken horiek talde informaltzat sailkatu ziren, ez baitaude formalki elkarte gisa eratuta, baina, berez, hala funtzionatzen dute.

Izan ere, Afrikako populazioa da elkarteetan biltzeko ekimenik handiena duena, aztertu ditugun elkarte guztietan; Latinoamerikako eta Europar Batasuneko kolektiboak ere gainditzen ditu elkarte-dentsitateari dagokionez. Hori horrela, datuen arabera, talde geografikoen arabera banaketa ikus dezakegu: afrikar jatorriko pertsonak osatutako elkarteak %41,18 dira, eta latino-amerikarrek osatutakoak, %23,53; horiekin batera, mistotzat katalogatu diren beste batzuk daude (%32,94), hainbat jatorritako pertsonak biltzen dituztenak. Azken horietan, berriro ere afrikarren eta latinoamerikarren kolektiboak dituzte lehen postuak.

Elkarteen %65,85ak ibilbide laburra egin du, eta 2005-2009 bitartean eratu ziren, atzerritarren populazioa gehien hazi zenean. Lehentasuneko ekintza-arloen arabera, bi erakunde-mota daude: gehienbat ekintza soziokulturalak gauzatzen dituztenak (%72,94), eta immigrazioarekin zerikusia duten gaietan lan egiten dutenak (%43,53). Elkarteen ehuneko handi batek gizarteari orokorrean zuzentzen dizkie jarduerak (%71,76), eta etorkinengana nahiz bertakoengana iristea dute helburu, kultura desberdinen arteko elkarbizitza-esparrua sortu nahi dutenez. Haien jardueren hedapen geografikoari dagokionez, aipagarria da aztertutako elkarteentz %16,47k soilik zabaldu duela bere eragin-eremua jatorrizko herrialde edo/eta eskualdeetara.

Etorkinen elkarteetara egindako hogeitaz hamar elkarbizitza sakonen bitartez lortutako emaitza kualitatiboen arabera, elkarte horien antolamendu-ezaugarri nagusiak hauek dira, besteak beste: kideen partaidetza aktibo urria, eta hori da etengabe gainditu behar duten erronka; etorkinen kolektiboaren bizitza-egoera bera; lidergoari eta elkartearen kudeaketari dagozkien gatazkak, eta baliabide askorik ez izatea. Izan ere, elkarte batzuk ekonomikoki finantzatzeko diru-laguntza publikoak eskuratzen hasi badira ere, arazo komun batzuk dituzte kudeaketari dagokionez, hala nola zorrotasun burokratiko eta administratibo handia, kideen prestakuntza-maila baxua eta eskarmentu teknikorik eza eta, administrazio publiko batzuen kasuan, diru-laguntzak ebazteko epe luzeak. Elkarte horietako gehienek iritziak, erakunde publikoek konpromiso handiagoa hartu beharko lukete haiek indartzen.

Oro har, aztertutako elkarteak prest agertu dira beste erakunde batzuekin harremanetan jarri eta kolaboratzeko, etorkinen elkarteak izan edo bestelako talde heterogeneoak izan, horrela sarean lan egin ahal izateko. Jarrera hori, normalean, kultur elementu komunak edo nolabaiteko hurbiltasun geografikoa partekatzen duten elkarteetara erakutsi da. Kultur jarduerak edo/eta zerbitzuen prestazioak dira elkarteentzako kolaborazioa gehien bultzatzen dutenak; hala ere, orain arte, immigrazioaren arloan diharduten elkarte-sareak ez dute lortu etorkinen elkarteak ildo nagusi politiko komun batzuen inguruan biltzerik, immigrazioaren fenomenoak sortutako arazoetan presioa egiteko eta politikoki eragin ahal izateko.

Azkenik, eta eremu publikoan parte hartzeari dagokionez, adierazi beharra dago haien presentzia eta benetako partaidetza oso mugatua dela, besteak beste, tokiko erakunde gehienek ez dutelako eskaintzen migrazioei zehazki dagokien biderik parte hartzeko. Ondorioz, elkarteek eremu publikoan duten partaidetza eta integrazioa baxua da oraindik. Bestalde, jasotako emaitzek pentsarazten dute, halaber, orain arte ez dela elkarte-mugimendu bat egituratu, etorkinen kolektiboaren ordezkari izango litzatekeena. Etorkinen elkarteek horri buruz administrazio publikoetara egiten dizkieten proposamenen artean, hauek ditugu: a) herritarrek parte hartzeko bide formalak sortzea immigrazioaren inguruan, erakundeek etorkinen elkarteek planteatutako eskaerak eta proposamenak aktiboki entzungo dituztela bermatuko dutenak; b) ahal den neurrian, erakunde publikoen eta etorkinen elkarteentzako bilkuren ordutegiak azken horien benetako ahalmenetara egokitzea, kontuan hartuta elkarbizitza askoren bizitza-egoera; c) elkarteak sendotzen gehiago laguntzea eta egoitza egonkor gisa erabil daitezkeen lokalak eskuratzeko bideak ematea, per-



tsonala kontratatzeko aurrekontu-partida handitzea eta beste erakunde batzuek etorkinen elkar-teei eskaintzen dieten aholkularitza-lana eta prestakuntza teknikoa sendotzea; eta d) immigrazio-teknikariaren figura sortzea halakorik ez dagoenean, erakundearen eta elkarteen arteko hurbilke- ta eta elkarriketa sustatzearen.

## Bibliografia

- Beja Horta, A.P.; Malheiros, J. (2006). "Social capital and migrants' political integration: the case study of Cape Verdean associations in the greater Lisbon area", *Finisterra*, XLI, 81, 143.-170. or.
- Berger, M.; Galonska, C; Koopmans, R. (2004). "Political Integration by a Detour? Ethnic Communities and Social Capital of Migrants in Berlin", *Journal of Ethnic and Migration Studies*, 30 (3) lib., 2004, 491.-507. or.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila (2007). "Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana, 2007-2009". Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fennema, M.; Tillie, J. (2001). "Civic community, political participation and political trust of ethnic groups", *Connections* 23 (2), 44.-59. or.
- González Ferrer, A.; Morales Díez de Ulzurrun, L. (2006). "Las asociaciones de inmigrantes en Madrid. Una nota de investigación sobre su grado de integración política", *Revista Española del Tercer Sector*, 4 (iraila-abendua).
- Goñalons Pons, P. "¿Transnacionalismo y ciudadanía sin fronteras? El papel de la estructura de oportunidad política en España". In Ibarrola-Armendariz, A., eta Firth, C. H. (argit.): *Migraciones en un contexto global. Transiciones y transformaciones como resultado de la masiva movilidad humana*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, (Migraciones Internacionales seriea, 5. zk.), 103.-128. or.
- Hierro Esnarriaga, C. (2008). *Manual de prácticas participativas: asociaciones de personas inmigrantes*. Eusko Jaurlaritzako Herritarren Partaidetza Zuzendaritza eta Immigrazio Zuzendaritza, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Lelieveldt, H.; Dekker, K.; Volker, B.; Torenvlied, R. (2009). "Civic organizations as political actors: mapping and predicting the involvement of civic organizations in neighborhood problem-solving and coproduction", *Urban Affairs Review*, 45. lib., 1. zk.
- Martiniello, M. (2005). "Political participation, mobilization and representation of immigrants and their offspring in Europe". Sweden: School of International Migration and Ethnic Relations: Willy Brandt Series of Working Papers.
- Martiniello, M.; Penninx, R. (2006). "Procesos de Integración y políticas locales: estado de la cuestión y algunas enseñanzas". *Reis*, 116, 2006, 123-156. or.

Morales, L.; Anduiza, E.; Rodríguez, E.; San Martín, J. (2009). "The political participation of immigrants in Barcelona and Madrid: voting behaviour and political action".

Immigrazioaren Euskal Behatokia (2009ko abuztua). *Población extranjera en la CAPV 2009*. Bilbo: Ikuspegi (Panorámica de la inmigración, 29. zk.).

Ruiz Vieytez, E.J. (2008). "Derechos humanos y gestión democrática de la diversidad: retos y soluciones". In Ruiz Vieytez, E.J.: *Derechos humanos y diversidad. Nuevos desafíos para las sociedades plurales*, Instituto de Derechos Pedro Arrupe, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

Soysal, Y.N. (1994). *Limits of Citizenship: Migrants and Postnational Membership in Europe*. Chicago: University of Chicago Press.

Tillie, J. (2004). "Social capital of organisations and their members. Explaining the political integration of immigrants in Amsterdam", *Journal of Ethnic and Migration Studies*, 30, 529.-541. or.

Tillie, J.; Slijper, B. (2006). "Immigrant political integration and ethnic civic communities in Amsterdam", in *Identities, Affiliations and Allegiances*, ed. Benhabib, Sh. And Shapiro, I., Cambridge University Press, Cambridge.

Vertovec, S. (1999). "Minority associations, networks and public policies: reassessing relationships", *Journal for Migration and Ethnic Studies*, 25, 21.-42. or.

## **Erljioen arteko bizikidetza giza eskubideen ikuspegitik, gehiengoan-gutxiengoan testuinguruan: Bilboko metropoli-eremuko kasua**

**Eduardo J. Ruiz Vieytez**

**Gorka Urrutia Asua<sup>1</sup>**

**Human Rights Institute, University of Deusto**

### **1. Sarrera**

Artikulu honek Euskal Autonomia Erkidegoan egun dagoen erlijio-aniztasunari buruzko deskripzioa eta analisisia egin nahi ditu. Batetik, aniztasun horren ikuspegi orokorra zehaztuz EAEn gutxiengoan dauden erlijio-komunitate nagusienak identifikatuta eta haien garapena aztertuta. Bestetik, aniztasun horrek euskal gizartean sortzen dituen erronka sozial, politiko eta kultural nagusietako batzuk aurkeztuz. Euskadi mailan apenas dagoen horrelako gai bati buruz aurretik egindako lanik; baina gai hori gero eta garrantzi eta gaurkotasun gehiago hartzen ari da giza eskubideen eta kudeaketa publikoaren ikuspegitik.

Finean, eztabaida bati hasiera ematea proposatzen da, horren bidez, erlijio-esparruko talde-identitatea eta komunitate politikoaren parte izatea uztartzeko orduan, giza eskubideak noraino iristen diren jakin ahal izateko. Erlijio-aniztasuna euskal gizartearen egungo zein etorkizuneko ezaugarri gisa azaltzen zaigu. Horrek aipatutako kudeaketaren egokitzapen demokratikoa birformulatzerara behartzen gaitu, eta gutxiengoan dauden erlijio-komunitateek esparru publikoan egiten dituzten hainbat eskaerari neurrizko eta arrazoizko erantzuna eman diezaioke.

Orri hauetan aurkezten ditugun emaitzak, zehatz-mehatz, Bilboko metropoli-eremuan gutxiengoan dauden erlijio-komunitateetatik egiten diren eskaera eta erronka nagusiei buruzkoak dira.

---

<sup>1</sup>Egileak "Eraldatzen ari den munduaren erronka sozial eta kulturalak" diziplina anitzeko taldearen partaide dira, Eusko Jaurlaritzak A mailako talde gisa onartua. Era berean, Consolider-Ingenio 2010 "Eskubideen garaia" (CSD2008-00007) proiektuan hartzen dute parte, Espainiako Gobernuaren Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatua.

## 2. Aniztasun sozio-erlijiosoa: gutxiengoan dauden komunitateetara hurbilketa

### 2.1. Euskadiko testuingurua eta erlijio-aniztasuna Bilboko metropoli-eremuan

Euskadin gutxiengo diren sinesmenetako erlijio-komunitateak egotea kontu berri samarra da. Komunitate horietako batzuk duela hogeita hamar urte baino gehiagotik bertan badaude ere, egun dauden gehienak azken bi hamarkadetan azaldu dira –eta epe horretan aurrez zeudenak ere hazi egin dira–. Hori horrela izan arren, gutxiengoan dauden sinesmenek ikusezinak izaten jarraitzen dute gure gizartean. Datozen urteotan sinesmen horietako komunitateen kopuruak, eta, era berean, beren kideenak, hazten joateko aukera handia du, gure inguruko beste lurralde batzuetan horrela gertatu dela ikus baitezakegu.

Euskadin gutxiengoan dauden sinesmenak aztertzea zaila da, haiei buruzko informaziorik ez baitago, eta errealitate horri buruzko ikerketa gutxi egin baita. Gutxiengoan dauden erlijio-sinesmenek, sinestunen izaerarekin zerikusia duten hainbat arrazoiengatik, ez dute egonkortasuna ezaugarri gisa.

Demokrazia iritsi zenean, askatasunarentzat bideak zabaltzen hasi ziren, eta aztertzen ari garen esparrua 1980ko Erlijio-askatasunaren Legearen bitartez garatu zen. Data horretatik aurrera, Espainiako gizarteak, bere osotasunean, bilakaera bat hasi zuen “erlijio-esparruan katolikoa zen gizartea izatetik kultura-esparruan katolikoa zen gizartea izatera; bertan, elementu katolikoek, gehienbat, gizartearen kulturaren zati bat osatzen dute, eta alde batera uzten dira erlijio-elementuak; pertsonak katolikotzat dute beren burua, baina beren portaerek ez dute erlijio-izaerarik”. Gutxiengoan erlijio asko garai horretan azaltzen dira berriro, eta baita beste eliza asko gauzatu ere, batik bat ebanjelikoak.

Urte horietan erlijio-aniztasuna sustatuko duten bi gertakari daude. Aurrena sekularizazioa da, bai Elizaren eta Estatuaren banaketari dagokionez, bai sinesmenen zein praktiken gainbeherari dagokionez. Sekularizazioak, beste gauza batzuen artean, katolikoek kopurua gutxitzea ekarriko du, eta baita gizartean zuten portzentajearena ere. Hori horrela, eliza katolikoarekin zerikusia zuten hainbat elementu kulturalak erdigunean zuten lekua galduko dute pixkanaka, eta horrek sinestun katolikoek kopurua murriztea ekarriko du. Bigarren gertakariak, nazioarteko migrazio-prozesuek, bi modutan eragiten dio erlijio-aniztasunari. Alde batetik, dagoeneko bazeuden erlijio-komunitateak hazi egin ziren sinesmen hori zuten etorkinak iritsi zirelako edo fededun berriak lortu zituztelako. Bestetik, gutxiengoan sinesmen berriak “inportatu” ziren, etorkinen jatorriko lurraldeetako erlijioak, aurrez bertako gizartean ez zeudenak.

Bi gertakari horiek, sekularizazioa eta immigrazioa, denbora epe oso laburrean gertatu dira, eta bi fenomenoek uztarturik aipaturako salto txiki hori eman dadin lagundu du; hots, euskal gizartea gizarte katoliko homogeen bat izatetik nagusiki katoliko izatera pasatu da, gizarte kideen sinesmen-aniztasuna handiagoa da, eta inongo federik gabeko pertsonen portzentajea ere hazi egin da.

Euskadiko testuinguruari lotuta, eta baita Bilboko metropoli-eremuari ere, gutxiengoan dauden sinesmenak aurki zitezkeen demokrazia iritsi aurretik ere, gure ikerketa honetan aztergai ditugun hainbat komunitate 60ko hamarkada inguruan azaldu baitziren, gehienak kristau-komunitateak edo kristau inspiraziokoak, hori bai, oraindik ia-ia ezkutukoak.

Euskadiko erlijio-aniztasuna azaltzeko, zerrenda bat egin dugu ondoren datorren taulan; bertan, gutxiengoan dauden sinesmenen komunitate edo kongregazioen kopurua azaltzen da, Euskadin gurtzarako lekua dutenak. Bertan ikus daitekeenez, sinestunen komunitateak oso modu desberdinean banatzen dira fedearen arabera.

Guztira agertzen den 214ko kopuru hori gutxiengoan dagoen sinesmen bakoitzaren inguruko komunitate, elkarte edo kongregazioen batura da, eta ez soilik sinesmen bakoitzari, bere horretan, edo gurtza lekuari dagokiona (izan ere, batzuetan komunitate bat baino gehiagok gurtza-leku bera partekatzen dute). Euskadiko lurretan komunitate horien banaketa geografikoa ere ez da homoginoa, Bizkaia baita, jende-kopurua arrazoi nagusi izanda, komunitate gehien duen lurraldea:

1. taula. EAEn gurtza-lekuak dituzten eta gutxiengoan dauden erlijio-komunitateen banaketa, erlijio-sinesmenen arabera

Sinesmena	Kopurua
Ekialdeko kristautasuna eta ortodoxoa	8
Kristautasun erreformatua eta ebanjelikoa	96
Zazpigarren Eguneko Eliza Kristau Adbentista	9
Jhovaren lekuko kristauen eliza	32
AESJE - mormoiak	4
Lectorium Rosacrucianum	1
Islama	38
Budismoa	15
Bahaismoa	9
Zientziologiaren eliza	2
Guztira	214

## 2.2. Gutxiengoan dauden erlijioak: sinesmenak eta beren komunitateen ezaugarriak

2. taula. Bilboko metropoli-eremuan gurtza-lekuak dituzten gutxiengoan dauden erlijio-komunitateen banaketa, erlijio-sinesmenen arabera

Sinesmena	Kopurua
Ekialdeko kristautasuna eta ortodoxoa	1
Kristautasun erreformatua eta ebanjelikoa	57
Zazpigarren Eguneko Eliza Kristau Adbentista	4
Jhovaren lekuko kristauen eliza	14
AESJE - mormoiak	2
Lectorium Rosacrucianum	-
Islama	12
Budismoa	6
Bahaismoa	3
Zientziologiaren eliza	1
Guztira	100

Itxuraz, Euskadin gutxiengoan dauden erlijioen kopurua ez da handia, aipatu dugun moduan, izendapen baten edo besteren azpian ugaritasun handia badago ere. 2. taulan Bilboko metropoli-

eremuan gutxiengoan dauden komunitateen banaketa ikus dezakegu, eta Euskadi osoko sinesmen-zerrendaren oso antzekoa dela erakusten digu.

Ondoren, Bilboko metropoli-eremuan gutxiengoan dauden sinesmenen ezaugarri nagusien deskripzio labur bat egingo dugu, eta azken aldian izan duten bilakaera azalduko dugu.

a) Ekialdeko kristautasuna eta ortodoxoa. Ekialdeko komunitate eta elizak egotea, hala nola ortodoxoak, zuzenean migrazioarekin lotuta dago; kideen jatorria eliza bakoitzaren izendapen nazionalari lotuta dago, Gipuzkoako serbiarren elizan ezik, horrek ohikoa baitu bertako pertsonen partaidetza. Gainerakoan, eliza horiek duela gutxitik daude Euskadin. Honakoak dira: eliza ortodoxo errumaniarra, eliza ortodoxo errusiarra, eliza ortodoxo georgiarra, eliza ortodoxo serbiarra eta Lipovenoen edo antzinako errituaren eliza. Komunitate horiek guztiak bakoitzari dagokion ohiko patriarkatuaren menpe daude eta, azkena izan ezik, bata bestearekin elkartasunean daude. Bilbo inguruaren kasuan, gehien finkatutako parrokia errumaniarra da, eta Bizkaiko Elizbarruti Katolikoak utzitako kapera batean biltzen da, Derion.

b) Kristautasun erreformatua eta ebanjelikoa. Eliza protestante edo ebanjelikoen kopuru handiak, taulan jaso moduan, gutxiengoan dauden sinesmenen multzoak Euskadin duen garrantzia erakusten du. Komunitate-ugaritasun hori zergatik dagoen ulertzen laguntzeko, pentsatu behar da, sorreratik bertatik, protestantismoa sinesmen anitza eta askotarikoa dela; eta horrek Bilboko eta Euskadiko komunitate ebanjelikoaren ezaugarria izaten jarraitzen du. Eliza horren gaur egungo errealitateak erakusten du gure lurraldean dauden multzoetan ordezkatuta daudela Europa, Afrika eta Amerikako eliza anglikano eta protestanteetako familia nagusiak.

Eliza zaharrenen zantzuak (Hirutasunaren eliza anglikanoa eta ebanjeliko espainiarra) XIX. mendean aurki ditzakegu, hainbat atzerritar familia, lana dela-eta, Bilbora joan zenean. Baina eliza horien hazkundera ez da gertatzen XX. mendeko 70eko hamarkadara arte. 1. eta 2. taulan jasotako kristautasun erreformatuaren eta ebanjelikoaren komunitateak honako eskema honen araberako sailka daitezke:

3. taula. Bilboko metropoli-eremuan dauden kristautasun erreformatu eta ebanjeliko komunitateen banaketa

Izena	Kopurua
Apezpiku-eliza erreformatu espainiarra	1
Anaien Asanbladak	2
Eliza ebanjeliko espainiarra	3
Eliza bautistak	4
<b>Eliza mendekostearrak:</b>	
Eliza mendekostearrak - FADE	9
Filadelfiako Eliza Ebanjelikoa	21
Beste eliza mendekostear batzuk eta duela gutxi finkatuak	17
Guztira	57

Komunitate horien eliza-antolakuntza lotuta dago kide diren erlijio-familiari, eta oinarritzko hiru egitura-motaren bidez artikulatzen da, zentralizazio-graduaren arabera: apezpikutarra (zentralizazio handiagoa), presbiterianoa eta kongregazionala (zentralizazio txikiagoa dutenak). Aurrenak apezpiku batek gainbegiratzen ditu eta hierarkikoki antolatuta daude; Bilboren eta Euskadiren kasuan, mota horretako elizak Apezpiku-eliza Erreformatu Espainiarraren (IERE) kide dira, eta

eliza hori elkarte anglikanoari edo eliza luthertarrari atxikita dagoaldi berean. Bigarren kasuan, komunitate presbiterianoak kide anitzeko organo batek gobernatzen ditu (presbiterioak), artzainak eta presbitero talde batek osatua. Presbiterioek eskualdeko edo estatu-mailako bilerak egiten dituzte, egin beharreko ekimenak elkarren artean adosteko. Euskadin dagoen eliza ebanjeliko espainiarrak organizazio horren antz handia dauka. Presbiterianoen barneko hirugarren eredu, azken horren antzekoa, Filadelfiako Eliza Ebanjelikoarena dugu. Azkenik, Euskadin gehien hedatutako antolakuntza-sistema kongregazionala da, asanblada moduan lan egiten duena. Bestalde, Euskal Herriko Kontseilu Ebanjelikoa (CEPV-EHKE) dago Euskadin, 80ko hamarkadan sortua eta Euskadiko hainbat eliza ebanjelikoren federazioa dena. Hori da federatutako elizek partekatzen dituzten kezkek artikulatzeko Kontseilua. Horren adibide dira elizek erabiltzeko lokalak irekitzearen inguruko araudiaren aurreko jarrera, eta gune publikoetako gurtzarako lekuen erabileraren inguruko, ospitaleetan, kartzeletan, aireportuetan eta abarretan.

Apezpiku-eliza Erreformatu Espainiarra, normalean Hirutasunaren Eliza gisa ezagutua, eta Anaien Asanbladak ditugu hemen aurrenetakoak finkatuak. Aurrenekoa, CEPVren eta FEREDEn kide da. Anaien Asanbladak ere azken federazio horretako kide dira (Espainiako estatuarekin lankidetzaz hitzarmenak ditu). Bi izen horiek bezala, Eliza Ebanjeliko Espainiarrak (IEE) 1880ko hamarkadako Europako immigrazioan dauka sorrera (batik bat familia ingelesak, alemaniarrak, frantsesak eta suitzarrak). Urteetan zehar beren bilerak eta ospakizunak etxe partikularretan egitera mugatu izan baziren ere, 1995etik aurrera tenplu baten jabe dira.

Euskadiko eliza bautistak, beren aldetik, Espainiako Batasun Ebanjeliko Bautistari (UEBE) atxikita daude, eta, era berean, FEREDEn eta CEPVren parte dira. 70eko hamarkadatik daude hemen. Eliza mendekostearrei dagokionez, Espainiako Jaungoikoaren Asanbladen Federazioan (FADE) daude bilduta. Eliza horiek guztiak ez dira data berean sortuak, baizik eta 1965etik pixkanaka azaltzen joan ziren, batik bat hainbat misiolarien lanari esker (gehienak finlandiarrak).

Aparteko aipamena merezi du Filadelfiako Eliza Ebanjelikoak, Euskadin 1965etik errotua eta protestantismoaren barruan eliza gehien dituenak. Eliza horren ezaugarri nagusia da kide gehienak ijitoak izatea.

Euskadiko eliza protestanteen sorta osatzeko 27 eliza biltzen dituzten bi multzo aipatu behar ditugu; horietatik 17 Bilbo eta inguruetan daude. Aurrenekoan gainerako eliza mendekostearrak ditugu, eta inongo hierarkia-mendekotasunik ez izatea da beren ezaugarri nagusia. Eliza horiek guztiak erabat autonomoak dira; hiru hiriburuen inguruetan daude, batik bat Bilboko metropoli-eremuan, eta gehienak CEPVra eta FEREDera daude atxikita. Bigarren multzoa duela gutxi finkatutako elizek osatzen dute, aurreneko belaunaldiko etorkinei zuzenean loturikoak, batik bat Afrikatik edo Latinoamerikatik etorriak. Beren egoera nahiko kaskarra da; izan ere, ez dute nahikoa baliabiderik beren gurtza eta jardueretarako lokalak edukitzeko. Gainera, eliza horiek ez daude federatuta edo bilduta, ez toki-mailan, ez estatu-mailan.

c) Kristau inspiraziodun beste komunitate batzuk. Zazpigarren Eguneko Eliza Kristau Adbentistari dagokionez, Euskadin 1936 urtean sortu zen lehen komunitatea, eta gaur egun bederatzi gurtza-leku dituzte hainbat euskal udaletan sakabanatuta. Bilbon eta inguruan lau eliza dituzte. Eliza adbentista, Justizia Ministerioan izena emanda egoteaz gainera, FEREDeri atxikita dago.

Jehovaren Lekuko Kristauen Elizari dagokionez, Euskadin 50eko hamarkadaren azken urteetan azaldu ziren; garai haietan hainbat aitzindarik zabalkunde-lana hasi zuten Bilbon eta Donostian,

zuhurtziaz, urte haiek ez baitziren errazak. Gaur egun 14 talde daude Bilbo inguruan. Instituzionaltze- eta federatze-maila handia dute; izan ere, duten antolakuntza-egituragatik organo zentraleri atxikita daude. 2006. urtean, Justizia Ministerioak nabarmen sustraitutako erlijio gisa onartu zuen sinesmen hori.

Azkenik, Azken Egunetako Santuen Jesukristoren Eliza (ISJUD) 70eko hamarkadaren azken urteetan finkatu zen Euskadin. Ordutik, motel baina etengabe hedatu da, eta gaur egun bi komunitate ditu, Bilbon eta Getxon. ISJUDaren instituzionaltze-maila nahiko handia da, batetik, bere izaera antolatuagatik, eta, bestetik, Justizia Ministerioak nabarmen sustraitutako erlijio gisa onartu zuelako.

d) Islama. Historia-aipamenek informazio urria ematen dute XX. mende aurretik Euskadin izan zitezkeen musulmanen komunitateei buruz. Lehenbiziko aztarna modernoek 70eko hamarkadara garamatzate; orduan, Magrebetik etorritako hainbat familiak, Gipuzkoako industria-guneetan finkatuak, Euskadiko aurreneko musulmanen komunitatea sortu zuten. Ordutik aurrera, sortzen diren musulman-komunitate nagusiak Marokotik eta Aljeriatik etorritako pertsonak sustatzen dituzte, eta horregatik dira suniak euskal musulman gehienak. Islamiarren komunitateak ez dira ugalduko 80ko hamarkadaren azken urteetara arte eta 90eko hasierakoetara arte, immigrazioaren hazkundearekin bat. Horrela, Bilbon agertzen zaigu aurreneko islamiarren komunitatea (Badr meskita), baina islamiarren komunitateek 90eko hamarkadako azken urteetan eman zuten izena lehenbizikoz Justizia Ministerioaren erakunde erlijiosoen erregistroan.

Aparteko arreta merezi du Assabilek, Euskal Herriko Islamiar Zentro Soziokulturalak, Euskal Herriko Islamiar Komunitateen Batasunaren, EHIKBren sorburua, UCIDEn kide dena (Espainiako Islamiar Komunitateen Batasuna). Erakunde hori Espainiako Islamiar Kontseiluko kide dugu, eta organo horrek harreman zuzena du Espainiako estatuarekin. EHIKB 2007. urtean sortu zen Bilboko Assalam meskitak sustatuta; meskita hori UCIDEn tokiko federazio gisa aritzen zen ordurako. Musulmanen komunitateak guztira 12 gurtza-zentro ditu Bilbon eta inguruan.

e) Gutxiengoan dauden beste erlijioak. Budismoari dagokionez, Euskadin dauden adarrak budismo tibetarra eta budismo zena dira, Mahayana tradizioaren barneko eskolak biak, eta Bilbon guztira 6 zentro dituzte. 80ko hamarkadan sortu ziren; garai hartan, Frantziako zentro budistetara joaten urteetan ibili ostean, aitzindari euskaldun batzuek aurreneko elkarteak sortu zituzten gure lurrean.

Bahaismoaren sorrera bestelakoa da Euskadin; 70eko hamarkadan Zaragozatik etorritako sinesmen horretako bi familia Bizkaian finkatu ziren, eta aurreneko komunitatea sortu zuten. Guztira hiru komunitate daude Bilbon eta inguruetan, baina bat bera ere ez dago formalki erregistratua.

Azkenik, 2008an Zientziologiaren Elizak lokala zabaldu zuen Bilbon, Euskadin 1982rako lehen agerraldia egin bazuen ere. Instituzioen aldetiko onarpena 2007koa da, urte horretan onartu baitzuen Justizia Ministerioak erlijio-talde gisa.

Era berean, aipatzekoa da Euskadin erlijioen arteko elkarrizketarako hainbat proposamen egin direla, eta baita nazioarte-mailan horretara bideratutako hainbat topaketa gauzatu ere. Ekimen horietako batzuen xede nagusia Euskadiko erlijioen arteko elkarrizketa eta ezagutza bultzatzea zen. Horrela, Bilbo inguruan, Bizkaiko Erlijio arteko Elkarrizketa Mahaia aipa daiteke, Unesco Etxeak bultzatua, 2003. urtetik Bizkaiko hainbat erlijiotako kideak biltzen dituen. Ignacio



Ellacuria Gizarte Gunean ere, Bilbo erdigunean kokatua eta Jesusen Konpainiari atxikia, erlijio-aniztasunarentzako eremu irekia sustatzeko aukera zabaldu da, DIAR taldearen bitartez (Erlijioen arteko Elkarrizketa, Onarpena eta Errespetua) eta hainbat erlijiotan gutxiengoan dauden zenbait komunitateri elkarren artean partekatzen dituzten lokalak utziz.

### 3. Gutxiengoan dauden komunitateen eskaerak eta beharrak

Gutxiengoan dauden komunitateen eskaerak eta beharrak, ikerketan zehar hautemanak, nahiko antzekoak dira komunitate guztiak kontuan hartuta. Testu honetan jasotako egoera batzuk, kopuruari dagokionez esanguratsuak ez badira ere, esanguratsuak dira zentzu kritikoan, aniztasun erlijioso eta hiritarra nola artikulatu galdetzen baitigute. Eskaera batzuk administrazioei aurkeztutako prozedura formaletatik ekarri dira orriotara, eta beste batzuk, aldiz, modu informalean azaldu dira administrazioaren edo tokiko elkartearen ordezkariarekin egindako elkarrizketa edo bileretan. Eskaeren eta beharren artean honako hauek ditugu:

- 1) Indarrean dagoen zuzenbide-esparruari lotuta, gauzarik aipagarriena da **arau-esparrua** bera ez dela ezagutzen; eta ezagutza gabezia hori ez da soilik gutxiengoan dauden erlijioen kideen artean gertatzen, baizik eta baita euskal instituzio publikoen baitan ere; izan ere, horientzat erlijio-aniztasuna oraindik onartu gabeko gertakaria dela dirudi, edo oraindik immigrazioarekin eta atzerritartasunarekin nahastua.
- 2) Bilbon eta, oro har, Euskadin gutxiengoan dauden erlijio-komunitateek azaldutako kezketako bat da administrazio publikoetan **solaskide argirik ez** dagoela. Hain zuzen ere, ez dugu aurkitzen ez esparru autonomikoan, ez foralean edo tokikoan, talde erlijiosoekin hitz egiteko ordezkariak bere gain hartzen duen unitate politiko edo administratiborik.
- 3) Behar handiena sortzen duen gai zehatza, eta konpontzen zaila dena, komunitate askok pairatzen duten **gurtza-leku** gabezia da. Alde batetik, lokalak edukitzeko ahalmen ekonomikoa behar da, eta komunitate sortu berriek ez dute beti horretarako baliabide nahikorik; hori oztopo larria da oinarritzko eskubide bat garatzeko, eta ez da inon agertzen eskubide hori bermatzeko botere publikoek neurririk hartzen dutenik. Bestalde, komunitateen aburuz, gurtza-lekuei askotan ezartzen zaien araudia ez da justua, ez ematen duen irudiagatik, ez dakartzan inplikazio praktikoengatik. Horrela, xede erlijiosoak duten lokalak irekitzeko lizentziak ematea gai oso konplexua da, ez baitago horri buruzko araudi bereziturik. Ez da gutxitan gertatzen gehiengoan dagoen erlijioak beste sinesmenei beren gurtzarako leku egokiak uztea –batik bat komunitate kristau ortodoxoekin gertatzen da hori–.
- 4) Gutxiengoan dauden erlijioek, batik bat musulmanen komunitateak, eskatzen duten beste gauza bat da **hilerrietan** komunitateko kideak ez besterik sar daitezkeen lur-emate esparrua edukitzea. Bizkaiari dagokionez, eskaera hori Euskal Herriko Islamiar Komunitateen Batasunaren, EHIKBren, bitartez egin zitzaizen Bilboko Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiari. Azkenik, Bilboko udalerriak erabaki zuen Derioko hilerriko eremu bat uztea Bizkaian bizi den musulmanen komunitateak erabiltzeko; hala ere, egokitze-ekimen positibo hori ez da beste udalerririk batzuetara hedatu.

- 5) **Osasun-esparruari** dagokionez, erlijio-alorreko bi egokitze-eskaera zehatz aipa ditzakegu: musulmanen taldeak eskatu zuen erdaintzua Osakidetza kontura izan zedila, eta Jehovahen lekukoek, berriz, odol-transfusiorik ez izatea. Aurreneko kasuan, eskaera ez da onartu, eta, bigarrenean, istiluak sortu dira, behin edo behin auzitegietara edo Arartekoarengana joaz amaitu direnak. Modu informala, erlijio-talde batzuek azaldu digute nahiko luketela ospitaleetan beren sinesmenduntzat ere errezatzeko lekuak izatea, eta ez soilik gehiengoan dagoen erlijioarena, egun gertatzen den moduan.
- 6) Gutxiengoan dauden sinesmenetako kideek egindako eskaerekin zerikusia duten beste bi gai azpimarratu nahi ditugu: elikadura eta hezkuntza. Lehenik eta behin, **elikadurari** dagokionez, bai osasun- bai hezkuntza-esparruan ordezko menuak eskaintzen dira musulmanen komunitatearentzat, beren erlijio-arauek agintzen dutenera moldatuta; baina, hori bai, inoiz ez da *halal* elikadura (islamiar-legea jarraituz sakrifikatutako animalien okela) izateko aukerarik ematen. Bigarrenez, hezkuntza-esparruari dagokionez, musulmanen komunitateak eskatu du eskola publikoetan beren erlijioa ikasteko eskaintza egotea, indarrean dagoen ordenamenduak ezartzen duena baliatuz; baina eskari horrek, momentuz, ez du garapen aipagarririk izan.
- 7) Aipatu ditugun gisako eskaera gehienak gutxiengoan dauden erlijio-komunitateek **immigrazio-teknikariei** egiten dizkie, eta horrek garbi adierazten du administrazioek azkar lortzen dituztela erlijio-aniztasuna eta egungo migrazio-prozesuak. Dударik gabe, badute zerikusia elkarren artean, baina bi gertaera sozial horien artean egiten den berehalako lotura ia naturalak askoz sakonagoa eta desberdina den problematika ezkututzen du, erlijio-esparruaren ugaltze-prozesua unean uneko, eta ez egiturazko, zerbait gisa hartzen baita. Ez dirudi politika egokiena denik eskaera horiek immigrazio-teknikariek darabilten kudeaketa-eremu murriztera mugatzea. Erlijio-aniztasunaren testuinguru horretan, beharrezkoak dira administrazio publikoen arteko beste lankidetzak-estrategia batzuk, udalerriek normalean ez baitute beharrezko baliabiderik sortzen eskaera edo egoera batzuei erantzun egokia emateko. Horrela, hainbat aldiz, Morerasek dioen moduan, “tokiko ekimen politikoen zehaztasunez, diskrezioz eta posibilitatez jokatzeko dimentsio hirukoitza aukeratzen dute”.
- 8) Onartu behar da Euskadin gutxiengoan dauden erlijio-komunitateetako ordezkarietan izandako elkarriketetan gehien aipatutako problematikak ez direla soilik Euskadin suertatzen; pentsa daiteke beste autonomia-erkidegoetan ere antzekoak izango direla. Dena dela, funtzioen eta eskumenen zehaztapen ezari buruzko kexua behin eta berriz agertzen da, eta, horren ondorioz, administrazioen ekimen arbitrarioak gertatzen dira, ordezkari askoren ustez. Bestalde, aipatu dugun araudiaren izaera generiko eta garatu gabeak arbitrariotasunez jokatzen den ustea elikatzen du. Autonomia- zein toki-mailako esparruetan arautze zehatzik ez egoteak administrazioen arteko zein administrazioaren barneko koordinazio eza areagotzen du. Egoera horrela dela, funtzionarioek ez badakite gai zehatz bati nola aurre egin, bakoitzak bere irizpideen arabera hartuko ditu erabakiak; edo hori horrela izaten den susmoa dago behintzat. Esan daiteke gutxiengoan dauden erlijioentzat araudi-arazo handiena aipatu den guztiak dakarren **segurtasun falta juridikoa** baino ez dela.

#### 4. Ondorioak

Euskadiko erlijio-aniztasunaren inguruko arlo publikoaren eskarmentua urria dela esan daiteke, azken urteotako immigrazio-prozesuak bultzatutakoa baita neurri handi batean. Hala ere, erlijio-identitatearen arloan euskal gizartean dagoeneko ikusten den aniztasuna finkatzen eta sakontzen ari da, eta horrek azterketak eta erantzunak eskatzen ditu; baina, oraingoz, ia ez da planteatu ere egin ez maila akademikoan ez instituzionalean. Are gehiago, neurri handi batean esan daiteke erlijio-aniztasuna bera ez dutela politika-arloko errealitate esanguratsutzat jotzen, ez gizarteak bere osotasunean, ezta hura ordezkatzeko duten instituzioen gehiengoak ere. Hori guztia horrela izanik ere, erlijio-identitateak –batik bat bere kopuru edo ezaugarriengatik gatazkatsuagoak direnak– egokitzea da Europako gizarte demokratikoek, eta baita, beraz, Euskadiko gizarteak ere, lehenbailehen aurre egin beharreko erronka garrantzitsuenetako bat.

Horrek guztiak beharrezko egiten du egokitzeko edo integrazioarako aukerak lantzea ahalbidetuko luketen giltzarriak aurkitzeko hausnarketa planteatzea. Horretarako, aurrez kontuan hartu eta onartu beharko da erlijio-aniztasuna gizarte demokratiko bateko egoera natural eta osasuntsu gisa. Baina, horrekin batera, beharrezkoa da instituzio- zein gizarte-eragileek gure gizartean egun dagoen erlijio-aniztasunaren egoera zein den ezagutzea, eta baita komunitate jakin batzuek dagozkien legezko eskubideak baliatuz egin ditzaketan aldarrikapen politiko edo kulturalak ere.

Toki-mailako egoera erlijiosoa konplexuago bilakatu da bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki, eta horrek, alde batetik, gutxiengoan dagoen errealitate hori hobeto ezagutu behar dela erakusten du, eta, bestetik, bere onarpena antolatu behar dela. Era berean, toki-mailako botere publikoek jakin beharra daukate gutxiengoan dauden erlijioen errealitatea zein den, eta baita horren aurrean duten arduraz jabetu beharra ere. Erlijio-aniztasunaren eta immigrazioaren kudeaketan arteko nahasmena saihesteaz gainera, fenomeno desberdinak baitira, beharrezkoa da: arlo horretan solaskide nor izan behar duten argi eta garbi zehaztea; pertsonei eta komunitateei entzutea, haiei eragiten dieten politikak diseinatzeko orduan; eta erlijio-askatasuna benetakoa eta guztiontzakoa izan dadin behar diren neurriak garatzea, bai arau bai aurrekontu arloetan, ordenamendu juridikoak berak agindu moduan. Onurak ekarriko ditu, dudarik gabe, epe ertainean zein luzean, gizarte-arloko zein instituzio arteko elkarrizketa-eskarmentuak eta parte-hartze prozesua bi aldeek ezagutzeak; horrela, erlijio-askatasuna eta diskriminazio eza hobeto bermatuko dira, eta harmonia eta kohesio sozial handiagoa ziurtatuko da; eta guztia euskal gizartearen izaera guztiz aniztaren gainean eraikiko da.

Beraz, beharrezkoa da onartzea erlijio-adierazpenak –behintzat horietako batzuk– ezin direla esparru pribatura murriztu, edo ezin dutela instituzioen axolagabetasuna jasan. Kultura-, hizkuntza- edo gizarte-aniztasunak arautzen eta egokitzen diren moduan, erlijio-aniztasunak instituzio publikoen arreta merezi du, eta ez soilik estatuari dagokion maila zentralean, baita autonomia, foru eta tokiko mailakoei dagokienean ere, gero eta gehiago. Egokitze behar hori, ez da, ezta urririk eman ere, euskal gizartearena soilik, ez eta gure antzeko parametro sozial edo instituzionalak dituzten beste gizarte batzuentzat zerbait berria ere. Gai horretan besteek izandako arrakasta edo porrotetatik –beti ere erlatiboak– ikasteko aukera ematen du horrek. Xede horrekin, parte-hartzeko eta batzeko asmoz egindako lan guztiak onurak emango ditu, epe ertainean eta luzean, kohesio sozialari dagokionez.

Gaur egungo egoeraren aurrean, komeni da hemen ditugun gutxiengoan erlijioen errealitatea jakitera ematea toki-mailan, beren presentzia soziala agerian uztea, eta erlijio horiek instituzio publikoei aurkezten dizkieten eskaerei erantzutean argudio bateratzaileak ematea. Hori gutxiengo

horietako pertsonen asebetetze-maila handiagoa lortzeko, bai norbanakoari bai taldeari dagokienez, eta baita gainerako hiritarrek duten balioestea hobetzeko ere. Horren guztiaren xedea da, beraz, ez soilik edozein gizarte demokratikotako oinarritzko eskubideen errespetua bermatzea, baizik eta harmonia eta kohesio sozial maila handiagoa lortzea ere bai, gero eta anitzagoa den gizarte baten barruan.

## Bibliografia

- Ast, F. (2010). "L'apport du droit a la non-discrimination a la protection du pluralisme religieux", in Duarte, Bernadette Duarte (zuz.): *Manifestar sa religion: droit et limites*, L'Harmattan ed., Paris.
- Bramadat, P.; Koenig, M. (arg.) (2009). *International Migration and the Governance of Religious Diversity*, McGill Queen's University Press, Montreal-Kingston.
- Bouchard, G.; Taylor, C. (2008). *Building the Future. A Time for Reconciliation*, Québec, Consultation Commission on Accommodation Practices Related to Cultural Differences, Quebec.
- Bosset, P.; Foblets, M-C. (2010). "Accommodating diversity in Quebec and Europe: different legal concepts, similar results?", in zenbait egile, *Institutional accommodation and the citizen: legal and political interaction in a pluralistic society*, Europako Kontseilua, Strasbourg, 37.-65. or.
- Briones, R. (zuz.) (2010). *¿Y (tú) de quién eres? Minorías religiosas en Andalucía*, Icaria, Madril.
- Buades Fuster, P.; Vidal Fernández, F. (2007). *Minorías de lo mayor: Minorías religiosas en la Comunidad Valenciana*, Icaria, Madril.
- Casanova, J. (2000). *Religiones públicas en el mundo moderno*, PPC, Madril.
- Casanova, J. (2007). "La inmigración y el nuevo pluralismo religioso. Una comparación Unión Europea/Estados Unidos", *Revista Cidob d'afers internacionals*, 77. zk., 24. or.
- Casanova, J. (2009). "Pluralismo religioso en el mundo de hoy", *Inguruak* 46. zk., 15.-26. or.
- Contreras Mazario, J. M. (2007). "La libertad de conciencia y convicción en el sistema constitucional español", *Revista Cidob d'afers internacionals*, 77. zk., 55. or.
- Davie, G. (2000). *Religion in Modern Europe: A Memory mutates*, Oxford University Press, Oxford.
- De Lucas, J. (2003). *Globalización e identidades*, Icaria, Bartzelona.
- Diez de Velasco, F. (arg.) (2008). *Religiones entre continentes. Minorías religiosas en Canarias*, Icaria, Bartzelona.

- Diez de Velasco, F. (2010). "The visibilization of Religious Minorities in Spain", *Social Compass*, 57 (2) zk., 235.-252. or.
- Esteban, V. (2007). "La secularización en entredicho" in zenbait egile: *El fenómeno religioso. Presencia de la religión y la religiosidad en las sociedades avanzadas*, Centro de Estudios Andaluces, Sevilla, 299.-316. or.
- Estruch, J.; Gómez i Segala, J.; Griera, M. M.; Iglesias, A. (2007). *Las otras religiones: Minorías religiosas en Cataluña*, Icaria, Bartzelona.
- Giménez y Martínez de Carvajal, J. (2001). "Las minorías Religiosas en España: Acuerdos de Cooperación como Marco Jurídico", in García Rodríguez, Isabel: *Las minorías en una sociedad democrática y pluricultural*, Universidad de Alcalá, Alcalá de Henares.
- Gómez Bahillo, C. (koord.) (2009). *Construyendo redes. Minorías religiosas en Aragón*, Icaria, Bartzelona.
- González-Anleo, J. (2007). "El postcatólico español y el pluralismo religioso" in zenbait egile, *El fenómeno religioso. Presencia de la religión y la religiosidad en las sociedades avanzadas*, Centro de Estudios Andaluces, Sevilla, 57.-77. or.
- Hernando de Larramendi, M.; García Ortiz, P. (zuz.) (2009). *religión.es. Minorías religiosas en Castilla-La Mancha*, Icaria, Bartzelona.
- Hervieu-Leger, D. (2005). *La religión, hilo de memoria*, Herder, Bartzelona.
- Jézéquel, M. (zuz.) (2007). *Les accommodements raisonnables: quoi, comment, jusqu'où? Des outils pour tous*, Éditions Yvon Blais, Cowansville.
- Koenig, M.; Guchteneire, P.; F.A. (arg.) (2007). *Democracy and human rights in multicultural societies*, Unesco Publishing/Ashgate, Aldershot.
- Labaca Zabala, L. (2008). "La regulación del factor religioso en la Comunidad Autónoma del País Vasco", in García García, Ricardo (zuz.): *La libertad religiosa en las Comunidades Autónomas. Veinticinco años de su regulación jurídica*, Institut d'Estudis Autònomic, Bartzelona, 603.-645. or.
- López Castillo, J. (2007). "La necesaria laicidad", *Revista Cidob d'afers internacionals*, 77. zk., 181. or.
- López Castillo, A. (2002). *La libertad religiosa en la jurisprudencia constitucional*, Aranzadi, Zizur Txikia.
- López García, B.; Ramírez Fernández, Á.; Herrero Galiano, E.; Kirhlani, S.; Tello Weiss, M. (2007). *Arraigados. Minorías religiosas en la Comunidad de Madrid*, Icaria, Bartzelona.
- Llamazares Fernández, D. (2008). "Libertad religiosa, aconfesionalidad, laicismo y cooperación con las confesiones religiosas en la Europa del siglo XXI", *Cuadernos y debates*, 187, Centro de estudios políticos y constitucionales, Madril, 62. or.

- Moreras, J. (2006). *Migraciones y pluralismo religioso. Elementos para el debate*, Cidob, Bartzelona.
- Moreras, J. (2006a). "Creencias más allá de las fronteras. Las expresiones religiosas en el contexto migratorio", in *Puntos de Vista* 7. zk., Madril, 21.-52. or.
- Moreras, J. (2006b). "Migraciones y pluralismo religioso. Elementos para el debate", Documentos Cidob. Serie Migraciones, 10. zk.
- Novak, D. (2009). *In defense of religious liberty*, ISI Books, Wilmington.
- Ollero, A. (2005). *España: ¿un Estado laico?. La libertad religiosa en perspectiva constitucional*, Thomson-Civitas, Zizur Txikia.
- Perea, J.; Sáez de la Fuente, I. (2008). *Inmigración, identidades religiosas y diálogo intercultural*, IDTP, Bilbo.
- Pérez-Agote, A.; Santiago, J. (2009). *La nueva pluralidad religiosa*, Justizia Ministerioa, Madril.
- Rovira i Llopart, F. (2007). "Espacio público y pluralidad de creencias", *Revista Cidob d'afers internacionals*, 77. zk., 137.-148. or.
- Relaño Pastor, E. (2009). "Religious Pluralism in liberal democracies: Should the diversity of religious and secular conceptions of the good in a multicultural citizenship be privatized?" ponentzia, "Right, True, Reasonable. The Perception of Justice in the Global Era" konferentzia aurkeztua, Caserta, 2009ko urriak 29-30.
- Ruiz Vieytez, E.; Dunbar, R. (2007). *Human Rights and Diversity. New Challenges for Plural Societies*, Humanitarian Net, Bilbo.
- Ruiz Vieytez, E. (2009). "Reasonable accommodation: going beyond the European Convention on Human Rights to reflect the plurality in national institutional settings", in zenbait egile: *Institutional accommodation and the citizen: legal and political interaction in a pluralistic society*, Europako Kontseilua, Strasbourg, 127.-142. or.
- Ruiz Vieytez, E. (2009a). "Crítica del acomodo razonable como instrumento jurídico del multiculturalismo", *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, 18. zk., 1.-22. or.
- Ruiz Vieytez, E.; Urrutia Asua, G. (arg.) (2010). *Derechos humanos y diversidad religiosa*, Alberdania, Donostia.
- Taylor, P. Mn (2005). *Freedom of Religion. UN and European Human rights Law and Practice*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Urrutia, V. (2009). "Las minorías religiosas en España", *Inguruak*, 46. zk., 67.-80. or.
- Vertovec, S. (1996). "Multiculturalism, culturalism and public incorporation", in *Ethnic and Racial Studies*, 19 (1) liburukia, 49.-69. or.

Vidal Fernández, F.; Martínez Martínez, J. (2006). *Religión e integración social de los inmigrantes: La prueba del ángel*, Universidad de Valencia-Bancaja, Valentzia.

Woerhrling, J. (1998). “L'obligation d'accommodement raisonnable et l'adaptation de la société à la diversité religieuse”, *Revue de Droit de McGill*, 43. zk., 325.-401. or.





## Immigrazio kriminalizatua

César Manzanos

UPV/EHU

Dani Wagman

Madriko Ikasketen Alternatiboen Zentroa

### Sarrera: Zertaz ari gara immigrazioari edo delituari buruz ari garenean?

Harrigarria da, baina ez ustekabekoa: ultraliberalismoaren aroan, merkatuaren askatasunak bizitza sozial eta ekonomikoa arautzen duen honetan, aurrez inoiz ez bezala bihurtu da arazo giza animalaren historian betidanikoa izan den fenomeno: mugitzeko askatasuna, alegia. Eskulana produktorako faktore nagusietakoa izan da betidanik; bada, eskulanaren joan-etorri askea mugatzeko eta kontrolatzeko politikak ez dira inoiz hain zorrotzak, hain antiglobalizatzaileak izan; iduri du langileek merkatu-produkzioan esku hartzeko duten askatasuna mugatu beharra dagoela, ekonomia kontrolatzen dutenen interesen arabera mugatu ere.

Gurea bezalako herrialde batek badu ahalmena aginte politikoko organoetatik produkzio-jarduera ugarietan diharduten langileen gorabeherak arautzeko; neurri asko har ditzake horretarako: bitartekariak kentzea, beharrianak lehenestea, lana modu homogeenan banatzea, jatorriko herrialdeetan garapen auto-iraunkorrerako elkartzeko politikak bultzatuz herritarren joan-etorri masiboak saihestea, laneko esplotazioari eta lan-eskubideen urraketari aurre egitea... Horiek lirateke egiazko migrazio-politikaren zutabeetako batzuk; behartutako migrazioak saihesteko planak ezartzea litzateke politika horren funtsa. Migrazioei buruzko gizarte-politikaren oinarria litzateke, gaur egun hutsaren hurrengo baita politika sozial hori.

Alabaina, bestelako migrazio bat da etekin ekonomikoaren oinarria: migrazio masiboa, nahasia, azpi-enplegu baldintzetan diharduena, esplotatua, azken batean esklaboa, oinarrizko eskubideak eta lanekoak modu sistematikoan urratzen dituen migrazioa. Eta itxuratutako migrazio-politikaren oinarria. Politika horren helburua ez baita inoren mendean eta babesik gabe diharduen eskulan hori pixkanaka desagerraraztea, baizik eta poliziaren eta militarren kontrola baliatuz migrazio-fluxuei eginahalean eustea, bereizketarik egin gabe. Pertsonen joan-etorri askerako herrialdeen eta eskualdeen artean ezarri dituzten mugak betearaztea da horren xedea. Migrazio-fluxuak bortxaren bidez arautzea da politika horren asmoa, eta ez migratu duten edo migra dezaketen banakoen beharrianak aintzat hartuta, baizik eta eskulan merkea, esanekoa, antolatua gabea eta eskubiderik gabea behar duten eragileen eskakizunak lehenetsita.

Testuinguru horretan ulertu behar ditugu biztanleria etorkinaren zati bat kriminalizatzeko prozesuak. Esplotatu ezin diren etorkinek osatzen dute zati hori, laneko merkatu formalaren edo ez formalaren bidez eginkizun baterako baliatu ezin diren soberakinek. Prozesu horren bidez esplota daitezkeen langile izatetik *kriminalizatu daitezkeen etsai* bihurtzen dira migratu duten biztanleak. Gaur egungo politikek modu selektiboan kontrolatzen dute migrazioa eta politika horien barruan segurtasunaren etsai izendatzen dira etorkinak. Egile batzuek horrela esan izan diote prozesu horri: “*etorkina etsai sinboliko bihurtzea*”<sup>1</sup>. Horraino, behin-behingo.

Gai interesgarri hori alde batera utzi eta argitu beharreko lehen arazoaren mamiari helduko diogu: hau da, bi kontzeptu horien artean nahita sortzen den erlazio faltsu hori argitzeari. Izan ere, zer subjektu soziali buruz ari garen, modu anbigualentean, nahasian eta adiera desberdinez erabiltzen ditugu bi kontzeptu horiek. Immigrazioa eta delitua kontzeptuak, alegia.

Eginkizun horretarako, “delitu” kontzeptuaren harira, lehenik eta behin argitu beharrekoa da gizarteko delinkuentziak ez duela zerikusirik polizia-, zigor- eta kartzela-estatistiketan agertzen diren “jakindako delituekin”. Kriminologiak ondo azaldu du hori historian zehar: zigor-arauak urratzen dituzten gertakizun sozialen artean hutsaren hurrengoa dira “jakin diren delitu” horiek, eta gehienak ez dira hautematen, jazartzen eta zigortzen<sup>2</sup>. Azalpen horrek berebiziko garrantzia du; izan ere, kriminalitate egiazkoari buruzko estatistikek ez, kriminalitate ofizializatuari buruzkoek eraturako irudiaren arabera hautematen du gizarteak nor diren gaizkileak. Horrek, dudarik gabe, eragiten du zenbait kategoria sozial (gazteak, gutxiengo etnikoak, etorkinak, drogaren men-dekoak, etab.) gehiegi ordezkaturik egotea eta estigmatizatzea.

Bigarrenik, eta “immigrazio” kontzeptuaren harira, kontzeptu horren erabilera okerrak, edo zehatzagoak izateko, erabilera maltzurak bidea leundu du arrazakeria modu eraginkorrean ezartzeko gure gizartean<sup>3</sup>; izan ere, zaku berean sartu dira “ez normalizat” hartzen diren guztiak (atzeritarrak, turistak, aldi baterako gurean bizi direnak, gurean finkatu diren gutxiengo etnikoak, “gehiengoaren” hizkuntza eta ezaugarriak beharrezko beste batzuk dituzten gizarteko sektore zabalak, etab.), irudizko kolektibo nahasiaren zaku horretan, hain zuzen. Eta horrek alteritate edo bestetasun kontzeptu baztertzailerak ekarri du.

Eta jakina, immigrazioari buruz gaur egun ezarrita dugun iruditeria horrek lagundu egin du “subjektu migratzaileari” buruzko ikuspegi jakin bat sendotzen; subjektu funtzionalaren irudia, funtzionala bai produkzioaren ikuspegitik eta bai aztergai dugun ikuspegitik ere, oro har oker dabilzanak eta, zehazki, gaizkileak direnak sozialki definitzen eta kontrolatzen laguntzen baitu irudi horrek. Produkzioaren ikuspegitik, Forden ondorengo gizarteak berezkoa duen lan-prekarietatea normalizatze aldera, eskulan merkea, esanekoa eta erraz ordezkatzekoa delako etorkina eta horrek lagundu egiten du produkzio-kostuak merkatzen eta, beraz, irabazi-tasak areagotzen.

Bestetik, gaizkilea nor den definitzeko eta delituaren kontrola haiengana desbideratzeko funtzioa ere betetzen dute. Hala, inflazioa erregulatzeko testuinguru honetan, eskaintzaren aldean lane-

<sup>1</sup>Lan honekin lotura duen gai interesgarri eta funtsezko horretan sakontzeko, ikusi besteak beste, L. Wacquant egilearen obra hauek: *Las cárceles de la miseria*, Alianza, 2000, Madrid eta *Parias urbanos*, Manantial Edizioak, 2001, Buenos Aires. Artikulu oso interesgarria da G. Tinessa egileak idatzitako hau ere: *Marginados, minorías e inmigrantes: criminalización de la pobreza y encarcelamiento masivo en las sociedades capitalistas avanzadas*, Comillasko Unibertsitate Pontifizea, 2007.

<sup>2</sup>Ikusi Manzanos, C. (1991). *Cárcel y Marginación Social*, Tercera prensa, Madril.

<sup>3</sup>Ikusi, Manzanos, C. (1999). *El grito del otro: arqueología de la marginación racial*, Tecnos, Madril.

rako indar soberakina dira etorkinak, beharrezko eskulana, eskaintza horren prezioa ahal bezain beste murrizteko. Eta testuinguru horretan, etorkin soberakin horri identitate desbideratua egozten zaio, bestearen etiketa, hainbat adieratan (subjektu pobrea eta errorik gabea, ezpada segurtasunaren etsai potentziala edo gaizkilea).

Hori esanik, goazen bada, immigrazioaren eta delituaren artean sortzen den erlazioa aztertzea, binomio edo uztartze hori eusteko zer argudio erabiltzen diren objektibatze eta argitze aldera. Ezinbesteko lana da hori, bi kontzeptuak uztartzen saiatzen den erlazio hori guztiz eztabaidagarria dela ikusarazteko, eta, batez ere, “biztanle etorkinak” estigmatizatze prozesu funtzional bat betetzen duela egiaztatze. Gure gizartean indarrean den ordena sinboliko eta materiala betiketzea, hori baino ez du helburu prozesu horrek.

Aldian-aldian eta behin eta berriro delinkuentziaren areagotzea aipatzen duten albisteak ematen dituzte komunikabideek, eta albiste horietako askotan, modu sistematikoan, immigrazioarekin lotzen dute areagotze hori. Ohikoa da egunkarrietan edo albistegietan horrelako titularrak irakurtzea edo entzutea: *“Barne Ministerioak immigrazioari egotzi dio kriminalitatearen areagotzea”* edo *“Poliziak immigrazio irregularrari egotzi dio delinkuentziaren areagotzea”*<sup>4</sup>. Dударik gabe, bultzada eta borondate nabarmena dago baieztapen horietan: herritarren segurtasun ezaren eta delituaren ustezko areagotzea immigrazioarekin lotzea.

Uztartzen diren bi gai horiek, delituak eta immigrazioak, kezka handia eragiten dute gizartean, eta tratamendu alarmista, sinplista edo azalekoa jasotzen dute, ezpada asmo txarrekoa. Horrek ondorio oso kaltegarriak ekar ditzake gizarte osorako, bai eta, nola ez, biztanle etorkin guztientzako ere.

Ikuspegi zientifikotik, afera honetan guztian larriena da gai horiei ematen zaien tratamendua datu eta ondorio guztiz okerrekoetan eta, are, faltsuetan oinarritzen dela hein handi batean. Immigrazioa eta delinkuentzia uztartzen dituzten datu horiek aurkezterakoan sortzen diren zenbait akats eta hutsegite zehaztuko ditugu ondorengo lerroetan, eta, horrez gain, fenomeno horiek aztertze beste irizpide alternatibo batzuk emango ditugu.

Horretarako, sarrera honetarako puntua jarri duen aurreko galderaz gain, beste bi ekarriko ditugu hizpidera: Egia al da delinkuentzia hain modu kezkarrian areagotzen ari dela? Egia al da delituen ehuneko handi bat etorkinek egiten dutela?

### **Egia al da delinkuentzia hain modu kezkarrian areagotzen ari dela?**

Lehenik eta behin, argi izan behar dugu Barne Ministerioak jasotako zifrak “jakin diren” delituei buruzkoak direla; hau da, poliziak atzeman edo herritarrek salatutako delituei buruzkoak. Hots, ez dira egin diren delituak, baizik eta haien berri jaso edo haien ezaguera izan den delituak. Zenbait delitu motatan, hala nola hilketetan, izan diren ia guztien berri izaten da, baina beste mota batzuetan, ehuneko txiki baten berri baino ez. Horrela gertatzen da, adibidez, emakumeen

---

<sup>4</sup>Titular horiek hitzez hitzekoak dira eta aipa genitzake iturria eta data, baina ez dugu komunikabidea aipatuko, idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabide gehienetan agertzen diren ehunka adibide aipa genitzakeelako. Hain zuzen, ugaritze horrek eragin du administrazioak zaintzarako neurriak hartu beharra, masa-komunikabide sistema horiek estereotipo arrazistak areagotzen lagun ez dezaten.

aurkako indarkeriarekin, biktima gehien-gehienek ez baitute salaketarik jartzen. Beste delitu batzuk, hala nola droga-trafikoarekin loturikoak, berriz, norbait atxilotzen dutenean baino ez dira jakiten, “biktimen” salaketarik ere ez baita ia izaten.

Hortik bi ondorio atera ditzakegu: hasteko eta behin, jakiten diren delituei buruzko datuen eta egiaz gertatutako delitu kopuruaren arteko lotura urrun samarra dela; eta, bestetik, urte batetik bestera “jakindako” delituen kopuruan izaten diren aldeek ez dutela zertan loturarik izan egingandako delituen kopuruan izaten diren aldeekin. Lotura falta horren arrazoiak askotarikoak dira.

Lehena da pertsonen salaketen baliagarritasunari buruz duten pertzepzioa edo salaketa jartzeko borondatea nabarmen alda daitekeela. Adibidez, emakumeak tratatu txarrak salatzea animatzen dituzten kanpainak eta horrelako kasuetan jarraitu beharreko prozedurari buruz poliziariei emandako prestakuntzak eragin dezake salaketak ugartzea. Bistan denez, horrek ez du esan nahi tratatu txarren delituak bikoiztu egin direnik.

Poliziarren jarduera bera da aintzat hartu beharreko beste elementuetako bat “jakindako” delituen kopurua balioesterakoan. Poliziak eraginkortasun handiagoz jokatzen duenean, hasieran gerta daiteke delitu gehiago atzematea eta atxiloteta gehiago izatea, eta, horren eraginez, delinkuentzia handiagoa dela pentsatzea. Bide-segurtasunaren kontrako delituak edo droga-trafikoari loturikoak gogorrago jazartzeko kanpaina bat antolatuko balitz, delitu horien inguruko kasu gehiago “jakingo” lirarteke, baina horrek ere ez luke adieraziko horrelako delitu gehiago izan denik.

Salaketak jasotzerakoan polizia-egiturak zer jarrera eta jardun dituen, horrek ere eragin dezake jakindako delituen kopurua nabarmen aldatzea epe laburrean. Ez dezagun ahaztu azken urteotan hainbat plan jarri direla martxan eta horien arabera diru-sariak ematen zaizkiela poliziei “delinkuentzia murriztea” lortzen den lekuetan. Bide-segurtasunaren arloan, adibidez. Eta poliziak salaketa kopuruaren edo atxilotutako pertsonen arabera baino neurtzen ez duenez delinkuentzia, “produktibitate” plan horrek berehalako eragina du, eta erabat kaltegarria: zenbat eta salaketa gutxiago jaso herritarren aldetik eta atxiloteta gutxiago egin, orduan eta diru gehiago irabaziko dute agenteek.

Horrenbestez, nabarmendu dezakegu polizia-sistemek, goitik jasotako jarraibide politikoetan oinarriturik, arautzen dutela eta daukatela ahalmena delitu mota batzuei zein besteei loturiko kriminalitatea areagotu edo murriztu egin den “erabakitze” jendearen artean pertzepzio bat edo bestea sortzeko, eta, hortaz, nor den gaizkilea definitzeko.

Beste uste oker bat da atxilotutako pertsona kopuruak edo preso kopuruak adierazten duela gizarte baten delinkuentzia-maila. Lehenari buruz, gogoratu behar da atxilotutako pertsonen %90 inguru ez dutela inoiz epaitzen<sup>5</sup>. Atxilotetak ugartu egin daitezke poliziak eraginkorrago jokatu duelako edo, guztiz bestela, lana ez duelako ondo bete; jendea frogarik gabe edo froga zalantzarriekin atxilotu duelako, adibidez. Baina, era batera edo bestera, atxiloteta gehiago izateak ez du ezinbestean esan nahi delinkuentzia areagotu egin denik.

Estatuko kartzeletan preso kopuruaren hazkunde esponentziala ere aipatu ohi da delinkuentzia areagotu izanaren adierazleen artean. Gaur egun 75.000 preso baino gehiago daude Espainiako

<sup>5</sup>Epaiketara iristen den %10 eskas horretatik %90 baino gehiago erruduntzat jotzen dute.

kartzela-sisteman. Alabaina, delinkuentzia-indizeen eta preso kopuruaren arteko lotura nahiko eztabaidagarria da. Horren adierazle, hona datu soil bat: gaur egun, “jakindako delituen” tasa askoz txikiagoa da duela 20 urte baino eta orduan 33.000 preso baino ez zeuden.

Garrantzitsua da jakitea kartzelaratutako pertsonen kopurua ez dagoela automatikoki lotuta delitu-mailarekin. Aitzitik, hainbat esparrutan hartzen diren erabaki-prozesu konplexuen ondorio da kopuru hori. Hauek dira prozesu horietako batzuk: zigor-kodean zer den delitu zehazteko erabakiak; ezartzen diren zigorrak; zenbait delitu baliabide gehiago erabiliz jazartzeko edo zenbait kolektibo estuago zaintzeko presio sozial eta politikoak; politika polizialak eta judizialak; kartzelaren alternatibak erabiltzea ala ez; espetxe-erakundeetako organoek baldintzapeko askatasuna emateko erabakia.

Esate baterako, epaileen artean azken aldiko joera da droga kopuru bat nabarmentzat hartzeko gutxienekoa handitzea. Kopurua nabarmena izateak urte gehiagoko zigorra ekarri ohi du eta, beraz, joera berri horrek preso askoren zigorraren iraupena murriztea eragingo du, eta, horrenbestez, baita presoek kopuru osoa gutxitzea ere. Horrek, ordea, ez du inolako loturarik delinkuentziaren eraginarekin. 1995eko zigor-kodeak aldatu egin zituen delitu askoren zigorrak, eta, are garrantzitsuagoa, kendu egin zituen luditze automatikoak. Gaur egun, tratamendu-taldeen botere askoz gehiago dute baldintzapeko askatasuna emateko edo ez emateko, eta, horren ondorioz, zenbait delitu jakin egin dituzten presoek denbora gehiago egiten dute gaur egun kartzelan, delitu horiengatik berengatik aurreko zigor-kodearen arabera zigortu zituzten presoek aldean. Zenbait kasutan, bi aldiz denbora gehiago. Bistan da, zenbat eta zigor luzeagoa ezarri, orduan eta jende gehiago izango da kartzelan, eta beste behin, horrek ez du inolako zerikusirik egindako delitu kopuruarekin.

Aurrez aipatutako horren guztiaren ondorioa da delituaren maila eta horren aldaerak gizartean neurtzea uste dena baino askoz lan zailagoa dela. Dударik gabe, Barne Ministerioak aldi-aldi “jakindako delituei” buruz ematen dituen datuek akats larriak dituzte. Gainera, Fiskaltzak edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak emandako datuekin alderatzen direnean, are nabarmenagoa da datu horien ahultasuna eta herrena.

Artikulu honen asmoa ez da delinkuentzia murrizteko helburuari garrantzirik kentzea, baizik eta argi uztea murrizketa hori lortuko bada, delinkuentziaren benetako egoera zein den jakin behar dela lehenik eta behin. Aurrez aipatutako argudioak aintzat harturik, ezin dugu ondorioztatu delituen gora egin duenik; batzuek gora egingo zuten, beste batzuek ez. Alabaina, eskuartean ditugun datuetan oinarriturik, auzitan jartzeko modukoa da delinkuentzia “modu kezagarrian arago” delako ustea, edo “inoiz ez dugu hainbeste delitu izan” baieztapena. Era berean, garbi esan dezakegu hutsune nabarmenak daudela arazo horren berri jakiteko mekanismoetan.

Badira delituaren egiazkotasuna neurtzeko beste metodologia batzuk, iturri ofizialek eskaintzen dituztenen aldean guztiz bestelakoak. Bakar bat ere ez da erabat zehatza, baina zenbait teknika oso lagungarri dira egoeraren egiazkotasuna jakiteko. Biktimizazio-azterketak eta norberaren burua erruduntzat jotzeko azterketak dira teknika horien adibide. Lehenbizikoaren bidez delituaren biktima izan diren eta nola galdetzen zaie hainbat pertsonari, eta bigarrenaren bidez delituri egin duten ala ez onartzen dute pertsonak. Gaia hain korapilatsua izanik, harrigarria da erakunde politikoek, polizialek, judizialek eta hedabideek zer interes gutxi duten metodologia edo teknika horien berri hobeto jakiteko. Apenas eskatzen dieten laguntzarik kriminologiako irakasleei eta adituei. Ez da baliabide eta bitartekorik jartzen metodologia berriak ikertzeko eta, areago, ez dago borondaterik lanerako beste jardun batzuk lantzeko, eztabaidarako plataformak eratzeko

edo delituaren egiazkotasuna jakite aldera bestelako tresna batzuk sortzeko. Funtsezkoak lirateke horiek denak delitua prebenitzeko<sup>6</sup>.

Aldiz, askoz ohikoagoa da datuak ardurarik gabe edo demagogiaz erabiltzea eta, areago, beren helburuak lortzeko datu horiek faltsutzea. Estatuko segurtasun-indarrek, ordezkari politikoeak, komunikabideek eta, oro har, gizarte osoak jokutzen du horrela. Gerta daiteke segurtasunik ezaren arrazoi nagusietako bat ez izatea delitua bera, baizik eta, ezjakintasunagatik edo inoren interesagatik, delituaren inguruan sortu eta hedatu den alarma.

### Egia al da delituen ehuneko handi bat etorkinek egiten dutela?

Gure gizartean oso zabaldua eta errotuta dago etorkinak direla, ehuneko handi batean, delitugile nagusiak, eta uste horrek ondorio suntsigarriak ditu immigratzen duten pertsonentzat. Etorkinak kriminalizatzea helburu duten estereotipoak betidanikoak dira eta izan dira harrerako gizarte guztietan. Migrazio-mugimendu demografikoak direla medio sortzen diren arazoei buruzko pertzepzio eta eztabaidetan distortsiorako faktore nagusietako bat dira estereotipo horiek. Errealitatearekin lotura handirik ez dute sekula izan estereotipo horiek, baina bai garrantzi handia arazo horri aurre egin dioten gizarte guztietako politika, jarrera eta harreman sozialetan.

Migratzen duten pertsonak kriminalizatzeko estereotipoak nola eratzen diren aztertzea gai oso korapilatsua da lan honetan sakon jorratzeko. Nolanahi ere, fenomeno horren alderdietako bat, bai, aztertu nahi dugu: etorkinen artean ustezko joera kriminal handiago hori frogatzeko baliatzen diren datu ustez zehatz eta zientifiko horien erabilera. Aurrez aipatutako esaldiak eta datuak aztertzea da funtsa eta, aldi berean, delituaren eta etorkinen arteko lotura nola ulertu behar den gako batzuk ematea. Ikusiko dugunez, datuak, onenean ere, fidagarritasun gutxikoak dira edo gaizki interpretatuta daude, eta askotan, maltzurak dira edo nabarmen faltsuak.

Atxilotutako pertsona kopuruak gizartean zer delitu-maila dagoen adierazten duelako ustea, eta atxilotuak delitugileen isla direlako baieztapena nahiko ezpaltsuak dira. Etorkinek delituetan neurritz gaineke parte hartzea izan dutela egiazkat hartzea eragin du uste horrek. Fenomeno hori ulertzeko urratsez urrats aztertuko dugu behin eta berriro errepikatzen den baieztapena: delituen erdia etorkinei egozten dien ustea.

Barne Ministerioak 2001. urtean jakinarazi zuen 232.146 atxiloketa egin zituela delitu eta faltengatik (218.438 delituengatik eta 13.709 faltengatik). Eta, aldi berean, beste datu bat ere eman zuen: 116.139 atzerritar atxilotu zituela, juxtu erdia<sup>7</sup>. Hortik dator aurrez aipatutako baieztapena.

<sup>6</sup>"Delituaren irudia euskal gizartean" gaiari buruzko lanetan aurki dezakegu biktimizazioa eta delitua aztertzeko ikerketa sozio-juridikoetan aplikatu diren metodologiaren adibideetako bat. Artikulu honen egileek egindakoak dira lan horiek eta Euskal Herriko Unibertsitateak diruz lagundutakoak.

<sup>7</sup>Barne ministroak ere, 2001eko martxoaren 6an Senatuan egin zuen hitzaldian, aipatu zuen %50eko *zifra magiko* hori: "Etxeetan indarrez eginiko lapurretan eta indarkeria eta bortxa erabiliz eginikoetan, atxilotuen %50 atzerritarra da". Baieztapena, ordea, erabat faltsua da, eta hor daude ministroaren beraren datuak hori frogatzeko: bortxazko lapurreten ondorioz atxilotuak: 20.632, etxeetan indarkeria erabiliz egindako lapurreten ondorioz atxilotuak: 44.759, guztira 65.391 atxilotu; bortxazko lapurreten ondorioz atxilotutako atzerritarrak: 5.283, etxeetan indarkeria erabiliz egindako lapurreten ondorioz atxilotutako atzerritarrak: 9.966, guztira 15.249 atzerritar atxilotu, %23. Ministroaren adierazpena gaitasunik ezaren edo, areago, delituzko prebentzioaren adibide larria izan liteke, beraz.

tapena. Barne Ministerioak ez zuen argitu, ordea, 116.000 atxilotu horietatik 58.199 baino ez zituztela atzeman ustez delitu baten egile izan zirelako eta 7.192 falta baten egile, eta gainerako atxilotuak legez kanpo egoteagatik atzeman zituztela, eta legez kanpo egotea ez da delitu, administrazio aldetiko arazo bat baizik. Bat-batean, beraz, ehunekoa ia erdira murrizten da: 58.199 atzerritar atxilotu delituengatik, atxilotu guztien %26,5.

Baina azter dezagun %26,5 hori xehetasun handiagoz. Datua, hasteko eta behin, atzerritar guztiei buruzkoa da, eta ez soilik etorkinei buruzkoa, eta alde hori garrantzitsua da. Atxilotutako atzerritar asko ez dira etorkinak, bizitzeko baimena dutenak nahiz ez dutenak, baizik eta batetik bestera dabilzan pertsonak, bai turista moduan datozenak eta bai Espainiara bidaiatze hutsagatik delitua egiten dutenak, hala nola drogarekin dabilzanak<sup>8</sup>. Bi talde horiek kenduta, kalkuluen arabera atxilotutako atzerritarren %60 inguru etorkina da; hau da, Espainian baimenarekin edo gabe bizi den jendea<sup>9</sup>. Nabardura horiekin ez dugu gutxietsi nahi joan-etorrian dabilen jende horrek egindako delituen arazoa; aitzitik, zehaztu egin nahi dugu Espainian bizi ez diren milaka pertsona horiek egindako delituak ezin zaizkiela etorkinei egotzi. Beraz, horiek kenduta, delituen egile direlakoan atxilotutako etorkinak 35.000 inguru lirateke; hots, atxilotutako atzerritar guztien %16. Kontuan hartuta etorkinak, hala baimena dutenak zein ez dutenak, herritarren %4 eta 5 artean direla, kopuru horrek adieraziko luke atxilotuak hiru edo lau aldiz gehiago direla. Alabaina, badira faktore batzuk azaltzeko atxilotuen gehiegizko proportzio hori ez datorrela bat delituak egin dituzten etorkinen ehunekoarekin.

Etorkinek egindako delitu batzuk, hain zuzen, bizitzeko baimenik ez edukitzeak eragindakoak dira. Horrela gertatzen da, adibidez, dokumentuak faltsutzeko delituagatik atxilotuta dauden 5.000 atzerritarrekin. Oraingoan ere asmoa ez da beren delitua justifikatzea, baizik eta arazoaren muina beren administrazio-egoera irregularra dela ikusaraztea.

Atxilotutako pertsonen artean etorkinen ehunekoa aztertzerakoan bada aintzat hartu beharreko beste faktore garrantzitsu bat. Gizarte guztietan delitu gehien egiten duen taldea gizon gazteena da. Eta nabarmena da Espainiara iritsi diren etorkinen artean talde horretako pertsonen ehunekoa handia dela beste talde edo adin batzuetakoekin alderatuta. Hau da, etorkinen artean delitu-maila handiagoa bada bertako batez bestekoa baino, neurri batean horren arrazoa ez da delitugileak etorkinak izatea, gizonezko gazteak izatea baizik<sup>10</sup>. Espainiako nazionalitatea duten atxilotuen artean ere argi ikusten da hori: atxilotuen kopurua alderatzen badugu lehenbizi biztanleria osoarekin eta gero soilik biztanleria aktiboarekin, bigarren kasuan ehunekoa halako bi eta erdi handiagoa da. Bada, gauza bera gertatzen da biztanle etorkinekin ere, edo areago, etorkinen artean biztanleria aktiboaren ehunekoa askoz handiagoa baita. Ez dago datu fidagarririk aldagai horren garrantzia neurtzeko, baina ukazina da faktore horren eragina. Eta, bistan da, datu horren argitan, etorkinen ustezko delitu-maila handiago hori nabarmen apaltzen da.

Berez, hari berari jarraituz, arrazoitu liteke delitugileen artean etorkin gehiago izatea ez dela etorkinak izatearen ondorio, pobreak izatearen ondorio baizik. Hain zuzen, argudio hori erabiltzen da

<sup>8</sup>Turistek ere egiten dituzte delituak, eta urtero milioika turista sartzen direla aintzat hartuta, ez dira maila handiak behar atxilotuak milaka batzuk izateko. Hor bada arazo bat: gaur egun apenas jasotzen den atxilotutako pertsonen daturik, eta, horrenbestez, zaila da horien inguruan inolako ondorioarik ateratzea, baina ondorio horiek oso erabilgarriak lirateke, adibidez, prebentziorako neurriak proposatzeko, besteak beste.

<sup>9</sup>Ikusi García, E. (2001). *Delincuencia de extranjeros, una análisis criminológico*, Tirant la Blanch, Malaga.

<sup>10</sup>Estimazioen arabera, etorkinen %54 gizonezkoa da eta %46 emakumezkoa.

etorkinen artean, baita asmo oneko jendearen artean ere, ustezko delinkuentzia-maila zergatik den handiagoa arrazoitzeko. Alabaina, eremu hori oso nahasia eta labainkorra da, ez baitago batere argi pobrezia eta delitua ezinbestean lotuta daudenik. Jakina, zenbait delitutan nabarmena da lotura hori: aberats gutxi dituzte Gescarterakoaren gisako delituak egiteko<sup>11</sup>. Uste zabaldua da pobreek ere aukera gutxi dituzte Gescarterakoaren gisako delituak egiteko<sup>11</sup>. Uste zabaldua da pobreek beste gizarte-klaseetako jendeak baino delitu gehiago egiten dituztela, baina datu eta argudio sendoak daude uste hori kolokan jartzeko. Kartzeletan etorkinen batez bestekoa handiagoa izatea ez da delitu gehiago egitearen ondorio, dinamika baztertzailen ondorio baizik. Jarraian aztertuko dugu gai hori.

Honaino iritsita, delitugileen artean etorkinen ustezko ehuneko handia nabarmen murriztu dugu. Baina garrantzi handiko beste faktore bat geratzen da aztertzeko: delinkuentziaren jazarpenarekin loturiko instantziek nahierara jokatzen dute eta horrek eragiten du, hein handi batean, zigorsistemaren atzaparretan jausten direnak beti betikoak izatea. Nahierara jokatze horren adierazleak ugari dira, baina erabakigarrietakoak hauek dira: poliziaren estrategiak, jardunak eta aurreiritziak. Horien ondorioz, zenbait kolektibok arrisku handiagoa dute atxilotuak izateko beste batzuek baino. Logikoa da hori: pertsona jakin batzuek deliturako joera handiagoa dutela uste bada, zaintza handiagoa jasango dute beste pertsona batzuek baino, *susmagarriagoak* direlako, eta arrisku handiagoa izango dute poliziak geratzeko eta miatzeko, eta, horrenbestez, baita atxilotuak izateko ere. Baina, orobat, gertatuko da atxilotetak froga zalantzarriagoetan oinarrituko direla.

Etorkinak baztertzeko fenomeno hori Justizia administrazioaren estamentuetan ere gertatzen da. Esate baterako, fiskalek inor auzipetzea edo ez erabakitzen dutenean, edo zer kargu egotzi erabakitzen dutenean. Era berean, epaileek ez dituzte neurri berak erabiltzen errugabetasun-presuntzioa aintzat hartzerakoan, behin-behineko askatasuna ematerakoan, erruduntasun sententziak ematerakoan, zigorrak zehazterakoan edo kartzela aldean beste zigor batzuk erabakitzekoan.

Era berean, espetxeetako arduradunek ere badute bazterketarako joera hori, baimenak ematerakoan hain zuzen, bai hirugarren graduak eta bai behin behineko askatasuna. Gainera, etorkinek eta beste atzerritar batzuek beren burua defendatzeko aukera gutxiago dute, zer eskubide dituzten ez dakitelako, edo kalitatezko defentsa eskuratzeko modurik ez dutelako, eta, horren ondorioz, jardun baztertzaille horiek areagotu egiten dira. Arautu gabeko prozesu horien eraginez, espetxeratuta daudenei eta atxilotutakoei buruzko datuak ez dira oso fidagarriak ondorioztatze-ko egiaz norik egiten dituen delituak gure gizartean.

Bazterketa horrek biztanleriako sektore pobreenei, gutxiengoei, hala nola etorkinei, eta bertako talde etnikoei –adibidez, ijitoei, Espainiako kasuan– eragin diezaieke. Normala da. Gizartean dauden aurreiritzi berak daude poliziaren, fiskalen eta epaileen artean ere; areago, arraroa litzateke horrela ez balitz. Baina kontua da aurreiritzi horiek eragin egiten dutela eragile horien erabakietan, eta beren jardunean nahierara jokatzeak lagundu egiten duela, gainera, horretan.

Gizartearen gehiengoarekin alderatuta etorkinek eta gutxiengo etnikoetako kideek poliziaren, epaileen eta espetxeetako langileen aldetik jasotzen duten tratuari buruz egin diren ikerketa guztietan agerian geratu da etorkinek eta gutxiengo etnikoetakoek, maila batean edo bestean, aur-

<sup>11</sup>Alde hori ia ez da nabarmentzen adingabeen kasuan; adin horretan, funtsean, delitu mota berak ematen dira gizarte-klase guztietan.



kako tratua jaso dutela, eta, kasu batzuetan, oso aurkakoa ere. Espainian apenas ikertu diren horrelako fenomenoak eta, a priori, zigor sistemako eragileek uste sendoa dute ezinezkoa dela horrelako tratu baztertzailerik gertatzea. Alabaina, konplexuak izan arren, badira mekanismo baztertzailerik horiek non eta zer mailatan eragiten duten hautemateko eta zenbatzeko metodologiak, baina metodologia horiek aurrera eramateko beharrezko baliabideak jarri behar dira eta borondatea ere behar da<sup>12</sup>.

Etorkinek delitu gehiago egiten dutelako ideia zabaltzeak dakarren arazorik handiena da ideia hori bere burua betetzen duen profezia edo iragarpen bihurtzen dela. Haien gaineko susmo handiagoak zaintza handiagoa justifikatzen du, eta, horren ondorioz, ugaritu egiten dira atxilotetak eta espetxeratzek. Eta hori bera, aldi berean, haien kriminalitate-maila handiagoaren frogatzat agertzen da eta, katea ixteko, horrek berak zaintza handiagoa justifikatzen du. Zirkulu perfektua.

Ez dago daturik zehazteko bazterketak eta demografia aldetiko diferentziek zer garrantzi duten atxilotuen artean etorkinen ehunekoa handiagoa izateko; gehiegizko proportzio hori azaltzeko, hain zuzen. Baina garrantzi handia dute izan. Horren harira, faktore zuzentzaileak aplikatuz gero, ez litzateke batere zuhurra esatea etorkinek, proportzioan, Espainiako herritarrek baino delitu gehiago egiten dituztela.

Baina atzerritarrek bertakoek baino delitu gehiago egiten dituztela egiazkotzat jo arren, funtsezkoa da zenbait ñabardura aintzat hartzea. Hasteko eta behin, alde hori txikia izango da, aurrez aipatutako faktoreak kontuan hartuz gero. Bigarrenik, etorkinek gainerako herritarren jokabide berak dituzte legea, gainerakoek eskubideak eta bizikidetzaren errespetatzeari dagokionez. Hirugarrenik, testuinguru honetan, ez du zentzurik pentsatzeak etorkinak kolektibo bakarra eta ezaugarri berekoa direnik, eta kolektibo horrek beste era batera jokatzeko duenik arauetara, legeetara eta delituarekiko. “Etorkinek” izugarriko talde heterogenoa osatzen dute jatorri, kultura, emigratzeko motibazio eta aukera, ezaugarri demografiko, bizitzeko denbora eta lege-egoerari dagokionez, eta, horrenbestez, ez da batere zentzuzkoa talde moduan legearekiko duten jokabideari buruz orokortasunik egitea. Azkenik, baldin eta etorkinen artean delituzko jarduerak gehiago balego, geure guruari galdetu beharko genioke zergatik gertatzen den hori: beren kulturen berezko ezaugarriak direla medio besteen eskubideekiko errespetu gutxiago dutelako, edo egiaz etorkinek berek beren eskubideak eta duintasuna urratuz ikusten dituztelako?

Zer gertatzen da, adibidez, beren egoera arautu ezin dutenekin, beharrezko baimenak ez dituztelako edo lortu ezin dituztelako legez kanpo bizi direnekin eta lan-harreman ilegalak eta era guztietako bazterketak eta aurreiritziak –etxebizitza eskuratzeko aukera ukatzea, lokal batean sartzen ez uztea edo poliziaren jazarpen sistematikoa, esaterako– jasaten dituztenekin? Eta, hori gutxi balitz, komunikabideek jende arriskutsutzat eta gatazkatsutzat hartzen dituzte, eta gizarte-mitologiak ere horrela jotzen ditu.

Pentsatzekoa da egoera horiei aurre egiten dieten pertsonen beste edozein herritarrek baino frogaz askoz gogorragoak gairitu beharko dituztela justiziaren legitimitatean duten konfiantzari, bizikidetzaren oinarri den elkarrekiko errespetuari eta legeak betetzeko desirari dagokionez.

Beharbada, hauxe da herrialde honek etorkizun hurbilari begira aurrean duen erronka handienetakoa bat: etorkinen ugaritzea tirabira eta gatazken iturri ez izatea. Eta helburu hori lortzea ez da

<sup>12</sup>Gai horretan gehiago sakontzeko ikusi Equipo Barañi (2001). *Mujeres gitanas y sistema penal*, Meytel.

egongo bizilagun horien jokabidearen baitan, gure gizartearen eta erakundeen jarrera eta ekin-tzen baitan baizik. Immigrazioaren ondorioz sortutako demografia-aldaketak aberastasun-iturri izan daitezke guztiontzat, edo gatazka eta arazozen iturri. Gure esku dago.

Hori dela eta, etorkinei buruz dagoen eta komunikatzen den pertzepzioak berebiziko garrantzia du, baina, zoritxarrez, testu honen hasieran aipatutakoaren moduko albisteak adibide ezin txarragoak dira etorkinen eta delinkuentziaren gaia nola jorratu behar den erakusteko. Gaia tratatzeko modu erabat arduragabe horrek, konponbidea bilatu beharrean, etorkizunean gatazka larriak ekarri besterik ez du egingo.

Nolanahi dela ere, fenomeno hau ez da oraingoa: migrazio-mugimenduak, baita gutxiengo etnikoak ere, kriminalaren estereotipo beraren biktima izan dira historian zehar, eta kriminaltzat hartu ez direnean higie, osasun edo kutsadura arazozen iturritzat jo izan dira, baita kutsadura kulturalaren eragile ere.

Immigrazioa kriminalitatearekin lotzeko joera gero eta zabalduagoa aurrean dugun arazo arrisku-tsu eta suntsitzailenetako bat da. Hori dela eta, oso larria eta arduragabekeri handia da ordezkari politikoei eta komunikabideei sutara egur gehiago botatzea eta estereotipo horiek sustatzen laguntzea. Azalpena, nolanahi ere, begien bistakoa da: etorkinek lanera etorri behar dute, merke eta gogor lan egitera, baina otzan eta beldurtuta eduki behar dira, hori da funtsa. Eta esplotazioaren, aurreiritzien eta bazterketaren biktimatzat edo bizilagun eta adiskide ontzat har ez ditza-gun, gatazkatsuak, errespetu gabekoak eta arriskutsuak direlako pertzepzioa sortu behar da gizartean, gure elkartasuna merezi ez duten pertsonak direlako ustea.

## Egunkariak eta gutxiengoak 2010ean. Kirola eta komunikabideak

Peio M. Aierbe  
Mugak/SOS Arrazakeria

2010ean, *Mugak-en Aniztasunaren Behatokiak*<sup>1</sup> egunkariei egiten dien jarraipenak honako oinarriko datu hauek eman dizkigu.

Epe horretan guztira jasotako 13.286 informazioetatik, Espainian dauden musulmanen erlijioei eta ohiturei buruzkoa izan da arreta gehien jaso duen gaia (1.379). Baina informazio horiek burkaren eta beloaren inguruko eztabaidaren (755) edota meskiten eraikuntzaren (edo, hobeto esanda, debekua) inguruko polemiken eskutik joan dira (160). Talde horri buruz ematen den ikuspegia guztiz partziala da, islamarentzako gorrotozko aurreiritziz beterikoa, eta zerikusi handiegirik ez duena gure herriko immigrazio musulmanaren eguneroko bizitzarekin. Eta, gai nagusia ez izan arren, burkari eta beloari buruz gogoetak egiten dituzten beste informazio batzuk kontuan hartzen baditugu, 1.006 aurkitu ditugu 2010ean. Datu horiek erakusten dute aipatutako ikuspegia ikaragarri ugalduta zela iaz Espainiako iritzi publikoan; izan ere, Behatokiaren datu-basean 2003tik sailkatutako 97.463 informazio-edukietatik, 1.724 dira burka eta beloa gai nagusi dutenak, eta, hori horrela, erdia baino gehiago (%58) 2010ekoak dira. Portzentaje hori are handiagoa da (979tik 772, %79), soilik beloari buruz hitz egiten duten edukiak alde batera utzi eta burkaz dihardutenak hartuta kalkulu bera egiten badugu.

Gai hori prentsan ohi baino gehiago azaltzearen zergatietako bat Frantziako Gobernuak toki-publikoetan burka janztea debekatu izana dugu; ondoren, eta neurri horren arrastoari jarraituta, Kataluniako udalen batek, Lleidakoak esaterako, udal-bulegoetan debekatu du. Eskuinak eta Kataluniako instituzioetan ordezkaritza finkatzen ari den eskuin-muturrak eskua sartu dute, zerbait lortuko dutelakoan. Beloaren inguruko albisteetan, eduki nagusietakoa izan da Najwa Malha haurrari Madrileko Pozuelo de Alarcón udalerrian eskolara beloa eramatea debekatzea.

Egunkariak jasotako bigarren gai-multzoa, garrantziaren arabera, erkidegoek eta tokiko erakundeek hartutako neurriak izan dira. Guztira 1.330 informazio-eduki izan ziren, eta horietatik 529 (%40) beren egoera erregularizatu gabe duten etorkinei erroldatzea ukatzearen ingurukoak ziren

---

<sup>1</sup>23 egunkariren jarraipena: *ABC, Avui, Berría, Canarias 7, Deia, Diario Vasco, Diario de Navarra, Diario de Noticias, Diario de Noticias de Álava, Diario de Noticias de Gipuzkoa, El Correo, El Día, El Mundo, El País, El Periódico de Cataluña, Gara, La Razón, La Vanguardia, La Verdad de Murcia, La Voz de Galicia, Las Provincias, Público, Sur*. <http://medios.mugak.eu/>

(Viceko Udalak neurri hori hartuz hasi zuen urtea), edo integrazio-kontratuari buruzko eztabaidaren ingurukoak –hein handi batean Alderdi Popularrak bultzatua–, edo udalerrietan burkaren erabilera arautzearen ingurukoak. Bigarren gai-multzo horri ekin diote tinko, hain justu, eskuinak eta eskuin-muturrak, eta kontu hori nazio-mailako gai bilakatzea lortu dute. Erkidego-mailako neurrien sail horretan, 104 aldiz agertu zen Eusko Jaurlaritzak Heldu aholkularitza-zerbitzua itxi izana.

Ondoren, etsaitasunari, diskriminazioari eta arrazakeriari buruzko 884 aipamen daude, eta atxiloteketei eta kanporatzei buruzkoak 822 dira. Paterei buruzkoak 279 dira, 2010eko aipamen guztien %2; datu horrek baieztatzen du gai hori oso gutxi jorratzen dela, eta immigrazioaren oraingo ezaugarriekin bat egiten duela, immigrazioa dagoeneko ez baita hainbeste etorrerakoa, eta bai finkatutakoa.

Behatokiaren datu-basean albisteak sailkatzeko erabiltzen diren 44 itemak hartuta, ikusten da item horien %60ak zuzenean gatazka ekartzen duela gogora. Eta horrek erakusten digu iritzi-publikoarengan immigrazioaren eta gatazkaren, immigrazioaren eta arazoaren artean egiten den ideia-uztarketa erraza.

Aurreko datuek sarri aipatzen ditugun ondorio batzuk baieztatzen dituzte, komunikabideek duten paperari buruz immigrazioa arazo gisa ikusteko eta, batzuetan, baita krimenarekin lotzeko ere. Era berean, politika populistenei ere mugak ezartzen dizkiete, batik bat Plataforma por Catalunya eta Alderdi Popularrak aurkeztutako proposamenei emandako tratamenduan ikus daitekeenez, bizileku-baimenik gabeko pertsonak ez erroldatzearen inguruan, udalek poliziari pertsona horiek salatzearen inguruan, edo integrazio-kontratu deituaren inguruan; eta baita hauteskunde-kanpainan horretaz guztiaz egindako erabileraren inguruan ere.

2010ean zehar egunkarietan lekua izan duten kontu aipagarrienei buruzko aipamen labur horren ondoren, zehazkiro aztertuko dugu 2010eko gertaera mediatikoena: munduko futbol-txapelketa.

Aniztasunaren Behatokiak, Kirol Kontseilu Gorenak diruz lagundutako proiektu baten eremuan, 2010eko ekainaren 11tik uztailaren 11ra arte Hegoafrikan jokatu zen Munduko Txapelketan zehar argitaratu zen informazioaren jarraipena egin zuen<sup>2</sup>.

### **Kirola eta komunikabideak. Gutxiengoaren parte-hartze sozialerako guneak?**

Iritzi-publikoan duten eraginagatik komunikabideetan zer argitaratzen den interesatzen bazaigu, futbola espektakulu ezin hobea da prozesu hori nola gertatzen den aztertzeko. CISek 2010ean Espainian zeuden kirol-ohiturei buruz egindako inkestak baieztatu du kirola erruz kontsumitzen dela komunikabideetan, eta audientzia ikaragarria duela. Populazioaren %41ak normalean futbol-partidak jarraitzen ditu. Audientziaren gehiengoa gizonezkoa da (%59); emakumezkoak %23 dira.

---

<sup>2</sup>Ikerketa-taldea honako hauek osatu zuten: Raúl Martínez Corcuera, Anaitze Agirrek, Juan Aldazek, Silvana Lucianik eta Maitane Arnosok.

Munduko Txapelketak kazetaritzan duen islak aukera ederra ematen du gaiaren jarraipen eraginkor bat egiteko, eta horri buruzko material nahikoa eta esanguratsua jasotzeko; horrela, Espainiako estatuan audientzia gehien duten idatzizko komunikabideetan argitaratutako diskurtsoen eta irudien azterketa zorrotza egin daiteke, kirolean dagoen aniztasunari, arrazakeriari, xenofobiari eta indarkeriari buruz.

Irakurle-kopurua izan zen aztertu beharreko egunkariak aukeratzeko erabilitako irizpidea. Kirol-arloan espezializatutako Espainiako idatzizko prentsa hazi baino ez da egin, eta, 1994tik hona, gehien saltzen diren egunkarien artean aurreneko tokietan daude. Komunikabideen Azterketa Orokorrak (EGM) 2010eko otsailetik abendura jasotako eta Komunikabideen Ikerketarako Elkarteak (AIMC) argitaratutako datuen arabera, prentsak oro har irakurle-kopurua galdu badu ere, azterketarako aukeratutako kirol-prentsak milioi-erdi irakurle irabazi ditu. Horrela, *Marca* da egunero irakurle gehien dituen egunkaria (2.888.000), eta *As* laugarren tokian dago, 1.395.000 irakurle dituela. Hau da, azken bi urteotan, *Marca* Espainiako egunkarien merkatu-kuotaren %16 izatetik %19 edukitzera pasatu da; eta horri gainerako kirol-prentsaren %17 gehitzen badiogu –*As* laugarren tokian dago, *Sport* Espainian gehien irakurtzen den zortzigarren egunkaria da (737.000 irakurle egunero) eta *Mundo Deportivo* bederatzigarrena (658.000 irakurle dituela egunero)–, Espainian argitaratzen den egunkarien %37 baino gehiago da. Kirol-egunkari horiekin batera, prentsa orokorreko bi egunkari aukeratu ziren, irakurle gehien dituztenak direlako, baina baita kirolari ematen dioten garrantziagatik ere: *El País*, egunero 1.924.000 irakurle dituen, eta *El Mundo*, 1.282.000 dituen.

## Hipotesia

Ikerketan baieztatu beharreko hipotesiaren arabera, *arrazakeria berria* deituaren formulaziopean, kirol-esparruko kazetaritzako diskurtsoek diskriminazioa, arrazakeria eta indarkeria sustatzen dituzten ideiak eta irudiak helarazten dituzte, etengabeko erreferentziak eginez nazio-sinboloekin loturiko kontuei, gerra-hizkuntzei edota norberaren taldekoak ez diren besteekin desadostasun konponezinak finkatzen dituzten esamoldeei.

Hegoafrikari edo Afrikako kontinenteari buruzko irudiei eta diskurtsoei dagokienez, komunikabideek diskurtso neokolonialistarekin jarraitu zuten, eta ohiko paradigmatara murriztu zuten 53 estatu eta 1.000 milioi biztanle dituen kontinente oso bat: exotismoa; politika, gizarte, ekonomia eta kultura arloko azpigarapena; miseria; hiesa; edo etengabeko gerra-gatazkak.

## Lagina

Aukeratutako lau komunikabideetan Hegoafrikako Munduko Txapelketarekin zerikusia zuen argitaratutako informazioa ikusi ondoren, guztira 595 kazetari-testu jaso eta aztertu dira; horietatik %59,8 kirol-egunkarietatik hartu dira, eta %40,1 prentsa orokorretik.

Lagineko informazio gehiena *Marca* (%46,2) eta *El Mundo* (%26,2) egunkarietatik hartua da. Aipatu beharra dago testu guztien %11,9 baino ez zela idatzi gutxiengo etnikoetako informazio-iturriak erabilia. Aztertutako egunkarietatik, *El Paísek* eta *Marcak* erabili zituzten gutxien iturri horiek, argitaratu zituzten kazetari-edukien %3,3 eta %3,6 baino ez, hurrenez hurren ( $x^2=63,58$ ,

p. ,000). Ikerketa-corpora, sei astean, 2010eko ekainaren 7tik uztailearen 14ra argitaratutako 156 zenbakiak dira, Munduko Txapelketa jokatu aurreko eta ondorengo aldiak sartzeko asmoz.

## Kazetari-diskurtsoak eta talde-imaginarioa. Abertzaletasuna eta nazio-identitatea

Kirol-hizkuntzari buruzko ikerketa teorikoek diote futbola nortasun-biltzaile ona dela, bere uni-bertsaltasunagatik eta *gu-besteak* aurkaritza metafora gisa eszenaratzean duen indarragatik, eta 'ni' primarioa sendotzeko baliagarria delako. Stempel-ek (2006) dioten moduan, esplizituak eta mitikoak bilakatzen dira bai nazio-identitatearen gaia bai erasoan, menperatzean eta lehiaketan jartzen den indarra. Billings-ek dio (2002) kirol-osagaiak gero eta garrantzi gutxiago duela kirol-gertakari handietan, lehiaketari lotuta dagoen sentimendu nazionalistaren ondoan. Populazioak bere kirolariengan jartzen du arreta, eta kirolariak giza mikrokosmosaren adierazpen eta *gu-besteak* dialektika klasikoaren erreferente argi gisa ikusteko joera du.

Planteamendu horrek eragina izango luke populazioarengan; izan ere, 2010ean Espainian zeuden kirol-ohiturei buruz CISEk egindako inkestaren emaitzen arabera, inkesta egindako ia pertsona guztiek (%85) adierazi zuten nahiko edo oso harro sentitzen zirela espainiar kirolariek edo selekzioak lan ona egiten zutenean, eta, aldiz, %11 baino ez zen gutxi edo batere harro sentitzen.

Hobsbawm-entzat nazio-sentimenduak barnerarazteko modu eraginkorra da futbola, gizabanakok erraz identifika baitaitezke *“ia gizon orok noiz edo noiz bere bizitzan zehar zerbait ondo egin nahi duena, edo egin nahi izan duena, bikain egiten duten gazteek”* sinbolizatutako nazio batekin (1990:153). Diskurtso horiek nazio imaginario bateratu baten eraikuntza indartzen dute. *“Gure heroiak, jende normala (...) pertsona onak dira, eskolako zelaitik ateratako mutil koskorrak, etxera emaitza on bat eramateko ilusioz lehiatu direla diruditenak”* (El País, 2010/07/09:53).

Eta prozesua eraginkorragoa da, *'gureak'* bezala ezagutzen eta onartzen ditugun pertsonen artekoak baitira. Horrela islatzen da testuetan, esaterako As egunkariak Munduko Txapelketako partida baten Casillas-ek egindako lanaz honako hau dioenean: *“Bere geldiketa 47 milioi bihotzen geldiketa izan zen. Casillas ez da atezain bat. Gure kontzientzia da. Gure bandera da. Bere besokoak gure ezkutua da, hautsi ezineko fedez heldua”* (As, 2010/07/13:04).

Eta sentimendu horren isla goren gisa, mundu-mailako kirol-gertakari handiak egokiak dira herrialde bakoitzeko zaleen artean ideia nagusia gureek irabaztea –eta ez *onenak irabaz dezala!*– eta katarsi kolektiboaren unean balio nagusia abertzaletasuna izan daitezen. Kirolariak milioika aberri-kideren ordezkariak lirateke, gizarte oso baten ohorea jokoan dutenak: *“Prozesu horren adierazpide nagusia da 'munduko' txapeldunaren edo domina olinpiarra lortu duenaren bozkarioa, edo etsipena, negarrez, eskua bihotzaren parean jarrita, himno nazionala entzuten. Atletak baten garaipena guztion garaipena da orduan: irabazi egin dugu! Beste parte-hartzaileen arrakastak ez du gehiegi balio: arrakastaren irakurketa adiera bakarrekoa da, eta norberaren identitateari dagokio soilik”* (Moragas, 2000).

Abertzaletasuna espainiar zaleen artean sakon barneratu den kantuarekin lotzen da etengabe, eta Munduko Txapelketa irabazi osteko ospakizunetaraino hedatu da: *“Berreskuratutako ohorearen adibide da 'Espainola, espainola, espainola naiz ni!' kanta”* (As, 2010/07/15:03);

*“Espainola naiz ni...!; (...) Camacho, azken abertzalea. Espainiarrok, Historia gure zain dago (...) Ohore gorri-horia. (...) Jaungoikoa espainola da!!! (As, 2010/07/12:16); “Herriaren ohorea jokoan dago eta salbatu beharra dugu” (Marca, 2010/06/24:24); “Espainola, espainola, espainola naiz ni” (As, 2010/07/13:04); “Goazen Espainia!” (Marca, 2010/06/22:13); “Ehunka mila espainiarrek ikusi zuten partida (...) klasikoak abestu, “Espainola, espainola, espainola naiz ni” arxiabertzalearen, “Gora dadila Espainia!” saihestezinaren edo “Lolo, lo-lo, lo-lo-lo...” letra minimalistadunaren gisakoak” (El País, 2010/07/08:47).*

Diskurtso-lerroa hori zela, Munduko Txapelketan zehar Marca egunkariko mantxetak Espainiako banderaren koloreak erabili zituen oinarri gisa, selekzioaren aldeko testuak idazteko: *“Loriara bidean”, “Guztiok gorriarekin bat eginik”...* Eta selekzioaren alde deiadar egiten zuten titularrak zituzten kronikak aurkitu genituen: *“Gora Es-pai-ni-a!”: “Espainia, mila esker bazarelako. (...) Espainola, espainola naiz ni!”.*

Abertzaletasunak populazioa norbereganatzeko orduan duen garrantzia argi geratzen da El Mundo egunkariko Raúl del Pozo iruzkingilearen kritikan, Rodríguez Zapateroren Gobernuak selekzioaren garaipenak ustez nola erabiliko zituen azaltzen zuenean: *“PPri bandera guztiak kendu nahi dizkio, banan-banan, PPK Zapaterori beti aurpegiratu baitio abertzaletasun eza; zehatz-mehatz honakoa zioten: ZP Espainia puskatzen ari da (...) Abertzaletasuna da Exekutiboaren eta lur-jota dagoen nazio osoaren azken gordelekua” (El Mundo, 2010/06/07: 80).*

Abertzaletasunaren sinboloak, oro har, eta nazionalismo hutsalaren adierazpen den banderaren erabilera dira, bereziki, José Juan Toharia, Ortega-Marañón Fundazioaren eta Metroscopiaren presidentearen diskurtsoaren argumentua: *“Leku guztietan balkoiak banderaz josita daude. (...) Bandera, kolpetik, argi eta garbi, gure selekzioaren bandera izatera pasatu da, hots, guztion jakin-neko bandera, beste inongo konnotaziorik gabekoa. Hain garrantzitsua den elementu baten hutsaltze hori, alaia eta naturaltasunez betea, dudarik gabe, gizarte-egoeraren zantzu on bat da, eta, era berean, iradokitzen du gaur eguneko espainolen identitate-oinarria, batik bat gazteena, batzuetan zenbaitek dioena baino lasaiagoa dela, beharbada” (El País, 2011/07/11:62).*

Marcako zuzendaria den Eduardo Indaren kasuan, ereserkia entzuteko modua litzateke jokalarien abertzaletasuna neurtzeko tresna: *“egiten dudan aurreneko gauza gureek himno nazionala nola entzuten duten begiratzea da. 10 bat Sergio Ramosentzat, une hori estatubatuar batek, ingeles batek –aurreko egun batean aluzinatu egin nuen estadio osoa ‘God save the Queen’ abesten ikustean–, alemaniar batek edo italiar batek biziko lukeen moduan bizi baitu. Eta horretaz ari garela, Italiak 160 urteko historia dauka. Guk 518. Tipo horrek Espainia bizi du, esaten diot neure buruari” (Marca, 2010/06/22:03).*

Abertzaletasunezko erreferentzia horrek Jean Marie Le Penen diskurtsoen tankera dauka, frantziarrak ez zirela bere taldearekin identifikatzen zioenean ia jokalaria guztiak beltzak zirelako, eta Zinedine Zidane kapitainak, “arabiar horrek”, partida hasieran himno nazionala abesten ez zuelako.

*El País* egunkariko testuen azterketak diskurtso horiei buruzko hainbat kritika erakusten du, ohiko zen espainiar amorrutik aldentzen zen selekzioaren jokoan babestuta: *“Sarraskijalaren bat edo beste geratzen bada ere, Espainiak -talde bat, besterik gabe- zahia kendu du ginetik. Futbol ona du banderatzat (...) Bizkarra ematen die bidegabekeriak maite dituztenei, ereserkia entzutean nork kliskatzen duen zain daudenei, galtzerdiak gorriaren edo horiaren ginetik zentimetro bat gorago doblatzen dituztenei begira dauden ikuskatzaileei”.* (*El País*, 2010/07/09:49) Eta

egun batzuk geroago berriz ekiten dio gaiari: *“selektzio zibila, bere militantziari esker harrapatzen duena, dagoeneko kronikoa zirudien abertzalekeria narrasa gainetik kenduta”* (El País, 2010/07/12:01).

Abertzalekeriazko diskurtsoenganako ikuspegi kritiko hori dagoeneko igar zitekeen Espainiako selektzioak 2008ko Eurokopa irabazi osteko ospakizunetan, eta baita bere jokoaren eraldaketa aztertzean ere. Hori zen Javier Marfásen analisiaren eduki-oinarria. Idazleak zalantzan jartzen zuen norberaren taldearen, selektzioan pertsonifikatutako *gu* horren ezaugarri definitzaileak zeudenik, *“amorrugorria”* alde batera utzi eta futbolik onena jokatuz irabazten dutenean: *“Beste batzuetan, Espainiako selektzioak baleko lana eginez gero (...) neurritz kanpoko bozkarioa eta izan daitekeen abertzalekeria harroputzena sortu du. (...) Nire ustez gailentzen dena harridura- eta sinesgaiztasun-sentipena da, adorea eta kemena lasaitzen dituena, harrigarriki, asaldatu beharrean, eta apalak izatera bultzatzen gaituena, edo ahobero eta harroputzak izatearen aurkakoa den zer edo zer hori. (...) Benetan 'gu' al gara?, hori da buruan hegaka daukagun galdera sinesgogorra. Eta harridura horrek, bitxia da, ez hain mihiluze eta zaratatsu hitz egitea, abertzalekeria gutxiago eta zuhurtzia gehiago dakartza”* (El País, 2008/06/29).

Kazetarien artean ohikoak diren bigarren diskurtso-mota batek Espainiako selektzioaren garaipenak ospakizun-abertzale gisa azaltzen ditu, herri baten gizarte-, ekonomia- eta politika-arazoak ahaztea ahalbidetzen duena. Carlos Tororentzat: *“Lur-jota dagoen gizarte baten futbol-metafora bat da Gorria, birsorkuntza anitz eta hurbila lortuko dela sinesten laguntzeko sinbolo baikorrek behar dituen gizartearen metafora.”* (El Mundo, 2010/06/21:17); Roberto Gómezentzat, selektzioak *“milioika espainiarrek beragan ipinita duten ilusioa itzuli beharra dauka, une gogor hauek aurrera ateratzeko harrotasuna itzultzen digun ilusioa eta itxaropena”* (Marca, 2010/06/21:14).

Horrela, selektzioak *“Herri baten amets”* bilakatzen dira (Marca, 2010/07/01:26); *“herrian dagoen gizarte-krisi guztia estaltzen du.”* (Marca 2010/07/01:26); *“futbolak urte txar bat konpontzea espero du Bacheletek”* (El Mundo, 2010/06/16:59).

Selektzioaren lorpenak Espainiako gizartearen ustezko errealitatearen isla gisa identifikatzen dituzten diskurtsoak dira instituzio politikoen zorionen oinarri; esaterako, Gobernuko presidenten Rodríguez Zapaterorenak, edo Alderdi Popularreko idazkari nagusi den Mariano Rajoyrenak, selektzioak 2010eko Munduko Txapelketa irabazi ostean.

Gobernuko presidentek azpimarratu du selektzioak herriaren izaera ordezkatzeko duela bere jokorekin: sormena, konpromisoa, proiektu bateratu bat indibidualtasunen aurrean, eta joko bikaina eta zoriontsua, herria bezalakoak: *“estiloan, jokatze moduan, izaeran bere burua islatuta ikusten duen herrialde oso bat atzean edukitzeko xedea lortu du. Garrantzitsua ez da soilik irabaztea, baizik eta nola iristen den garaipenera; gure jokalariek gorenera iristeko irudikatu duten ereduarekin guztiok identifikatu gara, irakaspene handia eman dute eta sormena, inteligentzia, beren jokoarengan fideltasuna, beren aukeretan sinesten zutela eta talde-lanarekin konpromisoa erakutsi dute. (...) Hori da Espainia. Jokalari guztiak bakarka bikainak dira, baina taldearen proiektu bateratuari beren onena eskaintzen diote. (...) Aparteko jokalari horiek garai eta herrialde baten irudia dira. Irrikaz lortu nahi dugun XXI. mendeko Espainiaren irudia dira”* (El País, 2010/07/11:51).

Ildo beretik doa Mariano Rajoyren zorion-testua: *“Eta a zer ohorea horrelako talde paregabe batek gu ordezkatzeko! Espainia gaztea, modernoa, lotsagabea eta eraginkorra da gure selektzioak”*



*munduratzen duen Espainia. Konfiantza eta baikortasuna ematen duen Espainia*” (*El País*, 2010/07/11:53).

### Kirola versus gerra-gatazkak

Kazetari-hizkerak ohikoa baino ohikoagoa du gerra-gatazkara jotzeko joera, kirol-neurketa bat baino ez den zerbaiti buruz hitz egiteko: *“Holanda Alemania baino etsai okerragoa da.”* (*El País*, 2010/07/10:62); *“Militartutako talde bateko aurpegi adeitsu bakarra”* (*El País*, 2010/06/20:58); *“Sua nahierara”* (*El Mundo*, 2010/06/17:61); *“Helvetiarrak, gerran dagoen talde baten aurrean”* (*El Mundo*, 2010/06/25:61); *“Mende erdia lubakietan”* daude Alemania eta Ingalaterra, partida aurrekoan (*El Mundo*, 2010/06/27:51); *“kontuz Bielsa zoroarekin, eta kontuz haren soldaduekin, kontrako arearen mugatik presioa egiten baitute eta jo eta ke aritzen baitira.”* (*Marca*, 2010/06/25:3); *“Gerrara soldadu onenekin joan behar da.”* (*Marca*, 2010/06/25:4); *“Txile talde oso borrokalaria eta lehiakorra da”* (*Marca*, 2010/06/25:5); *“biharkoa zelai beteko bataila izan daiteke Johannesburgen”* (*Marca*, 2010/07/02:3); edo *Marca* egunkari-ko azaleko grafikoa (2010/07/02:3): bertan, Espainiako selekzioko lau aurrelariak mira teleskopiko itxurako ituan sartuta ageri dira. Gainera, partidak dueluan elkarren kontra aritzeko guneak dira: *“hil arteko duelua eskandinaviarren aurka”*. (*Marca*, 2010/06/24:25); *“Maicon versus Cristiano, gehien itxarondako duelua”* (*Marca*, 2010/06/24:28).

Metafora ikusgarriek erreferente asko bereganatzen dituzte. Erasmok futbolaren semantika aztertzen du eta gerra-diskurtsoak erabiltzea gure aberetasunarekin lotzen du, hots, berezko indarkeria, naturala, futbol-liskar bilakatua: *“Txinpantzeek, gizakiarengandik hurbilen dauden ahaideek, espezie kideak hiltzen dituzte besteen lurrak bereganatzeko (...) Semantika hori, Klausewitz bete-betean, “desarra”, “tiroa”, “porrota”, “garaipena”, “erasora”, gerraren simulazio odolgabeen, Sun Tzuren (K.a. 2.500 urte g.g.b.) hamahiru ikasgaien gozagarri gisa azaltzen dira, traizioak, espioiak, estrategia, taktika: politika, beste modu batzuen bidez”* (*El Mundo*, 2010/06/23:3).

Gerra-hizkera horrek selekzioak armada modernoak bailiran aurkezten ditu. Horrela, Manuel Saucedorentzat *“europarrok gure asabengandik datozen gorabeherak lubakiak zulatuz erabaki beharrean, belar gainean ostikoka konpontzeko asmatu zen futbola. (...) Gerra bezala, futbola politikaren jarraipena da, beste modu batzuk erabilia.”* (*Marca*, 2008/06/11:63); eta Juan Cruzek dio: *“Borgesek zioen banderen atzean beti armada bat zegoela. Kasu honetan, banderek futbol-selekzio handiusteen presentzia ezkututzen dute”* (*El País*, 2010/06/21:46).

Historia abiapuntu, gertatzeke dauden gerra-gatazkei buruzko erreferentziak ugariak dira komunikabideotan. Bigarren Mundu Gerrako Alemania eta Ingalaterraren arteko mendekuak ekartzen dituzte gogora: *“Ez dira bi talde, bi herrialde dira, bi kultura, elkarren kontra talka egitera behartutako bi erraldoi. Nahikoa da XX. mendeari begiratzea. Batzuetan esaten da kirola erabilia gerra egiteko artea dela futbola, Ingalaterraren eta Alemaniaren arteko partidetarako balio izaten duen gehiegikeria.”* (*Marca*, 2010/06/24:33); *“Bi herrialdeen futbol-mailako lehia, benetan, Bigarren Mundu Gerra amaitu eta soilik 21 urte geroago hasten da.”* (*El País*, 2010/06/27:55); *“Nazioarteko bi norgehiagoka daude morbo berezia dutenak, Ingalaterrak Alemaniaren eta Argentinaren aurka egiten dituen dueluak. Futbola beste modu batzuk erabilia gerra bada, Munduko Txapelketa mundu-gerra bat da, beste modu batzuk erabilia. Herrialde batzuek nahia-go dute azken gerra handia, bigarrena, 1939an hasi eta 1945ean amaitu zena, ahaztea.*

*Horietako bi Frantzia eta Alemania lirateke. Baina beste batzuek behin eta berriz gogoratzen dute, eta bozkarioz, ingelesek, esaterako; ingelesentzat, Winston Churchillek diskurtso entzute-tsu batean esan moduan, hura izan zen “our finest hour”, [gure unerik handiena]” (El País, 2010/06/26:63).*

Historia-berrikuste horretan, Flandesko tertzioen gerraren errebantxak Herbehereen eta Espainiaren arteko finala aurkezteko balio du: *“Herbeheretako egunkariak ezin izan diote uko egin gerra-konparazioak egiteari, eta Espainiaren eta Herbehereen arteko talka itxurazko bataila moduan aurkeztu da. Noski, kontu-garbitze historikoak, herri-justiziaren ispilu denak, oranje selekzioaren garaipena ekarriko luke Johannesburgen. Flandesko Gerran, 1648an, Felipe II.aren armadaren aurka lortutako garaipenari akabera emango lioke.” (El País, 2010/07/10:66);* edo Herbeheren aurkako partida aztertzekeo metafora gisa: *“Ez zen 1576ko azaroan Flandesko tertzioek Anberesko harrapaketan erakutsitako amorru espainiarra, ezta Belausterena ere: “Sabino, bota niri baloia, aurretik eramango ditut-eta!” - berriz ere Anberesen, 1920an” (Marca, 2010/06/22:25).*

Ildo horretatik, merezi du aipatzea CEPESA enpresak egindako eta Munduko Txapelketa jokoan zela egunkariotan aurkitutako kanpainaren publizitate-irudia: Espainiako Inperioaren garaiak gogoratuz, kanpainak Velázquezen *Bredaren amore-ematea* koadroa (1634) hartu du oinarri, lelo honekin: *Mundua berriz gurea izan daiteke.* Koadroa berregiterako orduan, espainiarrek eta Spinola jeneralak Espainiako selekzioaren kamiseta dute jantzita; eta herbeheretarrek, berriz, hiriko giltzak eskaintzen dituzte, belaunikaturik, amore ematen duten seinale.

Azkenik, eta Munduko Txapelketa Hegoafrikan jokatzen zela-eta, gerra-erreferentziak tribu gerrazaleen arteko gatazketara bideratu ziren. Sara Carbonerok horrela idatzi zuen jokalariei buruz: *“aspaldiko hegoafrikar gerlariek –boerren, ingelesen aurka edo beren artean borrokatzen zirenean bezala– armak daramatzate, batailaren zain ikusminez, erabakitasunez, harrotasunez eta bel-durrez” (Marca, 2010/06/15:9).*

Eta gerra-gatazka guztietan gertatzen den moduan, hizkerak erreferente gisa hartzen du bere heroien papera: *“Hegoafrikako heroiak” (As, 2010/07/13:11); “Fuentealbillak, Iniestaren sorlekuak, heroia gurtzen du” (As, 2010/07/13:17); Iniestari egindako elkarrizketa bateko galdera: “Nola sentitzen da herrialde bateko heroia?” (As, 2010/07/14:12); “Heroi gisa hartuak” (Marca, 2010/06/11:4); “Ohiko estilokoa ez den Heroia” (El Mundo, 2010/06/17:61); “Greziak bere heroingana jo du” (El Mundo, 2010/06/16:58). Carlos Carbajosarentzat, Casillas da: “Balari bularra aurrean ipini zion heroia.” (El Mundo, 2010/07/05:8) Eta Orfeo Suárezentzat, “Gyan, eroritako heroia” (El Mundo, 2010/07/03:56).*

Garaipen bat balentria bilakatzen duten heroiak dira: *“Munduko Txapelketa irabazten badugu, hau guztia Espainiaren balentriaren mitoaren parte izatera pasako da”.* (Marca, 2010/07/02:03). Ohore nazionalaren adibide gisako heroiak: *“Gerlari-garra beti izan da para-guaiarren genetikan egon den elementua (...) gerra-gatazka suntsitzaileen biktima, harrotasunezko sakrifizio- eta iraupen-balioen gainean eraiki da nazioaren izaera. Gaur egungo heroiak futbolariak dira eta zuri-gorritz janzten dira. Baina Gerardo Martino entrenatzailearen armadak ere bereganatu du jarrera borrokalari ospetsu hura” (El País, 2010/07/02:48).*

Eta *gure armadengandik espero dezakegun azken emaitza garaipena, balentria eta loria* dira: *“Ez da garaipena ospatu behar loria lortu aurretik.” (Marca, 2010/06/17:16); “Gorriak han hasi nahi*

*du hurrengo balentria (...) Talde bat, herri bat*” (Marca, 2010/06/20:02). Eta ikuspegi hori landuta dago Invictus filmeko kartelean ere, Villa, Torres eta Fábregasen argazkiak ipinita.

Irudi heroikoa Paraguaiako selekzioa bultzatzen duen publizitatearen erreferente bihurtu da: *“Egunotan, tokiko telebistetako iragarkiak ere gerra-irudiz josita daude. Telefono-konpainia batek, esaterako, zuri-gorriko jokalaria itsasontzi batean kokatzen ditu, ikaragarritzko ekaitzaren erdian, lurrera iristeko edozer gauza egiteko prest daudela. Urez (edo izerdiz) blai, gerlari arropaz jantzita, Roque Santa Cruzek, beren jokalaria miretsienak, Eiké (aurrera!) oihu egiten du guaraniz”* (El País, 2010/07/03:57).

### Arrazakeria eta kirol-kazetaritza

McCarthyk (2003) edo Brownek (2003) adierazi bezala, *arrazakeria berriak* ukatu egiten du gehiengoa arrazista denik. Gutxiengoek duten arrazakeria hautematea txikiagotu edo ukatu egiten da. Horrela, gure ardura ukatzen dugu eta arrazakeria besteengan ikusteko joera dugu.

Sterkenburg-ek (2005) aipatzen zuen jokalaria beltzen aurkako tximu-soinuak, judutarren aurkako kantuak edo eskuin-muturrekoen oihu, slogan eta sinbolo arrazistak erabiltzen zirela estadioetan, eta arrazakeriak futboleko duen indarraren isla argia zirela.

Futboleko arrazakeria horretatik ustezko aldentzea justifikatzeko, estadioetan ohikoak diren gertakari horiek isiltzeko edo hutsalak direla esateko joera dago komunikabideetan, eta natural eta beharrezkotzat jotzen dira, *jokoaren parte* direla esanez; baina, uneraren batean, kirolari profesionalak berak izan dira kexu agertu eta erantzun dutenak.

Arrazakeriaren inguruko gogoeta horiek oinarri direla, eta kontu horietan klubek zein zaleek zeri-kusi handia dutela kontuan hartuta –zale batzuk egitez, eta beste batzuk ez-egitez–, interpreta daiteke *El Mundo* egunkariak argitaratutako futbol-munduko zale bortitzenei buruzko testua. Testuan, CSICeko antropologoa den Manuel Mandianesek kirol-esparruetako zale bortitzak aztertzen ditu, eta hirietako taldeekin alderatu. Ikerlariaren ustez, pertsona normalak dira, eta beren indarkeriazko esamoldeak eta jarrerak baikorrak lirateke, irteera bat ematen baitie kontrakoaren aurkako gorrotoari, eta mendeku- edo triskantza-nahiei, ustezko ohore baten defentsan.

Bere ikuspuntuak garrantzia kentzen dio komunikabideek puztuta legokeen indarkeria-mota horri. Beretzat, kirolaren inguruko indarkeria adierazpide naturala eta legitimoa litzateke, gizakia noizbait animalia izan delako, eta segurtasun-indar publikoek ez dute moztu behar. *“Ezin dute benetako militantzia ulertu, taldearen ohorearen aurka doan guztia suntsitzeko modu bortitzean eta eredugarrian jarduteko gaitasunik izan gabe. Amorrua pasioa da, sentimendua, kontrol ez kanpo dagoenean eta eutsi ezin denean bakarrik gaitzesgarria. Futbol-militante gehiena jende normala da, amorrua kontrolatzen duena. Jarraitzaileen indarkeria berezko adierazpidea da, bere horretan amaitzen dena, eta indarkeria terroristarekin eta antolatuekin zerikusirik ez duena, atzean talde antolatuz ez badago behintzat. (...) Komunikabideek islatzen duten eta, sarri, puzten duten indarkeria, indarkeria hori badenaren froga baino ez da. Irudi ikusgarri horrek erabat gogobetetzen ditu, une txiki batez bada ere”*.

CSICeko antropologoarentzat, futbol-jarraitzaileen indarkeriak taldeko amorruari irtenbidea ematen dio, eta amorru hori gizartearen beste esparru batzuetara bideratzea eragozten du:

*“Erritualak eskatzen du, hasiera batean zelaitik kanpo, etsaiaren bandera eta sinboloak erretzea, zapuztea, zapaltzea eta arrastaka ibiltzea. (...) Futbol-partidek ematen dizkieten aukera horiek edukiko ez balituzte, beren amorrua askatzeko beste modu batzuk aurkituko lituzkete. Garaipena edo porrota taldeko amorruren erradikalismo modernoak erakusteko eta askatzeko aitzakia besterik ez da. Mendekua, gorrotoa eta triskantza-gogoak askatu nahi dituzte, energia-askatze txikiak ez baitituzte nahikoa. “Gauzak bonbazia handian egin behar dira”, esan zidan horietako batek. Segurtasun-indarrek kaosa aurreikusi eta neurri baten barruan mantendu behar dute, baina neurrigabekeria horiek ez dituzte errotik moztu behar, eta kontzentrazioak galarazi. Okerrago litzateke. Indar ikonoklastak eta errespetu gabeak dira kultura- eta elkarbizitza-forma guztiekiko, uneko bozkarioaren, berotasunaren edo etsipenaren ondorio. Jarraitzaileen ustez, besteak eta haren munduak ez dute errespeturik merezi; deuseztatu eta lurretik ezabatu beharreko traba besterik ez dira. Jarraitzaileen amorrua animalia-adierazpide mailatik erakutsi beharreko eta zirrara sortzeko sentimendua da” (El Mundo, 2010/06/11:36).*

## Ondorioak

Komunikabideen zeregina funtsezkoa da balioak transmititzeko orduan. Kultura-aniztasuna sustatu ahal izateko, hizkuntzak ezin dezake espektakulua erabili audientzia erakartzeko formula bakar gisa. Komunikabideek beren buruari galdetu beharko liokete ea audientzia erakar dezaketen eta audientzia horren arretari euts diezaioketen hizkuntza zehatz eta profesionala erabilita, futbola kirol-lehia gisa azaltzen duena.

Zalantzarik gabe, zaila da kirolean emozioa eta espektakulua saihestea. Berriemaile eta iruzkingile askoren begirada objektiboa eta analitikoa bigarren mailan gelditu da. Protagonismoa muturreko zaleak ordezkutzen dituzten profesionalen eta kolaboratzaileen eskuetan geratu da.

*Kirol-kazetari* horiek talde batekin edo selekzio batekin bat egiten dute, zaleak bailiran oihu artean aritzen dira (prentsan gehiegi erabiltzen dira harridura-markak) eta *etsaiari* izen ona kentzen diote inongo konplexurik eta argudio onargarriak erabiltzeko beharrik gabe. Prentsan, irratan eta telebistan ekonomia- eta audientzia-emaiza apartak ematen ari da formulazio hori, eta komunikabide horietako asko profesionalen arteko asaldatuena kontratatu nahian ibiltzen da.

Espektakulua sustatzeak berak finkatzen du kirolean dagoen arrazakeria berriari lotutako diskurtsoak. Gizartea etengabe aldatzen ari da eta, bere baitan, gizarte- zein kultura-aniztasuna hazi egin da azken urteotan. Arrazakeria gisako fenomenoak ere aldatu egin dira. Nagusitasun etnikoa oinarri duen arrazakeria esplizitua, zakarra izateaz gainera, ez da begi onez ikusten gizartean. Alabaina, *arrazakeria berriaren* aurrean ez da ezer esaten, gero eta gehiago erabiltzen den arren; maltzurragoa da, eta pertsonen gaitasun bereziak eta berezituak eransten dizkie beren etnia, kultura, erlijio edo jatorri geografikoaren arabera.

Arrazakeria berri hori, kirol-hizkuntzaren barneko elementu aipagarri gisa, honako gai hauen arabera zehazten da: abertzaletasunaren gorespina gu-besteak aurkakotasunetik; hizkuntza eta jarrera belikoen gehiegizko erabilera, epika eta espektakulua sustatzea helburu dutenak, beste-arenganako errespetuaren kaltetan; beste jatorri, erlijio edo kultura bateko kirolariek beren herrialde berriarekin duten identifikazioa zalantzan jartzea; nazionalitateei edo talde etnikoiei zenbait gaitasun eranstea; indarkeriari garrantzia kendu eta mugimendu ultrak isolatuak eta baz-

terrekoak bailiran azaltzea; edo Hegoafrikari eta kontinente osoari emandako begiratua, europarren pentsamoldetik egina, desberdintasunik ikusten ez duena eta estereotipoetatik abiatutakoa.

Beharrezkoa da kirolaren zeregina sustatzea gizartearen kohesiorako eta balio eta jarrera positiboak bultzatzeko. Beharrezkoa da erakundeak eta, oro har, kirol-taldeak, beren oinarritik hasita, diskriminazioaren eta arrazakeriaren aurkako borroka bultzatzeko politikak abiaraztearen beharraz jabetzea; izan ere, kirol-oinarri horrek ondorioak ekartzen ditu pertsonen eguneroko bizitzara eta, azkenerako, eragina izango du gizartearengan eta talde-pentsamoldean eragiten duen kirol-espektakuluan ere.

Izan ere, eta Santiago Seguiolak dion legez, kirola parte-hartze sozialerako formula eraginkorra izan daiteke, Hegoafrikako azken urteotako historiak erakutsi moduan: *“Aldi horretan, kirolak integrazio- eta kohesio-faktore gisa duen garrantziaz jabetu zen. “Kirola gobernuak baino indartsuagoa da arraza-hesiak hausteko orduan”, esan zuen Mandelak tiranoak menderatu zituenean. “Kirolak mundua aldatzeko ahala dauka, jendea inspiratzeko eta batzekoa”. Espetxean ikasi eta ondoren aldarrikatu zuen” (Marca, 2010/06/11:04).*



## Kolonbiako familia transnazionalen diru-bidalketen eta bestelako zirkulazioa eta horrek garapenarekin duen lotura

Trinidad L. Vicente

Amaia Unzueta

Andrea Ruiz

Bakeaz<sup>1</sup>

### Immigrazioa Kolonbiatik Espainiara eta Euskal Herrira

Kolonbian desberdintasun sozial izugarriak eta gizarte-bazterketa kasu larriak daude. Egoera horrek okerrera egin du egun herrialdean dagoen krisi ekonomikoa, gatazka armatua eta narkotrafikoa direla medio. Azken biek Kolonbiako egoera soziopolitikoan ez ezik hiritarrengan ere eragin zuzena dute, eta sarritan haien giza eskubideak urratzen dituzte (Solarte, 2009).

Testuinguru horretan, populazioa etengabe mugitzen ari da herrialdearen mugen barnean eta, era berean, azken hamarkadetan gero eta gehiagok emigratu dute atzerrira. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, kolonbiarrek hainbat herrialdetara emigratu dute bizimodu berri baten bila. Hasieran, Amerikako kontinentea izan bazuten ere helburu (Estatu Batuak, Panama, Ekuador edo Venezuela), 80ko hamarkadatik aurrera Europarantz ere hasi ziren joaten kolonbiarrak (Guarnizo, 2004 eta 2008). Venezuelako egoera ekonomikoa aldatu egin zen, eta Estatu Batuek ordura arteko murrizketa handienak egin zituzten etorkinen legedian; horren ondorioz, Britainia Handia izan zen etorkin kolonbiar gehien hartu zituen Europako herrialdea eta, atzetik, Italia, Frantzia, Alemania eta Espainia izan ziren hautatuenak, hurrenez hurren. Azken hori, Espainia, da Kolonbiako etorkin gehien duen bigarren herrialdea, Estatu Batuen atzetik; izan ere, 2000tik 2005era arte Espainiara etorkin asko iritsi da, garai hartan jende asko irten baitzen Kolonbiatik –beste urteetan baino gehiago– eta Espainia izan baitzen gehienek aukeratu zuten herrialdea (Actis, 2009; Aparicio eta Gimenez, 2003). XXI. mendetik aurrera, Espainian bizi diren etorkin gehientsuenak kolonbiar jatorrikoak diren arren, etorkin kopurua gora doa etengabe, eta gero eta herrialde gehiagotako jendea ikusten da, mundu guztian aukeratzen den bigarren herrialdea baita Espainia, Estatu Batuen ondoren (Vicente, 2010).

---

<sup>1</sup>Artikulu honetan Bakeaz-ek egindako eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzaturako ikerketa baten emaitzen zati bat aztertzen da, ondoko izenburupean: *El potencial de las remesas para el desarrollo desde una perspectiva de género: el caso de la migración colombiana en el País Vasco*. Ikerketa artikulu honen hiru egileek egin dute; Trinidad L. Vicenteren zuzendaritzapean egin dute lan.

XXI. mendearen aurreko bi hamarkadetan izan zuen aldaketa soziopolitiko eta ekonomikoa izan daiteke etorkinentzat Espainia herrialde erakargarria izateko arrazoa. 2000-2005 bosturtekoan, kolonbiarren etorrerak etengabeak izan ziren, nahiz eta etorkinen hazkundera oztopatzen saiatu ziren –2001ean, esaterako– migrazio-kupoen sistema aldatuz (jatorrian aukeratutako pertsona zehatzei bakarrik utzi nahi zieten sartzan) edo zenbait herrialdetako etorkinak bisa eskuratzera behartuz (kolonbiarrak, esaterako, 2002. urtetik aurrera). Garai hartan etorkinen kopurua gora zihoan, eta gero eta oztopo gehiago jartzen zitzaizkien herrialde berrian sartzeko; horren ondorioz, legez kanpoko etorkin asko pilatu ziren, nahiz eta Espainiako Gobernuak aparteko legeztatze asko egin zituen (2000, 2001 eta 2005ean).

2005. urteaz geroztik kolonbiar immigrazioa moteldu egin zen; batetik, legez kanpoko egoeran zeudenei eragozpen handiak ipini zizkietelako European eta Estatu Batuetan eta, bestetik, azken urteotako nazioarteko krisiak Espainiako ekonomia kaltetu duelako, eta langabeziaren etengabeak gorakada ekarri duelako. Horrela, garai berri bat hasi zen; egoera egonkortsu eta etorrerak gutxitu zirelako, legez kanpoko egoerak ere gutxitu egin zirelako, eta nazionalitatea eskuratu zutenen kopuruak gora egin zuelako. Garai horretan lan bila emigratu zutenen kopurua jaitsi egin zen, baina migrazio fluxu-kateak mantendu ziren, eta batez ere etorkinen senideek ere politikoki emigratu egin zuten familia osoa elkartzeko asmotan; gainera, herrialde berrian luzerako gelditzeko joera hasi zen nabarmentzen.

Britainia Handian eta Italian bezala, Espainian Kolonbiako emigrazioa gero eta heterogeneoagoa dela esan daiteke (gizarteko sektore guztietan daude), eta gehienak emakumeak dira (emakumeak iritsi dira lehendabizi, baina urte batzuetara senarra etorri da familia elkartzeko asmotan). 2000. urteko lehen hamarkadan etxeko lanetan jarduteko, zaintzarako eta zerbitzu-sektorerako (hotel, jatetxe, etab.) emakume etorkinak kontratatzen ziren batez ere. Hori izan liteke etorkinak batez ere emakumeak izatearen arrazoa, lanpostu horietarako emakumeak nahi izaten baitira. Aipatu behar da sektore horretan lan-baldintzak nahiko eskasak izaten direla eta, gainera, etorkinek zail edukitzen dutela bizileku-baimena eta lan-baimena lortzeko beharrezko paperak eskuratzan.

Euskal Herrian eta Espainian antzeko bilakaera izan du migrazio kolonbiarrak. Mende hasieratik, kolonbiarren etorrera etengabea izan da; batez ere, Kolonbiako bi eskualdetatik etorri dira: Cauca eta Cafetera. Aurreko hamarkadan Kolonbia lehenengo hiru herrialdeen barruan egon da, etorkinen jatorriari dagokionez.

Testuinguru horretan, diru-bidalketen eta bestelakoen (azken aldia asko hitz egin da horri buruz), generoaren, eta jatorrizko herrialdeko garapenaren artean loturarik dagoen aztertu dugu; herrialde berriko etxebizitzak izan dira azterketa-unitatea; familiaren dinamika ezagutu dugu eta migrazioak horretan nola eragin duen jakin nahi izan dugu. Horretarako metodologia kualitatiboa erabili dugu; aurrez erdi-prestatutako elkarrizketa sakonak egin dizkiegu, eta baita taldekako eztabaidak ere.

Batetik, hogeit hamar pertsonarekin izan dugu elkarrizketa (hamaika emakume eta bederatzi gizon); kolonbiarrak izan arren, momentuz Euskal Herrian bizi direnak. Aukeraketa egin zenean, kontuan hartu dira: sexua, adina eta familia-eredua (nuklearra, zabala, pertsona bakarrekoa, guraso bakarrekoa...), beren migrazio-prozesua (bakarrik bidaiatu duten pertsonak, lagunduta, beren ondorengoekin ala gabe...), Kolonbiatik alde egin zutenetik pasa den denbora, lan-egoera edo egoera administratibo desberdinak. Haiekin beren migrazio-prozesuei buruz hitz egin dugu, eta honako alderdi hauetan sakondu: nola antolatu zuten jatorrizko herrialdetik irteera, nola integratu ziren



lan-munduan eta herrialde berrian, nola egiten dituzten diru-bidalketak, senideen arteko harremana, etorkizunera begira daukaten asmoa, etab. Elkarrizketa-kopurua jarreraren arabera izan da; hau da, elkarrizketatuak informazio berririk eman ez eta gauzak errepikatzen hasten zenean, elkarrizketak egiteari utzi genion.

Bestalde, egindako lan kualitatiboan, bi eztabaida-taldek ere hartu zuten parte; eta migrazioen inguruan informazioa eman eta Euskal Herrian kolonbiar komunitateak izan duen bilakaerari buruz hitz egingo zigun jendeari ere entzun diogu. Elkarrizketetan, Euskal Herriko bost erakunde kolonbiarren ordezkariak hartu zuten parte, eta baita Kolonbian proiektuak gauzatzen dituzten garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetako hainbat pertsonak ere (ASOCOLVAS Euskal Herriko kolonbiarren elkarteak, Mundu bat, Nuevo Ciudadano, Camino Al Barrio eta Alboan elkarteak, besteak beste). Lehenengo taldekako eztabaida banakako elkarrizketen aurretik egin zen; bigarrena, aldiz, banakako elkarrizketetatik ateratako informazioa aztertu ostean egin zen; bertan, ikerketaren emaitza nagusiak azaldu eta horien inguruko hausnarketa kolektibo egin ondoren antzemandako beharrei erantzuteko gizarte-ekintza posibleak proposatu ziren. Azkenik, aipatu nahi dugu lan honek ikerketa sakonago baten hasiera izan beharko lukeela. Ikerketa honetan sakontzeko aukera egongo balitz; batetik, Kolonbian bertan egin beharko litzateke, bertako errealitatea, jendearen ikuspuntua eta helburuak kontuan hartzeko eta, bestetik, partaideek Euskal Herrian bizi den senideren baten diru-bidalketen hartzailak izan beharko lukete. Ikerketa jatorrizko herrialdean egitea nahitaezkoa da helburu nagusia lortzeko: migrazioaren, bidalketaren eta garapenaren arteko erlazioa ezagutzeko, hain zuzen ere; beti ere, genero-ikuspegi kontuan hartuz.

### Nazioarteko migrazioak eta garapena: bidalketen esanahiaren eta eraginaren inguruko interpretazioak

Migrazioa eta garapenaren arteko lotura egon badagoen arren, nahiko korapilotsua da, zaila baita kausa-ondorio erlazioa bakarra zehaztea; eta zaila da, era berean, migrazioak jatorrizko herrialdean, komunitatean edo familian garapenean duen eragina neurtzea; izan ere, *mikro* eta *makro* eragile askok baldintzatzen dute hori. Migrazio-garapena binomioa aztertzeko, etorkinen diru-bidalketa transnazionalari –aspektu ekonomikoari– jarri diete arreta handiena politikoei eta akademikoek azken hamarkadetan, eta arreta txikiagoa jarri diete beste alderdi batzuei (sozial, kultural edo politikoari), nahiz eta horien azterketa ere garrantzitsua izan pertsona, familia eta komunitate hartzaileen garapena ezagutzeko. Gainera, alderdi ekonomikoari garrantzia handia eman zaio, baina ez da bidalketetan genero-ikuspegiak duen garrantzia kontuan hartu, ezta bidalketa horiek garapenean duten eragina aztertu ere. Eta migrazio-prozesuak eta garapena genero-ikuspegitik aztertzea interesgarria da, bidalketetan, horien erabileran eta kudeaketan aldagai erabakigarria delako.

Migrazioak generoaren arabera aztertzea garrantzitsua izan da, gizonek eta emakumeek migrazio-prozesua desberdin bizi dutela konturatu garelako, eta migrazio-prozesuetan emakumeek aurrera egiteko duten gaitasuna ezagutu dugulako. 80ko hamarkadaren amaieratik emakumeek beren gain hartu dute migrazio-prozesua (Zlotnik, 1995), eta, orain, askotan emakumeek eramanen dute dirua etxera, familia aurrera ateratzeko (bi herrialdetan zatikatuta dauden familiak askotan, familia transnazionalak). Kolonbiatik Espainiara eta Euskal Herrira gertatzen diren migrazio-prozesuei erreparatu gero, argi geratzen da emakumeek rol aktiboa daukatela.

Artikulu honetan familia transnationalei buruz hitz egiten dugu, Euskal Herrian bizi diren familia kolonbiarren kasuaz, hain zuzen ere. Bestalde, hemendik Kolonbiara egiten diren bidalketak egoki aztertzeke genero-ikuspegia kontuan hartzeak duen garrantziaz ohartarazi nahi dugu; bai bidalketetan, bidalketa horien erabileran eta kudeaketan. Amaitzeko, bidalketa horiek (materialak zein ez-materialak) familia hartzaileengan eta jatorrizko herrialdeko komunitatearengan izan ditzaketen ondorioak aztertu ditugu.

Azken urteetan zehar, migrazio-prozesuen eta garapenaren arteko lotura azaltzeko ikuspegi kontrajarriak egon dira (Faist, 2008). 80ko hamarkadatik aurrera bien arteko lotura positiboa nabarmendu nahi izan dute, bidalketa horiek jatorrizko herrialdeetako finantziazio-iturri nagusitzat hartu baitira (Sorensen, 2004; OIM, 2005; Kapur, 2003). Dena den, oraindik ere kontu horrek eztabaidarako gai izaten jarraitzen du, garapenaren kontzeptua ez baitugu denok berdin ulertzen. Batzuek bidalketak pobrezia gutxitzeko modu bat direla uste dute; baina beste ikerketa askok eraginak zalantzan jartzen dituzte, eta bidalketen ondorioak aztertzerakoan bi maila desberdintzen dituzte: *makro* maila, nazio osoa aintzat hartuz, *mikro* maila, familia eta komunitateak aintzat hartuz. Kolonbian ikerketa asko egin dira horri buruz eta hainbatek idatzi dute gai horren inguruan; aipatzekoak dira honako ekarpen hauek: *makro* ikuspegitik, Mejia et. al (2009) edo Khoudour-Casteras (2007); beste batzuek, aldiz, familietan edo komunitatean zuzenean izandako eragina aztertu dute: Barbat (2008), Rivas eta Gonzalvez (2010), Artamonova (2007), UN-INSTRAW eta OIM (2007), eta Sosa eta Medina (2006) bestea hainbaten artean.

Egindako ikerketa gehienetan batez ere diru-bidalketei erreparatu zaie eta bestelako bidalketei ez zaie jaramonik egin, nahiz eta azken horiek familian, gizarteratzean, kulturen, politikan eta abarretan eragin dezaketen. Alde horretatik, Gimenezek (2006: 23) esandakoa ekar dezakegu gogora: “herrialde berritik egindako edo jatorriko herrialdean jasotako bidalketa guztiak hartu behar dira kontuan, bai materialak bai ez-materialak. Hainbat bidalketa mota daude: diruzkoak, produktuenak, teknologiarrenak, ideia eta balioenak”. Ekarpenean ez-materialak, transferentzia sozialak deituak (Levitt eta Glick Schiller, 2006) jatorriko eta helmugako herrialdeen artean trukatzen diren arau, ekintza, jarrera, identitate, eta kapital sozialak dira, eta ondorio positiboak zein negatiboak ekar ditzakete (Levitt eta Lamba-Nieves, 2010). Azken aipu honetan ikuspegi zabalagoa antzematen da, eta ekonomiaz haratago hitz egiten du, truke sozial eta kulturalaz ohartaraziz.

Bestalde, diru-bidalketak dira etorkinen eta beren jatorriko herrialdeko familien arteko lotura garbiena (Guarnizo, 2003). Etorkinek egiten dituzten bidalketak ez dira diru-bidalketa hutsa, zerbait gehiago ere azaltzen dute: ahaidetasuna, familiaren batasuna eta familia barruan dauden botere-harremanak, besteak beste (Villamar, Lopez eta Sanchez, 2004). Bidalketa horiek senide eta lagunekiko solidaritatea eta ardura erakusten dute, mugaz gaindi; gainera, urrunetik senideen arteko harremanak bideratzeko eta sentimenduak eta emozioak azaltzeko modu bat ere badi-ra (Lopez Montaña, 2009: 77).

Azken urteotan, ikerketa askok familia hartu dute aztergai herrialde berriaren eta jatorrikoaren arteko harremanak eta ekintzak ezagutzeko. Familia horietako senideak geografikoki sakabanatuta daude eta hainbat modutan deitu izan zaie: familia transnacionalak, multilokalak, internazionalak, etab. Dena den, familia-eredu horiek, Bryceson-ek eta Vuorela-k (2002) dioten bezala, nahiz eta denbora luzean sakabanatuta egon, mugaz gaindiko harremana mantentzeko gai dira, proiektu bereko partaide sentitzen dira, eta denek elkartuta jarraitzen dute. Gainera, kontuan hartu behar da familiaren kontzeptua zabala dela eta, irudikatzen dugun familia elkartuez gainera, badi-rela beste familia-eredu batzuk ere, odolkidetasunik eta harremanik gabekoak.

Horregatik, gai hori lantzeko egokia da familia transnazional kontzeptua, kontzeptu irekia delako eta familia barruan izan daitezkeen aldaketak kontuan hartzen dituelako; izan ere, garrantzitsua da jakitea migrazio-prozesuak izaten diren familietako partaideen kopurua aldakorra izan daitekeela. Alde horretatik, Mingione-k (1994: 180) honela azaltzen zuen familia kontzeptua: “etengabe aldatzen diren harreman sozialen multzoa da; kide guztiek elkarrekiko betebeharrak daukate (finean, bata bestearekiko harremanean oinarritzen den antolaketa soziala da) eta bizirauten lagunduko diete elkarri”. Familia transnazionala azterketarako unitate gisa hartuz, barruko botere-harremanak ezagutu daitezke (Gregorio, 1998), eta generoak duen zerikusia azter daiteke emigratzeko erabakia hartzeko garaian eta bidalketak egiteko, erabiltzeko eta kudeatzeko garaian (UN-INSTRAW, 2008). Azken aldian esan izan da, emigratzeko erabakia norberaren gain egon arren, familiak, etxeok edo komunitateak ere eragin dezakeela horretan (Massey et al., 1993). Era berean, aipatu bezala, generoa ere aldagai erabakigarria da familia barruko harremanetan; esaterako, familia barruko zeinek emigratu behar duen erabakitzeko orduan. Hori horrela izanik ere, urteetan zehar ez da aztertu ere egin emakumeek migrazio-prozesuetan eta garapenean daukaten rol aktiboa (Vicente, 2006b; Willis eta Yeoh, 2000; United Nations, 1994), eta ikerketa gutxi egin dira bidalketa-fluxuen eta beren eraginaren inguruan, genero-ikuspegia kontuan hartuz (Perez, Paiewonsky eta Garcia, 2008).

Bestalde, migratzaileek familiakoak ez diren beste pertsona batzuekin ere egin ditzakete harremanak eta ekintza transnazionalak; eta horrek ondorio positibo zein negatiboak ekar ditzake beren jatorriko lurraldearen garapenean. Dena den, Portesek, Escobarrek eta Radfordek (2005) dioten bezala, migratzaile guztiek ez dituzte ekintza transnazionalak egiten; aldagai makrosozialak (jatorriko herrialdeko baldintza eta herrialde berrian integratzeko modua) eta aldagai indibidualek (giza kapitala eta kapital soziala) baldintzatzen dute hori.

Horren haritik, Portesek, Guarnizok eta Landoltek (1999) hiru ekintza transnazional mota bereizten dituzte: ekonomikoak, politikoak, soziokulturalak. Baina multzo horietan ekintza-mota asko sartzen dira. Ekonomikoak: inportazioekin eta esportazioekin lotura duten enpresa-ekimenak. Politikoak: hauteskondeekin lotuta daudenak, alde batetik, eta beste guztiak bereizita. Soziokulturalak: identitate nazionala indartzeko ekintzak edo jarduera kulturalak. Ekintza politikoan multzoan, hauteskondeekin loturarik ez dutenak desberdin ditugu: jatorrizko herriko elkarrekin bateko bazkide izatea, jatorrizko herrialdean egiten diren proiektuentzat diru-ekarpenak egitea, eta jatorrizko herrialdean proiektuak finantzatzen dituzten karitatezko elkarteren bateko bazkide izatea (Guarnizo, Portes eta Haller, 2003) multzo horretan sartzen dira, besteak beste.

### **Kolonbiako familiek egiten dituzten bidalketen xehetasunak**

Oro har, Kolonbiako familien %3k bidalketak jasotzen dituztela uste da, eta bidalketa horiek etxeko behar ekonomikoari erantzuteko erabiltzen dituzte (Mejia, W. et al., 2009). Bidalketa horien zenbatekoa eta maiztasuna bidaltzen dutenen eta jasotzen dutenen arteko harreman, senidetan edo arduraren arabera izaten dira; izan ere, bidalketa gehiago eta handiagoak egiten dira bidaltzaileak gurasoak direnean eta, batez ere, hartzaileak seme-alabak izanik oraindik jatorrizko herrialdean bizi direnean; aldiz, bidalketa gutxiago eta txikiagoak egiten dira beste senideren batentzat edo lagunen batentzat direnean.

Bidalketa horien zenbatekoa eta maiztasuna jatorrizko etxean bizi direnen eta familiaren zaintza bermatzeko behararen arabera izango dira. Oro har, familiaren sostengu direnek bidalketak erregulartasun handiagoz egiten dituzte, nahiz eta herrialde berriko bizi-baldintzek ere zerikusi handia izango duten horretan. Genero ikuspegitik, emakume eta gizek jatorrizko herrialdeko familiarekiko daukaten erantzukizun ekonomiko betetzeko bide desberdinak bilatzen dituzte. Emakumeek, esaterako, enplegu bat baino gehiago edukitzea edo lan egiten duten etxean bertan bizitzea erabakitzen dute; gizek, aldiz, badirudi familiako beste emakume bati laguntza eskatzera jotzen dutela.

Horren zergatia bi arrazoik azaltzen dute, batik bat: batetik, lanpostuak sexuaren arabera sailkaturata egonik, krisi ekonomikoak tradizioz gizonenak izan diren lanei eragin diela; eta, bestetik, emakumeei egotzen zaiela familiaren arduraren eta haiekiko leialtasuna. Bidalketak egiten dituen gizona edo emakumea izan, aldea nabaritzen da, ez baitiote berdinez eskatzen emakumeek eta gizek beren buruari, familien zaintzari dagokionez; eta ez diete diru-sarreraren proportzio bera bidaltzen beren seme-alabei. Hainbat lekukok eta ikerketak egiaztatu dutenez (UN-INSTRAW eta OIM, 2007; UNFPA, 2006) emakumeek beren diru-sarreraren proportzio handiagoa bidaltzen dute etxera gizek baino, nahiz eta sarritan emakumeak baldintza ekonomiko eskasagoetan bizi.

Hartzaileei dagokienez, bidalketak jasotzen dituztenak familiaren kargua dutenak izan ohi dira; hor ere genero-bereizketak daude. Kanpora emigratzen duena gizona bada, emakumea eta ama geratzen da familia zaintzen, eta hark jasoko ditu bidalketak. Aldiz, emakumeak emigratzen badu, askotan familiako beste emakume batek hartzen du erantzukizuna, eta hark jasoko ditu bidalketa horiek, jatorrizko herrialdean geratu den familiaren zaintza eta bizimodua hobetzeko. Beraz, genero-ikuspegitik egindako ikerketa honekin ondorioztatu denez, emigratu aurretik emakumeek zituzten eginkizunak gero ere beste emakume batzuen ardurapean geratzen dira, eta haiek daukate jatorrizko herrialdean baliabide ekonomiko horiek kudeatzeko eta familiaren ongizatea bermatzeko erantzukizuna. Emakumeek protagonismo handia dutenez, esan daiteke bidalketak eta oro har familiaren baliabide ekonomikoak bi herrialdeen artean kudeatzeko orduan, eredu emakumetua nabaritzen dela. Bidalketak jasotzen dituztenei erreparatuz eta generoa kontuan hartuta, berriz ere esan daiteke batez ere emakumeak, amak, direla bidalketa horiek jasotzen dituztenak; bestalde, bidalketen egileak alabak dira gehienetan, eta gutxiagotan semeak.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, ikerketa honek argi uzten du emakumeak pisu handia duela kontu horretan; besteak beste, bidalketen hartzaileak eta administratzaileak edo onuradunak baitira gehienetan. Bestalde, hemen esandakoarekin bat datoz beste bi ikerketa hauek ere: Garayk eta Rodriguezek (2005) AMCOko familietan egindakoa bidalketen inguruan, eta Lopez Montañok (2009) egindakoa Eje Cafetero eskualdean. Batetik, ikerketa honetan ezagututako antolaketa-ereduek argi adierazten dute emakumeek zeresan handia dutela etxe transnasionaleko ekonomian eta zaintzan. Bestetik, familia barruan zereginak sexuaren arabera banatzen direla eta banaketa horrek ez duela berdinez eragiten emakume eta gizonengan jakinik, nabarmen geratu da askotan etxeko ama geratzen dela bidalketak jasotzeko zain eta, beraz, emakumeak egoera sozioekonomiko kaskarragoan geratzen direla.

## Diru-bidalketei eta bestelakoei ematen zaien erabilera, Kolonbiako familia transnazonaletan

Behin bidalketak jasotakoan, familia barruan horri ematen zaion erabilera migrazio-proiektuaren, familia transnazional motaren, familiaren ezaugarri sozioekonomikoen eta genero-harremanen arabera da. Jaso ditugun testigantzek argi erakusten dute zati handi bat oinarritzko premiak betetzeko erabiltzen dela; egunero behar diren erosketak egiteko, eguneroko gastuak ordaintzeko eta, finean, jatorriko herrialdean dauden senideek aurrera egin eta eguneroko kontsumoa ahalbidetzeko. Horretaz gainera, diru-bidalketak jatorriko herrialdean sistema publikoak dituen gabeziak estaltzeko erabiltzen dela ere esan daiteke; langabeziari, gaixotasunei, dependentzia- eta pobrezia-egoerei aurre egiteko, hain zuzen ere. Bestalde, berez eskubide sozialak izan beharko luketen osasun eta hezkuntzarako ere erabili ohi da dirua. Aldiz, jarduera kulturaletarako edo aisialdirako baliabide ekonomiko gutxi bidaltzen da Euskal Herritik; gainera, horretarako dirua bidaltzen dutenek noizean behin bakarrik egiten dute eta, normalean, jatorriko herrialdean bizi diren senideak ez daude haren menpe bizimodua aurrera ateratzeko. Aipatu behar da, zenbait kasutan, Kolonbiako familia klase sozial ertain edo altukoa denean, diru-bidalketak jatorriko herrialdeetik herrialde berrira ere egiten direla; nahiz eta orain arte alderantzizkoa ikusi dugun. Hori horrela dela erakusten duten kasu bat baino gehiago ezagutu ditugu, batzuetan beharrezkoa baita Kolonbiatik laguntza ekonomikoa bidaltzea herrialde berrian migrazio-proiektuarekin jarraitzeko.

Gaiarekin jarraituz, Euskal Herrian bizi diren kolonbiarretatik gutxi esan digute aurrezteko edo inbertitzeko aukera dutela; eta, zertan inbertitu duten edo inbertituko luketen galdetzean, batez ere honako hau esan digute: etxe bat erosten (Kolonbian edo Euskal Herrian), edo daukatena berritzen (Kolonbian) inbertituko luketela dirua.

Aipaturiko bidalketek eta jatorriko herrialdearen garapenak loturarik ote duten aztertzea izan da lan honen ardatza, eta ohartu gara bidalketa horiek alderdi askotan eragin dezaketela. Hasteko, jatorriko herrialdean bizi den familiak baliabide ekonomiko gehiago izango ditu; horrela, pobrezia-egoerak ekidin eta ondasun eta zerbitzuen kontsumoa areagotuko da. Horrela ikusita, esan daiteke kontsumoa areagotzen bada merkatu berriak irekitzeko aukera egongo dela, eta hori ona da garapen ekonomikorako, baita garapen pertsonalerako ere. Dena den, migrazioa-garapena binomioa diru-bidalketetan oinarritzen badugu, zerbitzuen erabilera eta kontsumoa bultzatzeko bide bakarra ari gara kontuan hartzen, banakakoa edo familiarakoa. Gainera, ekonomiaren antolaketa merkatuen esku utzi eta erakundeen zeregina gutxiesten dugu; eta ez dago zalantzarik prozesu horretan erakundeek paper garrantzitsua dutela, eta herritarrei oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak bermatzeko ardura dutela.

Lehen aipatu bezala, kontsumo-ondasunak erosten, hezkuntzan eta osasunean erabiltzen da diru-bidalketen proportzio handiena. Hezkuntza izan da pertsona askorentzat migrazio-proiektua aurrera eramateko arrazoi nagusia (batez ere emakumeentzat). Hau da, hezkuntza ikusten dute etxeko gazteenek autonomia eta formazioa eskuratzeko bide bakarra, eta badakite garrantzitsua dela etorkizunean ateak irekitzeko eta, azken finean, bizi-maila hobetzeko.

Hezkuntzan egiten den gastua giza kapitalean egindako inbertsio gisa ikusten dute, epe ertain eta luzera garapena lortzeko giltzarri gisa, hain zuzen ere. Baina, hezkuntza bitarteko ulertuta, ondoko hau ahaztu dezakegu: osasunak eta hezkuntzak bitarteko baino helburu izan behar dutela. Garapenak bi eskubide sozial horiek bermatzeko balio beharko luke, baita gainerako eskubide sozial guztiak bermatzeko ere, eta, gainera, pertsona guztientzat, ez diru-bidalketa horien

onuradun direnentzat bakarrik. Izan ere, diru-bidalketa horiek ez lukete inbertsio publikoaren ordezkotzat behar, modu horretan pribatizazioarako bidea erraztu besterik ez baita egiten (horrela gertatzen dela egiaztatu dugu lan honetan; langabezia, gaixotasun eta erretiro kasuetan) eta migratzaileak bihurtzen baititu beren herrialdeko garapenaren arduradun nagusi. Gainera, babes sozialeko sistemak huts egiten duenean edo pribatizatu egiten denean, ordezkotza lana emakumeek hartzen dute beren gain, eta lan karga handitu egiten zaie; hori horrela dela jakinik, genero-ikuspegia aldagai garrantzitsu bihurtzen da, beste behin ere.

Diru-bidalketa horiek onura ekonomikoak ekartzen dituzte jatorriko herrialdean; pobrezia jaitea, familiaren ongizatea, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak eskuratzeko aukera, besteak beste. Baina kontu horrek badu bere alderdi negatiboa ere, dependentzia eta aisialdirako joera (Kapur, 2003), hain zuzen ere. Ikerketa batzuk egin dira dependentzia ekonomiko horren inguruan eta, epe luze- ra, lan-merkatuan parte-hartzea gutxitu daitekeela esan da, bidalketa horiek direla-eta bizirau- pena ziurtatua baitute. Hori jakiteko itxaron egin beharko da; batetik, Euskal Herrirako migrazio- prozesua orain gutxi hasi delako, eta, bestetik, diru-bidalketen hartzaileak kolonbiar gazteak direlako (oraindik familia asko dago elkartzeko herrialde berrian); beraz, ikusi egin beharko da nola eragiten duen etorkizunean Kolonbiako lan-merkatuan.

Modu berean, baliabide ekonomikoak aldiro bidaltzeko ohitura hartuz gero, herrialde berrian bizi den bidaltzaileari kaltea eragin diezaiolke. Senideekiko ardura horrek eta aldiro dirua bidali behar- rarak bizitza-proiektua mugatzen diete, eta osasun-egoera kaltetu ere bai askotan. Gainera, ba- tzuetan hasieran adostutakoa baino gehiago eskatzen zaio kanpora joaten denari (batez ere emakumea bada) eta, zenbaitetan, familiako ustekabeei erantzuteko ere eskatzen zaio; egoera horietan zaila da eragozpenak jarri edo ezetz esatea, behar morala sentitzen baitute familia zaintzeko eta haienganako leialtasuna mantendu nahi dutelako.

Hala ere, eragin ditzakeen kalteak ez dira jatorriko herrialdearen egoeraren ondorio bakarrik, migratzaileek diru-sarrerak lortzen dituzten herrialde berrian bizi duten egoera ere kontuan hartu behar da; egoera administratiboa, eskaintako lan-motak (ezaugarriak eta erregulazioa), gizarte- arekiko hautematen duten distantzia soziala, etab. Alderdi horiek pertsona migratzaileen bizi- baldintzak eta giza eskubideak baldintzatuko dituzte, eta badirudi herrialde berrian generoak ere horretan zerikusia duela.

Azkenik, ikuspegi materialista hori beste zabalago batekin osatu behar dela uste dugu, alderdi sozial eta kulturala ere kontuan hartuko dituen; izan ere, kolonbiarrek bidalketa sozialak ere egi- ten dituztela antzeman dugu (jarduerak, arauak, balioak, ideiak, identitateak, etab.) Horiek ere berrikuntzak ekar ditzakete –batzuetan positiboak, bestetan negatiboak–, jatorrizko herrialdean gizarteko zenbait egitura aldatzen lagun baitezakete, besteak beste. Horren haritik, zenbait gizon-emakumek migrazio-prozesuan ordura arteko rola aldatu dute, egitura patriarkala alde batera utzi dute; era berean, berdintasunaren aldeko balio eta jarrera berri horiek Kolonbiako senideei erakusten dizkiete. Migrazioari esker, batez ere prozesuaren protagonista izan direnean, emakumeek botere handiagoa eta erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa lortu dituzte herrialde berrian, eta baita jatorrizko herrialdean ere.

## Bestelako lotura transnazionalak; soziokulturalak, ekonomikoak eta politikoak, besteak beste

Euskal Herriko etorkin kolonbiarrek eta beren jatorriko herrialdeko pertsonak oraindik ekintza transnazional ekonomiko, politiko edo soziokultural gutxi egiten dituzte beren artean. Komeni da esatea Euskal Herrian bizi diren kolonbiar gehienek jatorri bereko jendearekin bakarrik daukate-la harremana (lagun-taldea haiek osatzen dute) eta ez dira oso parte-hartzaileak talde-mugimenduetan, ez jatorri bereko pertsonekin ez desberdinekoekin.

Astirik eza, elkarteren interesekiko konfiantza falta, militantzia eskasa, lider izatearen arriskuak, gizonen presentzia handiagoa erabakiak hartzeko eremuetan, herritarren arteko konfiantza eza edo elkartu nahi duten kolonbiarrek sakabanatuta egotea dira, besteak beste, kolonbiarrek Euskal Herrian duten inplikazio baxua azaltzeko arrazoietakoz; alde horretatik, Euskal Herrian ez ezik Espainian ere antzeko egoera dagoela argitaratu dute hainbat ikerketek (Gonzalez, 2007).

Aurretik aipatutako ekintza transnazional politikoaren barruan sartu genituen jatorriko herrialdean dauden gizarte-etxeei eskainitako laguntzak. Helburu solidarioetarako emandako laguntza ekonomikoa da ekintza transnazional ohikoena; batez ere, hezkuntzari, haurtzarari eta hirugarren adinari dagozkionak. Kasu horietarako egiten diren bidalketak noizean behinekoak dira, eta bidalketak egiten dituenak aurretik ere ezagutzen zuen elkartea. Ekintza horiek jatorriko herrialdearekiko solidaritatearen sinbolo dira, lotura geografiko eta kulturala ere erakusten dute eta, era berean, Kolonbiako gizarte-zerbitzuen egoera kaskarraren adierazle dira. Hala ere, proiektu solidario horiek aurrera eramaten dituzten elkarrenganako konfiantza eza ere nabaritzen da; izan ere, horixe da kolonbiar gizartearen ezaugarrietako bat, eta hori, mugaz gaindi, jatorriko herrialdearekin dauzkaten harreman transnazioaletan ere nabaritzen da. Hala ondorioztatzen da lan hone-tan eta kanpoan bizi diren kolonbiarrek ikertu dituzten beste lan batzuetan ere (Guarnizo, Sanchez eta Roach, 2003). Konfiantza falta hori dela-eta, taldekako ekintza transnazional gutxi antolatzen dituzte jatorriko herrialdearen garapena bultzatzeko, herri-mailan, eskualde-mailan edo estatu-mailan. Hori alde batera utzita, argia da migrazio-prozesua, bidalketak eta jatorriko herrialdearen garapena egoki uztartuko dituen politika publiko baten beharra. Alde horretatik, Euskal Herriko elkarrekin eta pertsona batzuek argitasun handiagoa eskatzen dute ordaintzen dituzten zergen erabileraren inguruan (esaterako,  $4 \times 1000$ )<sup>2</sup> eta, diru hori zertan erabili erabakitze-ko orduan, atzerrian bizi diren emigranteek parte-hartze handiagoa eskatzen dute (horiek dirua batez ere gastu sozialetarako erabiltzea nahi dute).

Era berean, orientazio-programak eta laguntza (psikologikoa, soziala, hezkuntzarakoa, etab.) eskatzen dituzte, familiako senide bat baino gehiago atzerriara joan eta ondorioz arazoak sortzen diren kasuetarako. Familia horiei laguntzea da eskaera horien helburua eta erakunde pribatuen manipulazioa saihestea, askotan atzerrian dauden senideen bidalketez aprobeztatu nahi izaten baitute.

---

<sup>2</sup>Finantza-mugimenduen gaineko zerga edo  $4 \times 1000$  zerga da sistemako erabiltzaileek egindako finantza-transakzioei aplikatzen zaien nazio-mailako zeharkako zerga.

## Ondorioak

Emakume kolonbiarren protagonismoa nabaria da, bai Espainiarako migrazio-prozesuetan bai Euskal Herrirakoetan. Jatorrizko herrialdera egiten dituzten bidalketak, horien erabilera eta kudeaketa emakumeen esku dago batez ere. Emakumeak, gizonezkoak ez bezala, bidalketen egile, hartzaile eta administratzaile nagusiak dira. Horrek ez du esan nahi arazorik ez dagoenik, familia transnazionalaren barruko botere-harremanak eta interes-gatazkak baitaude jokoan. Gai horretan sakontzea komeni da, bi ikuspegitatik gainera, bidaltzaileen eta hartzaileen iritzia kontuan hartuta, hain zuzen ere; horrela, interpretazio guztiak ezagutuko dira, bi aldeetako interesak eta tira-birak jakingo dira.

Bidalketek herrialde hartzaileen garapenean duten eragina gai zabala eta korapilatsua da. Ez da komeni epe laburrera bakarrik begiratzea, ezta alderdi ekonomikoa bakarrik aztertzea ere, eta generoari dagokionez, ez da nahikoa gizonezkoen ikuspegia ezagutzea. Garrantzitsua da ondoko gai hauetan sakontzea: esaterako, bidalketen epe ertain eta luzerako eragina eta, aldi berean, Kolonbiako lan- eta ekonomia-egoeraren bilakaera (batez ere enpleguaren bilakaera); bidalketak jasotzen dituzten etxeetan hezkuntzarako ateak ireki ote diren; egun eta etorkizunean kolonbiarrak kanpora alde egingo ote duten. Azterketa horretan genero-ikuspegia kontuan hartu behar da. Horrela, politika eta programa egokiak aukeratu ahal izango dira, eta pertsonen garapen integrala lortzeko baliatu ahalko dira diru-bidalketak.

Ez dugu ahaztu behar migrazioaren eta garapenaren arteko lotura, eta bidalketek horretan duten eragina ikertzeko bi herrialdeak hartu behar direla kontuan. Bidalketak egiten dituen herrialdea kontuan hartu behar bada, are gehiago bidalketa horiek jasotzen dituen herrialdea eta azken horren garapen-eredua; eta jakin badakigu kasu horretan jatorriko herrialdean ez dela jasangarritasun sozialaren alde egiten. Aipatu berri duguna kontuan hartu beharrekoa da migrazio-prozesuak eta garapena lotuko dituen programa eta jarduerak diseinatzeko (Gomez Gil eta Unzueta, 2009), ezin baitugu testuinguru makroekonomikoa ahaztu. Testuinguruak lekuko garapena baldintzatu eta mugatu dezake; baina testuingurua aldatu ere egin daiteke, eta hori ere kontuan hartzeko aldagai bihurtu da migrazioaren eta garapenaren inguruko eztabaidan.

## Bibliografia

- Actis, W. (2009). "La migración colombiana en España: ¿salvados o entrampados?", *Revista de Indias*, LXIX, 245. zk., 145.-170. or.
- Aparicio, R.;a Giménez, C. (zuz.) (2003). *Migración colombiana en España*. Ginebra: Organización Internacional para las Migraciones.
- Artamonova, I. (2007). "La emigración internacional: Hijos de los remitentes y las remesas en el Eje Cafetero". *Documentos de la Red de Universidades Públicas del Eje Cafetero - ALMA MATER*, 01 - Argitalpen berezia.
- Barbat, T. (2008). "Remesas, pobreza, trabajo y expectativas, Encuesta sobre el barrio Cuba en Pereira". *Cuadernos Migrantes*. Bogotá: ARFO argitaletxea.



- Bryceson, D.; Vuorela, U. (arg.) (2002). *The transnational family. New Europeans frontiers and global networks*. Oxford: Berg.
- Faist, T. (2008). "Migrants as transnational development agents: An inquiry into the newest round of the migration-development nexus", *Population, Space and Place*, 14. lib., 1. zk., 21.-42. or.
- Garay, L.J.; Rodríguez, A. (2005). *Caracterización socioeconómica de la población emigrante y evolución del impacto de las remesas internacionales*. Cuadernillo 3, Bogotá: Alianza País.
- García, M.; Paiewonsky, D. (2006). *Género, remesas y desarrollo. El caso de la migración femenina de Vicente Noble República Dominicana*. Mexiko: UN-INSTRAW.
- Giménez, C.; Martínez, J.L.; Fernández, M.; Cortés, A. (2006). *El codesarrollo en España. Protagonistas, discursos y experiencias*. Madril: La Catarata.
- Gómez, C.; Unzueta, A. (2009). *Manual para una mejor intervención en el codesarrollo*. Bilbo: Bakeaz y Solidaridad Internacional.
- González, A. (2007). "La organización de los inmigrantes como potenciador y/o inhibidor de su instalación en las sociedades de destino: el caso de los colombianos en España". *Revista de Antropología Iberoamericana*, 2. lib., 3. zk., 521.-549. or.
- Gregorio, C. (1998). *Migración femenina. Su impacto en las relaciones de género*. Madril: Narcea.
- Guarnizo, L.E. (2008). *Londres Latina. La presencia colombiana en la capital británica*. Mexiko, D.F., Zacatecasko Unibertsitate Autonomoa.
- Guarnizo, L.E. (2004). "La migración transnacional colombiana: Implicaciones teóricas y prácticas". En Colombia nos Une (arg.). *Memorias del Seminario sobre migración internacional colombiana y la conformación de comunidades transnacionales*, Bogotá: Ministerio de Relaciones Exteriores de Colombia, PNUD y OIM, 25-43.
- Guarnizo, L.E. (2003). "The Economics of Transnational Living". *International Migration Review*, 37. lib., 3. zk., 666.-699. or.
- Guarnizo, L.E.; Portes, A.; Haller, W. (2003). "Assimilation and transnationalism: determinants of transnational political action among contemporary migrants". *American Journal of Sociology*, 108. lib., 6. zk., 1211.-1248. or.
- Guarnizo, L.E.; Sánchez, L.; Roach, E. (2003). "Desconfianza, solidaridad fragmentada y migración transnacional: los colombianos en la ciudad de Nueva York y Los Ángeles", in A. Portes eta P. Landolt (koord.). *La globalización desde abajo: transnacionalismo inmigrante y desarrollo*, Mexiko: FLACSO, 233.-270. or.
- Hondagneu-Sotelo, P. (2005). *Gendering migration: not for "feminists only"-and not only in the household*. (Working Paper Series, 05-02f) Princeton: The Center for Migration and Development. Interneten eskuragarri: <http://cmd.princeton.edu> [ 2010/04/14an kontsultatua].

- Immigrazioaren Euskal Behatokia (2009). “2009ko Barometroa Ikuspegi. Percepciones y actitudes hacia la inmigración extranjera”, *Panorámica de la inmigración*, 28. zk., Bilbo. Interneten eskura: [www.ikuspegi.org](http://www.ikuspegi.org) [2010/02/27an kontsultatua].
- Immigrazioaren Euskal Behatokia (2009a) “2009ko Barometroa Ikuspegi. Convivencia, integración atribuida y política de inmigración”, *Panorámica de la inmigración*, 31. zk., Bilbo. Interneten eskura: [www.ikuspegi.org](http://www.ikuspegi.org) [2010/02/27an kontsultatua]
- Kapur, D. (2003). “Remittances: The new development mantra?”. *G-24 Discussion Paper Series*, 29. Interneten eskura: [www.unctad.org](http://www.unctad.org) [2010/03/17an kontsultatua].
- Khoudour-Casteras, D. (2007). “Migraciones internacionales y desarrollo: el impacto socioeconómico de las remesas en Colombia”. *Revista de la CEPAL*, 92. zk., abuztua.
- Levitt, P.; Glick-Schiller, N. (2006). “Perspectivas internacionales sobre migración”, A. Portes eta J. DeWind (koord.). *Repensando las migraciones. Nuevas perspectivas teóricas y empíricas*, Mexiko, D.F.; Zacatecasko Unibertsitate Autonomoa, Miguel Ángel Porrúa Migraziorako Institutu Nazionala, 191.-229. or.
- Levitt, P.; Lamba-Nieves, D. (2010). “It's not just about the economy, stupid - Social remittances revisited”, *Migration Information Source*, Migration Policy Institute. Interneten eskura: [www.migrationinformation.org](http://www.migrationinformation.org) [2010/03/17an kontsultatua].
- López Montaña, L.M. (2009). *Familias transnacionales: oportunidad y cambio en contexto migratorio*. Manizales: Universidad de Caldas.
- Massey, D.S. (et al.) (1993). “Theories of international migration: A review and appraisal”. *Population and Development Review*, 19. lib., 3. zk., 431.-466. or.
- Mejía, W. (et al.) (2009). *Encuesta Nacional 2008 - 2009. Resultados generales de migraciones internacionales y remesas*, Bogotá: Observatorio Distrital de Migraciones - Observatorio Colombiano de Migraciones. Interneten eskura: [www.migracionescolombianas.edu.co](http://www.migracionescolombianas.edu.co) [2010/03/17an kontsultatua].
- Mingione, E. (1994). *Las sociedades fragmentadas*. Madril: MTAS.
- OIM (2005). *Migración internacional, el impacto y las tendencias de las remesas en Colombia*. Interneten eskuragarri: [www.remesasydesarrollo.org](http://www.remesasydesarrollo.org) [2010/04/04an kontsultatua].
- Pérez, A.; Paiewonsky, D.; García, M. (2008). *Cruzando fronteras. Migración y desarrollo desde una perspectiva de género*. Santo Domingo: INSTRAW.
- Portes, A.; Escobar, C.; Radford, W. (2005). “Immigrant transnational organizations and development: A comparative study”. *International Migration Review*, 41. lib., 1. zk., 242.-281. or.
- Portes, A.; Guarnizo, L.E.; Landolt, P. (1999). “The study of transnationalism: pitfalls and promise of an emergent research field”. *Ethnic and Racial Studies*, 22. lib., 2. zk., 217.-237. or.

- Rivas, A.M.; González, H. (arg.) (2010). *Familias transnacionales colombianas: transformaciones y permanencias en las relaciones familiares y de género*. Madrid: La Catarata.
- Salazar, R. (2009). "Inserting feminism in transnational migration studies", *Migration on line*. Interneten eskuragarri: [www.migrationonline.cz](http://www.migrationonline.cz) [2010/09/07an kontsultatua].
- Solarte, M.R. (2009). "Colombia: simetrías violentas y alternativas que emergen de la memoria". *Cuadernos Bakeaz*, Bilbo, 92. zk.
- Sosa, L.; Medina, C. (2006). *Migration as a safety net and effects of remittances on household consumption: The case of Colombia*, Bogotá: Banco de la República. Interneten eskuragarri: [www.dotec-colombia.org](http://www.dotec-colombia.org) [2010/02/11n kontsultatua].
- Sorensen, N.N. (2004). "The development dimension of migrant remittances", *IOM Migration Policy Research Working Papers Series*, 1. zk.
- UNFPA (2006). *Estado de la población mundial 2006. Hacia la esperanza: las mujeres y la migración internacional*. New York: UNFPA.
- United Nations (1994). *The migration of women. Methodological issues in the measurement and analysis of internal and international migration*. Sto. Domingo: INSTRAW.
- UN-INSTRAW (2008). *El paradigma de remesas para el desarrollo: evidencias empíricas y cuestionamientos teóricos desde una perspectiva de género*. Sto. Domingo: UN-INSTRAW.
- UN-INSTRAW; OIM (2007). *Género y remesas. Migración colombiana del AMCO hacia España*. Bogotá: OIM.
- Vicente, T.L. (2010). "Latin American Immigration to Spain", *Network Migration in Europe*. Interneten eskuragarri: <http://www.migrationeducation.org> [2010/04/18an kontsultatua].
- Vicente, T.L. (2006). "La inmigración latinoamericana en España", *Expert group meeting on international migration and development in Latin America and the Caribbean*. Interneten eskuragarri: [http://www.un.org/esa/population/meetings/IttMigLAC/P13\\_Vicente.pdf](http://www.un.org/esa/population/meetings/IttMigLAC/P13_Vicente.pdf) [2010/02/11n kontsultatua].
- Vicente, T.L. (2006). "Importancia de los flujos migratorios de mujeres", *in* C. Blanco (arg.). *Migraciones. Nuevas movilidades en un mundo en movimiento*, Barcelona: Anthropos, 206.-233. or.
- Villamar, D.; López, S.; Sánchez, B. (2004). "El proceso migratorio en la provincia de Loja". *Cartillas sobre migración. Plan Migración, Comunicación y Desarrollo*, 6. zk., Quito: Instituto Latinoamericano de Ciencias Sociales, 1.-16. or.
- Willis, K.; Yeoh, B. (arg.) (2000). *Gender and migration*, Cambridge, University Press.
- Zlotnik, H. (1995). "The south-to-north migration of women". *International Migration Review*, 29. lib., 1. zk., 229.-254. or.



## Atzerritarrentzako legeak egitea: gizarte-kohesioa sortuz

Óscar Seco

PSE-EEko Kongresuko Diputatua Bizkaitik

Zuzenbideko fakultatean ikasle nintzenean, legegintza-ikasketen zati handi baten helburua legegileak egindako hutsak nabarmentzea zen. Askotarikoak izan ohi ziren, hasi ikasgaien inguruko ezjakintasun ulertezinetik eta bere inkongruentziataraino, legegintza-teknikaren alorrean zituen gabeziak ere tartean zirela; eta horrek azaltzen zituen, legegilearen hutsegite objektiboekin batera, gure legegintzaren ajeetako asko eta asko eta gure legegintzak gizarte-arazoak konpontzeko zuen gaitasunik eza.

Gaur, nire diputatu-agiria jaso eta hiru urte geroago, gauzak oso desberdin ikusten ditudala esan dezaket. Legegintza-izapidea ez da –eta ezin liteke izan– eragileen emaitza matematiko bat, ez eta bertuositate akademikoa agerian jartzeko prozesu bat ere. Askotariko sentimenei, alderdikeriazko edo arloko interesei eta protagonismo pertsonalei gehituta eta kenduta, hainbat ideologiak produktu fin eta erabilgarria gauzatzen dute (legea) leku batean (Parlamentua), non gehiengoak eratzeko garrantziak behar-beharrezko egiten baititu batzuetan batere koherenteak ez diren akordio eta tratuak; eta akordio eta tratu horiek gai dira norbait geldiarazteko, norbait horrek “ratio legislatoris” delakoa (legegilearen nahia) aztertu nahian, hura sofa batean eseriko balu, psikozanalizatzeko asmoz.

Hau idazten ari naizelarik, Diputatuen Kongresuan bukatu berri da indarreko 4/2000 Lege Organikoaren bosgarren erreformaren inguruko eztabaida, Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta atzerritar horien gizarteratzeari buruz. Bost erreforma horietako bi bederatzigarren legegintzaldi honetan egin dira, eta bietan izan naiz txostengile. Horietaz arituko naiz datozen lerroetan, azalpenak eta arrazoiak eskainiz, bai eta aldizkari ofizialen azken emaitza azal lezaketen bitxikeriak ere.

### 1. Laugarren erreformaren garrantzia

Erreformarako lege organikoaren proiektua 2009ko ekainean iritsi zen Kongresura, sukaldean eta labean nahikoa denboraz prestatu ondoren; iragarrita zegoen legegintzaldi hasieratik; presa handia zuen lekualdatu beharreko Europako zuzentarauak zirela eta –zazpi, hain zuzen– eta Europako Bisa Kodearen askotariko edukiari sarrera eman behar zitzaiolako. Ordurako, Europako erakundeek galdegina ziguten, eta, zehazki, haien Justizia Epaitegiak zigortu egin gintuen erkidego-arautegira berandu batzeagatik. Konstituzio Epaitegiak ere legezko aldaketak eskatu

zituen 2007. urte amaieran, lege-itxurako eskubide zibiletarako irispenera Konstituziora egokitze-ko, uste baitzuen arrazoirik gabeko murrizketa zela aurreko 8/2000 Lege Organikoak ez barne hartzea legez kanpoko administrazio-egoeran zeuden atzerritarrak.

Lege-proiektuak, iritsi aurretik ere, ekarpen- eta balorazio-maila oso altua sorrarazi zuen maila publiko eta pribatuan, eta baita irizpen zabalak ere; Estatu Kontseiluarena, esaterako, eta, bereziki, Etorकिन integratzen Foroarena: hain zen zehatz-zorrotza, ezen pentsatu bainuen neurri kanpoko irudituko zitzaioela Gobernuari argumentu-ahalegin hura, altua bezain ez-askiesgarria proiektuarekiko. Hala eta guztiz ere, orain esan behar dut material hori oso erabilgarria izan zela Parlamentuko lanetarako, erregistratutako zuzenketetarako eta geroagoko akordioetarako. Diputatuen Kongresuan 731 zuzenketa landu zituzten; horietako 204 bere horretan onartu ziren, eta beste 89, berriz, aldaketa batzuk egin ondoren; guztira, beraz, ia 300 zuzenketa onartu ziren era batera edo bestera, aurkeztutako guztien ehuneko 40 baino gehiago.

Kuantitatiboki, kontuan izanik zenbat xedapen dagokien, erreforma hau izan da sakonena; filosofikoki, ez du eragin 8/2000 Lege Organikoak 4/2000ekiko ekarri zuen kopernikar iraultza; ezkerreko alderdi bat edozein motatako lege-erregulazioen aurka azaldu zen “atzerritartasun legerik ez” lemapean, ahazturik legea dela eskubideak eratzen dituen, Konstituzioko 13.1 artikulua xedaturikoaren arabera, non baieztatzen baita legearen zehaztapenak direla atzerritarren eskubide eta askatasunen edukia eta irispenera adierazten dituztenak. Eskubideen eta bermeen hedadurari dagokienez, ostera, zorigaitzoko lege horren eraginaren kontrakoa izan du, eta konpondu egin du Partidu Popularraren 2000. urteko gehiengo osoak eragindako demokrazia urritasun larria, non alderdiak Atzerritartasun Legea hondoratu baitzuen. Gainera, hobetu egin ziren biktimei dagozkien bermeak (genero-indarkeriarenak, trafikoarenak edo esplotazioarenak, legez kanpoko immigrazioarenak), babes hobea eskaini zitzaizen laguntzarik gabeko adin txikikoei, auzitegi-izapide bat eta defentsa-bulego bat sortuz; familien berrelkartzea hobeto estali zen, eta eskubide hori zabaldu zitzaizen izatezko bikoteei eta ezintasun-egoeran zeuden seme-alaba zaharrei, eta baita haien estatutu juridikoari ere, eta horrek posible egin zuen lanerako baimena berehala lortzea.

## 2. Laugarren erreformaren apustu nagusiak: legearen titulua egia bihurtzea

Erreformaren ideologia-oinarriak, nagusiki, immigrazioari eta asiloari buruzko Europako Itunetik –2008ko irailean onartua– atereak dira, eta bertako bost konpromisoetatik. Ituna honako hiruko honetan labur daiteke: mugen kontrola - immigrazioa harrera-gaitasunari egokitzea - integrazioa. Baina bidegabe jokatuko genuke hor geratuko bagina eta ez bagenu beste hirukiaren garrantzia onartuko: berdintasuna - herritartasuna - kulturartekotasuna, hiruki horrek eratu baitzuen Herritartasunaren eta Integrazioaren Plan Estrategikoa (2007-2010), eta lege ororen zeharkako ardatz bihurtu da.

Eskuinak eraso egin zion 2009ko erreformari, ez baitzuen babesten Partidu Popularraren ikono pragmatikoetako bat, “integrazio-hitzarmen” gisa ezaguna; legegintza-erreformak asmo handiko integrazio-politika garatzea izan zuen helburu, eta, gure ikuspegiz, eskubide eta betebeharren arteko orekan oinarritu behar ziren. Oreka horren oinarritzko tresna legea eta legearen mekanismoak dira, integrazio-plana eta estatuaren funtsa: zortzigarren legegintzaldiko bi ekimen politiko, zeinak bederatzigarrenaren atal arau-emailean sendotzen baitira, bertako 2. ter artikuluan; eta haiek posible izateko baldintzak ematen ditu legearen tituluan gehitutakoak dioena (etorkinen

gizarteratzea) egingarria izan dadin, hutsune hori ulertezina gertatzen baitzen legea indarrean jarri eta ia hamar urte geroago.

Bestalde, aldaketa horrek kontuan izan zuen bizi dugun errealitate sozioekonomiko berria ere, aintzat harturik gero eta globalizatuago dauden lan-prozesuak eta kokaleku zehatza duen lan-indar bat babestu beharra, eta baita immigrazioaren beharrezko atzeraldia ere, kualifikazio baxuko jarduera ekonomiko intentsiboak amaitzearen ondorioz –eraikuntza, esaterako–, gaitasunari garrantzia handiagoa emango dion modelo batengatiko apustuaren ondorioz –prestakuntza altua–, eta soilik ekonomikoa edo familiarikoa den immigrazioarekiko desberdinak diren immigrazio moduen ondorioz (ikertzaileak, ikasleak, boluntarioak).

Lege haren ekarpen handietako beste batek (2/2009 Lege Organikoaz ari naiz oraindik) Administrazio Publikoen eremuak sustatzean jartzen du arreta. Lege horrek administrazio guztiei jartzen die immigrazioa gobernatzeko erronka, eta koordinazioaren printzipioa ezartzen die Europar Batasuneko politiken arloan eskudun diren administrazio guztiei. Immigrazioaren Arloko Batzarraren bidez bermatzen da immigrazioaren alorrean Administrazio Publikoek gauzatutako jardueren koordinazioa egokia dela, eta Batzarrak aitortzen du autonomia-erkidegoek eta udalerriek integrazio-politikak garatzeko bere gain hartzen duten eginkizun berezia. Horrekin batera, legeak txostenak egiteko betekizuna aitortu zien autonomia-erkidegoei, nola errotu zehazteko, berrelkartzeko, adin txikikoak egoki eskolatzeko, nahiz laguntzarik gabeko adin txikiko atzerritarren babesa kudeatzeko.

### 3. Abegi onaren iratxo

Jatorria gizarte zibilean duten esfortzuetako bat, laugarren erreformarekin lotuta, “salba dezagun abegi ona” plataformaren eskutik etorri zen. Funtsean, plataformak saihestu egin nahi zuen elkartasun arrazoiengatik atzerritar lege-hausle bat etxean hartu duten edo beren ardurapean duten pertsonak ekonomikoki zigortzea. Aurreproiektuko proposamenaren eraginetako asko saihestu edo txikitu baziren ere, esan behar dut legearen 53. artikuluko bigarren atala dela gutxien asetzen nauenetako bat, eta, zehazki, ataleko b, c edo d letrak. D letrak irabazi asmoz (ezkon-sari bat?) egindako ezkontza zigortzea du helburu, nahiz eta ezkongaiak atzerritarrak ez izan, “legez kanpoko egonaldia sustatuz, atzerritarrak gonbidatzen duenaren ardurapean jarraitzen badu, egonaldirako baimena amaitutakoan”, edo atzerritar batek herriko erroldan izena ematea onartzea, bizitoki hori bere benetako egoitza ez denean. Nire ustez, neurritz kanpoko usteak dira, zigortu-beharraren adibide; eta, bestalde, oso gutxi erabiliko eta aplikatuko dira.

Bitxitasuna honetan datza: Senatuan egindako aldaketen ondorioz, letra horiek legeria-testutik desagertu zirela nahi gabe, eta testua Kongresura iritsi zela bueltan; hori, “abegi onaren iratxo”ri egozten diogu diputatu batzuek. Iratxo aritua zen lehenago ere, legeko 53.2 artikulutik c) letra desagertu zenean, Txostenetik Batzorderako bidean. Azkenean, zatika bozkatu omen zituzten Senatutik zetozen zuzenketa batzuk –ez da legez kanpoko, baina ezta ohikoa ere–, behin betiko idazlana lortzeko.

Bestalde, zigorrei zegokienez, beste paradoxa bat ere gertatu zen: Senatuko talde politiko guztiek, sozialistek salbu, atxilotze-denbora berrogei egunera jaitea proposatu zuten zuzenketa gisa (gizarte-erakundeek eskatuta), proiektuko hirurogei egunen orde. Ekimena onartzeko gehiengoa soberan bazuten ere, parlamentuko taldeak zuzenketei ezetz esaten joan ziren, CIU izan ezik, eta

bazirudien beste taldeen laguntza pizten ari zela; hala ere, bozkatu aurretik CIUK atzera egin zuen. Gizarte-arloan batzuek hori sozialisten azpilanari egotzi bazioten ere, hauxe da egia hutsa: oposiziotik zuzenketak itxurak egiteko aurkezten direla askotan, sinesmen politikoen beren aurka joan arren, gizarte-kezkaren plantak egiteko.

#### 4. Ospe txarreko lege bat eta gizarte-kohesioaren aldeko apustua

Litekeena da erreforma honen alde zirriboratu ditudan argumentu horiek arretaz irakurri dituen testu honen aurrean harriduraz jartzea –jakinik, gainera, beste hobekuntza asko gordetzen ditudala tokirik ez dudalako–, komunikabideetan horrenbeste gauza entzun ondoren (“etorkinen ehiza”, “koska bat estuago” izan ziren izenburuetako batzuk). Aurrerapen asko isilarazi egin dituzte, beste batzuk gaizki ulertu dira. Prentsak hartutako jarrera maximalista zela-eta izan zuen ospe txarra legeak, eta horrek ezer gutxi esaten du laugarren botereaz, kasu honetan, behintzat, ez baitzuen jakin nahi izan legeak zein aurrerapen zekarzkieon gizarteari.

Ez naiz legearen eduki guztiaren defendatzaile porrokatua –gorago eman dut iritzi kritikoren bat– baina ez da posible argitalpen berezituak objektiboki egia ez diren kritika iraingarriak egitea. Zazpigarren legegintzaldiko erreformak (2003. urteko bi) propaganda-makineria indartsu batean oinarritu ziren. Makineria haren ardatzak izan ziren etorkinen eskubideak zabaltzeak sortzen zuen “dei efektua” eta immigrazioa eta delinkuentzia kontzeptuak elkartzea (11/2003 Lege Organikoa), eta, nire ustez, oso kaltegarriak izan ziren gizarte-kohesiorako. Balio hori da benetan gorde beharrekoa, eta laugarren erreformaren eta aurrekoen arteko desberdintasunik handiena. 2009ko azaroaren 12an Gonzalez senatari popularrak baieztatu zuelarik legez kanpoko immigrazioaren emaitza delinkuentzia izaten dela askotan, argi baino argiago agertu zen zein arrisku-tsua den herritarren ordezkarien gogoetan xenofobiak gero eta indar handiagoa izatea, ordezkari horiek beren buruko burdin-hesia gizartera, auzoetara, helarazten saiatzen direnean.

#### 5. Bosgarren erreforma

Testu hau idazten ari naizen egunean bertan, Diputatuen Kongresuan onartu berri dugu, aho batez, Atzerritartasun Legeko 31 bis eta 59 bis artikuluen erreforma; erreforma txikia izan da, baina sozialisten Legebiltzar-taldeak laugarren erreforman lortu ezin izan zuen xede bat lortzen du: genero-indarkeriaren eta legez kanpoko trafikoaren biktimen babes falta saihestea, baldin eta Atzerritartasun Eskubidearen eta Babes Judizial eragingarrirako Funtsezko Eskubidearen arteko elkar jotzearen ondoriozkoak badira. Azken funtsezko eskubide hori biktimaren jurisdikziorako sarrera-mota gisa adierazten da, fluxuaren kontrolean eta legez kanpokoarekiko borrokan diharduen Administrazio Publikoarekiko osotasuna gordez. Aurrerapen garrantzitsua da talde horien babeserako, eta berme berri bat, zeina jaso geratzen baita Europako legeriarik bermatzaile eta aurrerakoienean.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena da hori funtsezko aurrekaria dela hemendik aurrera atzerritartasunaren gaiari berriro heltzeko, 1999. urteko Kongresuko lehen izapidetan gertatu zen bezala; izapide horretan 4/2000 Lege Organiko jatorrizkoa babestu zen, adostasuna eta akordioa lortu ondoren. Oso garrantzitsua da guk, agintariok, Espainiako migrazio-ereduaren eta eredu hori gaurkotu behar diren inguruan norberekeriak alde batera utzita eztabaidatzea, eta parlamentuan



adostasuna lortzea, azaleko demagogietatik alde eginez, eta horrek, gainera, orientazio eta bul-tzagarri gisa balio izatea gizarteko eta herritarren arteko adostasunerako, behar-beharrezkoak bai-tira integraziorako eta etorkinen parte-hartzerako, bizikidetza eta gizarte-kohesioa eraikitzeko.



## Urtebeteko balantzea, Atzerritartasun Legearen erreformaren ostean

Mikel Mazkiaran

SOS Arrazakeria Gipuzkoa - MUGAK

Beharbada 4/2000 Atzerritartasun Legea erreformatu zuen 2/2009 Lege Organikoaren urtebeteko ibilbidea ez da balantzea egiteko nahikoa denbora, batik bat kontuan hartzen badugu 2011ko otsailean eman dela ezagutzera erregelamenduaren zirriborroa, legeak berak legalki aurreikusitako gehienezko epea baino sei hilabete pasa beranduago.

Eguno Atzerritartasun Legearen erreformak aldaketa hori justifikatzeko emandako arrazoiak gaintu ditu (Auzitegi Konstituzionalaren epaiak eta Europako Zuzentarauak erantsi, eta legea “migrazio-errealitate” berrira egokitu). Legearen erreformaz baino Atzerritartasun Lege berri batez hitz egin behar dugu; izan ere, Legearen 71 artikuluetatik 60 aldatu baitira, eta lehendik ez zeuden atal eta artikulua sartu. Hala ere, formari dagokionez da lege berria, baina ez edukia aztertuz gero. Hausnarketa merezi du aurreko araua hamabost urtean aldatu gabe egon izanak, eta egungo 4/2000 Legea, bederatzi urtean, 2000. urteko otsailean indarrean sartuz geroztik, dagoeneko laugarren erreformarako bidean egoteak. Datu horiek, gainera, zerikusia dute migrazio-fenomenoak estatistika demografikoan, jarduera judizialean, eta alderdi politikoan, eta, oro har, erakundeen gai-zerrendan duen eraginarekin. 1999ko abenduaren 31n Espainian 801.329 atzerritar bizi zen; Euskadin 18.622 atzerritar bizi ziren, populazioaren %2,32.

2009ko abenduaren 31n Espainian 4.791.232 atzerritar bizi ziren. Baimen iraunkorren bilakera aztertuz gero (hots, bertan legalki gutxienez bost urtean bizi izan direnena), ikusten dugu 2002an emandako baimen guztiak %25,6 izan zirela, eta 2009 urte amaieran emandakoak %43,41. Araubide europarrekoak, berriz, 2000n %40 izatetik 2005ean %29 izatera pasatu ziren, eta, ondoren, 2009 amaieran %46,53ra igo ziren. Nazionalitateen eta beren banaketa geografikoaren azterketak lan honen xedea gaintuko luke. Hala ere, aipamen txiki bat egitearren, marokarra da bi legeen arteko hamar urteko epe horretan nagusitzen den populazio atzerritarra, tarteka errumaniarrak gailentzen badira ere; banaketa geografikoari dagokionez, 2009ko abenduaren 31n Kataluniak, Madrilek, Valentziako Erkidegoak eta Andaluziak atzerritarren %65,74 biltzen zuten, eta Euskadin izandako bilakera ere, kopuru erlatiboetan bada ere, aipagarria da: 1999. urtearen amaieran populazioaren %1 zen atzerritarra, eta 2009an %6,1 izatera iritsi da.

Azaldutako datu horiek, 4/2000 Legea indarrean jarri zenetik hamar urte geroago azken moldaketa jaso bitarteko epe horretan, immigrazioaren argazkiak jasandako aldaketa baino ez dute erakutsi nahi. Aldaketa horretan honako hau egiazta dezakegu: lehenik eta behin, atzerritarra dei-

tzen dugun populazio horren %46,53k araubide europarra dauka, eta horrek egonkortasuna ematen dio populazio horren egoera administratiboari; eta Europaz kanpoko populazioaz ere gauza bera esan dezakegu, %40ak baino gehiagok baimen iraunkorra du, eta bost urteren buruan ia automatikoki berritzen du. Beraz, populazio atzerritarra bertan finkatzeko asmoz etortzen da, eta inolaz ere arbuigarria ez den zati batek nahiko egonkortasun lortzen du. Bigarrenez, egoera desberdin asko dago, eta denak ere modu generikoez sartzen ditugu “atzerritartasun” deitzen diogun horretan: senar-emazte mistoak, nazionalitate-emateen hazkundera, bigarren eta hirugarren belaunaldiak, nazionalitate-kopuruaren hazkundera, etab. Eta hirugarrenez, eta aurrekoaren ondorioz, fluxuak kontrolatzeak ez luke lehentasunezko lana izan behar, baizik eta gero eta konplexuagoa den fenomeno hori kudeatzeko era egokia aurkitzeak. Eta hor sortzen da galdera: 2/2009 LO tresna baliagarria al da immigrazioa kudeatzeko? Galdera horri ematen diogun ezezko erantzuna hainbat mailatan egituratuko dugu.

Maila orokor batean, globalizatutako gizartea dugu abiapuntu: aurreko mendearekin konparatuta, garraioa merkeagoa da eta migrazio-jarioak askoz konplexuagoak dira. Interneten eta migrazioen garaian bizitzea egokitu zaigu; kontua ez da gehiago edo gutxiago gustatzen zaigun; parametro horietatik ikusita, eta konparazio modura, kontua ez da klima-aldaketa badagoen edo ez dagoen eztabaidatzea: gertatu da, eta hori nola kudeatu da kontua. Hori horrela, immigrazioarekin (eta Internetekin) zerikusia duen orori buruz ezer jakitea nahi ez duen edonork, noiz edo noiz, medikuarengana jo beharko du, eta medikua Internetera konektatuta egongo da; edota azokan baserriko kilo bat tomate erosiko du, eta baserri horretan etorkin batek egingo du lan. Baldintza horietan, izugarri zaila da atzerritartasun lege batean, ontzi bat bailitzan, Espainiako estatuari dagokion migrazio-zatia jasotzea. Bauman-en egoera likidoari buruzko deskripzio errepikakorrik egin gabe, kontua da migrazio-fenomenoak ontziaren ertzetatik gainezka egitean, jarioen kontrola izango dela zalantzan jarri beharreko aurreneko gauza, eta hori, bi alderditatik: batetik, egiaztatuko da jario horiek legeak ehundutako sarean izango direla nahasiak, baina ez immigratzaileen itxaropenean (gehiengoa lanera etortzen da eta gehiengo horrek lana aurkitzen du). Eta bestetik, aurrekoari lotuta eta gaur eguneko ekonomia-krisiaren testuinguruan, ikusten dugu migrazio-jarioak, neurri handi batean, beren kabuz erregulatzen direla. Barne Ministerioaren datuen arabera, 2010ean pateren etorrera %50 gutxitu zen, eta Lan Ministerioaren arabera, 2010 amaitez, Espainian bizi zen atzerritarren kopurua aurreko urtekoaren oso antzekoa zen: 4.926.608 pertsona; araubide europarrekoen kopurua (%48,75) araubide orokorreko gainerako atzerritarren kopuruarekin ia berdindu egin da (%51,25), baina ez da ahaztu behar, Antonio Izquierdok esan bezala, zifra horiek honako elementu hauen guztien ondorio direla: naturalizazioak, hiritar europarrekin ezkontzak, lanik gabe geratutakoak berriro irregulartasunean geratu izana, eta etorkinak beren herrira itzultzea edota baita beste nonbaitera emigratzea ere.

Bigarren maila batera jaitsiko gara orain, legeak dakartzan berrikuntzei dagokion mailara. Eta aurreneko berrikuntza hau da: gai garrantzitsu bat, integrazioa, Lege Organiko mailan txertatzen dela. 2 ter artikulua integrazioaz dihardu, baina kontzeptua atzerritarrek dituzten betebeharrekin nahasten da. Hala, prestakuntza-egintzen bidez, immigrantei dagokie: *Espainiako Konstituzioaren zein estatutuen balioak ezagutzea eta errespetatzea, eta baita Europar Batasunekoak, giza eskubideenak, askatasun publikoenak, demokraziarenak, tolerantziarenak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarenak ere; halaber, neurri berezien bidez, hezkuntza-sisteman sartzea erraztuko zaie, eta derrigorrezko adinean eskolaratzea eta hizkuntza ofizialak ikastea bermatuko*. Ideia hori aurrera eramateko, hainbat urterako plan estrategiko bat onartzea aurreikusi da, etorkinen gizarteratzea sendotzeko biurteko egintza-planak izango dituen. Dagoeneko esan dugu 2009 amaieran “egokitzen zena”, hain justu, immigrazioa kudeatzea zela, eta langintza horretan ezinbestekoa da integrazioa; baina ez zaio behar adinako garrantzi-

rik eman: indarka moduan sartutako artikulua bat baino ez zaio eskaintzen, Hiritartasun eta Integrazio Plan Estrategikoaren eta 2008an EBko frantziar presidentziak babestutako Immigrazioari eta Asiloari buruzko Hitzarmen Europarraren arteko erdibideko zerbait. Aurreko horri lotuta, beste kontzeptu bat dugu: “integrazio-ahalegina”; familia-berrelkartzeetan eta baldintza berezietarako baimenetan betebeharrak gisa azaltzen zaigu, eta aintzat hartzeko zerbait gisa behin-behineko bizileku-baimenetan, baimen-berritzeetan eta baita bizilekua bertan izateagatik nazionalitatea eskuratzeko orduan ere. Eta erregelamenduaren zirriborroan integrazio-ahalegin horrek zenbaterainokoa izan behar duen azaltzen ez denez, autonomia-erkidegoen esku geratuko da hain garrantzitsua den gaia interpretatzea (horri buruz artikulua honen hirugarren zatian hitz egingo dugu). Momentuz, ezin dugu salatu gabe utzi legez kontra bizi den populazioak ezin duela prestakuntza-kurtsorik egin Enplegu Zerbitzu Publikoan, eta, aldi berean, beren lan-integrazioa eta gizarteratzea egiaztatzea eskatzen zaiela; nolabait esateko, jakinarazi ez diguten ikasgai-zerrenda bateko gai bati buruzko galderari erantzun beharra izatea.

Oinarrizko eskubideen alorrean, Auzitegi Konstituzionalak konpontzea agindutakoaz gainera, 2/2009 LOK ez du beste ezer gehitzen, eta, aldiz, arbasoa berrelkartzeko eta etxebizitza-arloko laguntzak eskuratzeko bideak mugatzen ditu, nahierara. Atzerritarren oinarrizko eta funtsezko eskubideak eman eta ken daitezkeela dirudi, errekursoek eta Auzitegi Konstituzionalak agintzen duten erritmoan; etengabe margotzen den koadro baten aurrean gaude, eta bertan eskubide garrantzitsu asko irudikatzea falta da. Eta horien artean, eskubide sozialak azpimarratu behar dira, eta, zehatzago, 14. artikulua, bi subjektuz mintzo dena: batetik, atzerritar egoiliarak, gizarte-zerbitzuak eta gizarte-laguntzak jasotzeko eskubidea dutenak, bai orokorrak eta oinarrizkoak bai Espainian eskaintzen diren gainerako berriarazkoak, espainiarren baldintza berdinetan; eta bestetik, atzerritar guztiak, beren egoera administratiboa dena dela, eta horiek oinarrizko zerbitzu eta laguntza sozialak jasotzeko eskubidea baino ez dute. Eta, kasu, krisi-testuinguru horretan, Auzitegi Gorenak irizpena ematen badu gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak (sarrera horiek guztiek dituzten deiturak deitura) oinarrizko laguntza sozialak direla, eta, beraz, egoera irregularrean dauden etorkinentzat ere badirela?

Hobekuntzak egon direla onartu beharra dago, esaterako: izatezko bikotea onartzea, familiarekin biltzera datorrena zuzenean lanerako bisarekin etortzea, edo genero-indarkeria jasan duten eta egoera irregularrean dauden emakumei tratu berezitua ematea. Hala ere, tratu hori erregelamendu-zirriborroak ikaragarri hobetu badu ere, zehapen-espeditante itxurako Damoklesen ezpata kendu beharra dago emakume horien buru gainetik; zehapen-espeditantei hasiera emateko arrisku horrek erakusten du atzerritartasuna zalaparta batean sartzen dela eskubide unibertsalen printzipioan oinarritutako legedietan.

Hainbat zuzentzauren transposizioaren ondorioz, lege berri horrek beste baimen batzuk sortu ditu eta hasierako baimenak emateko eskumena eman die autonomia-erkidegoei. Hori guztia dela-eta, baimen-sistema konplexuagoa da, eta, batik bat, etorkin-multzoen arteko aldea handitzen da: etorkin batzuk “aukeratuak” dira (ondo kalifikatutako langileak, ikerlariak, etab.) eta beste batzuk, aldiz, “nahi ez direnak” (irregularrak, “integrazio-ahalegina” gainditu ez duten atzerritarak, etab.). Beraz, sustraitzea da (batik bat hiru urtez bertan bizi ondorengo sustraitze soziala) oraindik ere erregulartasuna eskuratzeko atea, “zerbitzu-atea” bada ere; izan ere, ate nagusi gehiago ireki dituzte, baina neurri ezberdinekoak, eta, horien artean, ezin txikiagoa da erregimen orokorraren sistema klasikoarena: erregelamendu-zirriborroak ezarritako filtroen ondorioz, ezinezkoa da norbait bere jatorriko herrialdetik bisa batekin lanera etortzea. Lan-nazionalismoaren protekzionismo hori baimenak berritzeko baldintzekin aldera daiteke; izan ere, baldintza horiek ez dira ezer aldatu, 2009. urte amaieran etorkinen langabezia-tasa %29,7 zen

arren, bertakoen tasa %16,8 zenean, 2010eko Immigrazioari eta Lan-merkatuari buruzko txosteneko datuen arabera. Etorkinak egoera irregularrean ez geratzeko errezeta, hots, lagundutako itzulera, irrealia izateaz gainera, ez da batere eraginkorra: Gobernuak 2009-11-30 datan eman dako datuen arabera, 8.928 pertsona itzuli ziren horrela. Hasieran aipatu dugu migrazio-jarioen ordenari buruzko nahia ez datorrela errealtatearekin bat, eta horrek dakarrena da kontratazio-sistema zenbat eta zurrunagoa izan, orduan eta irregulartasun gehiago sortzen direla, besteak beste, langile atzeritarren eskaera eta eskaintzaren arteko egokitzeak ez baitu kontuan hartzen bat ez etortze hori.

Aparteko lekua merezi du sustraitze sozialak; izan ere, kontratazio-sistematzat hartzen ez bada ere, praktikan funtzio hori betetzen du, eta ia bide bakarra da egoera irregularrean dauden etorkinek erregulartasuna lortzeko. Erregelamendu-zirriborroak hiru urteko egonaldi-epea mantentzeko bi interpretazio izan ditzake: Europako atzeritartasun politiketan eskubide-murrizketa nagusi den testuinguruan, Gobernuaren jarrera ausarta dela pentsa daiteke, baina ikuspegi zorrotzago batetik ikusita, sustraitze soziala atzeko ate lotsagarria baino ez da, askok eta askok erabili beharra dutena eta Gobernuak ezkututzen saiatzen dena. Erregelamendu-zirriborroak autonomia-erkidegoen bizkar uzten du gizarteratze-txostena gauzatzeko ardura, oraingoz sustraitzea “neur-tzeko” zein irizpide erabiliko diren ez dakigun arren. Hori guztia benetan konplikatua den testuinguru batean, udal batzuk sustraitzea gizalegearekin lotzen hasi baitira.

Amaitzeko, Legearen atal zehatzaileari begirada bat emango diogu. Europako atzeritartasun legeen artean Itzulera Zuzentaraua uztartzen aurrenetakoa izatearen zorigaitzoko ohorea edukitzeaz gainera, beste arau-hauste batzuk sartzen dira bertan, eta hori benetan kezagarria da: gonbidatzen den atzeritarraren egonaldi irregularra sustatzea, agiriak lortzeko asmoz ezkontzak baimentzea, eta bizileku batean benetan bizi ez den atzeritarra helbide horretan erroldatzen uztea. Azken bi arau-hausteak orain arte atzeritartasunarekin zerikusirik ez zuten zuzenbidearen beste esparru batzuen inbasio garbiak dira. Lehenbiziko ondorioa da, eta begi-bistakoa, benetan bizi diren lekuetan erroldatu gabe dauden edo, besterik gabe, maitasuna ez den arrazoiengatik ezkontzen diren bertako pertsonekin alderatuz diskriminazioa dagoela. Erregelamendu-zirriborroak ez ditu arau-hauste horiek arautzen, eta, beraz, ezinezkoa da jakitea arau-hauste horiek nori jakinarazi behar dizkion Erregistro Zibileko funtzionarioak edo udaleko erroldaren arduradunak, arduraz eta hutsik gabeko profesionaltasunez arau-hauste horien berri eman nahi badu. Bereziki gaitzetsi beharrekoa da 53.2 artikulua, arau-haustetzat jotzen baitu honakoa: *etxebizitza bateko titularrak onartzea, horretarako gai denean, atzeritar batek udal-erroldan helbide horretan izena ematea, aipatutako etxebizitza hori atzeritarraren egiazko bizilekua ez bada*. Erroldatzea eskubide eta betebeharrak gisa ulertuta bere legezko konfigurazioaren abstrakzioa egiteaz gainera, lege berriak are eta gehiago zailtzen du atzeritarren erroldatzea, eta horrek ondorio garrantzitsuak dakartza, erroldan egotea lehen urratsa baita hainbat eskubide –hezakuntza edo osasuna, esaterako– eskuratu ahal izateko. Artikulu horrek eragin handia izan dezake jendeak bere asmoetan atzera egin dezan, eta 2010 hasieran prentsan azaldu ziren gertakari tristeek gaurkotatzen berreskuratzen dute (Vic, Torrejón edo Salteko udalak).

Eta hirugarren eta azken atalera iritsi gara. Bertan, 2/2009 LO onartuz geroztik azpian dauden gai batzuk azalduko ditugu, datozen urteotan arreta berezia beharko duten gaiak, hain zuzen ere. Horietako bat autonomia-erkidegoek atzeritartasunaren kudeaketan duten gero eta egiteko garrantzitsuagoari buruzkoa da. Gorago aipatu dugun legearen 2. artikulua honakoa dio: *“Gobernuari dagokio, Konstituzioaren 149.1.2 artikuluan aurreikusi bezala, migrazio-politikaren definizioa, planifikazioa, erregulazioa eta garapena, autonomia-erkidegoek eta tokiko erakundeek beregana ditzaketan eskumenei kalterik egin gabe”*. Artikulu horrek migrazio-alorreko autono-

mia-erkidegoen eskumen-mugak zehaztu gabe jarraitzen du, zeharkakotasuna ezaugarri duen eta atzerritartasunaren eskumenak ukitzen dituen alorra. Ondorioz, gero eta txikiagoa da atzerritartasunaren –estatuaren eskumena– eta integrazioaren –erkidegoen eskumena– arteko ohiko zuloa. Horren adierazle dira Kataluniako Estatutuko 138. artikulua eta Andaluziako Estatutu berriko 62. artikulua, biek ere antzeko moduan bakoitzaren erkidegoarentzat gordetzen baitute eskumen betearazlea atzerritarren lan-baimen kontuetan, atzerritar horien lan-harremanak erkidego bakoitzean gauzatzen direnean. Eskumen horrek, ezinbestean Estatuari dagokionarekin koordinatuta gauzatuko denak, bere barnean hartzen ditu norberaren zein besteren konturako hasierako lan-baimenen izapidea eta ebazpena, eta helegiteen izapidea zein ebazpena. Irailaren 18ko 1463/2009 Errege Dekretuak eskumen-eskualdatzea abian jarri zuen Katalunian; beharbada esperientziari buruzko balantzea egiteko goiz da, baina, aurreneko itxuren arabera, baimenak izapidetzeko gauzak zaildu egin direla dirudi.

Beste gai bat, eta hori ere autonomia-erkidegoen egitekoarekin lotuta, integrazio-kontuetan politika publikoekin zerikusia duen guztia dugu. Hona iritsita, legeak aipatzen duen eta autonomia-erkidegoek zehaztu behar duten “integratio-ahalegin” kontzeptua berreskuratuko dugu; horretarako, estatuko erreferentea aipatutako Hiritartasunaren eta Integratioaren Plan Estrategikoa (PECI) dugu (2010ean indarrean egoteari utzi badio ere, 2011rako jarraipena emango zaiola aurreikusten da). Eta, gauzak horrela, egin beharreko galdera honako hau da: PECIren integratio-ahaleginei buruzko txostenak autonomia-erkidegoentzat lotesleak balira bezala jokatu al dute horiek? Egin dezagun galdera beste modu batera orain. Europar asimilazioaren eta behar-tutako integratioaren aldeko ereduak sustatzen dela ikusita, PECI ba al du proposamen horien aurkako “euste-horma” gisa aritzeko modurik? Autonomia-erkidego batzuetako araudiek honako errealitate anitz hau erakusten dute: Kataluniako Immigrazioarako Hitzarmena eta “politika publiko komuna” kontzeptua ez datoz bat Valentziako Erkidegoko etorkinen integratioarako abenduaren 5eko 15/2008 Legean jasotako “Konpentsazio-programekin”, edo andaluziar ereduak osoko planekin. Azkenik, gehitu beharreko beste zalantza bat honako hau dugu: alor horretan onartutako planak eta baita legeak ere zenbateraino diren lotesleak alde arauemaitetik. Horrela, maiatzaren 7ko 10/2010 Legea, Kataluniara joandako etorkinei eta baita itzulitakoei ere eman beharreko harrerari buruzkoa, apirilaren 28an onartu zuen Kataluniako Parlamentuak. Legearen 7.4 artikuluan hau esaten da: “Kataluniako lurraldean, lehen harrera zerbitzua jasotzeko eskubidea erroldatuz geroztik hasten da”. Auzibidean helegitea aurkeztu al daiteke Badalona, Reus, Tarragona, Salt edo L'Hospitalet de Llobregateko udaletan onartutako mozioen aurka, lege hori ez dutelako betetzen? Ba al dago aukerarik zuzenbidean “ekimen publikoa” deitzen dena erabilita udalerrri horietako edozein biztanlek hitzarmen horien aurka egin dezan?


Gorago azaldutako alderaketarekin jarraituz, alde batetik immigrazioaren egiturazko fenomenoak bereganatu nahi duen estatuaren ontzia dago, eta, bestetik, autonomia-erkidegoek, beren ontziak erabilita, atzerritartasunari lotutako integratio-politiken bitartez lan berdina egin nahi dute. Laburbilduz, atzerritartasun-lege batek migrazio-fenomenoaren alde bat kudeatu ahal izango du, baina ez immigrazioa. Gainera, migrazio-zikloek eta ekonomia-zikloek erritmo desberdinak dituzte. Eta jarduera horretan guztian bakoitza bere aldetik ibiltzea nahikoa ez balitz bezala, ezin ditugu politika-zikloak ahaztu, eta gogoratu beharra dago Alderdi Popularrak lege horren aurka bozkatu zuela.

Amaitzeko eta laburpen gisa, esan dezakegu atzerritartasun kontuetan dugun araudiak ustez estatu-politikaren gai handiak direnei buruzko legeak egiten jarraitzen duela: nor sartzeko den eta nor ez erabakitzea. Hala ere, eta ondotik, autonomia-erkidegoak beren integratio-ereduak gauzatzen ari dira. Azken emaitzari buruz esan daiteke gutxienez bitxia dela, eta Europar

Batasunaren testuinguruan parekorik gabekoa; beharbada Belgikak izango du antzeko egoera. Politika publikoen bilakaera horretan bakoitza bere erara dabilela, gaur egungo egoerak azaltzen du sarrera-jarioa gutxitu egin dela, eta, beraz, beharbada Estatuak kudeatzen duena ez da hain garrantzitsua izango; eta autonomia-erkidego batzuk beren kabuz aritzea nahi dute, eta, neurri batean, egin dezakete. Hortaz, ohitzen joan beharra daukagu, eta, immigrazioari buruz Estatuak duen diskurtsoa begien bistatik galdu gabe, hitz egin dezagun herri honetan immigrazioari buruz dauden diskurtsoei buruz.



**Intereseko beste geografia-eremu  
batzuei buruzko artikuluak**





## Etorkinen egoera Nafarroan

Antidio Martínez de Lizarrondo

Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra

Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra Nafarroako Gobernuaren Immigrazioarako Arreta Bulegoaren menpeko organoa da. Administrazio-organo horrek datuak jaso eta Foru Erkidegoan gertatzen ari den migrazio-fenomenoa aztertzen du. Orrialde hauetan, 2010ean Nafarroako etorkinen egoerari buruz egindako azterketaren laburpena dago.


Hasteko, beharrezkoa da lurralde-banaketa egitea fenomeno hori ondo ulertzeko. Atzerritar etorkinak hirietara etortzen dira batez ere; Nafarroako atzerritarren %60 pilatzen da 10.000 biztanle baino gehiagoko hirietan. Iruñean eta eskualdean atzerritarren %55 bizi da, baina egia da Nafarroa bertako biztanle gehienak ere hor bizi direla.

Dena den, proportzioan migrazio-prozesua Nafarroako hegoaldean nabaritu da bereziki. Ondoko grafikoari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu Tuterako zonaldean eta Erriberagoitin dagoela atzerritarren proportzio handiena. Iruñea eskualdean eta Nafarroa osoan proportzioa antzekoa da.

### Zenbatekoa, proportzioa eta jatorria


Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuen arabera, 2010eko urtarrilaren 1ean Nafarroan 71.369 pertsona atzerritar zeuden, populazio osoaren %11,2 (2009ko portzentaje bera). Atzerritarren kopuruak nabarmen egin du gora azken hamarkadan, eta honako grafiko honetan ikus daiteke hori.

1. grafikoa. Atzerritarren proportzioa populazio osoarekiko, Nafarroako zonaldeetan 2010. urtean



Iturria: EIN. Geuk egina

2. grafikoa. Nafarroan erroldatutako atzerritar kopuruaren bilakaera 1998-2010 urteetan



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleen Udal Errolda. Geuk egina

Horrela, 2010ean Nafarroako atzerritarren proportzioa Estatuakoaren antzekoa zen; azken hori %12,2koa zen. Egoera horretan, Estatu mailan Nafarroa bederatzigarren postuan zegoen atzerritarren proportzioari zegokionez. Bere aurretik zeuden, ordena honetan, Balear Uharteak, Valentzia, Madril, Murtzia, Katalunia, Errioxa, Kanariar uharteak eta Aragoi.

Hala ere, zenbait erkidegotan Europar Batasunetik etorritakoak izan dira atzerritar asko –lehenengo EB 15etik eta geroagoko EB 27tik–. Nafarroaren kasura bueltatuz, Europar Batasunetik etorritako atzerritarrak alde batera uzten badira, datuak aldatu egiten dira. Modu horretan, Nafarroak atzerritarren %7,5eko proportzioa izango luke eta zazpigarren postuan geldituko litzateke.

1. taula. Atzerritarren proportzioa, jatorriaren eta autonomia-erkidegoen arabera (EBtik kanpoko atzerritarren %aren arabera ordenatuta) 2010. urtean

	% atzerritarrak	% EB 15	% EB 12	% EBtik kanpokoak
Murtzia	16,5	2,6	1,8	12,2
Katalunia	16	2,3	1,8	11,8
Madril	16,7	1,5	4,2	11
Balear Uharteak	21,9	8,9	2,6	10,4
Errioxa	14,5	1,7	4,1	8,7
Valentzia	17,5	5,7	4	7,8
Nafarroa	11,2	1,5	2,3	7,5
Espainia guztira	12,2	2,6	2,4	7,2
Kanariar Uharteak	14,5	7,1	0,8	6,5
Aragoi	12,8	0,9	5,6	6,4
Gaztela-Mantxa	10,9	0,4	5,2	5,3
EAE	6,4	0,8	0,8	4,8
Kantabria	6,6	0,8	1,3	4,5
Andaluzia	8,4	2,8	1,5	4,2
Gaztela-Leon	6,6	0,9	2,4	3,3
Asturias	4,5	0,7	1	2,8
Galizia	3,9	1,1	0,3	2,5
Extremadura	3,6	0,7	1	1,9

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleen Udal Errolda. Geuk egina

Atzerritarren jatorriari erreparatzen badiogu, aipatu behar da 2010. urtean lehendabiziko aldiz europar kontinentea izan dela iturburu nagusi. Europatik %37,3 iritsi ziren, Ameriketatik %37,1 eta Afrika urrunetik %23,5.

Pasa den hamarkadan aldaketa nabaria gertatu da migrazio-fluxuetan, lehen ez zeuden nazionalitateak ageri baitira orain, eta lehen zeudenak orain ez daude. Estatuak aurrera eramandako politikaren eraginez, beste erkidegoetan gertatu den legez, 2000-2005 urteetan atzerritar gehienak hegoamerikarrak izan dira; bigarren bosturtekoan, berriz, Ekialdeko Europatik etorri dira batez ere. 2000. urtera atzera egiten badugu, Nafarroara etorri ziren gehienak Portugal, Maroko eta Aljeriakoak ziren, hurrenez hurren. Hamar urte geroago, berriz, atzerritar gehienak Maroko, Ekuador, Errumania eta Bulgariatik (ordena horretan) iritsi dira Nafarroara.

### Sexuaren eta adinaren araberako banaketa

Adinari erreparatuz, esan daiteke atzerritarrak gazteagoak direla espainiarrak baino; izan ere, etorkin adingabe asko dago eta ez hainbeste 65 urtetik gorakoak. Zehazki, 15 urtetik beherakoa da Nafarroako atzerritarren %17; aitzitik, 65 urtetik gorakoa %1,5 bakarrik da, eta 15 eta 44 urte bitartekoek %70 batzen dute.

Sexuaren araberako azterketa egiten badugu, Nafarroako populazio osoaren datuak eta populazio atzerritarrari dagozkionak konparatuz gero, Nafarroan gizon eta emakume kopuru bertsua dagoela ikusiko dugu; atzerritarrak, aldiz, gizonezkoak dira gehienak (maskulinitate-indizea 119,5ekoa da). Ondoko taulan dauden adierazleek argiago azaltzen dute populazio atzerritarren eta Nafarroako populazio osoaren arteko aldea. Datuak adinaren eta sexuaren arabera emanak daude.

2. taula. Nafarroako populazio osoaren eta Nafarroan bizi diren atzerritarren adierazle demografikoak. 2010. urtea

Adierazle demografikoak	Populazio osoa	Populazio atzerritarra
Maskulinitate-indizea	99,0	119,5
Gaztetasun-indizea	15,3	16,4
Zahartze-indizea	17,4	1,5
Dependentzia-indizea (15 urtetik beherakoen eta 64 urtetik gorakoen kopurua, 15 eta 64 urte bitarteko ehun pertsona bakoitzeko)	48,4	21,8

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleen Udal Errolda. Geuk egina

### Espainiar nazionalitatea eskuratzeak izan duen eragina estatistiketan

Azken bi urteotan, krisia dela eta, atzerritarrak beren herrira bueltatu direla pentsatu izan da, baina hori ez da guztiz egia. Datu estatistikoen arabera, migrazio-fluxuak behera egin du aurreko urteekin alderatuz, baina hori ez da gertatu atzerritarrak gure herritik joan direlako, espainiar nazionalitatea eskuratu dutelako baizik.

Esaterako, 2009-2010 bitartean, 1.642 ekuadortar gutxiago zenbatu ziren, baina hori espainiar nazionalitatea lortu zutelako izan zen; izan ere, oro har, Nafarroan handituz doa ekuadortar jatorria dutenen kopurua. Taulari begiratzen badiogu, ohartuko gara Ekuadorren jaiotako atzerritarrak 2010. urtean 339 gehiago zirela 2009. urtean baino. Gaur egun, atzerrian jaiotako guztietatik %18,1 Ekuadorren jaiotakoak dira, baina horietako %13,3k bakarrik dauka ekuadortar nazionalitatea.

3. taula. Populazio atzerritarra Nafarroan, nazionalitatearen arabera (2009-2010 urteak)

Nazionalitatea	2009	2010	Bi urteen arteko saldoa	2010eko atzerritar guztien gaineko %
Maroko	8.698	9.694	996	13,6
Ekuador	11.136	9.494	-1.642	13,3
Errumania	6.066	6.599	533	9,2
Bulgaria	6.187	6.492	305	9,1
Portugal	5.866	5.912	46	8,3
Kolonbia	4.650	4.384	-266	6,1
Bolivia	3.427	3.227	-200	4,5
Aljeria	2.888	3.141	253	4,4
Peru	2.230	2.280	50	3,2
Brasil	1.905	1.876	-29	2,6
Herrialde hauen batura	53.053	53.099	46	74,4
Gainerako herrialde atzerritarrak	17.574	18.270	696	25,6
Populazio atzerritarra guztira	70.627	71.369	742	100

*Iturria: Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrek egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Hiritarren Udal Erroldako datuekin. Datuak urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoak dira*

2009an Nafarroan 630.578 pertsona zeuden erroldatuta eta 2010ean, berriz, 639.924. Hazkunde hori, batez ere, espainiar nazionalitateko pertsonen eragin zuten; izan ere, atzerritarren gorakada 742koa besterik ez zen izan (%0,9). Bestalde, migrazio-fluxuen norabideari buruz, eta saldoa kontuan hartuta, aipatzekoa da gehiago direla etortzen diren atzerritarrak joaten direnak baino. Gauzak horrela, 2009. urtean 83.830 pertsona ziren atzerrian jaiotakoak, eta 2010ean kopuru hori hazi egin zen 87.315era, hau da, 3.485 gehiago.

Dena den, krisiak migrazio-fluxuen moteltzea eragin du. 2011ko daturik ez daukagu oraindik, baina horixe espero da atzerritarrei eman zaizkien Osasun Txartel Indibidual (OTI) kopurua kontuan hartuta. 2010ean 1.123 txartel berri bakarrik egin ziren, 2010eko urtarrilean 76.150 zeuden eginak eta 2011ko urtarrilean 77.273; (2009-2010 urte bitartean, berriz, 3.758 txartel berri egin ziren; kalkulu horiek bat datoz erroldako datuekin). Bestalde, OTI txartela duten atzerritar-kopurua jakitea adierazgarria da, Nafarroako osasun-sistemaren hedapena ezagutzeko.

Bestalde, garrantzitsua da gogoratzea etxebizitzagatiko espainiar nazionalitatea lortzeko Iberoamerikako<sup>1</sup> herrialdeetatik datozenek gutxienez bi urtez bizilekua legeztatuta izan behar dutela eta, gutxi gorabehera, Nafarroan bizi diren bi mila atzerritarrek eskuratzen dutela urtero espainiar nazionalitatea. Alde horretatik, 2009an nazionalitatea Nafarroan eskuratu zutenetatik

<sup>1</sup>Argentina, Bolivia, Brasil, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Kuba, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Honduras, Mexiko, Nikaragua, Panama, Peru, Paraguai, Dominikar Errepublikak, Uruguai eta Venezuela.

%64 ekuadortarra zen eta 2010ean Ekuadorren jaiotako 6.561 pertsonak zeukaten espainiar nazionalitatea.

4. taula. Nafarroako populazio osoa, jaioterriaren arabera (2009-2010)

Jaioterria	2009	2010	Bi urteen arteko saldoa	2010ean atzerrian jaiotakoen gaineko %
Ekuador	15.477	15.816	339	18,1
Maroko	8.162	8.966	804	10,3
Kolonia	6.494	6.800	306	7,8
Errumania	5.855	6.288	433	7,2
Bulgaria	6.002	6.249	247	7,2
Portugal	5.949	5.973	24	6,8
Bolivia	3.443	3.304	-139	3,8
Peru	3.037	3.264	227	3,7
Aljeria	2.581	2.755	174	3,2
9 herrialde hauen batura	57.000	59.415	2.415	68,0
Gainerako herrialde atzerritarrak	26.830	27.900	1.070	32,0
Atzerrian jaiotakoak	83.830	87.315	3.485	
Populazioa guztira	630.578	636.924	6.346	

*Iturria: Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrek egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleen Erroldako datuekin. Urte bakoitzeko urtarilaren 1eko datuak*


Immigrazio eta Emigrazioko Estatuko idazkariak emandako datuen arabera, 2002-2009 bitartean guztira 11.306 pertsonak eskuratu zuten espainiar nazionalitatea Nafarroan. Bestetik, aipatzekoa da 2009an Espainian guztira 79.597 pertsonak lortu zutela nazionalitatea eta horietatik 2.736k Nafarroan eskuratu zutela, %3,4k alegia. Laburbilduz, askok espainiar nazionalitatea eskuratu ahal izan zuten eta ordura arte Nafarroak estatu-mailan zeukan atzerritarren proportzioa, %1,2koa hain zuzen ere, hirukoiztu egin zen. Datu hori positiboa da, gizarteratze-prozesua aurrera doala esan nahi baitu. Hala ere, egia da krisi honen eraginez etorkin askok espainiar nazionalitatea eskuratzeko presa izan duela eta horrek prozesua bizkortu duela; izan ere, hori eskuratzea babesgarri ikusi dute askok.

## Egoera juridiko-administratiboa

2010eko abenduaren 31n Nafarroan bizi ziren 65.714 atzerritarrek errolda-ziurtagiria edo erresidentzia-txartel eguneratua zeuzkaten, komunitateko erregimenean (27.350) zein erregimen orokorrean (38.364), eta mila ikasle gaineratu beharko lirake. Gainera, erregimen orokorrean dauden atzerritarren bi herenek erresidentzia-txartel iraunkorra daukate eta hori datu positiboa da.

Horren haritik, aurreko urtean baino 1.027 erresidentzia-txartel gehiago eman direla aipatu behar da eta, atzerritarrei emandako OTIen kopurua hazi egin dela kontuan izanik (gogora dezagun 1.123 txartel eman zirela), esan dezakegu krisiak ez duela irregularitasun-egoerarik eragin. Azken urteotan erregistro-agiria edo erresidentzia-txartela eguneratua daukaten komunitatetik kanpokoen zenbatekoa hazi egin da eta horrek irregularitasun-tasa nabarmen jaitsi du. Ondoko grafikoan ikus daiteke 2005-2010 urteetako bilakaera.

3. grafikoa. Komunitatetik kanpoko pertsona-kopuruaren bilakaera Nafarroan. Irregulartasun-tasa 2005-2010 urteetan



Iturria: Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrek egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Lan eta Immigrazio Ministerioaren Biztanleen Erroldako datuekin

### Krisiak izan duen eragina etorkinengan

2010. urtean Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrek Nafarroako Gobernuak duela hamar urte hasitako ikerketa bati heldu zion, eta etorkinei egiteko laugarren inkesta burutu zuen. Ikerketa horrek batez ere 2008ko datuen alderaketa egin zuen, krisiak etorkinei zertan eragin dien jakiteko.

2010eko inkestan krisiak egoera pertsonalean nola eragin dien galdetu zitzairen, eta jasotako erantzunen arabera jakin dugu krisiak gogor eragin diela etorkinei. Hala ere, esan behar da bertako biztanleek ere krisiaren ondorioak jasan dituztela, ez etorkinek bakarrik. Ondoko grafikoan galdera-sorten erantzunak bildu dira; baiezko erantzunak %20 baino gehiago dituztenak daude bertan, handitik txikira ordenatuta.


Besteak beste, krisiaren ondorio hauek aipatu dituzte: jarduera sozial gutxiago (%71,5ek), lan-baldintzak eskastu (%53,9), prestakuntza-ikastaroak egin beharra krisiari aurre egiteko (%47,7), zorrak areagotzea (%47,3), lana galtzea (%36,1), etxebizitza aldatu beharra (%34,9), senideak ekarri nahi baina ezina (%31), senideen jaioterrira bueltatu beharra (%23), Lan Erregulazio Espedientea dela eta ondoeza sentitzea (%22,8).

Krisiak lan-arloan eragin du gehienbat; izan ere, langabezia igo eta lan-baldintzak eskastu egin dira. Langabezia-tasarik altuena etorkinek daukate, baina hori ez da berria. Honako taula honek ikus daitekeenez, azken bi urteotan Nafarroan zein Estatu osoan atzerritarren langabezia-tasa bikoitza da. Hala ere, egia da oro har Nafarroako langabezia-tasa Estatukoa baino baxuagoa dela.

Oro har, elkarrizketatuetatik, Afrikako Iparraldeko dira krisiaren eragina gogorren pairatu dutenak. Beste muturrean EBko etorkinak daude, eta batez ere espainiar nazionalitatea eskuratu dutenek nabaritu dute gutxien krisia.



4. grafikoa. Krisiaren ondorio nagusiak portzentajeetan



Iturria: Geuk egina 2010 inkestako datuekin

Oharra: %20tik gorako portzentajeak krisiaren eraginari buruzko erantzunetan

5. taula. Langabezia-tasaren bilakaera Espainian eta Nafarroan, nazionalitatea kontuan hartuta. 2005-2010 urteak (urte bakoitzeko azken hiruhilekoa)

Urtea	Nazionalitatea						Guztira	
	Espainiarra		Atzerritarra (guztira)		Atzerritarra (ez EB)		Estatua	Nafarroa
	Estatua	Nafarroa	Estatua	Nafarroa	Estatua	Nafarroa		
2005eko IV. hiruhilekoa	8,5	5,3	10,2	10,9	10,5	11,3	8,7	6,0
2006ko IV. hiruhilekoa	7,7	3,9	12,0	9,7	12,3	10,0	8,3	4,6
2007ko IV. hiruhilekoa	8,0	3,9	12,4	6,8	12,8	8,5	8,6	4,3
2008ko IV. hiruhilekoa	12,5	6,0	21,3	20,4	22,6	25,9	13,9	8,1
2009ko IV. hiruhilekoa	16,8	9,1	29,7	19,1	32,2	20,8	18,8	10,5
2010eko IV. hiruhilekoa	18,5	9,8	30,4	22,1	31,0	21,8	20,3	11,6

Iturria: Populazio Aktiboaren Inkesta. Estatistikako Institutu Nazionala


Txostenean beste alderdi batzuk ere ageri dira, esaterako, diskriminazio etnikoak traba izaten jarraitzen duela gizartean batasuna lortzeko. Horren haritik, 2010ean, ia elkarriketatuen %40k dio tratu desberdina jasotzen dutela etorkinak izatearren. Bestetik, osasunean ere eragin du krisiak. Hala, lehen osasunez “Ondo edo oso ondo” sentitzen zirenen kopurua %23an jaitsi da 2008ko datuekin alderatuz. Horrek osasun-laguntza handiagoa eskatzen du, nahiz eta oraindik ere bertako biztanleak diren osasun-zerbitzuak gehien erabiltzen dituztenak.

### Etorkinen asmoak eta helburuak

Aipatu behar da, krisiak krisi, etorkinek beren bizileku berrian jarraitu nahi dutela eta ez dutela haien herrira bueltatzeko ez beste herrialde batera alde egiteko asmorik. Etorkinen %88,7k bost urte barru hemen bizitzen jarraituko duela uste du, eta hirutik lauk Nafarroan biziko dela uste du. Azkenik, %11,3k bakarrik ikusten du bere burua jaioterrian bizitzen.


2008an eta orain, atzerritarrek hemen jarraitzeko asmo bera erakusten dute. Ondoko grafikoan bi urteen arteko alderaketa egiten da; emaitzak multzokatuta daude hiru aukeren arabera (jaioterrira itzuli, beste leku batera joan, Nafarroan gelditu). Deigarria iruditzen zaigu leku batetik bestera mugitzeko agertzen duten prestutasuna; 2008an %4,5ek aurreikusten zuen mugikortasun-geografikoa, 2010ean %13,2k, ordea. Positiboa da krisi-egoeran mugikortasun-geografikorako eta lan-mugikortasunerako prestutasuna izatea, lan-baldintza hobekia lortzeko.

5. grafikoa. Bizilekuaren aurreikuspena bost urterako. 2008-2010 urteen alderaketa



Iturria: geuk egina, 2010eko inkestatik eta 2008ko Nafarroako Immigrazioari buruzko inkestatik jasotako datuekin

6. grafikoa. Espainian betiko gelditzeko erabakia. 2008-2009 urteen alderaketa



Iturria: geuk egina 2010eko inkestako eta 2008 Nafarroako immigrazioari buruzko inkestako datuekin

Azkenik, behin betiko bizilekuari buruz galdetuz gero, hemen gelditzeko asmoa dutenen kopurua jaitsi egiten da; izan ere, etorkinen hasierako asmoa ez zen hori izan. Zalantzak zalantza

(%28,7k ez daki zer egingo duen), oro har gehienek egonaldia luzatu nahi dute eta %54,1ek Espainian bizitzen jarraitzeko asmoa agertu du. Hemen gelditu nahi ez dutenen kopurua %19,2koa da; 2008an ere kopuru bertsua izan zen, eta zalantzan daudenen kopurua ere antzekoa da 2008an eta orain.

Bukatzeko, eta ondorio gisa, badirudi epe motz eta ertainean migrazio-fluxuak ez direla haziko; baina, modu berean, atzerritar askok Nafarroan betiko gelditzeko asmoa daukate, beraz, ez dirudi itzulera masiborik egongo denik ere. Hala ere, atzerritarrak beren herrira bueltatzen badira, behin-behineko kontua izango dela dirudi eta ez betirakoa. Hiru arrazoik eraman gaitu hori pentsatzera: gehienek erresidentzia-txartela daukate, senideak ekarri dituzte, eta espainiar nazionalitatea eskuratu dutenen kopuruak gora egin du.



## Migrazioaren fenomenoa Andaluzian: azken aldian izan duen eboluzioaren gaineko datuak eta hausnarketak

Sebastian Rinken<sup>1</sup>

Migrazioen Andaluziako Behatoki Finkoa - Andaluziako Batzarreko Lanbide Saila eta Gizarte Ikerketa Aurreratuen Institutua

Andaluziako immigrazioari urtekari honetan atal bat eskaintzeak bere arrazoiak ditu. Nabarmenki, erroldan atzerritar gehien dituen erkidegoetako bat izateaz gain, (704.000 inguru, azken datuen arabera), beste bi arrazoi daude. Lehenik, gauza jakina da gaurko krisi ekonomikoaren ondorioak bereziki nabarmenak direla eskualde horretan: 2008. urtetik hona, langabeziatasak izan duen bilakaera kezkagarria da benetan. *Boom* ekonomikoaren hamarkada luze hartan, Espainiarako immigrazioaren arrazoiak batik bat lan-arlokoa izan zen. Hori dela eta, krisiaren ondorioak *a priori* bereziki nabarmenak izan beharko lukete migrazioaren fenomenoarentzat. Bigarrenik, beste autonomia-erkidego askok ez bezala, Andaluzia, eskualde-administrazio bertatik, migrazio-fenomenoaren bilakaeraren jarraipena egiteko gai da Migrazioen Andaluziako Behatoki Finkoa izenekoaren bitartez (OPAM)<sup>2</sup>, baliabide horrek asko handitu du bere informazio eskaintza azken hiru urteetan eta oinarri enpiriko eta analitiko sendoa sortu du, eta horri esker, eskualde honetan migrazioak dituen ezaugarri nagusien zirriborroa egin dezakegu hurrengo orrietan.

“Migrazio-fenomenoa” esaten dugunean, ez gara soilik demografiaren eta lanaren eremuari buruz ari, dimentsio demoskopikoa ere kontuan hartzen dugu, hau da, bertako populazioak immigrazioarekiko dituen iritziak eta jokaerak, eta horrek gizartean duen eragina. Argi dago migrazioari dagokionez (beste zenbait eremutan bezala) politika-administrazio arloan ezin dela hiritarren nahien arabera soilik jokatu, eta ez dela hala egin behar, gainera. Zuzenbide-estatuak duen ezaugarrietako bat da, hain zuzen, babesa eta bermea eskaintzea, jendeak horren inguruan izan dezakeen iritzia alde batera utzita. Dena den, hiritarrek immigrazioari buruz dituzten iritzien aurrean ez entzunarena egitea ez da komenigarria, eta ezta epe ertainean lor daitekeen zerbait ere. Oinarritzko bi arrazoi daude horretarako. Lehenengoa begien bistakoa da: demokrazian, lehe-

<sup>1</sup>Eskerrak eman nahi dizkiot Marisol Escobarri, OPAM taldekoa, artikulua idazten lagundu izanagatik.

<sup>2</sup>Migrazio Politiken Koordinaziorako Zuzendaritza Orokorreko (Dirección General de Coordinación de la Políticas Migratorias DGCPM) kide, Andaluziako Batzarreko Lanbide Sailak, eta Europako Gizarte Funtseko Andaluzia 2007-2013 Programa Operatiboak kofinantzatuta, Gizarte Ikerketa Aurreratuen Institutuko (Instituto de Estudios Sociales Avanzados IESA-CSIC talde espezializatu batek kudeatzen du OPAM 2007. urtetik, aipatutako Sail horren eta CSICen arteko bi hitzarmenen kariaz, 2007-2010 eta 2011-2013 urteetakoak, hurrenez hurrez. Webguneak informazio aukera zabala eskaintzen du.

nago edo geroago, hiritarren iritziek dagokien legezko indarra izaten dute. Bigarrenagoz, uste dugu elkarbizitzaren kalitatea bermatzeko, beharrezkoa dela migrazio-politiken jarduera nagusiek gizaratearen nolabaiteko babesa izatea. Horren haritik, komenigarria da azpimarratzea oparoaldiak iraun bitartean, Espainiako hiritarren gehiengo nabarmenak, migrazio mugimenduen kudeaketarako zenbait printzipio babestu dituztela. Printzipio horiek ikuspegi konparatibo batetik ikusiz gero, eskuzabaltasun- eta unibertsaltasun-ezaugarriak dituztela konturatzen gara. Aurrez aurre dugun testuinguru makroekonomikoan, zaila izango zaigu neurtzea kudeaketa ereduaren zein alderdi diren jarraipena izan dezaketenak edo izan behar dutenak, eta zein diren pragmatismoa erabiliz bideratu behar direnak. Gogoeta hori egiterakoan funtsezko helburua kontuan izan behar dugu, hau da, hiritar askok dituzten zailtasun ekonomikoen ondorioz gizaratean tirabirarik ez eragitea. Leku hau ez da aproposena zeregin horri buruz jarduteko, hori dela eta, besterik gabe, testuinguru honetan interesgarriak izan daitezken zenbait datu azalduko ditugu.

Jakinekotzat jotzen ditugu Andaluziako immigrazioaren ezaugarri nagusiak, hala nola, probintzien<sup>3</sup> artean dagoen desberdintasuna, eta Espainiako lurralde osoarekin alderatuz, bertan daudela erabat garatutako lurraldeetatik datozen atzerritar gehien. Azken ezaugarri horrek berezko lotura du (ez eskematikoa) gehiengoak nahi duen migrazio-proiektuaren izaerarekin. Gai honi buruz, zein aurrerago jorratuko ditugun gaiei buruz gehiago jakin nahi dutenek, OPAMen urteko txostenak (2009;2010a) ikus ditzakete, eta hala badagokie, baita “Oinarrizko Produktu Estatistikoak” izenekoak ere. Horiek, eskuragarri daude behatokiaren gune digitalean. Gure lana, krisia hasi eta gaur egunera arte, atzerritarrek eta horien baliokide espainiarrek izan duten garapenean zentratzen da.

### 1. Enplegu eta langabezia-tasa zikloaren uzkuertze-fasean

Krisiak Andaluziako immigranteen lan-egoera zenbateraino aldatu duen ikusi aurretik, komenigarria da hasierako egoera laburbiltzea; 2001-2007 urteetako egoera alegia, ziklo ekonomikoaren aldaketa baino lehenagokoa.

2001. urtean, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera Andaluziako lan-merkatuan 71.225 atzerritar ari ziren lanean, 2008ko lehen hiruhilekoan, aldiz, 418.882. Beraz, hasierako kopurua seikoiztu egin zen azken zazpi urte horietan. Bien bitartean, Espainiako biztanleria aktiboa %16 besterik ez zen hazi. Modu arinagoan izan arren, joera hori bera egon zen estatu mailan ere, izan ere, azken zazpi urte horietan, biztanleria atzerritar aktiboa 4,5 aldiz biderkatu zen, eta espainiarra, aldiz, %10,3 hazi zen. Hala, 2001ean atzerritarrak Andaluziako biztanleria aktiboaren gutzitzkoaren %2 baino gutxi gehiago ziren arren, urte horietan %43 hazi dira, eta 2008an Andaluziako biztanleria aktiboaren gutzitzkoaren %11 dira. Horietako gehienak herrialde ez-komunitarioetatik zetozen, eta aipatu ditugun ia urte guztietan, kolektibo hori %30etik gora hazi zen.

Hiru nazionalitate nagusietako (espainolak, atzerritar komunitarioak eta atzerritar ez-komunitarioak) taldeen jarduera-tasei erreparatzen badiegu, horietako bakoitzak lan-merkatuarekiko duen jarrera ikusten dugu. Ez-komunitarioek zuten jarduera-tasarik altuena,

<sup>3</sup>Malaga eta Almerian, %17 eta %21,7 dira erroldatutako atzerritarrak, beraz, Jaen eta Kordoba alde handiarekin gaintzen dituzte, izan ere, azken horiek ez dira %4ra ere iristen, eskuragarri dauden azken datuen arabera. Desberdintasun hauek oraindik eta nabarmenago dira eskala lokalean.

beste biek baino altuagoa dudarik gabe. Tasa hori, gainera, 2001etik 2008ra 13 puntu igo zen eta ia %82ko balio bikainera iritsi. Bere aldetik, jarduera-tasa 5 puntu besterik ez zen igo denbora-tarte horretan, %55 baino gehiagokoa zen beraz 2008 hasieran. 2008aren aurrenean, atzerritar ez-komunitarioen jarduera-tasa espainiarrena baino 26,5 puntu gorago zegoen eta atzerritar komunitarioak baino ia 22 puntu eta erdi gorago. Gogora dezagun ikuspegi konparatibo bat hartzen badugu, datu hauek XXI. mendearen hasierako urteetan Espainiako atzerritar ez-komunitarioek zuten lan-egoeraren hainbat anomalietako bat azaltzen dutela, hitzaren zentzu enpirikoenean; anomalia horren azalpenak dira adinaren araberako banaketa berezia, lanari dagokionez aktiboena diren alorretan kontzentratuta dagoena; eta lan-merkatuan parte-hartzeko prestasun osoa adina kontuan hartu gabe.

Lan-egoeraren oinarritzko bigarren ezaugarriari dagokionez (enplegua edukitzea edo ez), zortzi urte horietan, bai Espainian eta bai Andaluzian, atzerritar ez-komunitarioen enplegu-tasa oso altua izan zen. Tasa horrek, 2007an, pertsona aktiboez gain, lanerako adina zuten pertsonen gutzizkoaren %70 gaintu zuen. Horrekin alderatuz, urte horietan hazi egin ziren arren, espainiarren eta atzerritar komunitarioen enplegu-tasak askoz ere maila baxuagoan mantendu ziren, 2001ean %41 eta %38,6 izatetik, 2008an %47,3 eta %49,6 izatera pasa ziren, hurrenez hurren.

Aurretik aipatu ditugun jarduera-tasek azaltzen dute ez-komunitarioen enplegu-tasa espainiarrena baino handiagoa izatea, nahiz eta orain ikusiko dugun moduan, haien langabezia-tasa ere handiagoa izan. Hala, 2008an, langabezia-tasak honako hauek dira Andaluzian: %14,5 espainiarrentzat eta %17,5 EB-25ekoak ez diren atzerritarrentzat. Balio horiek, nahiz eta lurralde espainiar osokoak baino nabarmenki altuagoak izan, positiboak dira helburuko gizartean txertatzeari dagokionez. Izan ere, XXI. mendearen lehenengo urteetan, langabezia-tasa askoz ere gehiago jaitsi zen ez-komunitarioentzat (9 puntu) espainiarren artean baino (4 puntu) eta atzerritar ez-komunitarioen artean baino (2 puntu baino zerbait gutxiago). Espainiako ekonomiak izan zuen goranzko aldian, espainiarren eta komunitatez kanpoko langabezia-tasaren artean geratzen tartea honako faktore hauen konbinazioaren ondorio izan zitekeen: horiek lan-merkatuan parte hartze handiagoa izatea alde batetik, eta "iritsi berri" deiturikoen eskasia –helburuko lurraldean urte bat baino gutxiago daramaten immigranteak– beste alde batetik.

Immigranteek egiten dituzten lanen kalitateari dagokionez, jakinekoa da, askotan ez zetorrela bat haiek beraien jatorrizko lurraldeetatik zekarten hezkuntza-mailarekin, eta oro har, ez zela hurbiltzen helburuko lurralde bertako biztanleen lan-profilera. Hori dela eta, langile atzerritarren enplegarritasun altuak muga zehatzak izan zituen lanbide eta jarduera-sektore mailari zegokionez. Hala frogatzen du bibliografia zabal batek. Bibliografia hori estatistika iturri orokorretan oinarritzen da (BAI; Gizarte Segurantzako izen emateen estatistikak, etab.), eta neurri txikiagoan bada ere, zehazki biztanle immigranteei buruzko datu enpirikoetan. *Oparaldiaren* garaian jadanik, immigranteak bertako langileek arrazoi desberdinengatik (ordainsaria, lan-baldintzak, gizartearen onspena) nahi izaten ez zituzten lanetan hasi ziren lanean gehienbat. Garai hartan hainbat behatzailek jakinarazi zuen moduan, hutsune horiek bere horretan jarraitzeak, epe luzera, helburu-lurraldearen gizarte-kohesioa mehatxa zezakeen; hori zela eta, lanbide-aldakortasunaren goranzko joerari arreta handiz erreparatzen zitzaion, joera horiek argi ikusten ziren gizartean denbora gehien zeramaten immigranteen artean.

Testuinguru horretan, krisi ekonomikoaren eragina zeharo suntsitzailea izan da, izan ere, enplegu-tasen beherakada itzela eta langabezia-tasen berehalako gorakada eragin du. Jakinekoa denez, joera horiek Espainiako lurralde osoan gertatu ziren eta biztanleria aktiboaren zati han-

diei eragin zien, bai autoktonoei eta bai aloktonoei ere: dena den, Andaluzian ekoizpen-egiturak duen egituraren ondorioz, eskualde horretako biztanleak kolpatu zituen bereziki (batez ere komunitatez kanpoko herrialderen bateko nazionalitatea zutenak, eta batik bat, marokoarrak). Hala, EB-27tik kanpo zeuden atzerritarren enplegu-tasa ehunekoetako 14 puntu erori zen 2008. urtean jadanik. Horrek bilakaera bat ikusarazten zuen, hiru hilabete inguru barru Espainiako lurralde osoan ikusiko zena. Gogora dezagun, enplegu-tasa biztanleria osoa kontuan hartuz kalkulatzeko delako, ez aktiboa bakarrik, baizik eta lanerako adinean dauden guztiak. Hori dela eta, hilabete gutxiren barruan, 16 eta 65 urte arteko zortzi immigrantetik batek lana galdu zuen. 2008. urteko lehen hiruhilabetetik 2009. urteko azkeneko hiruhilabetekora, espainiarren eta atzerritar komunitarioen langabezia-tasak hamar puntu inguru hazi ziren Andaluzian, eta hori gorakada itzela zen jadanik; hala ere, gorakada nabarmenagoa izan zen afrikarren artean, eta 2009an horien langabezia-tasa ia 45 puntukoa zen, espainiar nazionalitatea zuten andaluziarrenaren ia bikoitza. Aurrez esan dugun moduan, atzerapen pixka batekin, komunitatez kanpoko langabezia-tasek izan zuten bilakaera antzekoa gertatu zen Espainia osoan, hala ere, aipatzekoa da tasa horiek ezaugarri bereizgarri bat dutela espainiar nazionalitatea duten langileen langabezia-tasei dagokienez, Andaluziako egoerarekin alderatuz.

Ezinezkoa zaigu hemen immigranteen langabeziaren gainean sakontzea; horretarako, joan OPAMen urteko txostenetara. Garrantzi berezia duen alderdiren bat aipatzekotan, esango genuke badirudiela krisi ekonomikoak ia guztiz ezabatu duela lehen aipatu dugun hobetze progresiboaren ikuspegi hori. Eta ez soilik lan-mailari eta horren askotariko ondorioei dagokienez (soldata maila; lan-baldintzak; gizartean duen prestigioa; etab.) baita enplegua izate berari dagokionez ere. Horren haritik, BAIk erakusten dituen datuak kezkarriak dira benetan. Oparoaldiak iraun bitartean Espainian denbora gutxien zeramaten immigranteen langabezia-tasak nabarmenki altuagoak ziren bertan zenbait urte zeramatzatenak baino, baina krisiaren ondorioz joera hori erabat desagertu dela dirudi. Sendoago errotuta egon arren, ez dirudi atzerritarrak (komunitatez kanpokoak, bereziki) krisiak lanean eragin dituen ondorio latzetatik libratzen direnik; aitzitik, aurkakoa gertatzen dela dirudi.

Egiaztapen empiriko hori ez da soilik eskualde-mailari buruzkoa (ikus OPAM, 2010a: 98), bai eta lurraldearen osotasunari buruzkoa ere (OPAM, 2010b); azken maila horrek azterketa estatistikoko zehatzagoak eta fidagarriagoak onartzen ditu, gure erreferentzia iturria abiapuntutzat hartuta. Krisia hasi zenetik bi urtera, hau da, 2009ko laugarren hiruhilekoa, eta 2007ko azken hiruhilekoari dagozkion datuak alderatzen baditugu, honako hau ikusten dugu:

- espainiar nazionalitatea duten langileek enplegua izateko probabilitatearen beherakada izugarria, izan ere, horietako hamarretik bat lanean aritzetik langabezia egotera pasa da (%92 ingurutik, %82ra jaitsi da probabilitate hori);
- oraindik eta beherakada handiagoa atzerritar nazionalitatea duten aktiboen artean, ehunekoetako 20 puntu gutxi gorabehera, lana izateko probabilitateari dagokionez; kolektibo jakin batean (Afrikako lurralderen batekoak) beherakada hori 30 puntukoa da; eta
- ia guztiz ezabatzea aurretik aipatutako asimilatze ekonomikoak zuen efektu nabarmena atzerriko nazionalitatea duten aktiboen artean, efektu hori lana edukitzearekin edo ez edukitzearekin lotuta zegoen, zenbat eta denbora gehiago egon helburu-lurraldean orduan eta probabilitate gehiago zegoen lana aurkitzeko.



Horrela, atzeritarren talde nagusiek lana izateko probabilitatea maila jakin batean “izoztuta” aurkitzen da, Espainiako lan-merkatuan daraman denbora kontuan hartu gabe eta jatorrizko lurraldearen arabera desberdintasun handiak egonik. Krisiaren aurretik, langile atzeritarren administrazio-egoera eta “denbora faktoreari” lotutako beste aldagai batzuen egonkortasuna handiagoa zen heinean, horiek lan-merkatuan zuten egoera hobea zen (lana izateko zuten probabilitate bertatik hasita). Bestalde, krisia hasi eta handik bi urtera, lan-merkatuan gero eta nabarmenagoa zen jatorriaren arabera banaketa, ezaugarri hori ekonomiaren gorakada garaian jada ikus zitekeen arren, nolabait konpentsatuta geratzen zen hobetze progresibo baterako dinamika zela eta.

Jakinekua zen moduan, joera horrek eragin negatiboa du enplegua izan dezaketen pertsonen lan-egoeran. Ildo horretatik, bai nazio-mailan eta bai eskualde-mailan, ikusten dugu komunitatez kanpoko langileen artean gehitzen ari direla lan-baldintza bereziki gogorrak dituzten sektoreetako lanak, eta hori dela eta, okupazio-piramidearen mailarik baxuenetan horien presentzia lehendik nabarmena baldin bazen, orain gero eta nabarmenagoa egiten ari da.

## 2. Bertako biztanleen iritzia eta balorazioa migrazioaren fenomenoaren inguruan

Aurreko atalean, immigranteek egiten dituzten lanen profil diferentzialaren gainean aritu gara. Horiek, gehienbat, bertako langile nahikoa ez dituzten jardura sektoretan eta okupazio-maila ertain-baxu edo baxuetan biltzen dira. Bertako biztanle askok immigrante kopuru handien etorrera eta horien gizarteratzea babesten zuten eta jarrera horren arrazoietakoa bat zen langile atzeritarren beharra zegoela. Mesfidantza eta susmo txarrak egon arren, fluxuen kontrolaren eraginkortasuna eta elkarbizitzarako ezarritako arauetarako moldaketa dela eta, besteak beste (Gonzalez Enriquez eta Alvarez Miranda, 2005; Mendez Lago, 2007), ikerketa konparatiboek agerian uzten zuten *boom* ekonomikoaren goraldi bete-betean, biztanle espainiarrek migrazioarekiko zuten iritzia Europa osoko irekienetakoa bat zela (Coenders et al., 2005). Argi eta garbi, lotura estua dago migrazio-mugimendurekin, ez soilik bere dimentsio demografikoan, bai eta demoskopikoan ere, eta helburu-lurraldearen lan-merkatuko egoerari loturiko joera eta gogoetak daude.

Ondoren, krisia hasi zenetik gaur egunera arte, Andaluzian migrazioari buruzko iritzi publikoak izan duen bilakaera ikusiko dugu gaingiroki. Horretarako, OPIAko (Andaluziako biztanleek iritzi eta jarrerak migrazioaren aurrean) hiru argitalpenetako emaitzak ditugu, 2005ean, 2008an eta 2010ean eginak, hurrenez hurren. OPIA ikerketa OPAMeko jardura-alorrik garrantzitsuenetakoa bat da. Inkesta telefoniko zabal bat eta 3.000 eta 4.000 elkarrizketaturen lagin alderatzen ditu, dagokion edizioaren arabera, baita datu kualitatiboen produkzio handi batekin ere, horien artean eztabaida-talde handiak nabarmentzen dira, immigrante asko dauden auzo edo udalerrietan. Espazio murriztu honetan jakintza enpirikoz<sup>4</sup> hain josita dagoen emaria modu egokian laburbiltzea ezinezkoa denez, OPIA inkestako emaitza nagusiak azaltzeaz arduratuko gara (hainbat motatako emaitzak lotzeko, ikus Rinken eta Velasco, 2010).

Lehenik eta behin, ikerketaren edizio desberdinetan jasotako datuak aipatuko ditugu. Datu horiek Andaluzian migrazioak duen ondorioaren gaineko bi galdera irekiren erantzunetatik ate-

<sup>4</sup>OPAMen gune digitalean, posible da ikerketaren lehen (Rinken eta Perez Yruea, 2007) eta bigarren (Rinken eta al, 2009) edizioetako emaitza zehatzak ikustea.

ratakoak dira. Boom ekonomikoaren gailurrean (2005), immigrazioaren alderdi onei buruzko galderaren erantzun gisa, hamar andaluziarretatik batek langile atzerritarren beharra eta baliagarritasuna aipatu zuen. Honako hauek izan ziren bigarren eta hirugarren erantzunak: “gutxi edo alderdi positiborik ez” eta “aberastasun kulturala” hurrenez hurren. (Ez ditugu hemen ipiniko gainerako erantzunak. Horiek askotarikoak izan ziren eta ehuneko txikiagoak lortu zituzten). OPIAren bigarren inkestan, 2008 hasieran egindakoan, hiru erantzun horiek aipu-kopuru antzekoak izan zituzten. Hala ere, krisia hasi eta handik bi urtera, langile atzerritarren aipuen ehuneko nabarmenki jaitsi da, eta alderdi positiborik ikusten ez dutela esaten dutenen ehuneko, aldiz, gorantz doa.

Alderdi negatiboen pertzepzioaren gainean bilakaera simetrikoa egon dela esan genezake. 2008an eta boom ekonomikoaren gailurrean, maila oso antzekoan mantendu ostean (inkestatuen %30 inguru), 2010ean lan-merkatuaren “efektu negatiboaren” ikuspegia ehunekoetako hamalau puntu inguru igo da. Aipatzekoa da baita ere, gorakada horrek antzeko magnitudeko murriztapen bat dakarrela berekin, aski ez den fluxuen erregulazioa edo hiritarren segurtasun eza modu espontaneoan aipatzen dituzten pertsonena.

Immigrazioaren ondorioei buruzko galdera horien ostean, inkestatuek migrazio-mugimenduen gainean duten balorazio orokorra egiten da. OPIAren lehenengo bi edizioetan, ikuspuntu positiboen ehuneko (%42tik hurbil) ikuspegi negatiboena baino altuagoa zen (%35 inguru). OPIA-lan, aldiz, ikuspuntu positiboak %33 dira, eta negatiboak %55.

Aldaketarako joera horiekin alderatuz, eta lan-dimentsioarekin eta gaur egungo egoera atzerakorrarekin lotura duten Andaluziako migrazio-fenomenoaren beste alderdi batzuei dagokionez, OPIAren hiru ediziotan lortutako emaitzek argi uzten dute aldaketa txikiagoak egon direla, bai eta egonkortasun-maila altua dagoela ere. Hori hala da, esterako, migrazio-fluxuen erregulaziorri buruzko iritziei dagokienez: immigranteen etorrera erregulatzeko irizpide nagusia lan-kontratu bat izatea dela pentsatzen duten Andaluziarren kopurua berdina izan da 2010ean eta 2008an (%85). Era berean, beste batzuk uste dute lan-kontratu dela kontuan hartu beharrekoa Andaluzian egoera administratibo irregularrean dauden immigranteen egoera erregulatzeko, iritzi hori duten pertsona kopurua ere egonkorra da, %45 inguru. Egonkortasuna ikus daiteke migrazio-fenomenoaren dimentsio kulturalari buruzko adierazle erlatiboetan ere: Hala, immigranteek “Andaluziako bizitza kulturala aberasten dutela” uste dutenak %59tik gora dira hiru edizioetan.

Halaber, immigranteak Andaluziako gizartean txertatzeari eta haien eskubide sozial zein politikoak izateko aukerari dagokionez, 2010eko emaitzak aurreko edizioetan lortutako emaitzetara hurbiltzen dira neurri handi batean. Hala, 2010ean andaluziarren %90ek uste dute immigranteek espainiarren eskubide berdina dutela hezkuntza publikora sartzeko, aldiz, %78 dira osasun-sistemaren gainean iritzi bera dutenak. Asko dira –%70etik gora– pentsatzen dutenak egoera erregularrean dauden immigranteek espainiar nazionalitatea lortzeko eta udalerrian bozkatzeko aukera izan beharko luketela, oro har, helburu-gizartearen alor guztietan parte hartzeko aukera. Dena den, krisia hasi zenetik, aipatu ditugun eskubide horiek zuten babes zertxobait aldatu bada ere, aldaketarik handiena jasan duen arloa familiarren berrelkartzearena da, izan ere, askoz ere babes gutxiago du orain, aurreko edizioekin alderatuz; pentsatzekoa da horren arrazoia eskubide horren gaineko inplikazio demografikoak direla, izan ere, lan-aukera eskasa denean, inplikazio horiek ikusteko modua ez da orain urte batzuk bezain baikorra.

Andaluziarrek migrazio-fenomenoaren dimentsio desberdinei zein horren bilakaerari buruz dituzten iritziak laburbiltzeko, OPIAk bere hiru edizioetarako egin dituen inkestak emaitzetan ikusten den jarrera tipologiari erreparatu diezaiokigu. Emaitza horien artean lau jarrera bereiz ditzakegu: solidarioa, funtzionalista, mesfidatia eta baztertzalea.

Jarrera *solidarioa* duten pertsonak migrazioaren aurrean oso ikuspuntu onbera dute, immigranteen presentziak helburu-gizartearentzako dituen alderdi positiboak azpimarratzen dituzte, aniztasunaren eta aberastasun kulturalaren alorrean, bereziki. *Funtzionalistek* immigranteen presentzia baloratzen dute, lan-merkatuarentzako eta helburu-gizartearen ekonomia-eraren garapenerako laguntza diren aldetik. Izan ere, immigranteek, sarritan, bertako langile nahikoa ez dauden sektore eta okupazio-mailatan egiten dute lan. Bestalde, *mesfidatiak* beldur dira migrazioak izan ditzaketen inplikazioez, bai kulturaren alorrean (gizartearen arau eta legeetara ez egokitzea), bai eta ekonomian ere (lanpostuak lortzeko konparaziozko bidegabekeria, bereziki). Halere, bai funtzionalistek eta bai mesfidatiek posible (eta desiragarri) ikusten dute immigranteen kolektiboa helburu-gizartearen bizitzaren sozial eta politikoan txertatzea, iritzi hori bera du jarrera solidarioak, modu enfaticoagoan. Azkenik, *baztertzaleak* ditugu. Horiek, immigranteak erabat arbuatzen dituzte eta immigranteen aldetik borondate eta/edo gaitasun falta sumatzen badute, garbi ikusten dute ezinezkoa dela horiek helburu-gizartearen txertatzea.

Immigranteen gaineko ikuspuntuaren aldaketaren ondorioz, zailagoa da identifikatutako jarrera horietatik bi gizaratean zabaltzea. OPIA-lean eta OPIA-IIan funtzionalisten taldea izan zen ugariena (%38 inguru), 2010ean aldiz mesfidatiarena zen andaluziar gehien biltzen zuen taldea. Solidarioak eta baztertzaleak %19 eta %16 dira, hurrenez hurren, inkestaren aurreko edizioetako aldaketa nabarmenik gabe. Laburbilduz, atzerapen handiaren lehenengo bi urteetan, hamar andaluziarretatik batek gutxi gorabehera, migrazioarekiko bere iritzia aldatu zuen, “funtzionalista” izatetik “mesfidati” izatera igaroz. Ziurrenik, aldaketa honek jarraipena izango du zenbait urtetan, bereziki, kontuan hartzen badugu funtzionalisten eta mesfidatiaren profil soziodemografikoak antzekoak direla, eta oro har, biztanle andaluziarren ezaugarri orokorren antza dutela. Solidarioen artean, bestalde, nabarmentzekoa da segmentu gazteenen presentzia handia dela, bai langile eta ikasleena, bai eta bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsona ere. Horien ideologia zentro-ekzterrekoa da. Bere aldetik, baztertzaleen artean gehiago dira 64 urtetik gorakoak direnak, hezkuntza-maila murrizta dutenak eta ideologikoki eskuinetik hurbilago daudenak.

### 3. Azken gogoetak

Migrazio-fenomenoaren gaineko dimentsio laboral eta demoskopikoari dagokionez, 2008an hasi zen krisiak erabat aldatu ditu gauzak. Alde batetik, krisiaren ondorioz lan-merkatuaren segmentazioa gero eta nabarmenagoa da eta hobekuntza progresibo baterako aukera gero eta txikiagoa da. Horren frogak da leku batean bizitzen daramazun denbora eta, beraz, lanerako duzun aukeraren artean egon den aldaketa. Bestalde, oparoaldiaren garaian migrazioaren eta horren eraginarekin gaineko iritzia konparatiboki ona bazen ere, badirudi krisiak eragina izan duela eta aldatu egin dela bertako biztanleriaren kostu eta irabazien ekuazioei buruz duen ikuspuntua.

Joera hauek ez dira soilik Andaluzian ikusten, Espainiako beste zenbait lekutara ere zabaltzen dira (nahiz eta intentsitate desberdinarekin), izan ere, krisi ekonomikoak Espainia barruko administrazioaren mugak gainditzen ditu, eta krisia mundu mailakoa bada, baita kanpoko mugak ere.

Dena den, Espainian krisi ekonomikoaren etxeko alderdia, zoritxarrez, nahikoa garrantzizkoa da eta horrek zaildu egingo du bere bilakaera, inguruko beste zenbait lurraldetakoarekin alderatuz. Beraz, beste lurraldeak nahiko azkar suspertzeak ez du esan nahi Espainiaren kasuan berdin gertatuko denik, horrek ez baititu automatikoki konponduko Espainiak gero eta urrunago dagoen *urrezko hamarkadan* pilatutako desorekak.

Espainiako krisia latza eta luzea da, eta horrek heldutasun-maila altua eskatzen du, ez politika-mailakoa soilik, baizik eta hiritar guztiena, gauza ez da petxeroen bila aritzea. Gaur egun, esanenezake alderdi guztiek erakutsi dutela kezkatzen gaituen arazo honen gaineko gaitasuna; eta hori aintzat hartzekoa dela

## Bibliografia

- Coenders, M. et al. (2005). *Majority populations' attitudes toward migrants and minorities: key findings from the Eurobarometer and the European Social Survey*. Viena: European Monitoring Centre on Racism and Xenophobia.
- González Enríquez, C.; Álvarez Miranda, B. (2005). *Inmigrantes en el barrio. Un estudio cualitativo de opinión pública*. Madril: Immigrazioaren Behatoki Finkoa (Lanaren eta Gizarte Gaien Ministerioa).
- González Enríquez, C. (zuz.) (2008). *Los sindicatos ante la inmigración*. Madril: Immigrazioaren Behatoki Finkoa (Lanaren eta Immigrazioaren Ministerioa).
- Méndez Lago, M. (2007). "Actitudes ante la inmigración. Una mirada desde las encuestas". En Aja, E. y Arango, J. (arg.) *La inmigración en España en 2006*. Bartzelona: CIDOB Fundazioa, 68-81. orr.
- OPAM (2009). *Informe Anual "Andalucía e Inmigración 2008"*, Sevilla: Andaluziako Batzarreko Lanbide Saila.
- OPAM (2010a). *Informe Anual "Andalucía e Inmigración 2009"*, Sevilla: Andaluziako Batzarreko Lanbide Saila.
- OPAM (2010b). *La influencia de la crisis económica en la situación laboral de los inmigrantes: el desempleo. Informe semestral "Tema OPAM", 2.zk. (2010eko ekaina)*. Sevilla: OPAM.
- Rinken, S.; Pérez Yruela, M. (2007). *Opiniones y actitudes de la población andaluza ante la inmigración*. Sevilla: Andaluziako Batzarreko Barne Arazoetako Saila.
- Rinken, S.; Silva, M.; Velaso, S.; Escobar, M. (2009). *Opiniones y actitudes de la población andaluza ante la inmigración (II): Entre la estabilidad y el cambio*. Sevilla: Andaluziako Batzarreko Lanbide Saila.
- Rinken S.; Velaso, S. (2010). La evolución de la opinión pública andaluza ante la inmigración: indicios de estabilidad y cambio en época de crisis económica". *Migraciones* 28. zk., 2010eko abendua: 55-86.

Rinken, S. (2011). “La evolución de las actitudes ante la inmigración en tiempos de crisis económica: un análisis cualitativo”, *in* E. Aja J., Arango y J. Oliver Alonso (arg.), *Y después de la crisis, ¿qué? Anuario de inmigración y de políticas de inmigración en España*. Barcelona: CIDOB Fundazioa (prentsan).



## Migrazioen joera berria eta Kanariar Uharteetan izan duen eragina

**Vicente Manuel Zapata Hernández**

**La Laguna Unibertsitateko Giza Geografiako Irakasle Titularra  
Tenerifeko Immigrazioaren Behatokia**

Azken hamarkadan Kanarietako migrazio-mugimenduak aldatu egin dira. XX. mendeko 60ko hamarkada amaiera arte historikoki Kanariar Uharteetako jendeak atzerrira emigratzeko joera izan badu ere, nazioarteko migrazioen testuinguru berrian Kanariar uharteak erakargarri bihurtu dira iberiar penintsulako zein atzerriko etorkinentzat. Etorkin berri horiez gain, aspaldi atzerrira joan ziren kanariar jatorriko asko beren familia eta guzti bueltatu ziren jaioterrira eta era berean Kanariar Uharteek kanpo-irekiera prozesuan murgildu ziren eta zenbait kanpotarrek, ez askok, bizilekua Kanarietan jarri zuten tradizioari jarraituz. Oro har, nazioartean halako korapilo bat sortu zen baina egoera hura gaur egungoa ondo azaltzen du.

Kanariar Uharteek beste herrialdeekin harreman estua izan dute eta uharteak isolatuta edo sakanatuta egon arren, horrek ez du Uharteetako mugikortasuna oztopatu garaiaren arabera migrazioen balantzearen zeinua aldatu egin bada ere. Bestetik, uharte barruko eta uharte arteko joan-etorriak areagotu egin dira urteetan zehar, lehenengoak nabarmendu dira batez ere eta horiek eskualdeen banaketa aldatu egin dute. Hori guztiaz gain, ohiko mugimenduak ere asko izan dira, pendulu erako mugimenduak; bizilekua, lana eta aisialdi-guneak elkarrengandik aparte daudela eta era berean uharte barruko erraztasunak eta uharte arteko komunikazioa hobetu direlako.


1971tik 2008ra, nazioarteko krisi ekonomikoaren eraginak nabaritzen hasi ziren urteetan, zeharkako kalkulua eginez, 304.624 etorkin gehiago zenbatu ziren Kanarietan. Populazioaren hazkunderaren %41,3a betetzen zuen zenbateko horrek; hau da, Kanarietako bost biztanle berrietatik bi etorkinak ziren. Kanpotarren etorrera, XX. mendeko 90eko hamarkadako bigarren zatian nabaritu zen eta XXI. mendean ere bai, egungo krisi ekonomikoak prozesu hori eten duen arren. Beraz, bertako populazioaren hazkundera jaiotza naturalak gero eta gutxiago izan dira eta hazkunde demografikoa batez ere etorkinei esker gertatu da, inoiz baino etorkin gehiago iritsi baitira azken urteotan Kanarietara.

Egungo migrazio-mugimenduak kanariar populazioaren ezaugarriak aldatu ditu jatorriari dagokionez. XXI. mende amaierako lehen hamarkadako datuak kontuan hartuta populazioaren laurden bat kanpoan jaiotakoa zen (%26,5 2010ean); kanpoan jaiotakoa diogunean, atzerrian jaiotakoez eta Espainian bertan baina beste Autonomi Erkidego batzuetan jaiotakoez ari gara. Zalantzarik gabe, Kanarietako populazioaren aldaketa nabariena beste jatorri batzuen protagonismoak eka-

## EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria


rri du eta 2010ean, esaterako, ia 5etik 1 beste herrialde batekoa zen, 386.695 etorkin baitzeuden guztira. Datu hori 1991koarekin alderatuz 6,3 aldiz handiagoa da. Espainia mailako datuak aztertuta, Espainiako atzerritar kopuruaren %5,9 Kanariar Uharteetan dagoela esan daiteke, beraz, pisu handia dute Kanariar Uharteek nahiz eta azken urteotan beste leku batzuek ere indarra hartu.

1. grafikoa. Kanarietako bosturteko migrazio-balantzea 1981etik 2005era



Iturria: EIN, *Populazioaren Mugimendu Naturala, Populazioaren Errolda eta Populazioaren inguruko estimazioak. 1981-1991 eta 1991-2001, Populazioaren errolda-arteak estimazioak. 2002-2005, Espainiako Egungo Populazioaren Estimazioak*

2. grafikoa. Kanariar populazioaren jaiotekua 1991, 2001 eta 2010ean



Iturria: EIN, *Populazioaren Errolda 1991 eta 2001ean. Kanarietako Estatistika Institutua Biztanleen Udal Errolda, 1-1-2010*

Atzerrian jaiotako kanariar populazioaren %85,5 Amerika eta Europakoak dira, orain gutxi arte Europatik etorritakoak gehiago ziren baina azken urteotako aldaketak bi herrialdeak berdindu ditu. Nazioarteko lehen hamar jatorriak: Venezuela, Alemania, Erresuma Batua, Kolonbia, Kuba, Maroko, Argentina, Italia, Uruguay eta Frantzia dira eta 2010ean atzerritar populazioaren %68,3a betetzen zuten, zerrenda horretan ehunka jatorri desberdin agertzen dira. Datu horiek argi erakusten dute Kanarietako gizarte-egituraren ezaugarri berria; biztanleria anitza eta multi-kulturala dela, alegia.



1. taula. 2010ean Atzerrian, Espainian eta Kanarietan jaiotako jatorria

	Espainia	%	Kanariak	%	Pisua
Europa	2.676.362	40,5	168.867	43,7	6,3
Afrika	1.076.389	16,3	36.730	9,5	3,4
Amerika	2.502.134	37,9	162.078	41,9	6,5
Asia	342.292	5,2	18.721	4,8	5,5
Ozeania	7.004	0,1	299	0,1	4,3
GUZTIRA	6.604.181	100	386.695	100	5,9


Iturria: EIN, Biztanleen Udal Errolda, 1-1-2010

Harrigarria suerta daiteke Kanarietan Afrikako etorkinek presentzia eskasa izatea, kontuan izanik bi herrialdeak hurbil daudela eta itsasoz Kanarietara afrikar asko iristen direla. Baina, egia esan, Kanarietara beti iritsi izan dira etorkin asko Europatik, XX. mendeko bigarren zatian are gehiago. Herrialdeak turismoa garatu eta Kanariak erakargarri bihurtu ditu; bai klimak bai etxebizitza lortzeko garaian eskaini dituzten erraztasunek lagundu dute horretan. Azken urteotan, Europar Batasunetik kanpoko etorkin gehiago etorri da lan-egoera onak erakarrira, latinoamerikarrak gehienak. Bestalde, Kanariar Uharteak eta inguruko herrialde afrikarren arteko harremana ez da batere estua izan, hutsune handiak egon dira eta horiek alderdi guztietatik Kanariar Uharteekiko lotura oztopatu dute.

2006. urtera arte Kanarietako migrazioen saldo garbia ezagutzea ezinezko zen, urte horretatik aurrera beste herrialdetara egindako emigrazioak argitaratzen hasi zen Bizileku Aldaketen Estatistika. XX. mendeko 90eko hamarkadako azken hirurtekotik aurrera atzerritar asko hasi ziren etortzen eta etorkin kopuruak goraka egin zuen etengabe 2007. urteraino; 2008. urtetik aurrera beherakada izan zen nahiz eta oraindik ere zenbatekoak handiak izan. 2009. urtean, esaterako, Kanariar Uharteetara espainiar nazionalitatea ez beste bat zeukaten 21.865 pertsona iritsi ziren atzerritik. Bestalde, 1998tik 2009ra atzerritik 366.315 bizileku-aldaketa egin ziren; udal-errolan populazioaren bajak zenbatzen hasi zirenetik, zenbatekoa goraka joan da baina kopuru totala ez da hain handia, 21.698 pertsona 2006 eta 2009 artean, hala ere, benetan direnak baino gutxiago zenbatu zirela uste da.

Espainiatik etorritako migrazioak eta atzerritik etorritakoak alderatzen baditugu ondoko hau nabarmentzen da: 1988tik aurrera Espainiatik iritsitako etorkinen fluxuek bere horretan jarraitu zuten, goranzko joerarekin gainera. Atzerritik, aldiz, 2000. urtetik 2007. urtera bitartean iritsi ziren gehien. Alabaina, 2008. urtean mundu mailakoa zen krisia estatu mailan eta herrietan ere nabaritu zenean migrazioetan aldaketa etorri zen eta migrazio-saldoa negatiboa izatera iritsi zen Kanarietan, Espainiako gainerako herrialdeetan ez bezala. Batetik, etorrerak gutxitu zirelako, eta bestetik, Uharteetatik kanporako irteerak areagotu zirelako. Irteera horiek atzerritar jatorriko pertsonen kasuan ez dira asko izan, nahiz eta Kanarietako egoera ona izan ez, kanpora alde egin beharrean badirudi, momentuz, lekuan bertan geratu eta egokitze saiakerak egiten ari direla. Familiako senideak batzea eta lana ez bestelako interesak agian mugikortasunerako arrazoi garrantzitsu bilakatu dira, orain lehen baino gehiago.


3. grafikoa. Kanarietako udal-erroldeko izen emateen bilakaera jatorriaren arabera 1988 eta 2000. urteen artean



Iturria: EIN, Bizileku Aldaketen Estatistika

Atzerritik datozenak, batez ere, Europar Batasunetik eta Latinoamerikatik iristen dira; izan ere, aurretik aipatu bezala azken hamarkadan bi herrialde horietatik etorri da jende gehien Kanariar Uharteetara. 1988. urtetik udal-erroldean alta eman duten guztien %79,7 Europa eta Amerikako etorkinak dira, Afrika eta Asiatik, berriz, etorkin gutxi iristen da oraindik. Hori ez da horrela gertatu, ordea, Espainiako beste leku batzuetan; Afrikatik eta orain arte etorri ez ziren Asiako herrialde batzuetatik etorkin asko iritsi dira eta horrek ugaritu egin du nazionalitate kopurua. Horixe da Kanariar uharteetako migrazioa Espainiakotik bereizten duen ezaugarrietako bat, Afrikako etorkin gutxi bizi direla Kanarietan, alegia; eta urteetan atzera egiten badugu ere, beti horrela izan dela konturatuko gara, nahiz eta paperik gabeko pertsona asko iritsi izan den txalupetan Uharteetara.

4. grafikoa. Atzerritar jatorriko populazioaren bilakaera Kanarietan kontinenteen arabera 2000. urtetik 2010. urtera




Iturria: EIN, Biztanleen Udal Errola, 2000-1-1etik 2010-1-1era

Aipatu beharrekoa da Kanariar Uharteetan gertatzen den *itzulera-migrazioa*, XX. mendean zehar kanpora alde egin zuten eta kasu batzuetan Espainian jaio izan arren Kanarietara, beren sorterrira, bueltatzen direnen etxeratzea da hori. Etxeratzen direnean herrialde berrian sortu duten familia osoa etortzen da, batez ere, Erdialdeko Amerikatik, Hego Amerikatik eta Mendebaldeko

Europatik iristen dira. Datuen arabera, berez Kanarietan jaiotako bostehun pertsona inguru bueltatzen dira sorterrira urtero.

Venezuela da aipaturiko *itzulera-migrazio* kasuen jatorri nagusia, hala ere, Venezuelako egoera txarra da, han bizi diren kanariar emigranteak oso edadetuak dira eta herrialde berrian errotuta daude; hori guztia dela eta itzultzen direnen kopurua txikia da, dagoeneko garai bateko emigrazio-olatu urrun geratu da. Hala ere, Kanarietako atzerritar gehienak venezuelarrak dira, 48.744 biztanle 2010ean, atzerrian jaiotako populazioaren %12,6. Nazionalitatea egitate juridiko gisa ikusita, berriz, alemana eta britainiarra dira nabarmenenak Uharteetan eta hori urteetan zehar bi herrialde horien eta Kanariar Uharteetan arteko harreman onaren adierazgarri da.

5. grafikoa. Dokumentaziorik gabe eta legezko kanpoko lekuetatik iritsi diren etorkinak 1994tik 2010era



Iturria: Kanarietako Gobernuaren Ordezkaritza

Gaiarekin jarraituz, itsasoz eta legez kanpoko egoeran Afrikatik Kanarietara etorritakoak 96.239 pertsona izan dira 2.899 txalupatan, 1994 eta 2010 urteetan zehar. Kanarietako Gobernuak emandako datuen arabera, 2002tik 2008ra iritsi ziren modu honetako etorkin gehien, gogora dezagun *kayukoen krisia* 2006an. Urte horietan guztietan, 90eko hamarkada erdialdetik aurrera, zentzu horretan ere aldaketak gertatu dira, gero eta Afrika hegoaldeagotik etortzen dira eta protagonismoa hartzen hasi dira Sahara azpiko herrialdeetako etorkinak ere; oro har, Tenerife eta Kanaria Handia hartzen dute bizilekutzat. Europak FRONTEX izenekoa martxan jarri zuenetik Ozeanoaren alde horretako itsaso-kontrola indartzeko asmoz eta nazioarteko krisiaren eraginez lanera gero eta etorkin gutxiago etorri denez, Uharteetan dagoen ustezko mugikortasuna ezerezean geratu da.


Azken hamarkadan populazioaren dinamika naturalak eta migrazio-prozesuek Kanariar Uhartei bultzada eman diete eta biztanleria %54,6 hazi da 1981tik. Hala ere, hazkundea ez da berdinean gertatu eskualde guztietan, leku berrietan jarri dute arreta kanpotar askok eta leku horiek biziberritu egin dituzte, Uharteetako beste leku batzuetan, aldiz, demografiaren beherakada gertatu da eta bizitzarik gabeko herri bilakatzeko zorian geratu dira zenbait. Immigrazioaren ekarpena ez da homoginoa izan, jatorri desberdinetako jendea iritsi delako eta horren arabera Kanarietako populazioaren egitura demografikoak aldatu egin da.

Gizarteko egitura berri horien arteko aldea jatorriaren arabera da eta kontrastea handia da. Esaterako emigratzeko motibazio orokorra desberdina da herrialdearen arabera eta horrek markatzen ditu oro har migrazio-fluxuak. Europarren kasuan bizilekua eta enplegua dira emigratze-

ko motibazio nagusiak eta emigratzen duten europarrak adinez helduagoak dira amerikarrak baino. Azken horien kasuan, aldiz, migrazio-prozesuan familia osoak hartu ohi du parte eta emakumeek pisu handia dute.

Afrikako eta Asiako immigrazio-egituren artean ere aldeak daude. Afrikarrak gizonezkoak dira batik bat eta lan-merkatuan sartzeko adinean iristen dira. Asiarrak, berriz, asko gizonezkoak dira eta beren ezaugarrietako bat da familia osoa etortzea. Pertsona gazteen etorrera murriztu egin da, ez dago gazte nahikoa; eta beraz, gaur egun ez da posible kanariar gizartearen zaharkitzea eragozte.

6. grafikoa. Sexua eta adinaren arabera 2010ean atzerrian jaiotakoak eta Kanarietan jaiotakoak alderatuz



Iturria: EIN, Biztanleen Udal Errolda, 2010-1-1

Iberiar penintsulako eta Kanarietako gizarte-egituretan zegoen aldea berdintzen joan da, immigrazioari esker penintsulako populazioa gaztetu egin delako. Kanariar Uharteetara iritsi diren fluxuek populazioaren zaharkitze-prozesua moteldu dute nolabait baina espero baino gutxiago. Alabaina, pertsona edadetuak ere iritsi dira Kanarietara: bizileku-aldaketa nahi zutelako, horixe izan da arrazoi nagusietako bat, atzerrian bizi izan ziren kanariarrak itzuli egin direlako edo migrazio-prozesuko ibilbidea jarraitzen duten lan bila dabiltzan immigratzaileak ere Kanariar Uharteetatik pasa direlako.

Lehen aipatu bezala, bertako populazioan atzerritarren pisua ez da berdin nabaritu uharte guztietan, batez ere Fuerteventura eta Lanzaroten nabaritu da. Bi leku horietan 2010. urterako populazioaren %30 atzerrian jaioa zen, horrek erakusten du azken hamarkadetako fluxuen intentsitatea. Antzeko zerbait gertatu da Kanaria Handia eta Tenerifen ere, batez ere hegoaldean dauden zenbait leku turistikotan; populazioaren bi bosten baino gehiago atzerrian jaiotakoa baita leku batzuetan. Tenerife hegoaldean dauden Santiago del Teideko eta Adejeko kasua bitxia

da, azken errolda-kontaktaren arabera populazioaren erdia baino gehiago beste herrialde batzuetan jaioa da. Esan bezala jatorriaren arabera desberdintasunak daude, protagonismoa batez ere europarrek eta amerikarrek daukate eta horiek Kanarietara emigratzeko arrazoi nagusiak: bizileku-aldaketa nahi izatea eta lana bilatu nahi izatea dira.

2. taula. Atzerrian jaiotako populazioa kontinentearen eta aukeratutako Kanarietako uhartearen arabera 2010

Uhartea	Biztanleria	%	Atzerria	%	Pisua	Europa	Afrika	Amerika	Asia	Ozeania
Lanzarote	141.437	6,7	43.605	11,3	30,8	18.664	6.487	15.994	2.431	29
Fuerteventura	103.492	4,9	35.347	9,1	34,2	17.505	5.715	11.040	1.060	27
Kanaria Handia	845.676	39,9	102.607	26,5	12,1	37.244	14.729	42.972	7.596	66
Tenerife	906.854	42,8	182.749	47,3	20,2	84.975	9.283	80.949	7.396	146
Gomera	22.776	1,1	4.806	1,2	21,1	3.010	165	1.569	59	3
Palma	87.324	4,1	14.928	3,9	17,1	6.637	291	7.815	159	26
Hierro	10.960	0,5	2.653	0,7	24,2	832	60	1.739	20	2
KANARIAK	2.118.519	100	386.695	100	18,3	168.867	36.730	162.078	18.721	299

Iturria: EIN, Biztanleen Udal Errolda, 2010-1-1

Tenerife da gehien aukeratu duten herrialdea, 2010ean Tenerifeko populazioaren %47,3 atzeritarra zen eta haien emigratzeko motibazioa eta jatorrizko herrialdea askotarikoak ziren. Bertako populazioaren lautik bat beste herrialde batean jaio da, European, Hegoamerikan edo Erdialdeko Amerikan, besteak beste. Hori horrela, Tenerifen gogotik saiatzen ari dira errealtate konplexu eta anitz hori modu egokian aztertu eta kudeatzen, erakunde publiko zein pribatuetatik ekintza integraziaileak sustatuz. Zentzu horretan, egungo egoera kaskarrak integrazio-prozesuari buruzko ideia indartu du eta horretan lan egin behar dela konturatu dira kohesio soziala lortzeko; izan ere, migrazio-fluxuen kontrolaren gainean egiten diren betiko diskurtsoez gain, integrazio-prozesuen eboluzioa edo gizartean dagoen aniztasuna kudeatzeko beharra geri eta argiago ikusten da, krisi ekonomikoaren eraginez sortu daitezkeen bazterketa-egoeran aurrean, esaterako. Bazterketa-egoera horiek gertutik ezagutzen dituzte Kanarietara immigratu duten familiek, askotan haiei egotzen baitzaie bertako populazioa jasaten ari den egoera kaskarra eta ahaztu egiten zaigu haiek direla enplegu-gabezia gehien nozitu dutenak, beren egoera are gehiago eskastuz. Batasuna lortzea da bertako gizarteak aurrera begira duen erronka da elkarbizitza indartzeko.

Hori horrela, hainbat ekimen egin dira eskualde, uharte zein herri mailan Kanarietan izandako fenomeno multidimentsionala ondo aztertu eta kudeatzeko, eta era berean beste leku batzuetarako eredugarri izan dadin. Kanarietako Parlamentua, immigrazio gehien jaso dituzten herrialdeak, organizazio solidarioak, unibertsitateak eta hedabide sozialak eta dirudienez gero eta jende gehiago ari da gai horretaz arduratzen. Arduratzea komeni baitzaie Kanariar Uharterei, immigrazioa azken urteetako historiaren parte izateaz gain, bertako gizartea modernizatzen lagunduko baitu.





4

## **Etorkizunera begirako gogoeta eta aurreikuspenak**





## Demografia eta immigrazioa Spainian: Analisi erreal eta zentzuduna

Luis Die Olmos

CeiMigra Ikasketa-taldeko kidea

Valentziako Unibertsitate Katolikoko irakaslea

### 1. Errealitate bat eta bi etorkizun

Espainiako demografia sostengaezina da. Horrela dio Castellsen esaldi famatuak: “Espainiarrok haurrak izan behar genituenean, ez genituen etxeko lanak egin. Orain etorkinak behar ditugu”. Ondoko lerroetan azalduko dugun bezala, demografia sostengaezina izateak ekonomia eta sistema publikoa zein pribatua ere (osasuna, hezkuntza, babes soziala, batez ere) sostengaezin bihurtzen ditu.

2025. urtean, Spainian 8.473.275 pertsonak lortuko dute erretiro-adina eta lan egiteko adina, berriz, 7.113.961 pertsonak. Beraz, datu horren arabera, hutsunea betetzeko 1.359.314 pertsona etorri beharko dira kanpotik. 2034. urtean, 15.306.674 pertsonak izango dute erretiroa hartzeko adina Spainian eta lan egiteko adina, berriz, 11.182.105 pertsonak lortuko dute. Beraz, datu horren arabera hutsunea betetzeko 4.124.569 pertsona etorri beharko dira kanpotik<sup>1</sup>, hemen ez baitago behar adina. EINek egindako 2049. urteko populazioaren estimazioaren arabera, behar hori areagotu egingo da gainera.

Bigarren hipotesia ez da etorkizunera begira egindakoa, oraingoa baizik. Gure egungo populazioaren piramidea orekatzeko (5,6 milioi atzerritar daude bertan, legez kanpoko egoeran daude-nak kontuan hartuta) eta azken 30 urteetan jaio ez den pertsona kopurua ordezkatzeko, dagoneko 10 milioi pertsona baino gehiago behar ditugu.

Pertsona horiek hemen ez dauzkagunez, estimazioak alde batera utzita, bada ukaezina den zerbait: etorkinak behar ditugu, hemen geratuko direnak eta seme-alabak hemen izango dituztenak; gure gizartea eta ongizatea mantentzeko beharrezkoak baitira.

Beste kontu bat da gustatu ala ez: etorkinen presentzia gustatzen zaigun ala ez esan eta horren zergatia aztertu beharko dugu; izan ere, nahiz eta politikari batzuek edo zenbait hedabidek kon-

---

<sup>1</sup>Díe, L. (2009). *Miradas desde las migraciones. Con África en el corazón*, Nueva Colección, 1. zk., 6. or. Online eskuragarri 22-3-2011 ondoko web-orrian: [http://www.ceimigra.net/observatorio/images/stories/luis\\_pdf/mirada\\_1.frica.pdf](http://www.ceimigra.net/observatorio/images/stories/luis_pdf/mirada_1.frica.pdf)

trakoa esan, eztabaidatu beharrekoa ez da etorkinen beharra; bai, ordea, guk benetan etorkinak hona etortzea nahi dugun ala ez. Eztabaida hori errealitatekin kanpo dago eta aurreiritzietan bakarrik oinarritzen da eta, gainera, iritziak iritzi, badirudi etorrera gehiago beharko ditugula datozen berrogeita hamar urteetan.

## 2. Egoera demografikoa eta behar ekonomikoa

1929-1933 urteetan Estatu Batuetan izandako krisi ekonomikoaz geroztik nolabaiteko gupil zoroan sartu gara; krisien ekonomia delakoarekin lotuta dagoena eta hori argi edukitzea garrantzitsua da. Ondasun eta zerbitzuen eskaria gutxitzeak produkzioa jaitea dakar arlo guztietan; merkaturatzean, banaketan, salmentan eta zerbitzuetan besteak beste. Horren ondorioz, enpresek irabazi gutxiago dituzte eta horrek zuzenean langile gutxiagoren beharra dakar. Hori horrela, familiak diru-sarrera baxuagoak izateko arriskuan geratzen dira eta egoera horretan kontsumo pribatua jaitsi egiten da, beraz, merkatuko eskaria ere bai. Horrela ixten da zirkulua eta egoera txarrera joaten da aldagaien bat aldatzen ez den bitartean.

Aldaketa gertatzeko aldagaiak ondokoak izan daitezke: gehiegizko produkzioa, 29ko krisian bezala; “burbuilen” eztanda, 2001eko “punto com”ena edo 2007ko higiezinena bezala, edo horrek ekarri duen langabezia; enpresei kredituak emateari utzi izana, bankuen arteko maileguak desagertu direlako; enpresa txiki eta ertainak itxi behar izana, ezin izan diotelako krisiari aurre egin; eta, ondorioz, langabezia igo izana ere bai<sup>2</sup>. Arazo horien kateaketa eta atzeraelikadura lehen azaldutako moduan gerta daitezke.

Zergatik iruditzen zaigu horren garrantzitsua kontu hori? Populazioa jaisteak (etorkinak kanporatzeagatik, borondatez beren herrialdera bueltatzeagatik, etorkinei sarreran eta egonaldian murrizketak ezartzeagatik...) beharrezko ondasun eta zerbitzuen (etxebizitza, kontsumo normala, kontsumo etnikoa, zerbitzu publikoak, kultura- eta erlijio-aniztasun egoeretan sortzen diren hainbat lan espezializatu...) produkzioa jaisten du (merkaturatzea, banaketa eta salmenta). Horrek Espainiako gizarteak behar duen enplegu-maila gutxitzea dakar, eta baita langabeziaren igoera espainiar populazioarentzat ere. Gainera, etorkinen lanaren ondorioz sortutako errentak galtzen dira, eta langabezian edo barne-eskari txikiagatik lanik aurkitu ezinean gelditzen diren espainiar familienak ere bai. Egoera horretan kontsumo-ahalmena txikiagotu egingo da, eta berriz ere eskaria jaitsi; horrela atzeraelikadura prozesu berera bueltatzen gara.

Beste muturrean, Espainiako populazioaren edonolako hazkundeak, nondik datorren eta egoera administratiboa kontuan hartu gabe, ondasun eta zerbitzuen eskariaren goradaka ekarriko ditu; produkzio-maila handiagoa ere bai era berean (baita merkaturatzea, banaketa eta salmenta ere) eta enplegu-maila handiagoa espainiarrentzat. Ondorioz, espainiar familien errentak igo egingo dira (gastuak egiteko gaitasun handiagoa, kontsumo-maila handiagoa eta eskariaren gorakada gertatuko dira), etorkinek lan-errentak sortuko dituzte eta gizarte osoarentzat onura ekonomikoak eragingo dituzte.

---

<sup>2</sup>CeiMigra (2010). *Informe Anual sobre Migraciones e Integración CeiMigra 2009: Migraciones y crisis económica internacional*. Valencia, Fundación CeiMigra. Eskuragarri: [http://www.ceimigra.net/observatorio/images/stories/luis\\_pdf/Informe\\_Anual\\_2009\\_CeiMigra\\_vf.pdf](http://www.ceimigra.net/observatorio/images/stories/luis_pdf/Informe_Anual_2009_CeiMigra_vf.pdf)

Kontua da, hainbat diskurtsok etorkinak espainiarren lehiakide soil gisa irudikatzen dituztela, lan-merkatua estatikoa dela eta “beharrak” aldakaitzak direla pentsatuz. Hori ez da horrela, ordea, ikuspuntu ekonomikotik denok baikara langile eta kontsumitzaile potentzialak. Nola izango da posible enplegu-maila mantentzea, barne-eskaria beherantz badoa geure erabaki propioengatik? Arrazoi horrexegatik, Espainiako krisia gertatu aurreko urteetan, kanpotarren etorrerak kontsumoa eta beraz barne-eskaria igo zuen, ordura arte ezagutu gabeko hazkunde ekonomikoa eta enplegua sortuz. Aurrera egitea posible ote litzateke, bizi dugun krisi egoeran, 5,6 milioi kontsumitzaile gutxiagorekin, nahiz eta horiek atzerritarrak izan?

Gure demografiaren egoerak, dagoeneko epe labur eta ertainera murrizketak ekarriko ditu; erretiroa hartuko dutenak ordezkatzeko eta finantziarioa lortzeko orduan nabarituko dira murrizketa horiek, besteak beste. Finantziarioa diogunean, erretiroak ordaintzeko, osasun publikorako, babes sozialerako, zaharren mendekotasunerako, emantzipatu gabeko gazte eta adingabekoen-tzat behar den diruaz ari gara. Gainera, barne-kontsumoaren jaitsiera gogorra ekarriko du eta arestian aipatu dugun kaltea ere bai enpleguan eta espainiar familien errentetan. Ongizatea eta babes soziala sostengatzeko eta hobetzeko, oraindik zer hobetua badagoelako, eta daukagun gizarte-eredua mantendu nahi badugu, atzerriko langileen/kontsumitzaileen beharra daukagu.

Krisia bera ere ez da etorkinen aurkako argudio egokia. Denontzat lanik ez dagoela esaten denean, galdera egin beharko genuke ea langabezia egoeran Espainiako populazioak jateari, janzteari edo etxe batean bizitzeari uzten ote dion. Espainian pobrezia egoerak badirela argi dago, eta horrek bizi-baldintza gogorrak eta zenbait kasutan muturreko egoerak sortzen dituela ere bai.

Dena den, egoera horiek etorkinak agertu aurretik gertatzen ziren eta horren aurrean ez da inoiz ezer egokirik egin. Baina beste zerbitzu publiko batzuetan gertatzen den bezala, arazoa ez da erabiltzaileen kopurua handitzea, arazoak lehendik datoz (antolaketa txarra, nahikoa edo egokia ez den eskaintza, aurrekontuen murrizketak, propaganda egiteko edo paperean bakarrik geratzen diren politikak, ezer berririk eskaintzen ez duten edo aurrekoen nahasketa diren planak –nahikoa ez zirenak edo ondo funtzionatzen ez zutenak–, egoerari eustea kausak aztertu gabe, aurreikuspen eza, laguntza mugatua...); eta, noski, populazioaren hazkundera gertatzen denean, hori guztia nabarmenago geratzen da<sup>3</sup>.

Zerbitzu publikoetan gabezia larriak daudenez, gainera alde handiak –eta eztabaidagarriak– gertatzen dira autonomia-erkidego batetik bestera zerbitzu eta gastu publikorik ezean, familia bihurtu da pobrezia-aren aurkako benetako babesa. Dena den, pobrezia eta dependentzia egoeran ere pertsonen ondasunak eta zerbitzuak kontsumitzen jarraitzen dute, gastu horien ordainketa erakunderen batek egingo badu ere.

Ez dabilta zuzen, beraz, etorkinak kanporatzea edo “O immigrazioa” eskatzen dutenak espainiarrentzat lanpostuak libre uzteko aitzakian. Ezta borondatezko bueltatze-programak, ez legez kanpoko egoera aitzakiatzat hartuta egiten diren erbesteratzeak ere; azken kasu horietan, gainera, zenbaitetan nazioarteko legedia hausten da eta baita non-refoulement delako printzipioa ere.

Hori guztia proziklikoa da; dagoeneko gainera zikloa martxan da, krisi ekonomikoa eta langabezia areagotzen dira eta, noski, espainiarrengan ere eragiten du. Hori horrela, immigrazioa murriztu beharrean lan-merkatuaren beharretara egokitzeko, pentsatu beharko da populazioaren haz-

---

<sup>3</sup>Díe, L. (2010). “Crisis económica internacional e inmigración”, *Documentación Social*, 158, 131-146.

kundeak lanpostu gehiagoren beharra dakarrela eta hori kudeatzen jakin beharko genukeela. Horixe da etorkizuneko gizarte-eredua, zerbitzu publikoak bermatuko dituen eta desio ditugun ongizatea eta babes soziala ekarriko dizkiguna. Kontrakoa egitea arduragabe jokatzeko eta sistemen ahulezia luzatzea litzateke hori agortzen den arte; horren ondoren, bakoitzak egin dezala ahal duena puskatan hausten den gizarte batean.

### 3. Suarekin jolasean ibiltzea eta arrazismo- eta xenofobia-zantzuak European

Aurreko guztia kontuan hartuta, gezurra dirudi eta lotsagarria da nola erabiltzen den krisiaren kontua (krisiak ez du langile ez etorkinekin zerikusirik izan –kontrakoa–; bai, ordea, espekulazioekin eta bidegabekeriak egiten dituzten politiko konplizeekin), baina etorkinen aurkako argudioak erabiltzen dituzte botoak nola edo hala irabazteko. Estrategia erraza da: gizarteko talde ahulenen egonezinaz eta dagoeneko kaltetuta dauden gizarteko maila ertainekoen beldurraz baliatzen dira, eta krisiaren kontua erabiltzen dute botoak irabazteko. Horrela erabiltzen da krisia –kontrol gabeko espekulazioaren eraginez sortua; eta jakin beharko da espekulazio horiek nor ziren eta zein laguntza jaso zituzten– “Immigrazioak ez digu onik egiten” dioen baieztapena gizartean zabaltzeko edo, are gehiago, immigrazioa arriskutsua dela eta etorkinak etorkizuneko gaizkile direla pentsarazteko.

Estrategia hori oso arriskutsua da; izan ere, hedabideetan egiten diren eraso eta hainbat politikok bidaltzen dituzten mezuen bidez ez da zaila aurreiritziek indar hartzea, kontuan hartuta populazioa ahulduta dagoela, maneiatzeko erraza dela eta ez dakiela egia osorik. Aurreiritziek berez ez dute zertan errealak izan eta ez dute baieztatutakoa frogatu beharrik. Izenak berak dio aurreiritziak direla, aurretikoak direlako eta ez delako errealitatearekin egiaztapenik egiten. Zailak dira oso ezabatzeko, kontrolatzeko eta “kudeatzeko”; errazak, ordea, zabaldu eta hedatzeko. Eta horren jakitun izan beharko lukete pertsonak, hedabideek eta partidu politikoei; Espainian eta European, beldurra eta “desberdinekiko” gaitzespena sortzeko mezuak erabiltzen baitituzte hauteskundeetarako estrategia eta arma gisa, aurkariari kontra egiteko.

Horrela, krisiak eragindako segurtasun eza eta pertsonen zein familia osoen<sup>4</sup> bizi-prekarietatea –horren hasiera eta hedapena krisia baino askoz aurreragokoa da, baita immigrazioa baino lehenagokoa ere– erabiltzen dira guk behar dugun eta gure gizarteak urteetan beharko duen immigrazioaren kontrako argudio gisa. Immigrazioa erabiltzen dute gobernuen eraginkortasun ezaren eta oposizio partiduen aukera faltaren aurrean, baita Europakoentzat bertakoentzat lanpostuak libre uzteko desioan ere (baina lanpostu horiek baliteke beharrezkoak ez izatea populazioak behera egiten badu).

Arduragabekeria horren ondorioz, instituzio demokratikoetako borroka politikoa bada ere, herritarren edo gizarteko taldeen artera zabaltzen dute. Borroka horiek eskrupulurik ez duten benetako su-emaileek pizten dituzte eta, horrela, kontuz zaindu beharreko gizadiaren lorpen handi bat honda dezakete: gizaki guztion duintasun berdina, bestela esanda, gizaki guztion erabateko eskubide-berdintasuna, salbuespen eta baldintzarik gabe. Kontua da, edozein partiduk irabazten duela ere, aurreiritziek eta gaitzespenek biziraun egiten dutela; eta badakigu European zer gertatzen den arrazismoaren eta xenofobiaren mamuak esnatu, aldarrikatu eta politikoki manipulatu

<sup>4</sup>Zubero, I. (2007). “Las nuevas relaciones entre el empleo y la inclusión: flexibilización del trabajo y precarización vital”, *Documentación Social*, 14, Madril.

direnean. Zaila da sinestea ezer gutxi ikasi dugula eta, horrelako kontu garrantzitsu eta hauskorra izanik ere, oraindik arduragabekeriak onartzen direla. Ez dugu horrelakorik merezi.

#### 4. Etorkinen bizi-baldintzak<sup>5</sup>

Etorkinen egunerokoa herrialde berriko baldintza administratibo eta juridikoen arabera dago, baita lanaren eta ekonomiaren egoeraren arabera ere. Azken horiek, finean, lan-legediaren eta Lan-ikuskaritza eta Magistratuak emandako babes eraginkor baten emaitza dira. Bestalde, benetak bizi-baldintzek, gizakion beharrak asetzeko aukera izateak, giza eskubideak, eskubide zibilak, politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak bermatzeak ere eragiten du, noski, etorkinen egunerokoan.

Argi izan behar dugu ez daudela etorkinen esku, ez baldintza juridiko ez administratiboak, ez lan-baldintza ez egoera ekonomikoa. Gure legedia da legez kanpoko egoera administratiboak sortu eta mantentzen dituen eta, horrela, legeztatu gabekoen kopurua goraka doa; izan ere, zorrotasuna eta malgutasun eza dela eta, ez etorkinek, ez enpresariak, ez erakunde sozialek ezin dute orain eta etorkizunean beharko ditugun horien egoera legeztatu. Legedia da herrialde hartzaileen behar demografikoa eta ekonomikoa kontuan hartzen ez duena; ez du ikusten bateraezina direla: batetik, immigrazio-politika, mugen kontrolean oinarritzen dena, polizia-jardunak, legez zalantzazkoak<sup>6</sup> diren zentro itxiak, erbesteratzeak; eta, bestetik, leku eta gizarte bereko pertsona eta talde guztien integrazioarako beharra. Gure legedia txarrak eta politika birtualek ez dute batere errazten gizarte bateratua, ez orainerako ez etorkizunerako.

Bestetik, lan-araudiaren erreformak, ezegonkortasunak eta Lan Ikuskaritzak emandako laguntza eskasa (ez duelako nahikoa baliabide bere lana behar bezala egiteko), enplegu publikoko zerbitzu batzuen eraginkortasun eza, ezkutuko ekonomiaren arazoa konpondu ez izana (bai lan-merkatuan bai produkzio sistemetan), intentsiboa dena kualifikazio baxuko lan-eskuan... horrek guztiak gaur egungo lan-merkatua sortu du; zatikatua, “lan zabor” asko dituen, ordainsari eskasak, giza baliabideen azpienplegua eta gaitasun profesional eta langileen aprobetxamendu txarra dituen, besteak beste. Eta horrek guztiak ez dauka Espainiako etorkinekin zerikusirik.

Arazoa da baldintza juridiko-administratiboek edo lan-baldintza eta baldintza ekonomikoek zehazten dituztela bizi-baldintza errealak. Eta azken horrek ez du bestea aldatzera behartzen, ezta bizitza duina izatek urrun dauden kasuetan ere.

Bizi-baldintza erreal horien arabera egongo da gizakiok gure beharrak ase ahal izatea. Inork ezin du minimo batzuen azpitik bizi; izan ere, minimo horien azpitik ez da posible pertsonaren eta familiaren garapen integrala; kasu horietan, berek aukeratu ez eta zoritxarrez bizitzea tokatu zaie (jakin edo ez zer egin berarekin gero) eta hori ez da inolaz ere duina.

<sup>5</sup>Díe, L. (2010)., “Crisis económica internacional e inmigración”, *Documentación Social*, 158, Madril, 131-146.

<sup>6</sup>Horren harira, ikus ondokoa: <http://www.inmigrapenal.com/>

## 5. Integrazioari buruz, eta bestelako proposamenak

Harrigarria da, helburu politiko gisa “integrazio” moduren bat ezartzea. Nola pentsatuko dugu integrazioan, hiritar guztiei horretarako aukera ematen ez bazaie, eskubide-berdintasunik gabe, gizartean sartzeko neurri eraginkorrik hartu gabe, elkarbizitzarik gabe, integrazio sozial eta ekonomikorik gabe? Badira urte batzuk, Espainian bederen, “bazterketarik gabeko integrazio”aren aldarria zabaldu zela; baina batzuek orain sumatu dute behar hori. Hala ere, gu integratuko ginateke ilegalizatu, kriminalizatu, lanean esplotatu, jarraitu eta erbesteratzen gaituen talde batean? Salbuespenak badauden arren, oro har, enplegua sustatzeko egiten diren ikastaroek ez dute benetan lana aurkitzeko balio (Enplegu Publikoko Zerbitzu batzuetan kontratu berrien %1,7a bakarrik lortzen da<sup>7</sup>). Integrazioa sustatzeko bereziki etorkinei begira egindako ikastaroak antolatzen dira eta, batzuetan, kanpaina bereziren bat ere bai. Baina, nork sustatzen ditu etorkinekiko errespetua, etorkinak begi onez hartzea eta nork jakinarazten dio bertako populazioari gizarteak haien beharra duela? Batzuetan, pertsonak elkar ezagutu eta elkarrekin bizi direnean, hori guztia berez sortzen da, baita gizartean dagoen irudia negatiboa bada ere. Hots, nork ematen die aholku horren guztiaren garrantziaz eta beren jokabide desegokiaren ondorioez jabetzen ez diren politikariei? Posible al da integrazioa helburutzat izan eta, era berean, gatazka etnikoa, kultura-erlijiosoa edo nazionalitateagatikoa bultzatzea?

Gure ustez, eta esperientzia kontuan hartuta, integrazio-prozesua gauzatzeko bi baldintza bete behar dira: benetako berdintasuna bizi-baldintza errealei eta elkarbizitzari dagokienez. Benetako berdintasuna gertatzeko, herritartasuna eta partaidetza behar dira eta, horretarako, sarrera eta egonaldia erregulatzeko bideek azkarrak izan behar dute, horrela etorkinek naziotasuna lortu eta bizilekua legezta dezaten. Lan-baldintza ez-duinen kontrol handiagoa behar da, lan-esplotazioa jasaten dutenei benetako babesa eman behar zaie, gizarteratze eraginkorra egin behar da, harrera-sistema, laguntza, hizkuntza-ikastaroak, erakundeen ezagutza, etxebizitza izateko aukera, eta gizarteratzea (pobreziaren aurkako borroka, bazterketak, prebentzioa, eta pertsona horiek autonomia lortu arteko jarraipena) bultzatu beharko dira; hori guztia bertako biztanleen baldintza bereetan. Era berean, bertako populazioari ere bermatu eta erakutsi beharko zaio neurri horiek berentzat ere badirela; bestela, berriz ere desabantaila-egoera sor liteke eta bertako populazioa kontrari jar daiteke. Kultura-aniztasuna dagoen testuinguruan honako egoera hauek izan beharko lirateke: elkarrizketa eta harreman pertsonala, ustez “desberdinak” direnen artean; bestea desberdina izan daitekeela onartzea; bestearena ezagutuz geurea hausnartzea; umiltasuna eta perfektuak ez garela onartzea; egia, borondatea, justizia eta gizatasuna antzematea bestearengan, eta baita guregan ere; etengabe aldatzen joatea besteekiko harremanari esker; aldaketa sozial eta politikoa aniztasuna onartuz; desberdinekiko errespetua; eta, azkenik, gizakion batasunaz ohartzea, denok berdinak garela alegia eta, finean, kezka eta amets berdinak ditugula.

Baina hori guztia lortzeko oinarri finkoa behar da, erakunde edo pertsona batzuen gaitasunaren eta lan heroikoen menpe bakarrik egon ez dadin. Estatu-itun bat beharko litzateke immigrazioa eta integrazioa espainiar gizarteak duen oinarrizko behar gisa ulertzeko. Hedabideek trataera egokia eman beharko liokete gai horri, bazterketa eta talde arteko gatazkarik ez sortzeko; era berean, aurreiritziak eta benetako errealitatearen inguruko balioespenak desberdinu beharko litzukete. Eta, beharrezkoa eta presakoa da, aspalditik gainera, pobrezia eta bazterketa sozialaren aurkako eta gizarteratzearen aldeko politika erreal eta serioa; aipaturiko gai horien preben-

<sup>7</sup>Eskuragarri online 2011-03-23 ondoko web-orrian: <http://trabajo.excite.es/mas-dinero-y-mas-trabajo-para-el-ser-vef-de-valencia-N15701.html>

tzioan lan egingo duena eta dagoeneko gertatzen diren pobrezia eta bazterketa sozialen kasuen jarraipena ere egingo duena.

Desberdintasun sozial horiek errotik ezabatuz gero, orduan bai, integrazioa izango da helburu nagusia, gizarte bateratu eta integratzailea lortzeko; horrela izan ezean, autopropaganda eta itxurakeria soila izango da.

Uste dut pertsona guztientzat mundu gizatiarragoa eta justuagoa eraikitzeko aukera dugula. Baina, gauza asko aldatu beharko ditugu garen bezalakoak izaten jarraitzeko: desberdinak, baina berdinak hein batean.





## Krisialdiaren ondoren: immigrazioaren garai berria Espainian

Miguel Pajares

GRECSeko kidea (Bartzelonako Unibertsitatea)

Espainian, XXI. mendeko lehen hamarkadan hazkunde ekonomikoa zela eta, immigrazio-fluxu handiak izan dira. Hamarkada horretan etorkin gehien jaso dituen Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko bigarren herrialdea izan da, eta horrela termino absolututan populazio atzerritar gehienetarikoa duen estatua bihurtu da Europan. Krisialdiaren aurretik Espainiako hazkunde ekonomikoa altua zen eta hazkunde hori lan-esku intentsiboa erabiltzen duten sektoreei esker eman zen hein batean.

Garai hori amaitu da. Krisialditik ateratzeko denbora beharko da eta are denbora gehiago, enpleguaren hazkundeari dagokionez. Eraikuntza jada ez da gauza bera izango eta sortuko den lan-eskuaren beharra langabezian geratu direnek beteko dute. Gainera, kontuan hartuta produkzio-eredua aldatzeko apustua egin nahi dela, are lan-esku kualifikatuagoa beharko da baina neurri txikiagoan.

Horrek immigrazioan ere aldaketak ekarriko ditu; batik bat, fluxuen dinamikan, intentsitatean eta ezaugarrietan. Espainian produkzio-eredu berria finkatu nahi bada, ez da 2001etik 2008ra arte behar izan zen etorkin kopurua beharko. Hala ere, badira hainbat ñabardura. Hasteko, produkzio-eredua ez da bat-batean aldatzen. Esaterako, 2009. urtean hasi zen lanpostuen galera-jarioa gelditzeko, berriz ere eraikuntza sektorerako joera zen (2009an enplegurako diru funtsa 8.000 milioi eurokoa zen, 2010ean, berriz, 5.000 milioi eurokoa). Beraz, atzeraldi ekonomikoa amaitu ostean ere, lan-esku intentsiboa eskatzen duten sektoreak garrantzitsuak izaten jarraituko dute ekonomiaren hazkunderako. Dena den, egia da lan-eskuaren beharra hein batean langabezian geratu diren pertsonekin beteko dela. Badirudi, beraz, datorren garai berri honetan etorkinen beharra murriztu egingo dela.

Horixe da epe laburrera egindako aurreikuspena, baina zein da epe luzerakoa? Zein dira gure beharrak etorkizunera begira?

Nazioartean, dagoeneko mendebaldeko herrialdeei jakinarazi zaie (etorkin hartzaileei) kontuan hartu behar dutela atzeraldi ekonomikoaren ostean etor daitekeena. Munduko Lan Erakundeak zalantzan jartzen ditu etorkinen etxeratzea bultzatzeko hartzen diren neurriak, egungo krisialdiaren ondoren lan-eskua beharko dela uste baitu: "Lehenago edo beranduago munduko ekonomia eta estatuetako ekonomiak bere onera etorriko dira." Orain gelditu dagoen lan-eskariak joera aldatuko du. Etorkin kopurua murrizteko behin-behineko neurriak lege bihurtzen badira, eta era berean enpresek lan-eskaria betetzeko ezin badute etorkinik kontratatu, zailagoa izango da ekonomia-

hazkundera abiaraztea. Lan-eskua –kualifikazio altukoa zein baxukoa– luzaroan falta izan duten herrialdeetan gertatuko da hori batik bat. Ez dugu borondatezko etxeratzeen programa gutxietsi nahi, baina badira herrialde eta lan-ingurune berriak dagoeneko ohitu diren etorkinak, eta egoera horietan programaren balioa zalantzan jartzen dugu; izan ere, etorkin berriak gizarteratzeak dakarren kostua etxeratzeen kostua baino handiagoa izan daiteke” (Awad, 2009: 45).

Espanian Europa osoan bezala, etorkinen beharraren inguruko aurreikuspena egin daiteke. Horretarako, kontuan hartuko dira demografiaren ezaugarriak, eta behar den kanpoko lan-eskuaren ezaugarriak aztertuko dira; hau da, lan-esku kualifikatua ala ez kualifikatua behar den. Ezaugarri demografikoekin hasiko gara.

Batetik, europar populazioaren zaharkitzea dago (kontu horri buruz asko hitz egin da). Zentzu horretan, Eurostatek ondoko aurreikuspenak egin ditu: EBn gaur egun 64 urtetik gorako pertsona bakoitzeko lau lanerako adinean daude, baina, 2060an, bi bakarrik egongo dira. Gaur egun Europako populazio osoaren %17,1 64 urtetik gorakoa da; 2060an, berriz, %30 izango da, eta zenbatekoa termino absolututan, egungo 84,6 milioi pertsonatik 151,5 milioi pertsonara pasako da. Dependentsia-ratioa, 64 urtetik gorakoak bakarrik kontatuta, 2008an %25,4koa zen eta 2060an %53,5eko izango da. Horixe da EBko 27 herrialderen batez besteko bilakaera. Espainiakoa pixka bat okerragoa da; izan ere, ratio hori 2008an %25aren azpitik zegoen eta 2060an %59ra igoko da (lan egiteko adinean dauden 100 pertsonako, 64 urtetik gorako beste 59 pertsona egongo dira)(Giannakouris, 2008).

Hurrengo aurreikuspenetan, ordea, immigrazioa ere kontuan hartu da. 2008an EBn 495,4 milioi biztanle zeuden eta aurreikusitako bilakaera ondokoa zen: populazioaren mugimendu naturala (jaiotzak ken heriotzak) dela medio 2060. urtera bitartean 47,9 milioi biztanle galduko dira; hala ere, 58,2 milioi etorkin gehiago egongo direla pentsatzen da; beraz, populazioan aldaketarik ez dela izango uste da, zaharragoa izango den arren (Giannakouris, 2008). Argi dago etorkin horiek gabe demografiaren bilakaera askoz okerragoa izango litzatekeela, populazioak behera egin eta zaharkitzea areagotuko litzatekeelako.

Testuinguru demografiko horretan, etorkinek lan-merkatuan egin dezaketen ekarpena azpimarratu du Eurostatek eta, gainera, epe laburragoan egingo dela dio: datozen 10 urteetan. 2010ean EBn 335 milioi pertsona zeuden lan egiteko adinean (15 eta 64 urte bitartean) eta Eurostatek 2020rako ia kopuru bera aurreikusten du (332 milioi), beti ere immigrazioan aldaketarik ez badago. Datozen 10 urteetan immigrazioerik gertatzen ez bada, 2020an 320 milioi pertsona egongo dira lan egiteko adinean; hau da, orain baino 15 milioi pertsona gutxiago. Epe luzera egingen diren estimazioak (2060. urteraino) ondokoak dira: immigrazioerik gabe, 2060an EBk lanerako adinean leudekeen 100 milioi pertsona galduko litzateke; immigrazioa moderatua bada, 50 milioi; eta immigrazio handia ematen bada, 15 milioi. (Rossi eta Burghart, 2009:5).

Datu horiek argi eta garbi erakusten dute EBk atzeraldi ekonomikoa pasa eta gero ere etorkinak beharko dituela. Baina, zer nolako etorkinak? Zer lanerako? Zer formazio eta kualifikazioekin? Azken urteotan, askotan esan da Europak behar duen immigrazioa kualifikatua edo oso kualifikatua bakarrik dela. Gainera, EBko hainbat herrialdek beren araudiak aldatu dituzte etorkin kualifikatuei sarrera errazteko eta ez kualifikatuei sarrera oztopatzeko. Europako Batzordea hasieran jarrera horren aurkakoa bazen ere, orain alde jarri da eta araudia aldatu du kualifikazio altuko langileen mesedetan (orain gutxi onartu da araudi hori eta langile etorkin horiei *txartel urdina* eman zaie).

Egia da Europar etorkin kualifikatuak behar direla orain eta hala izango da etorkizunean ere, hainbat espezialitatetako profesionalak beharko baitira. Behar hori azken urteotan areagotu egin da mendebaldeko herrialde guztietan; bereziki hauetan: “Australia, Kanada, Zeelanda Berria, Irlanda, Suitza eta Erresuma Batuan kualifikazio altuko etorkinei baimen emateak nabarmen igo dira” (Chaloff eta Lemaitre, 2009:10)

Etorkizunean beharko diren profesional edo langile kualifikatuen beharrari erantzuteko, garrantzitsua da lan-merkatuan sartzan diren gazteek gero eta formazio hobea izatea. Zentzu horretan, aurrerapen asko badira ere, Espainiako demografiaren bilakaerak eragindako hainbat muga daude. “Baliteke datozen bi hamarkadetan langile kualifikatu gutxiago egotea, lan-merkatuan sartzan diren gazteak gutxiago direlako erretiroa hartzen dutenak baino”(Chaloff eta Lemaire,2009: 10).

Hala ere, EBn langile kualifikatuak erakartzeko beharra ez dela gutxituko aurreikus daiteke. Lan-merkatuan sartzan diren gazteen hezkuntza-maila hobek, lan-munduan gero eta emakume gehiago sartzeak, berriz ere lan-merkatuan sartzeko langabezia daudenek jasotzen duten prestakuntzak, langile kualifikatuen immigrazioa jaitziko du, baina ez du erabat ezabatuko. Edozein herrialdetako profesionalak eskuratzeko herrialde aberatsen arteko lehia oso nabarmena zen krisialdiaren aurretik eta badirudi krisialdiaren ondoren areagotu egingo dela. Dena den, horrek beste eztabaida bat sor dezake, herrialde txiroek gal ditzaketen langile kualifikatuak herrialde aberatsek eskuratu nahi dituztelako. Baina gai hori ez dugu orain aztertuko, ez baita txosten honen helburua.

Gaiarekin jarraituz, Europar langile kualifikatuak bakarrik behar ote dituen jakin nahi dugu. Horri erantzuna emateko kontuan hartu behar da Europako herrialdeetan hirugarren sektorea gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari dela. Zerbitzuen sektoreen proportzioa ekonomian goraka doa eta hala jarraituko duela dirudi, nahiz eta Espainian, esaterako, azken urteotako garapenaren oinarria eraikuntza izan den. Zerbitzuen sektorean hainbat azpisektore daude eta ez daukate zeri-kusirik bata bestearekin: batzuek lan-esku kualifikatua eskatzen dute, beste batzuek, aldiz, kualifikazio baxukoa. Zerbitzuen sektorean, industria sektorean ez bezala, deslokalizazioa ezinezkoa da; izan ere, zerbitzuen sektorean jarduten duten enpresek eta langileek herrialdean bertan geratu behar dute.

Hori horrela, eta kontuan hartuta populazioa behera doala, lan-merkatuan gero eta gazte gutxiago sartzan dela, eta gainera, gero eta prestakuntza hobea dutela, norbaitek esan al dezake ziurtasun osoz datozen hamarkadetan Europar kualifikazio altuko etorkinak besterik ez dituela behar? Berriz ere gerta daiteke, behin krisia pasa eta gero, Europako herrialde askok etorkin kualifikatuei sarrera erraztuko dietela eta ondorioz etorkin ez kualifikatuek legez kanpoko egoeran etorri beharko dutela. Hala gertatzen da herrialde batek langile kualifikatuak behar dituela onartzen duenean eta kualifikatuak ez direnen aurrean begiak ixten dituztenean.

Espainiaren kasuan, balio erantsi handiagoa duten jardueren aldeko apustua egiten bada, eta ekonomiaren hazkundera horretan oinarritu nahi bada, langile kualifikatuen eskaria hazi egingo da. Langileen heziketa eta goi-mailako ikasketen hobekuntzak, hein batean, behar hori beteko du baina ez erabat ezta garaiz ere; horregatik, etorkin kualifikatuen beharra nabarmena da, bai Espainian bai Europako beste herrialdeetan ere. Eta kualifikazio baxukoei buruz, pentsa daiteke langabezia daudenak berriz ere lanean hasten direnean, etorkinen beharra gutxituko dela, baina badirudi hori behin-behineko kontua izango dela. Beraz, Espainiaren etorkizuna immigrazioari lotuta egongo da, Europa osoan bezalaxe.

## Bibliografia

Awad, I. (2009). *The global economic crisis and migrant workers: Impact and response*. International Labour Organization.

<http://www.globalmigrationgroup.org/pdf/Global%20economic%20crisis%20and%20migrant%20workers-%20Impact%20and%20response%2001.07.09%20FINAL.pdf>

Chaloff, J.; Lemaitre, G. (2009). *Managing highly-skilled labour migration: a comparative analysis of migration policies and challenges in OECD countries*, OECD

[http://www.oilis.oecd.org/oilis/2009doc.nsf/LinkTo/NT00000ED2/\\$FILE/JT03261489.pdf](http://www.oilis.oecd.org/oilis/2009doc.nsf/LinkTo/NT00000ED2/$FILE/JT03261489.pdf)

Giannakouris, K. (2008). *Population and social conditions*, Eurostat.

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-SF-08-072/EN/KS-SF-08-072-EN.pdf](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-08-072/EN/KS-SF-08-072-EN.pdf)

Rossi, V.; Burghart, N. (2009) *Ageing and migration trends: preparing for change in the EU's labour market*.

[http://www.cii.co.uk/downloaddata/TP16\\_Rossi\\_&\\_Burghart\\_Ageing\\_and\\_Migration\\_30\\_Mar\\_2009.pdf](http://www.cii.co.uk/downloaddata/TP16_Rossi_&_Burghart_Ageing_and_Migration_30_Mar_2009.pdf)

## Immigrazioa eta bere etorkizuna

Dirk Godenau

Tenerifeko Immigrazioaren Behatokia

Azken hamarkadan Espainiak bere historian inoiz hartu duen immigrazio-kopuru handiena jaso eta gero, ekonomia-krisiak egoera aldatu du eta horrek immigrazioaren hurbileko etorkizunari eragingo dio, bai jarioen (migrazioen) tamainari bai stockei (immigratutako biztanleei) dagokionez.

Aldaketa horiek ulertzeko, ezinbestekoa da 1994-2007 epean, Espainiaren azken hazkunde ekonomikoaren garaian, immigrazioak izandako ezaugarri esanguratsuenak aztertzea, labur bada ere. Deskribatzaile horiek honela laburbil daitezke: migrazio-saldoen intentsitate handia; lehenbiziko aldiz iritsi zirenen kopuru handia (gehienak gazteak, eta aipagarria baita emakumekopurua ere); lan-merkatuarekin lotura estua, migratzeko erabakia hartzeko lana baitzen arrazoi nagusia; lan-munduan txertatze erabat segmentatua eta estratifikatua (batik bat merkatuko bigarren segmentuan txertatzen baitziren, baita ezkutuko ekonomian ere, eta ez horrela nahi zutelako); etorkinen jatorria eta norakoa zabalitzen joatea, izan ere, lehenbizi “deseuropartzea” gertatu zen (Batasunetik kanpoko jatorridunak gehienak), eta, ondoren, berriz, “berreuropartzea” (EB handitzea); eta etorkinen proportzio handia egoera irregularrean etortzea edota bizi izatea.

Prozesua hain jendetsua, berria eta etengabe hazten zihoan lan-eskariak bultzatua izanenez, ekonomia-krisiak gogor jo eta lanpostu asko galarazi zuenean, erabateko eraldaketa etorri zen, bai migrazio-jarioetan bai dagoeneko Espainian bizi ziren etorkinen bizi-baldintzetan. Jarioen alorrean, Bizitegi Aldaketen Estatistikak (EVR) erakusten du atzerritik datorren jende-sarreraren etengabe makaltzen ari dela, 920.000 izan baitziren 2007an eta 469.000 2009an; kopurua ia erdira jaitsi zen, beraz, bi urteren buruan. Aldiz, atzerrirako irteerak %43 hazi ziren bi urte horietan, 227.000 pertsona izatetik 324.000 izatera pasatu ziren. Baliteke EVRk emandako zifrak irteeren benetako kopuruaren azpitik egotea, baina, dena dela, datuek irteerak areagotzen ari direla erakusten dute. Atzerriko nazionalitatedun kanpoko etorkinen segmentuan, krisiak gainerrako immigrazioaren jatorriaren araberako kopuruak aldatu ditu. Herrialde batzuetatik, Ekuadorretik esaterako, immigrazioa ia zerora jaitsi da; aldiz, beste nazionalitate batzuetatik, asiarretatik eta afrikarretatik, adibidez, jaitsiera ez da hain bortitza izan. Oro har, eta salbuespenak salbuespen, aldaketa ekonomikoak Amerikatik eta Europatik datozen jarioei eragiten die gehien. Irteeren ugartze hori aztertzean, batzuk itzulerak dira, baina baita espainiarren zein jatorriko herrialdeetara ez, baizik eta beste batzuetara joaten diren atzerritarren emigrazioak ere.

Krisiak aldaketak ekarri ditu barne-migrazioetan ere. Oro har, autonomia-erkidegoen arteko migrazio-saldoen desberdintasuna gutxitu egin da. Erkidego batzuek beren migrazio-saldoa posi-

tibotik negatibora aldatu dute (Valentziak, adibidez), eta beste batzuek negatibotik positibora (Euskadik); gainerakoek beren joera mantentzen dute (Kanarietako saldoak negatiboa izaten jarraitzen du eta Gaztela-Mantxak positiboari eusten dio). Gutxi gorabehera barne-migrazioen %30 atzerriko nazionalitatedun pertsonak dira, eta ehuneko hori, proportzioan, Espainian bizi den biztanlerian atzerritarrek dutena baino askoz handiagoa da; horrek erakusten du atzerriko etorkinak asko mugitzen direla eskualdez eskualde. Ez dirudi ekonomia-krisiak eskualde arteko migrazio-mugikortasuna areagotu duenik, ez eta atzerritar-proporzio handiagorik ekarri duenik ere.

Espainiara immigratutakoen bizi-baldintzen alorrean, krisiak langabezia-tasa berehala igoarazi du, eta areagotu egin du atzerritarren eta espainiarren arteko desberdintasuna. Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) emandako informazioaren arabera, atzerritarren langabezia-tasaren urteko batez bestekoa %28,4 izan zen 2009an, eta espainiarrena %15,9; desberdintasuna, beraz, 12,4 puntukoa zen. Bi urte lehenago, tasa horiek %12,2 eta %7,6 izan ziren, hurrenez hurren; portzentajeen 4,6 puntuko aldea, beraz. Diferentzia areagotze hori arrazoi hauei oso lotuta dago: 1) lan-kontratuaren mota (behin-behineko eta hitzezko kontratuak dira bertan behera gelditzen aurrenak, “azkena sartzen direnak irteten dira aurrena”), 2) etorkinek lan-munduan txertatzeko duten profila; izan ere, pertsona horiek lan egiten duten sektore, zeregin eta lanbi-deetan nabarmendu da gehien krisiaren eragina. Krisiak eragindako beste ondorio bat soldaten beherakada da eta, horri lotuta, langileen arteko konpetentzia areagotzea, lan-aukera gutxi baitago. Gainera, krisiak ezkutuko ekonomia hedatu du, lehendik ere espainiar ekonomian nahiko zabaldua. Azaldutako alderdi horiek guztiek familiek dituzten diru-sarrereri kalte baino ez diete egiten, eta gizarte-bazterketarako arrisku handiagoa sortzen dute.

Egoera ekonomikoa okertu dela ikusi arren, etorkin askok bertan geratzea erabaki du, eta norberari zein familiari eragiten dieten egokitze-estrategiak garatu ditu. Horrela, beren lana eskaintzen jarraitzen dute –eta hori beren jarduera-tasetan ikusten da, altu mantentzen baitira–, lana bilatzeari are eta gogotsuago ekiten diote, lan-aukera beste esparru batzuetara hedatuz eta familia-kideen artean banatuz; eta, kontsumoa jaitsez, gehiago aurrezten dute (bidalketak). Aukera estrategiko hori ohikoa izaten da krisiaren aurreneko aldian, baina lan-esparruko kontuek gaizki irauten badute, aukera horrekin jarraitzea zailagoa da, eta konpentsaziozko diru-sarrereren bilakaeraren esku gelditzen da (diru-laguntzak).

Egoera berri hori erronka gehigarria da integrazio-prozesuetarako. Politika publikoei dagokienez, krisiak erabat gutxitu ditu arlo horretan garatzen diren ekimenentzako baliabide ekonomikoak; izan ere, gero eta murrizketa gehiago dituzte estatuko, erkidegoetako eta tokian tokiko aurrekontu publikoek. Era berean, egoera ekonomiko zail horrek eragina du gizarteak immigrazioari eta etorkinei buruz duen jarreran. Euskadiko datuekin egindako *Ikuspegi 2010 Barometroak* erakusten duen moduan, “ematen du azken urteetan euskal gizartearen jarrera gogortu egin dela, kritikoagoa dela, ez hain tolerantea eta uzkurragoa atzerriko jendearekin”. Gainera, ikusmolde-aldaketa hori ikusten da Espainian abiarazitako immigrazio-politikek duten balorazioan ere. *Transatlantic Trends 2009* txostenaren arabera, inkestari erantzun dioten %64ak uste du Espainiako Gobernuak lan txarra edo oso txarra egiten ari dela immigrazioaren kudeaketa-arloan.

Azken urteotan gertatutakoa eta gaur eguneko egoera ikusita, nolakoa izango da immigrazioaren etorkizuna datozen urteotan? Espainian benetan bortitza izan da lanpostuen suntsipena. Enplegu gehien sortzen zuen estatua izatera iritsi ostean, 2008tik aurrera Europako estatuen artean lanpostu gehien suntsitu dituen estatua izatera pasatu da. Aurreko enplegu-maila berreskuratzeko aukera gutxi ikusten da. Garapen-maila handiko estatu-multzoarentzat egindako kalkuluen ara-

bera, 2008. urtean izandako enplegu-maila ez da 2015. urtea baino lehenago berreskuratuko. Eta Espainiaren kasuan berreskuratze hori motelagoa izango dela uste da. 2011-2012 epean lanpostuak sortzeari buruzko egungo aurreikuspenek langabezia-tasa, ia aldaketarik gabe, %20an mantentzen dute. Horrek Espainiako egiturazko langabeziaren maila handia azaltzen du, eta desoreka horrek berekin dituen arazo guztiak: iraupen-luzeko langabezia, adinekoak lan-munduan berriz sartzeko zailtasunak, gazteek aurreneko lana lortzeko arazoak, eta, gainera, hainbat taldetan, horien artean etorkinak, finkatutako langabezia-tasa handiak.

Espainian bizi den hainbat biztanleren bizi-baldintzak okertuz gero, gizarte-bazterketa gertakariak hazi egingo dira, batik bat langabezia-laguntzak eta gainerako gizarte-laguntza orokor guztiak amaitzean. Faktore horiek guztiek, bateratuta, gizarte-gatazkak ugal ditzakete: ekonomia-baliabide urriko pertsona asko egoteak, aurreko egoera berreskuratzeak aukera gutxi ikusteak, eta kultura-desberdintasunaren pertzepzioa areagotzeak, sarri hainbesterako ez bada ere; eta gatazka-haztegi horretan arrakasta handia lortu ohi dute diskurtso xenofoboek.

Lan-eskaintzaren zati batek bide berriak jorratu beharko ditu lanbideari eta lanpostuei dagokienez. Estatuak prestakuntza sustatzen du nagusiki bide berri horiek hartu ahal izateko, eta egokitze-prozesu horren barnean dago langile atzerritarren prestakuntza eguneratzea eta zabaltzea. Espainiako ekonomiak datozen urteotan sortuko dituen lanpostuak ez dira berriro neurri berean eraikuntza- eta nekazaritza-sektorekoak izango. Aukera berri horiek zerbitzu-sektorean, eta, neurri batean, industriaren ere aurkitu ahal izango dira. Nork bere lana sortzea da, besteren kontura lana izateko aukera urriei aurre egiteko estrategia gisa, krisi-garaietan konpentsazio moduan indartzen den beste erantzun bat. Bai prestakuntzari bai nork bere lana sortzeari begira, langile atzerritar askok alde indartsu bat du, beste eragozpen batzuk albo batera utzita: “mugitzera” ohi-tuta daude, hitza bere esanahi zabalenean hartuta. Eta lan-munduaren ikusmolde hori lagungarri izan daiteke atzerritarrek beren langabezia-tasa jaisteko tresna gisa.

Lana izateko aukera urriak eskaintzen dituen testuinguru horretan, eta “aurreneko etorrera” jendetsuak jaso ondoren, ez da harrizkoa ekonomia-krisia pairatu den urteotan familiek berriz elkartzeko duten joera areagotzea; izan ere, familia elkartzeko arrazoiaren artean lan-esparrukoak ez direnak egoten dira, eta, gainera, familia da etortzeko nahia dutenei oraindik aukerak eskaintzen dizkien legezko immigrazioaren ildo bakanetakoa. Aldiz, Espainian asilo-eskaera eta aitortpen gutxi izaten dira, azken urteotako eskaeren hazkunde-tasa handia izan bada ere eta Magreben izandako 2011. urte hasierako gertakariak eskaera-kopurua handitu badezakete ere.

Datozen urteotako migrazio-saldoen bilakaera-aurreikuspenek, hortaz, neurriko susperraldi baten aurrean gaudela adierazten dute. 2005etik 2007ra izandako immigrazio ugariaren gisakorik ez da berehalakoan izango. Epe ertainean enplegu-aurreikuspenek hobera egiten dutenean, lehenbizi langabezia-tasak behera egingo du, eta ondoren erakarri ahal izango da berriz lan-immigrazioa. Bitartean, etorrerak lan-esparrukoak ez diren arrazoiengatik izango dira gehien, baimen-motei dagokienez behintzat.

Ikuskizun dago immigrazio irregularrak Afrikatik Espainiara joateko erabiltzen dituen itsasbideak suspertuko diren ala ez, eta, horrela izango balitz, zein izango den gertakari horrek izan dezakeen indarra. Gai horri buruz beren iritzia ematen dutenen artean, oinarrizko bi jarrera hauteman daitezke. Aurrenekoaren aburuz, egoera berria Europako alde honetako mugen zaintza neurri batean gogortu egin delako sortu da nagusiki, eta baita kontrol handiagoagatik eta jatorrizko herrialdeekin harremanak estutu direlako ere. Ondorioz, egoera berriak berdintsu jarraituko du, mugen zaintza bere horretan mantentzen bada. Bigarrenaren ustez, arrazoi nagusia jatorriko zein

helmugako *push/pull* faktoreak dira; hots, Europar Batasunean lan-eskaintza indartzean, batik bat Hegoaldeko Europan, eta jatorriko ekonomiek jendea bere herrialdeetan mantentzeko gaitasuna murriztean (uzta txarrak edota ezegonkortasun politikoa, esaterako), orduan bide horrek indarra hartuko du berriz.

Immigrazioari erreferentzia egiten dioten Espainiako estatistika ofizial ia guztiak nazionalitatearen arabera eratzten dira, eta ez pertsonen migrazio-historiaren arabera. Etorkizunean, espainiarrak diren etorkinen portzentajea asko haziko da, nazionalitate hori Espainian bizitako epean eskuratuko baitute. Mugimendu horiek aztertzeko komenigarria litzateke talde horren estatistikak izatea, migrazioen ikerketa longitudinala egiteko beharrezkoa baita gaur egun eskura ez dagoen informazioa. Azpimarratu beharrekoak dira *bigarren belaunaldiak* deituak, etorkizuneko Espainian ordezkari zabalak izango baitute.

Jatorria Europar Batasuneko estatu batean eduki eta, aisia arrazoi, bizileku gisa Espainia aukeratzen duten adineko pertsonen lan-immigrazioak baino ardua gutxiago dute uneko egoerari buruz. Beraz, eta bereziki Europako etorkin horien jatorriko ekonomiek nabarmen hobera egiten badute, datozen urteotan eskualde batzuetako migrazioan (Balearrak, Kanariak, Andaluzia, esaterako) jario-mota horren proportzioak gora egin dezake. Gainera, Ekialdeko Europako herrialdeen baitan egon den irekitzeak balizko migrazio-populazioa gehitu du segmentu horretan.

Krisi ekonomikoak *bat-bateko irregulartasun* asko sortu al du? Orain arte ez; eta esparru horretan duela gutxi egin diren aldaketa legalek egoki laguntzen dute gertakari horrek uste baino eragin txikiagoa izan dezan. Hala ere, krisiak irregulartasunarekin lotutako arazo gehiago ekartzen ditu, irregulartasuna ikuspuntu zabalago batetik aztertzen badugu behintzat. Krisia ezkutuko ekonomiaren hazkundera sustatzen ari da. Gutxienezko diru-sarrerari eusteko eta araututako lan-merkatuan lortutako errenten galera konpentsatzeko, eskulanaren zati batek arautu gabeko jarduerak ugaltzen ditu. Egoera berriak sor dezakeen ondorioetako bat lan-merkatuko segmentu jakin batzuetan kompetentzia areagotzea da. Eskulan gehiegi egoteak soldata murrizketa ekartzen du batzuetan –ez beti–, eta etorkin-populazioaren zati bat jarduera-mota horretan aritzen zen batik bat.

Epe luzerako eta motzerako aurreikuspenak ez dira berdinak. Ziur asko, aurreko guztia baliagarria da orain hasi dugun hamarkadarako, baina joera estrukturalak oso bestelakoak dira. Joera horien arabera, Europar Batasunak demografia-defizit nabarmena izango du, biztanleria asko zahartuko da eta langile kualifikatuen eskaera hazi egingo da. Ondorioz, etorkizunean immigrazioak, eta, batik bat, immigrazio-politika aktiboekin zerikusia duenak (*txartel urdina*), oinarrizko segmentuko langile gehiago ekarriko du EBra, eta langile horiek kontratu eta soldata hobeak izango dituzte. Hala ere, eta horrekin batera, kualifikazio baxuko eskulan-eskaera ere egongo da, produktibitate-aurrerapen urriko zerbitzu jakin batzuetan. Aipatzeko moduko adibideak dira mirabetza eta ostalaritza.

Azken urteotako bere immigrazio-historia dela-eta, gaur egunera arte Espainiak ez du aukerarik izan etorkinekiko finkatutako bazterketa estruktural arazo larririk pairatzeko, Frantzia edo Alemanian gertatzen den moduan. Herrialde horietan atzeritarrek denbora gehiago daramate bertan; Espainian, besterik gabe, oraindik ez da nahikoa denbora igaro datozen hamarkadetan arazo-mota bera ez dela izango esateko. Eta hori gerta ez dadin integrazio-ahalegina egin behar da, bi aldeek egin beharreko ahalegina, eta ez da esparru publikoan izan daitezkeen integrazio-politiketara soilik mugatu behar. Hanka-sartze larria litzateke –eta ez kontzeptuzkoa bakarrik, baita politikoa ere– lan hori erabat administrazio publikoaren esku uztea, “integra gaitzazu”



eskatuz. Horrek ez du esan nahi, ezta hurrik eman ere, integrazio-politika indartsu bat beharrezkoa ez denik. Baina hori ez da nahikoa.

Ez da nahikoa izango, prozesu horietan beste hainbat elementuk eragiten baitute. Etorkin askok, eta baita espainiar askok ere, beste aukerarik ez du, egokitzean, segmentazio-fenomeno sakonak sortu dituen merkatu batean lan-egitea baino. Horren adierazle da enpleguak behin-behinekoak eta aldi baterakoak izatea. Integrazio-politika egokia egiten badugu ere, oinarritzko baldintza orokorrak ez baditugu aldatzen, politika horiek konpentsaziozkoak baino ez dira izango. Egiturazko ezegonkortasun-tranpa horietako batzuk leunduko badituzte ere, ezingo dituzte deuseztatu. Ondorioz, egiturazko eraberritzeak –Espainian aspaldian asko hitz egiten da horiei buruz– baliabide kritikoa dira, eta gogoeta egin beharra dago etorkin-populazioarengan izango duten eraginari buruz.

Komenigarria litzateke ekonomia-krisiak agindutako *impasse* hori baliatu eta Espainiak immigrazio- eta integrazio-politika argia eztabaidatzea eta finkatzea. Sarrera-fluxuetako desoreka zuzendu beharko litzateke, formalki politika murriztailea indarrean egon arren, ekonomia-oparotandian mugak laxatu egiten baitira argiro. Ez da txarra Espainiak zer immigrazio nahi duen argi eta garbi zehaztea. Era berean, integrazio-alorrean, politika horiei buruz oraintsu hasitako eztabaidak ez ditu behar adina erreferentzia eta orientabide. Askok hitz egin da frantziar, alemaniar edota ingeles ereduari buruz. Zein da espainiar ereduak?



## Europaren etorkizuna jokoan

Imanol Zubero  
UPV/EHU

*“Ezinegona, ankerkeria, kontzientziarekiko indarkeria, zapalketa, gezurra, desleialkeria, engainua, Zuzenbidearen arauak haustea? Bai, bai; baina hain daude garbi kale hauek! Hain iristen dira zuzen tren hauek!”<sup>1</sup>*

### Europa, proiektu-egoeran

“Europa antzinakoa eta etorkizunekoa da, aldi berean. Duela hogeita bost mende jaso zuen izena eta, hala ere, proiektu-egoeran dago oraindik”. Hitz horiekin hasten du Jacques Le Goff-ek *La vieille Europe et la nôtre*<sup>2</sup>. Hogeita bost mende, eta proiektu-egoeran oraindik? Baina, hasiera batean kezarako bide ematen duela badirudi ere, horixe da, egiaz, Europaren ideia-aldetik onena.

Le Goff-ek dioen bezala, Europaren geografia bereziak “ez zuen inposatzen Europa kontinentea indibidualizatzea”. Kostek ezin hobeto bereizten dituzte Afrika eta Hego Amerika; Europa, berriz, ez da “asiar kontinente izugarriaren muturra baino”, eta “gaur egungo Errusiaren estepetan, Asia Txikia Eufratesen eta Tigrisen haranetatik bereizten duten goi-ordokien eremu lausoan ateratzen da Europa Asiatik”. Eta, hala ere, geografia zehatza ez izan arren (edo, agian, horregatik), Europa balioen espazio gisa zehazten hasi da, bereziki, Mendebaldeko erromatar Inperioa berrantolatu ondoren, bi gertakari nagusi azalratzean. Lehena, botere politikoa eta botere erlijiosoa bereiztea, botere teokratikoa arbuizatzea. Eta bigarrena, “Kristautasuna eta erresuma kristauak sortzearen ondorio den nahaste etnikoa: zelta germaniarrei, galiar-erromatarrei, ingeles-erromatarrei, italiar-erromatarrei, iberiar-erromatarrei eta judutarrei normandiarrak, eslaviarrak, hungariarrak eta arabiarrek batu zitzaizkien, immigrazio-olatuak irekitako Europa bat adierazten zuten akulturazioen bidez: kultura-aniztasunaren eta mestizajearen Europa”.

<sup>1</sup>Huizinga, J. (2007). *Entre las sombras del mañana*, Península, Bartzelona [e.o. 1935]

<sup>2</sup>Le Goff, J. (1995). *La vieja Europa y el mundo moderno*, Alianza Editorial, Madril.

<sup>3</sup>J. M. Ridao-k Le Goff-en testuaren irakurketa kritikoagoa egin zuen: *La paz sin excusa*, 2. kapituluak, Tusquets, Bartzelona 2004.

Ez naiz hasiko epaitzen zenbateraino den egia historikoa edo protesta-kontakizuna Le Goff-ek<sup>3</sup> Europari buruz proposatzen duen ikuspegia. Haren ikuspuntuak gogoeta egiteko balio dit, immigrazioak europar proiektuari dakarkion oinarrizko erronkei buruz. Le Goff-ek berak Europaren bi gaixotasuntzat jotzen ditu erronka horiek, eta badute loturarik elkarren artean: beren estatu-xedea bete ezin izan zuten “itotako abertzaletasunen” anakronismoa, “Europari kalte egiten dioten abertzaletasunena, nazioen Europa bukatu aurretik irauteko arriskua duen desoreka bat”; eta arrazismoa eta bazterkeria berriz agertzea: “askotan nazismoa gogorarazten duten eraso xenofoboekin adierazten dira batzuk; tamalez, besteak gobernuek erabakitzen dituzte, immigrazio geldiezin baten aurrean, eta gobernu horiek berriro aurkitzen dute ixteko eta atzera egiteko europar logika zaharra”.

### Europaren bigarren bahiketa

Greziar sortze-mitoaren arabera, Europaren historia Zeusek –jainkoen eta gizakien aitak– Europa bahitu ondoren hasi zen; gaur, historia hori bukatzeko arriskuan dago, bigarren bahiketa baten ondorioz: oraingo honetan Fobo litzateke bahitzailea, Afrodita eta Aresen seme gaztea den jainko hura, greziar panteoian beldurra irudikatzen duena.

Tony Judt historialariak, 2005ean, George W. Bush-en Estatu Batuetako bereizgarri den abertzaletasun beligerantearekin alderatu zuen Europar estatu-arteke eta mugaz zeharkako gobernu-eredu bat eraikitzeke prozesua. Orduan, Judt-ek baiesten zuen europar estrategia hori dela gure kontinentea, mundu globalizatu batean, funtsezko eragile politiko bihurtuko duena, eta, Jean-Marie Guéhenno NBEko bake-operazioetarako idazkari nagusiaren hitzetan, mundu globalizatu horretan, “gure muga geografikoetan lasaitasuna galdu ondoren, berriro aurkitu behar dugu zerk lotzen dituen erkidego bat osatzen duten gizakiak”. Judt-en ustez, europarrak hasita zeuden lotura hori berraurkitzen eta nazioarteke erkidego moduko bat osatzeko erabiltzen:

Europarrak hasi dira gizakien artean lotura bat sortzen, antzinako mugak gainditzeko eta forma instituzional berri horiek egiaz erkidego bat izateko. Ez dira beti oso ondo aritzen, eta, arlo askotan, oraindik nostalgia nabarmena dago muga-toki zahar horienegatik. Baina hobe da hori, ezer ez izatea baino, eta ez dugu ezer izango onartzen badugu 1945etik hona sortutako hitzarmen hauskor, itun, agentzia, lege eta nazioarteke erakundeek nortasuna galtzea eta gainbehera egitea –edo, are okerrago, berariaz elkar saboteatzea–. Gaur egungo egoeran, europarrak dira gehien aurreratzen ari direnak mugak gainditzeko eta erkidego bat sortzeko. Estatu Batuak harrapatuta daude berriro, Tocquevillek esan bezala, “beti euren buruari txaloka”, eta ez dira saiatu ere egiten<sup>4</sup>.

Baina hori 2005ean zen. Gaur, Barack Obamak sostengua kapitalizatzen du, Osama Bin Laden aurkitu eta hil ondoren, migrazio-erreforma proposamenari (agian dokumentaziorik gabeko 11 milioi etorkin legeztatuko dituenari) bultzada berri bat emateko, Ordezkarien Ganberako gehien-go errepublikarraren aurka. Europak –Mark Mazower-ek deskribatzen duen *Europa beltz*, antiliberal, abertzale eta autoritarioak<sup>5</sup>–, berriz, bere alderdirik txarrena erakutsi du, eta eztabaida

<sup>4</sup>Judt, T. (2005). “Europe vs. America”, *The New York Review of Books*, February 10; gaztelaniaz honako izenburu honekin argitaratua: “La buena sociedad: Europa frente a Estados Unidos”, *Sobre el olvidado siglo XX*, 23. atala, Taurus, Madril.

<sup>5</sup>Mazower, M. (2001). *La Europa negra*, Ediciones B, Bartzelona.

politiko eta sozialaren osagai zentral bihurtu ditu immigrazioa eta harekin lotutako prozesuak (gizarte-konplexutasuna eta aniztasun kultural eta erlijioso handitzea).

Egiazko Finlandiarrek (*Perussuomalaisten puolue*) arrakasta harrigarria izan zuten<sup>6</sup> 2011ko apirilaren 17an Finlandian izandako legegintza-hauteskundeetan; egun hartan bertan, Frantziako gobernuak erabaki zuen Italiatik zetozen trenen zirkulazioa moztea, 60 ipar-afrikar haien lurraldean sartzea saihesteko –gehienak tunisiarrak eta libiarrak, jatorrizko gizarteetako gatazketatik ihesi, Lampedusara iritsiak–; Danimarkako gobernuak, oposizioko Daniar Herriaren Alderdi (*Dansk Folkeparti*) eskuindarrarekin ados, mugetako aduana-kontrolak berrezartzea erabaki zuen, Schengen espazioa eta Europar Batasunaren barruko zirkulazio askearen printzipioa zalantzan jarritz... Hiru gertakari horiek –oso larriak– desbideratu egin dira eta, desbideratze horrek, berria ez izan arren<sup>7</sup>, tamaina bereziki kezagarria hartu du.

2010eko udan, Europako Kontseiluak “Group of Eminent Persons” bat izendatu zuen, Alemaniako kanpo-gaietako ministro ohia –Joschka Fischer– presidente izanik eta Emma Bonino edo Javier Solana bezalako pertsona ospetsuez osatua; haien mandatua txosten bat egitea zen, Europar intolerantzia eta diskriminazioa<sup>8</sup> berriro agertzeak dakartzan erronkei buruz. Txostena joan den maiatzaren 11n aurkeztu zuen Istanbulen, Kontseiluko ministerio gorena zela eta, eta, haren arabera, Europa hainbat mehatxuren mende dago: hazten ari diren intolerantzia eta diskriminazioak (bereziki errumaniarren, musulmanen, etorkinen eta egoitza-eskaleen aurka), alderdi xenofobo eta populistek gero eta jarraitzaile gehiago izatea, ia eskubiderik ez duten migratzaileen biztanleria, erkidego “paralelo”etako kideek ia parterik ez hartzea inguruan duten gizartean, muturreko islamismoa, askatasun demokratikoen galera, eta adierazpen askatasuna murrizteko saiakerak, erlijio-askatasuna defendatzeko ustezko interesa dela eta (Rushdie kasua edo Mahoma-ren karikatura daniarrak).

Egoera horren atzean egon litezkeen arrazoen artean, txostenak honako hauek aipatzen ditu: biztanleen ziurtasunik eza, finantza-krisia dela eta; izari handiko immigrazioaren pertzepzio desorekatua; iritzi publikoan eta hedabideetan agertzen diren gutxiengo estereotipo negatiboak; eta Europaren oraina eta etorkizuna eratzeko lidergo-defizita. Txostena Kontseiluko kide diren estatuei zuzendutako 17 printzipioren proposamenarekin bukatzen da, eta europar guztiak bultzatzen ditu “Europara iristen diren egoitza-eskaleak eta etorkinak era justu eta gizatiarrean tratatzera, behar den elkartasuna agertuz eta pisua estatu kideen artean banatuz”, eta Europako Kontseiluari eta EBri eskatzen die “elkarrekin lan egin dezatela helmen handiko immigrazio-politika bat sortzeko, koherentea eta gardena Europa osorako eta, aldi berean, eskua luza diezaietela Ekialde Hurbileko eta Afrika Iparraldeko bizilagunei, europar erakunde eta hitzarmenetan estatus egokiarekin parte hartzeko aukera emateko.

<sup>6</sup>Oraintsuko analisiek zalantzan jartzen zuten alderdiak hauteskunde orokorretan izango zuen erakargarritasuna, eremu jakin batzuetako protesta-botoetatik haratago, eta horiek europar hauteskundeetan islatzen dira (D. Arter, “The Breakthrough of Another West European Populist Radical Right Party? The Case of the True Finns”, *Government and Opposition*, 45(4), 2010: 484-504).

<sup>7</sup>Betz, H.-G. (1994). *Radical Right-Wing Populism in Western Europe*, St. Martin Press, New York.

<sup>8</sup>Council of Europe Eminent Persons' report, *Living Together: Combining diversity and freedom in 21st-century*, [http://www.coe.int/t/dc/files/source/20110511\\_Report\\_GEP\\_en.doc](http://www.coe.int/t/dc/files/source/20110511_Report_GEP_en.doc). Gaztelaniazko sintesia honako artikulu honetan aurki daiteke: “La convivencia en la Europa del siglo XXI”, *El País* 2011-5-7. [http://www.elpais.com/articulo/opinion/convivencia/Europa/siglo/XXI/elpepiopi/20110507elpepiopi\\_4/Tes](http://www.elpais.com/articulo/opinion/convivencia/Europa/siglo/XXI/elpepiopi/20110507elpepiopi_4/Tes)

Gomendio horiek behartu egiten gaituzte txostenak gaur egungo egoeraren eragiletzat jotako batera bueltatzera, Europaren atzeraldira, askatasunei, tolerantziari, elkartasunari eta berdintasun-xedeari dagokienez: lidergo-defizitera. Europar proiektua sortzeko egiazko konpromisoa duten lidergo politikoak behar ditugu, lamien kantuei aurre egiteko gai direnak, bai “egiazko finlandiarren” baieztatze etnizistak (edo frantsesenak, edo espainiarrenak, edo alemaniarrenak...) eta bai “denok ez gara hemen sartzten” adierazpen populistak agertzen duten birnacionalizatzearan. Izan ere, José María Ridaok dioen bezala, “erkidego-proiektua aurrera eramateko birnacionalizatzetzat jotzen dena aukeratu badute gaur egungo europar gobernuak, zer du arraroa muturreko eskuina korronte horren buruan jarri eta begi-bistakoa dirudiena exijitzeak, behin premisak onartu ondoren? Hots, ahalik eta azkarren iristea premisak halabeharrez garamatzaten azken estadiora?”<sup>9</sup>.

Harvardeko irakasle eta ikertzaile Pippa Norris-ek dioen bezala, muturreko alderdi eskuindarrak garaile diren tokietan, “onarpen-eremu gisa ulertzen dutena hedatzen dute, eta beste batzuek bide berbera jarraitzen dute geroagoko hauteskundeetan”<sup>10</sup>. Egia esan, ez da beharrezkoa alderdi horiek hauteskundeetan garaile izatea ere: “Hauteskundeak irabazteko gai ez den muturreko eskuinak, beti minoritarioa den muturreko eskuinak bere konponbideak inposatzen ditu paradokiko; izan ere, azken batean, bere analisia inposatzea lortu du, hots, errealitateari buruz egiten duen irakurketa”<sup>11</sup>.

Hauxe da arazoa: ez dagoela lidergo politiko boteretsurik mezu eta proposamenen onarpen-eremuan sartzeari uko egingo dionik. Mezu eta proposamen horiek beldurrean, mesfidantzan eta erresuminean oinarritutako hauteskunde-demoskopia batek bultzaturikoak baitira, eta eraso egiten diote Europa liberal, sozial eta demokratikoaren oinarriari. Izan ere, muturreko eskuinaren analisi horren aurka argi eta garbi agertzen ez den orok haren normalizazio sozialari laguntzen dio.

### Europa, *città aperta*

Lerro hauek idazten nituen bitartean, SER katean Henning Mankell idazle suediarri egiten ari zitzaizkion elkarrizketa bat entzun nuen. Elkarrizketaren une batean, Mankellek esan zuen immigrazioari buruz galdetzen diotenean konponbidea Afrika eta Gibraltarren artean zubi bat eraikitzea izango litzatekeela erantzuten duela.<sup>12</sup>

Ez da berehala praktikan gauzatu daitekeen proposamen bat, eta, hortaz, ez da konponbide bat. Baina bada Europa zubi gisa irudikatzeke izaera sakona aldarrikatzeke modu kitzikatzaile bat, eta ez hesi gisa; betirako irekita egongo den proiektu gisa, eta ez betirako itxita dagoen eraikin gisa; geografia lauso eta zehaztugabe gisa, eta ez lurralde mugatu gisa; irekidura gisa, eta ez itxiera gisa:

<sup>9</sup>Ridaok, J.M. (2004). *Weimar entre nosotros*, Galaxia Gutenberg/Círculo de Lectores, Bartzelona.

<sup>10</sup>Norris, P. (2009). *Derecha radical*, Akal, Madril.

<sup>11</sup>Ridaok, *Ibid.*

<sup>12</sup>Elkarrizketa maiatzaren 14an egin zen “A vivir que son dos días” programan, Montserrat Domínguez-ek zuzenduta. [http://www.cadenaser.com/cultura/audios/henning-mankell-libro-tiene-musicalidad-mierda/seresc/20110514csrscrcul\\_9/Aes/](http://www.cadenaser.com/cultura/audios/henning-mankell-libro-tiene-musicalidad-mierda/seresc/20110514csrscrcul_9/Aes/)

Azkenik praktikan gauzatutako Europa baten ideiak, benetako mugak aurkitu dituenarenak, ez du zentzurik. Europaren ideia desagertu egingo litzateke haren eraikuntza gelditzeko momentuan, Europa ez baita fase historiko bat baino, etapa bat; baina, hala ere, etapa horrek ez garamatza zuzenean munduko gobernu baten utopia laburbiltzaile eta totalitario batera. Eta horrek aukera ematen digu, apaltasunez, mundu globalizatu bat kontrolpean izateko kudeatze-modu bat izateko eta, mundu horretan, zenbait “tarteko erakunde” banako zehatzen eta globaltasun abstraktuaren artean jartzeko, oreka lortzea ahalbidetuz, unibertsalaren existentzia etikoaren eta destino hobe baten helburu politikoen artean. Izaera zehatza duen erakunde politikoen onarpen hori Europaren eta bere mugen memoria historikoak sortu du, eta gure askatasunaren eta europar proiektu politikoen<sup>13</sup> funtsa izan behar da oraindik ere.

Hori lortzeko, *Manifeste pour un nouveau “nous”*-en –2006an Tariq Ramadan-ek<sup>14</sup> proposatua– esaten den bezala, behar-beharrezkoa da biztanleria konfiantzan eta leialtasun kritikoa oinarritzea eta “gu” berri bat sortzeko konpromisoa izatea; eta horretarako ezinbestekoa da “gu” hori mugiaraztea eta “epe luzera lan egitea, politikoak geldiarazten dituzten hauteskunde-helburuetatik haratago, horiek proiektu ausart eta berritzaileak eratzea galarazten baitute”. Izan ere, “hautatua irtenbiderik gabeko kale batean aurkitzen denean, ez duenean bere ideiak aurrera ateratzeko biderik, hautatzaileari dagokio –hots, herritarrari– bere gain hartzea ideiak lortzea ahalbidetuko dioten bideak”.

---

<sup>13</sup>Guéhenno, J.-M. (2000). *El porvenir de la libertad*, Paidós, Bartzelona.

<sup>14</sup><http://www.tariqramadan.com/Manifeste-pour-un-nouveau-Nous.html>. Gaztelaniaz T. Ramadan-en liburuan irakur daiteke, *Mi visión del islam occidental*, Kairós, Bartzelona 2011, II eranskina.





## Herritarrak eta mugikortasuna: Migrazioari buruzko ikuspegi bat etorkizunerako

Antonio Izquierdo Escribano  
Coruñako Unibertsitatea

Migrazioaren etorkizuna imajinatzeko, lehen-lehenik, hautatu egin behar dira subjektua, iragarri beharreko denboraren eszenatokia eta hausnartu beharreko eremuak. Eta hori guztia gaiaren testuinguru enpirikoan egin behar da eta ikuspuntu teorikoa hautatuz; hau da, egungo egoeraren interpretazioa aintzat harturik. Izan ere, errealitatea ikusten dena da, baina baita neurtzen dena eta azaltzen dena ere. Beste modu batera esanda, migrazioaren esparruan den guztia ez da hautematen, eta, orobat, agerikoa den guztiari buruzko daturik ere ez da lantzen eta, nola ez, kanpotarren dinamikari buruzko hainbat alderdi ez dira ulertzen. Adibide batzuk jartze aldera: ez da etorkinen bertakotzea ikusten, ez da bertakotuen botoa neurtzen eta ez dira azaltzen belaunaldien integrazioan dauden aritmiak. Horren guztiaren eraginez, etorkizunari buruzko ariketa zintzoa egingo badugu, zehaztu beharrean gara nori buruz ari garen, noraino imajinatzen dugun eta gerta daitekeenaren zerumuga horretan zertaz jardungo dugun.

Hau da testu honen oinarrian dagoen premisa enpiriko nagusia: etorkinen stocka ez da nabarmen murriztuko; hau da, ez da %10 baino gehiago beheratuko krisiaren hasieran egindako zenbaketarekin alderatuta. Bigarren tesia da denbora luzerako edo irauteko proiektuak nagusituko direla; edo, beste modu batera esanda, familiaren irudia nabarmenagoa izango dela. Eta aurrekoaren ondorioz, etorkinen inguruan egin beharreko lan behinena haiek gizarteratzea izango da, eta iristen diren etorkinei dagokionez, berriz, fluxu horiek arautzea. Hau da, etorkinek eskubide berdinak izan ditzaten lortzea eta immigrazioa kontrolatzea eta ez, aldiz, emigrazioa. Horixe izango da krisiaren ondorengo garairako eztabaida publikoa eta gizarte-eszenatokia.

*Subjektuari* dagokionez, lan munduan eta gizartean piramidearen beheko aldean dauden etorkinekin gerta daitekeenari buruz gogoeta egitera mugatuko gara. Edozein nazionalitatetakoak izanik ere egoera ahulean daudenak hartuko ditugu aintzat. Nolanahi ere, baztertzen dituztelarik, eragina izango dute beren itxura fisikoak, hizkuntzak, erlijioak eta diru eta erlazio aldetik duten ondareak. Esan genezake, hortaz, legean erabili ohi den terminologia baliatuz, hirugarren herrialdetatik iritsitako Batasunetik kanpokoez eta Batasunetik iritsitako “konbertituez” eta “berantiarrez” ariko garela. Jatorriz hirugarren herrialdetakoak izanik Batasuneko estatutu legala eskuratu duten etorkinei esaten zaie “konbertitu”, eta “berantiar”, berriz, errumaniar eta bulgariarrei nagusiki. Hau da, lau milioi eta lau milioi eta erdi atzerritar artean izango ditugu kontuan, estatistikako zer erreferentzia hartzen dugun, gurean bizi direnak edo erroldatuak. Etorkin gehienak, kanpoko langile eta adin txikiko eskolatu gehienak biltzen dira multzo horretan. Adina, gorana-

hia eta determinazioa aintzat harturik herrialde honen etorkizunerako benetan garrantzia dutenak. Etorkinaren kontzeptu hori hartuko dugu aintzat lan honetan, baina krisiaren ondoren ez da hori izango iraungo duen kontzeptua. Horren gainean, testuaren amaieran aterako ditugu ondorio batzuk.

*Denborari* dagokionez, uste dugu atzeraldiaren amaieran etorkinen stocka 2008ko antzekoa izango dela, krisia hasi zen garaiko kopuru bertsua, eta etorkinen familia izango dela irudi nagusia. Beraz, krisiaren ondoren ez da atzerriko biztanle gutxiago izango, baina bai emakume eta adingabe gehiago, biztanle aktibo eta ikasle gehiago, gurean bizi eta erroldatu diren atzerritar gehiago. Eta, batez ere, familia gehiago izango da; hots, produkzioan eta ugalketan jardungo duten pertsona gehiago, zerbitzuak eta eskubideak eskatuko dituzten lagun gehiago. Horrenbestez, etorkinen komunitateak egiturazko datua izango dira jada, behin betiko gainera; eta, aitzitik, immigrazio-fluxuak aparte eta bereizita hartuko dira kontuan bizitza publikoan. **Etorkinak gertara soziologikoa izango dira eta immigrazioa gai politikoa.** Guztiok argi bereiziko ditugu bizikidetzaren eta komenigarritasuna; hau da, kanpotik iritsitako herritarrak, batetik, eta atzerriko langile etorkinak, bestetik; komunitate kulturala, alde batera, eta lanerako eskaria, bestera. Besteak beste, iragarpen horren arabera, Espainiako ekonomiak ez dituelako beharko langile asko, bestelako lan-indarra baizik.

XXI. mendeko lehen hamarkada hartuko dugu oinarri *gogoetarako eremuak* hautatzeko; izan ere, XXI. mendearen lehen hamarraldian gertatutakoa munta handikoa izan da, krisiaren ondorengo etorkizuna, hein handi batean bederen, baldintzatzeko beste. Bestalde, eta Magreben gertatzen ari denari erreparatuta, zuhurtziaz onartu beharrean gara ezin dugula aurreikusi krisi globalaren amaieran migrazio-fluxuek zer bilakaera izango duten, ez eta jatorri berriek zer garrantzi hartuko duten ere. Horrenbestez, zuhurragoa da etorkizun hurbilera mugatzea. Eta epemuga horretan, etorkinak etorkizun hauxe du funtsean: egoera ahulean eta baztertzeko arriskuan dauden familia. Funtsean, diogu, badirelako ausazko beste etorkizun batzuk. Beste modu batera esanda, **Espainia, immigrazioa jaso duen herrialdea den aldetik, mendeko eta behin-behineko eskulanaren ereditik egoera ahulean dauden familien eredura igaro da.**

Beraz, hasteko eta behin, gurean sartu eta finkatu diren etorkinek zer bilakaera izan dezaketen argitzen ahaleginduko gara. Ondoren, bilakaera nazionalaren testuinguruan aztertuko dugu etorkinen multzoa. Eta, azkenik, etorkinen jatorrizko herrialdeek zer bilakaera izan dezaketen aurreikusten saiatuko gara, baina eskueran ditugun herrialdeetako baina ez; hau da, aurrez gurera iritsi diren etorkinen herrialdeetakoak. Hitz gutxitan, integrazioari eta fluxuei buruz jardungo dugu; hots, etorkinei eta immigrazioari buruz. Hori guztia Espainian eta krisi gordin eta luzeak bertako biztanleen ia erdia eta kanpotarren bi heren kolpatu dituen honetan. Nolanahi ere, badakigu, jakin, krisi handi horrek ez diela berdin eragiten espainiar guztiei, eta horixe bera gertatzen dela etorkin atzerritarrekin ere.

## Integrazioaren zutabeak

Migrazioaren eraikina eusten duen zutabe nagusia **familia etorkina** da. Eta bere ondare sozial eta kulturalak baldintzatuko familia non eta nola egokituko den gizartean. Izan ere, immigrazio gehien-gehiena azken hamarraldian iritsi da gurera eta etorkin horiek epe horri loturiko ekonomia-zikloa bizi izan dute. Alde horretatik, familiaren bilakaerak eragin handiagoa izango du aurrean duten integrazio-prozesu luzean immigrazio-uneak berak baino. Horren arrazoia da

Europar Batasunetik kanpoko etorkin gehienei lanerako ia aukera bertsuak eskaini dizkiela gizarteak eta oso alde gutxi benetako eskubideei dagokienez. Mendeko lanak eta oinarrizko eskubi-deak. Garaia eta esperientzia soziala oso antzekoak izan dira. Gurean egin duten denboran biez augarri hauek azpildu dute gure gizartea eta kultura: higiezinaren espekulazioak eta diruaren nagusitasunak.

Jatorriaren eta esperientziaren arabera familia biltzeko hainbat maila daude, baita hainbat familia mota eta neurri ere. Kasurik gehienetan (hamarretik zazpitan, zenbait kalkuluren arabera), familiaren muina finkatuta dago jada Espainian, baina oraindik ez dago argi krisiak familiaren osakeran zer ondorio izan ditzakeen. Adierazle batzuen arabera, Espainian familia gehiago dauden heinean, hobeto ari zaio eusten krisiaren astinduari. Beste zenbait adierazleren arabera, ordea, krisiari aurre egiteko eta nola edo hala bizirauteko estrategietako bat da ezkontide edo seme-alabetako bat jatorrizko herrialdera bidaltzea. Horrenbestez, irteerei buruzko datuei erreparatuta ezin dugu ziurtatu zein ari diren joaten eta zein sartzen. Eta, batez ere, ezin dugu ziurtatu zer familia-molde sendotuko diren etorkizunean. Aitzitik, ziur esan dezakegu familia oinarri duen gizarte honetan, familiarik ez dutenek, hausten edo galtzen dutenek, arrisku handiagoa dutela baztertuak izateko.

Eta, hein handi batean, hauek izango dira bizikidetzaren baldintzatuko duten oinarriak: gurean finkatutako etorkinen **lan-ibilbidea**, auzoka non kokatzen diren eta seme-alaben hezkuntza aldetiko integrazioa. Lanik premiazkoena da biztanle aktiboaren eta bereziki lanik gabe dauden milioi erdi lagunen lan-gaitasunak birkalifikatzea. Helburua litzateke, nolabait esatearren, lan-zokotik okupazio-mailara igarotzea eta ezkutuko ekonomiatik onartutako jarduerara. Beste modu batera esanda, eraikuntzatik zerbitzuetara igarotzea, dituzten gaitasunekin lotuago dauden lanpostuetara. Horretarako, beharrezkoa da langabeak lanerako prestatzea, tituluak eta eskuratutako gaitasunak modu formalean aintzat hartzea eta laneratzean gertatzen den bazterketa etnikoa zigortzea. Horrek guztiak nolabaiteko aldaketa ekarriko luke lan-munduan gaur egungo egoerarekin alderatuta. Krisi luzearen ondoren ez da auzitan jarriko etorkinek ekonomian duten zeregina, ez eta produkzioan egiten duten ekarria ere, eta, beharbada, ezta ongizaterako duten eskubidea ere. Hain izango da gogorra frogara, iraunez gero, leku bat irabaziko baitute gizartean.

Nola doakien guraso etorkinei eta, areago, zer tratatu ematen zaien, horrek baldintzatuko du seme-alaben hezkuntza eta batez ere gizarteratzea. Izan ere, norberaren gaitasunak onartzen eta ekarriak aintzat hartzen diren tokian integratzen da bat. Aukeren aldetik bazterketarik jasotzen ez duen lekuan. Eszenatoki demokratiko horretan, batzuen eta besteen arteko aldeak onartu eta errespetatu eta jokabide arrazistak zigortzen diren eszenatoki horretan, gurasoek esker ona transmitituko dute eta seme-alabek mira sentituko dute berdintasuna, askatasuna eta herritartasuna eskaini dizkien herrialdearekiko. Etorkinak, bertakoak bezalaxe, miresten dituen balioak egiten ditu bere eta etorkizuna lantzeko bideari ekiten dio etorkizun hori irekia eta itxaropentsua hautematen duenean. Izan ere, hala bazterketa nola integrazioa belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira.

Puntu horretan badira bi eremu funtsezkoak: **hezkuntza-sistema** eta hiriko bizikidetzaren. Seme-alabak hezkuntza-sistema horretan baztertzearen ondorio dira hezkuntza-karrera motzak eta eskolako emaitzak txartzea. Bazterketa horren adierazle lirateke, adibidez, etorkinen seme-alabak unibertsitatez kanpoko ikasketetara behartzea, ulermen aldetik gutxiago direlako aurreiritzia eta kultura-aniztasunak berez dakarren sormena gutxiestea. Haien gaitasunak gutxiesten baditugu gizarteak galera handia izango du. Komeni da kontuan hartzea guraso gehien-gehienek erdi mailako ikasketak dituztela, eta seme-alabek, progresioari jarraitzekotan, goi-mailako ikasketak egin

beharko lituzketela. Ondorengoek aurrekoen prestakuntza hobetzea lortzekotan, etorkinen %20k baino gehiagok goi-mailako titulua lortu beharko lukete eta lehen mailako ikasketak dituzten etorkinak %30 baino gutxiago izan beharko lukete. Gainerakoan, datuek adieraziko lukete ondorengoan prestakuntza ez dela hobetu. Eta, hezkuntzan aurrera egiteak, ekarriko du ezkontza mistoak ugartzea eta politika mailan herritar moduan jokatu ahal izatea. Hezkuntza aldetik zenbat eta jantziago izan, orduan eta estuagoa da demokraziaren eta etnien arteko uztartzea. Hezkuntza tresna funtsezkoa da herrialde baten gizarte- eta kultura-oinarriak eta gizarte-harremanak hobeto menderatzeko.

Etorkinak **hirietan eta auzo jakinetan bizi eta kontzentratzeari** dagokionez, udal gobernuen eginkizuna ez da kultura arlokoa, berdintasunezkoa baizik. Kanpotarren komunitateak sakabanatzea eta bertako biztanleekin lurraldean nahastea baino, garrantzitsuena da auzoetan zerbitzu publikoak eskaintzea eta guztiek partekatzen dituzten eremuetan erlazioen kalitatea bermatzea. Izan ere, kontzentratzea gertaera sozial bat da, baita iritsi berriaren erreakzio kulturala ere, etxebizitzaren eskaintzaren mende baitago. Aldiz, bizilekuz aldatzeak mugimendu bat adierazten du, behetik gorakoa zein goitik beherakoa, lan-ibilbideari eta familia-osaerari loturik. Seguru asko, krisiak aurrera egin ahala, immigrazioaren hedapena hiri ertainetara iritsiko da eta probintziara barreiatuko. Gainera, administrazioen arteko maila guztietako tentsioak areagotu egingo dira. Eskumenak lortzeko lehia eta estatuko gobernuari eta autonomia-erkidegoetako tokian tokiko berezitasunak gainetik ezartzea izango da joera. Integrazioa eta migrazioak dakarren aberastasunaren aprobetxamendua erkidegoek eta udalek hartuko dute. Balantze egiaz inportantea eta esanguratsua ez da estatukoa izango.

### Immigrazioa hartu-eman sozialean

Hartu-eman sozialak hizpide ditugula; hots, etorkinek bertakoekin dituzten harremanen trinkotasuna aztergai dugula, gaude bilakaera desberdina izango dela komunitate etnikoaren arabera, eta horretan zerikusirik handia izango du bertakoek zer harrera egiten dieten etorkinei toki eta testuinguru bakoitzean. Seguru asko, komunitate etnikoen baitan ere aldeak areagotu egingo dira, ekonomia, gizarte, politika eta kultura mailako krisiaren ondorioz. Etorkinen lau talde nagusiak (errumaniarrak, marokoarrak, ekuadortarrak eta kolonbiarrak) oso heterogeneoak dira, eta, orobat, Asia, Europa eta Amerikatik iritsitako neurri ertaineko gainerako komunitateetan ere nabarmena da barne-aniztasuna. Horra, beraz, ikertzaileek lehenetsi beharreko lana hurrengo hamarraldietan integrazioaren bilakaera zein izango den jakiteko: heterogeneotasun eta aniztasun hori aztertzea. Behin fluxuak baretzen direnean eta haien gizarte-profila eta jatorria aldatzen denean, garrantzitsuena da komunitate bakoitzaren barne-bilakaerari jarraitzea, gizartearen zenbateraino errotzen diren aztertzea.

Barneko heterogeneotasun hori etengabe hartu-emanen dago hiri eta eskualde bakoitzeko produkzio-sistemeekin (toki batzuetan industriak du indar gehiago eta bestetan zerbitzuen arloak), eta horrek hainbat lan aukera sortuko ditu, eta mugimendua ere bai okupazio aldetik. Laneko hizkuntzak eta enpresa-kultura motak egingo du gainerakoa. Itxura batean, argi dago immigrazio agerikoena integartzeko bide horretan eragin handiagoa izango duela gizartearen bazterketak edo onarpenak, etorkinen beren lanerako gaitasunak eta prestakuntzak baino. Hipotesi horretan, Marokoko immigrazioarena begitantzen da paturik makurrena. Nolanahi ere, immigrazio horren baitan, edo Pakistango, Errumaniako edota Boliviako immigrazioaren baitan, hiru kontinentetako eta neurritako taldeak aipatze aldera, aldeak izango dira, familiak eta komunitateak

pilatutako ondarearen baitan, bai eta hartzaileen testuinguruan krisiak sortutako gizarte-aldaketan ondorioz ere. Gizarte eta politika aldetik kontserbatzaileagoak diren inguruetan eta ekonomia aldetik egitura atzeratuagoa dutenetan, etorkinek nekezagoa izango dute gizartean eta lan-munduan integratzea komunitate bereko etorkinek beste eremu batean izan dezaketena baino. Hitz batean, marokoarren komunitateak Bartzelonan eta Murtzian izango duen bilakaeran, seguru asko, alde nabarmenak izango dira.

Ondorioz, etorkinaren gizarte-kontzeptuan aldaketak izango dira eduki aldetik. Gurean finkatu den immigrazioaren heterogeneotasuna aintzat harturik, etorkin talde jantzienak eta gutxien ikusten direnak nahasi egingo dira bertako gizarte-maila ertainen artean eta, hamarkada bat edo biko epean, etorkin horiek normalizatu egingo dituzte beren harreman eta elkarreraginak. Aldiz, gizartean gutxietsita dauden etorkinak krisiaren azpian zanpatuta geratu diren bertakoekin nahasiko dira eta pobrezian eta bazterkerian zokoratuta geratuko dira. Beste modu batera esanda, Latinoamerikako eta Europako klase ertainek bi norabide har ditzakete. Bat da bertakoekin erabat nahastea, gizarte eta kultura aldetik guztiz bertakotzea. Eta beste bidea da beren komunitatea zuzenduko duten nukleo moduan egituratzea. Lehen bideak asimilazioa du oinarrian eta bigarrenak kulturartekotasuna eta kultura-aniztasuna. Faktore honek baldintza dezake krisian irabazle ateratzen direnek hartuko duten bidea: beren komunitatean galtzaileak zenbat diren.

Gizarteko nahaste edo diluzio horrekin batera “arrazari” lotuko zaizkio iritzi publikoa eta batez ere egitura klasistako segmentu bakoitzaren gizarte-harremanak. Afrikarren eta asiarren bizikidetza komunitatetan antolatuko da lehenbizi eta, ondoren, poliki-poliki, kultura-arteke bihurtuko da. Lan-munduan egoera ahulenean edo kultura aldetik urrunen dauden etorkinen ahultasun sozialaren eraginez etorkin horiek komunitatean bilatuko dute indarra eta, ondoren, aukera handiagoarekin saiaturiko dira komunitate nagusiekin bizitzen eta negoziatzen. Kulturen arteko gatazka nagusitu egingo da, oro har, gizarte-harremanetan, eta, horrenbestez, desberdintasunaren pertzepzioa “arrazializatu” egingo da, eta agerikoa nagusitu egingo zaio gizarte-desberdintasunari. Arraza-salbuespen aberatsek gizarte-segmentuen arteko distantzia fisikoa eta kulturala areagotu baino ez dute egingo. Itxura fisikoa, ilearen eta larruazalaren kolorea eta hitz egiteko azentua gainezarriko zaizkio klaseari. Kontsumoak eta ikusgaitasunak, biek eskutik, desberdintasun soziala eta kulturala ekarriko dute. Lanak eta presentziak, berriz, gizarte-hierarkia eta onarpen segmentatua eragingo. Gizarte-klase bakoitzak bere etorkinak izango ditu eta onartuko ditu. Eta harrerako ingurune bakoitzaren arabera gutxiago edo gehiago arrazializatu eta atzeratuko da desberdinen integrazioa.

### Migrazioaren jatorriak

Fluxuen jatorriari eta osaerari dagokionez, etorkizuna magrebtarrena da. Latinoamerikako eta Europako jatorriek ere lehentasunezko izaten jarraituko dute Espainiako herritarren artean, baina jatorri horien fluxuek ez dute XXI. mendearen lehen hamarraldian izan duten besteko indarririk izango. Komunitate horien neurria aldatu egingo da eta modu iraunkorrean onartutako etorkinen multzoa hazi egingo da. Latinoamerikako herritarrak etorriko dira ikastera eta lanpostu kualifikatuetan lan egitera, baina etorkinaren kontzeptu publikoa etnikoa eta kulturala izango da; izan ere, Europar Batasuneko “atzeko patioan” dago erronka. Orain arte Ipar Afrikako fluxuei eutsi egin zaie tiraniazko harresi bat bermatuz. Noiz arrailduko harresi hori, noiz zartatuko horma, eta EB aspaldiko egoera ekonomiko, politiko eta kultural okerrenean dagoen honetan, gure bizilagui-

nen demokrazia eta garapena laguntzeko unerik txarrean. Nazioarteko immigrazio-politika nazionalizatu egingo da berriro.

Fluxuak erregulatzeko politiken artean gaur egun babes gehien duena da, hain zuzen, kaltegarriena bizikidetzarako eta desegokiena garapenerako. Kanpoko eta barneko mugak gotortzea da politika horren funtsa. Afrika iparraldean politikan eta ekonomian gertatzen ari diren aldaketei bizkarra ematea eta eskulan kualifikatua eta kulturalki hurbilekoena eskuratzeko lehiatzea. Gaur egungo ikuspegia aintzat harturik, beraz, ez dirudi Europako Hegoaldearen eta Magreben artean pertsonen mugikortasunerako zubirik bultzatuko eta antolatuko denik. Nolanahi ere, etorkizun hori ez da ezinezkoa. Bereizi egin beharko lirateke premiazko migrazioak, nekazaritzara lanera datozenen edo behartsuenen migrazioak, eta ikasle eta etorkizuneko elite politiko eta ekonomikoak. Baina, orobat, lanbide eta lan kualifikatuetara finkatzeko asmoarekin datozen etorkinentzako kanal bat ere zabalduz. Azken batean, immigrazioaren etorkizuneko eszenatoki horretan bereizi egingo dira lanera eta ikastera datozenen mugimendua eta immigrazio kualifikatua eta herritartasuna lortzekoa. Honaino, beraz, etorkizun imajinaezinari aurre hartzeko ariketa zuhurtziarik gabea; irakurleak, zuhurtasun eta juzku handiagoz, jakingo du ikuspegi hori haztatzen.









